

eu 2010.es

Europar Batasunaren Tratatuaren
eta Europar Batasunaren
Funtzionamenduari buruzko
Tratatuaren bertsio kontsolidatuak
(Europar Batasunaren Oinarrizko
Eskubideen Gutuna ere atxikita dago)

Europar Batasuneko Kontseiluaren Espainiako
Lehendakaritza dela eta egindako edizioa
(2010eko lehen seihilekoa)



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE POLÍTICA
TERRITORIAL



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Nafarroako
Gobernua

Lurralde Politikarako Ministerioak Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoak emandako laguntza eskertzen du

Madril, 2010

Babestu ingurumena. Ez inprimatu beharrezkoa ez bada

Diario Oficial de la Unión Europea deritzonaren edizio inprimatuan argitaratutako Europar Batasuneko legeintza-testuak bakarrik hartuko dira benetakotzat

Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoak Eur-Lex EBko zuzenbidearen atarian argitaratutako gaztelaniazko jatorrizko ediziotik itzulia: © <http://eur-lex.europa.eu/>, *Versiones consolidadas del Tratado de la Unión Europea y del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea eta Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea*

Euskararako itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP/HAEE) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bitartez

Nafarroako Gobernuak onetsi du itzulpen hau

Argitalpen ofizialen katalogo orokorra:

<http://www.060.es>

Lurralde Politikarako Ministerioko Idazkaritza Nagusi Teknikoaren argitalpenen katalogoa:

<http://www.mpt.es/publicaciones.html>

Maketazioa: Grafo, S. L.

Argitaratzailea: Lurralde Politikarako Ministerioa

Idazkaritza Nagusi Teknikoa

NIPO: 830-10-028-X

D.L.: BI-3084-2010

AURKIBIDEA

Orrialdea

Aurkezpena	XI
-------------------------	----

I. Europar Batasunaren Tratatuaren eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari Buruzko Tratatuaren bertsio kontsolidatuak (EBEO, C 83/01, 2010eko martxoaren 30ekoa)	1
---	---

1. EUROPAR BATASUNAREN TRATATUA	3
ATARIKOA	5
I. TITULUA XEDAPEN ERKIDEAK	6
II. TITULUA PRINTZPIO DEMOKRATIKOEI BURUZKO XEDAPENAK	8
III. TITULUA INSTITUZIOEI BURUZKO XEDAPENAK	9
IV. TITULUA LANKIDETZA INDARTUEI BURUZKO XEDAPENAK	12
V. TITULUA BATASUNAREN ATZERRI-EKINTZARI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK ETA ATZERRIARI ETA SEGURTASUNARI BURUZKO POLITIKA ERKIDEAREN GAINEKO BERARIAZKO XEDAPENAK	13
1. kapitulua Batasunaren atzerri-ekintzari buruzko xedapen orokorrak	13
2. kapitulua Atzerriari eta segurtasunari buruzko politika erkidearen gaineko berariazko xedapenak	14
1. atala Xedapen erkideak	14
2. atala Segurtasun- eta defentsa-politika erkideari buruzko xedapenak ...	19
VI. TITULUA AZKEN XEDAPENAK	21

2. EUROPAR BATASUNAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO TRATATUA	25
ATARIKOA	27
LEHENENGO ZATIA PRINTZPIOAK	27
I. TITULUA BATASUNAREN ESKUMEN-KATEGORIAK ETA EREMUAK	27
II. TITULUA APLIKAZIO OROKORREKO XEDAPENAK	29
BIGARREN ZATIA BEREIZKERIARIK EZA ETA BATASUNEN HERRITARTASUNA	30
HIRUGARREN ZATIA BATASUNAREN BARNEKO POLITIKAK ETA EGINTZAK	32
I. TITULUA BARNE-MERKATUA	32
II. TITULUA SALGAIEEN ZIRKULAZIO ASKEA	32
1. kapitulua Aduana-batasuna	33
2. kapitulua Aduanetako lankidetzak	33
3. kapitulua Kopuruak murrizteko debekua erkidegoko estatuen artean	33
III. TITULUA NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	34
IV. TITULUA PERTSONA, ZERBITZU ETA KAPITALEN ZIRKULAZIO ASKEA	36
1. kapitulua Langileak	36
2. kapitulua Kokatzeko eskubidea	37
3. kapitulua Zerbitzuak	38
4. kapitulua Kapitala eta ordainketak	39

	Orrialdea
V. ASKATASUN-, SEGURTASUN- ETA JUSTIZIA-ESPARRUA	40
1. kapitulua Xedapen orokorrak	40
2. kapitulua Mugetako kontrolei, asiloari eta immigrazioari buruzko politikak ..	41
3. kapitulua Arlo zibileko lankidetzak judiziala	43
4. kapitulua Zigor-arloko lankidetzak judiziala	43
5. kapitulua Polizia-lankidetzak	46
VI. TITULUA GARRAIOAK	47
VII. TITULUA LEHIARI, ZERGA-ARLOARI, ETA LEGEDIAK HURBILTZEARI BURUZKO ARAU ERKIDEAK	48
1. kapitulua Lehiari buruzko arauak	48
Lehenengo atala Enpresei aplikatutako xedapenak	48
Bigarren atala Estatuak emandako laguntzak	50
2. kapitulua Zerga-arloko xedapenak	51
3. kapitulua Legediak elkarri hurbiltzea	52
VIII. TITULUA EKONOMIARI ETA DIRUARI BURUZKO POLITIKA	53
1. kapitulua Ekonomia-politika	54
2. kapitulua Diruari buruzko politika	57
3. kapitulua Instituzioei buruzko xedapenak	58
4. kapitulua Diru gisa euroa darabilten estatu kideentzako berariazko xedapenak	59
5. kapitulua Xedapen iragankorrak	60
IX. TITULUA ENPLEGUA	62
X. TITULUA GIZARTE-POLITIKA	63
XI. TITULUA EUROPAKO GIZARTE FUNTSA	66
XII. TITULUA HEZKUNTZA, LANBIDE-HEZIKETA, GAZTERIA ETA KIROLA ...	67
XIII. TITULUA KULTURA	68
XIV. TITULUA OSASUN PUBLIKOA	68
XV. TITULUA KONTSUMITZAILEEN BABESA	69
XVI. TITULUA EUROPA BARRUKO SAREAK	69
XVII. TITULUA INDUSTRIA	70
XVIII. TITULUA EKONOMIA-, GIZARTE- ETA LURRALDE-KOHESIOA	71
XIX. TITULUA IKERKETA ETA GARAPEN TEKNOLOGIKOA, ETA ESPAZIOA	72
XX. TITULUA INGURUMENA	74
XXI. TITULUA ENERGIA	75
XXII. TITULUA TURISMOA	75
XXIII. TITULUA BABES ZIBILA	76
XXIV. TITULUA ADMINISTRAZIOEN ARTEKO LANKIDETZA	76
LAUGARREN ZATIA. ITSASOZ HARAINDIKO HERRIALDE ETA LURRALDEAK BATASUNAREKIN ELKARTZEA	76

BOSGARREN ZATIA BATASUNAREN ATZERRI-EKINTZA	78
I. TITULUA BATASUNAREN ATZERRI-EKINTZARI BURUZKO XEDAPEN ORO- KORRAK	78
II. TITULUA MERKATARITZA POLITIKA ERKIDEA	78
III. TITULUA HIRUGARREN HERRIALDEEKIKO LANKIDETZA ETA LAGUNTZA HUMANITARIOA	79
1. kapitulua Garapenerako lankidetza	79
2. kapitulua Hirugarren herrialdeekiko lankidetza ekonomiko, finantzario eta teknikoa	79
3. kapitulua Laguntza humanitarioa	80
IV. TITULUA NEURRI MUGATZAILEAK	80
V. TITULUA NAZIOARTEKO AKORDIOAK	80
VI. TITULUA BATASUNAK NAZIOARTEKO ERAKUNDEEKIN, HIRUGARREN HE- RRIALDEEKIN ETA BATASUNAREN ORDEZKARITZEKIN IZANGO DITUEN HARREMANAK	82
VII. TITULUA ELKARTASUN-KLAUSULA	83
SEIGARREN ZATIA INSTITUZIOEI ETA FINANTZEI BURUZKO XEDAPENAK	83
I. TITULUA INSTITUZIOEI BURUZKO XEDAPENAK	83
1. kapitulua Instituzioak	83
Lehenengo atala Europako Parlamentua	83
Bigarren atala Kontseilu Europarra	85
Hirugarren atala Kontseilua	86
Laugarren atala Batzordea	87
Bosgarren atala Europar Batasuneko Justizia Auzitegia	88
Seigarren atala Europako Banku Zentrala	94
Zazpigarren atala Kontuen Auzitegia	95
2. kapitulua Batasunaren egintza juridikoak, onartzeko prozedurak eta bestelako xedapenak	96
Lehenengo atala Batasunaren egintza juridikoak	96
Bigarren atala Egintzak onartzeko prozedurak eta bestelako xeda- penak	97
3. kapitulua Batasuneko organo aholku-emaileak	99
Lehenengo atala Ekonomia eta Gizarte Komitea	100
Bigarren atala Eskualdeetako Komitea	100
4. kapitulua Europako Inbertsio Bankua	101
II. TITULUA FINANTZA-XEDAPENAK	101
1. kapitulua Batasunaren baliabide propioak	102
2. kapitulua Urte anitzeko finantza-esparrua	102
3. kapitulua Batasunaren urteko aurrekontua	103
4. kapitulua Aurrekontua betearaztea eta kudeaketa onartzea	104

	Orrialdea
5. kapitulua Xedapen erkideak	105
6. kapitulua Iruzurraren kontrako borroka	106
III. TITULUA LANKIDETZA INDARTUAK	106
ZAZPIGARREN ZATIA XEDAPEN OROKORRAK, ETA AZKEN XEDAPENAK	108
3. PROTOKOLOAK	113
Protokoloa (1.a) estatuetakotako parlamentuek Europar Batasunean duten egitekoari buruzkoa	115
Protokoloa (2.a) subsidiariorotasun- eta heinekotasun-printzipioen aplikazioari buruzkoa	116
Protokoloa (3.a) Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren Estatutuari buruzkoa	118
Protokoloa (4.a) Banku Zentralen Europako Sistemaren eta Europako Banku Zentralaren Estatutuei buruzkoa	131
Protokoloa (5.a) Europako Inbertsio Bankuaren Estatutuei buruzkoa	144
Protokoloa (6.a) Europar Batasuneko instituzioen eta zenbait organo, organismo eta zerbitzuren egoitzak ezartzeari buruzkoa	151
Protokoloa (7.a) Europar Batasunaren pribilegio eta immunitateei buruzkoa ...	152
Protokoloa (8.a) Batasuna giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak babesteko Europako Hitzarmenari atxikitzeko akordioa dela-eta, Europar Batasunaren Tratatuako 6. artikulua 2. paragrafoak ezarritakoari buruzkoa	155
Protokoloa (9.a) Europar Batasunaren Tratatuaren 16. artikuluko 4. paragrafoa eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 238. artikuluko 2. paragrafoa, 2014ko azaroaren 1etik 2017ko martxoaren 31ra arte, batetik, eta 2017ko apirilaren 1etik aurrera, bestetik, nola aplikatu behar diren zehazten duen Kontseiluaren erabakiari buruzkoa	156
Protokoloa (10.a) Europar Batasunaren Tratatuako 42. artikulua ezarritako lankidetzaren egituratu iraunkorrari buruzkoa	156
Protokoloa (11.a) Europar Batasunaren Tratatuako 42. artikulua buruzkoa	158
Protokoloa (12.a) defizita gehiegizkoa bada aplikatu beharreko prozedurari buruzkoa	158
Protokoloa (13.a) elkarganatze-irizpideei buruzkoa	159
Protokoloa (14.a) Eurotaldeari buruzkoa	159
Protokoloa (15.a) Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuen gainerako zenbait xedapenari buruzkoa	160
Protokoloa (16.a) Danimarkari buruzko zenbait xedapenari buruzkoa	161
Protokoloa (17.a) Danimarkari buruzkoa	162
Protokoloa (18.a) Frantziari buruzkoa	162
Protokoloa (19.a) Europar Batasunaren esparruan sartutako Schengengo altxorari buruzkoa	162
Protokoloa (20.a) Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuako 26. artikulua zenbait alderdi Erresuma Batuan eta Irlandan aplikatzeari buruzkoa	164

Protokoloa (21.a) Erresuma Batuak eta Irlandak askatasun-, segurtasun- eta justizia-esparruari buruz duten jarrerari buruzkoa	165
Protokoloa (22.a) Danimarkaren jarrerari buruzkoa	167
Protokoloa (23.a) kanpoko mugak igarotzea dela-eta, estatu kideek dituzten kanpo-harremanei buruzkoa	170
Protokoloa (24.a) Europar Batasuneko herritarrei asiloa emateari buruzkoa	170
Protokoloa (25.a) eskumen partekatuen erabilerari buruzkoa	171
Protokoloa (26.a) interes orokorreko zerbitzuei buruzkoa	172
Protokoloa (27.a) barne-merkatua eta lehiari buruzkoa	172
Protokoloa (28.a) ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioari buruzkoa	172
Protokoloa (29.a) estatu kideetako irrati-zabalkunde publikoaren sistemari buruzkoa	173
Protokoloa (30.a) oinarritzko eskubideen gutuna Poloniari eta Erresuma Batuari aplikatzeari buruzkoa	173
Protokoloa (31.a) Holandarren Antilletan findutako petrolio-produktuak Europar Batasunera inportatzeari buruzkoa	174
Protokoloa (32.a) Danimarkan ondasun higiezinak eskuratzeari buruzko zenbait xedapeni buruzkoa	176
Protokoloa (33.a) Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 157. artikuluari buruzkoa	176
Protokoloa (34.a) Groenlandiari aplikatu beharreko araubide bereziari buruzkoa	176
Protokoloa (35.a) Irlandako Konstituzioaren 40.3.3 artikuluari buruzkoa	176
Protokoloa (36.a) xedapen iragankorreari buruzkoa	176
Protokoloa (37.a) Ikatzaren eta Altzairuaren Europako Erkidegoaren Tratatuaren eta Ikatzaren eta Altzairuaren Ikerketa Funtsearen amaieraren finantza-ondorioei buruzkoa	179
4. ERANSKINAK	181
I. eranskina Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 38. artikuluan aurreikusitako zerrenda	183
II. eranskina Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren laugarren zatiko xedapenak aplikatuko zaizkien itsasoz haraindiko herrialde eta lurraldeak	186
5. ADIERAZPENAK 2007ko abenduaren 13an sinatutako Lisboako Tratatua onetsi duen Gobernuen arteko Biltzarraren azken aktari erantsiak	187
A. TRATATUETAKO XEDAPENEI BURUZKO ADIERAZPENAK	189
1. Adierazpena, Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunari buruzkoa	189
2. Adierazpena, Europar Batasunaren Tratatuaren 6. artikulua 2. paragrafoari buruzkoa	189
3. Adierazpena, Europar Batasunaren Tratatuaren 8. artikuluari buruzkoa	189

4. Adierazpena, Europako Parlamentuaren osaerari buruzkoa	189
5. Adierazpena, Kontseilu Europarrak Europako Parlamentuaren osaerari buruzko erabaki-egitasmoaren gainean hartutako erabaki politikoari buruzkoa	189
6. Adierazpena, Europar Batasunaren Tratatuaren 15. artikuluko 5. eta 6. paragrafoei, 17. artikuluko 6. eta 7. paragrafoei eta 18. artikuluari buruzkoa	189
7. Adierazpena, Europar Batasunaren Tratatuaren 16. artikuluen 4. paragrafoari eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 238. artikuluen 2. paragrafoari buruzkoa	189
8. Adierazpena, Lisboako Tratatu indarrean sartzen denean Kontseilu Europarraren Lehendakari izateari eta Atzerri Arazoetako Kontseiluari buruz onartu beharreko neurri praktikoei buruzkoa	191
9. Adierazpena, Europar Batasunaren Tratatuaren 16. artikuluen 9. paragrafoari buruzkoa (Kontseilu Europarrak Kontseiluko Lehendakari izateari buruz eman dako erabakiari buruzkoa)	191
10. Adierazpena, Europar Batasunaren Tratatuaren 17. artikuluari buruzkoa	191
11. Adierazpena, Europar Batasunaren Tratatuaren 17. artikuluen 6. eta 7. paragrafoei buruzkoa	192
12. Adierazpena, Europar Batasunaren Tratatuaren 18. artikuluari buruzkoa	192
13. Adierazpena, atzerri- eta segurtasun-politika erkideari buruzkoa	192
14. Adierazpena, atzerri- eta segurtasun-politika erkideari buruzkoa	192
15. Adierazpena, Europar Batasunaren Tratatuaren 27. artikuluari buruzkoa	193
16. Adierazpena, Europar Batasunaren Tratatuaren 55. artikuluen 2. paragrafoari buruzkoa	193
17. Adierazpena, lehentasunari buruzkoa	193
18. Adierazpena, eskumenen zedarritzeari buruzkoa	193
19. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 8. artikuluari buruzkoa	194
20. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 16. artikuluari buruzkoa	194
21. Adierazpena, zigor-arloko lankidetzaren judizialaren eta polizia-arloko lankidetzaren arloetan datu pertsonalak babesteari buruzkoa	194
22. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 48. eta 79. artikuluei buruzkoa	194
23. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 48. artikuluko bigarren lerrokadari buruzkoa	194
24. Adierazpena, Europar Batasunaren nortasun juridikoari buruzkoa	194
25. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 75. eta 215. artikuluei buruzkoa	194
26. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren hirugarren zatiko V. tituluan oinarritutako neurri batean estatu kide batek parte ez hartzeari buruzkoa	195
27. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 85. artikuluko 1. paragrafoaren bigarren lerrokadari buruzkoa	195
28. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 98. artikuluari buruzkoa	195

29. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikulua 2. paragrafoaren c) idatz-zatiari buruzkoa	195
30. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 126. artikulua buruzkoa	195
31. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 156. artikulua buruzkoa	196
32. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 168. artikulua 4. paragrafoaren c) idatz-zatiari buruzkoa	196
33. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 174. artikulua buruzkoa	196
34. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 179. artikulua buruzkoa	196
35. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 194. artikulua buruzkoa	196
36. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 218. artikulua buruzkoa (estatu kideek askatasun-, segurtasun- eta justizia-esparruari buruz nazioarteko hitzarmenak negoziatu eta egiteari buruzkoa) .	196
37. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 222. artikulua buruzkoa	196
38. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 252. artikulua buruzkoa (Justizia Auzitegiaren abokatu nagusien kopuruari buruzkoa)	197
39. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 290. artikulua buruzkoa	197
40. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 329. artikulua buruzkoa	197
41. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 352. artikulua buruzkoa	197
42. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 352. artikulua buruzkoa	197
43. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 355. artikuluko 6. paragrafoari buruzkoa	197
B. TRATATUEI ERANTSITAKO PROTOKOLOEI BURUZKO ADIERAZPENAK	198
44. Adierazpena, Europar Batasunaren esparruan sartutako Schengengo altxor-rrari buruzko Protokoloaren 5. artikulua buruzkoa	198
45. Adierazpena, Europar Batasunaren esparruan sartutako Schengengo altxor-rrari buruzko Protokoloaren 5. artikulua 2. paragrafoari buruzkoa	198
46. Adierazpena, Europar Batasunaren esparruan sartutako Schengengo altxor-rrari buruzko Protokoloaren 5. artikulua 3. paragrafoari buruzkoa	198
47. Adierazpena, Europar Batasunaren esparruan sartutako Schengengo altxor-rrari buruzko Protokoloaren 5. artikulua 3., 4. eta 5. paragrafoei buruzkoa	198
48. Adierazpena, Danimarkaren jarreraren gaineko protokoloari buruzkoa	198
49. Adierazpena, Italiari buruzkoa	198
50. Adierazpena, xedapen iragankorrei buruzko protokolo 10. artikulua buruzkoa	199

C. ESTATU KIDEEN ADIERAZPENAK	199
51. Adierazpena, Belgikako Erresumarena, estatuetako parlamentuei buruzkoa .	199
52. Adierazpena, Belgikako Erresuma, Bulgariako Errepublika, Alemaniako Errepublika Federala, Heleniar Errepublika, Espainiako Erresuma, Italiako Errepublika, Zipreko Errepublika, Lituaniako Errepublika, Luxenburgoko Dukerri Handia, Hungariako Errepublika, Maltako Errepublika, Austriako Errepublika, Portugalgo Errepublika, Errumania, Esloveniako Errepublika eta Eslovakiako Errepublikarena, Europar Batasunaren ikurrei buruzkoa	199
53. Adierazpena, Txekiar Errepublikarena, Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunari buruzkoa	199
54. Adierazpena, Alemaniako Errepublika Federala, Irlanda, Hungariako Errepublika, Austriako Errepublika eta Suediako Erresumarena	200
55. Adierazpena, Espainiako Erresuma eta Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuenarena	200
56. Adierazpena, Irlandarena, Irlandak eta Erresuma Batuak askatasun-, segurtasun- eta justizia-esparruari buruz duten jarrerari buruzko protokoloaren 3. artikuluari buruzkoa	200
57. Adierazpena, Italiako Errepublikarena, Europako Parlamentuaren osaketari buruzkoa	200
58. Adierazpena, Letoniako Errepublika, Hungariako Errepublika eta Maltako Errepublikarena, Tratatuaren diru bakarra izendatzeko erabiltzen den izenaren ortografiari buruzkoa	201
59. Adierazpena, Herbeheretako Erresumarena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 312. artikuluari buruzkoa	201
60. Adierazpena, Herbeheretako Erresumarena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 355. artikuluari buruzkoa	201
61. Adierazpena, Poloniako Errepublikarena, Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunari buruzkoa	201
62. Adierazpena, Poloniako Errepublikarena, Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Gutuna Poloniari eta Erresuma Batuari aplikatzearen gaineko Protokoloari buruzkoa	201
63. Adierazpena, Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuenarena, «herritarrak» terminoaren definizioari buruzkoa	201
64. Adierazpena, Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuenarena, Europako Parlamenturako hauteskundeetan boto-eskubidea edukitzeari buruzkoa	201
65. Adierazpena, Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuenarena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 75. artikuluari buruzkoa	201
Korrespondentzia-etaulak	203
Europar Batasunaren Tratatuaren	203
Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren	207
II. Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Gutuna	
(EBEO, C 83/02, 2010eko martxoaren 30ekoa)	223

AURKEZPENA

2009ko abenduaren 1ean Lisboako Tratatua indarrean sartu ostean, Lurralde Politikarako Ministerioak indarrean dauden hainbat testu argitaratzen ditu gaztelaniaz eta Autonomia Erkidegoetako hizkuntza koofizialetan: Europar Batasunaren Tratatua, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatua eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna.

Tratatu hau, 2007ko abenduaren 13an Lisboan sinatutakoa, Estatu kideen uste sendoen emaitza izan zen. Horiek, duela gutxi handitutako Europar Batasunarentzat aurreko tratatuek ezartzen zituzten arauak aldatzeko eta berritzeko beharra ikusi zuten, egungo munduaren eraldaketei aurre egiteko eta Europako herritarren eskaerei erantzuna emateko.

Hori lortzeko asmoz, Europar Batasuneko Estatu kide guztietan berresteko prozesua bukatu eta gero, 2009ko abenduaren 1ean indarrean sartu zen Lisboako Tratatua. Honen bidez, oinarrizko bi Tratatu aldatu dira: Europar Batasunaren Ituna eta Europako Erkidegoa eratzekeo Ituna eta azken honi izen berria eman zaio: Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatua, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna ere barnean sartuz.

Testu berri honek aipatutako Tratatuek aldatzen baditu ere, ez ditu ordezkatzeko eta hurrengo urteetako Europako erronkei aurre egiteko marko juridikoa da. Xedapen hauek kontuan hartuta, Europa hau partizipatiboagoa agertzen da, jarduteko eta erabakitzekeo gaitasun gehiagorekin, eta Batasunaren balioak adierazi ondoren, osatzen duten guztiei deitzen die batasunaren irizpideei arabera jokatzeko.

Europa berri hau, Espainiarentzat erabakigarria den unean jartzen da abian, hain zuzen ere, Kontseiluaren Lehendakaritza Espainiak duen une berean. Izan ere, laugarren aldiz eta 2010eko lehenengo seihilekoan, Europar Batasuneko Lehendakaritza txanda Espainiari dagokio. Jarduera horrek lehentasunezko tokian jartzen du Espainia nazioarteko agendan. Gizarte osoaren zeregina da hau eta Estatu politikaren proiektzioa ekarriko du maila guztietan.

Garaiko marko politiko eta ekonomikoak ezarritako gauzak bultzatzeko eta aldatzeko borondate sendoa adierazten da Espainiako Presidentetzaren programan eta erakunde guztiei dei egiten zaie engaiamendu honetan inplikatzeko, beren eskumenen esparruan.

Espainiako Gobernuako Hirugarren Presidenteorde eta Lurralde Politikarako Ministroak, bere aldetik, Lisboako Tratatua aplikatzearen ondorio diren nobedadeak bultzatzeko erronkari aurre egiteko asmoa adierazi zuen 2009ko azaroan. Halaber, kultura eta hizkuntza aniztasunean osatutako Europa baten proiektuan aurrera egiteko gogoia ere agerian jarri zuen behin eta berriz, horretarako toki eta autonomia aginteen laguntza eskatuz.

2005. urteaz geroztik Espainiak akordioak burutu ditu Europar Batasuneko erakunde nagusiekin Autonomia Erkidegoetako hizkuntza koofizialetan komunikazioa bermatzeko, adibidez: Kontseilua, Europako Batzordea, Eskualdeetako Komitea, Europako Ekonomia eta Gizarte Komitea, Europako Arartekoa edo Justizia Auzitegia.

Europar Batasunarekin zerikusia duten gaietarako Konferentziaren bitartez (CARUE) Autonomia Erkidego hauek gero eta nabarmenagoak dira, Europako Erkidegoko gaietan zuzenean parte hartuz, beren eskumenen esparruan.

Hori guztietatik, edizio honek Europar Batasunaren Tratatuaren eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren testu kontsolidatuak, Lisboako Tratatuaren emaitza direnak, sartzen ditu barne. Halaber, Protokoloak, Eranskinak, Adierazpenak eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna ere argitaratzen dira, gaztelaniaz zein Autonomia Erkidegoetako hizkuntza koofizialetan.

Gogo handiz proiektuarekin bat egin duten Autonomia Erkidegoen laguntza benebenetan eskertzen dugu eta baita Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoak emandako laguntza ere.

I. EUROPAR BATASUNAREN TRATATUAREN
ETA EUROPAR BATASUNAREN
FUNTZIONAMENDUARI
BURUZKO TRATATUAREN BERTSIO
KONTSOLIDATUAK

(EBEO, C 83/01, 2010eko martxoaren 30ekoa)

IRAKURLEARENTZAKO OHARRA

Argitalpen honetan, Europar Batasunaren Tratatuaren eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren bertsio kontsolidatuak biltzen dira, bai eta horien protokolo eta eranskinak ere, alegia, 2007ko abenduaren 13an sinatu zen eta 2009ko abenduaren 1ean indarrean sartu zen Lisboako Tratatuak sartutako aldaketak dituztenak. Hala-ber, Lisboako tratatua onetsi duen gobernuen arteko biltzarraren azken aktari erantsitako adierazpenak ere biltzen ditu.

Bertsio kontsolidatuen aurreko argitalpeneko irakurlearentzako oharrean esaten zen moduan (C 115 EO, 2008.5.9koa, 1. or.), argitalpen honek geroztik egin diren akats zuzenketak biltzen ditu.

Orobat, Estrasburgon aldarrikatu zuten Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2007ko abenduaren 12an Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna (C 303 EO, 2007.12.14koa, 1. or.) ere biltzen du. Hemen, 2000ko abenduaren 7an aldarrikatutako Gutuna biltzen da, egokituta, eta hura ordezkatzeko du 2009ko abenduaren 1az geroztik, alegia, Lisboako Tratatua indarrean sartu zenez geroztik. Europar Batasunaren Tratatuaren 6. artikuluko, 1. paragrafoko, lehen lerrokadaren arabera, 2007an aldarrikatutako Gutunak Tratatuaren balio juridiko bera du.

Testu hau dokumentaziorako baliabidea da eta ez du Europar Batasuneko erakundearen erantzukizuna konprometituko.

1. EUROPAR BATASUNAREN TRATATUAREN BERTSIO KONTOLIDATUA

ATARIKOA

BELGIARREN ERREGE JAUN GURENAK, DANIMARKAKO ERREGINA ANDRE GURENAK, ALEMANIAKO ERREPUBLIKA FEDERALEKO LEHENDAKARIAK, IRLANDAKO LEHENDAKARIAK, HELENIAK ERREPUBLIKAKO LEHENDAKARIAK, ESPAINIAKO ERREGE JAUN GURENAK, FRANTZIAKO ERREPUBLIKAKO LEHENDAKARIAK, ITALIAKO ERREPUBLIKAKO LEHENDAKARIAK, LUXENBURGOKO DUKE GOIEN JAUNAK, HERBEHEREETAKO ERREGINA ANDRE GURENAK, PORTUGALGO ERREPUBLIKAKO LEHENDAKARIAK, BRITAINIA HANDIKO ETA IPAR IRLANDAKO ERRESUMA BATUKO ERREGINA ANDRE GURENAK ⁽¹⁾,

ERABAKI dute Europako Erkidegoak eratzea- rekin Europa osatzeko hasitako bidean urrats berri bat egitea,

ITURRITZAT HARTUTA Europaren oinordetza kulturazko, erlijiozko eta humanista, hortik abiatuta garatu baitira gizakiaren eskubide urraezin eta utziezinak, askatasuna, demokrazia, berdintasuna eta zuzenbide-estatua bezalako balio unibertsalak,

GOGOAN dute Europako kontinentearen zati banaketari amaiera ematea garrantzi handikoa dela historiaren ikuspegitik, eta etorkizuneko Europa eraikitzeko oinarri sendoak jarri behar direla,

BERRETSI dute beren atxikimendua, bai askatasunaren, demokraziaren eta giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen errespetuaren printzipioekiko, eta bai zuzenbideko estatuaren printzipioarekiko ere,

BERRETSI dute beren atxikimendua oinarritzko eskubide sozialekiko, 1961eko urriaren 18an Turinen izenpetutako Europako Gutun Sozialean eta langileen oinarritzko eskubide sozialen Erkidegoko 1989ko Gutunean zehaztutako moduan hartuta,

NAHI dute, beren herrien historia, kultura eta tradizioak errespetaturik, herrion arteko elkartasuna areagotu,

NAHI dute instituzioen jarduera demokratikoa eta eraginkorra sendotu, instituzioen arteko esparru bakar batean, berei agindutako eginbeharrak hobeto bete ditzaten,

ERABAKI dute beren ekonomiak indartu eta elkarganatzea, eta, tratatu honetan eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuan xedatutakoaren arabera, diru egonkor eta bakarra edukiko duen ekonomia eta diru-batasuna sortzea,

DELIBERATU dute beren herrien gizartearen eta ekonomiaren aurrerapena sustatzea, garapen iraunkorraren printzipioa kontuan hartuta, barne-merkatua hezurmamituz, eta kohesioa eta ingurumenaren babesa indartuz, eta ekonomiaren integrazioan izandako aitzinamenduekin batera beste eremu batzuetan ere pareko aurrerapenak gertatuko direla bermatuko duten politikak garatzea,

ERABAKI dute beren herrialdeetako herri-tarrei herritartasun bakarra ematea,

ERABAKI dute atzerriari eta segurtasunari buruzko politika erkidea garatzea, defentsari buruzko politika erkidea arian-arian eratzea barne hartuta, politika horrekin agian 42. artikuluko xedapenen arabera defentsa bateratura iritsi ahal izateko, eta Europaren nortasuna eta burujabetasuna sendotuz, European eta munduan bakea, segurtasuna eta aurrerapena sustatzeko,

ERABAKI dute pertsonen zirkulazio askea bultzatzea eta beren herrien segurtasuna eta babesa bermatzea aldi berean, askatasun, segurtasun eta justiziako eremu bat ezarrita, tratatu honetako eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu xedapenen arabera,

ERABAKI dute Europako herrien arteko batasun gero eta estuagoa sortzeko bidean jarraitzea, bertan erabakiak herriarregandik ahalik eta hurbilen hartzeko, subsidiarotasun-printzipioaren arabera,

KONTUAN harturik Europaren integrazioko bidean aurrera egiteko eman beharreko bihurtziko urratsak,

EUROPAR BATASUNA SORTZEA erabaki dute, eta, xede horrekin, ahal osoko izendatu dituzte:

(ez da ahal osokoen zerrenda jaso)

PERTSONA HORIEK, beren ahal osoak, egoiki eta behar bezala aitorturik, elkarri agertu ondoren, ondorengo xedapen hauek hitzartu dituzte:

⁽¹⁾ Geroago, Bulgariako Errepublika, Txekiar Errepublika, Estoniako Errepublika, Zipreko Errepublika, Letoniako Errepublika, Lituaniako Errepublika, Hungariako Errepublika, Maltako Errepublika, Austriako Errepublika, Poloniako Errepublika, Errumania, Esloveniako Errepublika, Eslovakiako Errepublika, Finlandiako Errepublika eta Suediako Erresuma Europar Batasuneko kide egin ziren.

I. TITULUA

XEDAPEN ERKIDEAK

1. artikulua

(lehengo 1. artikulua EBT)⁽¹⁾

Tratatu honen bitartez, TRATATUGILE GORENEK EUROPAR BATASUN bat eratzen dute elkarrekin —aurrerantzean «Batasuna»— eta estatu kideek eskumenak emango dizkiote helburu erkideak lortzeko.

Tratatu hau beste urrats bat da Europako herrien artean gero eta batasun estuagoa sortzeko bidean, zeinetan erabakiak ahalik eta modurik irekienean eta herritarrengandik ahalik eta hurbilen hartuko baitira.

Tratatu hau eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatura (aurrerantzean «Tratatuak») izango ditu oinarri Batasunak. Tratatu biek balio juridiko berbera dute. Batasunak Europako Erkidegoa ordezkatzeko du eta haren ondorengo izango da.

2. artikulua

Batasunak oinarritzko balio ditu gizakiaren duintasunaren begirunea, askatasuna, demokrazia, berdintasuna, zuzenbide-estatura eta giza eskubideen errespetua, gutxiengoetako pertsonen eskubideak ere barnean direla. Estatu kide guztiek erkide dituzte balio horiek, aniztasuna, bereizkeriarik eza, tolerantzia, justizia, elkartasuna eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna ezaugarri dituen gizartearen baitan.

3. artikulua

(lehengo 2. artikulua EBT)

1. Batasunak bakea, bere balioak eta bere herrien ongizatea sustatzea du helburu.

2. Batasunak askatasun, segurtasun eta justiziako eremua eskainiko die bere herritarrei, barneko mugarik gabe, bertan pertsonen zirkulazio askea bermatuta egon dadin, kanpoko mugen kontrolerako, asilorako, inmigrazioarako, eta delitugintzari aurrea hartu eta bere kontra borrokatzeko egokiak diren neurriak hartzearekin batera.

3. Batasunak barne-merkatua ezarriko du. Europaren garapen iraunkorraren alde egingo du lan, horretarako oinarritzat hartuta ekono-

mia-hazkunde orekatua eta prezioen egonkortasuna, enplegu bete eta gizartearen aurrera-bidea jomuga dituen lehiakortasun handiko merkatuko ekonomia soziala, eta ingurumenaren babes-maila eta kalitatearen hobekuntza-maila handia. Era berean, aurrerabide zientifikoa eta teknikoa ere sustatuko ditu.

Batasunak gizarteko bazterkeriaren eta bereizkeriaren aurka egingo du eta gizarte-justizia eta -babesa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, belaunaldien arteko elkartasuna eta haurren eskubideen babesa sustatuko ditu.

Batasunak estatu kideen arteko ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa eta elkartasuna bultzatuko ditu.

Batasunak bere kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren aberastasuna errespetatuko du eta Europaren kultura-ondarea zaintzeko eta garatzeko ardura izango du.

4. Batasunak ekonomia- eta diru-batasuna ezarriko ditu; dirua euroa izango da.

5. Munduko gainerakoekin dituen harremanetan Batasunak bere balioak eta interesak indartu eta sustatuko ditu, eta bere herritarren babesa bultzako du. Bakea, segurtasuna, Lurraren garapen iraunkorra, herrien arteko elkartasuna eta errespetua, merkataritza aske eta zuzena, pobretasuna ezabatzea eta giza eskubideak —batez ere haurren eskubideak— babestea, nazioarteko zuzenbidea zorrotz bete eta garatzea, eta, bereziki, Nazio Batuen Gutunaren printzipioen errespetua bultzatuko ditu.

6. Batasunak bitarteko egokiak erabiliko ditu bere helburuak lortzeko, Tratatuaren ematen zaizkion eskumenen arabera.

4. artikulua

1. Tratatu honetako 5. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Tratatuaren Batasunari ematen ez zaizkion eskumenak estatu kideei dagozkie.

2. Batasunak estatu kideak tratatuen aurrean berdinak izatea errespetatuko du, eta bai estatu horien funtsezko egitura politikoari eta konstituzio-egiturari lotuta dagoen nazio-nortasuna ere, toki- eta eskualde-autonomiari dagokionetan barne. Batasunak estatuaren funtsezko egitekoak errespetatuko ditu, eta, bereziki, estatuaren lurralde-osotasuna bermatzea, ordena publikoa jagotzea eta estatu-segurtasuna zaintzea xede dutenak. Bereziki, estatu kide ba-

⁽¹⁾ Erreferentzia hau ohartarazteko da. Informazio zabalagoa izateko, ikusi tratatuen lehengo eta oraingo zenbakikuntzaren arteko korrespondentzia-taulak.

koitza izango da bere estatu-segurtasunaren erantzule bakarra.

3. Lankidetzat leialaren printzipioaren arabera, Batasunak eta estatu kideek elkar errespetatuko dute eta elkarri lagunduko diote Tratatuetatik eratortzen diren xedeak betetzeko.

Estatu kideek egoki diren neurri orokor zein berezi guztiak hartuko dituzte, Tratatuetatik eratorritako betebeharrak eta Batasuneko instituzioen ekintzen ondorioz sortutakoak bete-ko direla bermatuta egon dadin.

Estatu kideek Batasunaren xedea betetzen lagunduko dute, eta ez dute parte hartuko Batasuneko helburuak lortzea arriskuan jar dezakeen ezein neurritan.

5. artikulua

(lehenengo 5. artikulua EET)

1. Eskumenak emateko printzipioak agintzen du Batasunaren eskumenak mugatzeko orduan. Subsidiariorotasun- eta heinekotasun-printzipioak agintzen du Batasunaren eskumenak baliatzeko orduan.

2. Batasunak, eskumenak emateko printzipioaren indarrez, estatu kideek tratatuaren esleitu dizkioten eskumenen mugen barruan jarduten du, Tratatuaren ezarritako helburuak betetzeko. Tratatuaren Batasunari esleitu ez zaion eskumen oro estatu kideei dagokie.

3. Estatu kideek, nahiz beren gobernu zentralaren bidez, nahiz eskualde- zein toki-erakunde bidez, xede-ekintzaren helburuak ondo lortu ezin dituztenean, eta, xede-ekintzaren maila edo ondorioak direla-eta, helburuak Batasunaren bidez hobeto lortzeko modukoak direnean, orduantxe bakarrik, eta hein horretan, subsidiariorotasun-printzipioaren indarrez hartuko du parte Batasunak bere eskumen eskusibokoak ez diren eremuetan.

Subsidiariorotasun- eta heinekotasun-printzipioen aplikazioari buruzko protokoloan ezarritakoaren arabera aplikatuko dute Batasuneko instituzioek subsidiariorotasun-printzipioa. Estatu kideetako parlamentuek subsidiariorotasun-printzipio hori errespetatuko dela jagongo dute protokolo horretan ezarritako prozeduraren arabera.

4. Heinekotasun-printzipioaren indarrez, Batasunaren ekintzaren edukia eta forma ez dira izango tratatuen helburuak lortzeko beharrezko den neurri horretatik gorakoak.

Subsidiariorotasun- eta heinekotasun-printzipioen aplikazioari buruzko protokoloan ezarritakoaren arabera aplikatuko dute Batasuneko instituzioek heinekotasun-printzipioa.

6. artikulua

(lehenengo 6. artikulua EBT)

1. Batasunak 2000ko abenduaren 7ko Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Gutunean ezarritako eskubideak, askatasunak eta printzipioak aitortzen ditu, 2007ko abenduaren 12an Estrasburgon onartu zen bezala, Tratatuaren balio juridiko berbera izango duelarik.

Gutuneko xedapenek ez dituzte inola ere zabalduko Tratatuaren Batasunari aitortzen zaizkion eskumenak.

Gutunean ezarritako eskubideak, askatasunak eta printzipioak Tratatuaren interpretazioa eta aplikazioa arautzen duen Gutuneko VII. titulu-ko xedapen orokorrekin bat ulertuko dira. Behar bezala eduki behar dira kontuan Gutunean adierazten diren azalpenak, xedapen horien iturriak adierazten dituzte eta.

2. Batasuna Giza Eskubideak eta Oinarritzko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenari atxikiko zaio. Atxikitze horrek ez ditu aldaraziko Tratatuaren zehazten diren Batasunaren eskumenak.

3. Giza Eskubideak eta Oinarritzko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenak bermatzen dituen oinarritzko eskubideak eta estatu kideen konstituzio-tradizio erkideetatik datozenak Batasunaren Zuzenbidearen osagai izango dira, printzipio orokor direnez.

7. artikulua

(lehenengo 7. artikulua EBT)

1. Estatu kideetako heren batek, zein Europako Parlamentuko nahiz Batzordeko heren batek arrazoieta oinarritutako proposamena egin ondoren, Kontseiluak, bertako kideen lau bostenen gehiengoaz, eta Europako Parlamentuak onartu ondoren, estatu kideren batek 2. artikuluan jasotako balioak larri hausteko arrisku argia dagoela adierazi ahal izango du. Adierazpen hori egin baino lehen, Kontseiluak estatu kideari entzungo dio eta, prozedura berbera erabiliz, gomendio egokiak egin ahal izango dizkio.

Kontseiluak aldiro aztertu beharko du ea adierazpena egiteko erabilitako arrazoiak lehen bezain baliozkoak diren.

2. Kontseilu Europarrak, Batzordearen edo estatu kideen heren baten proposamenez, eta Europako Parlamentuak onartu ondoren, estatu kideetako batek 2. artikuluan adierazten diren balioak larri eta behin eta berriz hausten dituela adieraz dezake, aho batez; horren aurretik, dagokion estatu kide horri gonbit egingo dio horri buruz dituen oharpenak aurkez ditzan.

3. Goiko 2. paragrafoan aipatutako adierazpena egin denean, Kontseiluak, gehiengo kualifikatuz, kasuan kasuko estatu kideari Tratatuak aplikatzetik sortutako zenbait eskubide etetea erabaki dezake, estatu kide horretako gobernuak Kontseiluan duen ordezkariaren boto-eskubideak barne. Etendura hori egiteko orduan, Kontseiluak hartuko ditu pertsona fisiko eta juridikoen eskubide eta betebeharretan sor ditzakeen ondorioak ere.

Tratatuen ondorioz dena delako estatu kideak dituen betebeharrek lotesleak izaten jarraituko dute, nolanahi ere, estatu horrentzat.

4. Kontseiluak gerora, gehiengo kualifikatuz, 3. paragrafoaren arabera hartutako neurriak aldatu edo baliogabetzea erabaki dezake, neurriok ezartzeko arrazoi izandako egoeran gertatutako aldaketei erantzunez.

5. Artikulu honen ondorioetarako, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 354. artikuluan ezartzen dira Europako Parlamenturako, Kontseilu Europarrerako eta Kontseilurako aplikaziokoak izango diren boto-modalitateak.

8. artikulua

1. Batasunak lehentasunezko harremanak garatuko ditu auzoko herrialdeekin, oparotasungunea eta auzoarte jatorreko esparrua ezartzeko, betiere, Batasunaren balioak oinarri, eta lankidetzan eraikitako harreman estu eta baketsuak ezaugarri dituela.

2. Batasunak, 1. paragrafoaren ondorioetarako, berariazko akordioak sinatu ahal izango ditu herrialde horiekin. Akordio horietan elkarrekiko eskubideak eta betebeharrak sartu ahal izango dira, baita elkarrekin ekintzak burutzeko aukera ere. Hitzarmenak aplikatzean, konfiantza egin beharko dira aldiro-aldiro.

II. TITULUA

PRINTZIBIO DEMOKRATIKOEI BURUZKO XEDAPENAK

9. artikulua

Batasunak bere herritarren berdintasunaren printzipioa errespetatuko du bere jardun guztietan, eta herritar guztiek berdin jasoko dute Batasuneko instituzio, organo eta organismoen arreta. Estatu kideren bateko nazionalitatea daukan pertsona oro izango da Batasuneko herritar. Batasuneko herritartasuna erantsi egiten zaio estatuko kide bakoitzeko herritar izaerari ordeztu gabe.

10. artikulua

1. Batasunaren funtzionamendua demokrazia ordezkatzailan oinarrituta dago.

2. Herritarrek zuzeneko ordezkaritza izango dute Batasunean Europako Parlamentuaren bitartez.

Estatu kideetako bakoitza bere estatuburuak edo gobernuburuak ordezkaturik egongo da Kontseilu Europarrean, eta Kontseiluan, berriaz, bere gobernuak ordezkaturik; ordezkari horiek demokratikoki erantzule izango dira estatu kide bakoitzeko parlamentuan zein beren herritarren aurrean.

3. Herritar orok du Batasuneko bizitza demokratikoan parte hartzeko eskubidea. Herritarrengandik ahalik hurbilen eta herritarrentzat ahalik irekien hartuko dira erabakiak.

4. Europa mailako alderdi politikoei Europaren kontzientzia politikoa sortzen eta Batasuneko herritarren gurrutia adierazten lagunduko dute.

11. artikulua

1. Instituzioek Batasunaren jardun-eremu guztietan herritarrei eta gizarteak ordezkatzeko duten elkarrekin beren iritzia jendaurrean adierazteko eta elkarrekin trukatzeko aukera emango diete, horretarako bide egokiak erabilita.

2. Instituzioek aldiro-aldiro elkarriketa irekia eta gardena izango dute gizarteak ordezkatzeko duten elkarrekin eta gizarte zibiletan.

3. Batasunaren ekintzak koherenteak eta gardenak direla bermatzeko, Europako Batzordeak kontsulta zabalak egingo ditu alderdi interesdunekin.

4. Batasuneko herritar-multzo batek, guztien milioi bat herritarrez osatua eta estatu kideen kopuru esanguratsua ordezkatzeko duena, Europako Batzordeari gonbit egiteko ekimena bultzatu ahal izango du, bere eskurantz-esparruaren barruan, proposamen egokia aurkeztuz, herritar horien iritziz Tratatuaren aplikazio-xedeetarako Batasunaren egintza juridikoa behar duten gaiak buruz.

Mota honetako ekimen bat aurkezteko prozedurak eta baldintzak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 24. artikuluko lehenengo lerrokadaren arabera ezarriko dira.

12. artikulua

Estatuetako parlamentuek Europar Batasunak ondo funtziona dezan lagunduko dute, eta horretarako:

a) Batasuneko instituzioetatik informazioa jasoko dute eta Batasunaren legegintzako egin-tzen berri ere bai, Estatuetako parlamentuek Euro-par Batasunean duten egitekoari buruzko protokoloaren arabera.

b) subsidiaritasun-printzipioa errespetatu beharra zainduko dute, subsidiaritasun- eta hei-nekotasun-printzipioak aplikatzeari buruzko protokoloan ezarritako prozeduren arabera.

c) parte hartuko dute askatasun-, segurtasun- eta justizia-esparruaren barruan, Batasuneko politikak esparru horretan duten aplikazioa ebaluatzeko mekanismoetan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 70. artikuluaaren arabera; era berean, Europolen kontrol politikoari eta Eurojust-en jardueren ebaluazioari uztartuta egongo dira, tratatu horretako 88. eta 85. artikuluekin bat.

d) Tratatuak berrikuspen-prozeduretan parte hartuko dute, Tratatu honetako 48. artiku-luaren arabera.

e) Batasunari atxikitzeko eskabideen berri ja-soko dute, tratatu honetako 49. artikuluaaren ara-bera.

f) estatuetako parlamentuen eta Europako Parlamentuaren arteko lankidetzan parte har-tuko dute, Europar Batasuneko estatuetako parlamentuek duten egitekoari buruzko pro-tokoloaren arabera.

III. TITULUA**INSTITUZIOEI BURUZKO
XEDAPENAK****13. artikulua**

1. Batasunak badu instituzio-esparrua bere balioak sustatzeko; bere helburuak lortzeko; bere interesak eta bere herritarren eta estatu ki-deen interesak defendatzeko; eta bai bere po-litiken eta ekintzen koherentzia, eraginkortasuna eta jarraipena bermatzeko ere.

Honako hauek dira Batasuneko instituzioak:

- Europako Parlamentua
- Kontseilu Europarra
- Kontseilua
- Europako Batzordea (aurrerantzean, «Batzordea»)
- Europar Batasuneko Justizia Auzitegia
- Europako Banku Zentrala

— Kontu Auzitegia

2. Instituzio horietako bakoitzak Tratatuak emandako eskurantzaren mugen barruan jar-dungo du, betiere, Tratatuaren ezarritako pro-zedurak, baldintzak eta helburuak oinarri di-tuela. Instituzioek elkarrekiko lankidetzan leial-jokatuko dute beti.

3. Europako Banku Zentralari eta Kontu Au-zitegiari buruzko xedapenak eta gainerako ins-tituzioei buruzko xedapen xehatuak Europar Ba-tasunaren Funtzionamenduari buruzko Trata-tuan daude jasota.

4. Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak laguntzaile izango dituzte Ekonomia eta Gizarte Komitea eta Eskualdeetako Komitea, aholkularitza-eginkizunetan jardungo baitute.

14. artikulua

1. Europako Parlamentuak legegintza eta au-rrekontugintza beteko ditu Kontseiluarekin ba-tera. Kontrol politikoaren egiteko eta aholku ema-teko eginkizunak beteko ditu, Tratatuak eza-rritako baldintzetan. Batzordeko lehendaka-ria hautatuko du.

2. Batasuneko herritarren ordezkariak osa-tuko dute Europako Parlamentua. Ordezkarien kopurua, gehienez ere, zazpiehun eta berrogeita hamarrekoa izango da, lehendakaria kopuru ho-rretatik kanpo gelditzen dela. Herritarren or-dezkaritza beheranzko proportziozkoa izango da, eta estatu kide bakoitzeko gutxienez sei di-putatu izango dira. Estatu kideetako bati ere ez zaio emango laurogeita hamasei eserleku bai-no gehiago.

Kontseilu Europarrak, Europako Parlamen-tuaren ekimenez eta haren onespenezekin, le-henengo lerrokadan adierazten diren printzi-pioen arabera, Europako Parlamentuaren osae-ra finkatzeko erabakia hartuko du aho batez.

3. Europako Parlamentuko diputatuak zu-zeneko sufragio unibertsal aske eta isilpekoz hautatuko dira, bost urteko agintaldi baterako.

4. Europako Parlamentuak bere diputatuen artetik hautatuko ditu lehendakaria eta Mahaia.

15. artikulua

1. Kontseilu Europarrak Batasunaren gara-pena bultzatu, eta Batasunaren norabide eta le-hentasun politiko orokorrak zehaztuko ditu. Ez du inolako legegintza-eginkizunik beteko.

2. Estatu kideetako estatuburuek edo go-bernuburuek, Kontseiluko lehendakariak eta Batzordeko lehendakariak osatuko dute Kon-

tseilu Europarra. Atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkariek ere hartuko du parte Kontseiluaren lanetan.

3. Kontseilu Europarra bi aldiz bilduko da sei hilabetero, Kontseiluko lehendakariak deituta. Eguneko gai-zerrendak hala eskatzen duenean, Kontseilu Europarreko kideek erabaki ahal izango dute eurentariko bakoitzak ministro bana izatea laguntzaile, eta Batzordeko buruak, berriaz, Batzordeko kide bat eraman ahal izango du laguntzaile. Egoeraren arabera beharrezkoa denean, Kontseiluko lehendakariak Kontseilu Europarraren bilera berezia egiteko deia egingo du.

4. Kontseilu Europarrak adostasunez hartuko ditu erabakiak, Tratatuak bestelakorik xedatu ezean.

5. Kontseilu Europarrak gehiengo kualifikatuz hautatuko du lehendakaria bi urte eta erdiko agintaldi baterako; kargu hori beste behin bakarrik bete ahal izango du pertsona berak. Eragozpen edo falta larriren bat gertatuz gero, Kontseilu Europarrak prozedura bera erabiliz eman ahal izango dio amaiera lehendakariaren agintaldiari.

6. Kontseilu Europarreko lehendakaria:

a) Kontseilu Europarraren lanetan bera izango da buru eta sustatzaile;

b) Kontseilu Europarraren lanak prestatzeko eta horiei jarraipena emateko ardura izango du, Batzordearen lehendakariarekin batera lan-kidetzan eta Gai Orokorraren Kontseiluaren lanetan oinarrituta;

c) Kontseilu Europarraren barnean kohesioa eta adostasuna sendotzen ahaleginduko da;

d) Kontseilu Europarraren bileretako bakoitza amaitutakoan, txostena aurkeztuko dio Europako Parlamentuari.

Kontseilu Europarreko lehendakariak, bere mailari eta izaerari dagokienez, Batasunaren atzerri-ordezkaritza hartuko du bere gain atzerri- eta segurtasun-politika erkidearen gaitan, Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkariek dituen eskurantzeari kalterik egin gabe.

Kontseilu Europarraren lehendakariak ezin izango du estatu kideetan inolako aginterik izan.

16. artikulua

1. Kontseiluak legegintza eta aurrekontu-gintza beteko ditu Europako Parlamentuarekin batera. Politikak zehazteko eta koordinazio-lana egiteko eginkizunak beteko ditu, Tratatuak ezarritako baldintzetan.

2. Kontseilua osatzeko orduan estatu kideetako bakoitzak ordezkarik bat izango du, ministro-mailakoa. Ordezkarik horiek bakoitzak bere estatuko gobernuak konprometitzeko adinako ahalmena izango dute, baita botoa emateko eskubidea ere.

3. Kontseiluak gehiengo kualifikatuz hartuko ditu erabakiak, Tratatuak bestelakorik xedatu ezean.

4. 2014ko azaroaren 1etik aurrera, gehiengo kualifikatuak gutxienez Kontseiluko kideen % 55 bilduko du, gutxienez hamabost kide barne dituela, eta estatu horiek gutxienez Batasuneko biztanleriaren % 65 hartu behar dute barne.

Blokeo-gutxiengoak Kontseiluko lau kide bildu behar ditu gutxienez; horrelakorik ezean, gehiengo kualifikatua lortuztat joko da.

Gehiengo kualifikatua lortzeko botoa arautzen duten gainerako modalitateak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 238. artikuluko 2. paragrafoan daude jasota.

5. Gehiengo kualifikatuaren definizioari buruzko xedapen iragankorrak 2014ko urriaren 31 arte izango dira aplikaziokoak; xedapen horiek eta 2014ko urriaren 31ren eta 2017ko martxoaren 31ren artean aplikagarriak direnak xedapen iragankorrei buruzko protokoloan ezarriko dira.

6. Kontseilua osaera ezberdinak hartuta bilduko da, Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 236. artikuluekin bat.

Gai Orokorren Kontseiluak zainduko du Kontseiluaren osaera guztietan egindako lanak euren artean koherenteak izan daitezen. Kontseilu Europarraren bilerak prestatuko ditu eta bileren ondorengo jarduna betetzen dela bermatuko du, Kontseilu Europarreko lehendakariarekin eta Batzordearekin harremanetan da-goela.

Atzerri Arazoetako Kontseiluak Batasunaren atzerri-ekintza landuko du, Kontseilu Europarrak zehaztutako jarraibide estrategikoak aintzakotzat hartuta, eta Batasunaren jarduna koherentea izan dadin jagongo du.

7. Estatu kideen Gobernuetako Ordezkarik Iraunkorren Komitea arduratuko da Kontseiluko lanak prestatzeaz.

8. Kontseilua jendaurrean bilduko da legegintzako egintzaren proiektu bati buruz eztabaidatu eta botoa eman behar duenean. Hori betetze aldera, Kontseiluaren saio bakoitzak bi zati izango ditu, bata, Batasunaren legegintzako egintzei buruz eztabaidatzeko, eta, bestea, legegintzakoak ez diren jardueretan aritzeko.

9. Kontseiluan estatu kideen ordezkari direnek osatuko dute lehendakaritza Kontseiluaren osaeretan, Atzerri Arazoetako osaeran izan ezik, eta, horretarako, berdintasunezko txandakatze-sistema bat erabiliko dute, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 236. artikuluetan ezarritako baldintzen arabera.

17. artikulua

1. Batzordeak Batasunaren interes orokorra sustatuko du eta horretarako ekimen egokiak bidaratuko ditu. Tratatuak aplikatzen direla eta instituzioek tratatuen arabera hartutako neurriak aplikatzen direla begiratu du. Batasuneko Zuzenbidea aplikatzen dela gainbegiratu du, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren kontrolpean. Aurrekontua gauzatu du eta programak kudeatuko ditu. Era berean, koordinatze-, gauzatzeko- eta kudeatzeko-eginkizunak ere beteko ditu, Tratatuak ezartzen dutenaren arabera. Atzerri- eta segurtasun-politika erkidearen kasuan eta Tratatuak jasotako gainerako kasuetan izan ezik, Batasunaren atzerri-ordezkaritzaz arduratuko da. Batasunaren urteko programen eta urte anitzeko programen ekimenak onartuko ditu, instituzio arteko akordioak lortzeko asmoz.

2. Batasunaren legeegintzako egintzak Batzordearen proposamenez baino ezingo dira onartu, Tratatuak bestelakorik xedatu ezean. Bestelako egintzak Batzordearen proposamenez onartuko dira Tratatuak ezartzen dutenean.

3. Batzordearen agintaldia bost urtekoa izango da.

Beren gaitasun orokorra eta Europarekiko duten konpromisoa aintzakotzat izanik hautatuko dituzte Batzordeko kideak, zalantzarik gabeko independentzia agertzen duten pertsonen artean aukeratuta.

Batzordeak independentzia osoz beteko ditu bere erantzukizunak. Batzordeko kideek, 18. artikuluen 2. paragrafoak xedatutakoari kalterik egin gabe, ez dute eskatuko ez onartuko inongo gobernu, instituzio, organo zein organismoren jarraibiderik. Ez dute parte hartuko beren betebeharrekin edo beren eginkizunak beteetzearekin bateraezina den ezein egintzatan.

4. Lisboako tratatua indarrean jartzen denetik 2014ko urriaren 31ra bitartean izendatuko den Batzordea estatu kideetako herritar banak osatuko dute, lehendakaria eta Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkaria barne hartuta. Atzerri- eta se-

gurtasun-politika erkideko goi-ordezkaria lehendakariordeetako bat izango da.

5. 2014ko azaroaren 1etik aurrera, Batzordeak honako kide-kopuru hau izango du: estatu kideen kopuruaren bi heren, Batzordeko lehendakaria eta atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkaria barne direla, baldin eta Kontseilu Europarrak zenbateko hori aho batez aldatzea erabakitzen ez badu.

Batzordeko kideak estatu kideetako herri-tarren artean hautatuko dira, estatu kide guztien aniztasun demografiko eta geografikoa kontuan hartzea ahalbidetuko duen txandaketa-sistema guztiz berdina erabilia estatu kide guztien artean. Sistema aho batez ezarriko du Kontseilu Europarrak, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 244. artikuluen arabera.

6. Batzordeko lehendakariak:

a) norabideak zehaztuko ditu, Batzordeak horien arabera beteko baititu bere betebeharrak.

b) Batzordearen barne-antolamendua erabakiko du, eta begiratu du Batzordeak koherentziaz, eraginkortasunez eta kide anitzeko organo modura jardun dezan.

c) lehendakariordeak izendatuko ditu Batzordeko kideen artean, Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkaria izan ezik.

Batzordeko kideak dimisioa aurkeztuko du, baldin eta lehendakariak hala egiteko eskatzen badio. Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkariek dimisioa aurkeztuko du, 18. artikuluen 1. paragrafoan ezarritako prozeduraren arabera, baldin eta lehendakariak hala egiteko eskatzen badio.

7. Europako Parlamenturako hauteskundeak emaitzak aintzat hartuta, eta egoki diren kontsultak eginda, Kontseilu Europarrak, gehiengo kualifikatuz, Batzordeko lehendakari-kargua betetzeko hautagaia proposatuko dio Europako Parlamentuari. Europako Parlamentuak hautagaia aukeratu du, Parlamentua osatzen duten kideen gehiengoz. Hautagaia beharrezko den gehiengoa lortzen ez badu, Kontseilu Europarrak, gehiengo kualifikatuz, beste hautagai bat proposatuko du hila beteko epean; ondoren, Europako Parlamentuak aukeratu beharko du prozedura bera erabilia.

Kontseiluak, lehendakari hautetsiarekin ados jarrita, Batzordeko kide izendatzeko proposatuko diren gainerako pertsonen zerrenda onartuko du. Estatu kideek aurkeztutako proposamenetatik abiatuta aukeratuko dira pertsona horiek, betiere, 3. paragrafoaren bigarren lerrokadan eta 5. paragrafoaren bigarren lerrokadan adierazitako irizpideekin bat etorruta.

Batzordeko lehendakaria, Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkaria eta gainerako kideak Europako Parlamentuaren onarpen-botoaren menpe jarriko dira kide anitzeko organo modura. Onespenez hori oinarritzat hartuta, Kontseilu Europarrak izendatuko du Batzordea, gehiengo kualifikatuz.

8. Batzordeak kide anitzeko organo modura izango du erantzukizuna Europako Parlamentuaren aurrean. Europako Parlamentuak, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 234. artikuluekin bat etorritik, Batzordearen aurkako zentsura-mozio bat bozkatu ahal izango du. Zentsura-mozio hori onartzen bada, Batzordeko kideek talde gisa eman beharko dute dimisia, eta Batasuneko eta atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkariek ere Batzordean betetzen duen kargua utzi egin beharko du.

18. artikulua

1. Kontseilu Europarrak, Batzordeko lehendakariaren onespenez, gehiengo kualifikatuz izendatuko du Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkaria. Kontseilu Europarrak prozedura bera erabiliz amaierazi ahal izango du haren agintaldia.

2. Goi-ordezkaria arduratuko da Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideaz.

Bere proposamenen bidez politika hori eginen lagunduko du, eta Kontseiluaren mandatarik denez, politika hori gauzatuko du. Berdin jokatuko du segurtasun- eta defentsa-politika erkideari dagokionez.

3. Goi-ordezkaria izango da Atzerri Arazoetako Kontseiluaren buru.

4. Goi-ordezkaria Batzordeko lehendakariordeetako bat izango da. Batasunaren atzerri-ekintzaren koherentziaz arduratuko da. Batzordearen barruan, atzerri-harremanen eremuan Batzordeari dagozkion erantzukizunez eta Batzordearen atzerri-ekintzaren beste alderdi batzuk koordinatuz ere arduratuko da. Batzordearen barruan dituen erantzukizun horiek betetzean, eta soilik erantzukizun horiei dagozkionez, goi-ordezkaria Batzordearen funtzionamendua arautzen duten prozedurei atxikita egongo da, baldin eta hori bateragarria bada 2. eta 3. paragrafoekin.

19. artikulua

1. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak bere baitan hartuko ditu Justizia Auzitegia, Auzitegi Orokorra eta auzitegi espezializatuak. Tra-

tatuaren interpretazioan eta aplikazioan Zuzenbidea errespetatzen dela bermatuko du.

Estatu kideek beharrezko diren errekurtsobide guztiak ezarriko dituzte Batasuneko Zuzenbideak babestutako eremuetan babes judizial eragingarria berma dadin.

2. Justizia Auzitegia Batasuneko estatu bakoitzeko epaile banaz osatuko da. Abokatu nagusien laguntza izango du.

Auzitegi Orokorrak, gutxienez, estatu kide bakoitzeko epaile bana izango du.

Justizia Auzitegiko epaile eta abokatu nagusiak eta Auzitegi Orokorreko epaileak aukeratzeko, zalantzarik gabeko independentzia agertzen duten pertsonak eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 253. eta 254. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten hautagaiak hartuko dira. Estatu kideetako gobernuak izendatuko dituzte, denak ados jarrita, sei urteko epe baterako. Epaile eta abokatu nagusi horiek, epe hori bukatutakoan, berriro ere izendatu ahal izango dira.

3. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak, Tratatuaren arabera, hauei buruz emango ditu ebazpenak:

a) Estatu kideren batek, instituzioren batek edo pertsona fisiko zein juridikoren batek aurkeztutako errekurtsoei buruz;

b) epaitu aurreko arazoaren kasuan, estatu kideetako jurisdikzio-organismoek halaxe eskatuta, Batasuneko Zuzenbidearen interpretazioari buruz edo instituzioek onartutako egintzen baliozkotasunari buruz;

c) Tratatuaren jasotako gainerako kasuetan.

IV. TITULUA

LANKIDETZA INDARTUEI BURUZKO XEDAPENAK

20. artikulua

(lehengo 27 Atik 27 E-ra, 40.etik 40 B-ra eta 43.etik 45.era bitarteko artikulua EBT eta lehengo 11 eta 11 A artikulua EET)

1. Estatu kideek, baldin eta Batasunaren eskumen eksklusiboak ez diren gaien esparruan elkarrekin lankidetzan indartua ezarri nahi badute, Batasunaren instituzioak erabili eta eskumen horiek baliatu ahal izango dituzte Tratatuaren xedapen egokiak aplikatuta, eta, betiere, artikulua honetan eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 326. artikulutik 334. artikulura bitartekoetan jasotako mugen barruan eta hor zehaztutako modalitateen arabera.

Lankidetza indartuen helburua Batasunaren xedeak sustatzea, bere interesak babestea eta integrazio-prozedura sendotzea izango da. Lankidetza indartuak estatu kide guztientzat irekita egongo dira beti, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 328. artikuluen arabera.

2. Lankidetza indartu bat baimentzeko erabakia Kontseiluak azken irtenbide moduan onartu behar du, ondorio gisa argi ikusten duenean lankidetza horrek zituen helburuak Batasunak bere osotasunean ezin dituela zentzuzko epe batean lortu, eta lankidetza horretan, gutxienez, bederatzi estatu kidek parte hartzekotan. Kontseiluak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 329. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera erabakiko du.

3. Kontseiluko kide guztiek parte hartu ahal izango dute eztabaidan; bozketan, ordea, lankidetza indartu batean partaide diren estatu kideek Kontseiluan dituzten ordezkariek, horietatik bakarrik hartu ahal izango dute parte. Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 330. artikuluan ezartzen dira bozkatzeko moduak.

4. Lankidetza indartu baten esparruan onartutako egintzak lotura-indarrekoak izango dira horretan partaide diren estatu kideentzat; horientzat bakarrik. Egintza horiek ez dira joko estatu atxikigaiari onartu beharreko altxortzat.

V. TITULUA

BATASUNAREN ATZERRI-EKINTZARI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK ETA ATZERRIARI ETA SEGURTASUNARI BURUZKO POLITIKA ERKIDEAREN GAINEKO BERARIAZKO XEDAPENAK

1. KAPITULUA

BATASUNAREN ATZERRI-EKINTZARI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK

21. artikulua

1. Sortzeko, garatzeko eta zabaltzeko orduan sustagarri izan dituen printzipio berberak izango dira Batasunaren ekintzaren oinarri nazioartean diharduenean ere, mundu osora zabaldu nahi dituelako hauek: demokrazia; zuzenbide-estatua; giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen unibertsaltasuna eta zatiezintasuna; giza duintasunaren errespetua; berdintasun- eta elkartasun-printzipioak, eta Nazio Batuen Gutuneko nahiz nazioarteko zuzenbideko printzipioen errespetua.

Lehen lerrokadan aipaturiko printzipioak beretzat ere badituzten hirugarren herrialdeekin, nazioarteko antolakundeekin, eskualdeetako antolakundeekin edo munduko antolakundeekin harremanak garatzen eta elkarreak sortzen saiatuko da Batasuna. Arazo erkideei alde askotako konponbidea ematen saiatuko da, Nazio Batuen esparruan bereziki.

2. Nazioarteko harremanen eremu guztietan, Batasunak politika erkideak eta ekintzak zehaztu eta gauzatuko ditu, eta lankidetza-maila handia lortzen saiatuko da, honetarako:

a) bere balioen, funtsezko interesen, segurtasunaren, independentziaren eta osotasunaren alde egiteko;

b) demokrazia, zuzenbide-estatua, giza eskubideak eta nazioarteko zuzenbideko printzipioak sendotzeko eta babesteko;

c) bakeari eusteko, gatazkei aurrea hartzeko eta nazioarteko segurtasuna sendotzeko, Nazio Batuen Gutunaren helburuen eta printzipioen arabera, Helsinkiko Azken Aktako printzipioen arabera eta Parisko Gutunaren helburuen arabera, kanpoko mugekin zerikusia dutenak barne;

d) garatzeko bidean dauden herrialdeetako ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren garapen iraunkorraren alde egiteko, helburu nagusi batekin: pobrezia desagerraraztea;

e) herrialde guztiak munduko ekonomiara biltzeko ahaleginak egiteko, besteak beste nazioarteko merkataritzak dituen oztopoak arian-arian ezabatuz;

f) ingurumenaren kalitatea eta munduko baliabide naturalen kudeaketa iraunkorra babesteko eta hobetzeko nazioarteko neurriak antolatzen laguntzeko, garapen iraunkorra lortze aldera;

g) hondamendiren bat jasaten duten jendarteei, herrialdeei eta eskualdeei laguntzeko, berdin naturak eragindakoa edo gizakiak eragindakoa den; eta

h) alde askotako lankidetza sendoa eta munduaren gobernamendu zuzena oinarritzat dituen nazioarteko sistema baten alde egiteko.

3. Batasunak 1. eta 2. paragrafoetan aipaturik dauden printzipioak errespetatuko ditu, eta horko helburuak lortzen saiatuko da, titulu honetan eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren bosgarren zatian jasota dauden eremuetako atzerri-ekintza eta bere gainerako politiketako atzerri-gaiak zehaztu eta aurrera eraman behar dituen.

Batasunak begiratuko du koherentziari eusten zaiola, bai bere atzerri-ekintzaren eremu guztien artean, bai eremu horien eta bere gainera-

ko politiken artean ere. Kontseiluak eta Batzordeak bermatuko dute koherentzia hori, eta lan-kidetzan jardungo dute horretarako, Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezakariak lagundurik.

22. artikulua

1. Kontseilu Europarrak zehaztuko ditu Batasunaren interes eta helburu estrategikoak, 21. artikuluan zehazturik dauden printzipioetan eta helburuetan oinarriturik.

Batasunaren interes eta helburu estrategikoak direla-eta Kontseilu Europarrak hartzen dituen erabakiak atzerri- eta segurtasun-politika erkideari buruzkoak eta Batasunaren atzerri-ekintzaren beste eremu batzuei buruzkoak izango dira. Batasunaren eta herrialde edo eskualde baten arteko harremanei buruzkoak izango dira batzuk, edo gai jakin bati buruzkoak beste batzuk. Noiz arte balio duten eta Batasunak eta estatu kideek eman beharreko baliabideak ere zehaztu beharko dute.

Kontseilu Europarrak aho batez erabakiko du, Kontseiluaren gomendio batean oinarriturik; esparrua zein, halako modalitatea erabiliko du Kontseiluak gomendio hori emateko. Tratatu-tan jasota datozen prozeduren arabera gauzatu beharko dira Kontseilu Europarraren erabakiak.

2. Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezakariak eta Batzordeak Kontseiluan proposamenak batera aurkez ditzakete, goi-ordezakariak atzerri- eta segurtasun-politika erkidearen eremuan, eta Batzordeak, berriaz, atzerri-ekintzaren gainerako esparruetan.

2. KAPITULUA

ATZERRIARI ETA SEGURTASUNARI BURUZKO POLITIKA ERKIDEAREN GAINEKO BERARIAZKO XEDAPENAK

1. ATALA

XEDAPEN ERKIDEAK

23. artikulua

Kapitulu honen indarrez, lehenengo kapituluaren aurreikusitako xedapen orokorretako printzipioak dira Batasunaren ekintzaren oinarri nazioartean diharduenean, Batasunaren ekintza xedapen horien helburuen bila dabil eta xedapen horien arabera egingo da.

24. artikulua

(lehengo 11. artikulua EBT)

1. Atzerri- eta segurtasun-politika erkidean Batasunak duen eskumenak Batasunaren atzerri-politikaren eremu guztiak eta segurtasunari buruzko gai guztiak hartuko ditu bere baitan, defentsa erkidea ekar dezakeen defentsa-politika erkidea arian-arian eratzea barnean hartuta.

Berariazko arau eta prozedurek arautuko dute atzerri- eta segurtasun-politika erkidea. Kontseilu Europarrak eta Kontseiluak zehaztu eta aplikatuko dute, eta aho batez hartu beharko dituzte erabakiak, Tratatuak bestelakorik diotenean izan ezik. Kanpo geratzen da legeegintzako egintzak onartzea. Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezakariak eta estatu kideek gauzatuko dute atzerri- eta segurtasun-politika erkidea, Tratatuaren arabera. Europako Parlamentuaren eta Batzordearen berariazko egitekoa arlo horretan Tratatu-tan zehazten da. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ez du eskumenik izango xedapen hauei dagokienez, baina bai izango du eskumena tratatu honetako 40. artikulua errespetatzen dela kontrolatzeko eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 275. artikuluko bigarren lerrokadan aipatutako zenbait erabakiren legezkotasuna kontrolatzeko.

2. Batasunak, atzerri-ekintzarako dituen printzipioen eta helburuen eremuaren barruan, atzerri- eta segurtasun-politika erkidea zuzendu, definitu eta gauzatuko du, eta zeregin horretan, oinarri gisa, estatu kideen arteko elkartasun politikoa garatuko du, interes orokorrekoak diren gaiak zehaztu eta estatu kideen ekintzaren elkarrekin gero eta zabalagoa lortuko du.

3. Estatu kideek biziki eta baldintzarik jarri gabe bultzatuko dute Batasunaren atzerri- eta segurtasun-politika elkarrenganako leialtasunez eta elkartasunez, eta Batasunak eremu horretan egiten duena errespetatuko dute.

Estatu kideek batera jardungo dute elkarren arteko elkartasun politikoa indartu eta garatzeko. Ez dute parte hartuko ez Batasunaren interesen aurkako ezein ekintzatan, ez eta Batasunak nazioarteko harremanetan kohesio-indar gisa duen eraginkortasuna kalte dezakeen ezein ekintzatan.

Printzipio horiek betetzen direla jagongo dute Kontseiluak eta goi-ordezakariak.

25. artikulua

(lehengo 12. artikulua EBT)

Batasunak honela gidatuko du atzerri- eta segurtasun-politika erkidea:

- a) bere norabide nagusiak definituz;
- b) erabakiak hartuz, gauza hauek xedatzeko:
 - i) Batasunak egingo dituen ekintzak,
 - ii) Batasunak izango dituen jarrerak,
 - iii) aurreko i) eta ii) tartekietan zehazturik dauden erabakiak betearazteko modalitateak;
- eta
- c) estatu kideen arteko lankidetza sistematikoa indartuz, politikak aurrera eramateko orduan.

26. artikulua

(lehengo 13. artikulua EBT)

1. Kontseilu Europarrak Batasunaren interes estrategikoak ezarriko ditu, helburuak finkatuko ditu eta atzerri- eta segurtasun-politika erkideko norabide orokorrak zehaztuko ditu, defentsako eremuan eraginak dauzkaten gaiak barne hartuta. Beharrezko erabakiak hartuko ditu.

Nazioarteko gertakariren batek hala eskatzen badu, Kontseilu Europarreko lehendakariak Kontseilu Europarraren aparteko bilera baterako deia egingo du, gertakari hori dela-eta Batasunaren politikak zein ildo estrategikori jarraitu behar dion zehazteko.

2. Kontseilu Europarrak definituriko norabide nagusietan eta ildo estrategikoetan oinarriturik, Kontseiluak landuko du atzerri- eta segurtasun-politika erkidea, eta politika hori definitzeko eta aplikatzeko beharrezko erabakiak hartuko ditu.

Kontseiluak eta atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkariek Batasunaren ekintzaren batasuna, koherentzia eta eragin-kortasuna jagongo dituzte.

3. Goi-ordezkariek eta estatu kideek gauzatuko dute atzerri- eta segurtasun-politika erkidea, estatu bakoitzaren eta Batasunaren bitartekoak erabilita.

27. artikulua

1. Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkariek ere lagunduko du, proposamenak eginez, atzerri- eta segurtasun-politika erkidea osatzen, eta bere ardurapean izango du Kontseilu Europarrak eta Kontseiluak hartutako erabakiak gauzatzea. Ordezkar hori izango da Atzerri Arazoetako Kontseiluko lehendakaria.

2. Atzerri- eta segurtasun-politika erkideari buruzko gaietan, goi-ordezkaria izango da Batasunaren ordezkaria. Hark zuzenduko du, Batasunaren izenean, hirugarren herrialdeekiko elkarrikeria politikoa, eta hark adieraziko du

Batasunaren jarrera, nazioarteko erakundeetan eta nazioarteko biltzarretan.

3. Bere aginte-lanak aurrera eramateko, goiordezkariek atzerri-ekintzarako zerbitzu europar bat izango du lagungarri. Zerbitzu hori estatu kideetako zerbitzu diplomatikoekin lankidetzan arituko da, eta, osatera dela-eta, Kontseiluko Idazkaritza Nagusiko eta Batzordeko zerbitzu eskudunetako hainbat funtzionariok eta estatuetako zerbitzu diplomatikoetatik zerbitzu-eginkizunetan etorritako hainbat langilek osatuko dute. Atzerri-ekintzarako zerbitzu europarraren antolaketa eta funtzionamendua erabaki bidez zehaztuko da; erabaki hori, goi-ordezkararen proposamenez, Kontseiluak hartuko du, Europako Parlamentuari aurretiaz kontsulta eginda eta Batzordeak aurretiaz onespena emanda.

28. artikulua

(lehengo 14. artikulua EBT)

1. Nazioarteko egoera jakin batek Batasunaren ekintza operatibo bat eskatzen badu, Kontseiluak beharrezko diren erabakiak hartuko ditu. Erabaki horietan zehaztuko dira helburuak, helmena eta Batasunak horretarako jarri beharreko baliabideak, baita ekintza betearazteko baldintzak eta, beharrezkoa bada, iraupena ere.

Egoera-aldaketaren bat gertatuz gero, horrek eragin nabarmena badu erabakiaren xede den gairen batean, Kontseiluak erabaki horren printzipioak eta helburuak berrikusiko ditu, eta behar diren erabakiak hartuko ditu.

2. Lehenengo paragrafoko erabakiak lotesleak izango dira estatu kideentzat, jarrerak hartzen dituztenean, eta beren ekintzak gara-tzen dituztenean.

3. Lehenengo paragrafoan aipaturiko erabakietako bat aplikatzean, estatu-jarrera bat hartzeko edo ekintza nazional bati ekiteko plan bat baldin badago, dagokion estatuko informazioa eman beharko du, behar besteko epea emanda, hala behar izanez gero, Kontseiluak erabaki bat adosteko astia izan dezan. Aurrez informazioa emateko betebeharra ez zaie aplikatuko Kontseiluaren erabakiak estatu-eremura ekartzeko transposizio hutsak diren neurriak.

4. Egoeraren bilakaeraren ondorioz premia larrian badaude, eta 1. paragrafoan aipaturiko Kontseiluaren erabakietako baten berrikusketa egiten ez bada, estatu kideek beharrezko neurriak hartzeko aukera izango dute behar, erabakiaren helburu orokorrak gogoan harturik. Dena delako estatu kideak neurri

horiei buruzko informazioa emango dio Kontseiluari berehala.

5. Baldin eta estatu kideren batek garrantzi handiko zailtasunak badauzka artikulua honetan aipatutako erabaki bat aplikatzeko, horretaz eztabaidatu eta irtenbide egokiak bilatzeko eskatuko dio Kontseiluari. Irtenbide horiekin ezin izango da 1. paragrafoan aipatutako erabakiaren helburuen aurka jokatu, ez eta ekin-tzaren eraginkortasuna murriztu ere.

29. artikulua

(lehengo 15. artikulua EBT)

Geografiaren arloko edo beste gai bati buruzko auzi jakinetan, Batasunaren ikuspuntua zehazteko, Kontseiluak erabakiak hartuko ditu. Estatu kideek jagongo dute beren estatu-politikak Batasunaren jarreraren arabera izan daitezen.

30. artikulua

(lehengo 22. artikulua EBT)

1. Edozein estatu kidek, Batasuneko atzerri-eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkar-
iak, edo goi-ordezkar-
iak Batzordearen bab-
sarekin, atzerri- eta segurtasun-politika erkideari buruzko edozein gai eraman dezake Kontseilura, baita, hurrenez hurren, ekimenak edo proposamenak aurkeztu ere Kontseiluari.

2. Erabakia arin eman behar den kasuetan, goi-ordezkar-
iak, bere kabuz edo estatu kideren batek eskatuta, Kontseiluaren bilera berezira-
ko deia egin dezake, berrogeita zortzi orduko epean, edo, larrialdia erabatekoa bada, epe la-
burragoan.

31. artikulua

(lehengo 23. artikulua EBT)

1. Kontseilu Europarrak eta Kontseiluak aho batez hartu behar dituzte kapitulu honetan aipatzen diren erabakiak, kapitulu honetan bertan besterik xedatzen denean izan ezik. Kanpo geratzen da lege-gintzako egin-tzak onartzea.

Kontseiluko kideren batek bozketan abstentzioa egiten badu, adierazpen formalak gehi diezaioke abstentzioari, lerrokada honen arabera eginda. Kasu horretan, bera ez dago erabakia aplikatzera behartuta, baina Batasunarentzat loteslea dela onartu behar du. Elkarrenganako elkartasunez, ordea, dena delako estatu kideak ezin izango du inolako ekintzarik egin, erabaki

horretan oinarrituta Batasunak erabakitako ekintza eragotzi edo galarazteko, eta beste es-tatu kideek ere errespetatu egin behar dute ha-ren jarrera. Baldin eta, abstenitzeaz gain adie-razpen hori egiten duten kontseiluko kideen ko-purua gutxienez estatu kideen herena eta Ba-tasuneko populazioaren herena ordezkatzen ba-dute, erabaki hori ez da onartuko.

2. Goiko 1. paragrafoan xedatutakoa sal-buetsita, gehiengo kualifikatuz jardungo du Kontseiluak:

- Batasunaren interes eta helburu estrate-gikoei buruz Kontseilu Europarrak har-tutako erabaki batetik abiatutik (22. ar-tikuluaren 1. paragrafoan dago jasota erabaki horien berri), Batasunaren ekin-tza edo jarrera bat zehazteko erabaki bat hartu behar duenean;
- Batasuneko atzerri- eta segurtasun-poli-tika erkideko goi-ordezkar-
iak Kontseilu Europarraren berariazko eskari bati eran-tzuteko aurkeztutako proposamen bate-tik abiatutik (berdin dio eskari hori bere kabuz edo goi-ordezkar-
iaren ekimenez egin dion), Batasunaren ekintza edo ja-rrera bat zehazteko erabaki bat hartu behar duenean;
- Batasunaren ekintza edo jarrera bat ze-hazten duen erabaki bat aplikatzeko edo-zein erabaki hartu behar duenean;
- ordezkar-
i berezi bat izendatzeko eraba-kia hartu behar duenean, 33. artikulua-
ren arabera.

Kontseiluko kide batek, estatu-politikako ezinbesteko eta ageri-ageriko arrazoiak direla-eta, deklaritzen badu gehiengo kualifikatuz onartu beharreko erabaki jakin bat hartzearen aurka agertuko dela, ez da bozketa egingo. Ka-suan kasuko estatu kide horrekin harreman es-tuan, goi-ordezkar-
ia estatu horrek onartzeko moduko konponbide bat aurkitzen saiatuko da. Ezinezkoa bada konponbide hori aurkitzea, Kontseiluak, gehiengo kualifikatuz, gai hori Kontseilu Europarrera bidaltzeko eska dezake, han erabaki bat har dezaten, aho batez.

3. Kontseilu Europarrak erabaki bat hartu ahal izango du aho batez, Kontseiluak gehien-go kualifikatuz erabaki behar duela ezartzeko 2. paragrafoan agertzen direnez bestelako ka-suetan.

4. Goiko 2. eta 3. paragrafoak ez zaizkie aplikatuko eremu militarrean edo defentsa-eremuan ondorioak dituzten erabakiei.

5. Kontseilua osatzen duten kideen gehien-go ebatziko du Kontseiluak, prozedura-gaietan.

32. artikulua

(lehenengo 16. artikulua EBT)

Estatu kideek, Kontseilu Europarraren eta Kontseiluaren baitan, kontsultak egingo dizkiote elkarri interes orokorra daukaten atzerri-eta segurtasun-politikako edozein gairen gainean, betiere, ikuspegi erkidea zehazte aldera. Nazioarteko esparruan edozein jardunetan hasi aurretik edo Batasunaren interesetan eragina izan dezakeen edozein konpromiso hartu aurretik, estatu kide bakoitzak gainerakoei kontsulta egingo die Kontseilu Europarraren edo Kontseiluaren baitan. Estatu kideek, beren jarduna elkar-ganatzu, bermatu egin behar dute Batasunak nazioarteko esparruan bere interesak eta balioak defendatzeko modua izan dezan. Estatu kideek elkartasunez jokatu dute beren artean.

Kontseilu Europarrak edo Kontseiluak zehaztuta badute Batasunaren ikuspuntu erkidea, lehenengo lerrokadan dioten moduan, Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkariek eta estatu kideetako Atzerri Arazoetako ministroek koordinaturik lan egingo dute Kontseiluan.

Estatu kideen ordezkariak diplomatikoei eta Batasunak hirugarren herrialdeetan eta nazioarteko erakundeetan dituen ordezkariak elkarri lagundu beharko diote, eta ikuspuntu erkide hori zehazten eta abian jartzen lagunduko dute.

33. artikulua

(lehenengo 18. artikulua EBT)

Atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkarieren proposamenez, Kontseiluak ordezkari berezi bat izenda dezake, gai politiko zehatzei buruzko mandatua izango duena. Ordezkariek bereziak goi-ordezkarieren agintaritzapean beteko du bere agintaldia.

34. artikulua

(lehenengo 19. artikulua EBT)

1. Estatu kideek nazioarteko erakundeetan koordinatuko dute beren ekintza, baita nazioarteko biltzarrak egiten direnean ere. Estatu kideek Batasunaren jarrera defendatu behar dute eztabaida-bileran horietan. Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkariek antolatuko du koordinazio hori.

Estatu kide guztiek parte hartzen ez duten nazioarteko erakundeetan eta nazioarteko biltzarretan, parte hartzen dutenek Batasunaren jarrera defendatu behar dute.

2. Nazioarteko erakunde edo nazioarteko biltzarren batean estatu kide guztiek parte hartzen ez dutenean, interes erkideko gairen bat bada tartean, ordezkaturik dauden estatuek gainerakoak jakinaren gainean edukiko dituzte, baita goi-ordezkariek ere, 24. artikuluko 3. paragrafoarekin bat.

Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluko kide ere badiren estatu kideek beren artean abenikoa lortu eta erabat informatuta eduki behar dituzte Batasuneko gainerako estatuak eta goi-ordezkariek. Segurtasun Kontseiluko kide diren estatu kideek, beren egitekoak betetzerakoan, Batasunaren jarrerak eta interesak defendatuko dituzte, Nazio Batuen Gutuneko xedapenen indarrez dagozkien erantzukizunei kalterik egin gabe.

Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluaren gai-zerrendan jasotako gairen batean Batasunak zehaztua badu bere jarrera, Kontseilu horretako kideak diren estatu kideek goi-ordezkariei Batasunaren jarrera azaltzeko gonbit egiteko eskatuko dute.

35. artikulua

(lehenengo 20. artikulua EBT)

Batasunak kapitulu honen indarrez hartutako jarrerak eta ekintzak zehazten dituzten erabakiak direla-eta, estatu kideen ordezkariak diplomatiko eta kontsularrek, baita Batasunak hirugarren herrialdeetan nahiz nazioarteko biltzarretan dauzkan ordezkariak, eta nazioarteko erakundeetan dauzkaten ordezkariak ere, lankidetzan jardun behar dute erabaki horiek errespetatu eta gauzatuko direla bermatzeko.

Beren arteko lankidetzak gehiago indartzeko, informazioa trukatu eta hainbat balorazio batera egingo dute.

Batasuneko herritarrek Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 20. artikuluko 2. paragrafoa c) idatz-zatian jasota duten eskubidea —hirugarren herrialdeetako lurraldean babesa izateko eskubidea— aplikatzen lagunduko dute, baita Tratatu horretako 23. artikulua aplikatu beharrez hartutako neurriak ere.

36. artikulua

(lehenengo 21. artikulua EBT)

Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkariek aldi-aldi kontsulta egingo dio Europako Parlamentuari atzerri- eta segurtasun-politika erkidearen alderdi nagusien eta oinarritzko aukeren gainean, eta segurtasun-eta defentsa-politika erkidearen gainean; poli-

tika horien bilakaeraren berri emango dio. Europako Parlamentuaren iritzia behar bezala kontuan har daitezen zainduko du. Ordezkaritza bereziak Europako Parlamentuari emandako informazioari loturik egon ahal izango dira.

Europako Parlamentuak galderak egin edo gomendioak aurkez diezazkieke Kontseiluari eta goi-ordezkaritari. Bi urtetik behin, atzerri- eta segurtasun-politika erkidearen garapenean egindako aurrerapenak eztabaidatuko ditu, segurtasun- eta defentsa-politika erkidea barne hartuta.

37. artikulua

(lehengo 24. artikulua EBT)

Kapitulu honetan jasota dauden esparruetan, Batasunak estatu batekin edo bat baino gehiagorekin edo nazioarteko erakundeekin akordioak sinatu ahal izango ditu.

38. artikulua

(lehengo 25. artikulua EBT)

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 240. artikuluko xedapenei kalterik egin gabe, Politika eta Segurtasun Komite batek nazioarteko egoeraren jarraipena egingo du atzerri- eta segurtasun-politika erkideari dagozkion eremuetan, eta, Kontseiluak berak eskatuta, edo atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkaritza eskatuta zein bere ekimenez, Kontseiluari zuzendutako irizpenak emanda, politika zehazten lagunduko du. Adostutako politikak gauzatzea ere berak ikuskatuko du, goi-ordezkaritza dauzkan eskumenei kalterik egin gabe.

Kapitulu honen esparruan, Politika eta Segurtasun Komite horren lana izango da, Kontseiluari eta goi-ordezkaritza ardurapean, 43. artikuluan krisiak kudeatzeko jasotako operazioak politikoki kontrolatzea eta estrategikoki zuzentzea.

Krisiak kudeatzeko lanak egiteko, eta lan horiek dirauten beste denborarako, Kontseiluak zehaztutako moduan, Kontseiluak baimena eman diezaiokete Komiteari lanen kontrol politikoari eta zuzendaritza estrategikoari dagozkien bidezko erabakiak har ditzan.

39. artikulua

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 16. artikuluen arabera, eta 2. paragrafoak xedatutakoa gorabehera, Kontseiluak erabaki bat hartuko du pertsona fisikoak babesteko arauak finkatzeko estatu kideek kapitulu honen aplikazio-eremuan bu-

rutzen dituzten jardunetan pertsona bakoitzaren datuei eman behar zaien tratamenduari dagokionez; datu horiek askatasunez zirkulatze-ko arauak ere emango ditu. Arau horiek errespetatzen diren ala ez agintaritza independente batek kontrolatuko du.

40. artikulua

(lehengo 47. artikulua EBT)

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 3. artikulutik 6.era, Batasunak hainbat eskumen du aitorturik, eta, eskumen horiek baliatzeko, Tratatuaren arabera hainbat prozedura erabil daiteke eta instituzioek hainbat eskurantzak daukate aitorturik, eta atzerri- eta segurtasun-politika erkidea gauzatzeak ez du inolako eraginik izango ez prozedura horien aplikazioan ez eskurantz horien helmenean.

Era berean, Batasunak kapitulu honen indarrez dituen eskumenak baliatze aldera, Tratatuaren arabera hainbat prozedura erabil daiteke eta instituzioek hainbat eskurantzak daukate aitorturik, eta artikuluko horietan aipaturiko politikak gauzatzeak ez du inolako eraginik izango ez prozedura horien aplikazioan ez eskurantz horien helmenean.

41. artikulua

(lehengo 28. artikulua EBT)

1. Kapitulu hau aplikatzeak instituzioei eragiten dizkien administrazio-gastuak Batasunaren Aurrekontuaren pentzutari izango dira.

2. Kapitulu hau aplikatzeak sortutako eragiketa-gastuak ere Batasunaren aurrekontuaren pentzutari izango dira, baina eremu militarrean edo defentsako eremuan eragin dezaketen eragiketei buruzkoak, eta Kontseiluak, aho batez, beste gauzaren bat erabakitzen duen kasuetakoak, salbuespen izango dira.

Kontseiluak beste zer edo zer erabakitzen ez badu, gasturen bat Batasunaren Aurrekontuari egozten ez zaionean, estatu kideek ordaindu beharko dute, barne-produktu gordinean oinarrituriko banaketa-klabe baten arabera. Eremu militarrean edo defentsa-eremuan eragina daukaten operazioetatik sortutako gastuei dagokionez, baldin eta 31. artikuluko 1. paragrafoko bigarren lerrokadaren arabera adierazpen formala egin badute ordezkariek Kontseiluan, estatu kideek ez dute gastuen finantzaketan laguntzeko betebeharririk.

3. Batasunaren Aurrekontuan atzerri- eta segurtasun-politika erkidearen esparruko eki-

menak finantzatzeko eta, batez ere, 42. artikuluko 1. paragrafoan eta 43. artikuluan zehazturiko misioetako bat prestatzeko dauden kredituetara bizkor iristeko aukera bermatzeko, Kontseiluak erabaki bat hartuko du, eta aukera hori gauzatzeko berariazko prozedurak zehaztuko ditu erabaki horretan. Europako Parlamentuari aurretiaz kontsulta eginda erabakiko du Kontseiluak.

Misio batzuk, 42. artikuluko 1. paragrafoan eta 309. artikuluan zehaztutakoak, estatu kideen ekarpenek osatutako hasierako funts batetik ordainduko dira, baldin eta gastu horiek Batasunaren Aurrekontuari egozten ez bazaizkio.

Kontseiluak gai hauek erabaki bidez zehaztuko ditu, eta erabaki horiek gehiengo kualifikatuz onartu beharko ditu, Batasuneko atzerri-eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkarieren proposamen bati jarraiki, hauek dira zehaztu beharrekoak:

a) hasierako funts hori osatzeko eta finantzatzeko modalitateak, funtsari atxikitako finantza-zenbatekoak bereziki;

b) hasierako funts hori kudeatzeko modalitateak;

c) finantza-kontrolerako modalitateak.

42. artikuluko 1. paragrafoaren eta 43. artikuluen arabera agindutako misioa ezin bada Batasunaren Aurrekontutik ordaindu, Kontseiluak goi-ordezkariori funts hori erabiltzeko baimena emango dio. Goi-ordezkariek Kontseiluari manu honen betearazpenaren berri emango dio.

2. ATALA

SEGURTASUN- ETA DEFENTSA-POLITIKA ERKIDEARI BURUZKO XEDAPENAK

42. artikulua

(lehenengo 17. artikulua EBT)

1. Segurtasun- eta defentsa-politika erkidea atzerri- eta segurtasun-politika erkidearen zati osoa da. Batasunari bitarteko zibil eta militarretan oinarritutako ahalbide operatiboa eskainiko dio. Batasunak bitarteko horiek erabili ahal izango ditu Batasunetik kanpoko misioetan ere, misio horien helburua bakea gordetako dela bermatzea, gatazkei aurre hartzea eta nazioarteko segurtasuna indartzea denean, Nazio Batuen Gutunaren printzipioekin bat etorriz. Zeregin horiek betetzean, estatu kideek emandako ahalbideetatik hartuko da laguntza.

2. Segurtasun- eta defentsa-politika erkideak bere baitan hartuko du Batasunaren defentsa-

politika erkidea arian-arian eratzea ere. Horrek defentsa erkidea ekarriko du, Kontseilu Europarrak hori aho batez erabakitakoan. Orduan, Kontseilu Europarrak gomendioa egingo die estatu kideei ildo horretatik erabaki bat har dezaten, bakoitzak bere konstituzioko arauekin bat etorriz.

Atal honen arabera, Batasunaren politikak ez dio eragingo zenbait estatu kideren segurtasun-eta defentsa-politikaren izaera bereziari; defentsa erkidea Ipar Atlantikoko Tratatuaren Erakundearen barruan (NATO) egin behar dutela uste duten estatu kide batzuentzat Ipar Atlantikoko Tratatutik sortutako betebeharrak errespetatu egingo ditu; eta esparru horretan segurtasunari eta defentsari buruz ezarritako politika bateratuarekin bateragarri izan behar da Batasunaren politika.

3. Estatu kideek, segurtasun- eta defentsa-politika erkidea aplikatzeko asmoz, ahalbide zibilak eta militarrek utziko dituzte Batasunaren esku, Kontseiluak zehaztutako helburuak betetzen laguntze aldera. Halaber, beren artean indar-talde multinazionalak osatzen dituzten estatu kideek ere segurtasun- eta defentsa-politika erkidearen esku utzi ahal izango dituzte ahalmenok.

Estatu kideek arian-arian beren ahalbide militarrek hobetzen joateko konpromisoa hartzen dute. Defentsa-ahalmena, ikerkuntza, eskurapena eta armagintza garatzeko esparruko Agentziak (aurrerantzean «Europako Defentsa Agentzia») honako hauek egingo ditu: behar operatiboak zehaztu; horiek betetzeko neurriak sustatu; defentsa-arloko industria- eta teknologia-oinarria indartzeko egoki diren neurri guztiak zehaztu, eta, hala dagokionean, aplikatu; armagintzari eta ahalbidei buruzko Europako politika definitzen lagundu eta ahalbide militarrek hobetzeko zereginak ebaluatzean Kontseiluari lagundu.

4. Kontseiluak, Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkarieren proposamenez edo estatu kide baten ekimenez, aho batez onartuko ditu segurtasun- eta defentsa-politika erkideari dagozkion erabakiak, artikulua honetan jasotako misioetako bati hasiera ematekoak ere barnean direla. Goi-ordezkariek estatuetako bitartekoak eta Batasunaren tresnak erabiltzeko proposamena egin ahal izango du, hala dagokionean, Batzordearekin batera.

5. Kontseiluak, Batasunaren esparruaren barruan, misio bat burutu dezan agindu ahal izango dio estatu kideen talde bati Batasunaren balioak defendatzeko eta bere interesen alde joatzeko. Misio hori burutzean, 44. artikulua izango da arau.

6. Ahalbide militarretan goreneko irizpi-deak bete eta, misiorik zorrotz-estuenak burutze aldera, arlo horretan konpromiso lotuagoak sinatu dituzten estatu kideek lankidetzaren egituratu iraunkorra eratuko dute Batasunaren esparruaren barruan. Lankidetzaren horrek 46. artikulua izango du arau, eta ez du eraginik izango 43. artikuluan xedatutako horretan.

7. Baldin eta estatu kide bati armaz erasotzen badiote bere lurraldean, gainerako estatu kideek laguntza eta sorospena eman beharko dizkiote, bakoitzak dituen bitarteko guztiak erabilita, Nazio Batuen Gutunaren 51. artikuluen arabera. Hori halaxe izango da, baina zenbait estatu kideren segurtasun- eta defentsa-politikaren berariazko izaerari kalterik egin gabe.

Esparru honetako konpromisoak eta lankidetzak gero ere Ipar Atlantikoko Tratatuaren Erakundearen barruan hartutako konpromisoei egokituko zaizkie, erakunde hori izango baita aurrerantzean ere, erakundea osatzen duten estatu kideentzat, beren defentsa kolektiboaren oinarri eta defentsa hori burutzeko organismo.

43. artikulua

1. Batasunak, 42. artikuluko 1. paragrafoan zehazturik dauden misio horietan, baliabide zibila eta militarren erabilera ahal izango ditu; jardun hauek daude misio horien barruan: desarmamendurako jarduerak bateratuak, misio humanitarioak eta erreskate-misioak, kontu militarretan aholkuak eta laguntza emateko misioak, gatazkei aurrea hartzeko eta bakeari eusteko misioak, krisia kudeatzeko aldera borroka-indarren parte hartzea eskatzen duten misioak, lekuren bat atzera bake-bidean jartzeko misioak eta gatazka amaitu ondorengo egoerak egonkortzeko operazioetarako misioak. Misio horiek denak izan daitezke terrorismoaren aurkako borrokarako lagungarri, besteak beste, hirugarren herrialdeei beren lurrian horren aurka borrokatzen lagunduz.

2. Goiko 1. paragrafoan aipaturiko misioei buruzko erabakiak Kontseiluak hartuko ditu, eta, erabaki horietan, misioaren xedea, helmena eta betetzeko arau orokorrak ere zehaztu beharko ditu. Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkariek izango du, Kontseiluaren agintaritzapean, eta Politika eta Segurtasun Komitearekin etengabeko harreman estuan dagoela, misio horien alderdi zibila eta militarren koordinatzeko ardura.

44. artikulua

1. Kontseiluak, 43. artikuluekin bat hartzen dituen erabakien esparruan, bere esku izango du estatu kide batzuei misio jakin bat burutzeko agintzea. Horrelakoetan, misio hori egiteko nahia eta nahikoa ahalbide izan behar dute estatuek. Estatu kide horien artean adostuko dute misioaren kudeaketa, Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkariekin elkarturik.

2. Misio horietan parte hartzen duten estatu kideek, beren ekimenez edo estatu kide batek eskaturik, misioaren garapenaren berri emango diote Kontseiluari aldian-aldian. Misioa burutzeak ondorio garrantzitsuak badakartza, edo 1. paragrafoan aipatutako erabakian misio horretarako zehazturiko xedea, helmena edo baldintzak aldatzea nahitaezkoa bada, parte hartzen ari diren estatu kideek berehala jakinarazi beharko diote Kontseiluari. Halakoetan, Kontseiluak beharrezko diren erabakiak hartuko ditu.

45. artikulua

1. Europako Defentsa Agentzia, 42. artikuluko 3. paragrafoan aipatua, Kontseiluaren agintaritzapean egongo da, eta eginkizun hauek izango ditu:

a) estatu kideen ahalbide militarren inguruko helburuak finkatzeko laguntza eta estatu kideek ahalbide horiei dagokienez harturiko konpromisoak betetzen ote dituzten ebaluatzen laguntzea;

b) premia operatiboen harmonizazioa bultzatzea eta eskuraketa-metodo eraginkorrak eta bateragarriak erabil daitezen bultzatzea;

c) ahalbide militarren inguruko helburuak betetzeko, alderdi askotako proiektuak proposatzea eta estatu kideek aurrera daramatzaten programak eta lankidetzaren programa jakinen kudeaketa koordinatzea;

d) defentsa-teknologia ikertzeko ahaleginak babestea; ikerketa-jarduerak bateratuak koordinatzea eta planifikatzea eta etorkizuneko premia operatiboei erantzuteko konponbide teknikoak aurkitzeko azterlanak koordinatzea eta planifikatzea;

e) defentsa-arloko industria- eta teknologia-oinarria sendotzeko eta gastu militarren eraginkortasuna hobetzeko edozein neurri egoki finkatzen, eta, hala dagokionean, aplikatzen, laguntzea.

2. Hala nahi duten estatu kide guztiek parte har dezakete Europako Defentsa Agentzian. Agentziaren estatutua, egoitza eta funtziona-

mendu-modua erabaki baten bidez zehaztuko dira. Kontseiluak hartuko du erabaki hori, gehiengo kualifikatuz. Agentziaren jardueretan estatuek benetan zenbateraino parte hartzen duten ere izango du kontuan erabaki horrek. Proiektuetan batera dabiltzan estatu kideek berariazko hainbat talde osatuko dute Agentzia barruan. Eginkizunak betetzeko orduan, beharrezkoa bada, Agentzia Batzordearekin harremanetan egongo da.

46. artikulua

1. Goiko 42. artikuluko 6. paragrafoan aipaturik dagoen lankidetza egituratu iraunkorrean parte hartu nahi duten estatu kideek, lankidetza egituratu iraunkorrari buruzko protokoloan ahalbide militarrek direla-eta jasota dauden irizpideak betetzen eta konpromisoak onartzen badituzte, Kontseiluari eta Batasuneko atzerri-eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkariori eman beharko diote beren asmoaren berri.

2. Goiko 1. paragrafoan aipaturiko jakinarazpena egin ondorengo hiru hilabeteko epean, Kontseiluak erabaki bat hartu beharko du. Erabaki horretan zehaztuko du lankidetza egituratu iraunkorra, baita partaide diren estatu kideen zerrenda ere. Kontseiluak, goi-ordezkariori kontsulta egin ondoren, gehiengo kualifikatuz hartuko ditu erabakiak.

3. Gerora, beste estatu kideren batek parte hartu nahi badu lankidetza egituratu iraunkorrean, Kontseiluari eta goi-ordezkariori jakinarazi beharko die.

Kasuan kasuko estatu horren parte hartzea berresteko, Kontseiluak erabaki bat hartuko du. Estatu horrek lankidetza egituratu iraunkorrari buruzko protokolo 1. eta 2. artikuluan jasota dauden irizpideak bete eta konpromisoak onartu beharko ditu. Kontseiluak, goi-ordezkariori kontsulta egin ondoren, gehiengo kualifikatuz hartuko ditu erabakiak. Kontseiluko kideen artetik, estatu kide parte-hartzaileen ordezkariek besterik ez dute parte hartuko bozketan.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 238. artikuluko 3. paragrafoaren a) idatz-zatiaren arabera zehaztuko da gehiengo kualifikatua.

4. Estatu kide parte-hartzaile batek ez badiu lankidetza egituratu iraunkorrari buruzko protokolo 1. eta 2. artikuluetan jasota dauden irizpideak betetzen, edo ez badago horko konpromisoak onartzeko moduan, Kontseiluak erabakia hartu ahal izango du, estatu horren partaidetza eteteko.

Kontseiluak gehiengo kualifikatuz hartuko du erabaki hori. Kontseiluko kideen artetik, estatu kide parte-hartzaileen ordezkariek besterik ez dute parte hartuko bozketan, kasuan kasuko estatua alde batera utzita.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 238. artikuluko 3. paragrafoaren a) idatz-zatiaren arabera zehaztuko da gehiengo kualifikatua.

5. Estatu kide parte-hartzaileetako batek lankidetza egituratu iraunkorra uztea erabakitzen badu, Kontseiluari jakinarazi beharko dio erabaki hori; Kontseiluak aintzakotzat hartuko du estatu kide horren partaidetza amaitu dela.

6. Kontseiluak lankidetza egituratu iraunkorraren esparruan hartu beharreko erabakiak eta gomendioak, 2. paragrafotik 5.era bitartean jasota daudenez bestelakoak, aho batez onetsiko dira. Paragrafo hau aplikatzeko orduan, partaide diren estatu kideen ordezkarien botoek besterik ez dute osatuko ahobatezkotasun hori.

VI. TITULUA

AZKEN XEDAPENAK

47. artikulua

Batasunak nortasun juridikoa du.

48. artikulua

(lehenengo 48. artikulua EBT)

1. Tratatuak aldatu ahal izango dira berrikuspen-prozedura arrunt baten arabera. Berrikuspen-prozedura erraztuen arabera ere aldatu ahal izango dira.

Berrikuspen-prozedura arrunta

2. Estatu kideetako gobernuek, Europako Parlamentuak edo Batzordeak Tratatuak berrikusteko proiektuak aurkez diezazkiokete Kontseiluari. Proiektu horien xede izan daiteke, besteak beste, Batasunari Tratatuak esleitutako eskumenak gehitzea edo murriztea. Kontseiluak Kontseilu Europarrari helaraziko dizkio proiektuok, eta estatuetako parlamentuei ere horien berri emango die.

3. Kontseilu Europarrak, Europako Parlamentuari eta Batzordeari aurretiaz kontsulta eginda, eta gehiengo soilez, proposatutako al-

daketak aztertzearen aldeko irizpena onartzen badu, Kontseilu Europarreko lehendakariak Konbentzio baterako dei egingo du; estatueta-ko parlamentuen, estatu kideetako estatuburu edo gobernuburu, Europako Parlamentuaren eta Batzordearen ordezkariak izango dira Konbentzioko kide. Diru-eremuko instituzioei buruzkoak badira aldaketak, Europako Banku Zentralari ere egingo zaio kontsulta. Konbentzioak, berrikuspen-proiektuak aztertu, eta adostasunez onartuko du estatu kideetako gobernuen ordezkarien Biltzararentzako gomendioa; 4. paragrafoaren arabera.

Kontseilu Europarrak gehiengo soilez erabaki dezake, Europako Parlamentuak aurretiaz onespena emanda, Konbentzioa ez deitzea, aldaketen garrantziak ez badu horrelakorik justifikatzen. Azken kasu horretan, Kontseilu Europarrak estatu kideetako gobernuen ordezkarien Biltzarrerako manua emango du.

4. Kontseiluko lehendakariak estatu kideetako gobernuen ordezkarien Biltzarra deituko du, tratatueta sartu beharreko aldaketak adostasunez onar daitezen.

Aldaketak estatu kide guztiek, bakoitzak bere konstituzioko arauen arabera berretsi eta gero sartuko dira indarrean.

5. Tratatuak aldatzeko tratatu bat sinatu eta bi urteko epea igarota, estatu kideetako bostetik lauk Tratatu berretsi badute eta estatu kideetako batek edo batzuek oztupoak izan badituzte berrespen horretarako, auzia Kontseilu Europarrak aztertuko du.

Berrikuspen-prozedura erraztuak

6. Estatu kideetako gobernuak, Europako Parlamentuak edo Batzordeak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren hirugarren zatiko xedapenak, Batasunaren barne-politika eta -ekintzei buruzkoak, guztiz edo zati batean berrikusteko proiektuak aurkez diezazkiokete Kontseilu Europarrari.

Kontseilu Europarrak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren hirugarren zatiko xedapenak guztiz edo zati batean aldatuko duen erabakia har dezake. Kontseilu Europarrak aho batez erabakiko du, Europako Parlamentuari, Batzordeari eta Europako Banku Zentralari aurretiaz kontsulta eginda, diru-eremuko instituzioei buruzko aldaketak badira. Estatu kideek onartzen dutenean sartuko da indarrean erabaki hori, eta estatu bakoitzak bere konstituzio-arauean ezarritakoari jarraituz onartu beharko du.

Bigarren lerrokadan jasotzen den eraba-

kiak ezin izango ditu Tratatuak Batasunari esleitzen dizkioten eskumenak gehitu.

7. Baldin eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak edo Tratatu honetako V. tituluak xedatzen badute Kontseiluak aho batez erabaki behar duela eremu edo gai jakin batean, Kontseilu Europarrak erabaki bat hartu ahal izango du, horren bidez, Kontseiluari eremu edo gai horretan gehiengo kualifikatuz erabakitzeko baimena emateko. Lerrokada hau ez zaie aplikatuko eremu militarrean edo defentsako eremuan eragin dezaketen erabakiei.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak xedatzen duenean Kontseiluak legegintza-prozedura berezi baten arabera hartuko dituela legegintzako egintzak, Kontseilu Europarrak egintza horiek legegintzako prozedura arruntaren arabera hartzea baimentzen duen erabakia hartu ahal izango du.

Kontseilu Europarrak lehenengo edo bigarren lerrokaden indarrez hartutako ekimenak estatuetako parlamentuei helaraziko zaizkie. Ekimena parlamentuei helarazi zaienetik hasita sei hilabeteko epean estaturen bateko parlamentuak jakinarazten badu kontra dagoela, ez da lehenengo edo bigarren lerrokadetan adierazten den erabakia hartuko. Kontra dagoenik egon ezean, Kontseilu Europarrak aipatu erabakia hartu ahal izango du.

Lehen eta bigarren lerrokadetan adierazten diren erabakiak hartzeko, Kontseilu Europarrak aho batez erabaki behar du, Europako Parlamentuak aurretiaz onespena emanda, eta hori kideen gehiengoz egingo du Parlamentuak.

49. artikulua

(lehenengo 49. artikulua EBT)

Europako edozein estatuk, 2. artikuluan aipatzen diren balioak errespetatzen baditu eta balio horiek sustatzeko konpromisoa hartzen badu, Batasuneko kide izateko eskabidea egin dezake. Eskaera horren berri emango zaie Europako Parlamentuari eta estatu kideetako parlamentuei. Eskabidea egin nahi duen estatuak Kontseiluari zuzenduko dio eskaria, eta horrek aho batez erabaki behar du, Batzordeari kontsulta egin ondoren eta Europako Parlamentuak eskaria onartu ondoren; Parlamentuak kideen gehiengoz erabakiko du. Kontuan izango dira Kontseilu Europarrak onartutako hautagarritasun-irizpideak.

Batasunaren oinarri diren tratatuei dagokienez, onarpen horrek dakartzan onarpen-baldintzak eta egokitzapenak estatu kideen eta eskaera egin duen estatuaren arteko akordio batez

zehaztuko dira. Akordio hori estatu kontratugile guztiei aurkeztuko zaie sendets dezaten, bakoitzak bere konstituzioko arauen arabera.

50. artikulua

1. Estatu kideetako edozeinek erabaki ahal izango du, bere konstituzio-arauekin bat etorrira, Batasuna uztea.

2. Batasuna uztea erabaki duen estatu kideak Kontseilu Europarrari eman behar dio asmo horren berri. Kontseilu Europarrak emandako argibideak oinarri, Batasunak akordio bat negoziatu eta sinatuko du estatu kide horrekin Batasuna uzteko modua ezartzeko, betiere, estatu horrek Batasunarekin etorkizunean izango duen harreman-esparrua aintzat hartuta. Akordio hori Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 218. artikuluko 3. paragrafoaren arabera negoziatuko da. Kontseiluak sinatuko du hitzarmena Batasunaren izenean gehiengo kualifikatuz, Europako Parlamentuak aurretiaz onespena emanda.

3. Tratatuak kasuan kasuko estatuan aplikatzeari utziko zaio Batasunetik bereizteko akordioa indarrean sartzen den egunean edo, horrelakorik ezean, 2. paragrafoan zehaztutako jakinarazpena egin eta handik bi urtera, baldin eta Kontseilu Europarrak, bereizi nahi duen estatu horrekin ados jarrita, aho batez epe hori luza-tea erabakitzen ez badu.

4. Batasunetik bereizi nahi duen estatuak Kontseilu Europarrean eta Kontseiluan duen ordezkariak, 2. eta 3. paragrafoen ondorioetarako, ez du parte hartuko Kontseilu Europarrean edo Kontseiluan estatu horri buruz egiten diren eztabaidetan ezta hartzen diren erabakietan ere.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 238. artikuluko 3. paragrafoko b) idatz-zatiaren arabera zehaztuko da gehiengo kualifikatua.

5. Batasunetik bereizi den estatu kideak berri ere Batasunari atxikitzea eskatzen badu, bere eskaera hori 49. artikuluan ezarritako prozeduren arabera bideratuko da.

51. artikulua

Tratatuetako protokoloak eta eranskinak tratatuetako zati dira.

52. artikulua

1. Tratatuak ondorengoei aplikatuko zaizkie: Belgikako Erresumari, Bulgariako Errepublikari, Txekiar Errepublikari, Danimarkako Erresu-

mari, Alemaniako Errepublika Federalari, Estoniako Errepublikari, Irlandari, Heleniar Errepublikari, Espainiako Erresumari, Frantziako Errepublikari, Italiako Errepublikari, Zipreko Errepublikari, Letoniako Errepublikari, Lituaniako Errepublikari, Luxenburgoko Dukerri Handiari, Hungariako Errepublikari, Maltako Errepublikari, Herbehereetako Erresumari, Austriako Errepublikari, Poloniako Errepublikari, Portugalgo Errepublikari, Errumaniari, Esloveniako Errepublikari, Eslovakiako Errepublikari, Finlandiako Errepublikari, Suediako Erresumari eta Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuari.

2. Tratatuaren aplikaziorako lurralde-eremua Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuako 355. artikuluan zehazten da.

53. artikulua

(lehengo 51. artikulua EBT)

Tratatu hau epe-muga jakinik gabe egiten da.

54. artikulua

(lehengo 52. artikulua EBT)

1. Tratatu hau tratatugile gorenak berretsiko dute, bakoitzak bere konstituzio-arauekin arabera. Berrespen-agiriak Italiako Errepublikako Gobernuak gordeko ditu.

2. Tratatu hau 1993ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, baldin eta berrespen-agiri guztiak gordetzeko eman badira; edo, horrela izan ez bada, sinatzen azkena izan den estatuak berrespen-agiria gordetzeko eman, eta ondorengo hilaren lehenengo egunean.

55. artikulua

(lehengo 53. artikulua EBT)

1. Tratatu hau ale bakar batean idatzi da hurrengo hizkuntzetan: alemanez, bulgariaraz, txekieraz, daniaraz, eslovakiaraz, esloveniaraz, espainiaraz, estoniaraz, finlandiaraz, frantsesez, grezieraz, hungariaraz, ingelesez, irlandaraz, italiaraz, letoniaraz, lituanieraz, malteraz, nederlandaraz, poloniaraz, portugesez, errumanieraz eta suediaraz. Testu horiek guztiak kautoak dira, eta Italiako Errepublikako Gobernuaren artxiboan jasoko dira. Gobernu horrek kopia kautotu bana igorriko die gainerako gobernu sinatzaileei.

2. Tratatu hau estatu kideek zehaztuko dituzten beste hizkuntza batzuetara ere itzuli ahal izango da, baldin eta estatu horietako

konstituzio-ordenamenduaren arabera maila ofiziala badute lurralde osoan edo zati batean. Kasuan kasuko estatu kideak itzulpen horien kopia ziurtatua bidaliko du, Kontseiluaren artxi-
boetan gordetzeko.

HORREN FEDE EMANEZ, beheko sinatzaile ahal osokoek izenpetzen dute tratatu hau.

Maastrichten egina, mila bederatziehun eta laurogeita hamabiko otsailaren zazpian.

(ez da izenpetzaileen zerrenda jaso)

2. EUROPAR BATASUNAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO TRATATUAREN BERTSIO KONTOLIDATUA

BELGIARREN ERREGE JAUN GURENAK, ALEMANIAKO ERREPUBLIKA FEDERALEKO LEHENDAKARIAK, FRANTZIAKO ERREPUBLIKAKO LEHENDAKARIAK, ITALIAKO ERREPUBLIKAKO LEHENDAKARIAK, LUXENBURGOKO DUKESA GOIEN ANDREAK, HERBEHEREETAKO ERREGINA ANDRE GURENAK (),

ERABAKI dute Europako herrien arteko batasun gero eta estuago baterako oinarriak jar-tzea,

DELIBERATU dute bakoitzak bere estatuaren ekonomiaren eta gizartearen aurrerapena bermatzea, ekintza bateratu baten bidez, Europa zaititzen duten oztopoak kenduz,

FINKATU dute beren herrietako bizitzako eta laneko baldintzak etengabe hobetzea dela beren eginahalen helburua,

AINTZATETSI dute ekonomiaren garapen egonkorra, merkataritzako trukaketa orekatua eta lehia leiala bermatuko dituen ekintzak hitzartua izan behar duela, dauden oztopoak kentzeko,

KEZKA daukate beren ekonomien batasuna indartu eta ekonomia horien garapen harmoniatsua bermatzeko, eskualdeen arteko diferentziak eta onurarik gutxieneko eskualdeen atzerapena gutxituz,

NAHI IZANIK nazioarteko trukaketetarako dauden murrizketak arian-arian kentzen laguntzea, merkataritza-politika erkidea eginez,

ASMOA daukate itsasoz haraindiko herrialdeekin Europak daukan elkartasuna indartzeko, eta nahi dute herrialdeon oparotasunaren garapena bermatzea, Nazio Batuen Gutuneko printzipioekin bat etorrituz,

ERABAKI dute, baliabide-multzo hau eratuz, bakearen eta askatasunaren defentsa sendotzea, eta hori bera gura duten Europako beste herriei ere eginahaletan berekin elkartzeko gonbita egiten diete,

DELIBERATU dute ahal denik eta jakintza-mailarik handienaren garapena sustatzea beren herrirentzat, hezkuntzara iristeko bideak zabalduz, eta jakintzak etengabe eguneratuz, eta

Xede horrekin, ahal osoko IZENDATU DITUZTE:

(ez da ahal osokoen zerrenda jaso)

PERTSONA HORIEK, beren ahal osoak, egoki eta behar bezala aitorturik, elkarri agertu ondoren, ondorengo xedapen hauek hitzartu dituzte:

PRINTZPIOAK

1. artikulua

1. Tratatu honek Batasunaren funtzionamendua antolatzen du, eta Batasunak dituen eskumenak zein eremu, banaketa eta baldintzatan baliatu behar diren zehazten du.

2. Tratatu hau eta Europar Batasunaren Tratatu dira Batasunaren oinarritzko tratatuak. Bi tratatu horiek balio juridiko berbera dute eta «Tratatuak» adierazpenarekin izendatuko dira.

I. TITULUA

BATASUNAREN ESKUMEN-KATEGORIAK ETA EREMUAK

2. Artikulua

1. Tratatuak eremu jakin batean Batasunari eskumen eskusiboak ematen diotenean, Batasunak berak bakarrik egin ahal izango ditu legeak eta berak bakarrik onartu ahal izango ditu zuzenbidearen arabera lotura-indarra duten egintzak, eta estatu kideek, berriz, estatu kide diren aldetik, Batasunak horretarako ahalmena ematen badie edo Batasunaren egintzak aplikatzeko bada, orduan bakarrik egin ahal izango dute hori.

2. Tratatuak eremu jakin batean Batasunari estatu kideekin batera partekatutako eskumena ematen diotenean, Batasunak eta estatu kideek legeak egin eta zuzenbidearen arabera lotura-indarra duten egintzak onartu ahal izango dituzte eremu horretan. Batasunak bere eskumena baliatu ez duen neurrian baliatuko dute estatu kideek beren eskumena. Batasunak bere eskumena baliatzeari uztea erabaki duen neurrian baliatuko dute estatu kideek beren eskumena.

3. Estatu kideek beren ekonomia- eta enplegu-politikak koordinatuko dituzte tratatu honetan ezarritako moduen arabera; modu horiek definitzeko eskumena izango du Batasunak.

4. Batasunak eskumena izango du atzerri- eta segurtasun-politika erkidea zehazteko eta aplikatzeko, Europar Batasunaren Tratatuan xedatutakoaren arabera, defentsa-politika erkidea arian-arian eratzea ere barnean hartuta.

⁽¹⁾ Geroago, Bulgariako Errepublika, Txekiar Errepublika, Danimarkako Erresuma, Estoniako Errepublika, Irlanda, Heleniako Errepublika, Espainiako Erreina, Zipreko Errepublika, Letoniako Errepublika, Lituaniako Errepublika, Hungariako Errepublika, Maltako Errepublika, Austriako Errepublika, Poloniako Errepublika, Portugalgo Errepublika, Errumania, Esloveniako Errepublika, Eslovakiako Errepublika, Finlandiako Errepublika, Suediako Erresuma eta Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batua Europar Batasuneko kide egon ziren.

5. Ere mu jakin batzuetan eta Tratatuetan ezarritako baldintzetan, Batasunak ekintzak burutzeko eskumena izango du estatu kideen zeregina koordinatu, lagundu edo osatze aldera, Batasunak, baina, berea egin gabe estatu kideek ere mu horietan duten eskumena.

Batasunak, Tratatuetan ezarritako xedapenen indarrez, ere mu horiei buruz onartzen dituen egintzek, zuzenbidearen arabera lotura-indarra dutela, ezin izango dute estatu kideetako legezko eta erregelamenduzko xedapenen ezein harmonizaziorik ekarri.

6. Batasunak dituen eskumenak norainokoak diren eta zein baldintzetan baliatu behar diren, Tratatuetako xedapenetan zehaztuko da ere mu bakoitzari dagokionez.

3. artikulua

1. Batasunak eskumen eskusiboa izango du honako ere mu hauetan:

- a) aduana-batasuna;
 - b) barne-merkatuak funtziona dezan lehia-ri buruz beharrezko diren arauak ezartzeko zeregina;
 - c) diru gisa euroa darabilten estatu kideen diru-politika;
 - d) Arrantza-politika erkideari lotuta, itsasoko baliabide biologikoak jagoteko zeregina;
 - e) merkataritza-politika erkidea.
2. Era berean, Batasunak eskumen eskusiboa izango du nazioarteko akordioak sinatzeko orduan, betiere, hori egiteko aukera Batasunaren lege-egintza batean jasota dagoenean, bere barneko eskumena baliatu ahal izateko hitzarmen hori beharrezko denean, eta arau erkideetan eragina izan dezakeen edo arauon indarra aldaraz dezakeen neurrian.

4. artikulua

1. Tratatuek Batasunari 3. eta 6. artikuluetan aipatutako eremuiei ez dagokien eskumen bat ematen badiote, eskumen hori Batasunak estatu kideekin partekatutakoa izango da.

2. Batasunak eta estatu kideek elkarrekin partekatuta dituzten eskumenak honako ere mu nagusi hauetan aplikatuko dira:

- a) barne-merkatua;
- b) gizarte-politika, tratatu honetan zehaztutako gaiei dagokionez;
- c) ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohe- sioa;
- d) nekazaritza eta arrantza, itsasoko baliabide biologikoak jagoteko zeregina albo batera utzita;
- e) ingurumena;

- f) kontsumitzaileen babes- a;
 - g) garraioak;
 - h) Europa barruko sareak;
 - i) energia;
 - j) askatasun-, segurtasun- eta justizia-espa- rrua;
 - k) osasun publikoaren arloan segurtasuna bermatzeko gai erkideak, tratatu honetan ze- haztutako arloei dagokionez.
3. Ikerketari, teknologia-garapenari eta es- pazioari dagozkien eremuetan, Batasunak ekin- tzak burutzeko eskumena izango du, bereziki, programak definitu eta egiteko jardunak bu- rutzeko eskumena; eskumen hori baliatzeak, or- dea, ez du inola ere eragotziko estatu kideek eu- ren eskumena baliatu ahal izatea.
4. Garapenerako lankidetzari eta laguntza hu- manitarioari dagozkien eremuetan, Batasunak ekintzak burutzeko eta politika erkidea egiteko eskumena izango du; eskumen hori baliatzeak, ordea, ez du inola ere eragotziko estatu kideek euren eskumena baliatu ahal izatea.

5. artikulua

1. Estatu kideek beren ekonomia-politikak koordinatuko dituzte Batasunaren baitan. Hel- buru hori betetzeko, Kontseiluak neurriak har- tuko ditu, bereziki, politika horiek izan behar di- tuzten norabide nagusiei dagokionez.

Xedapen bereziak aplikatuko zaizkie diru gisa euroa duten estatu kideei.

2. Batasunak estatu kideen enplegu-politiken koordinazioa bermatzeko neurriak hartuko ditu, bereziki, politika horiek izan behar dituz- ten norabideak zehaztuta.

3. Estatu kideen gizarte-politikak koordina- tuko direla bermatzeko ekimenak onartu ahal izango ditu Batasunak.

6. artikulua

Batasunak ekintzak burutzeko eskumena izango du estatu kideen zeregina koordinatu, la- gundu edo osatze aldera. Honako hauek izango dira ekintza horien eremuak, Europa helburu dela:

- a) giza osasunaren babes- a eta hobekuntza;
- b) industria;
- c) kultura;
- d) turismoa;
- e) hezkuntza, lanbide-heziketa, gazteria eta kirola;
- f) babes zibila;
- g) administrazioen arteko lankidetz- a.

II. TITULUA

APLIKAZIO OROKORREKO XEDAPENAK

7. artikulua

Batasunak bere politikak eta ekintzak beren artean koherenteak izan daitezen jagongo du, bere helburuak multzoan denak batera aintzakotzat hartuta eta eskumenak emateko printzipioa errespetatuta.

8. artikulua

(lehengo 3. artikulua, 2. paragrafoa, EET) ⁽¹⁾

Ekintza guztietan, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko desberdintasunak kendu eta berdintasuna sustatzea izango du helburu Batasunak.

9. artikulua

Politika eta ekintzak zehaztu eta gauzatzeko lanetan, Batasunak kontuan hartuko ditu honako arlo hauei lotutako eskakizunak: enplegu-maila handia sustatzea, gizarte-babes egokia bermatzea, gizarteko bazterkeriaren kontra borrokatzea, eta hezkuntzan, prestakuntzan eta giza osasunaren babesean maila handia lortzea.

10. artikulua

Politika eta ekintzak zehaztu eta gauzatzeko lanetan, sexua, arraza edo jatorri etnikoa, erlijioa edo uste sendoak, ezgaitasuna, adina edo sexu-joera arrazoi dituen bereizkeria ororen kontra borrokatzen ahaleginduko da Batasuna.

11. artikulua

(lehengo 6. artikulua EET)

Batasuneko politikak eta ekintzak zehaztu eta gauzatzerakoan, ingurumenaren babeserako eskakizunak sartu behar dira bertan, batez ere garapen iraunkorra sustatzeko.

12. artikulua

(lehengo 153. artikulua, 2. paragrafoa, EET)

Batasuneko beste politika eta ekintza batzuk zehaztu eta gauzatzerakoan, kontsumitzaileen babeserako eskakizunak hartu behar dira kontuan.

13. artikulua

Nekazaritza, arrantza, garraioak, barnermerkatua, ikerkuntza, teknologia-garapena eta espazioa direla-eta Batasunak dituen politikak zehaztu eta burutzean, Batasunak eta estatu kideek erabat aintzakotzat hartuko dituzte animalien ongizateak dakartzan eskakizunak, sentitzen duten izakiak direnez gero, eta, aldi berean, estatu kideetako lege- eta administrazio-xedapenak eta ohiturak errespetatuko dituzte, batez ere erlijio-errituei, kultura-tradizioei eta eskualdeetako ondareei dagokienez.

14. artikulua

(lehengo 16. artikulua EET)

Batasunak eta Batasuneko estatuak, bakoitzak bere eskumenen arabera, Tratatuaren aplikazio-eremuan eta Europar Batasunaren Tratatuaren 4. artikulua eta tratatu honen 93., 106. eta 107. artikuluei kalterik egin gabe, eta Batasunaren balio erkideen artean ekonomia-interes orokorreko zerbitzuek betetzen duten tokia, eta gizarte- eta lurralde-kohesioa sustatzeko zerbitzuok jokatzan duten papera ikusita, aipatutako zerbitzuok beren eginkizunak betetzeko moduko printzipioen eta baldintzen arabera (ekonomia- eta finantza-arlokoak batez ere) jardun dezaten jagongo dute. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak ezarriko dituzte printzipio eta baldintza horiek erregelamendu bidez, legegintzako prozedura arruntari jarraituz eta estatu kideek, tratatuak errespetatuz, zerbitzu horiek emateko, gauzatzeko eta finantzatzeko duten eskumenei kalterik egin gabe.

15. artikulua

(lehengo 255. artikulua EET)

1. Gobernamendu ona sustatzeko eta gizarte zibilak parte hartuko duela bermatzeko, Batasuneko instituzioek, organoek eta organismoek irekitasun-printzipioa ahalik eta gehien errespetatuta jardungo dute.

2. Europako Parlamentuko bilkurak jendaurrekoak izango dira, baita Kontseiluarenak ere, lege-egintza proiektu bati buruz eztabaidatu eta botoa eman behar duenean.

3. Batasuneko herritar guztiek, eta estatu kideren batean bizi edo baltzu-egoitza daukaten

⁽¹⁾ Erreferentzia hau ohartarazteko da. Informazio zabalagoa izateko, ikusi tratatuaren lehengo eta oraingo zenbakikuntzaren arteko korrespondentzia-taulak

pertsona fisiko edo juridiko guztiek, Batasuneko instituzio, organo eta organismoetako agiriak eskuratzeko eskubidea daukate, euskarria edozein dela ere, paragrafo honekin bat etorri eza-rriko diren printzipio eta baldintzen arabera.

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak agiriak eskuratzeko eskubide hori gauzatzeko modua arautuko duten printzipio orokorrak eza-rriko dituzte, eta interes publiko edo pribatuko arrazoiak direla medio, baita mugak ere. Erre-gelamendu bitartez egingo du hori, legegintza-ko prozedura arruntari jarraituz.

Instituzio, organo edo organismo bakoitzak bere lanen gardentasuna bermatuko du eta bere agiritara iristeko berariazko xedapenak jarriko ditu barne-erregelamenduan, bigarren lerrokadan jasotako erregelamenduetan eza-rritako baldintzetan.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegia, Eu-ropako Banku Zentrala eta Europako Inbertsio Bankua administrazio-eginkizunak betetzen dituztenean bakarrik egongo dira paragrafo honek xedatzen duenari lotuta.

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak le-gegintza-prozedurei buruzko agirien publiko-tasuna ziurtatuko dute, bigarren lerrokadan ja-sotako erregelamenduetan ezarritako baldin-tzetan.

16. artikulua

(lehengo 286. artikulua EET)

1. Pertsona orok du berari dagozkion datu pertsonalak babestuta izateko eskubidea.

2. Batasuneko instituzio, organo eta orga-nismoek nahiz estatu kideek Batasuneko Zu-zenbidearen aplikazio-eremuan burutzen di-tuzten jardueretan datu pertsonalei buruz bete behar dituzten arauak Europako Parlamen-tuak eta Kontseiluak finkatuko dituzte le-gegintzako prozedura arruntaren arabera, baita datu horien zirkulazio aserako arauak ere. Arau horiek errespetatzen diren ala ez agintaritza in-dependente batek kontrolatuko du.

Artikulu honen indarrez onartzen diren arauak Europar Batasunaren Tratatuaren 39. artikuluan aurreikusitako arau zehatzei kalterik egin gabe ulertuko dira.

17. artikulua

1. Batasunak errespetatu egingo du, eta ez du baldintzapean jarriko, estatu kideek, bakoitzak bere barne-zuzenbidearen arabera, elizei eta er-lijo-elkarte edo -komunitatei aitortzen dieten estatutua.

2. Era berean, Batasunak errespetatu egingo du estatu kideek, barne-zuzenbidearen arabe-ra, erakunde filosofikoei eta konfesionalak ez di-ren erakundeei aitortutako estatutua.

3. Beren nortasuna eta berariazko ekarpenak aitortuta, Batasunak eliza eta erakunde horie-kin elkarrizketa irekia eta gardena izango du al-di-ro-al-di-ro.

BIGARREN ZATIA

BEREIZKERIARIK EZA ETA BATASUNEKO HERRITARTASUNA

18. artikulua

(lehengo 12. artikulua EET)

Tratatuen aplikazio-eremuan, eta horietan aurreikusitako xedapen bereziei kalterik egin gabe, nazionalitatean oinarritutako edozein bereizkeria debekatuta dago.

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera, aipatutako bereizkeriak debekatzeko beha-rrezko arau guztiak ezar ditzakete.

19. artikulua

(lehengo 13. artikulua EET)

1. Tratatuetako beste xedapenei kalterik egin gabe, eta Tratatuek Batasunari emandako eskumenen muga barruan, Kontseiluak, aho ba-tez, legegintzako prozedura berezi baten bidez eta Europako Parlamentuak onartu ondoren, se-xua, arraza edo jatorria, erlijioa edo sinisteak, ezgaitasuna, adina edo joera sexuala arrazoi di-tuen bereizkeriaren kontra borrokatzeko ego-kiak diren ekintzak onar ditzake.

2. Artikulu honen 1. paragrafoan xedatutakoa gorabehera, Europako Parlamentuak eta Kontsei-luak, legegintzako prozedura arruntaren arabe-ra, Batasunak emandako sustapen-neurrien oi-narrizko printzipioak ezarri eta neurri horiek de-finitu ahal izango dituzte, hartara estatu kideek 1. paragrafoan aipatutako helburuak lortzen la-guntzeagatik hasitako ekintzen alde egiteko, be-tiere, estatuon legezko eta erregelamenduzko xe-dapenen harmonizazio oro albo batera utzita.

20. artikulua

(lehengo 17. artikulua EET)

1. Batasuneko herritartasuna sortzen da. Batasuneko estatu kideren bateko nazionalita-tea daukan pertsona oro izango da Batasuneko herritar. Batasuneko herritartasuna erantsi egi-

ten zaio estatu kide bakoitzeko herritar izaerari ordeztu gabe.

2. Batasuneko herritarrek Tratatuaren ezarritako eskubideen titular eta eginbeharren menpeko dira. Besteak beste, eskubide hauek dituzte:

a) estatu kideetako lurraldean askatasunez zirkulatzeko eta bertan bizilekua hartzeko eskubidea dute;

b) hautesle zein hautagai izateko eskubidea dute, bai Europako Parlamenturako hauteskundeetan, bai eta bizileku duten estatu kideetako udal-hauteskundeetan ere, estatu horretako herritarrek dituzten baldintza berberetan;

c) herritar diren estatu kideak ordezkari izan ez dauden hirugarren herrialderen baten lurraldean, beste edozein estatu kideetako agintari diplomatiko eta kontsularren babesa hartzeko eskubidea dute estatu horretako herritarren baldintza berberetan.

d) Tratatuaren hizkuntzetako bat erabiltzeko eta erantzuna hizkuntza horretan jasotzeko eskubidea dute, Europako Parlamentuari eskaerak egin, Europako Arartekoarengana jo eta Batasuneko instituzio eta organo aholkumailaeei zuzentzean.

Eskubide horiek baliatzeko orduan badira baldintza eta muga batzuk, Tratatuak ezarritakoak eta Tratatuak aplikatuta hartutako neurriak finkatutakoak.

21. artikulua

(lehengo 18. artikulua EET)

1. Batasuneko herritar orok estatu kideetako lurraldean aske ibili eta bizi izateko eskubidea du, Tratatuaren eta Tratatuak aplikatzeko onartutako xedapenen aurreikusitako mugekin eta baldintzetan.

2. Helburu hori lortu ahal izateko Batasunaren ekintzen bat beharrezkoa denean, 1. paragrafoan aipatutako eskubideak gauzatzeko bideratutako xedapenak onar ditzakete Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera, Tratatuak gai horretan ekiteko ahalmenak aurreikusi ez badituzte.

3. Aurreko 1. paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, eta Tratatuak horretarako jarduteko ahalak ezartzen dituztenean izan ezik, Kontseiluak hartu ahal izango ditu, legegintzako prozedura berezi baten arabera, gizarte-segurantzaren edo gizarte-babesaren inguruko neurriak. Kontseiluak, Europako Parlamentuari aurretiaz kontsulta eginda, aho batez erabakiko du.

22. artikulua

(lehengo 19. artikulua EET)

1. Batasuneko herritar orok, bera bizi den Batasuneko estatuan bertako herritar izan ez arren, bizi den estatuko udal-hauteskundeetan hautesle eta hautagai izateko eskubidea dauka, estatu kide horretako herritarren baldintza berberetan. Eskubide hori, erabili, Batzordearen proposamenez eta Europako Parlamentuari kontsulta egin ondoren Kontseiluak aho batez eta legegintzako prozedura berezi baten bidez onar ditzan modalitateei kalterik egin gabe erabiliko da; modalitate horietan salbuespenak ezar daitezke Batasuneko estaturen bateko arazo bereziak nahiko arrazoi badira.

2. Tratatu honetako 223. artikuluko 1. paragrafoan eta hori aplikatzeko onartu diren arauetan xedatutakoari kalterik egin gabe, Batasuneko herritar orok, bera bizi den Batasuneko estatuan bertako herritar izan ez arren, bizi den estatu kideko Europako Parlamenturako hauteskundeetan hautesle eta hautagai izateko eskubidea dauka, estatu horretako herritarren baldintza berberetan. Eskubide hori, erabili, Batzordearen proposamenez eta Europako Parlamentuari kontsulta egin ondoren Kontseiluak aho batez eta legegintzako prozedura berezi baten bidez onar ditzan modalitateei kalterik egin gabe erabiliko da; modalitate horietan salbuespenak ezar daitezke Batasuneko estaturen bateko arazo bereziak nahiko arrazoi badira.

23. artikulua

(lehengo 20. artikulua EET)

Batasuneko herritar orok, herritar deneko estatu kideak ordezkari izan ez badu hirugarren herrialderen batean, beste edozein estatu kideetako agintari diplomatiko eta kontsularren babesa jaso ahal izango du, estatu horretako herritarrentzako baldintza berberetan. Estatu kideek beharrezko diren xedapenak onartuko dituzte eta beharrezko nazioarteko negoziazioak egingo dituzte babes hori bermatzeko.

Kontseiluak legegintzako prozedura berezi baten arabera eta Europako Parlamentuari aurretiaz kontsulta eginda onartu ahal izango ditu babes hori errazteko beharrezkoak diren koordinazio- eta lankidetzako neurriak ezartzen dituzten zuzentarauak.

24. artikulua

(lehengo 21. artikulua EET)

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak,

erregelamendu-bidez, legegintzako prozedura arruntari jarraituz onartuko dituzte nahi-taezko prozedura eta baldintzei buruzko xedapenak herritar-ekimenen aurkezpenarako, Europar Batasunaren Tratatuaren 11. artikulua-rekin bat, baita ekimena aurkezten duten herritarren jatorri diren estatu kideen kopuru minimoa finkatzeko ere.

Batasuneko herritar orok Europako Parlamentuari eskariak egiteko eskubidea edukiko du, 227. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Batasuneko herritar orok, halaber, 228. artikuluan xedatutakoaren indarrez eraturako Arartekoarengana jo dezake.

Batasuneko herritar orok, bestalde, artikululu honetan eta Europar Batasunaren Tratatuaren 13. artikuluan aipatutako edozein instituzio edo erakundetara jo dezake idatziz, tratatu horretako 55. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako hizkuntzetakoren batean, eta hizkuntza berean jaso erantzuna.

25. artikulua

(lehenengo 22. artikulua EET)

Batzordeak, hiru urtean behin zati honen xedapenen aplikazioari buruz txostena emango die Europako Parlamentuari, Kontseiluari, eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari. Txosten horretan Batasunaren bilakaera hartu behar da kontuan.

Hori oinarri dela, eta Tratatuaren gainerako xedapenei kalterik egin gabe, Kontseiluak, aho batez, legegintzako prozedura berezi baten arabera eta Europako Parlamentuak onartu ondoren, 20. artikuluko 2. paragrafoan adierazitako eskubi-deak osatzera bideratutako xedapenak onar ditzake. Xedapen horiek indarrean sartzeko, estatututako kideek onartu egin behar dituzte, nork bere konstituzio-arauen arabera.

HIRUGARREN ZATIA

BATASUNAREN BARNEKO POLITIKAK ETA EGINTZAK

I. TITULUA

BARNE-MERKATUA

26. artikulua

(lehenengo 14. artikulua EET)

1. Batasunak hartu beharreko neurriak hartuko ditu barne-merkatua ezartzeko edo barne-merkatuaren funtzionamendua bermatzeko, aintzat hartu beharreko tratatu-xedapenen arabera.

2. Barne-merkatuak barruko mugarik gabeko esparrua sortaraziko du, eta Tratatuetakoa xedapenen arabera bermatuko da bertan salgaien, pertsonen, zerbitzuen eta kapitalen zirkulazio askea.

3. Aipatutako arlo guztietan aurrerapena orekatua izango dela bermatzeko norabideak eta beharrezko baldintzak zehaztuko ditu Kontseiluak Batzordearen proposamenaren gainean.

27. artikulua

(lehenengo 15. artikulua EET)

Goiko 26 bis artikuluan aipatutako helburuak lortzeko bideratutako proposamenak egiterakoan, Batzordeak kontuan hartu behar du zein izango den garapen-maila diferentea daukaten zenbait ekonomiek barne-merkatua ezartzeko egin beharko duten ahaleginaren tamaina, eta horretarako egokiak diren xedapenak proposatu ahal izango ditu.

Esandako xedapenak salbuespen moduan onartzen badira, aldi baterako izan beharko dira, eta ahal denik eta gutxien nahastu beharko dute barne-merkatuaren funtzionamendua.

II. TITULUA

SALGAIEN ZIRKULAZIO ASKEA

28. artikulua

(lehenengo 23. artikulua EET)

1. Batasunak aduana-batasuna izango du bere baitan, eta horrek salgaien trukaketa guztiak hartuko ditu, eta estatu kideen arteko inportazio-esportazioetako aduana-tarifak eta ondorio baliokideak dituzten beste ordainarazpen guztiak debekatzea ekarriko du, baita hirugarren herrialdeekiko harremanetarako aduana-tarifa erkidea onartzea ere.

2. Tratatu honetako 30. artikuluko eta titululu honetako 3. kapituluko xedapenak estatu kideetako produktuei eta hirugarren herrialdeetatik etorritakoak izan arren estatu kideetan truke askean dabilzan produktuei aplikatuko zaizkie.

29. artikulua

(lehenengo 24. artikulua EET)

Hirugarren herrialdeetatik etorritako produktuek estatu kideren batean truke askean daudela ulertuko da, baldin eta, estatu kide horretan, inportaziorako izapideak bete, eta

aduanasariak eta ondorio baliokideak dituen beste edozein ordainarazpen ordaindu bada, eta eskubide eta ordainarazpen guztiak edo zati batzuk itzultzea dakarren onurarik jaso ez badute.

1. KAPITULUA

ADUANA-BATASUNA

30. artikulua

(lehengo 25. artikulua EET)

Estatu kideen artean debeku izango dira inportazio-esportazioetako aduana-zergak eta ondorio baliokideak dituzten ordainarazpenak. Izaera fiskaleko aduana-zergen eskubideei ere debeku hau aplikatuko zaie.

31. artikulua

(lehengo 26. artikulua EET)

Kontseiluak finkatuko ditu aduana-tarifa er-kidearen eskubideak Batzordearen proposamenez.

32. artikulua

(lehengo 27. artikulua EET)

Kapitulu honetan emandako eginkizunak betetzeko, Batzordeak hauek izango ditu gidari:

a) estatu kideen eta hirugarren herrialdeen artean merkataritzako trukaketak sustatu behar dira;

b) lehia-baldintzak aldatuz joango dira Batasunaren barruan, betiere, bilakaera horrek enpresen lehiakortasun-gaitasuna gehitzea dakarren neurrian;

c) Batasunaren hornidura-premiak, lehen gaietan eta erdi elaboratutako produktuetan, hain zuzen amaitutako produktuen lehia-baldintzak faltsutu ez daitezen estatu kideen artean;

d) estatu kideen ekonomian nahasmendu larriak ekidin behar dira, eta Batasunean ekoizpena zentzuz garatzea eta kontsumoa zabaltzea bermatu behar da.

2. KAPITULUA

ADUANETAKO LANKIDETZA

33. artikulua

(lehengo 135. artikulua EET)

Tratatuen aplikazio eremuan, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako pro-

zedura arruntaren arabera, Batasuneko estatuen arteko eta estatuen eta Batzordearen arteko aduanetako lankidetzak indartzeko neurriak hartuko dituzte.

3. KAPITULUA

KOPURUAK MURRIZTEKO DEBEKUA ERKIDEGOKO ESTATUEN ARTEAN

34. artikulua

(lehengo 28. artikulua EET)

Estatu kideen artean debekatuta dago inportaziorako kopuruak murriztea, baita ondorio baliokideak dauzkaten beste neurri guztiak ere.

35. artikulua

(lehengo 29. artikulua EET)

Estatu kideen artean debekatuta dago esportaziorako kopuruak murriztea, baita ondorio baliokideak dauzkaten beste neurri guztiak ere.

36. artikulua

(lehengo 30. artikulua EET)

34. eta 35. artikuluetako xedapenak ez dira oztopo izango inportazioa, esportazioa edo iragaita debekatu edo murrizteko, baldin eta jorkabide hori hartzeko arrazoi badira ordena publikoa; moraltasuna eta segurtasun publikoa; pertsonen nahiz animalien osasuna eta bizitza babestea edo landaretza zaintzea; estatuko arte, historia edo arkeologiako ondarea babestea, edo industria eta merkataritzako jabetza babestea. Hala ere, debeku edo murrizketa horiek ezin dira bidegabeko bereizkeria-moduak izan, ez eta estatu kideen artean merkataritza murrizteko ezkutuko bideak ere.

37. artikulua

(lehengo 31. artikulua EET)

1. Estatu kideek egokitu egin behar dituzte estatuko merkataritza-monopolioak, estatu kideetako herritarren artean bereizkeria guztiak ezabatuko direla bermatzeko, hornidurako eta merkaturako baldintzei dagokienez.

Baldin eta estatu kideren batek, de iure edo de facto, zuzenean edo zeharka, estatu kideen arteko inportazioak edo esportazioak kontrolatu, zuzendu edo horietan nabarmen eragiteko, organismoen bat erabiltzen badu, artikulua honetako xedapenak aplikatuko zaizkio organismo horri. Estatuak hirugarrenei utzitako mo-

nopolioei ere berdin aplikatuko zaizkie xedapen hauek.

2. Estatu kideek ez dute parte hartuko 1. paragrafoan aipatutako printzipioen kontrako ezein neurri berritan, ez eta estatu kideen arteko aduana-zergak nahiz kopuru-murrizketak debekatzeko artikuluen edukia murrizteko ezein neurritan ere.

3. Merkataritza-monopolioren batek nekazaritzako produktuen merkaturatzea erraztu edo errentagarritasuna hobetzeko araudirik badarama berarekin batera, artikulua honetako arauak aplikatuz berme baliokideak ziurtatzeko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira, horrekin zerikusia daukaten ekoizleen enplegurako eta bizitzaren mailarako.

III. TITULUA

NEKAZARITZA ETA ARRANTZA

38. artikulua

(lehenengo 32. artikulua EET)

1. Batasunak nekazaritza- eta arrantza-politika erkidea zehaztu eta aplikatuko du.

Barne-merkatuak nekazaritza, arrantza eta nekazaritzako produktuen merkataritza hartuko ditu bere barruan. Nekazaritzako produktu dira lurreko, abeltzaintzako eta arrantzako produktuak, baita haiekin zuzeneko zerikusia izanik lehenengo transformazioak diren produktuak ere. Nekazaritza-politika erkidea eta nekazaritza aipatzen direnean, eta orobat «nekazaritza» hitza erabiltzen denean, arrantza ere hor sartzen dela ulertuko da, sektore horren ezaugarri bereziak aintzat hartuta.

2. Barne-merkatuaren ezarpenari edo haren funtzionamenduari begira ezarritako arauak aplikatuko zaizkie nekazaritzako produktuei ere, 39tik 44ra bitarteko artikuluetan, biak barne dira, kontrakorik xedatu ezean.

3. Tratatueta I. eranskineko zerrendan datozen produktuei 39. artikulutik 44. artikulura bitartekoak aplikatuko zaizkie, biak barne.

4. Nekazaritza-politika erkidea ezartzearen eskutik joan beharko dute nekazaritzako produktuen barne-merkatuaren funtzionamenduak eta garapenak.

39. artikulua

(lehenengo 33. artikulua EET)

1. Nekazaritza-politika erkidearen helburuak hauek dira:

a) nekazaritzako produktibitatea gehitzea, au-

rrerapen teknikoa sustatuz, eta nekazaritzako ekoizpena zentzuz garatu eta ekoizpen-fakto-reak, batez ere, esku-lana, ahal denik eta ondoen erabil daitezela bermatuz;

b) nekazaritzako biztanleei bizitza-maila egokia bermatzea, batez ere nekazaritzan lan egiten duen bakoitzaren errenta gehituz;

c) merkatuak egonkor bihurtzea;

d) horniketaz ziurtatzea;

e) kontsumitzaileari hornigaiak zentzuzko prezioetan bermatzea.

2. Nekazaritza-politika erkidea eta horrek eska ditzakeen metodo bereziak gauzatzeke, kontuan hartu beharrekoak dira:

a) nekazaritzako jarduerak ezaugarri bereziak dauzkala, nekazaritzaren gizarte-egituratik eta nekazaritzako eskualdeen arteko berezko eta egiturazko desberdintasunetatik sortuta;

b) egokitzapenak pausoka egin behar direla;

c) estatu kide bakoitzaren barruan ekonomia osoarekin estu lotuta dagoen arloa dela nekazaritza.

40. artikulua

(lehenengo 34. artikulua EET)

1. Goiko 39. artikuluan aurreikusitako helburuak lortzeko, nekazaritza-merkatuen antolakunde erkidea sortzen da.

Produktuen arabera, modu hauetakoren bat hartuko du antolaketak:

a) lehiakortasunari buruzko arau erkideak;

b) estatueta merkatu-antolaketen derri-gorrezko koordinazioa;

c) Europako merkatu-antolaketa.

2. Goiko 39. artikuluan zehaztutako helburuak lortzeko beharrezko neurri guztiak bil ditzake bere baitan 1. paragrafoan aipatutako moduren batean ezarritako antolakunde erkideak, bereziki: prezioak arautzea, produktuak ekoitzi eta merkaturatzeko diru-laguntzak; biltegitratzeko sistemak eta gerakinak konpentsatzeko sistemak; eta inportazioak edo esportazioak egonkor bihurtzeko tresna erkideak.

Goiko 39. artikuluan aipatutako helburuak lortzera mugatu behar da antolakunde erkidea, eta ezabatu egin behar ditu Batasuneko ekoizleen edo kontsumitzaileen arteko bereizkeria guztiak.

Prezioen politika erkidea, zein ere den, irizpide erkideetan eta era bereko kalkulu-metodoetan oinarritu behar da.

3. Artikulu honetako 1. paragrafoan aipatutako antolakunde erkideak bere helburuak lortu ahal izan ditzan, nekazaritza bideratu eta ber-

matzeko funts bat edo gehiago sortu ahal izango dira.

41. artikulua

(lehenengo 35. artikulua EET)

Goiko 39. artikuluan zehaztutako helburuak lortzeko, neurri hauek aurreikus daitezke nekazaritzako politika erkidean:

a) agronomiako jakintza-gaien lanbide-heziketan, ikerketan eta zabalkundean hasitako ahaleginen koordinazio eraginkorra, batera finantzatutako proiektuak edo instituzioak barne hartuta;

b) zenbait produkturen kontsumoa sustatzeko ekintza erkideak.

42. artikulua

(lehenengo 36. artikulua EET)

Lehiakortasun-arauei buruzko kapituluko xedapenak nekazaritzako produktuak ekoitzi eta merkaturatzeari ere aplikatu ahal izango zaizkie, baina Europako Parlamentuak eta Kontseiluak zehaztutako neurrian, eta 43. artikuluko 2 paragrafoko xedapenen eremuan eta bertan aurreikusitako prozedurarekin bat etorritz baino ez, betiere 3. artikuluan aipatutako helburuak kontuan direla.

Kontseiluak, batzordeak proposatuta, laguntzak ematea onetsi ahal izango du:

a) naturari dagozkion baldintzak edo egitura-baldintzak direla-eta onurarik gutxien daukaten ustategiak babesteko;

b) ekonomiaren garapenerako programen esparruan.

43. artikulua

(lehenengo 37. artikulua EET)

1. Batzordeak proposamenak aurkeztuko ditu nekazaritza-politika erkidea prestatu eta gauzatzeari buruz, baita estatuen antolakundeak 40. artikulua 1. paragrafoan jasotako antolakunde erkideekin ordeztuari buruz ere, eta titulu honetan zehazten diren neurriak ezartzeari buruz ere bai.

Titulu honetan aipatutako nekazaritzako gaien elkarren arteko mendekotasuna eduki behar dute kontuan proposamen horiek.

2. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari aurrez kontsultatuta, 40. artikuluko 1. paragrafoan au-

rreikusitako nekazaritza-merkatuen antolakunde erkidea ezarriko dute, eta bai nekazaritza- eta arrantza-politika erkidearen helburuak lortzeko beharrezkoak diren gainerako xedapenak ere.

3. Kontseiluak, Batzordeak proposatuta, gai hauei buruzko neurriak hartuko ditu: prezioak ezartzea, ordainarazpenak, laguntzak eta kantitateen mugatzea, bai eta arrantza-aukeren zehaztea eta banatzea ere.

4. Estatuetak merkatu-antolakundeak 40. artikulua 1. paragrafoan aurreikusitako antolakunde erkideekin ordeztu ahal izango dira, artikulua honetako 2. paragrafoan ezarritako baldintzak betez:

a) baldin eta antolakunde erkidearekin, neurri horren kontra jarri eta kasuan kasuko ekoizpenerako estatu barruko erakunde bat daukaten estatu kideei, ekoizleen enplegurako eta bizimailarako berme baliokideak ematen bazaizkie, betiere, menturazko egokitzapenen eta beharrezko berezitasunen erritmoa kontuan hartuta, eta

b) baldin eta aipatutako antolaketa erkidearekin, Batasunaren barruko trukaketetarako, estatuko merkaturak dauden antzeko baldintzak bermatzen badira.

5. Zenbait lehengaitarako antolakunde erkidea sortzen bada, eta horien eraldaketaz sortutako produktuetarako oraindik antolakunde erkiderik ez badago, Batasunaren kanpotik inportatu ahal izango dira hirugarren herrialdeetara esportatzeko eraldatuko diren produktuetan erabiltzeko lehengai horiek.

44. artikulua

(lehenengo 38. artikulua EET)

Baldin eta Erkidegoko estatuen batean produkturen bat estatuko merkatu-antolaketa bati lotuta badago, edo ondorio baliokideko barruko edozein araudiri lotuta badago, eta horrela Erkidegoko beste estatuen bateko antzerako ekoizpenen baten lehiari eragiten badio, beste estatuek konpentsazio-karga bat ezarriko diote goian aipatutako antolaketa edo araudia daukan estatutik datorren produktuari, produktu horren irteeran, dagokion estatuek berak konpentsazio-kargarik aplikatu ezik.

Batzordeak finkatuko du karga horien zenbatekoa, oreka jartzeko beharrezkoa den heinean; eta beste neurri batzuk hartzeko baime-na ere eman dezake, berak zehaztutako baldintza eta moduetan.

IV. TITULUA

PERTSONA, ZERBITZU ETA KAPITALEN
ZIRKULAZIO ASKEA

1. KAPITULUA

LANGILEAK

45. artikulua

(lehenengo 39. artikulua EET)

1. Langileei bermatu egiten zaie zirkulazio askea, Batasunaren barruan.

2. Estatu kideetako langileen artean, nazionalitatean oinarritutako bereizkeria guztien abolizioa dakar zirkulazio askeak, enpleguari, soldatei eta gainerako baldintzei dagokienez.

3. Ordena publikoa, segurtasun publikoa eta osasun publikoa arrazoi direla jarritako mugapenei kalterik egin gabe, langileen zirkulazio askeak eskubide hauek dakartza:

a) benetako lan-eskaintzei erantzuteko eskubidea;

b) helburu horretarako, estatu kideetako lurraldean aske ibiltzeko eskubidea;

c) estatu kideetakoren batean bizilekua finantzatzeko eskubidea, bertan lan egin ahal izateko, estatu horretako langileen enpleguari aplikatu daitezkeen legezko, erregelamenduzko eta administraziozko xedapenen arabera;

d) estatu kideren bateko lurraldean enplegua eduki ondoren, bertan jarraitzeko eskubidea, Batzordeak ezarritako erregelamenduetan aurreikusitako baldintzetan.

4. Artikulu honetako xedapenak ezin izango zaizkie aplikatu administrazio publikoko enpleguei.

46. artikulua

(lehenengo 40. artikulua EET)

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari kontsulta egin ondoren, langileen zirkulazio askea benetan gauzatzeko beharrezko neurriak hartuko dituzte, zuzentarau edo erregelamendu bidez, 45. artikuluan zehaztutako modukoa izan dadin; bereziki

a) estatuetako lan-administrazioen artean lankidetzat estua ziurtatuko du;

b) estatuko legeriaren ondorioz edo estatu kideen artean lehendik sinatutako akordioen ondorioz langileen mugimenduak askatzeko edota aukeran dauden enpleguetara sartzeko era-

gozpen diren administrazio-prozedurak eta -jarduerak badaude, kendu egingo dituzte;

c) estatuko legedietan edo estatuen artean aurrez lotutako akordioetan aurreikusitako epe guztiak eta gainerako murrizpenak kendu egingo dituzte, baldin eta Batasuneko beste estatuetako langileei, enpleguren bat askatasunez aukeratzeko, estatu horretako langileei ezarritako baldintzen ordeztelakoak ezartzen badizkiete;

d) enplegu-eskaintzak eta enplegu-eskariak elkarren artean lotzeko eta orekatzeko egoki diren tresnak ezarriko ditu, eskualde eta industria batzuetako nahiz besteetako bizi-maila eta enplegu-maila arrisku larrian jar ez daitezen.

47. artikulua

(lehenengo 41. artikulua EET)

Estatu kideek, programa erkide batean, langile gazteak elkarren artean trukatzeko aukerak zabalduko dituzte.

48. artikulua

(lehenengo 42. artikulua EET)

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera, langileen zirkulazio askea ezartzeko beharrezko neurriak hartuko dituzte gizarte-segurantzako gaitan, eta, bereziki, langile etorkinei, inoren kontura zein beren kontura lanean dihardute- la, eta beren eskubidedunei ondorengo puntuak bermatzeko sistema sortuko dute:

a) estatu bakoitzeko legedietan kontuan hartutako lan-aldi guztiak metatzea, gizarte-prestazioetarako eskubidea sortu eta gordetze- ko, baita prestazioak kalkulatzeko ere;

b) Erkidegoko estatuetako lurraldeetan egoitza daukaten pertsonen prestazioak ordaintzea.

Kontseiluko kide batek deklaritzen badu lehenengo letrakadan aurreikusitako lege-egintzako proiekturen batek bere gizarte-segurantzako osagai garrantzitsuei kalte egiten diela —hala nola, aplikazio-eremuari, kostuari edo finantza-egiturari— edo sistema horren finantza-orekari eragiten diola, gai hori Kontseilu Europarrera bidaltzea eskatu ahal izango du; hori gertatuz gero, legegintzako prozedura arrunta etenda geratuko da. Gaia eztabaidatu ondoren, prozedura eten eta lau hilabeteko epean, Kontseilu Europarrak:

a) proiektua berriz ere Kontseiluari itzuliko dio, eta, horrela, legegintzako prozedura arruntaren etenaldia bukatuko da; edo, bestela,

b) ez du erabakirik hartuko edo Batzordea-ri beste proposamen bat aurkezteko eskatuko dio. Horrelakoetan, hasieran proposatutako egintza onartugabetzat joko da.

2. KAPITULUA

KOKATZEKO ESKUBIDEA

49. artikulua

(lehengo 43. artikulua EET)

Ondorengo xedapenen eremuan, debekatu-ta egongo dira estatu kide bateko herritarrek beste estatu kide bateko lurraldean kokatzeko daukaten askatasunaren kontrako murrizketak. Debeku hori, halaber, estatu kide bateko lurraldean kokatuta dauden beste estatu kide bateko herritarrek agentziak, sukurtsalak edo filialak irekitzeko daukaten askatasunaren murrizketen kontra ere badoa.

Kokatzeko askatasunak berekin dakar bakoitzak bere konturako enplegua sortu eta horretan aritu ahal izatea, baita enpresak eratu eta kudeatzea ere, batez ere, sozietateak, 54. artikuluko bigarren lerrokadan zehaztuta dauden moduan, bertako herritarrentzat herrialde bakoitzeko legediek jarritako baldintzetan, kapitalei buruzko kapituluko xedapenei kalterik egin gabe.

50. artikulua

(lehengo 44. artikulua EET)

1. Jarduera zehatz batean kokatzeko askatasuna lortzeari begira, erabakia Europako Parlamentuari eta Kontseiluari dagokie, eta zuzentarau bidez hartuko dute erabakia, lege-gintzako prozedura arruntaren arabera eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari kontsulta egin ondoren.

2. Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak aurreko xedapenetan agindutako eginkizunak bete behar dituzte, batez ere:

a) orokorrean, lehentasuna emango diete ekoizpena eta trukaketak gehitzeko lagungarri diren jardueri, kokatzeko askatasuna berariazko moduz horretarako baliagarria den heinean;

b) estatuetako administrazio eskudunen arteko lankidetzak estua izango dela bermatu behar dute, hain zuzen, Batasunaren barruan, eragindako jardueren egoera partikularrak eza-gutu ahal izateko;

c) estatuko legedietatik edo estatuen artean aurrez lotutako akordioetatik sortutako administrazioko prozedurak eta jarduerak eza-

batu egin behar dituzte, baldin eta horiei eus-teak oztopoak jartzen badizkio kokatzeko as-katasunari;

d) Erkidegoko estaturen bateko soldatape-ko langile izanda, eta beste estaturen bateko lu-rraldean enplegatuta egonik, norbere kontura lanean jarri nahi duten langileek lurralde ho-rretan jarraitu ahal izan dezaten jagon behar dute Kontseiluak eta Batzordeak, beti ere delako jarduera hori hasi nahi duten unean estatu ho-rretan sartuko balira eskatuko litzaizkiekeen bal-dintzak betetzen badituzte;

e) estatu kideren estaturen bateko lurraldean kokatutako jabetza higiezinak beste estatu ba-teko herritarren batek erosi eta aprobetxatze-ko moduak aukeran utzi behar dituzte, 39. ar-tikuluko 2. paragrafoan ezarritako printzipioak hausten ez diren bitartean;

f) kokatzeko askatasunari jarritako mu-rrizpenak arian-arian ezabatu egin behar di-tuzte, aipatutako jarduera-adar guztietan, bai estatu kideetako lurraldeetan agentziak, su-kurtsalak edo filialak zabaltzeko baldintzei dagokienez, bai baltzu nagusiko langileak bere agentzia, sukursal edo filialetako kudeaketa edo kontroleko organoetan onartzeko baldintzei da-gokienez ere;

g) 54. artikuluko bigarren lerrokadan ze-haztutako sozietateei estatu kideetan eskatutako bermeak koordinatu egin behar dituzte, beha-rrezkoa den neurrian, baliokideak izan daitezen, eta, hala, kideen eta hirugarrenen interesak ba-besteko;

h) eta neurriak hartu behar dituzte kokatzeko baldintzak faltsutu ez daitezen estatu kideek emandako laguntzekin.

51. artikulua

(lehengo 45. artikulua EET)

Kapitulu honetako xedapenak ez zaizkie aplikatuko, estatu kide interesdunari dagokio-nez, estatu horretan botere publikoa gauzatze-arekin zerikusia daukaten jardueri, nahiz eta zerikusi hori noizean behingoa izan.

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera, kapitulu honetako xedapenen aplikaziotik kan-po utz ditzakete zenbait jarduera.

52. artikulua

(lehengo 46. artikulua EET)

1. Kapitulu honetako xedapenek eta xeda-penon indarrez hartutako neurriek ez dute za-lantzan jarriko atzeritarrentzat araubide be-

rezia ezartzen duten legezko, erregelamenduzko eta administraziozko xedapenak aplikatu daitezkeen ala ez, baldin eta ordena publikoa, segurtasun publikoa eta osasun publikoa direla-eta xedapenok arrazoizkoak badira.

2. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera, aipatutako xedapenak koordinatzeko zuzentaruak onartuko dituzte.

53. artikulua

(lehengo 47. artikulua EET)

1. Pertsona bakoitzari bere konturako jarduerak sortu eta betetzeko erraztasunak emateko, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntari jarraituz, zuzentaruak onartuko dituzte bata bestearen diplomak, ziurtagiriak eta beste titulu batzuk onartzeko, eta nork bere konturako jarduerak sortzeko eta horietan aritzeko estatu kideek dauzkaten lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapenak koordinatzeko.

2. Medikuntza, paramedikuntza eta farmaziako lanbideei dagokienez, arian-arian murrizpenak gutxitzen joateko, aurrez koordinatu egin behar dira estatu kideetan lanbideok betetzeko eskatutako baldintzak.

54. artikulua

(lehengo 48. artikulua EET)

Baldin eta estatu kideren bateko legearen arabera eratutako sozietateek beren egoitza nagusia, administrazio nagusia edo jarduera nagusiko zentroa Batasunean badaukate, estatu kideetako herritar diren pertsona fisikoen parean jarriko dira, kapitulu honetako xedapenak aplikatzeko.

Sozietateak esatean zuzenbide zibileko edo merkataritza-zuzenbideko sozietateak ulertu behar dira, kooperatibak barne, baita zuzenbide publiko edo pribatuko gainerako pertsona juridikoak ere, irabazteko xederik ez daukatenak salbuespen izanda.

55. artikulua

(lehengo 294. artikulua EET)

Batasuneko estatuek beren herritarrei ematen dieten tratua emango diete Batasuneko beste estatuetako herritarrei ere, 54. artikuluan zehaztutako sozietateetako kapitalean finantza-partaidetza izateari dagokionez, Tratatueta gainerako xedapenak aplikatu beharra albo batera utzi gabe.

3. KAPITULUA

ZERBITZUAK

56. artikulua

(lehengo 49. artikulua EET)

Hurrengo xedapenen eremuan, debekatuta utziko dira Batasuneko herrialde batean kokatuta dauden Batasuneko estaturen bateko herritarrei estatu kide batean zerbitzuak aske emateko murrizpenak, nahiz eta herrialde hori ez izan prestazio-hartzailea.

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera, hirugarren estatu bateko herritarrek izan eta Batasunean kokatuta dauden zerbitzu-emaleei zabaldu ahal izango dizkiete kapitulu honetako xedapenen onurak.

57. artikulua

(lehengo 50. artikulua EET)

Tratatuen arabera, zerbitzutzat hartuko dira normalean ordainketa baten truke egingako prestazioak, baldin eta salgai, kapital eta pertsonen zirkulazio askeari buruzko xedapenek arautzen ez badituzte.

Zerbitzuon artean sartzen dira, bereziki:

- a) industriako jarduerak;
- b) merkataritzako jarduerak;
- c) eskulangintzako jarduerak;
- d) lanbide liberaletako jarduerak.

Kokatze-eskubideari buruzko kapituluko xedapenei kalterik egin gabe, zerbitzu-emaleak, prestazio hori gauzatzeko, prestazioa burutzen ari den estatu kidean bete dezake bere jardueraldi batean, estatu kide horrek bertako herritarrei ezar diezazkien baldintza berberetan.

58. artikulua

(lehengo 51. artikulua EET)

1. Garraioei buruzko zerbitzuak aske emateko, garraioei buruzko tituluko xedapenak izango dira arautzaile.

2. Kapitalen zirkulazioaren liberalizazioarekin harmonizatuta egingo da kapital-mugimenduei lotutako banku- eta aseguru-zerbitzuen liberalizazioa.

59. artikulua

(lehengo 52. artikulua EET)

1. Zerbitzu jakin baten liberalizazioa lortzeko, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak

zuzentara u bidez erabakiko dute, legegintzako prozedura arruntaren arabera eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari kontsulta egin ondoren.

2. Goiko 1. paragrafoan aurreikusitako zuzentara uak, orokorrean, lehentasunez ekoizpen-kostuetan eragin zuzena daukaten zerbitzuei buruzkoak izango dira, baita, liberalizatuta, salgaien trukaketa errazten duten zerbitzuei buruzkoak ere.

60. artikulua

(lehengo 53. artikulua EET)

Batasuneko estatuek ahaleginak egingo dituzte 59. artikuluko 1. paragrafoa aplikatuz onartutako zuzentara uen indarrez eskatutako zerbitzu-liberalizazioa baino liberalizazio handiagoa ezartzeko, baldin eta beren ekonomiaren egoera orokorrak eta kasuan kasuko sektoreko egoerak uzten badiete.

Batzordeak, helburu horrekin, gomendioak egingo dizkie interesdun diren estatuei.

61. artikulua

(lehengo 54. artikulua EET)

Harik eta zerbitzuak aske betetzeko murrizpenak ezabatu arte, 56. artikuluko lehenengo lerrokadan aipatutako zerbitzu-emaile guztiei aplika diezazkieke murrizpenok estatu kide bakoitzak, nazionalitatez edo egoitzarik kontuan hartu gabe.

62. artikulua

(lehengo 55. artikulua EET)

Biok barne direla, 51. artikulutik 54. artikulura artekoetako xedapenak aplika dakizkieke kapitulu honetan araututako gaiei.

4. KAPITULUA

KAPITALA ETA ORDAINKETAK

63. artikulua

(lehengo 56. artikulua EET)

1. Kapitulu honetako xedapenen eremuan, debekatuta dago estatu kideen arteko eta estatu kideen eta hirugarren herrialdeen arteko kapitalen mugimenduei edozein murrizketa jarzteaz.

2. Kapitulu honetako xedapenen eremuan, debekatuta dago estatu kideen arteko eta estatu kideen eta hirugarren herrialdeen arteko ordainketei edozein murrizketa jarzteaz.

64. artikulua

(lehengo 57. artikulua EET)

1. Estatu bakoitzeko zuzenbidearen arabera zein Batasuneko zuzenbidearen arabera, kapitalen mugimenduen gainean 1993ko abenduaren 31n zeuden murrizketak hirugarren herrialdeei aplikatzeari kalterik egin gabe ulertu behar da 63. artikulua, berdin delarik kapitalok hirugarren herrialdeetara bidaltzen diren edo herrialde horietatik datozen eta, betiere, baldin eta zuzeneko inbertsioak badira —ondasun higiezineta koak barne—, edota kokatzeko, finantza-zerbitzuak emateko edo kapitalen merkatuetan balio-tituluak onartzeko badira. Bulgariako, Estoniako eta Hungariako estatueta ko legeriaren indarrez dauden murrizketei dagokienez, kontuan hartuko den eguna 1999ko abenduaren 31 izango da.

2. Estatu kideen eta hirugarren herrialdeen arteko kapitalen zirkulazio askeari ahal den mailarik gorenean eutsi nahi izanda ere, eta tratatuetako gainerako kapitulueta n xedatutakoari kalterik egin gabe, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera, neurriak hartuko dituzte kapitalen mugimenduei buruz, bai beste herrialde batzuetara badoaz, bai herrialde horietatik badatoz, baldin eta zuzeneko inbertsioak badira —ondasun higiezineta koak barne— eta kokatzeko, finantza-zerbitzuak emateko edo kapitalen merkatuetan baloreak onartzeko badira.

3. Kapitalen mugimenduen liberalizazioari dagokionez, kapitalak hirugarren herrialdeetara joan nahiz herrialde horietatik etorri, Batasunaren zuzenbidean atzerakadaren bat gertatu ahal izateko, Kontseiluaren legegintzako prozedura berezi baten arabera, aho batez eta Europako Parlamentuari aurretiaz kontsulta egin da bakarrik ezarri ahal izango ditu neurriak, 2. paragrafoan xedatutakoa gorabehera.

65. artikulua

(lehengo 58. artikulua EET)

1. 63. artikuluan xedatutakoa gorabehera, estatu kideek beretzat gordeko dute:

a) bizilekuaren arabera edo kapitala inbertituta dagoen tokiaren arabera egoera desberdinetan aurkitzen direla-eta zergadunen arteko bereizketa egiten duten zerga-zuzenbideko xedapenak aplikatzeko eskubidea;

b) estatu bakoitzeko zuzenbidea eta araubidea haustea galarazteko beharrezko neurriak hartzeko eskubidea, bereziki zerga-arloan eta finantza-erakundeen zuhurtziazko ikuskapen-arloan; administrazioko edo estatistikako in-

formazioa lortzea xede izanik, kapitalen mugimenduen aitortpenak egiteko prozedurak ezartzeko eskubidea; edo ordena publikoa edo segurtasun publikoa dela-eta bidezkoak diren neurriak hartzeko eskubidea.

2. Kapitulu honetako xedapenak ez dira oztopo izango kokatze-eskubideari buruz Tratatuarekin bateragarri diren murrizketak aplikatzeko.

3. Goiko 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako neurriak eta prozedurak ezin izango dira izan ez bigabekeriazko bereizkeria-modu bat, ez 63. artikuluan zehaztu den kapitalen eta ordainketen zirkulazio askea murrizteko estalki bat ere.

4. Batzordeak, 64. artikuluko 3. paragrafoan jasotakoaren arabera aplikazio-neurriak ezean, edo Kontseiluak, estatu kide interesdunak eskaera egin eta hiru hilabeteko epean Batzordeak erabakirik hartu ez badu, erabakia hartu ahal izango dute, horren bidez aitortzeko, estatu kide batek hirugarren herrialdeekiko hartutako zerga-neurri murrizgarriak Tratatuarekin bateragarritzat joko direla, Batasunaren xedeetakoren batek hori justifikatzen duen neurrian eta barne-merkatuaren funtzionamendu egokiarekin bateragarriak diren heinean. Kontseiluak aho batez erabakiko du, estatu kide batek eskaera egin ondoren.

66. artikulua

(lehenengo 59. artikulua EET)

Baldin eta, salbuespeneko egoeretan, kapitalen mugimenduek, bai hirugarren herrialdeetara doazenak, bai herrialde horietatik datozenak, ekonomia eta diru batasunaren funtzionamendurako zailtasun larriak sortzen badituzte, edo sortzeko mehatxua agertzen badute, Kontseiluak Batzordeak proposatuta eta Europako Banku Zentralari kontsulta egin ondoren, sei hilabete baino luzeago joko ez duen eperako, behar-beharrezko diren babes-neurriak har ditzake hirugarren herrialdeekiko.

V. TITULUA

ASKATASUN-, SEGURTASUN- ETA JUSTIZIA-ESPARRUA

1. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

67. artikulua

(Lehenengo 61. artikulua EET eta 29. artikulua EBT)

1. Batasuna askatasun-, segurtasun- eta justizia-esparrua da, oinarritzko eskubideen erres-

petuaren itzalpean eta estatu kideen sistema eta tradizio juridikoen errespetuaren itzalpean.

2. Batasunak barruko mugetan pertsonen kontrolik ez dela egongo bermatuko du, eta asilo-, immigrazio- eta kanpoko mugetarako kontrol-politika erkidea garatuko du, estatu kideen arteko elkartasunean oinarriturik, eta hirugarren herrialdeetako herritarrei dagokienez ekitatiboa izango dena. Titulu honetako ondorioetarako, aberriagabeak hirugarren herrialdeetako herritarren parekoak izango dira.

3. Batasuna segurtasun-maila handia lortzen saiatuko da, eta, horretarako, delinkuentzia, arrazakeria eta xenofobia saihesteko eta borrokatzeko neurriak eta polizia-agintarien, auzietarako agintarien eta beste agintari eskudunen artean koordinazioa eta lankidetzatza lortzeko neurriak erabiliko ditu eta, gainera, batak bestearen zigor-arloko ebazpen judizialak onartuko ditu, eta, beharrezkoa bada, zigor-arloko legediak batak bestera hurbilduko dituzte.

4. Batasuna babes judizialaren bidea zabaltzen saiatuko da, eta, batez ere, arlo zibileko ebazpen judizialak eta estrajudizialak elkarri aitortzeko printzipioa bermatuko du.

68. artikulua

Askatasun-, segurtasun- eta justizia-esparru horretan, legegintzako programazioaren eta programazio operatiboaren norabide estrategikoak Kontseilu Europarrak definituko ditu.

69. artikulua

Laugarren eta bosgarren kapituluaren esparruan aurkeztzen diren legegintzako proposamenak eta ekimenak direla-eta, estatuetako parlamentuen ardura izango da subsidiariotasun-printzipioa errespetatu beharra zaintzea, subsidiariotasun- eta heinekotasun-printzipioak aplikatzeari buruzko protokoloaren arabera.

70. artikulua

Titulu honetan zehaztutako Batasunaren politikak estatu kideetako agintariak nola aplikatzen dituzten balioetsiko da, objektiboki eta alderdikierarik gabe, Kontseiluaren lankidetzarekin. Horretarako, estatu kideek prozedura batzuk bete beharko dituzte, eta, prozedura horiek zehazteko, 258., 259. eta 260. artikuluei kalterik egin gabe, Kontseiluak, Batzordearen proposamenez, neurriak hartu ahal izango ditu, batez ere elkarri aitortzeko printzipioa bete-be-

tean aplikatzen laguntze aldera. Balioespen horren edukia eta emaitzak Europako Parlamentuari eta estatuetako parlamentuei jakinarazi beharko zaizkie.

71. artikulua

(lehengo 36. artikulua EBT)

Batasunaren segurtasun-kontuetan lankidetzatza operatiboa sustatu eta indartu egingo direla bermatzeko, Kontseiluan horretarako komite iraunkorra osatuko da. Komite horrek, 240. artikuluari kalterik egin gabe, estatu kideetako agintari eskudunen lanaren koordinazioa errazteko ardura izango du. Batasuneko organo eta organismoen artean, eraginpean direnak ere parte hartu ahal izango dute. Europako Parlamentua eta estatuetako parlamentuak lan horien jakinaren gainean eduki behar dira.

72. artikulua

(Lehengo 64. artikulua 1. paragrafoa EET eta 33. artikulua EBT)

Titulu hau halaxe izango da, estatu kideek ordena publikoa zaindu eta barne-segurtasuna babesteko dituzten erantzukizunak gauzatzeari kalterik egin gabe.

73. artikulua

Estatu kideek aukera izango dute elkarren artean eta beren erantzukizunpean lankidetzatza eta koordinazio-motak antolatzeke, egoki iritzitako neurrian, beren estatuko segurtasuna babesteko erantzukizuna duten administrazioetan eskumena duten zerbitzuen artean.

74. artikulua

(lehengo 66. artikulua EET)

Kapitulu honetan aipaturik dauden eremuetan, estatu kideen zerbitzu eskudunen arteko administrazioen arteko lankidetzatza bermatzeko, Kontseiluak neurriak onetsiko ditu, baita zerbitzu horiek eta batzordearen arteko lankidetzatza bermatzeko ere. Batzordeak proposaturik erabakiko du, Europako Parlamentuari aurretiaz kontsulta eginda, eta 76. artikuluari kalterik egin gabe.

75. artikulua

(lehengo 60. artikulua EET)

Terrorismoaren eta horri lotutako jardunen aurkako prebentzio-lanari eta borrokari da-

gokienez, 67. artikuluan jasotako helburuak lortzeko beharrezko denean, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera, administrazio-neurrien esparrua zehaztuko dute kapitalen mugimenduei eta ordainketei buruz, hala nola funtsak, finantza-aktiboak eta onura ekonomikoak ibilgetzeko aukera, betiere, horien jabetza, edukitza edo ukaitea pertsona fisiko zein juridikoena, taldeena edo estatuz besteko erakundeena denean.

Batzordeak proposatuta, Kontseiluak neurriak hartuko ditu lehenengo lerrokadan aipatzen den esparrua aplikatzeko.

Berme juridikoei dagokienez, artikulua honetan jasotako egintzek beharrezko xedapen guztiak jasoko dituzte.

76. artikulua

Laugarren eta bosgarren kapitulueta aipaturiko egintzak, eta, kapitulu horietan aipaturiko eremuetan administrazioen arteko lankidetzatza bermatzen badute, 74. artikuluan aipaturiko neurriak ere bai, honela onartuko dira:

- a) Batzordeak proposaturik, edo
- b) estatu kideen laurdenaren ekimenez.

2. KAPITULUA

MUGETAKO KONTROLEI, ASILOARI ETA IMMIGRAZIOARI BURUZKO POLITIKAK

77. artikulua

(lehengo 62. artikulua EET)

1. Batasunak garatuko duen politikak helburu hauek izango ditu:

- a) barruko mugak igaro behar dituztenean, pertsonak, edozein nazionalitate dutelarik ere, inolako kontrolik ez dutela izango bermatzea;
- b) kanpoko mugak igaro behar dituztenean, pertsonen kontrolak eta zaintza eraginkorra bermatzea;

c) arian-arian, kanpoko mugak kudeatzeko sistema integratu bat ezartzea.

2. Lehenengo paragrafoaren ondorioetarako, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak ondorengo hauei buruzko neurriak hartuko dituzte, legegintzako prozedura arruntaren arabera:

a) bisei buruzko eta denbora laburrerako beste bizileku-baimen batzuei buruzko politika erkidea;

b) kanpoko mugak igarotzen dituzten pertsonen pasazko beharrek kontrolak;

c) hirugarren herrialdeetako herritarrek zein baldintzatan zirkulatu ahal izango duten as-

katasunez, aldi labur batean, Batasunean berrera;

d) arian-arian kanpoko mugak kudeatzeko sistema integratu bat ezartzeko beharrezkoa den edozein neurri;

e) barruko mugak igaro behar dituztenean, pertsonak, edozein nazionalitatekoak direlarik ere, inolako kontrolik ez izatea.

3. Baldin eta, 20. artikulua 2. paragrafoa a) idatz-zatian ezarritako eskubidea baliatze bidea egite aldera, Batasunak ekintzara jotzea beharrezkoa bada, eta Tratatuak jarduteko ahalik xedatu ez badute horretarako, Kontseiluak ezarri ahal izango ditu, legegintzako prozedura berezi baten arabera, pasaporteen, nortasun-agirien, egoitza-baimenen zein antzeko beste edozein agiriren gaineko xedapenak. Kontseiluak, Europako Parlamentuari aurretiaz kontsulta eginda, aho batez erabakiko du.

4. Estatu kideena da beren mugak geografikoki zedarritzeko eskumena, nazioarteko zuzenbidearekin bat, eta artikuluko honek ez du eskumen hori ukitzen.

78. artikulua

(lehenengo 63. artikulua, 1. eta 2. puntuak, eta 64. artikuluko 2. paragrafoa EET)

1. Asilo-, ordezkoko babes- eta aldi baterako babes-kontuetan, Batasunak politika erkidea garatuko du, nazioarteko babesa behar duten hirugarren herrialdeetako herritarrei estatutu egoki bat eskaintzeko eta hara itzularazi beharrik ez dagoela dioen printzipioa errespetatzeko. Politika horrek izan beharko du 1951ko uztailearen 28ko Genevako Hitzarmenaren eta lheslarien estatutuari buruzko 1967ko urtarrilaren 31ko protokoloaren arabera, baita bete beharreko gainerako tratatuen arabera ere.

2. Lehenengo paragrafoaren ondorioetarako, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak asilorako Europako sistema erkide bati buruzko neurriak hartuko dituzte, legegintzako prozedura arruntaren arabera; honako hauek hartuko ditu barne:

a) hirugarren herrialdeetako herritarrentzako era bereko asilo-estatutua, Batasun osorako balioko duena;

b) asilo europarra lortu ez izanagatik nazioarteko babesa behar duten hirugarren herrialdeetako herritarrei ordezkoko babesa emateko era bereko asilo-estatutua;

c) oldeka datozenerako, lekuz aldatu behar izan diren pertsonentzako aldi baterako babes-sistema erkide bat;

d) era bereko asilo-estatutu hori edo ordezkoko

babes-estatutu hori emateko edo kentzeko prozedura erkidea;

e) asilo-eskari bat edo ordezkoko babes-eskari bat aztertzeko ardura zein estatu kidek duen zehazteko irizpideak eta tresnak;

f) asiloa edo ordezkoko babesa eskatu dutenak hartzeko baldintzei buruzko arauak;

g) asiloa, ordezkoko babesa edo aldi baterako babesa eskatzen duen jende-etorria kudeatzeko, hirugarren herrialdeekin elkartzea eta lan-kidetzan aritzea.

3. Hirugarren herrialdeetako herritarrek ustekabeen etorri direla-eta, estatu kide bat edo batzuk larritasun-egoeran badaude, Kontseiluak estatu kide horiei laguntzeko behin-behineko neurriak hartu ahal izango ditu, Batzordeak proposaturik. Europako Parlamentuari aurretiaz kontsulta eginda erabakiko du Kontseiluak.

79. artikulua

(lehenengo 63. artikulua, 3. eta 4. puntuak, EET)

1. Batasunak immigrazio-politika erkidea garatuko du, beti bermatuta egon dadin migrazio-fluxuak modu eragingarrian kudeatuko direla, estatu kideetan legez bizilekua duten hirugarren herrialdeetako herritarrek berdintasun-legez tratatuko direla, eta, bai legez kanpoko immigrazioa, bai gizakien salerosketa, saihestuko dela eta horien aurkako borroka indartu egingo dela.

2. Lehenengo paragrafoaren ondorioetarako, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak neurriak hartuko dituzte, legegintzako prozedura arruntaren arabera. Hona hemen hartuko dituzten esparruak:

a) estatu kideetan sartu eta bizilekua hartzeko baldintzak, eta estatu kideek denbora luzerako bisak eta bizileku-baimenak emateko arauak, familiak biltzeko balio dutenak barne dira;

b) estatu kide batean bizilekua legez duten hirugarren herrialde bateko herritarren eskubideen definizioa, askatasunez zirkulatzeke eta bizilekua gainerako estatu kideetan hartzeko baldintzak barne;

c) legez kanpoko immigrazioa eta legez kanpo bizilekua hartzea, baita legez kanpoko egotziak kanpora botatzea eta atzera beren herrialdeetara itzultzea ere;

d) gizakien salerosketaren aurkako borroka, batez ere emakumeena eta haurrena bada.

3. Batasunak hirugarren herrialdeekin akordioak sinatu ahal izango ditu, hirugarren herrialdeetako herritarrek beren jatorrizko edo abiaburuko herrialdeetan berriz har ditzaten,

sartzeko, egoteko edo bizilekua hartzeko baldintzak betetzen ez badituzte, edo, lehen bete arren, orain betetzen ez badituzte.

4. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera, hainbat neurri ezar dezakete estatu kideei beren lurraldean legezko bizilekua duten hirugarren herrialdeetako herritarrak integratzeko egiten dituzten ekintzetan laguntzeko, baina ez dute izango estatu kideetako legezko eta erregelamenduzko xedapenak harmonizatzeke inongo biderik.

5. Estatu kideek hirugarren herrialdeetatik lan bila datozkien kanpoko herritarretako zenbat onartu zehazteko eskubidea dute, berdin norberaren edo beste inoren konturako lan bila datozen, eta artikuluko honek ez du eskubide hori ukitzen.

80. artikulua

Estatu kideen arteko elkartasun-printzipioa eta ardurak ekitatez banatzeko printzipioa izango da nagusi kapitulu honetan aipaturik dauden Batasunaren politiketan eta politika horiek gauzatzean, baita finantzei dagokienean ere. Beharrezkoa den bakoitzean, Batasunak kapitulu honen ondorioz onartzen dituen egintzek barne hartuko dituzte printzipio horiek aplikatzeko hainbat neurri egoki.

3. KAPITULUA

ARLO ZIBILEKO LANKIDETZA JUDIZIALA

81. artikulua

(lehenengo 65. artikulua EET)

1. Arlo zibileko gaietan, Batasunak garatuko duen lankidetzak judizialak mugaz haraindiko eragina izango du, ebazpen judizialak eta estrajudizialak elkarri aitortzeko printzipioan oinarrituta. Lankidetzak horren barruan estatu kideetako legezko eta erregelamenduzko xedapenak hurbiltzeko neurriak ere sartu ahal izango dira.

2. Lehenengo paragrafoaren ondorioetarako, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak neurriak hartuko dituzte, legegintzako prozedura arruntaren arabera, honako hauek bermatzeko, batez ere barne-merkatuak ondo funtzionatzeko beharrezkoa bada:

a) estatu kideen artean, ebazpen judizialak eta estrajudizialak elkarri aitortzea, baita beetarazpena ere;

b) agiri judizialak eta estrajudizialak mugez haraindi jakinaraztea eta lekuz aldatzea;

c) lege-gatazkei eta jurisdikzio-gatazkei buruz estatu kideetan aplikatu beharrekoak diren arauen bateragarritasuna;

d) frogak lortzeko lankidetzak;

e) babes judizial eragingarria;

f) prozedura zibilek ondo funtzionatzeko oztopoak kentzea, hain zuzen estatu kideetan prozedura zibilean aplikatu beharrekoak diren arauen bateragarritasuna sustatuz, premiazkoa izanez gero;

g) auziak ebazteko beste bide batzuk garatzea;

h) magistratuen eta justizia-administrazio-ko langileen prestakuntzaren alde egitea.

3. Mugaz haraindiko eragina duten Familia Zuzenbideari buruzko neurriak, 2. paragrafoan xedatutakoa gorabehera, Kontseiluak ezarriko ditu, legegintzako prozedura berezi baten arabera. Kontseiluak, Europako Parlamentuari aurretiaz kontsulta eginda, aho batez erabakiko du.

Kontseiluak, Batzordearen proposamenez, erabaki bat hartu ahal izango du, zehazteko Familia Zuzenbidearen baitako alderdien artean mugaz haraindiko eragina dutenak zeintzuk gauzatu daitezkeen legegintzako prozedura arruntaren arabera onartutako egintzak erabiltzea. Kontseiluak, Europako Parlamentuari aurretiaz kontsulta eginda, aho batez erabakiko du.

Bigarren lerrokadan adierazten den proposamena estatu kideetako parlamentuei jakinaraziko zaie. Estatuko Parlamenturen batek jakinarazpena egin zaionetik sei hilabeteko epean kontra dagoela adierazten badu, ez da erabakia hartuko. Kontra dagoenik egon ezean, Kontseiluak erabakia hartu ahal izango du.

4. KAPITULUA

ZIGOR-ARLOKO LANKIDETZA JUDIZIALA

82. artikulua

(lehenengo 31. artikulua EBT)

1. Batasunean, epaiak eta ebazpen judizialak elkarri aitortzeko printzipioa izango da zigor-arloko gaietako lankidetzak judizialaren oinarria, eta horren barnean egongo da estatu kideetako legezko eta erregelamenduzko xedapenen hurbilketa ere, 2. paragrafoan eta 8. artikuluan aipaturiko esparruetan.

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak ondorengo hauei buruzko neurriak hartuko dituzte, legegintzako prozedura arruntaren arabera:

a) epai eta ebazpen judizialak, edozein formatakoak direlarik ere, Batasun osoan aitortuko dituztela bermatzeko arauak eta prozedurak

zehaztea;

b) estatu kideen arteko jurisdikzio-auziei aurrea hartzea eta ebazpena ematea;

c) magistratuen eta justizia-administrazioako langileen prestakuntzaren alde egitea;

d) prozedura penalaria eta ebazpenak bete-arazteari dagokien esparruan, estatu kideetako agintari judizialen edo baliokideen arteko lankidetzari bidea erraztea.

2. Epaia eta ebazpen judizialak elkarri aitortzeko, eta mugaz haraindiko zigor-arloan polizia-lankidetzara eta lankidetzara judiziala bideratzeko beharrezkoa den neurrian, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak gutxieneko arau batzuk ezar ditzakete, legegintzako prozedura arrunta erabiliz onartzen diren zuzentarauen bitartez. Baina estatu kideen tradizioen eta sistema judizialen arteko aldeak ere kontuan izan beharko dituzte gutxieneko arau horiek.

Honak hauek dira arau horien gaiak:

a) estatu kideen artean, frogak elkarri onartzea;

b) prozedura penalean pertsonen zein eskubide izango dituzten;

c) delituen biktimen eskubideak;

d) prozedura penalaran beste osagai jakin batzuk; Kontseiluak erabaki baten bitartez aurretiaz zehaztuak. Kontseiluak erabaki hori aho batez hartuko du, Europako Parlamentuak aurretiaz onespena emanda.

Paragrafo honetan aipaturiko gutxieneko arau horiek zehazturik egonagatik ere, horrek ez du esan nahi estatu kideek ezinezkoa dutenik pertsonentzako babes-maila handiagoa mantentzea edo ezartzea.

3. Kontseiluko kide batek uste badu 2. paragrafoan jasotako zuzentzarau proiektu horietako batek estatu horretako zigor-arloko justizia-sistemaren funtsezko alderdiak ukitzen dituela, gai hori Kontseilu Europarrera bidaltzeko eska dezake, eta, halakoetan, legegintzako prozedura arrunta, aplikatzeko izatekotan, etenda geratuko da. Gaia eztabaidatu ondoren, adostasuna lortzen bada, Kontseilu Europarrak prozedura hori eten eta lau hilabeteko epean proiektua berriz ere Kontseiluari itzuliko dio, eta, horrela, legegintzako prozedura arruntaren etenaldia bukatuko da.

Epe horren barruan adostasunik lortzen ez bada, eta gutxienez bederatzi estatu kide lankidetzara indartua ezarri nahi badute, dagokion zuzentzarau-proiektuarekin bat, Europako Parlamentuari, Kontseiluari eta Batzordeari jakinaraziko diete. Halakoetan, Europar Batasunaren Tratatuaren 20. artikuluko 2. paragrafoan eta tratatu honetako 329. artikuluan 1. paragra-

foan aipaturik dagoen lankidetzara indartu horri hasiera emateko baimena emanda dagoela ulertuko dute, eta lankidetzara indartuari dagozkion xedapenak aplikatu beharko dira.

83. artikulua

(lehengo 31. artikulua EBT)

1. Delitu-eremu batzuetan, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak gutxieneko arau batzuk ezarri ahal izango dituzte, Legegintzako prozedura arrunta erabiliz onartzen diren zuzentarauen bitartez, arau-hauste penalen eta zehapenen definizioari buruz, baldin eta delitu-esparru horiek bereziki larriak badira eta mugaz haraindiko dimentsioa badute, arau-haustekak halakoxeak direlako edo ondorio larriak dakartzatelako, edo, irizpide erkideen arabera, bereziki jazarri beharrekoak direlako.

Hauek dira delitu-eremu horiek: terrorismoa, gizakien salerosketa eta emakume eta haurren esplotazio sexuala, legez kanpoko droga-trafikoa, legez kanpoko arma-trafikoa, kapital-zuriketa, ustelkeria, ordainbideak faltsutzea, delinkuentzia informatikoa eta delinkuentzia antolatua.

Delinkuentziaren bilakaera kontuan izanda, Kontseiluak erabaki bat hartu ahal izango du, paragrafo honetan ezarritako irizpideen arabera beste delitu-eremu batzuk zehazteko. Aho batez hartuko du erabaki hori, Europako Parlamentuak aurretiaz onespena emanda.

2. Baldin eta, hainbat harmonizazio-neurri hartu diren eremu batean, Batasunaren politika eraginkortasunez gauzatuko dela bermatzeko, ezinbestekoa bada estatu kideen zigor-arloko legezko eta erregelamenduzko xedapenak hurbiltzea, zuzentarauen bidez gutxieneko arau batzuk ezarri ahal izango dira, kasuan kasuko eremu horretako arau-hauste penalen eta zehapenen definizioari buruz. Harmonizazio-neurri horiek hartzeko erabili zen prozedura berbera erabiliko da zuzentarau horiek legegintzako prozedura arruntaren edo bereziaren arabera hartzeko ere, 76. artikuluari kalterik egin gabe.

3. Kontseiluko kide batek uste badu 1. edo 2. paragrafoan jasotako zuzentzarau-proiektu horietako batek estatu horretako zigor-arloko justizia-sistemaren funtsezko alderdiak ukitzen dituela, gai hori Kontseilu Europarrera bidaltzeko eska dezake, eta, halakoetan, legegintzako prozedura arrunta etenda geratuko da. Gaia eztabaidatu ondoren, adostasuna lortzen bada, Kontseilu Europarrak prozedura hori eten eta lau hilabeteko epean proiektua berriz ere Kontseiluari itzuliko dio, eta, horrela, legegintzako prozedura arruntaren etenaldia bukatuko da.

Epe horren barruan adostasunik lortzen ez bada, eta gutxienez bederatzi estatu kidek lankidetzat indartua ezarri nahi badute, dagokion zuzentarau-proiektuarekin bat, Europako Parlamentuari, Kontseiluari eta Batzordeari jakinaraziko diete. Halakoetan, Europar Batasunaren Tratatuaren 20. artikuluko 2. paragrafoan eta tratatu honetako 329. artikuluan 1. paragrafoan aipaturik dagoen lankidetzat indartu horri hasiera emateko baimena emanda dagoela ulertuko dute, eta lankidetzat indartuari dagozkion xedapenak aplikatu beharko dira.

84. artikulua

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak hainbat neurri zehatz dezakete, legegintzako prozedura arrunta erabiliz, estatu kideek delinkuentziari aurrea hartzeko egiten duten lana bultzatzeko eta babesteko, estatu kideetako legezeko eta erregelamenduzko xedapenak harmonizatzeko ahalegin oro albo batera utzita.

85. artikulua

(lehenengo 31. artikulua EBT)

1. Bi estatu kideri edo gehiagori eragiten dien edo irizpide erkideen arabera jazarri beharrekoa den delinkuentzia larria ikertzeko eta jartzeko ardura duten estatu-agintarien arteko koordinazioari eta lankidetzari laguntza ematea eta bultzada bat ematea da Eurojusten eginkizuna. Estatu kideetako agintariei eta Europolek egindako operazioetan eta emandako informazioan oinarrituko da horretarako.

Horretarako, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak legegintzako prozedura arruntaren arabera onartutako erregelamendu bidez egongo dira zehazturik Eurojusten egitura, funtzionamendua, jarduteko eremua eta eskumenak. Eskumen horien artean, hauek egon daitezke:

a) ikerketa penaletarako eginbideak hastea, eta estatuetakoa agintari eskudunek prozedura penalak hasteko proposamena egitea, batez ere, Batasunaren finantza-interesen kalterako diren arau-hausteei buruzkoak;

b) aurreko a) idatz-zatian aipaturiko ikerketak eta prozedurak koordinatzea;

c) lankidetzat judiziala indartzea, besteak beste jurisdikzio-auziak ebatziz eta Europako Justizia Sarearekin lankidetzat estuan arituz.

Erregelamendu horietan egongo da zehazturik, era berean, zein prozedura erabili beharko den Europako Parlamentuak eta estatuetakoa parlamentuek Eurojusten jarduerak balioesteko.

2. Aurreko 1. paragrafoan jasota dauden ak-

zio penaletan, eta 86. artikuluari kalterik egin gabe, estatuetakoa funtzionario eskudunen ardura izango da prozesuko egintza formalak aurrera eramatea.

86. artikulua

1. Batasunaren finantza-interesei kalte egiten dieten arau-hausteen aurka egiteko, Kontseiluak legegintzako prozedura berezia erabiliz onartutako erregelamenduen bidez, Europako Fiskaltza sortu ahal izango du Eurojustetik abiatuta. Kontseiluak aho batez erabakiko du, Europako Parlamentuak aurretiaz onespena emanda.

Aho batez erabakirik hartu ezean, gutxienez bederatzi estatu kidek osatutako multzo batek erregelamendu proiektua Kontseilu Europarrera bidaltzeko eska dezake eta, halakoetan, prozedura etenda geratuko da Kontseiluan. Gaia eztabaidatu ondoren, adostasuna lortzen bada, Kontseilu Europarrak prozedura hori eten eta lau hilabeteko epean proiektua berriz ere Kontseiluari itzuliko dio, erabakia har dezan.

Epe horren barruan adostasunik lortzen ez bada, eta gutxienez bederatzi estatu kidek lankidetzat indartua ezarri nahi badute, dagokion erregelamendu-proiektuarekin bat, Europako Parlamentuari, Kontseiluari eta Batzordeari jakinaraziko diete. Halakoetan, Europar Batasunaren Tratatuaren 20. artikuluko 2. paragrafoan eta tratatu honetako 329. artikuluan 1. paragrafoan aipaturik dagoen lankidetzat indartu horri hasiera emateko baimena emanda dagoela ulertuko dute, eta lankidetzat indartuari dagozkion xedapenak aplikatu beharko dira.

2. Europako Fiskaltzak eskumena izango du, hala dagokionean, Europolekin lankidetzan, Batasunaren finantza-interesen aurkako arau-hausteen egileak eta sopikunak aurkitzeko, prozedura penalari hasiera emateko, eta haien aurkako epaiketa has dadin eskatzeko; lehen paragrafoan aipaturik dagoen erregelamenduan daude definiturik arau-hauste horiek. Europako Fiskaltzak arau-hauste horiei dagokien akzio penala eramango du aurrera, estatu kideen jurisdikzio-organo eskudunetan.

3. Goragoko 1. paragrafoan aipaturiko erregelamenduetan zehaztuko dira Europako Fiskaltzaren estatutua, bere eginkizunak gauzatzeko bete behar dituen baldintzak, fiskaltzaren jardueretan aplikatu beharreko prozedura-arauak, zein froga onartu eta zein ez onartu jakiteko arauak, eta bere eginkizunak betetzeko orduan gauzatzen dituen prozesuko egintzen jurisdikzio-kontrolerako arauak.

4. Aldi berean edo beranduago, Kontseilu Europarrak erabaki bat har dezake 1. paragrafo hori aldatzeko, Europako Fiskaltzaren eskumenak mugaz haraindiko delinkuentzia larriaren aurka zabaltze aldera. Erabaki horrek 2. paragrafoa aldatu beharra ekarriko du delitu astunen egile eta sopikunei dagokienez, delitu horiek estatu kide bati baino gehiagori eragiten dietenean. Kontseilu Europarrak aho batez erabakiko du, Europako Parlamentuak aurretiaz onespena emanda eta Batzordeari aurretiaz kontsulta eginda.

5. KAPITULUA

POLIZIA-LANKIDETZA

87. artikulua

(lehengo 30. artikulua EBT)

1. Batasunak polizia-lankidetza garatuko du, eta, lankidetza horretan, estatu kideen agintari eskudun guztiek hartuko dute parte, polizia-zerbitzuak eta aduanakoak ere barnean direla, baita, eginkizun hertsatzaileak izanik, arau-hauste penalei aurrea hartzeko, antzemateko eta halakoak ikertzeko espezializaturik dauden zerbitzuak ere.

2. Lehenengo paragrafoaren ondorioetarako, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak ondorengo hauei buruzko neurriak hartu ahal izango dituzte, legegintzako prozedura arruntaren arabera:

a) beharrezko informazioa biltzea, gordetzea, tratatzea, aztertzea eta elkar trukatzea;

b) langileen prestakuntzaren alde egitea, eta langileak, ekipoak eta polizia ikerketa zientifikoa elkar trukatzeko lankidetza;

c) antolatutako delinkuentzia-modu larriei antzematearekin zerikusia duten ikerketa-tekника erkideak.

3. Kontseiluak ezarri ahal izango du, legegintzako prozedura berezi baten arabera, artikuluhonetan adierazten diren agintarien arteko lankidetza eraginkorrari buruzko neurriak. Kontseiluak, Europako Parlamentuari aurretiaz kontsulta eginda, aho batez erabakiko du.

Aho batez erabakirik hartu ezean, gutxienez bederatzi estatu kidek osatutako multzo batek neurrien proiektua Kontseilu Europarrera bidaltzeko eska dezake eta, halakoetan, prozedura etenda geratuko da Kontseiluan. Gaia eztabai-datu ondoren, adostasuna lortzen bada, Kontseilu Europarrak prozedura hori eten eta lau hilabeteko epean proiektua berriz ere Kontseiluari itzuliko dio, erabakia har dezan.

Epe horren barruan adostasunik lortzen ez bada, eta gutxienez bederatzi estatu kidek lankidetza indartua ezarri nahi badute, dagokion neurri-proiektuarekin bat, Europako Parlamentuari, Kontseiluari eta Batzordeari jakinaraziko diete. Halakoetan, Europar Batasunaren Tratatuaren 20. artikuluko 2. paragrafoan eta tratatuhonetako 329. artikuluan 1. paragrafoan aipaturik dagoen lankidetza indartu horri hasiera emateko baimena emanda dagoela ulertuko dute, eta lankidetza indartuari dagozkion xedapenak aplikatu beharko dira.

Bigarren eta hirugarren lerrokadetan ezarritako prozedura berezia ez zaie aplikazioko izango Schengengo altxorra garatzen duten egintzei.

88. artikulua

(lehengo 30. artikulua EBT)

1. Europolen eginkizuna da estatu kideetako polizia-agintarien eta eginkizun hertsatzaileak dituzten gainerako zerbitzuen lana, eta euren arteko lankidetza babestea eta indartzea, hartara, bi estatu kideri edo gehiagori eragiten dieten delinkuentzia larriari eta terrorismoari aurrea hartzeko, eta Batasunaren politika baten bidez bideratutako interes erkidea kalte-tzen duten delinkuentzia-moduei aurrea hartzeko, baita horien guztien aurka borroka egiteko ere.

2. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak legegintzako prozedura arruntaren arabera onartutako erregelamendu bidez egongo dira zehazturik Europolen egitura, funtzionamendua, jarduteko eremua eta eskumenak. Eskumen horien artean, hauek egon daitezke:

a) informazioa biltzea, gordetzea, tratatzea, aztertzea eta elkar trukatzea, batez ere estatu kideetako agintariengandik datorrena, edo hirugarren herrialdeetako edo hirugarren instantzietako agintariengandik datorrena.

b) ikerlanak eta aktibitate operatiboak koordinatzea, antolatzea eta aurrera eramatea, estatu kideetako agintari eskudunekin batera eginda badaude edo elkarrekin osaturiko ikerketa-taldek eginda badaude, hala dagokionean, Eurojustekin lankidetzan.

Europako Parlamentuak Europolen jardue-ra kontrolatzeko zein prozedura erabili beharko den ere erregelamendu horietan etorriko da zehazturik, eta estatuetak parlamentuek ere parte hartuko dute kontrol horretan.

3. Europolen jarduera operatibo oro jarduera horrek lurraldez ukitzen duen estatu kideetako agintariekin harremanetan eta haiekin

adosturik egin beharko da. Estatuko agintari eskudunen ardura izango da, eta ez beste inorena, neurri hertsatzaileak aplikatzea.

89. artikulua

(lehengo 32. artikulua EBT)

Kontseiluak, legegintzako prozedura berezi baten arabera zehaztuko ditu estatu kideen agintari eskudunek zein baldintzapean eta zein mugapean jardun dezaketen beste estatu kide baten lurraldean, harekin harremanetan eta jarduna harekin adosturik; agintari eskudun horiek 82. eta 87. artikuluetan daude zehazturik. Kontseiluak, Europako Parlamentuari aurretiaz kontsulta eginda, aho batez erabakiko du.

VI. TITULUA

GARRAIOAK

90. artikulua

(lehengo 70. artikulua EET)

Atal honetan arauturik dauden gaietan, garraio-politika erkide baten esparruan lortzekoak izango dira Tratatuetakoa helburuak.

91. artikulua

(lehengo 71. artikulua EET)

1. Aurreko 90. artikulua aplikatu ahal izateko, eta garraioen sektorearen berezitasunak kontuan hartuta, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera, eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeetako Komiteari kontsulta egin ondoren, hauek ezarriko dituzte:

a) estatu kideren bateko lurraldetik abiatuta edo bertara sartuta, edo estatu kideren bateko edo gehiagoko lurraldean barrena egindako nazioarteko garraioei aplika dakizkiekeen arau bateratuak;

b) egoiliarak ez diren garraiolariek estatu kide batean garraio-zerbitzuak egiteko bete behar dituzten baldintzak;

c) garraioetan segurtasuna hobetzeko diren neurriak;

d) beste edozein xedapen egoki.

2. Aintzakotzat hartuko da, 1. paragrafoko neurriak onestean, hori aplikatzeak zein kasutan ekar ditzakeen eragin larriak eskualde batzuetako bizi-mailarako eta enplegurako, baita garraio-materialaren ustiaketarako ere.

92. artikulua

(lehengo 72. artikulua EET)

Tratatu honetako 91. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako xedapenak onartu artean, eta Kontseiluak aho batez salbuespen bat ematen duen neurriarik hartu ezean, estatu kide batek ere ezin izango ditu onura gutxiagoko bihurtu, ez zuzenean ez zeharka, gainerako estatu kideetako garraiolarien kaltetan eta estatu horretako garraiolarien mesederako, 1958ko urtarrilaren 1etik gai hori arautzen duten xedapenak, edo, geroago atxikitako estatuen kasuan, atxikipen egunetik arautzen dutenak.

93. artikulua

(lehengo 73. artikulua EET)

Tratatuekin bateragarriak izan beharko dira, bai garraioak koordinatzeko premiei erantzuteko diren laguntzak, bai zerbitzu publikoak bera erekin dakartzan betebeharrak batzuei dagozkien diru-itzulketarako laguntzak.

94. artikulua

(lehengo 74. artikulua EET)

Tratatuen eremuan garraioaren prezioei eta baldintzei buruz hartutako neurri guztiek garraiolarien ekonomiaren egoera eduki behar dute kontuan.

95. artikulua

(lehengo 75. artikulua EET)

1. Batasunaren barruko trafikoan debekaturik dago, salgaiak eta trafiko-harremanak berberak izanik, salneurri edo garraio-baldintza ezberdinak aplikatzea, eta, beraz, garraiatutako produktuak zein herrialdetatik datozen edo zein estatu kidetara doazen ez da inoiz bereizkeria egiteko arrazoi izango.

2. Goiko 1. paragrafoan esandakoak ez du kentzen Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 91. artikuluko 1. paragrafoa aplikatuz beste neurri batzuk hartu ahal izatea.

3. Kontseiluak, Batzordearen proposamenez eta Europako Parlamentuari eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari kontsulta egin ondoren, 1. paragrafoan xedatutakoa aplikatuko dela bermatzeko arauak ezarriko ditu.

Kontseiluak beharrezko xedapenak onartu ahal izango ditu, bereziki, Batasuneko instituzioek 1. paragrafoan xedatuta dagoena betetzen dela kontrola dezaten, eta xedapen horren onura osoak erabiltzaileei berma diezazkieten.

4. Batzordeak, bere ekimenez edo estatu kideren baten eskariz, 1. paragrafoan aipatu diren

bereizkeria kasu guztiak aztertuko ditu, eta, interesdun diren estatu kide guztiei kontsulta egin ondoren, beharrezko iritzitako erabakiak hartuko ditu ezarritako arauen eremuan, 3. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz.

96. artikulua

(lehengo 76. artikulua EET)

1. Debeku da estatu kide batek enpresa edo industria jakin bati edo gehiagori edozein eratako babesa edo laguntza dakarkioten prezioak eta baldintzak ezartzea Batasunaren barruko garraioan, laguntza hori edozelakoa izanda ere, Batzordearen baimenez ezarritakoa ez bada.

2. Batzordeak, bere ekimenez edo estatu kideren baten eskariz, 1. paragrafoan aipatutako prezioak eta baldintzak aztertuko ditu, eta bereziki kontuan hartuko ditu, alde batetik, bai eskualdeetako ekonomia-politika egokia egiteak dakartzan eskakizunak, bai gutxi garatutako eskualdeen premiak eta bai gorabehera politikoek larri kaltetutako eskualdeen arazok ere, eta, bestetik, prezio eta baldintza horiek garraio-mota guztien arteko lehiari daukaten eragina.

Interesdun diren estatu kide guztiei kontsulta egin ondoren, Batzordeak hartuko ditu beharrezko erabakiak.

3. Aurreko 1. paragrafoan aipatutako debekuak ez dauka eraginik lehiako tarifetan.

97. artikulua

(lehengo 77. artikulua EET)

Garraioko prezioak albo batera utzita, mugak zeharkatzeagatik garraiolariek eskatutako eskubideak edo kanonak ezin izango dira arazoizko maila batetik gorakoak izan, betiere muga horietatik pasatzeak benetan sor ditzan gastuak kontuan hartuta.

Estatu kideak gastu horiek pixkanaka gutxitzen saiatu behar dira.

Batzordeak gomendioak egin ahal izango dizkie estatu kideei artikulua hau aplikatzeko.

98. artikulua

(lehengo 78. artikulua EET)

Titulu honetako xedapenak ez dira eragozpen izango Alemaniako Errepublika Federalean hartutako neurrientzat, baldin eta Alemaniak izandako banaketak Errepublika Federaleko zenbait eskualdetako ekonomiari sortutako desabantaila ekonomikoak orekatzeko badira neurriok, orduko banaketaren eraginpean dau-

den eskualdeetan. Lisboako Tratatuaren indarrean jarri eta bost urtera, Kontseiluak, Batzordeak proposaturik, artikulua hau indarririk gabe uzteko erabaki bat hartu ahal izango du.

99. artikulua

(lehengo 79. artikulua EET)

Batzordeari atxikita, Aholku Komitea sortu da, estatu kideetako gobernuak izendatutako adituz osatua. Garraio-kontuetan, Batzordeak komite horri kontsulta egingo dio, hala komeni dela uste duen guztietan.

100. artikulua

(lehengo 80. artikulua EET)

1. Titulu honetako xedapenak trenbide, errepide eta bide nabigarrietako garraioei aplikatuko zaizkie.

2. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak ezarri ahal izango dituzte, legegintzako prozedura arruntaren arabera, itsasoko eta aireko nabigaziorako xedapen egokiak. Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeetako Komiteari aurretiaz kontsulta eginda erabakiko dute lege edo esparru-lege hori.

VII. TITULUA

LEHIARI, ZERGA-ARLOARI, ETA LEGEDIAK HURBILTZEARI BURUZKO ARAU ERKIDEAK

1. KAPITULUA

LEHIARI BURUZKO ARAUAK

LEHENENGO ATALA

ENPRESEI APLIKA DAKIZKIEKEEN XEDAPENAK

101. artikulua

(lehengo 81. artikulua EET)

1. Barne-merkatuarekin bateraezinez diren heinean, debeku dira: estatu kideen arteko merkataritzari eragin diezaioketen eta helburu edo ondorio moduan barne-merkatuaren baitan lehiaren jokoa eragotzi, murriztu edo faltsutu nahi duten enpresa arteko akordio guztiak, enpresa-elkarteen erabaki guztiak eta itundutako jarduera guztiak; eta, bereziki, hauek:

a) salerosketa-prezioak edo beste eragike-

ta-baldintza batzuk zuzenean edo zeharka finkatzea;

b) ekoizpena, merkatua, garapen teknikoa edo inbertsioak mugatu edo kontrolatzea;

c) merkatuak edo hornidura-iturriak elkarren artean banatzea;

d) beste kontratatzaile batzuei baldintza diferenteak aplikatzea prestazio baliokideetarako, kontratatzaile horiei lehiarako desabantailak sorraziz;

e) kontratuak egin ahal izateko, berez eta merkataritzako ohituren arabera kontratu horiekin inolako loturarik ez duten beste prestazio osagarri batzuk onartu beharraren menpe jartzea beste kontratatzaileak.

2. Artikulu honetan debekatutako akordio edo erabakiak erabat deusezak izango dira.

3. Halere, 1. paragrafoko xedapenak ondorengo hauei ezin zaizkiela aplikatu deklaratu ahal izango da:

- enpresen arteko edozein akordiori edo edozein akordio-kategoriari,
- enpresa-elkarteen edozein erabakiri edo edozein erabaki-kategoriari,
- itundutako edozein jarduni edo itundutako edozein jardun-kategoriari,

baldin eta produktuen ekoizpena edo banaketa hobetzeko badira, edo teknikaren edo ekonomiaren aurrerapena sustatzeko badira, eta, aldi berean, lortutako irabazietako bidezko parte bat erabiltzaileei gordetzen badiete; eta

a) horretan zerikusia duten enpresei helburu horiek lortzeko ezinbesteko ez diren murrizketak ezartzen ez badizkiete, eta

b) enpresa horiei, kasuan kasuko produktuen zati handi bati dagokionez, lehia ezabatzeko aukerarik ematen ez badiete.

102. artikulua

(lehengo 82. artikulua EET)

Estatu kideen arteko merkataritzari eragin diezaiokeen heinean, barne-merkatuarekin bateraezina izango da, eta debekatu egingo da gehiegikeriaz egindako ustiapen oro, baldin eta enpresaren batek edo gehiagok barne-merkatuan edo merkatu horretako funtsezko zati baten gainean nagusitasun-egoeratik jardun badu.

Gehiegikeriazko jokaera horiek, bereziki, hauek izango dira:

a) zuzenean edo zeharka, bidezkoak ez diren salerosketa-prezioak edo beste eragiketa-baldintza batzuk ezartzea;

b) ekoizpena, merkatua edo garapen teknikoa kontsumitzaileen kalterako mugatzea;

c) beste kontratatzaile batzuei baldintza diferenteak aplikatzea prestazio baliokideetarako, kontratatzaile horiei lehiarako desabantailak sorraziz;

d) kontratuak egin ahal izateko, berez eta merkataritzako ohituren arabera kontratu horiekin inolako loturarik ez duten beste prestazio osagarri batzuk onartu beharraren menpe jartzea beste kontratatzaileak.

103. artikulua

(lehengo 83. artikulua EET)

1. Kontseiluak, Batzordearen proposamenez eta Europako Parlamentuari kontsulta egin ondoren, 101. eta 102. artikuluetan aipatutako printzipioak aplikatzeko egokiak diren erregelamendu edo zuzentzarauak onartuko ditu.

2. Goiko 1. paragrafoan aipatutako xedapenen helburuak, bereziki, hauek dira:

a) 101. artikuluko 1. paragrafoan eta 102. artikuluan aipatutako debekuak beteko direla bermatzea, isunak eta hertsatzeko isunak ezarri;

b) 101. artikuluko 3. paragrafoa aplikatzeko moduak finkatzea, alde batetik zaintza eraginkorra bermatzeko betebeharra kontuan hartuta, eta ahal den neurrian administrazioaren kontrola errazteko;

c) premiarik balego, 101. eta 102. artikuluen aplikazio-eremua zehaztea, ekonomiako arlo guztietarako;

d) Europar Batasuneko Batzordeak eta Justizia Auzitegiak bakoitzak dauzkan eginkizunak zehaztea, paragrafo honetan ezarritako xedapenak aplikatzeko ordurako;

e) alde batetik, estatu bakoitzeko legedien artean, eta, bestetik, atal honetako xedapenen eta artikuluko hau aplikatuz onartutakoen artean dauden loturak zehaztea.

104. artikulua

(lehengo 84. artikulua EET)

Harik eta 103. artikulua aplikatuz onartutako xedapenak indarrean sartu arte, estatu kideetako agintariak erabakiko dute ea akordioak, erabakiak eta itundutako jarduerak onargarriak diren ala ez, eta, era berean, barne-merkatuan nagusitasun egoeraz baliatuta gehiegikeriazko ustiapenik egin den ala ez, bakoitzak bere zuzenbidearen arabera eta 101. artikuluko xedapenekin bat etorriz, bereziki 3. paragrafoekin, eta 102. artikulukoekin.

105. artikulua

(lehengo 85. artikulua EET)

1. Aurreko 104. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, 101 eta 102. artikuluetan finkatutako printzipioak aplikatzeko ardura hartuko du Batzordeak. Estatu kideren baten eskariz edo ofizioz, eta estatu bakoitzean eskumenak dauzkaten agintariekin lankidetzan arituz, laguntza emango baitio- te agintariak Batzordeari, Batzordeak iker- tuko du lehen aipatutako printzipioen gai- nean arau-hausterik egin ote den. Arau- hausterik egon dela egiaztatzen badu, joka- bide horrekin amaitzeko egokiak diren neu- rriak proposatuko ditu.

2. Arau-hausteari amaierarik ematen ez ba- zaio, arau-haustea dagoela utziko du erasota Batzordeak, erabaki arrazoitu baten bitartez. Erabaki hori argitaratu egin ahal izango du, bai- ta estatu kideei egoera hori konpontzeko be- harrezko diren neurriak hartzeko baimena eman ere, berak zehaztutako baldintza eta mo- duetan.

3. Kontseiluak 103. artikuluko 2. para- grafoaren b) idatz-zatiaren arabera akor- dio-kategoria batzuei buruz erregelamen- duren edo zuzentarauren bat onartzen due- nean, Batzordeak erregelamenduak onartu ahal izango ditu erabaki-maila horiei dago- kienez.

106. artikulua

(lehengo 86. artikulua EET)

1. Estatu kideek, eskubide berezi edo esku- siboak onartzen dizkieten enpresei eta enpre- sa publikoei dagokienez, ezin izango dute Tra- tatuetako arauen kontrako inolako neurriak ez hartu ez halakoei eutsi, bereziki 18. artikuluan eta, biok barne, 101. artikulutik 109. artikulura bitartekoetan aurreikusitako arauen kon- trakorik.

2. Ekonomiaren interes orokorreko zerbi- tzuak kudeatzeko ardura duten enpresak edo monopolio fiskala duten enpresak Tratatu- en arauen menpe egongo dira, batez ere lehiari bu- ruzko arauen menpe, aipatutako arauok, de iure edo de facto, enpresoi esleitutako berariazko mi- sioa betetzeko eragozpen ez diren heinean. Trukaketen garapenari ezin izango zaio eragin Batasunaren interesen kontra.

3. Batzordea arduratuko da artikulua honetako xedapenak aplikatzeaz, eta, beharrezkoa den hei- nean, egokiak diren zuzentzarauk edo erabakiak zuzenduko dizkie estatu kideei.

BIGARREN ATALA**ESTATUEK EMANDAKO LAGUNTZAK****107. artikulua**

(lehengo 87. artikulua EET)

1. Tratatueta besterik xedatu ezik, estatu ki- deek emandako laguntzak edo estatuko funtsen bidez emandakoak, edozein modutakoak izan- da ere, barne-merkatuarekin bateraezinak izan- go dira estatu kideen arteko trukaketei eragiten dieten heinean, baldin eta, zenbait enpresa edo ekoizpenen alde eginez, lehia faltsutzen badu- te edo faltsutzeko modukoak badira.

2. Barne-merkatuarekin bateragarriak izan- go dira:

a) banakako kontsumitzaileei emandako gi- zarte-laguntzak, produktuen jatorrian oinarri- tutako bereizkeriarik gabe ematen badira;

b) hondamendi naturalek edo salbuespene- ko beste gertaera batzuek sortutako kalteak kon- pontzeko emandako laguntzak;

c) Alemaniako Errepublika Federalesko zen- bait eskualdetako ekonomiaren alde egiteko emandako laguntzak, Alemaniak izandako ba- naketaren ondorioz sortutako desabantaila ekonomikoak orekatzeko beharrezkoak diren heinean, orduko banaketaren eraginpean dau- den eskualdeetan. Lisboako Tratatu indarrean jarri eta bost urtera, Kontseiluak, Batzordeak proposaturik, idatz-zati hau indarrak gabe uzteko erabaki bat hartu ahal izango du.

3. Barne-merkatuarekin bateragarritzat jo ahal izango dira:

a) bizi-maila nabarmen apala duten eskual- deetako, edo azpienplegu-egoera larria jasaten duten eskualdeetako ekonomia garatzeko la- guntzak, baita 349. artikuluan jasotako eskual- deetako ekonomia garatzeko laguntzak ere, egitura, ekonomia eta gizarte aldetik duten egoera aintzakotzat hartuta;

b) Europarentzat interes erkidekoa den proiektu garrantzitsuren bat sustatzeko la- guntzak, edo estatu kideren bateko ekonomia- ren nahasmendu larriren bat konpontzeko la- guntzak;

c) ekonomiako zenbait jardueraren edo zen- bait eskualderen garapena sustatzeko laguntzak, baldin eta trukaketen baldintzak interes erki- dearen kontra jartzen ez badira;

d) kultura sustatu eta ondarea zaintzeko la- guntzak, Batasuneko trukaketetarako eta le- hiarako baldintzak interes erkidearen kontra jartzen ez badira;

e) Kontseiluak Batzordearen proposame-

naren gainean hartutako erabakiz zehaztutako gainerako laguntza-motak.

108. artikulua

(lehengo 88. artikulua EET)

1. Batzordeak, estatu kideekin batera, etenik gabe aztertuko ditu estatu kide horietan dauden laguntza-sistemak. Barne-merkatuaren funtzionamenduak edo arian-arian egindako garapenak eskatzen duten neurri egokiak proposatuko dizkie estatu kideei.

2. Baldin eta, interesdunei beren oharpenak egiteko dei egin ondoren, estatuak zuzenean edo estatuko funtsen bidez emandako laguntzaren bat 107. artikulua indarrez barne-merkatuarekin batera ezina dela, edo gehiegikeriaz aplikatzen dela frogatzen badu Batzordeak, berak zehaztutako epean hura ezabaraztea edo aldaraztea eskatuko dio estatu horri.

Dena delako estatuak erabaki hori betetzen ez badu ezarritako epean, Batzordeak edo interesa daukan beste edozein estatu kidek jo dezake zuzenean Europar Batasuneko Justizia Auzitegira, 258. eta 259. artikuluetan xedatutakoa gorabehera.

Estatu kideren batek eskatuta, Kontseiluak aho batez erabaki ahal izango du, 107. artikuluan xedatutakoa edo 109. artikuluan aurreikusitako erregelamenduetan xedatutakoa gorabehera, estatu horrek eman duen edo emateko duen laguntza barne-merkatuarekin bateragarria dela, salbuespeneko gorabeherak bidezko egiten badute halako erabakia. Baldin eta Batzordeak, laguntza horri buruz, paragrafo honetako lehenengo lerrokadan aurreikusitako prozedura hasi badu, kasuan kasuko estatu kideak Kontseiluari egindako eskariak prozedura hura etetea ekarriko du, harik eta Kontseiluak gai horretaz duen jarrera agertu arte.

Halere, eskaera egin eta hurrengo hiru hilabeteetan Kontseiluak erabakirik hartu ezik, Batzordeak hartuko du horren erabakia.

3. Laguntzak emateko edo aldarazteko proiektuen berri emango zaio Batzordeari, behar besteko aurrerapenarekin oharrak aurkeztu ahal izan ditzan. Baldin eta Batzordeak proiekturen bati 107. artikulua arabera barne-merkatuarekin bateraezina dela irizten badio, aurreko paragrafoan ezarritako prozedurari ekingo dio luzamendurik gabe. Estatu kide horrek ezin izango ditu gauzatu bere proiektuko neurriak, harik eta esandako prozeduran behin betiko erabakia hartu arte.

4. Batzordeak erregelamenduak onartu ahal izango ditu zenbait laguntza-kategoria publikori

buruz, baldin eta Kontseiluak, 109. artikulua arabera, laguntza-kategoria publiko horiek artikulua honetako 3. paragrafoan ezarritako prozeduratik salbuetsita gera daitezkeela ebatzi badu.

109. artikulua

(lehengo 89. artikulua EET)

Kontseiluak Batzordearen proposamenaren gainean eta Europako Parlamentuari kontsulta egin ondoren, 107. eta 108. artikulua aplikatzeko egokiak diren erregelamenduak onartu ahal izango ditu, baita 108. artikuluko 3. paragrafoa aplikatzeko baldintzak eta prozedura horretatik kanpo uzten diren laguntza-motak zehaztu ere.

2. KAPITULUA

ZERGA-ARLOKO XEDAPENAK

110. artikulua

(lehengo 90. artikulua EET)

Estatu kide batek ere ezin izango die ez zeharka ez zuzenean kargarik ezarri beste estatu kideetako produktuei, estatu barruko antzerako produktuei zuzenean edo zeharka ezartzen dizkien barruko tributuek baino handiagoak erabiliz, tributuoak edozelakoak izanda ere.

Era berean, estatu kide batek ere ezin izango die kargarik ezarri beste estatu kideetako produktuei, zeharka bada ere beste ekoizpen batzuk babes ditzaketen barruko tributuek erabiltzen baditu.

111. artikulua

(lehengo 91. artikulua EET)

Estatu kide baten lurraldera esportatutako produktuek ezin izango dute barruko zergen inolako itzulketa-onurarik jaso, produktuok zuzenean nahiz zeharka jaso duten kargaren zenbatekotik gora.

112. artikulua

(lehengo 92. artikulua EET)

Negozioen guztizkoaren gaineko zergak, kontsumo-produktu jakin batzuen gaineko zergak eta zeharkako beste zergak albo batera utzita, gainerako tributuei dagokienez ezin izango da kargarik arindu ez diru-itzulketarik egin beste estatu

kideetara egindako esportazioengatik, ez eta beste estatu kideetatik etorritako inportazioei konpentsazio-kargarik ezarri ere, Kontseiluak, Batzordearen proposamenaren gainean, proiektuan jasotako neurriok denbora mugatu baterako aurrez onartutakoak izan ezik.

113. artikulua

(lehengo 93. artikulua EET)

Kontseiluak, aho batez, legegintzako prozedura berezi baten arabera eta Europako Parlamentuari eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari kontsulta egin ondoren, negozioen guttizkoaren gaineko zergei, kontsumo-produktu jakin batzuen gaineko zergei eta zeharkako beste zergei buruzko legediak harmonizatzeko xedapenak onartuko ditu, aipatutako harmonizazioa beharrezkoa den heinean, barne-merkatuaren ezarpena eta funtzionamendua bermatzeko, eta lehian distortsiorik ez egoteko.

3. KAPITULUA

LEGEDIAK ELKARRI HURBILTZEA

114. artikulua

(lehengo 95. artikulua EET)

1. Tratatuak besterik xedatu ezean, ondorengo xedapenak aplikatuko dira 26. artikuluan aipatutako helburuak lortzeko. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera, eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari kontsulta egin ondoren, estatu kideetako legezko, erregelamenduzko eta administraziozko xedapenak elkarri hurbiltzeko neurriak hartuko dituzte, barne-merkatua ezarri edo jardunean jartzeko helburua daukate-nean.

2. Goiko 1. paragrafoa ez zaie aplikatuko xedapen fiskalei, ez pertsonen zirkulazio askeari buruzko xedapenei, ez inoren kontura lanean diharduten langileen eskubide eta interesei buruzkoei ere.

3. Osasunari, segurtasunari, ingurumenaren babesari eta kontsumitzaileen babesari buruz 1. paragrafoan aurreikusitako proposamenak egiteko, babes-maila handian oinarritu behar da Batzordea, gertaera zientifikoetan errotutako edozein berrikuntza bereziki kontuan hartuta. Europako Parlamentua eta Kontseilua ere helburu hori lortzen saiatu behar dira, bakoitza bere eskumenen esparruan.

4. Baldin eta, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, Kontseiluak edo Batzordeak harmonizaziorako neurriren bat hartu ondoren, estatu kideren batek estatuko xedapenei eustea beharrezkoa dela uste badu, betiere 36. artikuluan aipatutako garrantzizko arrazoren batean edo lana edo ingurumena babestearekin zerikusia daukatenetan nahiko arrazoi hartuta, aipatutako estatuak Batzordeari eman behar dio xedapen horien berri, baita haiei eusteko dauzkan arrazoiarena ere.

5. Era berean, eta 4. paragrafoari kalterik egin gabe, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, Kontseiluak edo Batzordeak harmonizaziorako neurriren bat hartu ondoren, estatu kideren batek estatutako xedapen berriak ezartzea beharrezkoa dela uste badu, betiere lana edo ingurumena babestearekin zerikusia daukaten berrikuntza zientifikoetan arrazoi hartuta, eta harmonizaziorako neurria onartu ondoren estatu kide horretan sortutako arazo jakin bati aurre egiteko, aipatutako estatuak Batzordeari eman behar dio aurreikusitako xedapenen berri, baita horiek onartzeko dauzkan arrazoiarena ere.

6. Goiko 4 eta 5. paragrafoetan aipatutako jakinarazpenetatik sei hilabeteko epean, Batzordeak onartu edo baztertu egingo ditu aipatutako estatu barruko xedapenak, estatu kideen arteko merkataritzarako bidegabekeriazko bereizkeria edo murrizketa estalia egiteko modua diren ala ez egiaztatu ondoren, eta barne-merkatuaren funtzionamendurako eragozpen diren ala ez egiaztatu ondoren.

Aipatutako epean Batzordeak erabakirik adierazten ez badu, onartutzat emango dira 4. eta 5. paragrafoetan aipatutako estatu barruko xedapenak.

Gaiaren konplexutasuna nahikoa arrazoi de-nean, eta giza osasunerako arriskurik ez dagoenean, paragrafo zati honetan aipatutako epea beste sei hilabeterainoko aldi gehigarri batez luzatzen dela jakinarazi ahal izango dio Batzordeak dagokion estatu kideari.

7. Goiko 6. paragrafoarekin bat etorritik, harmonizazio-neurri batetik urruntzen diren estatu barruko xedapenei eusteko edo xedapen berriak ezartzeko baimena ematen bazaio estatu kideren bati, Batzordeak berehala aztertuko du neurri hori egokitzea proposa daitekeen.

8. Aldez aurretik harmonizazio-neurriak jaso dituen eremuren batean osasun publikoko arazo zehatzen bat planteatzen badu estatu kideren batek, Batzordeari eman behar dio horren berri, eta Batzordeak berehala aztertu behar du ea egokiak diren neurriak Kontseiluari proposatzea komeni den.

9. 258. eta 259. artikuluetan aurreikusitako prozeduraren salbuespen moduan, bai Batzordeak bai edozein estatu kidek jo dezake zuzenean Europar Batasuneko Justizia Auzitegira, baldin eta beste estatu kideren batek, bere ustez, artikulua honetan jasotako ahalmenak gehiegikeriaz erabiltzen baditu.

10. Goian aipatutako harmonizazio-neurriek, dagozkien kasuetan, salbuespen-klausula bat edukiko dute, estatu kideei behin-behineko neurriak hartzeko baimena emateko, 36. artikuluan aipatu eta ekonomiakoa ez den arrazoiaren bat edo gehiagorengatik denean, eta Batasuneko kontrol-prozedura baten menpe egongo dira.

115. artikulua

(lehengo 94. artikulua EET)

114. artikuluari kalterik egin gabe, Kontseiluak, aho batez, legegintzako prozedura berezi baten arabera eta Europako Parlamentuari eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari kontsulta egin ondoren, estatu kideetako legezko, erregelamenduzko eta administraziozko arloetako xedapenak elkarri hurbiltzeko zuzentarauak onartuko ditu, barne-merkatuaren ezarpenean edo funtzionamenduan eragin zuzena daukatenean.

116. artikulua

(lehengo 96. artikulua EET)

Baldin eta, estatu kideetako legezko, erregelamenduzko edo administraziozko xedapenen artean, desadostasunen batek barne-merkatuaren barruko lehia-baldintzak faltsutzen dituela, eta, hori dela eta, kendu beharreko distortsioaren bat sortzen duela frogatzen badu Batzordeak, kontsultak egingo ditu kasuan kasuko estatuekin.

Kontsulta horiek egin arren, aipatutako distortsioa kentzeko akordiorik lortzen ez bada, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera, helburu horretarako beharrezko zuzentarauak onartuko dituzte. Tratatuak ezarritako bestelako neurri egokietarik beste edozein ere hartu ahal izango da.

117. artikulua

(lehengo 97. artikulua EET)

1. Baldin eta lege-, erregelamendu- edo administrazio-xedapenen bat onetsita edo aldaturik 96. artikuluan zehaztutako moduko distortsioaren bat sor daitekeela-eta beldur izateko

arrazoirik badago, neurri horiek hartu nahi dituen estatu kideak kontsulta egingo dio Batzordeari. Batzordeak, estatu kideekin kontsultatu ondoren, distortsio hori saihesteko egoki diren neurriak buruzko gomendioa egingo die estatu kide interesdunei.

2. Baldin eta estatu barruko xedapenak onetsi edo aldatu nahi dituen estatuak Batzordeak egin dion gomendioari jaramonik egiten ez badiu, beste estatu kideei ezin izango zaie eskatu, 116. artikulua aplikatuz, bakoitzak bere estatu barruko xedapenak alda ditzan, aipatutako distortsioa kentzeko. Batzordearen gomendioa kontuan hartu ez duen estatu kideak distortsioaren bat sortzen badu, eta bere kalterako bada huts-hutsik, ez dira aplikatzekoak izango 116. artikuluko xedapenak.

118. artikulua

Barne-merkatuaren ezarpen eta funtzionamenduaren eremuan, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera, neurriak ezarriko dituzte, batez ere, Europako tituluak sortzeko buruz, Batasunean jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideak era batera babestuko direla bermatzeko, eta, bestetik, Batasun osoari dagozkionez titulu horiek baimentzeko, koordinatzeko eta kontrolatzeko sistema zentralizatuak ezartzeko buruz.

Kontseiluak, legegintzako prozedura berezi baten arabera, erregelamenduen bidez ezarriko ditu Europako tituluen hizkuntza-arauak. Kontseiluak, Europako Parlamentuari aurretiaz kontsulta eginda, aho batez erabakiko du.

VIII. TITULUA

EKONOMIARI ETA DIRUARI BURUZKO POLITIKA

119. artikulua

(lehengo 4. artikulua EET)

1. Europar Batasunaren Tratatuak 3. artikuluan aipatutako helburuak lortzeko, estatu kideen eta Batasunaren ekintzak berekin ekarriko du, Tratatuak aurreikusitako baldintzen arabera, estatu kideen ekonomia-politiken arteko koordinazio estuan, barne-merkatuan eta helburu erkideak adostean oinarritutako ekonomia-politika ezartzea, betiere, lehia askeko merkatu-ekonomia irekiaren printzipioa errespetatuta.

2. Ildo beretik joanda, Tratatuaren aurrei-

kusitako prozeduren eta baldintzen arabera, ekintza horrek esan nahi du diru bakar bat izango dela, hots, euroa, eta diruari buruz zein truke-tasei buruz politika bat bakarra zehaztu eta aplikatuko dela; horren helburu nagusia prezioen egonkortasunari eustea izango da, eta, xede horri kalterik egin gabe, Batasunaren ekonomia-politika orokorrari laguntzea, betiere, lehia askeko merkatu-ekonomia irekiaren printzipioen arabera.

3. Estatu kideen eta Batasunaren ekintza horiek berekin dakarte printzipio gidari hauek errespetatzea: prezio egonkorrak, finantza publiko eta diru-baldintza sendoak, eta ordainketa-balantza egonkorra.

1. KAPITULUA

EKONOMIA-POLITIKA

120. artikulua

(lehengo 98. artikulua EET)

Europar Batasunaren Tratatu 3. artikuluan zehaztu diren Batasunaren helburuak betetzen laguntzeko egingo dituzte estatu kideek beren ekonomia-politikak, 121. artikuluko 2. paragrafoan adierazitako orientabide orokorren esparruan. Estatu kideek eta Batasunak lehia askeko merkatu-ekonomia irekiaren printzipioa errespetatzat jardun behar dute, esleitutako baliabideak eraginkorrak izan daitezen, 119. artikuluan aipatutako printzipioen arabera.

121. artikulua

(lehengo 99. artikulua EET)

1. Estatu kideek interes orokorreko gaitzat hartu behar dute ekonomiari buruz bakoitzak daukan politika, eta Kontseiluaren baitan koordinatu behar dituzte elkarrenak, 120. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Kontseiluak, Batzordearen gomendioren bat oinarri dela, ekonomia-politiketarako orientabide nagusien proiektua egingo du estatu kideentzat eta Batasunarentzat, eta Kontseilu Europarrari aurkeztuko dio horri buruzko txostena.

Kontseiluaren txostena oinarri dela, estatu kideek eta Batasunak beren ekonomia-politiken orientabide nagusien gaineko ondorioak eztabaidatuko ditu Kontseilu Europarrak.

Ondorio horien arabera, Kontseiluak gomendioa emango du, eta aipatutako orientabideak finkatuko ditu bertan. Kontseiluak Europako Parlamentuari emango dio gomendio horren berri.

3. Ekonomia-politiken arteko koordinazioa estuagoa dela bermatzeko, eta estatu kideen ekonomiaren emaitzen elkarganatzeara iraunkorra dela bermatzeko, Kontseiluak, Batzordeak aurkeztutako txostenetan oinarrituta, estatu kide bakoitzaren eta Batasunaren ekonomiaren bilakaera ikuskatuko du, baita ekonomia-politiken eta 2. paragrafoan adierazitako orientabide nagusien arteko koherentzia ere, eta ebaluazio orokor bat egingo du aldian-aldian.

Alderdi askotako ikuskapen horren ondorioetarako, estatu kideek ekonomia-politikaren gainean hartutako garrantzizko neurrien berri eman behar diote Batzordeari, baita beharrezko iriztitako beste alderdi guztien berri ere.

4. Baldin eta, 3. paragrafoan ezarritako prozeduraren arabera, estatu kideren bateko ekonomia-politika 2. paragrafoan aipatutako orientabide nagusiekin kontraesanean dagoela egiaztatzen bada, edo ekonomia- eta diru-batasunak zuzen funtzionatu ahal izateko arriskua dakarrela egiaztatzen bada, Batzordeak ohartarazpena egin ahal izango dio estatu kide horri. Kontseiluak, Batzordearen gomendioa oinarri duela, beharrezko diren gomendioak egin ahal izango dizkio dena delako estatu kide horri. Kontseiluak, Batzordeak proposatuta, gomendio horiek jendaurrera ateratzea erabaki ahal izango du.

Paragrafo honen ondorioetarako, Kontseiluak erabakiko du, kasuan kasuko estatu kideak Kontseiluan duen ordezkariaren botoa aintzat hartu gabe.

Kontseiluko gainerako kideen gehiengo kualifikatua 238. artikuluko 3. paragrafoaren a) idatz-zatiaren arabera zehaztuko da.

5. Kontseiluko lehendakariak eta Batzordeak Europako Parlamentuari emango diote alderdi askotako ikuskapenaren emaitzen berri. Kontseiluak bere gomendioak argitara emanda badauzka, Kontseiluko lehendakariari gonbit egin ahal izango zaio Europako Parlamentuan eskumenak dauzkan batzordean ager dadin.

6. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak neurriak hartu ahal izango dituzte, legegintzako prozedura arruntaren arabera, erregelamenduen bidez, 3. eta 4. paragrafoetan adierazten diren alderdi askotako ikuskapenerako prozedura-moduen gainean.

122. artikulua

(lehengo 100. artikulua EET)

1. Tratatuaren ezarritako gainerako prozedurei kalterik egin gabe, Kontseiluak, Batzordearen proposamenaren gainean, ekonomiaren egoerari buruz egoki diren neurriak erabaki ahal

izango ditu, estatu kideen arteko elkartasuna bultzatzeko, batez ere, zenbait produktu hornitzean zailtasun larriak sortzen badira, bereziki energiaren arloan.

2. Baldin eta estatu kideren batek, berak kontrolatu ezin dituen naturako hondamendien nahiz salbuespeneko gertaeren eraginez, zailtasunak badauzka edo zailtasun larriak edukitze-ko arrisku bizian aurkitzen bada, Kontseiluak, Batzordearen proposamenaren gainean, estatu kide horri, baldintza batzuen menpe, Batasuneko finantza-laguntza bat ematea erabaki dezake. Kontseiluko lehendakariak emango dio Europako Parlamentuari hartutako erabakiaren berri.

123. artikulua

(lehengo 101. artikulua EET)

1. Debeku da Europako Banku Zentralak eta estatu kideetako banku zentralak, horietako bakoitzari "estatuko banku zentrala" deituko zaio aurrerantzean, zorpekoak onartzea edo beste edozein kreditu-mota ematea Batasuneko instituzio, organo eta organismoen, gobernu zentralen, eskualdeko edo tokian tokiko agintariei edo beste agintari publiko batzuei, eta estatu kideetako zuzenbide publikoko erakunde zein enpresa publikoei; debeku da, halaber, Europako Banku Zentralak edo estatuetako banku zentralak aurreko guztiei zor-tresnak zuzenean erostea ere.

2. Goiko 1. paragrafoko xedapenek ez dute eraginik izango kreditu-etxe publikoetan, hain zuzen, Banku Zentralek erreserbetarako hornidura egiterakoan, kreditu-etxe pribatuen modu-moduko tratua jaso behar baitute estatuetako banku zentralen eta Europako Banku Zentralaren aldetik.

124. artikulua

(lehengo 102. artikulua EET)

Debekatuta dago zuhurtziazko kontsiderazioetan oinarritzen ez den edozein neurri, baldin eta Batasuneko instituzio, organo edo organismoen, gobernu zentralen, eskualdeko edo tokian tokiko agintariei edo beste agintari publiko batzuei, eta estatu kideetako zuzenbide publikoko erakunde zein enpresa publikoei finantza-etxeetara pribilegioz iristeko bide ematen badie.

125. artikulua

(lehengo 103. artikulua EET)

1. Batasunak ez du ardurarik bereganatuko, eta ez du erantzukizunik hartuko, estatu kideetako gobernu zentralen, eskualdeko edo to-

kian tokiko agintarien edo beste agintari publiko batzuen, eta zuzenbide publikoko erakunde zein enpresa publikoen konpromisoen gainean, betiere, proiektu jakin batzuk elkarrekin egiteko elkarrenganako finantza-bermeei kalterik egin gabe. Estatu kideek ez dute ardurarik bereganatuko, eta ez dute erantzukizunik hartuko, estatu kideetako gobernu zentralen, eskualdeko edo tokian tokiko agintarien edo beste agintari publiko batzuen, eta beste zuzenbide publikoko erakunde zein enpresa publikoen konpromisoen gainean, betiere, proiektu jakin batzuk elkarrekin egiteko elkarrenganako finantza-bermeei kalterik egin gabe.

2. Beharrezkoa izanez gero, Kontseiluak definizioak zehaztu ahal izango ditu, Batzordeak proposaturik eta Europako Parlamentuari aurretiaz kontsulta eginda, 123. eta 124. artikuluetan eta artikuluko honetan aipatutako debekuak aplikatzeko.

126. artikulua

(lehengo 104. artikulua EET)

1. Estatu kideek gehiegizko defizit publikoak saihestuko dituzte.

2. Batzordeak aurrekontu-egoeraren eta estatu kideen zorpetze publikoaren mailaren bilakaera ikuskatuko du, huts nabariak aurkitu ahal izateko. Batez ere, aurrekontuei buruzko diziplina betetzen den aztertuko du, irizpide bi hauek kontuan hartuta:

a) begiratu behar da aurrez ikusitako edo benetan izandako defizit publikoaren eta barne-produktu gordinaren arteko proportzioak erreferentziako balioa gainditzen duen, ez bada behintzat,

— proportzioa funtsean eta jarraian jaitsi dela, eta erreferentziako baliora hurbildu dela; edo

— erreferentziako balioa salbuespenez eta aldi baterako baino ez dela gainditzen, eta proportzioa erreferentziako baliotik hurbil zaintzen dela;

b) ea zor publikoaren eta barne-produktu gordinaren arteko proportzioak erreferentziako balioa gainditzen duen, ez bada behintzat proportzioa behar beste jaisten dela, eta erreferentziako baliora erritmo egokian hurbiltzen ari dela.

Gehiegizko defizit kasuetan aplika daitekeen prozedurari buruz Tratatuari erantsita doan protokoloan zehazten dira erreferentziako balioak.

3. Estatu kideren batek irizpide horietako bateko edo bietako baldintzak bete ezik, Batzordeak txostena egingo du. Batzordearen txoste-

nak, batetik, defizit publikoarekin inbertsioetako gastu publikoak gainditzen ote diren aztertuko du, eta, bestetik, dagozkion gainerako faktore guztiak hartuko ditu kontuan, estatu kide horren epe ertaineko ekonomiaren eta aurrekontuaren egoera barnean hartuta.

Nahiz eta bi irizpide horiei darizkien baldintzak bete, Batzordeak txostena egin dezake estatu kideren bat gehiegizko defizita izateko arriskuan dagoela uste badu.

4. Ekonomia eta Finantza Komiteak irizpena emango du Batzordearen txosten horri buruz.

5. Batzordeak, baldin eta estatu kideren batek gehiegizko defizita daukala edo eduki dezaakeela uste badu, irizpena emango dio estatu kide horri, eta Kontseiluari emango dio horren berri.

6. Kontseiluak, Batzordearen proposamenez, kasuan kasuko estatu kideak egindako oharpenak kontuan hartu, eta balioespen orokorra egin ondoren, berak erabakiko du gehiegizko defizitik dagoen ala ez.

7. Aurreko 6. paragrafoarekin bat etorritz, Kontseiluak gehiegizko defizita dagoela deklaratzearabakitzen duenean, kasuan kasuko estatu kideari zuzendutako gomendioak onetsiko ditu, justifikaziorik gabeko luzamendurik gabe eta Batzordearen gomendio batean oinarrituta, estatu kide horrek epe jakin batean egoera hori konpon dezan. Gomendio horiek, 8. paragrafoan xedatutakoa salbuespen dela, ez dira jendaurrera aterako.

8. Baldin eta, finkatutako epean, Kontseiluak egindako gomendioak benetan bete ez direla egiaztatzen badu, jendaurrera atera ahal izango ditu.

9. Baldin eta estatu kideren bat Kontseiluaren gomendioak bete gabe uzten tematzen bada, estatu kide horri ohartarazpena egiteko erabakia har dezake Kontseiluak, egoera konpontzeko, Kontseiluaren iritziz beharrezkoa den defizit-murriztapena lortzeko neurriak har ditzan, zehaztutako epe batean.

Kasu horretan, berariazko egutegi baten arabera txostenak aurkezteko eskatu ahal izango dio Kontseiluak dena delako estatu kideari, estatu horrek egokitze egindako ahaleginak aztertu ahal izateko.

10. Artikulu honetako 1. paragrafotik 9. paragrafara artekoen eremuan, ezin izango da baliatu 258. eta 259. artikuluetan aurreikusitako errekurtsio-eskubideaz.

11. Estatu kideren batek bete gabe utziko balu 9. paragrafoaren arabera onartutako erabakiren bat, neurri hauetakoren bat edo gehiago aplikatzea, edo beharrezkoa bada, indartzea erabaki lezake Kontseiluak:

- obligazioak eta baloreak jaulki aurretik, Kontseiluak berak zehaztu behar duen informazio gehigarriren bat argitaratzea eska diezaioke dena delako estatu kideari;
- gomendioa egin diezaioke EIBri, dena delako estatu kideari buruz daukan mailegu-politika berrazter dezan;
- Batasunaren izenean gordailu bat jartzea eska diezaioke dena delako estatu kideari, interesik sortuko ez duen kopuru egoiki batez, harik eta Kontseiluak gehiegizko defizita konpondu dela iritzi arte;
- egoerari dagokion mailako isunak ezar diezazkioke.

Kontseiluko lehendakariak Europako Parlamentuari eman behar dio hartutako erabakien berri.

12. Kontseiluak indargabetu egingo ditu 6., 7., 8., 9 eta 11. paragrafoetan aipatutako bere erabaki edo gomendio batzuk edo guztiak, bere ustez kasuan kasuko estatu kidearen gehiegizko defizita konpondu bada. Baldin eta Kontseiluak aurrez bere gomendioak jendaurrera atera baditu, orduan, 8. paragrafoaren indarrez hartutako erabakia indargabetutakoan, jendaurrean adierazpena egingo du dagokion estatu kidean gehiegizko defizita desagertu dela baieztatzeko.

13. Aurreko 8, 9, 11 eta 12. paragrafoetan aipatutako erabakiei edo gomendioei dagokienez, Batzordearen gomendioren bat oinarri dela hartuko ditu Kontseiluak erabakiak.

Kontseiluak 6.etik 9.era bitarteko paragrafoetan, 11.ean eta 12.ean jasotako neurriak hartzen baditu, Kontseiluak erabakiko du, kasuan kasuko estatu kideak Kontseiluaren ordezkararen botoa aintzat hartu gabe.

Kontseiluko gainerako kideen gehiengo kualifikatua 238. artikuluko 3. paragrafoaren a) idatz-zatiaren arabera zehaztuko da.

14. Gehiegizko defizit-kasuetan aplikagarri den prozedurari buruzko protokoloan jasotzen dira artikuluko honetan adierazitako prozedura aplikatzearekin zerikusia daukaten xedapen gehigarriak, eta Tratatuari erantsita dator protokolo hori.

Kontseiluak, aho batez, legegintzako prozedura berezi baten bidez, eta aldez aurretik Europako Parlamentuari eta Europako Banku Zentralari kontsulta eginda, aipatutako protokoloaren ordezkoak diren xedapen egokiak onartuko ditu.

Paragrafo honetako gainerako xedapenei kalterik egin gabe, Kontseiluak, aipatutako protokolo xedapenak aplikatzeko garapen-arauak eta definizioak zehaztu behar ditu, Batzordearen proposamenaren gainean eta aldez

aurretik Europako Parlamentuari kontsulta eginda.

2. KAPITULUA

DIRUARI BURUZKO POLITIKA

127. artikulua

(lehengo 105. artikulua EET)

1. Prezioen egonkortasunari eustea izango da Banku Zentralen Europako Sistemaren (aurreantzean «BZES») helburu nagusia. Helburu horri kalterik egin gabe, eta Batasunaren helburuak gauzatzen laguntzeko, BZESk babesa emango die Europar Batasunaren Tratatu 3. artikuluan zehazten diren Batasunaren ekonomia-politika orokorreari. Lehia askeko merkatu-ekonomia irekia printzipio duela jardungo du BZESk, baliabideen esleipen eraginkorra sustatuz eta 119. artikuluan azaldutako printzipioekin bat etorritik.

2. Hauek dira BZESk egin behar dituen oinarritzko eginkizunak:

- Batasunak daukan diru-politika zehaztu eta gauzatzea,
- 219. artikuluko xedapenekin koherentzian dauden dibisetako eragiketak egitea;
- estatu kideen dibisen erreserba ofizialak gorde eta kudeatzea;
- ordainketa-sistemek ondo funtziona dezaten sustatzea.

3. Goiko 2. paragrafoko hirugarren marran xedatutakoa ez doa estatu kideetako gobernuak dibisatan laneko kapitalak eduki eta kudeatzearen kontra.

4. Europako Banku Zentralari kontsulta egingo zaio:

- bere eskumenen eremuan sartzen diren Batasuneko egintzei buruzko edozein proposamenen gainean;
- estatu bakoitzeko agintariak ere eskatutako diote aholkua, beren eskumenen eremuan sartzen diren legezko xedapenei buruzko edozein proiekturen gainean, 129. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako prozeduraren arabera Kontseiluak ezarritako muga eta baldintzen barruan.

Europako Banku Zentralak zuzenean aurkeztu ahal izango dizkie irizpenak Batasuneko instituzio, organo edo organismoen edo estatuetako kasuan kasuko agintariei, bere eskumenen eremuan sartzen diren gaiei buruz.

5. Agintari eskudunek burututako politiken kudeaketa ona izan dadin laguntasuna emango du BZESk, kreditu-etxeen zuzentzaizko ikus-

kapenari eta finantza-sistemaren egonkortasunari buruz.

6. Kontseiluak, legegintzako prozedura berezia erabiliz onartutako erregelamenduen bidez, aho batez, Europako Parlamentuari eta Europako Banku Zentralari aurretiaz kontsulta eginda, zeregin zehatzak agindu ahal izango dizkio Europako Banku Zentralari kreditu-etxeen eta beste finantza-etxe batzuen zuzentzaizko ikuskapenarekin zerikusia duten politiken gainean; aseguru-etxeak hortik kanpo uzten dira.

128. artikulua

(lehengo 106. artikulua EET)

1. Europako Banku Zentralak eskubide esklusiboa izango du Batasunean bankuko billeteak eurotan jaulkitzeko baimena emateko. Europako Banku Zentralak eta estatuetako banku zentralak jaulki ditzakete billeteak. Europako Banku Zentralak eta estatuetako banku zentralak jaulkitako billeteak izango dira Batasunean legez onartu beharreko billete bakarrak.

2. Estatu kideek txanponak jaulki ditzakete, eurotan, baina Europako Banku Zentralaren onarpena beharko dute jaulkipenaren guttizkoari dagokionez. Kontseiluak, Batzordeak proposaturik, eta Europako Parlamentuari eta Europako Banku Zentralari aurretiaz kontsulta eginda, hartu ahal izango ditu zirkulazioan jarritako txanpon guztien balio izendatuak eta zehaztasun teknikoak harmonizatzeke neurriak, Batasunaren baitan ondo zirkulatzeke beharrezkoa den heinean.

129. artikulua

(lehengo 107. artikulua EET)

1. Europako Banku Zentraleko organo arretzekariak zuzenduko dute BZES, hau da, Gobernu Kontseiluak eta Batzorde Betearazleak.

2. Banku Zentralen Europako Sistemaren eta Europako Banku Zentralaren estatutuak, aurreantzean «BZESren eta EBZaren estatutuak», Tratatuari erantsitako protokolo batean azaltzen dira.

3. BZESren eta EBZaren estatutuetako 5.1, 5.2, 5.3, 17, 18, 19.1, 22, 23, 24, 26, 32.2, 32.3, 32.4, 32.6, 33.1 a) eta 36. artikulua alda ditzakete Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera. Erabakiko dute, bai Europako Banku Zentralaren gomendio batean oinarrituta eta Batzordeari aurretiaz kontsulta eginda, bai Batzordeak proposaturik eta Europako Banku Zentralari aurretiaz kontsulta eginda.

4. Kontseiluak, bai Batzordearen proposamenaren gainean eta alde zuzenetik Europako Parlamentuari eta Europako Banku Zentralari kontsulta eginda, bai Europako Banku Zentralaren gomendioaren baten gainean eta alde zuzenetik Europako Parlamentuari eta Batzordeari kontsulta eginda, BZESren eta EBZaren estatutuak 4, 5.4, 19.2, 20, 28.1, 29.2, 30.4 eta 34.3. artikuluetan aipatutako xedapenak onartuko ditu.

130. artikulua

(lehenengo 108. artikulua EET)

Tratatuek eta BZESren eta EBZaren estatutuak ematen dizkieten ahalmenak baliatzean, eta horiek esleitzen dizkieten eginkizunak eta betebeharrak betetzean, ez Europako Banku Zentralak, ez estatutuak banku zentralak, ez artezkaritza-organismoak kide batek ere, ezin izango dute eskatu, ez eta onartu ere, Batasuneko instituzio, organo edo organismoen jarraibiderik, ez estatu kideetako gobernuenik ez beste inolako organorenik ere. Batasuneko instituzio, organo edo organismoek, eta estatu kideetako gobernuak, printzipio hori errespetatzeko konpromisoaz batera, beren eginkizunak gauzatzean, Europako Banku Zentraleko eta estatutuak banku zentralak artezkaritza-organismoak kideengan eraginik ez sortzeko konpromisoa ere hartzen dute.

131. artikulua

(lehenengo 109. artikulua EET)

Estatu kide bakoitzak bere estatuko legedia, estatuko banku zentralaren estatutuak barne direla, Tratatuekin eta BZESren eta EBZaren estatutuarekin bateragarria izateko ardura hartuko du.

132. artikulua

(lehenengo 110. artikulua EET)

1. BZESri agindutako eginkizunak betetzeko, Europako Banku Zentralak, Tratatuetako xedapenen arabera, eta BZESren eta EBZaren estatutuarekin aurreikusitako baldintzetan:

- erregelamenduak egingo ditu, BZESren eta EBZaren estatutuak 3.1 artikuluko lehenengo marran eta 19.1, 22 eta 25.2 artikuluetan zehaztutako eginkizunak betetzeko beharrezkoa denean, eta 129. artikuluko 4. paragrafoan aipatu eta Kontseiluak egindako egintzetan ezarritako kasuetan;

- Tratatuetan eta BZESren eta EBZaren estatutuarekin BZESri agindutako eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu;

- gomendioak egin eta irizpenak emango ditu.

2. Europako Banku Zentralak berak emandako erabakiak, gomendioak eta irizpenak jendaurrea ateratzea erabaki dezake.

3. Tratatua honetako 129. artikuluko 4. paragrafoan ezarritako prozeduraren arabera Kontseiluak finkatutako mugen barruan eta baldintzetan, Europako Banku Zentralaren erregelamenduei eta erabakiei dagozkien betebeharrak betetzen ez dituzten enpresei isunak eta hertsatzeko isunak ezartzeko baimena dauka EBZak.

133. artikulua

Europako Banku Zentralak dituen eskurantzeari kalterik egin gabe, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera, beharrezko diren neurriak ezarriko dituzte diru bakar modura euroa erabil dadin. Neurri horiek Europako Banku Zentralari aurretiaz kontsulta eginda hartuko dira.

3. KAPITULUA

INSTITUZIOEI BURUZKO XEDAPENAK

134. artikulua

(lehenengo 114. artikulua EET)

1. Barne-merkatuaren funtzionamendurako beharrezkoa den neurrian, estatu kideen politiken koordinazioa sustatzeko, Ekonomia eta Finantza Komitea sortu da.

2. Ekonomia eta Finantza Komiteak eginkizun hauek edukiko ditu:

- irizpenak ematea, bai Kontseiluak edo Batzordeak eskatuta, bai bere ekimenez, aipatutako instituzio horientzat;
- Batasunak eta bere estatuek daukaten ekonomia-eta finantza-egoeraren jarraipena egitea, eta aldiari aldiari Kontseiluari eta Batzordeari berri ematea, batez ere hirugarren herrialdeekin eta nazioarteko instituzioekin izandako finantza-harremanak direla-eta;
- tratatua honetako 240. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, 66. eta 75. artikuluetan, 121. artikuluko 2., 3., 4., eta 6. paragrafoetan, 122., 124., 125. eta 126. artikuluetan, 127. artikuluko 6. paragrafoan,

128. artikuluko 2. paragrafoan, 129. artikuluko 3. eta 4. paragrafoetan, 138. artikuluan, 140. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan, 143. artikuluan, 144. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan eta 219. artikuluan aipatutako lanak prestatzen Kontseiluari laguntzea, eta Kontseiluak agindutako kontsulta eta prestaketako beste lanak burutzea;

- Tratatuak aplikatzetik eta Kontseiluak hartutako neurrien ondorioz datozen kapital-mugimenduei eta ordainketa-askatasunari buruzko egoera aztertzea, urtean behin gutxienez. Kapitalen mugimenduei eta ordainketei buruzko neurri guztiak hartuko ditu bere baitan azterketa horrek. Komiteak Batzordeari eta Kontseiluari emango die azterketa horren emaitzari buruzko txostena.

Estatu kideetako bakoitzak, Batzordeak, eta Europako Banku Zentralak gehienez ere bina kide izendatuko dituzte Komiterako.

3. Kontseiluak, Batzordearen proposamenaren gainean eta Europako Banku Zentralari eta artikuluko honetan aipatutako Komiteari kontsulta egin ondoren, Ekonomia eta Finantza Komitearen osareri buruzko garapen-arauak finkatu behar ditu. Kontseiluko lehendakariak emango dio erabaki horren berri Europako Parlamentuari.

4. Goiko 2. paragrafoan adierazitako eginkizunez gain, baldin eta estatu kideren bat edo gehiago badaude 139. artikuluaaren arabera salbuespenen bati helduta, eta hala dauden bitartean, aipatutako estatu kideen diru- eta finantza-egoera, eta ordainketen sistema orokorra ikuskatuko ditu komiteak, eta aldian-aldian emango die horri buruzko txostena Kontseiluari eta Batzordeari.

135. artikulua

(lehengo 115. artikulua EET)

Kontseiluak edo estatu kideetako batek Batzordeari eska diezaioke, kasuan kasu, gomendoren bat edo proposamenen bat aurkezteko, 121. artikuluko 4. paragrafoaren, 126. artikuluaaren (14. paragrafoa salbu dela), 138. artikuluaaren, 140. artikuluko 1. paragrafoaren, 140. artikuluko 2. paragrafoko 1. lerrokadaren, 140. artikuluko 3. paragrafoaren eta 219. artikuluaaren aplikazio-eremuan sartzen diren gaiei dagokienez. Batzordeak eskabidea aztertuko du, eta luzamendurik gabe aurkeztuko dizkio Kontseiluari bere ondorioak.

4. KAPITULUA

DIRU GISA EUROA DARABILTEN ESTATU KIDEENTZAKO BERARIAZKO XEDAPENAK

136. artikulua

1. Ekonomia- eta diru-batasunak zuzen funtziona dezan laguntzeko, Tratatueta arlo horri dagozkion xedapenekin bat etorrira, eta, betiere, 121. eta 126. artikuluetan ezarritako prozeduretatik dagokiona erabiliz —126. artikuluko 14. paragrafoan ezarritakoa izan ezik—, Kontseiluak diru gisa euroa darabilten estatu kideei buruzko neurriak hartuko ditu, helburuak honako hauek izanik:

a) aurrekontuei buruzko diziplina koordintatzeko eta ikuskatzeko lanak indartzea;

b) estatu kide horiei dagokienez, ekonomia-politikan bete beharreko norabideak zehaztea, Batasun osorako onartutako norabideekin bateragarriak izan daitezen zainduta, eta norabide horiek jagongo direla bermatzea.

2. Diru gisa euroa darabilten estatu kideetako ordezkari diren Kontseilukideek bakarrik hartuko dute parte 1. paragrafoan jasotako neurriei buruzko bozketetan.

Kide horien gehiengo kualifikatua 238. artikuluko 3. paragrafoaren a) idatz-zatiaren arabera zehaztuko da.

137. artikulua

Eurotaldeari buruzko protokoloan daude ezarrita diru gisa euroa darabilten estatu kideetako ministroen arteko bilera-motak.

138. artikulua

(lehengo 111. artikulua, 4. paragrafoa, EET)

1. Euroak nazioarteko diru-sisteman duen lekua bermatzeko, Kontseiluak, Batzordeak proposatutakoaren gainean, erabakia hartuko du; arlo horretan eskumenak dituzten nazioarteko finantza-instituzioei eta -biltzarrei begira, jarrera erkideak zehaztuko dira europar erabaki horretan, ekonomia- eta diru-batasunarentzat interes berezia duten gaiei buruz. Kontseiluak Europako Banku Zentralari aurretiaz kontsulta eginda erabakiko du.

2. Kontseiluak, Batzordeak proposatuta, neurri egokiak hartu ahal izango ditu, nazioarteko finantza-instituzio eta -biltzarretan ordezkartza bakarra izateko. Kontseiluak Europako Banku Zentralari aurretiaz kontsulta eginda erabakiko du.

3. Diru gisa euroa darabilten estatu kideetako ordezkarri diren Kontseilukideek bakarrik hartuko dute parte 1. eta 2. paragrafoetan jasotako neurriei buruzko bozketetan.

Kide horien gehiengo kualifikatua 238. artikuluko 3. paragrafoaren a) idatz-zatiaren arabera zehaztuko da.

5. KAPITULUA

XEDAPEN IRAGANKORRAK

139. artikulua

1. Diru gisa euroa erabiltzeko beharrezko baldintzak betetzen ote dituzten, Kontseiluak oraindik erabaki gabe dituen estatu kideek, aurrerantzean, "salbuespen bati helduta dauden estatu kideak" izendapena hartuko dute.

2. Tratatueta xedapen hauek ez zaizkie aplikatuko albuespen bati heldutako estatu kideei:

a) ekonomia-politiketarako norabide nagusiak finkatzeko zatien onspena, zati horiek euro-eremuari orokorrean eragiten diotenean (121. artikuluko 2. paragrafoa);

b) gehiegizko defizitak konpontzeko bitarteko zorrotzak (126. artikuluko 9. eta 11. paragrafoak);

c) BZESren xedeak eta eginkizunak (127. artikuluko 1., 2., 3. eta 5. paragrafoak);

d) euroaren jaulkipena (128. artikulua);

e) Europako Banku Zentralaren egintzak (132. artikulua);

f) euroaren erabilerari buruzko neurriak (133. artikulua);

g) diru-arloko akordioak eta truke-tasen politikari buruzko bestelako neurriak (219. artikulua);

h) Europako Banku Zentralaren Batzorde Betezarazleko kideen izendapena (283. artikuluko 2. paragrafoa);

i) arlo horretan eskumenak dituzten nazioarteko finantza-instituzioei eta -biltzarrei begira, ekonomia- eta diru-batasunarentzat interes berezia duten gaiei buruz jarrera erkideak zehazteko erabakiak (138. artikuluko 1. paragrafoa);

j) nazioarteko finantza-instituzio eta -biltzarretan ordezkaritza bakarra izateko neurriak (138. artikuluko 2. paragrafoa).

Horrenbestez, a) idatz-zatitik j) idatz-zatira bitartean aipatutako artikuluek «estatu kide» esaten dutenean, diru gisa euroa darabilten estatu kideak direla ulertu behar da.

3. Albuespen bati heldutako estatu kideak eta beren banku zentralak BZESren esparruko eskubideetatik eta betebeharetatik kanpo egongo dira, BZESren eta EBZaren estatutueta IX. kapituluari xedatutakoaren arabera.

4. Albuespen bati heldutako estatu kideen ordezkarri diren Kontseilukideen boto-eskubideak etenda geratuko dira, Kontseiluak 2. paragrafoan aipatzen diren artikuluetan jasotako neurriak onesten ditutenean, baita honako kasu hauetan ere:

a) diru gisa euroa darabilten estatu kideei, alderdi askotako ikuskeraren esparruan, gomendioak egiten zaizkienean, egonkortasun-programei buruzko gomendioak eta ohararazpenak ere barnean direla (121. artikuluko 4. paragrafoa);

b) diru gisa euroa darabilten estatu kideei eragiten dieten gehiegizko defizitei buruzko neurriak direnean (126. artikuluko 6., 7., 8., 12. eta 13. paragrafoak).

Kontseiluko gainerako kideen gehiengo kualifikatua 238. artikuluko 3. paragrafoaren a) idatz-zatiaren arabera zehaztuko da.

140. artikulua

(lehengo 121. artikuluko 1. paragrafoa, lehengo 122. artikuluko 2. paragrafoa, bigarren esaldia eta lehengo 123. artikuluko 5. paragrafoa, EET)

1. Gutxienez urte bitik behin, edo albuespen bati helduta dauden estatu kideetatik edozeinek eskatuta, Batzordeak eta Europako Banku Zentralak txostenak aurkeztuko dizkiote Kontseiluari, albuespen bati lotuta dauden estatu kideek ekonomia- eta diru-batasuna lortzeko dituzten betebeharrak betetzean estatuok egindako aurrerapenei buruz. Txosten horiek azterketa bat ere jasoko dute, ea estatu kide bakoitzaren legedia, estatuko Banku Zentralaren estatutuak barne direla, 130. eta 131. artikuluekin eta BZESren eta EBZaren estatutuekin bateragarria den zehazteko. Txosten horietan, halaber, elkarganatze iraunkorra maila handian lortu ote den ere aztertuko da, estatu kide horietako bakoitzak ondorengo irizpideok zenbateraino bete dituen aintzakotzat hartuta:

- prezioen egonkortasun-maila handia lortu behar da, horretarako, erreferentziatzat hartuko da prezioen egonkortasunari hobeikien eusten dioten gehienez ere hiru estatu kideen inflazio-tasa; eta estatuarenak horretatik hurbil egon beharko du;
- finantza publikoak egoera iraunkorrean aurkitu behar dira: larregiko defizit pu-

blikorik gabeko aurrekontu-egoera lortzean frogatuko da hori, 126. artikuluko 6. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorri zehaztuta dagoen moduan;

- Europako diru-sistemaren truke-tasen mekanismoan aurreikusitako fluktuazio-ko tarte arruntei bi urtez gutxienez eutsi behar zaie, euroarekiko debaluaziorik egin gabe;
- epe luzerako interes-tasen mailetan agertu behar da, batetik, salbuespen bati heldutako estatu kideak lortutako elkartean zehazten diren gehiago. Batzordearen eta EDIren txostenetan kontuan hartu behar dira, halaber, merkatuak batera biltzean lortutako emaitzak, kontu korronteko ordainketa-balantzeen egoera eta bilakaera, eta unitatezko lan-kostuen eta beste prezio-indize batzuen bilakaerari buruzko azterlana.

Paragrafo honetan aipatutako lau irizpideak, eta irizpide horietako bakoitza betetzeko finkatutako aldiak, tratatuei erantsita doan protokolo batean zehazten dira gehiago. Batzordearen eta EDIren txostenetan kontuan hartu behar dira, halaber, merkatuak batera biltzean lortutako emaitzak, kontu korronteko ordainketa-balantzeen egoera eta bilakaera, eta unitatezko lan-kostuen eta beste prezio-indize batzuen bilakaerari buruzko azterlana.

2. Europako Parlamentuari aurretiaz kontsulta eginda, eta arazoa Kontseilu Europarrean eztabaidatu eta gero, Batzordeak proposaturik, Kontseiluak erabakiko du zein diren salbuespen bati heldutako estatu kideetatik 1. paragrafoan adierazitako irizpideen arabera beharrezko baldintzak betetzen dituztenak, eta dagokien estatu kideei salbuespena ezabatuko die.

Kontseiluak erabakiko du, bere kideen gehiengo kualifikatuak gomendioa egin ondoren. Kide horiek diru gisa euroa darabilten estatu kideen ordezkariak izan behar dira. Kontseiluak Batzordearen proposamena jaso eta sei hilabeteko epean erabakiko dute estatu kide horiek.

Bigarren lerrokan adierazten diren kideen gehiengo kualifikatua 238. artikuluko 3. paragrafoaren a) idatz-zatiaren arabera zehaztuko da.

3. Baldin eta 2. paragrafoan ezarritako prozeduraren arabera, salbuespenen bat kentzeko erabakia hartzen bada, Kontseiluak, diru gisa euroa darabilten estatu kideen eta dena delako estatu kidearen aho batezkoarekin, Batzordearen proposamenez eta Europako Banku Zentralari kontsulta egin ondoren, dena delako estatu kideko dirua euroarekin ordezkatzeko tasa onartuko du behin betiko, baita euroa Batasuneko estatu horretako diru bakar moduan sartzeko beharrezko gainerako neurriak ere.

141. artikulua

(lehengo 123. artikuluko 3. paragrafoa eta lehengo 117. artikuluko 2. paragrafoaren lehenengo bost gidoiak, EET)

1. Batasuneko estaturen bat salbuespen bati lotuta badago, eta hari eta hala dagoen bitartean, 129. artikuluko 1. paragrafoari kalterik egin gabe, BZESren eta EBZaren estatutuetako 44. artikuluan aipatutako Europako Banku Zentralaren Kontseilu Nagusia Europako Banku Zentraleko hirugarren organo erabakitzaile moduan eratuko da.

2. Salbuespen bati heldutako estatu kideak dauden artean, Europako Banku Zentralak, estatu kide horiei dagokienez:

- estatutetako Banku Zentralen arteko lankidetzak indartuko du;
- estatu kideen diru-politiken koordinazioa indartuko du, prezioen egonkortasuna bermatzeko;
- truke-tasen mekanismoaren funtzionamendua ikuskatuko du.
- kontsultak egingo ditu estatutetako Banku Zentralen eskumenekoak izan eta finantza-etxeen eta finantza-merkatuen egonkortasunari eragiten dieten gaiei buruz;
- Diru Lankidetzako Europako Funttsarenak ziren eginkizunak beteko ditu, lehenago Europako Diru Institutuak bere gain hartu zituenak.

142. artikulua

(lehengo 124. artikulua, 1. paragrafoa, EET)

Salbuespen bati helduta dagoen estatu kide bakoitzak interes erkideko gaitzat hartu behar du bere truke-politika. Hori egiteko, truke-tasen mekanismoaren eremuan izandako lankidetzaz lortutako eskarmentuak hartu behar dituzte kontuan Batasuneko estatuek.

143. artikulua

(lehengo 119. artikulua EET)

1. Baldin eta salbuespen bati heldutako estatu kideren batek ordainketa-balantzan zailtasunak badauzka edo zailtasunak edukitzeko mehatxu larriren baten pean badago, eta zailtasun horiek balantza horren desoreka orokorraren eraginez edo estatu horrek dauzkan dibisa-moten ondorioz sortu badira, eta, bereziki, barne-merkatuaren funtzionamendua edo merkataritza-politika erkidea egitea arriskuan jartzen dutenak badira, Batzordeak, bere eskura

dauzkan baliabide guztiak erabiliz, luzamendurik gabe aztertuko du estatu horren egoera, baita Tratatueta xedatutakoaren arabera estatu horrek hasi duen edo hasi dezakeen ekintza ere. Batzordeak adieraziko du zer neurri gomen-datzen dion estatu interesdunari.

Salbuespen bati helduta dagoen estatu kideak hasitako ekintza eta Batzordeak proposatutako neurriak nahikoak ez badira aurkitutako zailtasunak edo zailtasun-mehatuak gainditzeko, elkarren arteko laguntza eta metodo egokiak proposatuko dizkio Batzordeak Kontseiluari, aurretiaz Ekonomia eta Finantza Komiteari kontsulta eginda.

Batzordeak egoeraren eta bilakaeraren berri eman behar dio Kontseiluari aldian-aldian.

2. Kontseiluak goian aipatutako elkarren laguntza onartuko du, eta laguntzaren baldintzak eta laguntza-motak zehazteko zuzentarauak edo erabakiak hartuko ditu. Elkarren arteko laguntza era hauetakoa izan daiteke, bereziki:

a) nazioarteko beste erakunde batzuekin itundutako ekintza bat, albuespen bati helduta dauden estatu kideek erabil dezaketena;

b) merkataritza-trafikoaren desbideraketak saihesteko beharrezko neurriak, baldin eta albuespen bati helduta dagoen estatu kideak zailtasunak badauzka eta hirugarren herrialdeekiko kopuru-murrizketei eusten badie edo berriro indarrean jartzen baditu;

c) beste estatu kide batzuek kreditu mugatuak ematea, betiere, estatuon adostasunez.

3. Baldin eta Batzordeak gomendatutako elkarren arteko laguntza Kontseiluak onartzen ez badu, edo onartutako elkarren arteko laguntza eta hartutako neurriak nahikoak ez badira, babes-neurriak hartzeko baimena eman-gio dio Batzordeak, albuespen bati helduta egonda, zailtasunak dauzkan estatu kideari, betiere, Batzordeak berak zehaztutako baldintzetan eta moduan.

Kontseiluak kendu egin dezake baimen hori, bai eta haren baldintzak eta moduak aldatu ere.

144. artikulua

(lehengo 120. artikulua EET)

1. Ordainketa-balantzan bat-bateko krisiren bat gertatu, eta, 143. artikuluko 2. paragrafoan ezarritakoarekin bat etorritik berehala erabaki bat hartu ezik, albuespen bati helduta dagoen estatu kideak beharrezko babes-neurriak hartu ahal izango ditu, kautela moduan. Neurri horiek ahalik eta nahasmendurik txikiena sortu behar dute barne-merkatuaren funtzionamenduan, eta bat-batean sortutako zailtasunak gainditzeko ezin-

bestekoa eta behar-beharrezkoa dena baino helmen handiagoa ez dute izango.

2. Babes-neurri horien berri jaso beharko dute Batzordeak eta estatu kideek, berandue-nean ere, indarrean jartzen diren unean. Batzordeak ahalmena du Kontseiluari gomendatzeko 143. artikuluan ezarritakoaren arabera elkarri laguntza eman diezaioetela.

3. Kontseiluak, Batzordearen gomendioz, eta Ekonomia eta Finantza Komiteari aurretiaz kontsulta eginda, erabaki dezake estatu kide interesdunak babes-neurri horiek aldatu, eten edo ezabatu behar dituela.

IX. TITULUA

ENPLEGUA

145. artikulua

(lehengo 125. artikulua EET)

Batasuneko estatuak eta Batasuna, titulu honekin bat etorritik, enplegurako estrategia koordinatua garatzen ahaleginduko dira, batez ere langile gaitu, prestatu eta egokitu-errazak lortzeko, eta ekonomiaren aldaketei erantzuteko gai diren lan-merkatuak sustatzeko, Europar Batasunaren Tratatuaren 3. artikuluan zehaztutako helburuak lortu ahal izan daitezen.

146. artikulua

(lehengo 126. artikulua EET)

1. Batasuneko estatuak, enplegurako beren politiken bidez, 145. artikuluan aipatutako helburuak lortzen lagunduko dute, 121. artikuluko 2. paragrafoaren arabera Batasuneko estatuak eta Batasunak ekonomiaren politikari buruz onartutako orientabide orokorrekin bat etorritik.

2. Estatu bakoitzaren barruan lan-munduko ordezkariak dituzten erantzukizunei buruzko jo-kaerak kontuan hartuta, estatu kideek interes erkideko gaitzat hartu behar dute enpleguaren sustapena, eta Kontseiluaren baitan koordinatu behar dituzte gai horren inguruko beren jarduerak, 148. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

147. artikulua

(lehengo 127. artikulua EET)

1. Enplegu-maila handia lortzeko lagunduko du Batasunak, estatu kideen arteko lankidetzat sustatu, eta bakoitzaren jarduerari lagunduz, eta, premiazkoa bada, beren jarduteak osatuz. Hori egi-tean, estatu kideen eskumenak errespetatuko dira.

2. Batasuneko politikak eta neurriak zehaztu eta aplikatzerakoan enplegu-maila handia lortzea da kontuan hartu beharreko helburua.

148. artikulua

(lehenengo 128. artikulua EET)

1. Kontseilu Europarrak urtero aztertuko du zein den enpleguaren egoera Batasunean, eta horren gaineko ondorioak aterako ditu, Kontseiluak eta Batzordeak batera urtero egindako txostenean oinarrituta.

2. Kontseilu Europarraren ondorioetan oinarrituta, Kontseiluak, Batzordearen proposamenaren gainean, Europako Parlamentuari, Ekonomia eta Gizarte Komiteari, Eskualdeetako Komiteari eta 150. artikuluan aurreikusitako Enplegu Komiteari kontsulta egin ondoren, orientabideak emango ditu urtero, eta kontuan hartu beharko dituzte estatu kideek, bakoitzak enplegurako bere politika egiterakoan. Orientabide horiek bateragarri izango dira 121. artikulua 2. paragrafoan xedatutakoaren arabera onetsitako orientabide orokorrekin.

3. Estatu kide bakoitzak txosten bana emango die urtero Kontseiluari eta Batzordeari, bakoitzak enplegurako bere politika martxan jartzeko hartutako neurri nagusien gainean, 2. paragrafoan enpleguari buruz jasotako orientabideak kontuan hartuta.

4. Kontseiluak, 3. paragrafoan aipatutako txostenak oinarritzat hartuta, eta Enplegu Komitearen iritzia jaso ondoren, azterketa egingo du urtero estatu kideen enplegu-politiken aplikazioari buruz, enplegurako emandako orientabideen ikuspuntutik. Kontseiluak, Batzordearen gomendioa oinarri dela, gomendioak egin ahal izango dizkie Batasuneko estatuei, aipatutako azterketa ikusita bidezkoa baderitzo.

5. Aipatutako azterketaren emaitzak oinarri direla, Kontseiluak eta Batzordeak txostena prestatuko dute batera urtero Kontseilu Europarrarentzat, Batasuneko enpleguaren egoera zein den eta enplegurako orientabideen aplikazio-maila zein den agertzeko.

149. artikulua

(lehenengo 129. artikulua EET)

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera, eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeetako Komiteari kontsulta egin ondoren, sustapen-neurriak hartu ahal izango dituzte Ba-

tasuneko estatuen arteko lankidetzaz bultzatzeko eta estatuok enplegu-gaietan daukaten jarduerari laguntzeko, informazioa eta jardunbide egokiak elkarren artean trukatzera zuzendutako ekimenen bidez, konparazioko analisiak eta aholkularitza emanez, eta planteamendu berritzaileak sustatu eta esperientziak ebaluatuz, bereziki proiektu pilotuez baliatuz.

Neurri horiek ez dute inolako harmonizaziorik ekarriko estatu kideetako legezko eta erregelamenduzko xedapenei dagokienez.

150. artikulua

(lehenengo 130. artikulua EET)

Kontseiluak, Europako Parlamentuari aurretiaz kontsulta eginda, gehiengo soilez, Enplegu Komitea sortuko du; komite hori aholkumalea izango da, eta horren bidez estatu kideek enpleguaren eta lan-merkatuaren arloan dituzten politiken koordinazioa sustatuko da. Hauek dira komite horren eginkizunak:

— Estatu kideetan eta Batasunean enpleguak daukan egoera eta batzuek eta besteak enpleguari buruz dauzkaten politikak zeintzuk diren ikuskatzea;

— tratatu honetako 240. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, Kontseiluaren edo Batzordearen eskariz, edo bere ekimenenez, irizpenak ematea, eta 148. artikuluan aipatutako neurriak prestatzen Kontseiluari laguntzea.

Agindutakoak betetzeko, Komiteak kontsulta egin behar die lan-munduko ordezkariari.

Estatu kideetako bakoitzak eta Batzordeak kide bina izendatuko dituzte Komitea osatzeko.

X. TITULUA

GIZARTE-POLITIKA

151. artikulua

(lehenengo 136. artikulua EET)

191eko urriaren 18an Turinen izenpetutako Europako Gutun Sozialean eta Langileen oinarritzko eskubide sozialen Batasunaren 1989ko Gutunean aipatutako oinarritzko eskubide sozialak gogoan hartuta, Batasunak eta estatu kideek helburu hauek dauzkate: enplegua sustatzea; bizitzako eta laneko baldintzak hobetzea, aurrerapenen bidetik langileak parekatzeko; gizarte-babes egokia; elkarriketa soziala; giza baliabideen garapena, enplegu-maila handia eta iraunkorra lortzeko; eta bazterkeriaren kontra borrokatzea.

Helburu horretarako, estatuetako jokaera desberdinak kontuan hartuko dituzten ekintzak egingo dituzte Batasunak eta estatu kideek, batez ere hitzartutako harremanetan; kontuan hartu behar dute, halaber, Batasunaren ekonomia-eraren lehiakortasuna zaindu beharra ere.

Batasunak eta Batasuneko estatuek uste dutenez, bilakaera hori, batetik, barne-merkatuaren funtzionamendutik etorriko da, gizarte-sistemak harmonizatzea erraztuko baitu, eta bestetik, Tratatuaren aurreikusitako prozeduretatik eta legezko, erregelamenduzko eta administraziozko xedapenak elkarri hurbiltzetik.

152. artikulua

Batasunak lan-munduko ordezkariak beren eremuetan duten zeregina aitortu eta sustatuko du, estatu kideetako sistemen aniztasuna aintzakotzat hartuta. Beren artean elkarrizketa sustatzen lagunduko du, beren autonomia errespetatuta.

Hazkundera eta enplegua sustatzeko hiruko goi-bilera sozialak gizarte-elkarrizketa sustatzen lagunduko du.

153. artikulua

(lehengo 137. artikulua EET)

1. Aurreko 151. artikuluko helburuak lortzeko, Batasuneko estatuen ekintza babestu eta osatuko du Batasunak eremu hauetan:

- a) zehazki, lan-giroa hobetzen, langileen osasuna eta segurtasuna babesteko;
- b) lan-baldintzetan;
- c) langileen gizarte-segurantzaren eta gizarte-babesean;
- d) langileak babesten, lan-kontratuak deusztatzen direnean;
- e) langileei informazioa ematen eta kontsulta egiten;
- f) langileen eta enpresarien ordezkaritza egin eta guztion interesen defentsa egiten, kogestioa barne, 5. paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe;
- g) Batasuneko lurraldean legezko bizilekua duten baina hirugarren herrialde batekoak diren herritarren enplegu-baldintzetan;
- h) lan-merkatutik kanpo dauden pertsonak lan-merkatuan sartzen, 166. artikuluari kalterik egin gabe;
- i) gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean, lan-merkatuko aukerei eta laneko tratuari dagokienez;
- j) gizarte-bazterkeriaren kontrako borrokan;
- k) gizarte-babeseko sistemak modernizatzen,

c) idatz-zatian esandakoari kalterik egin gabe.

2. Horretarako, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak:

a) Estatu kideen artean lankidetzak sustatzeko neurriak hartu ahal izango dituzte, jakintza hobetzeko, informazioa eta jardunbide egoiak elkarren artean trukatzeko, berrikuntza formulak sustatzeko eta elkarren esperientzia balaratzeko ekimenak bultzatuz, betiere Estatu kideetako legezko eta erregelamenduzko xedapenak inola ere harmonizatu gabe;

b) goiko 1. paragrafoaren a) idatz-zatitik i) idatz-zatira artekoak aipatutako eremuetan, zuzentarau-bidez xedapenak onartu ahal izango dituzte, arian-arian aplikatzeko, estatu kide bakoitzean dauden baldintza eta araudi teknikoak kontuan hartuta. Zuzentarau horiek saihestu egingo dituzte enpresa txiki eta ertainak sortu eta garatzeko oztupo izan daitezkeen eragozpenak, administrazio-, finantza- eta lege-arloetakoak.

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak legegintzako prozedura arruntaren arabera erabakiko dute, Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeetako Komiteari aurretiaz kontsulta eginda.

Artikulu honetako 1. paragrafoaren c), d), f) eta g) idatz-zatietan adierazitako eremuetan, Kontseiluak legegintzako prozedura berezi baten arabera erabakiko du, aho batez, eta aurretik Europako Parlamentuari eta komite horiei kontsulta eginda.

Kontseiluak, aho batez, Batzordeak proposatuta eta Europako Parlamentuari aurretiaz kontsulta eginda, erabaki bat onartu ahal izango du legegintzako prozedura arrunta 1. paragrafoko d), f) eta g) idatz-zatiei aplikatu ahal izateko.

3. Estatu kide oro lan-munduko ordezkarien esku utz dezake 2. paragrafoaren indarrez onartutako zuzentzarauen aplikazioa, lan-munduko ordezkariak batera eskatzen badute, edo, hala dagokionean, 155. artikuluaaren arabera onetsitako europar erabaki baten aplikazioa.

Kasu horretan, zuzentarau edo erabaki bat aldatu edo aplikatu behar denean beranduenean ere, lan-munduko ordezkariak, adostasunez, beharrezko xedapenak ezarrita dauzkatela ziurtatu behar du; estatu kide horrek aipatutako zuzentarau edo erabaki horrekin finkatutako emaitzak une oro bermatu ahal izateko beharrezko xedapen guztiak onartu beharko ditu.

4. Artikulu honen indarrez onartutako xedapenek:

- ez dute eraginik izan behar Erkidegoko estatutako bakoitzak bere gizarte-segurantzako sistemaren oinarritzko printzipioak ze-

- hazteko daukan eskumenaren gainean, ez eta estatu bakoitzaren finantza-orekaren gainean eragin nabarmenik izan ere;
- eta ez dute eragozpen izan behar estatu kideek Tratatuarekin bateragarriak diren babes-neurri estuagoei eutsi diezaieten, edo halakoak sartzen has daitezen.

5. Artikulu honetako xedapenak ez zaizkie aplikatuko ez lansariei, ez elkartzeko eta sindikatuko kide izateko eskubideari, ez greba-eskubideari, ez eta ugazabek itxiera ezartzeko eskubideari ere.

154. artikulua

(lehengo 138. artikulua EET)

1. Batzordeak lan-munduko ordezkariet Batasun osorako gaiak direla-eta aholkua eska dakienez sustapen-lana egingo du, bai eta elkarren arteko elkarrietzeta errazteko beharrezko xedapenak onartzeko ere; eta alderdi biek laguntza orekatua lor dezaten jagon behar du.

2. Horretarako, Batzordeak, gizarte-politika-ko proposamenak aurkeztu aurretik, lan-munduko ordezkariet kontsulta egin behar die, Batasunaren ekintzen nondik norakoari buruz.

3. Aurreko puntuan aipatutako kontsulta egin ostean, Batzordearen iritziz Batasunak ekintza bat egitea komeni bada, lan-munduko ordezkariet eskatuko die aholkua aurreikusitako proposamenaren edukiaz. Lan-munduko ordezkariet irizpena, edo, hala badagokio, gomendioa, bidaliko diote Batzordeari.

4. Aurreko 2. eta 3. paragrafo horietan aipatutako kontsulta horien karietara, lan-munduko ordezkariet 155. paragrafoan jasotako prozesua hasteko borondatea jakinarazi ahal izango diote Batzordeari. Prozesu horrek ezingo du iraun bederatzi hilabete baino gehiago, non eta eragindako lan-munduko ordezkariet Batzordearekin ados jarrita ez duten erabakitzen prozesu hori luzatzea.

155. artikulua

(lehengo 139. artikulua EET)

1. Lan-munduko ordezkariet arteko elkarrietzeta Batasun osorako denean, berek nahi badute, hitzartutako harremanak ezartzera iritsi daiteke, akordioak barne hartuta.

2. Batasun osoari begira lotutako akordioet aplikazioa bi modutan egin daiteke: edo lan-munduko ordezkariet eurek eta estatu kideetk berezko dituzten prozedura eta ohituren arabera, edo, 153. artikuluari lotuta dauden arloetan, akordioa sinatu duten aldeetk batera eskatzen ba-

dute, Batzordeak proposatuta Kontseiluak hartutako erabaki baten bitartez. Europako Parlamentuari horren berri emango zaio.

Kontseiluak aho batez erabakiko du, baldin eta aipatutako akordio horretan xedapenen bat edo batzuk baldin badaude 153. artikuluaen 2. paragrafoaren ondorioz aho batez onetsi beharrekoak diren ardioet buruz.

156. artikulua

(lehengo 140. artikulua EET)

Tratatuetao 151. artikuluan adierazitako helburuak lortzeko, eta tratatu honetako beste xedapenei kalterik egin gabe, Batzordeak estatu kideen arteko lankidetzat sustatuko du, eta beren ekintzen koordinazioa erraztuko, kapitulu honetan gizarte-politika dela-eta landutako eremuetan, batez ere puntu hauekin zerikusia daukaten gaietan:

- enpleguarekin;
- Lan-zuzenbidearekin eta lan-baldintzekin;
- lanbide-heziketa eta lanbide-hobekuntzarekin;
- gizarte-segurantzarekin;
- laneko istripuen eta lanbide-gaixotasunen kontrako babesarekin;
- laneko higieenearekin;
- sindikatuko kide izateko eskubidearekin, eta enpresaburuen eta langileen arteko negoziatio kolektiboekin.

Helburu horretarako, Batzordeak estatuekin harreman estuan jardungo du, azterlanen eta irizpenen bidez eta kontsultak antolatuz, bai estatu barruan sortutako arazoetarako, zein nazioarteko antolakundeei dagozkienetarako; batez ere honako hauek izango ditu baliabide: orientabideak eta adierazleak ezartzeko ekimenak, jardunbide egokienet elkartrukea antolatzea, eta aldika-aldika egin beharreko kontrola eta ebaluazioa egiteko behar diren tresnak prestatzea. Horren guztiaren berri emango zaio osoki Europako Parlamentuari.

Artikulu honetan aurreikusitako irizpenak eman aurretik, Batzordeak Ekonomia eta Gizarte Komiteari egingo dio kontsulta.

157. artikulua

(lehengo 141. artikulua EET)

1. Estatu kide bakoitzak, lan berdinarengatik edo balio bereko lanarengatik gizonek nahiz emakumeek lansari berdina jaso behar dutelako printzipioa aplikatuko zaiela bermatu behar du.

2. Artikulu honen arabera, enpresaburuak lan-harremanak direla-eta langileari emanda-

ko oinarritzko edo gutxieneko soldata edo alokairua, eta, zuzenean edo zeharka, dirutan zein gauzatan emandako beste eskersari guztiak dira lansari.

Sexu-bereizkeriarik gabe, lansari berdina dela esaterakoan hau adierazi nahi da:

a) egindako lan-unitateka ordaindutako lan berdinerako ezarritako lansaria neurri-unitate berbera oinarri dela finkatu behar dela;

b) denbora-unitateetan neurtzen den lanaren lansaria berdina izango da lanpostu berdinatarako.

3. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegitzako prozedura arruntaren arabera, eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari kontsulta egin ondoren, enpleguaren eta okupazioaren arloan emakume eta gizonentzako aukera-berdintasunaren eta tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzen zaiela bermatzeko neurriak hartuko dituzte, lan berdinarengatik edo balio bereko lanarengatik gizonek nahiz emakumeek lansari berdina jaso behar dutelako printzipioa barne.

4. Lan-bizitzak dirauen artean gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna benetakoa eta osoa izango dela bermatzeko, tratu-berdintasunaren printzipioak ez dio ezein estatu kideri eragozpenik jarriko, baldin eta, ordezkaritza txikiena duen sexuaren alde, neurri jakin batzuk hartzea erabakitzen badu, lanbide-jarduere-tan parte hartzeko erraztasunak jartzeko edo lanbide-karreraren dauzkaten desabantailak saihestu edo orekatzeko.

158. artikulua

(lehenengo 142. artikulua EET)

Ordaindutako oporrei buruzko araubideen artean dagoen baliokidetasunari eusten saiaturiko dira estatu kideak.

159. artikulua

(lehenengo 143. artikulua EET)

Batzordeak txostena egingo du urtero, 151. artikuluko helburuak lortzeko izandako bilakaerari buruz, eta Batasuneko demografiaren egoera jasoko du bertan. Batzordeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari, eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari bidaliko die txosten hori.

160. artikulua

(lehenengo 144. artikulua EET)

Kontseiluak, gehiengo soilez, Europako Parlamentuari kontsulta egin ondoren, Gizarte Babeseko Komitea aholku-emaile bat sortuko du, es-

tatu kideen eta Batzordearen artean gizarte-babeserako lankidetzat sustatzeko. Eta komitearen eginkizun izango dira:

- gizarte-egoera ikuskatuko du, bai eta Batasunaren eta estatu kideen gizarte-babeserako politiken bilakaera ere;
- estatu kideen artean eta Batzordearekin batera informazioa, esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko moduak bideratuko ditu;
- tratatu honetako 240. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, txostenak egitea, irizpenak ematea nahiz jarduera egokiak egitea bere eskumeneko eremuetan, bai Kontseiluak zein Batzordeak eskatuta, bai bere ekimenez ere.

Komitea, berari agindu zaiona betetzeko, harreman egokietan lotuko da lan-munduko ordezkariekin.

Estatu kideetako bakoitzak eta Batzordeak kide bina izendatuko dituzte Komitea osatzeko.

161. artikulua

(lehenengo 145. artikulua EET)

Batzordeak Europako Parlamentuari urtero egin behar dion txostenean kapitulu berezi bat eman- go dio Batasuneko egoera sozialaren bilakaerari.

Europako Parlamentuak gonbitea egin ahal izango dio Batzordeari egoera sozialari buruzko arazo zehatzen gainean txostenak egin ditzan.

XI. TITULUA

EUROPAKO GIZARTE FUNTSA

162. artikulua

(lehenengo 146. artikulua EET)

Langileek barne-merkatuan enplegatzeko aukera hobeak izan ditzaten, eta horrela bizitzaren maila igotzeko, hurrengo xedapenen eremuan, Europako Gizarte Funtsa sortzen da, langileak Batasunaren barruan enplegatzeko aukerak sustatzeko eta langileen toki- eta lanbide-mugigarritasuna sustatzeko, eta industrien eraldaketetara eta ekoizpen-sistemen aldatetara langileak errazago egokitu daitezzen, batez ere lanbide-heziketaren bidez, eta lanbidea birmoldatuz.

163. artikulua

(lehenengo 147. artikulua EET)

Batzordeari dagokio Funtsa administratzea. Lan horretan, Batzordeak komite baten laguntza edukiko du; Batzordeko kide bat izango

da lehendakari, eta gobernuetako, langileen sindikatueta eta enpresaburuaren elkartee-tako ordezkariak osatuko dute.

164. artikulua

(lehengo 148. artikulua EET)

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak legegintzako prozedura arruntaren arabera eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualde-etako Komiteari kontsulta egin ondoren, Euro-pako Gizarte Funtzari aplikatzeko diren erre-gelamenduak onartuko dituzte.

XII. TITULUA

HEZKUNTZA, LANBIDE-HEZIKETA, GAZTERIA ETA KIROLA

165. artikulua

(lehengo 149. artikulua EET)

1. Batasunak kalitatezko hezkuntza garatzen lagunduko du, estatu kideen arteko lankidetz-a sustatuz, eta, premiazkoa izanez gero, esta-tuon ekintza bultzatuz eta osatuz, betiere esta-tuen erantzukizunak errespetatuz irakaskun-tzaren edukiei eta hezkuntza-sistemaren anto-lamenduari dagokionez, eta kultura- eta hiz-kuntza-aniztasuna errespetatuz.

Kirola dela-eta, Batasunak kirolaren alderdi europarrak sustatzen lagunduko du, bertako ezaugarri bereziak, boluntarioetan oinarritutako kirol-egiturak eta eginkizun soziala eta hezitzai-lea kontuan izanik.

2. Batasunaren ekintzak puntu hauek ditu jo-muga:

- irakaskuntzan europartasuna garatzea, ba-tez ere Erkidegoko estatuetaiko hizkun-tzak ikasiz eta zabalduz;
- ikasleen eta irakasleen mugigarritasuna erraztea, batez ere tituluaren eta ikastaldien onespen akademikoa sustatuz;
- ikastetxeen arteko lankidetz-a sustatzea;
- Erkidegoko estatuetaiko heziketa-siste-metan dauden arazo berdinei buruzko in-formazioa eta eskarmentuak elkarren ar-tean trukatzeko moduak garatzea;
- gazteen eta gizarte-hezkuntzetako eragi-leen arteko trukaketak gehitzeko mo-duak erraztea, eta gazteak Europako bi-zitza demokratikoan parte hartzera bul-tzatzea;
- urrutiko hezkuntza garatzeko bideak sus-tatzea;
- kirolaren europartasuna garatzea, eta, ho-

rretarako, lehiaketetan ekitatea eta za-baltasun-joera bultzatzea, kirolaren ar-dura duten erakundeen arteko lankidetz-a bultzatzea, eta kirolarien osotasun fisikoa eta morala babestea, batez ere gazteena.

3. Batasunak eta estatu kideek lankidetz-a bultzatuko dute, batetik, hirugarren herrialde-ekin, bestetik, hezkuntza- eta kirol-gaietan es-kumenak dauzkaten nazioarteko erakundeekin, eta batez ere Europako Kontseiluarekin.

4. Artikulu honetan azaldutako helburuak lortzen laguntzeko:

- Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren ara-bera, eta Ekonomia eta Gizarte Komitea-ri eta Eskualdeetako Komiteari kontsul-ta egin ondoren, sustapen-neurriak har-tuko dituzte, estatu kideetako legezko eta erregelamenduzko xedapenak har-monizatzeke ahaleginak albo batera utzi-ta;
- Batzordeak proposaturik, Kontseiluak gomendioak emango ditu.

166. artikulua

(lehengo 150. artikulua EET)

1. Estatu kideen ekintzak indartzeko eta osatzeko politika garatuko du Batasunak lan-bide-heziketari dagokionez, lanbide-heziketa-ren edukiori eta antolamenduari buruz estatu-ek daukaten erantzukizuna osorik errespetatuz.

2. Batasunaren ekintzak puntu hauek ditu jo-muga:

- industriaren eraldaketetara egokitzeko modua erraztea, batez ere lanbide-hezi-ketaren bidez eta lanbidea birmoldatuz;
- hasierako lanbide-heziketa eta etengabe-ko prestakuntza hobetzea, lan-merkatuan lehenengo aldiz eta hurrengoetan lanbi-deratzea errazteko;
- lanbide-heziketan sartzeko erraztea, eta he-zitzaileen eta prestakuntza-aldian aur-kitzen diren mugigarritasuna bultza-tzea, batez ere gazteena;
- ikastetxeen eta enpresen arteko lankidetz-a akuilatzea, prestakuntza gaietan;
- Estatu kideetako heziketa-sistemetan dauden arazo berdinei buruzko infor-mazioa eta esperientziak elkarren artean trukatzeko moduak garatzea.

3. Batasunak eta estatu kideek lankidetz-a bultzatuko dute, batetik, hirugarren herrialde-ekin, eta, bestetik, lanbide-heziketari dagozkio-n gaietan eskumenak dituzten nazioarteko era-kundeekin.

4. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera, eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeetako Komiteari kontsulta egin ondoren, artikuluko honetan ezarritako helburuak lortzen laguntzeko neurriak hartuko dituzte, estatu kideetako legezko eta erregelamenduzko xedapenak harmonizatzeko ahaleginak albo batera utzita, eta Batzordeak proposaturik, Kontseiluak gomendioak emango ditu.

XIII. TITULUA

KULTURA

167. artikulua

(lehengo 151. artikulua EET)

1. Estatu kideetako kulturak suspertzen lagunduko du Batasunak, barruko nazio eta eskualdeen aniztasuna errespetatuz, eta, aldi berean, kultura-ondare erkidea nabarmenduz.

2. Batasunaren ekintzak estatu kideen arteko lankidetzak suspertuko du, eta, beharrezkoa izanez gero, estatuon ekintza bultzatu eta osatuko du eremu hauetan:

- Europako herrien kultura eta historia hobeto ezagutu eta zabaltzen;
- Europarako garrantzizkoa den kultura-ondarea zaindu eta babesten;
- merkataritzakoak ez diren kultura-trukaketak egiten;
- arte eta literaturako sorkuntzan, ikus-entzunezkoen arloa barnean hartuta.

3. Batasunak eta estatu kideek lankidetzak sustatuko dute, batetik, hirugarren herrialdeekin, bestetik, kultura-gaietan eskumenak dituzten nazioarteko erakundeekin, eta batez ere Europako Kontseiluarekin.

4. Tratatu honetako beste xedapenen indarriz jardun behar duenean, Batasunak kultura-ikuspegiak hartuko ditu kontuan, bereziki bertako kultura-aniztasuna errespetatu eta sustatzeko.

5. Errazagoa izan dadin artikuluko honetako helburuak lortzea:

- Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera, eta Eskualdeetako Komiteari kontsulta egin ondoren, sustapen-neurriak hartuko dituzte, estatu kideetako legezko eta erregelamenduzko xedapenak harmonizatzeko ahaleginak albo batera utzita.

- Batzordeak proposaturik, Kontseiluak gomendioak emango ditu.

XIV. TITULUA

OSASUN PUBLIKOA

168. artikulua

(lehengo 152. artikulua EET)

1. Batasunaren politika eta ekintza guztiak zehaztu eta gauzatzean, giza osasunaren babes-maila handia bermatuko da.

Batasunaren ekintzak, estatuen politikak osatzeko izango dela kontuan hartuta, osasun publikoa hobetzea, giza gaixotasunei aurrea hartzea eta giza osasun fisikorako eta psikikorako arrisku-iturriak saihestea izango ditu jomuga. Gaixotasun larrien eta zabalduen dauen gaixotasunen kontra borrokatzeko izango da ekintza hori, gaixotasunon etiologiaren, kutsatzeko moduen eta prebentzioaren ikerketak bultzatuz eta, era berean, osasunari buruzko informazioa eta heziketa emanez, mugak gainditzen dituzten osasunerako mehatxu larriak zainduz eta mehatxu horietako alertak zabalduz eta horien aurka borrokatuz.

Drogek osasunari eragindako kalteak gutxitze aldera, estatu kideen ekintza osatu egingo du Batasunak, informazioa zabalduz eta kalteari aurrea hartuz.

2. Estatu kideen arteko lankidetzak suspertuko du Batasunak, artikuluko honetan adierazitako eremuetarako, eta, beharrezkoa izanez gero, laguntza emango dio estatuon ekintzari. Estatu kideen lankidetzak moten artean, mugako eskualdeetan osasun-zerbitzuen osagarritasuna hobetzeko lankidetzak suspertuko du bereziki.

Estatu kideek, Batzordearekin lankidetzan ari-tuz, beren politikak eta programak koordinatuko dituzte elkarren artean, 1. paragrafoan aipatutako eremuetan. Batzordeak, estatu kideekin lotura estuan arituz, aipatutako koordinazioa sustatzeko era guztietako ekimen baliagarriak onartitzake, batez ere honako hauek izango ditu baliabide: orientabideak eta adierazleak ezartzeko ekimenak, jardunbide egokiak elkartrukea antolatzea, eta aldika-aldika egin beharreko kontrola eta ebaluazioa egiteko behar diren tresnak. Horren guztia berri emango zaio osoki Europako Parlamentuari.

3. Batasunak eta estatu kideek lankidetzak bultzatuko dute, batetik, hirugarren herrialde-

ekin, eta, bestetik, osasun publikoari dagozkion gaietan eskumenak dauzkaten nazioarteko erakundeekin.

4. Aurreko 2. artikuluko 5. paragrafoan eta 6. artikuluko a) idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, eta 4. artikuluko 2. paragrafoko k) idatz-zatiarekin bat, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeetako Komiteari kontsulta egin ondoren, artikuluko honetan zehazturik dauden helburuak betetzeko lagunduko dute, eta, horretarako, neurri hauek hartuko dituzte, segurtasun-arazo erkideei aurre egiteko:

a) giza organoen eta substantzien, eta odolaren eta odoletik eratorritakoen kalitatea eta segurtasuna maila handikoak izateko neurriak; neurri horiek ez diote estatu kide bati ere eragotziko babes-neurri estuagoak jartzen jarraitzea edo sartzeari;

b) albaitaritzan eta arlo fitosanitarioan, zuzenean osasun publikoa babesteko diren neurriak;

c) sendagai eta produktu sanitarioetarako, kalitate eta segurtasun handia lortzeko arauak ezartzeko neurriak;

5. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera, eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeetako Komiteari kontsulta egin ondoren, giza osasuna babestu eta hobetzeko neurriak ere har dezakete, mugaz gaindiko pandemien aurka egiteko bereziki, mugaz gainditzen dituzten osasunerako mehatxu larriak zaintzeko eta mehatxu horietako alertak zabalatzeko eta horien aurka borrokatzeko, baita zuzen-zuzenean tabako-kontsumoaren aurrean eta gehiegizko alkoholkontsumoaren aurrean osasun publikoa babesteko den neurriak ere, estatu kideetako legeak eta erregelamenduzko xedapenak harmonizatzeko ahalegin oro albo batera utzita.

6. Kontseiluak, Batzordearen proposamenaren gainean, artikuluko honetan ezarri diren helburuetarako gomendioak ere onar ditzake.

7. Estatuaren osasun-politika definitzeari dagokionez eta osasun-zerbitzuak eta mediku-arreta antolatzeari eta eskaintzeari dagokionez, Batasunak osasun publikoaren arloan aurrera daraman lanak estatu kideen ardurak errespetatu beharko ditu. Estatu kideen arduren artean dago osasun-zerbitzuak eta mediku-arretarako zerbitzuak kudeatzea, eta zerbitzu horietan erabili beharreko baliabideak izendatzea. Organoak eta odola emateari dagokionez, edo organo eta odol horien erabilera medikoari dagokionez, estatuek dituzten xedapenei kalterik

egin gabe ulertu behar dira 4. paragrafoko a) idatz-zatian jasotako neurriak.

XV. TITULUA

KONTSUMITZAILEEN BABESA

169. artikulua

(lehenengo 153. artikulua EET)

1. Kontsumitzaileen interesak sustatzeko, eta kontsumitzaileei babes-maila handia bermatzeko, Batasunak kontsumitzaileen osasuna, segurtasuna eta interes ekonomikoak babesten lagunduko du, baita kontsumitzaileek informazioa eta hezkuntza jasotzeko duten eskubidea sustatzen, eta, beren interesak babeste aldera, beren artean antolatzeko duten eskubidea babesten ere.

2. Goiko 1. paragrafoan aipatutako helburuak lortzen lagunduko du Batasunak:

a) barne-merkatua gauzatzeko, 114. artikuluen indarrez onar ditzan neurriak hartuz;

b) estatu kideek egindako politika bultzatu, osatu eta gainetik ikuskatzeko neurriak hartuz.

3. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari kontsulta egin ondoren, 2. paragrafoko b) idatz-zatian aipatutako neurriak hartuko dituzte.

4. Goiko 3. paragrafoaren indarrez onartutako neurriak ez dira eragozpen izango Batasuneko estatu bakoitzak babes gehiagoko neurriak erabiltzen jarraitzeko eta hasteko. Tratatuarekin bateragarriak izan behar dira neurri horiek. Batzordeari eman behar zaio neurrien berri.

XVI. TITULUA

EUROPA BARRUKO SAREAK

170. artikulua

(lehenengo 154. artikulua EET)

1. Tratatu honetako 26. eta 174. artikuluetan azaldutako helburuak lortzen laguntzeko, eta barruko mugarik gabeko eremu bat sortzeko daktartzan onuretan Batasuneko herritarrek, eragile ekonomikoek eta eskualdeetako eta tokian tokiko erakundeek oso-osorik parte hartu ahal izan dezaten, Europa barruko sareak ezarri eta garatzen lagunduko du Batasunak, garraio, telekomunikazio eta energiako azpiegiturretan.

2. Merkatu ireki eta lehiakorren sistemaren baitan, estatuetako sareak elkarren artean lotzeko

eta elkarreragile bihurtzeko, eta sareotara iritsi ahal izateko bideratuko da Batasunaren ekintza. Ekintza horrek bereziki hartuko du kontuan, Batasuneko uharteek, kostarik gabeko eskualdeek eta eskualde periferikoek eta erdialdeko eskualdeek beren artean lotzeko daukaten premia.

171. artikulua

(lehengo 151. artikulua EET)

1. Tratatu honetako 170. artikuluan aipatutako helburuak lortzeko, Batasunak:

- Europa barruko sareak direla-eta aurreikusitako ekintzen helburuei, lehenasunei eta gida-lerroei buruzko orientabide-multzato bat egingo du; interes orokorreko proiektuak sartuko dira orientabide horietan;
- sareak elkarreragile izango direla bermatzeko beharrezko ekintzak egingo ditu, batez ere arau teknikoak harmonizatuz;
- lehenengo marran aipatutako orientabideen arabera zehaztu eta estatu kideek bultzatutako interes erkideko proiektuak bultzatu ahal izango ditu, batez ere bidegarritasun-azterlanak eginez, mailegu-bermeak emanez, edo interesetarako hoberiak eskainiz; 177. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz sortutako Kohesio Funtsaren bidez dirulaguntzak ere eman ditzake Batasunak, Batasuneko estatuen proiektu zehatzetarako, garraio-azpiegituren eremuan.

Batasunaren ekintzak kontuan izango du, bestalde, proiektuok ekonomiaren aldetik bideragarriak diren ala ez.

2. Estatu kideek, Batzordearekin lankidetzan arituz, estatu barruan aplikatzen dituzten politikak koordinatuko dituzte beren artean, 170. artikuluan aurreikusitako helburuak betetzeko eragin nabaririk izan badezakete. Batzordeak, estatu kideekin lankidetzatza estuan arituz, aipatutako koordinazioa sustatzeko baliagarri den edozein ekimen onar dezake.

3. Batasunak hirugarren herrialdeekin lankidetzan aritzea erabaki dezake, interes orokorreko proiektuak sustatzeko eta sareak elkarreragile direla bermatzeko.

172. artikulua

(lehengo 156. artikulua EET)

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeetako Komiteari kontsulta egin ondoren eta legegintzako prozedura arruntaren arabera, 171.

artikuluko 1. paragrafoan aurreikusitako orientabideak eta gainerako neurriak onartuko dituzte.

Estatu kide bateko lurraldeari dagozkion interes orokorreko orientabideak eta proiektuak onartzeko, dena delako estatu kidearen onarpena behar da.

XVII. TITULUA

INDUSTRIA

173. artikulua

(lehengo 157. artikulua EET)

1. Batasunaren eta estatu kideen ardura izango da Batasuneko industria lehiatzeko gai izan dadin beharrezkoak diren baldintzak ziurtatzea.

Helburu horrekin, merkatu ireki eta lehiakorren sistemaren baitan, hauek izango dira bere ekintzaren xedeak:

- egituren aldagaketetara industria egokitzeko modua bizkortzea;
- Batasun osoko enpresen ekimen eta garapenerako egokia den giroa sustatzea, batez ere, enpresa txiki eta ertainetarako;
- enpresen arteko lankidetzarako egokia den giroa sustatzea;
- teknologiaren berrikuntzarako, ikerketarako eta garapenerako politiken industria-potenziala hobeto aprobetxatzeko erraztasunak ematea.

2. Estatu kideek elkarri kontsulta egingo diote, Batzordearekin lankidetzan arituz, eta, beharrezkoa denean, koordinatu egingo dituzte beren ekintzak. Koordinazio hori sustatzeko, Batzordeak edozein ekimen egoki eraman dezake aurrera, eta, batez ere, orientabideak eta adierazleak zehazteko ekimenak, jardunbide egokienak elkarren artean trukatzeako ekimenak, eta aldian aldiko kontrolerako eta balioespenerako beharrezko elementuak prestatzeko ekimenak. Horren guztia berri emango zaio osoki Europako Parlamentuari.

3. Batasunak, Tratatu honetako beste xedapen batzuen arabera burututako politiken eta jardueren bidez, 1. paragrafoan ezarritako helburuak lortzen lagunduko du. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari kontsulta egin ondoren neurri bereziak har ditzakete, 1. paragrafoan aipatutako helburuak gauzatzeko Batasuneko estatuek burututako ekintzei laguntza emateko, estatu kideetako legezko eta erregelamenduzko xeda-

penak harmonizatzeko ahalegin oro albo bate-ra utzita.

Titulu hau ez da oinarri izango Batasunak lehiakortasuna faltsutzeko neurriak hartu ahal izateko, ez eta soldatako langileen eskubide eta interesei buruzko neurriak hartzeko edota zergaxedapenak sortzeko moduko neurriak hartzeko.

XVIII. TITULUA

EKONOMIA-, GIZARTE- ETA LURRALDE-KOHESIOA

174. artikulua

(lehengo 158. artikulua EET)

Batasun osoan garapen harmoniatsua sustatze aldera, ekonomiaren eta gizartearen kohesioa indartzeko ekintza gauzatuko du Batasunak, eta horretan jarraituko du.

Batasuna, bereziki, eskualdeen garapen-mailen arteko diferentziak gutxitzen ahaleginduko da, baita eskualde ahulenen atzerapena gutxitzen ere.

Garapen-mailan atzerapena jasaten duten eskualdeen artean, arreta berezia jarriko zaie landa-eremuei, industria-eraldaketa jasan dutenei, eta naturarengatik edo demografiarengatik desabantaila larriak eta iraunkorrak jasaten dituztenei, hala nola ipar-iparrean dauden eta bizilagun-dentsitate urria duten eskualdeei, eta uharte-eskualdeei, mugaz haraindiko eskualdeei eta mendialdeko eskualdeei.

175. artikulua

(lehengo 159. artikulua EET)

Estatu kideek ekonomiari buruz bideratu eta koordinatuko duten politika, 174. artikuluan aipatutako helburuak lortzeko ere izango da. Batasunaren politikak eta ekintzak egin eta garatzerakoan, eta barne-merkatua garatzerakoan, 174. artikuluan aipatutako helburuak hartuko dira kontuan, eta horiek lortzen hartuko dute parte. Batasunak, halaber, helburu horiek lortzen lagunduko du, egiturak helburu dituzten funtsekin egindako jardueren bidez (Nekazaritza Bideratu eta Bermatzeko Europako Funtsa, "Bideratze" saila; Europako Gizarte Funtsa; Eskualde-garapenerako Europako Funtsa), Europako Inbertsio Bankuaren bidez, eta egon dauden beste finantza-tresnak erabiliz.

Hiru urtetik behin, Batzordeak txostena aurkeztuko die Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Ekonomia eta Gizarte Komiteari, eta Es-

kualdeetako Komiteari, ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa lortzeko egindako aitzinamenduei buruz, eta artikulua honetan finkatutako baliabideek aitzinamenduok lortzen nola lagundu duten adierazteko. Beharrezkoa izanez gero, egokiak diren proposamenak gehituko zaizkio txosten horri.

Funtsetatik aparte berariazko ekintzak egiteko premiarik agertuko balitz, eta Batasunaren beste politiken esparruan erabakitako neurrien kontra jarri gabe, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak legegintzako prozedura arruntarekin bat etorritz onar ditzakete ekintza horiek, Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeetako Komiteari kontsulta egin ondoren.

176. artikulua

(lehengo 160. artikulua EET)

Eskualde-garapenerako Europako Funtsa Batasunaren barruko eskualdeen arteko desoreka nagusiak zuzentzen laguntzeko da, eskualde ahulenen garapenean eta egituren egokitzapenean, eta gainbeheran dauden industria-eskualdeen birmoldaketan parte hartuz.

177. artikulua

(lehengo 161. artikulua EET)

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, 178. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe, legegintzako prozedura arruntaren arabera onartutako erregelamendu bidez, eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeetako Komiteari kontsulta egin ondoren, egitura-helburuak dituzten funtsen eginkizunak, eta funtsen lehentasunezko helburuak eta antolaketa zehaztuko dituzte; eta ondorioz, metatu egin ahal izango dira funtsak Prozedura berberari jarraituz, funtsei aplikatu dakizkiekeen arau orokorrak ere zehaztuko ditu, baita funtsen eraginkortasuna bermatzeko beharrezko xedapenak, eta funtsak beren artean eta egon dauden beste finantza-tresnekin koordinatzeko xedapenak ere.

Prozedura berberari jarraituz sortutako Kohesio Funts batek finantza-laguntzak emango ditu ingurumen-arloetako proiektuetarako, eta Europa barruko sareetarako, garraio-azpiegiturei dagokienean.

178. artikulua

(lehengo 162. artikulua EET)

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak onartuko dituzte Eskualde-garapenerako Europako

Funtsari buruz aplikagarri diren erregelamen-
duak, legegintzako prozedura arruntaren arabera
eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskual-
deetako Komiteari kontsulta egin ondoren.

Nekazaritza Bideratzeko eta Bermatzeko
Europako Funtsaren «Bideratze» sailari, eta
Europako Gizarte Funtsari dagokienez, hurre-
nez hurren 43. eta 164. artikuluetako xedape-
nek jarraituko dute aplikagarri izaten.

XIX. TITULUA

IKERKETA ETA GARAPEN TEKNOLOGIKOA, ETA ESPAZIOA

179. artikulua

(lehenengo 163. artikulua EET)

1. Batasunaren helburu izango da bere oinarri
zientifikoak eta teknologikoak sendotzea, Eu-
ropako ikerketa-esparrua gauzatuz —esparru
horretan, ikertzaileek, ezagutza zientifikoek
eta teknologiek askatasunez zirkulatuko dute—
; lehiatzeko gaitasuna indartzea —baita indus-
triarena ere—, eta Tratatueta gainerako ka-
pituluaren arabera beharrezkotzat jotzen diren
ikerketa-ekintzak sustatzea.

2. Horretarako, enpresak —baita txikiak eta er-
tainak ere—, ikerketa-zentroak eta unibertsitateak
puntako ikerketa-ahaleginetan eta teknologia ga-
ratzeko ahaleginetan gogo-pizteko ardura hartu-
ko du Batasunak, eta haien lankidetzahaleginen
alde egingo du, honetarako batez ere: ikertzaile-
ak mugez gaindi inongo oztoporik gabe aritu
ahal izan daitezen lankidetzan, eta enpresak ba-
rruko merkatuaren aukerez baliu daitezen, bere-
ziki, kontratazio publiko nazionala zabalduz, arau
erkideak definituz eta lankidetzan horren aurrakoa
legezko oztopoak eta zerga-oztopoak ezabatuz.

3. Tratatuaren indarrez ikerketan eta tekno-
logiaren garapenean egin daitezen Batasuneko
ekintza guztiak, erakusketak barne, titulu ho-
netan xedatutakoarekin bat etorritik erabaki eta
gauzatuko dira.

180. artikulua

(lehenengo 164. artikulua EET)

Aipatutako helburuak lortzeko, Batasunak
ekintza hauek egingo ditu, eta estatu kideetan
hasitako ekintzak osatzeko izango dira:

a) ikerketarako, teknologiaren garapenera-
ko eta erakusketarako programak egitea, en-
presekin, ikerketa-zentroekin eta unibertsita-
teekin lankidetzan arituz, eta entitateon arteko
lankidetzan sustatuz;

b) Batasuneko ikerketa, teknologiaren ga-
rapena eta erakustaldiak direla-eta hirugarren
herrialdeekin eta nazioarteko erakundeekin
lankidetzan aritzeko joera sustatuko du;

c) Batasuneko ikerketa, teknologiaren gara-
pena eta erakusketa direla-eta egindako jar-
dueren emaitzak zabaltzeko eta ustiatzeko;

d) Batasuneko ikertzaileen prestakuntza eta
mugigarritasuna bultzatuko ditu.

181. artikulua

(lehenengo 165. artikulua EET)

1. Ikerketa-gaietan eta teknologia garatzeko
gaietan, Batasunak eta estatu kideek koordinatu
egingo dute beren jardura, estatuen politiken
eta Batasunaren politikaren arteko koherentzia
bermatzeko.

2. Goiko 1. paragrafoan jasota dagoen koor-
dinazio hori sustatzeko, Batzordeak edozein eki-
men egoki gauza dezake, estatu kideekiko lan-
kidetzan estuan, eta, batez ere, helburu hauek lor-
tzeko: orientabideak eta adierazleak ezartzeko,
jardunbide egokiaren elkartrukea antolatzeko,
eta aldian aldiko kontrolerako eta ebaluaketa-
rako beharrezko osagaiak prestatzeko. Horren
guztiaren berri emango zaio osoki Europako Par-
lamentuari.

182. artikulua

(lehenengo 166. artikulua EET)

1. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak,
legegintzako prozedura arruntaren arabera,
eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari kontsulta
egin ondoren, urte anitzeko esparru-programa
finkatuko dute, Batasunaren ekintza guztiak bar-
ne hartuta.

Esparru-programak:

— Tratatu honetako 180. artikuluan ai-
patutako ekintzen bidez lortu behar di-
ren zientzia-teknologietako helburuak
eta dagozkien lehentasunak finkatuko
ditu,

— ekintza horien gida-lerro nagusiak adie-
raziko ditu,

— batetik, esparru-programaren gehieneko
zenbateko osoa, eta, bestetik, Batasunak
horren finantzaketan izango duen parte
finkatuko ditu, baita aurreikusitako ekin-
tza bakoitzari dagokion proportzioa ere.

2. Egoeren bilakaeraren arabera egokitu
edo osatuko da esparru-programa orokorra.

3. Ekintza bakoitzaren barruan garatutako be-
rriarazko programen bidez gauzatuko da espa-
rru-programa. Berriarazko programa bakoitzak

zehaztuko ditu bera gauzatzeko moduak, baita iraupena finkatu eta beharrezko iritzitako baliabideak aurreikusi ere. Berariazko programetarako zehaztu eta beharrezko iritzitako zenbatekoen batuketak ezin izango du gainditu esparru-programarako eta ekintza bakoitzetarako finkatutako gehienezko zenbateko osoa.

4. Kontseiluak onartuko ditu berariazko programak, legegintzako prozedura berezi baten bidez, eta Europako Parlamentuari eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari kontsulta egin ondoren.

5. Urte anitzeko esparru-programan jasotako ekintzen osagarri, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari aurretiaz kontsulta eginda, Europako ikerketa-eremua gauzatzeko beharrezko neurriak zehaztuko dituzte.

183. artikulua

(lehengo 167. artikulua EET)

Urte anitzeko esparru-programa gauzatzeko, Batasunak:

- enpresek, ikerketa-zentroek eta unibertsitateek parte hartzeko arauak finkatu ko ditu;
- ikerketaren emaitzak zabaltzeko aplikatu ahal izango diren arauak finkatuko ditu.

184. artikulua

(lehengo 168. artikulua EET)

Urte anitzeko esparru-programa gauzatzean, programa osagarriak onartu ahal izango dira, baina programon finantzaketa berma dezaten Batasuneko estatuek baino ezin izango dute parte hartu horietan, nahiz eta agian Batasunak parte hartu ahal izango duen.

Batasunak ezarriko ditu programa osagarriak aplikatzeko arauak, batez ere ezagupenak zabaltzeko denean, eta Batasuneko beste estatu batzuk horietara iristeko denean.

185. artikulua

(lehengo 169. artikulua EET)

Urte anitzeko esparru-programa gauzatzean, Batasunak, horretan interesa daukaten estatu kideekin bat etorri, zenbait estatu kideren artean hasitako ikerketako eta garapeneko programetan parte hartzea aurreikus dezake, aipatutako programak gauzatzeko sortutako egituretan parte hartzea barne dela.

186. artikulua

(lehengo 170. artikulua EET)

Urte anitzeko esparru-programa gauzatzean, Batasunak hirugarren herrialdeekin edo nazioarteko erakundeekin lankidetzan aritzea aurreikus dezake Batasuneko ikerketaren, teknologia-garapenaren eta erakusketaren esparruan.

Lankidetzari hori gauzatzeko, modalitate batean zein bestean izan, Batasunaren eta hirugarren herrialdeen arteko akordioak sina daitezke.

187. artikulua

(lehengo 171. artikulua EET)

Batasunak enpresa erkideak sor ditzake, edo beste edozein egitura, baldin eta Batasuneko ikerketarako, teknologiaren garapenerako eta erakusketarako programak zuzen gauzatzeko beharrezkotzat jotzen badira.

188. artikulua

(lehengo 172. artikulua EET)

Kontseiluak Batzordearen proposamenaren gainean, eta Europako Parlamentuari eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari kontsulta egin ondoren, 187. artikuluan aurreikusitako xedapenak onartuko ditu.

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari kontsulta egin ondoren, 183, 184 eta 185. artikuluetan adierazitako xedapenak onartuko dituzte. Programa osagarriak onartzeko, horretan interesa daukaten estatu kideen adostasuna behar da.

189. artikulua

1. Batasunak espazio-politika europarra osatuko du, horrela, aurrerapen zientifikoa eta teknikoa, industriaren lehiazeko gaitasuna eta bere politiken aplikazioa errazteko. Horretarako, bere esku izango du ekimen erkideak bultzatzea, ikerketa eta garapen teknologikolari laguntzea, eta espazioa esploratzeko eta erabiltzeko beharrezko ahaleginak koordinatzea.

2. Aurreko paragrafoan aipaturiko helburuak lortzen laguntzeko, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak beharrezko diren neurriak ezarriko dituzte legegintzako prozedura arruntaren arabera; neurri horiek, forma aldetik, espazio-programa europar batean gauza daitezke, estatu kideetako legeko eta erregelamen-

duzko xedapenak harmonizatzeko ahalegin oro albo batera utzita.

3. Batasunak berak ikusiko du zein harreman-modu izan Europako Espazio Agentziarekin.

4. Artikulu hau titulu honetako gainerako xedapenei kalterik egin gabe ulertu behar da.

190. artikulua

(lehengo 173. artikulua EET)

Urte bakoitzaren hasieran, Batzordeak txosten bat aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari. Txosten horrek, bereziki, aurreko urtean teknologiaren ikerketan eta garapenean eta emaitzen zabalkundean egindako jarduerak aipatuko ditu, baita uneko urterako prestatutako lan-programa ere.

XX. TITULUA

INGURUMENA

191. artikulua

(lehengo 174. artikulua EET)

1. Batasunaren politika, ingurumena dela-eta, helburu hauek lortzeko izango da:

- ingurumena zaindu eta babestea, eta ingurumenaren kalitatea hobetzea;
- pertsonen osasuna babestea;
- naturako baliabideak zuhurtziaz eta zentzuz erabiltzea;
- ingurumena dela-eta munduan edo eskualdeka dauden arazoei aurre egiteko neurriak sustatzea nazioartean, bereziki klima-aldaiketaren aurka borrokatzeko.

2. Ingurumena dela-eta Batasunaren politikak helburu izango du babes-maila handia lortzea, betiere, Batasunaren eskualdeetan askotariko egoerak ageri direla kontuan hartuta. Printzipio hauek izango dira oinarri: batetik, zuhertasun-printzipioa eta prebentziozko ekintzen printzipioak; bestetik, ahal bada, ingurumenaren kontrako erasoak jatorrian bertan zuzentzeko printzipioa; eta, hurren, kutsatzen duenak ordaindu egingo duela dioen printzipioa.

Alde horretatik, ingurumenaren babeserako eskakizunei erantzuteko beharrezkoak diren harmonizazio-neurrien artean, bidezkoa denean, salbuespen-klausula bat sartuko da, estatu kideei ingurumenari dagozkion arrazoiengatik –ez ekonomiari dagozkionengatik– behin-behineko neurriak hartzeko baimena emateko; neurri horiek Batasunaren kontrol-prozeduren baten pean egingo dira.

3. Ingurumenari buruzko politika prestatzerakoan, Batasunak kontuan edukiko ditu:

- eskuragarri dauden zientzia-tekniketako datuak;
- ingurumenaren egoera Batasuneko eskualdeetan;
- ekintzak egitearen edo ez egitearen ondorioz sor daitezkeen abantailak eta kostuak;
- Batasun osoaren ekonomia- eta gizarte-garapena, eta Batasuneko eskualdeen garapen orekatua.

4. Batasuna eta estatu kideak, bakoitza bere eskumenen esparruan, lankidetzan arituko dira hirugarren herrialdeekin eta eskumena duten nazioarteko erakundeekin. Batasunaren eta interesa duten hirugarren aldean arteko akordio bidez zehaztu ahal izango dira Batasunaren lankidetzaren moduak.

Aurreko lerrokadaren esanahia ez doa estatu kideek nazioarteko erakundeetan negoziatzeko eta nazioarteko akordioak lortzeko dauzkaten eskumenen kontra.

192. artikulua

(lehengo 175. artikulua EET)

1. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera, eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeetako Komiteari kontsulta egin ondoren, 191. artikuluan finkatutako helburuak lortzeko asmoz Batasunak egin beharreko ekintzak erabakiko dituzte.

2. Goiko 1. paragrafoan erabakiak hartzeko jasotzen den prozedura ahaztu gabe, eta 114. artikuluari kalterik egin gabe, Kontseiluak, aho batez, legegintzako prozedura berezi baten arabera, neurri eta erabaki hauek hartuko ditu, Batzordearen proposamenez, Europako Parlamentuari, Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeetako Komiteari kontsulta egin ondoren:

- a) batez ere izaera fiskaleko xedapenak badakartzate;
- b) gai hauei buruzko neurriak:
 - lurralde-antolamenduari eragiten diotenak;
 - ur-baliabideen kudeaketa kuantitatiboari buruzkoak nahiz baliabide horien erabilgarritasunari zuzenean zein zeharka eragiten diotenak;
 - eta lurraldearen erabilpenari buruzko neurriak, hondakinen kudeaketa salbuespen dela;
- c) estatu kideren batek hainbat energia-iturriren artean aukeratzeko orduan eta estatu horretako energia-horniduraren egitura oroko-

rrean eragin nabaria daukaten neurriak bada-kartzate.

Kontseiluak, aho batez, Batzordearen pro-
posamenaren gainean, Europako Parlamen-
tuari, Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Es-
kualdeetako Komiteari kontsulta egin ondoren,
xedatu ahal izango du legegintzako prozedura
arrunta lehenengo lerrokadan aipatutako ere-
muetan aplikagarria izan dadin.

3. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak,
legegintzako prozedura arruntaren arabera,
eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Es-
kualdeetako Komiteari kontsulta ondoren, lor-
tu beharreko lehenetazko helburuak finka-
tuko dituzten ekintza-programa orokorrak
onartuko ditu.

Kasuan kasu, 1. paragrafoan edo 2. paragra-
foan jasotako baldintzen arabera hartuko dira
programa horiek betearazteko beharrezko neu-
rriak.

4. Batasun osorako zenbait neurriari kalterik
egin gabe, Batasuneko estatuak beren kontura
edukiko dute ingurumenari buruzko politika fi-
nantzatu eta gauzatzea.

5. Kutsatzen duenak ordaindu egingo duela
dioen printzipioari kalterik egin gabe, 1. para-
grafoan xedatutakoaren arabera hartutako neu-
rriren batek sortutako kostuak estatu kideren
bateko agintari publikoentzat tamainaz kan-
pokoak direla uste izanez gero, neurri horrek
egokiak diren beste xedapen batzuk onartuko
ditu:

- aldi baterako salbuespenak,
- edo finantza-laguntzak emanez, 177. ar-
tikuluan xedatutakoarekin bat etorritik
sortutako Kohesio Funtsaren pentzutan;
edo aukera biak onar ditzake.

193. artikulua

(lehenago 176. artikulua EET)

192. artikulua indarrez hartutako ba-
bes-neurriak ez dira eragozpen izango estatu
kide bakoitzak babes gehiagoko neurriak era-
biltzen jarraitzeko eta halakoak hartzeko. Ai-
patutako neurriak Tratatuarekin bateratzeko mo-
dukoak izan behar dira, eta Batzordeari eman
behar zaio horien berri.

XXI. TITULUA

ENERGIA

194. artikulua

1. Barne-merkatuaren ezarpena edo fun-

tzionamendua delarik esparrua, eta inguru-
mena zaindu eta hobetzeko eskakizuna dagoe-
la kontuan izanik, Batasunaren energia-politi-
kak helburu hauek izango ditu, estatu kideen ar-
teko elkartasunez:

- a) energiaren merkatuaren funtzionamendua
bermatzea;
- b) Batasunaren energia-horniduraren se-
gurtasuna bermatzea;
- c) eraginkortasun energetikoa eta energia au-
rreztea bultzatzea, eta energia berri eta be-
rriztagarrien garapena bultzatzea; eta
- d) energia-sareak elkarren artean lotu dai-
tezen sustatzea.

2. Tratatuarekin beste xedapen batzuk apli-
katzeari kalterik egin gabe, Europako Parla-
mentuak eta Kontseiluak legegintzako prozedura
arruntaren arabera zehaztuko dituzte 1. para-
grafoan aipaturiko helburuak lortzeko beha-
rrezko neurriak. Ekonomia eta Gizarte Komiteari
eta Eskualdeetako Komiteari aurretiaz kontsulta
eginda onetsiko dira neurri horiek.

Hala ere, estatu kideek ez dute galduko es-
kubidea beren energia-baliabideak ustiatzeko
baldintzak zehazteko, energia-iturri bat edo
bestea hautatzeko eta energia-hornidurarako
zein egitura orokor nahi duten hautatzeko,
192. artikuluko 2. paragrafoko c) idatz-zatiari
kalterik egin gabe.

3. Goiko 2. paragrafoan xedatutakoa gora-
behera, Kontseiluak, legegintzako prozedura be-
rezi baten arabera, aho batez eta Europako
Parlamentuak kontsulta egin ondoren ezarriko
ditu paragrafo horretan aipaturiko neurriak, ba-
tez ere izaera fiskalekoak badira.

XXII. TITULUA

TURISMOA

195. artikulua

1. Turismo-arloan, Batasunak estatu kideen
ekintza osatuko du, Batasuneko arlo horretako
enpresen lehiazteko gaitasuna sustatuz, batez
ere.

Horretarako, Batasunak helburu hau izango du:

- a) arlo horretako enpresak garatzeko ingu-
ru egokia sortzeko bultzada;
- b) estatu kideen arteko lankidetzari bidea za-
baltzea, jardunbide egokiak elkartrukatzuz batez ere.

2. Estatu kideek artikulua honetan aipaturik
dauden helburuak lortzeko egiten dituzten
ekintzak osatze aldera, Europako Parlamentuak
eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arrun-
taren arabera berariazko hainbat neurri zehatz

ditzakete, estatu kideetako legezko eta errege-lamenduzko xedapenak harmonizatzeko aha-
legin oro albo batera utzita.

XXIII. TITULUA

BABES ZIBILA

196. artikulua

1. Batasunak estatu kideen arteko lankide-tza sustatuko du, naturak nahiz gizakiak era-
gindako hondamendiei aurrea hartzeko eta
hondamendi horietatik babesteko sistemak ho-
beto lan egitea lortzeko.

Batasunaren ekintzak helburu hauek izango
ditu:

a) estatuetan, eskualdeetan eta herrietan, es-
tatu kideen ekintza babestea eta osatzea, arris-
kuei aurrea hartzeko, estatu kideetan babes zi-
bilaren ardura duten pertsonak prestatzeko,
eta, Batasunean naturak edo gizakiek eragin-
dako hondamendirik gertatuz gero, esku har-
tzeko;

b) Batasunaren barruan, estatuetao babes
zibileko zerbitzuen artean lankidetzat operati-
bo bizkorra eta eraginkorra sustatzea;

c) babes zibilaren inguruan nazioartean ha-
sitako ekintzen koherentzia sustatzea.

2. Goiko 1. paragrafoko helburu horiek lor-
tzen laguntzeko, Europako Parlamentuak eta
Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren
arabera, beharrezko diren neurriak ezarriko di-
tuzte, estatu kideetako legezko eta erregela-
menduzko xedapenak harmonizatzeko aha-
legin oro albo batera utzita.

XXIV. TITULUA

ADMINISTRAZIOEN ARTEKO LANKIDETZA

197. artikulua

1. Interes erkideko gaitzat hartuko da esta-
tu kideek Batasuneko Zuzenbidea benetan apli-
katzea, ezinbestekoa baita Batasunak ondo
funtziona dezan.

2. Estatu kideek, Batasuneko Zuzenbidea
aplikatze aldera, beren administrazio-gaitasu-
na areagotzeko egiten dituzten ahaleginak ba-
bestu ahal izango ditu Batasunak. Laguntza
hori, batez ere, informazioa eta funtzionarioak
trukatzeko izango da, baita prestakuntza-pro-
gramak babesteko ere. Estatu kide bat ere ez
dago laguntza horretaz baliatzen beharturik. Eu-
ropako Parlamentuak eta Kontseiluak, lege-
gintzako prozedura arruntaren arabera onar-

tutako erregelamenduen bidez, horretarako
beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte,
Batasuneko estatuetao legezko eta erregela-
menduzko xedapenak harmonizatzeko aha-
leginak albo batera utzita.

3. Artikulu honetan adierazitakoa halaxe
izango da, betiere, kalterik egin gabe estatu ki-
deek Batasuneko Zuzenbidea aplikatzeko be-
tebeharrari, ezta Batzordearen eginbeharrei
eta prerrogatibei ere. Era berean, halaxe izan-
go da, estatu kideen artean eta estatu horien eta
Batasunaren artean administrazio-lankidetzat
egon dadin Tratatuaren jasotako gainerako xe-
dapenei ere kalterik egin gabe.

LAUGARREN ZATIA

ITSASOZ HARAINDIKO HERRIALDE ETA LURRALDEAK BATASUNAREKIN ELKARTZEA

198. artikulua

(lehengo 182. artikulua EET)

Europakoak izan gabe, Danimarkarekin, Fran-
tziarekin, Herbeherekin eta Erresuma Batua-
rekin harreman bereziak dauzkaten herrialdeak eta
lurraldeak Batasunarekin elkartzearabaki dute
Batasuneko estatuak. Herrialde eta lurralde ho-
riek "herrialde eta lurralde" izendapena izango
dute aurrerantzean, eta II. eranskina osatzen duen
zerrendan datoz zehazturik.

Elkartearen helburua herrialdeen eta lu-
rraldeen ekonomiaren eta gizartearen garape-
na sustatzea izango da, baita herrialde eta lu-
rraldeak eta Batasun osoak elkarren artean eko-
nomiari buruz harreman estuak ezartzea ere.

Tratatu honetako atarikoan adierazitako
printzipioekin bat etorritik, elkarteak, lehenen-
go eta behin, herrialde eta lurralde horietako biz-
tanleen interesak eta oparotasuna gehitzen la-
gundu behar du, lortu nahi duten garapena iri-
tsi dezaten ekonomian, gizartearen eta kulturaren.

199. artikulua

(lehengo 183. artikulua EET)

Elkartea helburu hauek lortzen ahalegindu-
ko da:

1) Estatu kideek, herrialde eta lurralde ho-
riekiko merkataritzako trukaketetan, Trata-
tuen indarrez elkarren arterako onartutako
trukaketa-sistema aplikatuko dute;

2) Herrialde edo lurralde bakoitzak berare-
kin harreman bereziak dauzkan Europako es-

tatuari aplikatzen dion trukaketa-sistema aplikatuko du estatu kideekin eta beste herrialde eta lurraldeekin izango dituen merkataritzako trukaketetan ere;

3) Herrialde eta lurralde horiek arian-arian garatzeko behar diren inbertsioak egiten lagunduko diete lurraldeoi estatu kideek.

4) Batasunak finantzatutako inbertsioen kasuan, estatu kideetako edo herrialde eta lurralde horietako nazionalitatea daukaten pertsona fisiko eta juridiko guztiei irekitzen zaie, baldintza berberetan, lanak, zerbitzuak eta hornidura esleitzeko deialdietan parte hartzeko aukera.

5) Estatu kideen eta herrialde eta lurralde horien arteko harremanetan, herritarrek eta sozietateek kokatzeko daukaten eskubidea kokatze-eskubideari buruzko kapituluan aurreikusitako xedapenekin eta prozedura-arauekin bat etorritik arautuko da, bereizkeriarik eza oinarri dela, eta 203. artikulua in-darrez onar daitezen xedapen bereziei kalte-rik egin gabe.

200. artikulua

(lehengo 184. artikulua EET)

1. Herrialde eta lurralde horietako salgaien inportazioek, Batasuneko estatuetan sartzen direnean, Tratatueta xedapenekin bat etorritik Batasuneko estatuen artean aduana-sariei eza-rritako debekuaren onurak izango dituzte.

2. Herrialde eta lurralde horietako bakoitzean estatu kideetako eta beste herrialde eta lurral-deetako inportazioak sartzen direnean, inpor-tazioak kargatzeko diren aduana-zergak debe-katuta utziko dira, 30. artikuluan xedatutakoa-rekin bat etorritik.

3. Hala ere, herrialde eta lurralde horiek aduana-zergak jaso ahal izango dituzte, beren garapen-premiak betetzeko eta beren indus-trializazioaren beharrianak betetzeko badi-ra, edo zerga izaerako sariak jaso ahal izango dituzte beren aurrekontuak hornitzeko badi-ra.

Aurreko lerrokadan aipatutako eskubideak ezin dira izan herrialde edo lurralde bakoitza-rekin harreman bereziak daukzan estatu kide-ko produktuen inportazioak kargatzeko apli-katzen direnak baino handiagoak.

4. Nazioarteko betebeharrak berezietara lotuta daudela-eta bereizkeriarik gabeko aduana-ta-rifak aplikatzen ari diren herrialde eta lurraldeei ez zaie aplikatuko 2. paragrafoa.

5. Herrialde eta lurralde horiek inportatuta-ko salgaiak kargatzeko aduana-zergak ezartze-

arekin edo aldatzearekin ez da zuzeneko edo ze-harkako bereizkeriarik sortu behar, egitez edo zu-zenbidez, estatu kideetako inportazioen artean.

201. artikulua

(lehengo 185. artikulua EET)

Baldin eta beste hirugarren herrialde bateko salgaiak herrialde edo lurralde horietakoren batera sartzean aplika dakizkiekeen aduana-sarien zenbatekoa, 200. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoa kontuan hartuta, estatu kideren baten kaltetan merkataritzako trafikoa desbi-derarazteko bestekoa bada, estatu horrek eska-bidea egin ahal izango dio Batzordeari, beste es-tatu kideei egoera hura zuzentzeko beharrezko neurriak hartzeko proposamena egin diezaien.

202. artikulua

(lehengo 186. artikulua EET)

Osasun publikoari eta segurtasun publikoa-ri nahiz ordena publikoari buruzko xedapenei kalterik egin gabe, 203. artikulua arabera onartutako egintzek arautuko dute langileen zir-kulatze askatasuna, bai herrialde eta lurral-de horietako langileak estatu kideetan ibiltze-ko, bai estatu kideetakoak herrialde eta lurral-de horietan ibiltzeko.

203. artikulua

(lehengo 187. artikulua EET)

Herrialde eta lurralde horiek Batasunarekin elkartetik sortutako esparruan lortutako emai-tzak ikusita, eta Tratatueta jasotako printzi-pioak oinarri direla, Kontseiluak, aho batez, Ba-tzordeak proposaturik, herrialde eta lurralde ho-riek Batasunarekin elkartzeko moduei eta pro-zedurari buruzko xedapenak onartuko ditu. Kontseiluak legegintzako prozedura berezi ba-ten arabera xedapen horiek hartzen dituenen, aho batez hartuko du erabakia, Batzordeak proposatuta eta aurretik Europako Parlamen-tuari kontsulta eginda.

204. artikulua

(lehengo 188. artikulua EET)

Tratatu honetako 198. artikulutik 203. arti-kulura artekoetako xedapenak Groenlandiari aplikatu ahal izango zaizkio, Groenlandiari apli-ka dakioken araubide bereziari buruzko Pro-tokoloan Groenlandiarako ageri diren bera-riazko xedapenei kalterik egin gabe; Tratatu-e-tako eranskin moduan dator protokoloa.

BOSGARREN ZATIA

BATASUNAREN ATZERRI-EKINTZA

I. TITULUA

BATASUNAREN ATZERRI-EKINTZARI
BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK

205. artikulua

Zati honen indarrez, Europar Batasunaren Tratatuaren V. tituluan 1. kapituluaren ezarritako xedapen orokorretako printzipioak izango dira Batasunaren ekintzaren oinarri nazioartean diharduenean; Batasunaren ekintzak xedapen horien helburua bilatuko du eta xedapen horien arabera egingo da.

II. TITULUA

MERKATARITZA POLITIKA ERKIDEA

206. artikulua

(lehengo 131. artikulua EET)

Batasunak, 28.etik 32.era bitarteko artikuluek dioten moduan aduana-batasuna ezarritz, lagunduko du, interes erkiderako, munduko merkataritza harmonian garatzen, nazioarteko trukaketetan eta atzerriko zuzeneko inbertsioetan ezarritako murrizketak arian-arian ezabatzen eta aduanako tarifetan eta bestelakoetan sorturiko oztupoak gutxitzen.

207. artikulua

(lehengo 133. artikulua EET)

1. Merkataritza-politika erkidea printzipio uniformeetan oinarrituko da, batez ere, aduanako tarifak aldatu behar direnean; salgai- eta zerbitzu-trukatzeaz eta jabetza intelektual nahiz industrialaren alderdi komertzialez akordioak lotu behar direnean aduanako tarifei eta merkataritzari buruz; atzerriko zuzeneko inbertsioez ebatzi behar denean; liberalizazio-neurriak berdindu behar direnean; esportazio-politika zehaztu behar denean; eta merkataritza babesteko neurriak hartu behar direnean, besteak beste, dumping-a eta diru-laguntzak tartean egonez gero. Batasunaren atzerri-ekintzarako printzipioen eta helburuen esparruan gauzatu beharko da merkataritza-politika erkidea.

2. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak erregelamenduen bidez hartuko dituzte, lege-gintzako prozedura arruntaren arabera, mer-

kataritza-politika erkidea aplikatzeko esparrua zehaztuko duten neurriak.

3. Hirugarren herrialde edo nazioarteko erakunde batekin edo batzuekin akordiorik negoziatu edo egin behar bada, 218. artikulua aplikatu beharko da, artikulua honetako bera-riazko xedapenei kalterik egin gabe.

Batzordeak Kontseiluari gomendioak aurkeztuko dizkio, eta horrek emango dio beharrezko negoziazioetan hasteko baimena. Kontseiluaren eta Batzordearen ardura izango da negoziatutako akordioak Batasuneko barneko politika eta arauekin bateragarriak direla zaintzea.

Batzordeak egingo ditu aipatutako negoziazioak, komite berezi bati kontsulta eginda; Kontseiluak izendatuko du komitea, Batzordeari laguntza eman diezaion, Kontseiluak emandako ildoen arabera. Aldiro-aldiri, Batzordeak komite bereziari eta Europako Parlamentuari negoziazioen bilakaerari buruzko txostena emango die.

4. Hirugarren paragrafoan aipaturiko akordioak negoziatzeko eta egiteko, Kontseiluak gehiengo kualifikatu bidez erabakiko du.

Zerbitzu-merkataritzaren, jabetza intelektualaren eta industrialaren, merkataritza-alderdien eta atzerriko zuzeneko inbertsioen inguruan akordioak negoziatzeko eta egiteko, barruko arauak aho batez onartu beharra eskatzen duen xedapenik baldin badago akordio horietan, Kontseiluak erabakiak aho batez hartu beharko ditu.

Honako akordio hauek negoziatzeko eta egiteko ere, Kontseiluak aho batez hartuko ditu erabakiak:

a) kulturako eta ikus-entzunezko zerbitzu-merkataritzaren esparruko akordioak, baldin eta akordio horiek Batasuneko kulturen eta hizkuntzen aniztasunari kalte egin badiezaioke;

b) gizarterako, hezkuntzarako eta osasunerako zerbitzu-merkataritzaren esparruko akordioak, baldin eta akordio horiek zerbitzu horien estatu-antolaketa goitik behera nahas badezake eta estatuek zerbitzu horiek eskaintzeko duten erantzukizunari kalte egin badiezaioke.

5. Garraioen esparruan, nazioarteko akordioak negoziatzeko eta egiteko, hirugarren zatiko VI. titulua eta 218. artikulua bete beharko dira.

6. Artikulu honek merkataritza-politika erkidearen eremuan banatzen dituen eskumenak baliatzeak ez du inolako eraginik izango Batasunaren eta estatu kideen arteko eskumen-banaketan, eta ez dakar estatu kideetako legezko eta erregelamenduzko xedapenen harmonizaziorik, Tratatuaren harmonizazio horretarako bidea itxita dagoen heinean.

III. TITULUA

**HIRUGARREN HERRIALDEEKIKO
LANKIDETZA ETA LAGUNTZA
HUMANITARIOA**

1. KAPITULUA

GARAPENERAKO LANKIDETZA

208. artikulua

(lehengo 177. artikulua EET)

1. Garapenerako lankidetzaren arloan, Batasunaren politika Batasunaren atzerri-ekintzarako printzipio eta helburuen esparruan gauzatuko da. Batasunak eta estatu kideek garapen-arloan dituzten lankidetzak-politikak elkarren osagarri eta indargarri izango dira.

Eremu honetan, Batasunaren politikaren helburu nagusia pobrezia gutxiaraztea eta, azkenean, eraztea izango da. Garatzeko bidean dauden herrialdeetan eragina duten politikak aplikatzeko orduan, Batasunak garapenerako lankidetzaren helburuak izango ditu kontuan.

2. Batasunak eta estatu kideek Nazio Batuen eta nazioarteko gainerako erakunde eskudunen esparruan hartu dituzten konpromisoak beteko dituzte, eta esparru horretan adostu dituzten helburuak izango dituzte kontuan.

209. artikulua

(lehengo 179. artikulua EET)

1. Garapenerako lankidetzak-politika egikaritzeko, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak legegintzako prozedura arruntaren arabera hartuko dituzte beharrezko diren neurriak; neurriotan, garatzeko bidean dauden herrialdeekin lankidetzan aritzeko, urte anitzeko programak edo gai jakin batean oinarritutakoak hartu ahal izango dira oinarri.

2. Batasunak edozein akordio egin ahal izanago du hirugarren herrialdeekin eta nazioarteko erakunde eskudunekin, Europar Batasunaren Tratatu 21. artikuluan eta Tratatu honetako 208. artikuluan aipaturik dauden helburuak lortzeko egoki denean.

Lehen lerrokan adierazitakoa halaxe izanago da, estatu kideek nazioarteko erakundeetan negoziatzeko eta akordioak egiteko dituzten eskumenei kalterik egin gabe.

3. Europako Inbertsio Bankuak, bere estatutuetan aurreikusitako baldintzetan, 1. paragrafoan adierazitako ekintzak betetzen lagunduko du.

210. artikulua

(lehengo 180. artikulua EET)

1. Batasunak eta estatu kideek, beren jarduerak elkarren osagarriak eta eragingarriagoak izan daitezen, garapenerako dituzten lankidetzak arloko politikak koordinatu, eta laguntza-programak hitzartuko dituzte elkarrekin, baita nazioarteko erakundeen eta nazioarteko biltzarren esparruan ere. Ekintza bateratuak ere egin ahal izango dituzte. Estatu kideek, beharrezkoa bada, Batasunaren laguntza-programak gauzatzen lagunduko dute.

2. Lehen paragrafoan aipatutako koordinazioa sustatzeko egokia den edozein ekimen onetsi ahal izango du Batzordeak.

211. artikulua

(lehengo 181. artikulua EET)

Batasuna eta estatu kideak, bakoitza bere eskumenen esparruan, lankidetzan arituko dira hirugarren herrialdeekin eta eskumena duten nazioarteko erakundeekin.

2. KAPITULUA

**HIRUGARREN HERRIALDEEKIKO
LANKIDETZA EKONOMIKO, FINANTZARIO
ETA TEKNIKOA***212. artikulua*

(lehengo 181 A artikulua EET)

1. Tratatuetak gainerako xedapenen, eta, bereziki, 208. artikulutik 211. artikulura bitartekoei kalterik egin gabe, garatzeko bidean ez dauden hirugarren herrialdeekin ere egingo du Batasunak lankidetzak-ekintzarik ekonomia-arloan, finantzen arloan eta teknikaren arloan, eta, bereziki, finantzen arloko laguntzak emango ditu. Ekintza horiek Batasunaren garapen-politikarekin koherenteak izan behar dute, eta Batasunak atzerri-ekintzarako dituen printzipio eta helburuen arabera gauzatu beharko dira. Batasunaren eta estatu kideen ekintzak osagarriak eta elkar indartzaileak izango dira.

2. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 1. paragrafoa aplikatu ahal izateko beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte, legegintzako prozedura arruntaren arabera.

3. Batasuna eta estatu kideak, bakoitza bere eskumenen esparruan, lankidetzan arituko dira hirugarren herrialdeekin eta eskumena duten nazioarteko erakundeekin. Batasunaren lankidetzak-modalitateak akordio bidez zehaztu ahal

izango dituzte Batasunak berak eta hirugarren alde interesdunek.

Lehenengo lerrokadak ez du eraginik izango estatu kideek nazioarteko erakundeekin negoziatzeko eta nazioarteko akordioak lotzeko dauzkaten eskumenen ganean.

213. artikulua

Hirugarren herrialde bateko egoera zein den ikusita, premiazkoa bada Batasunak berehala ematea finantza-laguntza, Kontseiluak hartuko ditu hartarako beharrezko erabakiak, Batzordeak proposaturik.

3. KAPITULUA

LAGUNTZA HUMANITARIOA

214. artikulua

1. Laguntza humanitarioaren eremuan, Batasunaren politika Batasunaren atzerri-ekintzarako printzipio eta helburuen esparruan gauzatuko da. Ekintza horien helburu izango dira, kasu jakin batzuetan, hirugarren herrialdeetako biztanleei, naturak nahiz gizakiak eragindako hondamendi baten biktima direnean, laguntza eta sorospena ematea, eta biztanle horiek babestea, egoera horietan sortzen diren premia humanitarioei erantzuteko. Batasunaren eta estatu kideen ekintzak osagarriak eta elkar indartzaileak izango dira.

2. Laguntza humanitarioa emateko ekintzetan, nazioarteko zuzenbidearen printzipioak eta beste hauek bete beharko dira: inpartzialtasuna, neutraltasuna eta bereizkeriarik eza.

3. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak ezarriko dituzte, legegintzako prozedura arruntaren arabera, Batasunaren laguntza humanitariorako ekintzak gauzatzeko esparrua zehazteko neurriak.

4. Batasunak edozein akordio egin dezake hirugarren herrialdeekin eta nazioarteko erakunde eskudunekin, goiko 1. paragrafoan eta Europar Batasunaren Tratatuaren 21. artikuluan aipaturik dauden helburuak lortzeko egoki denean.

Lehen lerrokadan adierazitakoa halaxe izango da, estatu kideek nazioarteko erakundeetan negoziatzeko eta akordioak egiteko dituzten eskumenei kalterik egin gabe.

5. Batasunaren laguntza humanitariorako ekintza horietan Europako gazteek ere izan dezaten ekarpenak non-nola egin, Laguntza Humanitariorako Europako Boluntario Taldea

sortuko da. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arrunta erabilita, erregelamenduen bidez ezarriko dituzte beren estatutuak eta funtzionamendu-arauak.

6. Batasunaren eta estatu kideen ekintzen arteko koordinazioa sustatze aldera, Batzordeak edozein neurri egoki har dezake, hartara, Batasunak eta estatu kideek laguntza humanitarioa emateko dauzkaten tresnek hobeto lan egitea eta elkarren artean osagarriagoak izatea lortzeko.

7. Batasunak jagongo du laguntza humanitarioa emateko ekintzak koherenteak izan daitezzen eta ondo koordinatuta egon daitezzen nazioarteko instituzio eta organismoenekin, Nazio Batuen sistema osatzen dutenenekin, batez ere.

IV. TITULUA

NEURRI MUGATZAILEAK

215. artikulua

(lehenengo 301. artikulua EET)

1. Europar Batasunaren Tratatuaren V. titularen 2. kapituluaren arabera harturiko erabaki batek jasotzen badu hirugarren herrialde batekiko edo batzuekiko ekonomia- eta finantza-harremanak, dela erabat edo dela zatiren batean, geldiarazi edo gutxitu egin behar direla, Kontseiluak onartuko ditu, gehiengo kualifikatuz, horretarako beharrezko erregelamenduak eta erabakiak, Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkarriak eta Batzordeak batera proposaturik. Europako Parlamentuari emango dio gero horren berri.

2. Baldin eta Europar Batasunaren Tratatuaren V. tituluko 2. kapituluaren arabera harturiko erabaki batek hala jasotzen badu, Kontseiluak bere esku izango du estatuz kanpoko pertsona fisikoen, pertsona juridikoen, taldeen edo erakundeen aurkako neurri mugatzaileak hartzea, 1. paragrafoan jasota dagoen prozeduraren arabera.

3. Berme juridikoei dagokienez, artikulua honetan jasotako egintzek beharrezko xedapen guztiak jasoko dituzte.

V. TITULUA

NAZIOARTEKO AKORDIOAK

216. artikulua

1. Batasunak hirugarren herrialde edo nazioarteko erakunde batekin edo batzuekin akor-

dioa sinatu ahal izango du, baldin eta Tratatueta hala jasota badago, edo, bestela, Tratatuan jasotako helbururen bat lortzeko, Batasunaren politiken testuinguruan, akordioa sinatzea beharrezkoa bada, edo Batasunarentzat zuzenbidearen arabera lotura-indarra duen egintzaren batean jasota badago, edo arau erkideetan eragina izan badezake edo arau horien helmena alda badezake.

2. Batasunak sinatutako akordioek Batasunaren instituzioak eta estatu kideak lotuko dituzte.

217. artikulua

(lehengo 310. artikulua EET)

Elkarte sortzeko akordioak lotu ahal izango ditu Batasunak hirugarren herrialde batekin edo gehiagorekin nahiz nazioarteko erakunde batekin edo gehiagorekin, eta elkarte horrek elkarrenganako eskubideak eta betebeharrak, ekintza erkideak eta prozedura partikularrak sortaraziko ditu.

218. artikulua

(lehengo 300. artikulua EET)

1. Batasunaren eta hirugarren herrialde edo nazioarteko erakundearen artean akordioak negoziatzeko eta sinatzeko, ondoren zehazten den prozedura bete beharko da, 207. artikuluko xedapen bereziei kalterik egin gabe.

2. Kontseiluak negoziatzen hasteko baimena emango du, negoziatziorako gida-lerroak onartuko ditu, sinadura baimenduko du, eta akordioak sinatuko ditu.

3. Kasuan kasuko akordioa atzerri- eta segurtasun-politika erkideari buruzkoa bada soilik edo nagusiki, Batzordeak edo Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkariek Kontseiluari gomendioak aurkeztuko dizkio, eta hark erabaki bat hartuko du, negoziatzen hasteko baimena emateko, eta Batasunaren negoziatzaile edo negoziatzailetaldeko burua ere izendatuko du, sinatzeko den akordioaren gaiaren arabera.

4. Kontseiluak negoziatzaileari gida-lerro batzuk eman ahal izango dizkio, eta komite berezi bat ere izendatu ahal izango du; horri egin beharko zaio kontsulta negoziazioak dirauen bitartean.

5. Negoziatzaileak proposatzen badio, Kontseiluak, erabaki baten bidez, akordioa sinatzeko baimena emango du, eta, hala dagokionean, baita indarrean sartu baino lehenago behin-behingo akordioa aplikatzeko baimena ere.

6. Negoziatzaileak proposaturik, Kontseiluak akordioa sinatzeko erabaki bat hartuko du.

Atzerri- eta segurtasun-politika erkideari buruzkoak diren akordioak salbuespen direla, Kontseiluak hartuko du akordioa sinatzeko erabakia:

a) honako kasu hauetan, Europako Parlamentuak aurretiaz onespena emanda:

- i) lkartze-akordioak direnean,
- ii) Batasuna Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenari atxikitzeko denean, lankidetzarako prozedurak antolatuz, instituzio-esparru berezi bat sortzen duten akordioak direnean,
- iv) Batasunarentzat aurrekontuetan eragin handia duten akordioak direnean,
- v) legegintzako prozedura arruntaz bideratzen diren eremuei buruzko edo, Europako Parlamentuaren onarpena behar bada, legegintzako prozedura bereziaz bideratzen diren esparruei buruzko akordioak direnean.

Presako kasuetan, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak onarpenerako epe-muga bat adostu ahal izango dute.

b) gainerako kasuetan, Europako Parlamentuari aurretiaz kontsulta eginda. Europako Parlamentuak epe jakin bat izango du irizpena emateko, eta epe hori Kontseiluak zehaztu ahal izango du, kasuan kasuko gaiak nolako presaren duen. Epe horretan ez bada irizpenik ematen, Kontseiluak erabaki ahal izango du.

7. Dena den, 5., 6. eta 9. paragrafoetan xedatutakoa gorabehera, akordio bat sinatzean, Kontseiluak negoziatzaileari baimena eman ahal izango dio, Batasunaren izenean, akordio horren aldaketa batzuk onartu, hala nola, akordio horren arabera prozedura erraztu baten bidez onartzekoak diren aldaketak, edo akordioak sorturiko organo batek parte hartuta onartu beharrekoak. Kontseiluak baldintza berezi batzuen pean jar dezake baimen hori.

8. Prozedura osoan zehar, Kontseiluak gehiengo kualifikatuz hartuko ditu erabakiak.

Baina, kasuan kasuko akordioaren eremuan Batasunaren egintzak aho batez onartu beharrekoak badira, elkarte-akordioetarako bada, edo 212 artikuluaaren arabera estatu atxikigaiekin egin beharreko akordioetarako bada, aho batez hartuko ditu erabakiak. Batasuna Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenari atxikitzeko erabakia denean ere, Kontseiluak aho batez hartuko ditu erabakiak; akordio hori hartzeko erabaki hori ez da indarrean sartuko, harik eta estatu kideek erabakia hartu

arte, bakoitzak bere konstituzioko arauen arabera.

9. Kontseiluak, Batzordeak edo Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkariek proposaturik, erabakia hartuko du; erabaki horren bidez, akordio baten aplikazioa etenda utziko da, eta Batasunaren izenean zein jarrera hartu behar den zehaztuko da akordio batez sortutako organismo batean, organismo horrek ondorio juridikoak dakartzan egintzak onartu behar dituenean, akordioaren instituzio-esparrua osatzen edo aldatzen duten egintzak salbuespen direla.

10. Europako Parlamentua jakinaren gainean eduki behar da, berehala eta osoki, prozedura osoan zehar.

11. Aurreikusitako akordioaren bat Tratatuekin bat ote datorren jakin nahi badute, estatu kide batek, Europako Parlamentuak, Kontseiluak edo Batzordeak Justizia Auzitegiaren irizpena eska dezakete. Justizia Auzitegiaren irizpena aurkakoa bada, akordio hori ezin izango da indarrean sartu, non eta ez duten zuzentzen edo ez dituzten Tratatuak berrikusten.

219. artikulua

(lehengo 111. artikulua, 1, 2, 3 eta 5. paragrafoak, EET)

1. 218. artikuluan xedatutakoa gorabehera, Kontseiluak, bai Europako Banku Zentralak gomendaturik bai Batzordeak gomendaturik, eta Europako Banku Zentralari aurretiaz kontsulta egin da, bere esku du, prezioen egonkortasuna lortzeko helburuarekin bat etortzeko moduko adostasuna iritsi nahian, hirugarren herrialdeetako diruaren eta euroaren arteko truke-tasen sistema baterako akordio formalak sinatzea. Kontseiluak aho batez hartuko ditu erabakiak, Europako Parlamentuari aurretiaz kontsulta egin da, eta 3. paragrafoan zehazturiko prozeduraren arabera.

Kontseiluak, Europako Banku Zentralaren edo Batzordearen gomendio bati jarraituz, eta Europako Banku Zentralari aurretiaz kontsulta egin da, prezioen egonkortasuna lortzeko helburuarekin bat etortzeko moduko adostasuna iritsi nahian, euroaren tasa nagusiak onartu, egokitu edo alde batera utz ditzake truke-tasen sistemaren baitan. Kontseiluko lehendakariak Europako Parlamentuari eman behar dio euroaren tasa nagusiak onartu, egokitu edo utzi izanaren berri.

2. Hirugarren herrialdeetako moneta batekiko edo batzuekiko truke-tasen sistemarik ez baldin badago —1. paragrafoan jasota dagoen moduan—, Kontseiluak moneta horiekiko truke-tasen politikari buruzko orientabide orokor batzuk eman ditzake, dela Batzordearen gomendio batean oinarrituta, eta Europako Ban-

ku Zentralari aurretiaz kontsulta egin da, dela Europako Banku Zentralaren gomendio batean oinarrituta. Orientabide orokor horiek ez dira BZESk prezioen egonkortasuna zaintzeko daukan helburu nagusiaren kontrakoak izango.

3. 218. artikuluan xedatutakoa gorabehera, Batasunak diru-araubideari edo truke-araubideari buruzko gaien gaineko akordiorik negoziatu behar badu hirugarren herrialde batekin edo batzuekin edo nazioarteko erakundeekin, Kontseiluak erabakiko du, Batzordearen gomendio batean oinarrituta eta Europako Banku Zentralari aurretiaz kontsulta egin da, zein modalitate erabili akordio horiek negoziatzeko eta sinatzeko. Aipatutako negoziazio-modu horiekin bermatuta utzi behar da Batasunak jarrera bakar bat adieraztea. Batzordea oso-osorik lotuko zaie negoziazioei.

4. Ekonomia- eta diru-batasunari buruz Batasunak dauzkan eskumenen eta lotutako akordioei kalterik egin gabe, estatu kideek tratatuak egin ditzakete nazioartean, baita nazioarteko akordioak lotu ere.

VI. TITULUA

BATASUNAK NAZIOARTEKO ERAKUNDEEKIN, HIRUGARREN HERRIALDEEKIN ETA BATASUNAREN ORDEZKARITZEKIN IZANGO DITUEN HARREMANAK

220. artikulua

(lehengo 302.etik 304.era bitarteko artikulua EET)

1. Batasunak era guztietako lankidetzako egoiak ezarriko ditu Nazio Batuen eta bertako organismo espezializatuen organoekin, Europako Kontseiluarekin, Europako Segurtasun eta Lankidetzako Erakundearekin, eta Ekonomia Lankidetzako eta Garapenerako Erakundearekin.

Batasunak nazioarteko beste erakunde batzuekin ere izango ditu harreman egokiak.

2. Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkariek eta Batzordearen ardura izango da artikulua honetan xedaturik dagoena aplikatzea.

221. artikulua

1. Batasunak hirugarren herrialdeetan eta nazioarteko erakundeetan dituen ordezkaritzez hartuko dute beren gain Batasunaren izenean jarduteko ardura.

2. Batasunaren ordezkaritza Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-or-

dezkariaren agintaritzapean egongo dira. Estatu kideen ordezkaritza diplomatiko eta kontsularrekiko lankidetzat estuan jardungo dute.

VII. TITULUA

ELKARTASUN-KLAUSULA

222. artikulua

1. Batasunak eta estatu kideek elkarrekin batera jardungo dute elkartasunez, estatu kide bati eraso terroristar bat eginez gero edo hondamendiren bat, naturala zein gizakiak eragindakoa, gertatuz gero. Batasunak bere esku dituen tresna guztiak erabiliko ditu, estatu kideek Batasunaren esku utzitako bitarteko militarrek ere barnean direla, helburuok hauek izanik:

- a)
 - estatu kideen lurraldean mehatxu terroristari aurrea hartzea;
 - instituzio demokratikoak eta herritarrek balizko eraso terroristetatik babestea;
 - estatu kide bati, bere lurraldean, laguntza ematea, eraso terroristaren bat gertatuz gero, bertako agintariek hala eskatuta;

b) estatu kide bati, bere lurraldean, laguntza ematea, naturak zein gizakiak eragindako hondamendiren bat gertatuz gero, bertako agintariek hala eskatuta.

2. Estatu kideren batean eraso terroristaren bat gertatzen bada edo naturak zein gizakiak eragindako hondamendiren bat gertatzen bada, eta agintari politikoek hala eskatzen badute, gainerako estatu kideek lagundu egin beharko diote. Horretarako, Kontseiluan estatu kideak koordinatu egin beharko dira.

3. Europar erabaki bidez zehaztuko da Batasunak zein modalitate erabil dezakeen elkartasun-klausula hau aplikatzeko. Kontseiluak hartuko du erabaki hori, Batzordeak eta Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkariak batera proposaturik. Erabaki horrek defentsaren eremuan inolako eraginik badu, Kontseiluak Europar Batasunaren Tratatuaren 31. artikuluko 1. paragrafoaren arabera hartuko ditu erabakiak. Europako Parlamentuari horren berri emango zaio.

Paragrafo honen helburuetarako, eta 240. artikuluari kalterik egin gabe, Kontseiluak lagun izango ditu, batetik, Politika eta Segurtasun Komitea, segurtasun- eta defentsa-politika erkidearen esparruan sortutako egituren babesa eta guzti, eta, bestetik, 71. artikuluan jasotako ko-

mitearen laguntza ere bai; hala dagokionean, irizpenak batera aurkeztuko dizkiote Kontseiluari.

4. Batasunaren eta estatu kideen lana eraginkorra izango dela bermatzeko, Kontseilu Europarrak aldian-aldian aztertuko ditu Batasunak dituen mehatxuak.

SEIGARREN ZATIA

INSTITUZIOEI ETA FINANTZEI BURUZKO XEDAPENAK

I. TITULUA

INSTITUZIOEI BURUZKO XEDAPENAK

1. KAPITULUA

INSTITUZIOAK

LEHENENGO ATALA

EUROPAKO PARLAMENTUA

223. artikulua

(lehengo 190. artikulua, 4. eta 5. paragrafoak, EET)

1. Europako Parlamentuak proiektu bat prestatuko du bere ordezkariak zuzeneko sufragio unibertsalez hautatu ahal izateko beharrezkoak diren xedapenak ezartzeko asmoz, hain zuzen estatu kide guztietarako berdina den prozedura baten arabera edo estatu kide guztietarako jarritako printzipio bateratuen arabera hautatzeko.

Kontseiluak aho batez ezarriko ditu beharrezkoak diren xedapenak, legegintzako prozedura berezi baten arabera, betiere, aurretiaz Europako Parlamentuak, bere kideen gehien-goaren erabakiz onespena emanda. Xedapen horiek estatu kideek, bakoitzak bere konstituzio-arauetan ezarritakoari jarraituz, onartu ondoren sartuko dira indarrean.

2. Europako Parlamentuak bere ekimenez finkatuko ditu, legegintzako prozedura berezia erabiliz onartutako erregelamenduen bidez, bertako kideen eginkizunak betetzeko baldintza orokorrak eta estatutua, Batzordearen irizpena jaso ondoren, eta Kontseiluak onartuta. Bai oraingo kideen zein aurretiko kideen zerga-arau bideari buruzko arau eta baldintza guztiak Kontseiluak erabakiko ditu aho batez.

224. artikulua

(lehengo 191. artikulua, bigarren lerrokada, EET)

Legegintzako prozedura arruntaren arabera ezarriko dituzte Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, erregelamendu bidez, Europar Batasunaren Tratatuaren 10. artikuluko 4. paragrafoan aipatzen diren Europa mailako alderdi politikoen estatutua eta, bereziki, alderdion finantzaketari buruzko arauak.

225. artikulua

(lehengo 192. artikulua, bigarren lerrokada, EET)

Europako Parlamentuak uste badu Batasunaren egintza bat behar dela gairen batean Tratatuak aplikatzeko, bertako kideen gehiengoaren erabakiz, Batzordeari gai horri buruzko proposamen egokiak egin ditzala eska diezaioke. Batzordeak ez badu proposamenik aurkeztu, Europako Parlamentuari jakinarazi behar-ko dizkio arrazoiak.

226. artikulua

(lehengo 193. artikulua EET)

Europako Parlamentuak, bere zereginak betetzean, eta bertako kideen laurdenek hala eskatuta, ikerketarako aldi baterako batzordea eratu ahal izango du, Tratatuak beste instituzio edo organoei emandako eskumenei kalterik egin gabe, Batasuneko Zuzenbidea aplikatutakoan arau-hausterik edo administrazio okerrrik egon den ikusteko aurkeztutako alegazioak aztertze-ko; salbu eta alegatutako egintzen gainean jurisdikzio-organoren batek badihardu, horrela-koetan jurisdikzio-prozedura amaitu arte itxoin-ko baita.

Ikerketarako aldi baterako batzordeak txostena aurkezteaz batera desegingo da batzorde hori.

Europako Parlamentuak bere ekimenez onartutako erregelamenduen bidez zehaztuko ditu ikerketarako eskubidea baliatzeko mo-
dualde, legegintzako prozedura berezia erabilia, Batzordearen eta Kontseiluaren alde aurreko onespenezekin.

227. artikulua

(lehengo 194. artikulua EET)

Batasuneko edozein herritarrek, eta estatu kideren batean bizi edo egoitza soziala daukan edozein pertsona fisiko zein juridikok, berak bakarrik edo beste herritar edo pertsona batzuekin elkartuta, eskubidea dauka Batasunaren jar-
dun-eremuetako edozein gairi buruz Europako

Parlamentuari eskabidea aurkezteko, berari zuzenean dagokion gaia bada.

228. artikulua

(lehengo 195. artikulua EET)

1. Europako Parlamentuak Europako Arartekoa aukeratuko du; eta Batasuneko edozein herritarren, edo estatu kideren batean bizi den edo egoitza soziala daukan edozein pertsona fisiko edo juridikoren erreklamazioak jasotzeko ahalmena izango du Arartekoak, Batasuneko instituzioen, organoen edo organismoen jardunean izandako administrazio txarreko kasuei buruz; Europar Batasuneko Justizia Auzitegia salbuespen da bere jurisdikzio eginkizunetan diharduenean. Erreklamazio horiek aztertu eta irizpena emango du.

Arartekoak, bere xedean, bere ustez nahiko arrazoizkoak diren ikerketak egingo ditu, bai bere ekimenez, bai zuzenean edo Europako Parlamentuko kide baten bidez jasotako erreklamazioak oinarri direla, salbu eta alegatutako ekintza horiek jurisdikzio-prozeduraren baten xede badira edo izan badira. Arartekoak administrazio okerreko kasuren bat egon dela frogatzen badu, jakinaren gainean jarriko du dagokion instituzio, organo edo organismoa, eta horrek hiru hilabeteko epea edukiko du Arartekoari bere jarrera azaltzeko. Ondoren, Arartekoak txosten bat igorriko dio Europako Parlamentuari eta kasuan kasuko instituzio, organo edo organismo horri Erreklamazioa egin duen pertsonari ikerketa horien emaitzaren berri emango zaio.

Arartekoak urtero aurkeztuko dio Europako Parlamentuari berak egindako ikerketen emaitzari buruzko txostena.

2. Europako Parlamentua hautatzen den ba-
koitzean eta hautatu ondoren izendatuko da Arartekoa, legegintzaldi osorako. Agintaldia berri-
tu egin daiteke.

Europako Parlamentuak eskatuta, Justizia Auzitegiak kargutik kendu lezake Arartekoa, baldin eta Arartekoak bere eginkizunak betetzeko beharrezko baldintzak betetzeari utzi badio, edo arau-hauste larriren bat egin badu.

3. Independentzia osoz beteko ditu Europako Arartekoak bere eginkizunak. Eginkizun horiek betetzeko ez du eskatuko, ez eta onartuko ere, inongo gobernu, instituzio, organo edo organismoen jarraibiderik. Arartekoa, bere agintaldian, ezin izango da beste inolako lanbide-jardueratan aritu, den ordaindua edo ordaindu gabea.

4. Europako Parlamentuak ezarriko ditu, legegintzako prozedura berezia erabilia bere

ekimenez onartutako erregelamenduen bidez, Arartekoaren eginkizunak betetzeko baldintza orokorrak eta estatutua, Batzordearen irizpena jaso ondoren eta Kontseiluak onartuta.

229. artikulua

(lehengo 196. artikulua EET)

Europako Parlamentuak bilkura-aldi bat egingo du urtero. Aldez aurretiko deirik egin beharrik gabe, martxoko bigarren asteartean bilkura da.

Europako Parlamentua ohiz kanpoko bilkura-aldi partzialean bildu ahal izango da, bertako kideen gehiengoak, Kontseiluak edo Batzordeak eskatuta.

230. artikulua

(lehengo 197. artikulua, bigarren, hirugarren eta laugarren letrorak, EET)

Batzordea Europako Parlamentuaren bilkura guztietara joan ahal izango da eta haren aurrean agertuko da, baldin eta hark eskatzen badio.

Europako Parlamentuak edo bertako kideek egindako galdera guzteei erantzungo die Batzordeak hitzez edo idatziz.

Kontseilu Europarra eta Kontseilua Europako Parlamentuaren aurrean agertuko dira Kontseilu Europarraren barne-erregelamenduak eta Kontseiluaren barne-erregelamenduak ezarritako eran.

231. artikulua

(lehengo 198. artikulua EET)

Tratatuetan kontrakorik xedatu ezik, emandako botoen gehiengoz erabakiko du Europako Parlamentuak.

Barne-erregelamenduak finkatuko du quoruma.

232. artikulua

(lehengo 199. artikulua EET)

Europako Parlamentuak bere barne-erregelamendua finkatuko du, Parlamentua osatzen duten kideen gehiengoak onartuta.

Europako Parlamentuaren agiriak Tratatuetan eta erregelamendu horretan aurreikusitako moduan argitaratuko dira.

233. artikulua

(lehengo 200. artikulua EET)

Europako Parlamentuak jendaurreko bilku-

ran eztabaidatuko du Batzordeak aurkeztuko dion urteroko txosten orokorra.

234. artikulua

(lehengo 201. artikulua EET)

Europako Parlamentuak, Batzordearen kudeaketari buruzko zentsura-moziorik aurkezten bazaio, mozioa aurkezten zaionetik gutxienez hiru egun igaro arte ezin izango du erabaki, eta jendaurreko bozketan erabakiko du.

Baldin eta zentsura-mozioa onartu egiten bada emandako botoen bi hereneko gehiengoarekin, eta gehiengo hori, aldi berean, Europako Parlamentua osatzen duten diputatuen gehiengo baldin bada, orduan, Batzordeko kideek beren karguak utzi beharko dituzte, guztiek batera, eta Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordetzariak utzi egin beharko du Batzordean betetzen duen kargua. Hala ere, beren karguetan jarraituko dute eta ohiko administrazio-gaiak kudeatzen jarraituko dute harik eta Europar Batasunaren Tratatuen 17. artikuluen arabera ordezkatzeko dituzten arte. Horrelakoetan, horiek ordezkotako izendatutako Batzordeko kideen agintaldia beren karguak utzi behar izan dituzten beste kide horien agintaldia amaitzekoa zen egunean amaituko da.

BIGARREN ATALA

KONTSEILU EUROPARRA

235. artikulua

1. Kontseilu Europarreko kide bakoitzak, bozketan, beste kideetako bakar baten ordezkotzan baino ezin du jardun.

Europar Batasunaren Tratatuen 16. artikuluko 4. paragrafoa eta tratatu honen 238. artikuluen 2. paragrafoa Kontseilu Europarrari aplikatuko zaizkio, gehiengo kualifikatuz erabakia hartzen duenean. Kontseilu Europarreko lehendakariak eta Batzordeko lehendakariak ez dute parte hartuko Kontseilu Europarreko bozketetan, erabakiak bozketa bidez hartzen dituenen.

Bertratutako edo ordezkotutako kideen abstentzioa ez da eragozpen izango aho batez hartu beharrekoak diren Kontseilu Europarraren akordioak hartzeko.

2. Kontseilu Europarrak Europako Parlamentuko lehendakaria gonbidatu ahal izango du bere aurrean ager dadin.

3. Kontseilu Europarrak gehiengo soilez era-

bakiko du prozedura-gaiei buruz, eta, halaber, gehiengo soilez onartuko bere barne-erregela-mendua.

4. Kontseilu Europarrak Kontseiluko Idazkaritza Nagusiaren laguntza izango du.

236. artikulua

Kontseilu Europarrak gehiengo kualifikatuz hartuko ditu:

a) Gai Orokorren eta Atzerri Arazoen osae-rez besteko Kontseiluaren osaerak jasotzen dituen zerrenda ezartzen duen erabakia, Europar Batasunaren Tratatuaren 16. artikuluko 6. paragrafoarekin bat etorritz;

b) Atzerri Arazoetakoaz besteko Kontseiluaren osaeretako lehendakaritzari buruzko erabakia, Europar Batasunaren Tratatuaren 9. artikuluko 16. paragrafoaren arabera.

HIRUGARREN ATALA

KONTSEILUA

237. artikulua

(lehenengo 204. artikulua EET)

Kontseiluko lehendakariak dei eginda bilduko da Kontseilua, lehendakariaren ekimenez, kideetako batek eskatuta, edo Batzordeak eskatuta.

238. artikulua

(lehenengo 205. artikulua, 1. eta 2. paragrafoak, EET)

1. Kontseiluak, erabaki bat gehiengo soilez hartu behar duenean, bera osatzen duten kideen gehiengoz erabakiko du.

2. Europar Batasunaren Tratatuaren 16. artikuluko 4. paragrafoan xedatutakoa gora-behera, 2014ko azaroaren 1etik aurrera, xedapen iragankorreki buruzko protokoloan ezarritako xedapena aparte utzi gabe, Kontseiluak Batzordearen edo Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkariekin proposamenez erabakitzen ez duenean, gehiengo kualifikatua honela definituko da: gutxienez Kontseiluko kideen % 72, gutxienez estatu horietako biztanleriaren % 65 biltzen duena.

3. 2014ko azaroaren 1etik aurrera, xedapen iragankorreki buruzko protokoloan ezarritako xedapenak aparte utzi gabe, tratatuak aplikatzearen ondorioz Kontseiluko kide guztiek parte hartzen ez duten bozketen kasuetan, gehiengo kualifikatua honela definituko da:

a) Gehiengo kualifikatutzat joko da Kon-

tseiluko kideen % 55 gutxienez lortzen denean, baldin eta ehuneko horretan, gutxienez, partaide diren estatu kideetako biztanleriaren % 65 ordezkaturik badago.

Blokeo-gutxiengo batek, berriz, Kontseiluko kideen gutxienezko kopurua batu beharko du, parte hartzen duten estatu kideen biztanleriaren % 35 ordezkatzeko duena, gehiengo gutxienez; horrelakorik ez, gehiengo kualifikatua lortutzat joko da.

b) Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gora-behera, Kontseiluak Batzordearen edo Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkariekin proposamenez jarduten ez duenean, eskatutako gehiengo kualifikatua honela definituko da: gutxienez Kontseiluko kideen % 72, gutxienez estatu horietako biztanleriaren % 65 biltzen duena.

4. Bildutako edo ordezkaturiko kideen absentzioek ez diote eragotziko Kontseiluari aho batezkoak behar duten akordioak hartzea.

239. artikulua

(lehenengo 206. artikulua EET)

Kontseiluko kide bakoitzak, bozketan, beste kideetako bakar baten ordezkotzan baino ezin du jardun.

240. artikulua

(lehenengo 207. artikulua EET)

1. Estatu kideetako Gobernuetako Ordezkaririk Iraunkorrek osatutako Komitea arduratuko da Kontseiluaren lanak prestatzeko eta Kontseiluak bere gain uzten dituen lanak egiteaz. Komiteak prozeduraren gaineko erabakiak hartu ahal izango ditu, Kontseiluaren barne-erregela-menduan ezarritako kasuetan.

2. Idazkaritza Nagusi baten laguntza izango du Kontseiluak; Kontseiluak izendatutako idazkari nagusi baten ardurapean egongo da Idazkaritza Nagusia.

Kontseiluak erabakiko du, gehiengo soilez, Idazkaritza Nagusiaren antolaketa.

3. Kontseilu Europarrak gehiengo soilez erabakiko du prozedura-gaiei buruz, eta, halaber, gehiengo soilez onartuko bere barne-erregela-mendua.

241. artikulua

(lehenengo 208. artikulua EET)

Kontseiluak, gehiengo soilez, Batzordeari eskatu ahal izango dio helburu erkideak betetzeko egoki irizitako azterlan guztiak egin di-

tzan, eta egoki diren proposamenak aurkez diezazkion. Baldin eta Batzordeak ez badu proposamenik aurkezten, horren arrazoiak jakinaraziko dizkio Kontseiluari.

242. artikulua

(lehenengo 209. artikulua EET)

Kontseiluak, gehiengo soilez, Batzordeari kontsulta egin ondoren, tratatuetan aurreikusitako komiteen estatutuak ezarriko ditu.

243. artikulua

(lehenengo 210. artikulua EET)

Kontseiluak ezarriko ditu soldatak, bidaia-sariak eta pentsioak, bai Kontseilu Europarreko lehendakariarenak zein Batzordeko lehendakariarenak, bai Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezakariarenak zein Batzordeko kideenak, bai Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko lehendakari, kide eta idazkariarenak, bai eta Kontseiluaren idazkari nagusiarenak ere. Lansari gisako beste edozein ordainketa ere finkatuko du.

LAUGARREN ATALA

BATZORDEA

244. artikulua

Europar Batasunaren Tratatuaren 17. artikuluko 5. paragrafoaren arabera, Kontseilu Europarrean aho batez ezarritako berdintasunezko txandakatze-sistema bat erabiliko dute Batzordeko kideak hautatzeko, honako printzipio hauetan oinarrituta:

a) Estatu kideak berdintasun zorrotzez tratatuko dira, beren herritarrak Batzordeko kide izendatzeko txanda-hurrenkera eta igarotako denbora zehazteari dagokionez; ondorioz, bi estatu kide jakinetako herritarrek betetzen dituzten agintaldien guztizko kopuruen arteko aldea ezingo da inoiz izan batetik gorakoa.

b) denborak aurrera egin ahala sortuz joango diren Batzordeetako bakoitza, a) idatz-zatian xedaturikoari atxikiz, estatu kide guztien aniztasun demografiko eta geografikoa behar bezala islatuta osatuko da.

245. artikulua

(lehenengo 213. artikulua EET)

Batzordeko kideek ez dute parte hartuko be-

ren eginkizunen izaerarekin bateraezina den ezein egintzatan. Estatu kideek errespetatu egingo dute haien independentzia eta ez dira saiaturiko haiengan eragiten, haiek beren eginkizunetan ari direla.

Batzordeko kideak, beren agintaldian, ezin izango dira beste inolako lanbide-jardueratan aritu, ordaindua izan zein ez. Epailiek, beren eginkizunei ekiten dietenean, beren kargutik sortutako betebeharrak errespetatuko dituztela aginduko dute zinez, bai beren agintaldiak dirauen artean eta bai hori amaitu eta gero ere, bereriziki beren agintaldia amaitu eta gero zenbait eginkizun edo onura onartzeko orduan zintzotasun- eta diskrezio-betebeharrak betetzeko. Betebehar horiek bete ezean, Justizia Auzitegiak Batzordeko kide hori kargutik kendu ahal izango du, 247. artikuluan jasotako eran, edo interresdunaren pentsiorako eskubideaz edo horren ordezkari beste edozein onuraz gabetu ahal izango du, Kontseiluak, gehiengo soilez, edo Batzordeak hala eskatzen badiote.

246. artikulua

(lehenengo 215. artikulua EET)

Aldikako berrikuntza-kasuak eta heriotza-kasuak albo batera utzita, Batzordeko kideen agintaldia banan-banan amaituko da, bakoitzak bere borondatez kargua uzten duenean, edo uztera behartzen denean.

Kargua bere borondatez utzi duen kide hori, edo kargua uztera behartu duten hori edo hil egin den hori, nazionalitate bereko beste kide berri batek ordeztuko du agintaldia amaitzeko geratzen den denboran; Kontseiluak izendatuko du, Batzordeko lehendakariarekin ados jarrita, Europako Parlamentuari aurretiaz kontsulta eginda, eta Europar Batasunaren Tratatuaren 17. artikulua 3. paragrafoaren bigarren lerrokan ezarritako irizpideen arabera.

Kontseiluak, aho batez eta Batzordeko lehendakariak proposatuta, ordezkapen hori ez egitea erabaki ahal izango du, batez ere, hari zegokion agintaldia amaitzeko denbora gutxi geratzen denean.

Lehendakariak kargua uzten duenean, kargutik kentzen denean, zein hiltzen denean, agintaldia amaitzeko falta zaion denborarako ordezkatuko da. Eta Europar Batasunaren Tratatu 17. artikuluko 7. paragrafoko lehen lerrokan aurreikusitako prozedura aplikatu ahal izango da ordezkapen horretarako.

Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezakariak dimisioa aurkezten

badu, edo kargua uztera behartzen badute edo hil egiten bada, ordeztu egingo dute agintaldia amaitzeko geratzen den denborarako, Europar Batasunaren Tratatuako 18. artikuluko 1. paragrafoan ezarritakoaren arabera.

Baldin eta Batzordeko kide guztiek beren borondatez dimisioa aurkezten badute, karguan jarraituko dute ohiko administrazio-kudeaketa egiten, harik eta agintaldia amaitzeko geratzen den denborarako ordeztzen dituzten arte, Europar Batasunaren Tratatuaren 17. artikuluan ezarritakoaren arabera.

247. artikulua

(lehengo 216. artikulua EET)

Kontseiluak, gehiengo soilez, edo Batzordeak eskatzen badute, Justizia Auzitegiak kargutik kendu lezake Batzordeko edozein kide, baldin eta kide horrek bere eginkizunak betetzeko beharrezko baldintzak betetzeari utzi badio, edo arau-hauste larriren bat egin badu.

248. artikulua

(lehengo 217. artikulua, 2. paragrafoa, EET)

Batzordeari dagozkion erantzukizunak Batzordeko lehendakariak egituratu eta banatuko ditu Batzordeko kideen artean, Europar Batasunaren Tratatuaren 17. artikuluko 6. paragrafoan xedatutakoaren arabera, eta tratatu horretako 18. artikuluko 4. paragrafoari kalterik egin gabe. Lehendakariak bere agintaldian erantzukizun horiek behin baino gehiagotan berarrantolatzeko ahalmena du. Lehendakariak esleitu dizkien eginkizunak bete beharko dituzte Batzordeko kideek, haren agintaritzapean.

249. artikulua

(lehengo 218. artikulua, 2. paragrafoa, eta 212. artikulua, EET)

1. Batzordeak barne-erregelamendu bat ezarriko du bere funtzionamendua eta bere zerbitzuena ziurtatzeko. Batzordeak argitaratu egingo du erregelamendu hori.

2. Batzordeak urtero argitaratuko du Batasunaren jardueri buruzko txosten orokorra, Europako Parlamentuko bilkura-aldia ireki baino hilabete lehenago gutxienez.

250. artikulua

(lehengo 219. artikulua EET)

Batzordearen akordioak bertako kideen gehiengoz hartuko dira.

Barne-erregelamenduak ezarriko du zein quorum behar den.

BOSGARREN ATALA

EUROPAR BATASUNEN JUSTIZIA AUZITEGIA

251. artikulua

(lehengo 221. artikulua EET)

Justizia Auzitegiak salatan edo sala handian eratuta jardungo du, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren estatutuan horretarako ezarritako arauekin bat etorriz.

Justizia Auzitegiak Osoko Bilkuran eratuta ere jardun lezake, estatutuak hala xedatzen duenean.

252. artikulua

(lehengo 222. artikulua EET)

Justizia Auzitegiak zortzi abokatu nagusiren laguntza edukiko du. Justizia Auzitegiak eskatzen badu, Kontseiluak, aho batez, abokatu nagusien kopurua gehitu dezake.

Abokatu nagusiaren eginkizuna hau izango da: inpartzialtasun eta independentzia osoz, arrazoitutako ondorioak aurkeztea jendaurrean, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren estatutuaren arabera abokatu nagusiaren eskuhartzea behar duten auzien gainean.

253. artikulua

(lehengo 223. artikulua EET)

Batasuneko estatueto gobernuek izendatuko dituzte Justizia Auzitegiko epaileak eta abokatu nagusiak, gobernu guztiak ados jarrita, sei urterako; independentziaren berme osoa eskaintzen duten eta, bakoitzak bere herrialdean, jurisdikzioko eginkizunik gorenak betetzeko eskatutako baldintzak betetzen dituzten edo gaitasun frogatua duten legelarien artean aukeratuko dira, 255. artikuluan adierazten den komiteari kontsulta egin ondoren.

Hiru urtetik behin aldatuko dira epaileak eta abokatu nagusiak, zatika, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko estatutuan ezarritako eran.

Epaileek beren artean aukeratuko dute Justizia Auzitegiko lehendakaria, hiru urteko epe-rako. Agintaldia berritu egin daiteke.

Berriro izendatu daitezke kargua uzten duten epaileak eta abokatu nagusiak.

Justizia Auzitegiak izendatuko du bertako idazkaria, eta Auzitegiak berak ezarriko du idazkariaren estatutua.

Justizia Auzitegiak ezarriko du bere prozedura-erregelamendua. Erregelamendua Kontseiluak onartu beharko du.

254. artikulua

(lehengo 224. artikulua EET)

Auzitegi Orokorreko epaile-kopurua Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren estatutuaren bidez ezarriko da. Auzitegi Orokorrak abokatu nagusien laguntza eduki dezala xeda dezake estatutuak.

Auzitegi Orokorreko kideak independentzia-bermerik gorena eskaini dezaten pertsonen artean aukeratuko dira, betiere goi jurisdikzioko funtzioak betetzeko beharrezko gaitasunaren jabe badira. Estatu kideetako gobernuak ados jarrita izendatuko dira, sei urterako, 255. artikuluan aipatzen den komiteari kontsulta egin ondoren. Hiru urterik behin berrituko da, zatika. Irteten diren kideak berriz izendatu ahal izango dira.

Epaileek beren artean aukeratuko dute Auzitegi Orokorreko lehendakaria, hiru urterako. Agintaldia berritu egin daiteke.

Auzitegi Orokorrak izendatuko du bertako idazkaria, eta Auzitegiak berak ezarriko du idazkariaren estatutua.

Auzitegi Orokorrak bere prozedura-erregelamendua ezarriko du Justizia Auzitegiarekin ados jarrita. Erregelamendua Kontseiluak onartu beharko du.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren estatutuan kontrakorrik xedatu ezik, Tratatuetan Justizia Auzitegiari buruz jarritako xedapenak Auzitegi Orokorrari aplikatu ahal izango zaizkio.

255. artikulua

Komite bat eratuko da, hautagaiek Justizia Auzitegiko eta Auzitegi Orokorreko epaile eta abokatu nagusien eginkizunak betetzeko duten egokitasunari buruz iritzia eman dezan estatu kideetako gobernuak 253. eta 254. artikuluei jarraiki izendapenik egin baino lehen.

Komitea zazpi pertsonak osatuko dute; kideok Justizia Auzitegiko eta Auzitegi Orokorreko kide ohien, estatu kideetako gorengo jurisdikzio-organoei kideen eta ospe handiko legelarien artean aukeratuko dira, eta horietako bat Europako Parlamentuak aukeratuko du. Kontseiluak erabaki bat onartuko du komitearen funtzionamendu-arauak ezartzeko, eta beste bat bertako kideak izendatzeko. Kontseiluak Justizia Auzitegiko lehendakariaren ekimenez erabakiko du.

256. artikulua

(lehengo 225. artikulua EET)

1. Auzitegi Orokorrak izango du 263., 265., 268., 270. eta 272. artikuluetan agertzen diren errekurtsuez lehen auzialdian arduratzeko eskumena; salbuespen izango dira, hala ere, 257. artikulua indarrez sortutako auzitegi espezializatu bati esleitutakoak eta estatutuak Justizia Auzitegiarentzat gordetakoak. Estatutuak, bestalde, eskumenak eman ahal izango dizkio Auzitegi Orokorrari beste errekurtsokategoria batzuetan.

Idatz-zati honen indarrez Auzitegi Orokorrak emandako ebazpenen aurka kasazio-errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Justizia Auzitegiari, Zuzenbideko gaietara lotuta, estatutuan finkatutako baldintzetan eta mugen barruan.

2. Auzitegi Orokorrak izango du auzitegi espezializatuen ebazpenen kontra aurkezten diren errekurtsuez arduratzeko eskumena.

Idatz-zati honen indarrez Auzitegi Orokorrak emandako ebazpenak salbuespenez Justizia Auzitegiak berraztertu ahal izango ditu, estatutuak finkatutako baldintzetan eta mugen barruan, Batasuneko zuzenbidearen batasuna nahiz koherentzia hausteko arrisku larriarik badago.

3. Auzitegi Orokorrak izango du 267. artikulua indarrez aurkeztutako epaiketa aurreko arazoez arduratzeko eskumena, betiere estatutuak zehaztutako gai zehatzetan.

Auzitegi Orokorrak, aldiz, gairen batek Batasuneko Zuzenbidearen batasunari edo koherentziari eragin diezaiokeen printzipiozko ebazpenen bat behar duela iritzten badiu, gaia Justizia Auzitegiari bidali ahal izango dio, azken horrek erabaki dezan.

Epaitu aurreko arazoez Auzitegi Orokorrak emandako ebazpenak Justizia Auzitegiak aztertu ahal izango ditu aparteko izaeraz, estatutuak finkatutako baldintzetan eta bertan ezarritako mugen barruan, baldin eta Batasuneko Zuzenbidearen batasuna edo koherentzia hausteko arriskua larria bada.

257. artikulua

(lehengo 225 A artikulua EET)

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak legegintzako prozedura arruntaren arabera, Auzitegi Orokorrari atxikitako auzitegi espezializatuak sortu ahal izango dituzte, gai zehatz batzuei buruz jarritako zenbait errekurtsokategiaz lehen auzialdian arduratu daitezkeen. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak errege-

lamenduen bitartez hartuko dituzte erabakiak, bai Batzordearen proposamenez eta Justizia Auzitegiari aurretiaz kontsulta eginda, bai Justizia Auzitegiaren eskariz eta Batzordeari aurretiaz kontsulta eginda.

Auzitegi espezializatua sortuko duen erregelamenduan bertan finkatuko dira auzitegi hori osatzeko moduari buruzko arauak, eta bertan zehaztuko da salari emango zaizkion eskumenen helmena ere.

Auzitegi espezializatuak emandako ebazpenen aurka kasazio-errekurtsoa jarri ahal izango zaio Auzitegi Orokorriari, Zuzenbideko gaiei mugatuta; auzitegi espezializatua sortzeko erregelamenduan jasota badago, gertakariei buruz ere jar daiteke errekurtsio hori.

Auzitegi espezializatuetakoa kideak independentzia-bermerik gorenaren eskain dezaten pertsonen artean aukeratuko dira, betiere jurisdikzioa funtzioak betetzeko beharrezko gaitasunaren jabe badira. Kontseiluak izendatuko ditu, aho batez.

Auzitegi espezializatuak Justizia Auzitegiarekin bat etorritik onartuko dute beren prozedura-erregelamendua. Erregelamendua Kontseiluak onartu beharko du.

Auzitegi espezializatua sorrarazten duen erregelamendua bestela xedatu ezean, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari buruz tratatuetan dauden xedapenak eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren estatutuko xedapenak auzitegi espezializatuari aplikatuko zaizkie. Estatutuko I. titulua eta 64. artikulua beti aplikatuko zaizkie auzitegi espezializatuari.

258. artikulua

(lehengo 226. artikulua EET)

Batzordearen ustez estatu kideren batek Tratatuen indarrez dagokion betebeharren bat bete gabe utzi badu, irizpen arrazoitua emango du gai horren gainean, aipatutako estatuari bere oharpenak aurkezteko aukera eman ondoren.

Baldin eta estatu hori, Batzordeak zehaztutako epean, irizpen horretara lotzen ez bada, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiara jo dezake Batzordeak.

259. artikulua

(lehengo 227. artikulua EET)

Edozein estatu kidek jo dezake Europar Batasuneko Justizia Auzitegiara, baldin eta beste estatu kideren batek Tratatuen indarrez dagokion betebeharren bat bete gabe utzi duela uste badu.

Estatu kideren baten ustez beste estatu batek tratatuen indarrez dagokion betebeharren bat bete gabe utzi badu, Batzordeari aurkeztu behar dio auzia, beste estatu kide horren aurka errekurtsioa jarri aurretik.

Batzordeak irizpen arrazoitua emango du, interesa daukaten estatuek kontraesan-prozeduraz, bai idatziz eta bai hitzez, beren oharpenak egiteko aukera izan eta gero.

Irizpena eskatzen denetik hiru hilabeteko epean Batzordeak irizpenik ematen ez badu, irizpenik eza ez da eragozpen izango Auzitegiara jotzeko.

260. artikulua

(lehengo 228. artikulua EET)

1. Baldin eta estatu kideren batek Tratatuen indarrez dagokion betebeharretakoren bat bete gabe utzi duela deklaritzen badu Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak, Auzitegiaren epaia betetzeko beharrezko neurriak hartu beharko ditu estatu horrek.

2. Batzordeak irizten badiu dagokion estatu kideak ez dituela hartu Auzitegiaren epaia betetzeko beharrezkoak diren neurriak, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari aurkeztu ahal izango dio auzia, aipatutako estatuari bere oharrak aurkezteko aukera eman ondoren. Batzordeak zehaztuko du zein den, inguruabarren arabera Batzordeak egoki iritzi, eta estatu kide horrek ordaindu behar duen oro harreko zenbatekoaren edo hertsatzeko isunaren zenbatekoa.

Baldin eta Auzitegiak deklaritzen badu estatu kide horrek ez duela Auzitegiaren epaia bete, oro harreko zenbateko bat edo hertsatzeko isun bat ordaindu beharra ezarri ahal izango dio.

Prozedura hori ez da izango 259. artikuluan xedatutakoaren aurkakoa

3. Batzordeak, 258. artikulua betetz, errekurtsio bat aurkezten badu Europar Batasuneko Justizia Auzitegian, Batzordearen ustez dagokion estatu kideak ez duelako bete legegintzako prozedura baten arabera onartutako zuzentarau baten transposizioa egiteko neurrien berri emateko betebeharra, bada, Batzordeak, egoki iritzi gero, estatu kide horrek ordaindu behar duen oro harreko zenbatekoa edo hertsatzeko isunaren zenbatekoa adieraz dezake; zenbateko hori inguruabarrei egokitu behar zaie Batzordearen iritzi.

Auzitegiak egiaztatuz gero ez dela egin behar hori bete, oro harreko zenbateko bat edo hertsatzeko isun bat ordaindu beharra ezar diezaioko estatu kideari, Batzordeak

zenbateko horrentzat adierazitako mugen barruan. Ordaintzeko betebeharra Auzitegiak epaian ezarritako egunean hasiko da eragina izaten.

261. artikulua

(lehenengo 229. artikulua EET)

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak batera edo Kontseiluak berak Tratatueta xedapenen indarrez onartutako erregelamenduen bidez, jurisdikzio eskumen osoa eman dakioke Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari erregelamendu horietan aurreikusitako zigorre dagokienez.

262. artikulua

(lehenengo 229 A artikulua EET)

Tratatueta gainerako xedapenei kalterik egin gabe, Kontseiluak, aho batez, legegintzako prozedura berezi baten arabera eta Europako Parlamentuari kontsulta egin ondoren, tratatuak oinarri direla jabetza intelektualeko edo industrialeko europar tituluak sortzeko egindako egintzen aplikazioari buruzko auziak erabakitzeko eskumena Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari emateko xedapenak onar ditzake, Kontseiluak zehaztutako neurrian eman ere. Xedapen horiek estatu kideek, bakoitzak bere konstituzio-arauetan ezarritakoari jarraituz, onartzen dituztenean sartuko dira indarrean.

263. artikulua

(lehenengo 230. artikulua EET)

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ondokoen legezketasuna kontrolatuko du: legegintzarena; Kontseiluaren, Batzordearen eta Europako Banku Zentralaren egintzarena, gomen-dioak edo irizpenak ez badira; eta hirugarrenen aurrean ondorio juridikoak sorrarazteko diren Europako Parlamentuaren eta Kontseilu Europarraren egintzarena ere bai. Batasuneko organo edo organismoek hirugarrenen aurrean ondorio juridikoak sorrarazteko onartuko dituzten egintzen legezketasuna ere kontrolatuko dute.

Horretarako, estatu kideren batek, Europako Parlamentuak, Kontseiluak edo Batzordeak jarritako errekurtsoei buruz ebazteko eskumena izango du Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak, errekurtsuak ondorengo arrazoiengatik jarri badira: eskumenik eza, formazko funtsezko akatsak, Tratatuak urratzea, edo Tratatuak betetzeko edozein arau juridiko haustea, edo boterea desbideratzea.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak, baldintza berberetan, Kontu Auzitegiak eta Europako Banku Zentralak eta Eskualdeetako Komiteak beren prerrogatibak babesteko jarritako errekurtsoei buruz erabakitzeko eskumena edukiko du.

Pertsona fisiko edo juridiko orok jar ditzake errekurtsuak, lehenengo eta bigarren lerrokatetan aurreikusten diren baldintzetan, pertsona horri zuzendutako egintzen kontra edo berari zuzenean eta bakarrean eragiten dioten kontra, eta berari zuzenean eragiten dioten eta betearazteko neurririk ez duten erregelamenduzko egintzen kontra ere bai.

Batasuneko organoak edo organismoak sortzeko egintzetan, baldintza eta prozedura zehatzak jaso daitezke pertsona fisiko edo juridikoek organo edo organismo horien egintzen aurka jarritako errekurtsuentzat baldin eta egintzok ondorio juridikoak sorrarazten badituzte haiengan.

Artikulu honetan aurreikusitako errekurtsuak bi hilabeteko epean aurkeztu behar dira, kasuen arabera, egintza argitaratu zenetik, errekurtsu-jartzaileari jakinarazi zitzaionetik, edo, jakinarazpenik egin ezean, errekurtsu-jartzaileak horren berri izan duenetik kontatzen hasita.

264. artikulua

(lehenengo 231. artikulua EET)

Errekurtsuak oinarriarik badauka, aurkape-na jasotako egintza hori deuseza eta inolako baliorik eta ondorioarik gabea dela deklaratu du Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak.

Halere, beharrezkoa irizten badio, Auzitegiak adierazita utziko du deusez deklaraturako egintzatik zein ondorio hartu behar diren behin betikotzat.

265. artikulua

(lehenengo 232. artikulua EET)

Baldin eta, Tratatuak urratuz, Europako Parlamentuak, Kontseilu Europarrak, Kontseiluak, Batzordeak edo Europako Banku Zentralak erabakitzeari huts egiten badiote, estatu kideek eta Batasuneko gainerako instituzioek Europar Batasuneko Justizia Auzitegian errekurtsua aurkeztu ahal izango dute, urratze hori gertatu dela deklaratzeko. Erabakitzeari huts egiten dioten Batasuneko organo eta organismoek aplikatuko zaie artikulu hau, baldintza berberetan.

Kasuan kasuko instituzio, organo edo organismoari jardun dezala aurrez eskatu zaionean, orduan bakarrik onartu ahal izango da erre-

kurtso hori. Errekerimendu horren ondoren bi hilabeteko epea igarota, instituzio, organo edo organismoak bere jarrera zehaztu ez badu, bi hilabeteko beste epe bat izango da errekurtsua aurkeztu ahal izateko.

Edozein pertsona fisiko edo juridikok kexa-errekurtsua jar diezaioke Auzitegiari, aurreko lerrokadetan aipatutako baldintzetan, Batasuneko instituzioetako batek edo organo edo organismoetako batek gomendioa edo irizpena ez den beste inolako egintzarik zuzendu ez diolako.

266. artikulua

(lehenengo 233. artikulua EET)

Instituzio, organo edo organismo batek erabakitzeari huts egin izana Tratatuaren kontrakoa dela deklaratu denean, edo sortu duen egintza bat deuseztatu denean, nahitaez hartu beharko ditu Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaia betetzeko hartu beharreko neurriak.

Betebehar hori ez doa 340. artikuluko bigarren lerrokada aplikatzen sor daitekeenaren kontra.

267. artikulua

(lehenengo 234. artikulua EET)

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak eskumena dauka, epaitu aurreko arazoen kasuan, ebazpena emateko:

- a) Tratatuaren interpretazioaz
- b) Batasuneko instituzio, organo edo organismoek onartutako egintzen baliozkotasunaz eta interpretazioaz.

Estatu kideren bateko jurisdikzio-organoren bati era horretako arazoren bat aurkezten bazaio, organo horrek, bere epaitza emateko beharrezkotzat jotzen badu gaiaren gaineko erabakiren bat, Auzitegiari eska diezaioke arazoaz erabaki bat hartzeko.

Estatu barruko jurisdikzio-organoren batean oraindik erabaki gabe dagoen gai baten gainean era horretako arazoren bat aurkezten denean, eta organo horren ebazpenek barne-zuzenbidean ezin badute gero beste auzi-bidezko errekurtsorik jaso, Auzitegiaren menpe jarri behar du auzia organo horrek.

Estatu barruko jurisdikzio-organoren batean oraindik erabaki gabe dagoen gai baten gainean era horretako arazoren bat aurkezten denean askatasun-gabetuta dagoen pertsona bati buruz, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak al bait arinen erabaki behar du.

268. artikulua

(lehenengo 235. artikulua EET)

Europar Batasuneko Justizia Auzitegia izango da 340. artikuluko bigarren eta hirugarren lerrokan aipatutako kalte-ordainei buruzko auziez arduratzeko eskumena edukiko duena.

269. artikulua

Justizia Auzitegiak dauka Kontseilu Europarrak edo Kontseiluak Europar Batasunaren Tratatuaren 7. artikulua indarrez onartutako egintza baten legezkotasunari buruz erabakitze eskumena, baina soilik Kontseilu Europarraren edo Kontseiluaren egiaztapenaren xede den estatu kideak eskatuta, eta bakarrik aipatutako artikuluko horretan zehaztutako prozedurako xedapenak errespetatu diren ebazteko.

Eskaera hori aurkezteko hilabeteko epea dago, egiaztapenetik zenbatzen hasita. Auzitegiak hilabeteko epean erabakiko du, eskaera egiten denetik zenbatzen hasita.

270. artikulua

(lehenengo 236. artikulua EET)

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak dauka Batasunaren eta bere agenteen artean sor daitezkeen auzietan erabakitze eskumena, Batasuneko funtzionarioen estatutuak eta Batasuneko beste agenteei aplikatu beharreko erregimenak ezartzen dituzten muga eta baldintzekin.

271. artikulua

(lehenengo 237. artikulua EET)

Europar Batasuneko Justizia Auzitegia izango da auzi hauei buruz erabakitze eskumena edukiko duena, jarraian aipatzen diren muga barruan nolanahi ere:

a) Europako Inbertsio Bankuaren estatutuaren ondorioz, estatu kideek dituzten betebeharrak bete ote dituzten erabakitze. Gai horri buruz, 258. artikuluko Batzordeari esleitzen dizkion eskumenak edukiko ditu Bankuko administrazio-kontseiluak;

b) Bankuko gobernadore-kontseiluaren akordioez erabakitze. Gai honen gainean, bai edozein estatu kide, bai Batzordeak eta Bankuko administrazio-kontseiluak jar ditzakete errekurtsuak, 263. artikuluan aurreikusitako baldintzetan;

c) Bankuko administrazio-kontseiluaren akordioez erabakitze. Akordio horien kontra, Erkidegoko estatuak edo Batzordeak baino

ezin dute errekurtsorik jarri 263. artikuluan ezarritako baldintzetan, eta Bankuko estatutueta-ko 19. artikuluko 2., 5., 6. eta 7. paragrafoetan aurreikusitako formazko akatsen bat dela-eta bakarrik.

d) Tratatuaren eta BZESko eta EBZeko estatutuaren ondorioz estatu bakoitzeko Banku Zentralek dauzkaten betebeharrak bete ote dituzten erabakitzeke. Gai horri buruz, 258. artikulua estatu kideak direla-eta Batzordeari ematen dizkion ahalak edukiko ditu Europako Banku Zentraleko Gobernu Kontseiluak, estatueta-ko banku zentralen gainerik. Baldin eta estatu kideren bateko banku zentralak Tratatuaren indarrez dagozkion betebeharretakoren bat bete gabe utzi duela deklaratzeko badu Auzitegiak, Auzitegiaren epaia betetzeko beharrezko neurriak hartu beharko ditu banku horrek.

272. artikulua

(lehengo 238. artikulua EET)

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak epaitzeko eskumena edukiko du, Batasunak nahiz Batasunaren kontura egindako Zuzenbide publiko zein Zuzenbide pribatuko kontratu batean jasotako konpromiso-klausula baten indarrez.

273. artikulua

(lehengo 239. artikulua EET)

Tratatuaren xedea dela-eta Erkidegoko estatuen artean sortutako edozein eztabaidaz erabakitzeke eskumena dauka Justizia Auzitegiak, konpromiso baten indarrez berari aurkezten bazaito eztabaida hori.

274. artikulua

(lehengo 240. artikulua EET)

Tratatuek Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari emandako eskumenei kalterik egin gabe, Batasuna alderdietako bat dela sortutako auziak, alderdi denez, ezin izango dira estatuen jurisdikzioak diren eskumenetatik kanpo utzi.

275. artikulua

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ez du edukiko eskumenik atzerri- eta segurtasun-politika erkidearen inguruko xedapenez erabakitzeke, ez horretan oinarrituta onartutako egintzei buruz erabakitzeke ere.

Nolanahi ere, Justizia Auzitegiak izango du eskumena Europar Batasunaren Tratatuako 40. ar-

tikulua errespetatzen dela kontrolatzeko, eta tratatu honetako 263. artikuluko laugarren lerrokadan adierazten diren baldintzetan aurkezten diren errekurtsuez erabakitzeke ere bai. Errekurtsu horiek Kontseiluak, Europar Batasunaren Tratatuako V. tituluko 2. kapituluari jarraiki, pertsona fisiko edo juridikoen ahalmenak gutxitzeko neurriak ezartze aldera onartzen dituen erabakien legezketasunaren kontrolari buruzkoak izango dira.

276. artikulua

Askatasun-, segurtasun- eta justizia-esparruari buruzko hirugarren zatiko V. tituluko 4. eta 5. kapitulueta-ko xedapenak direla-eta dituen eskurantzak gauzatzean, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ez dauka eskumenik estatu kideren bateko poliziak edo legea aplikarazteko ardura daukaten beste zerbitzuek egindako operazioen baliozkotasuna edo heinekotasuna kontrolatzeko, ezta estatu kideek ordena publikoa zaintzeko eta barne-segurtasuna babesteko dituzten erantzukizunak betetzean egindakoez erabakitzeke ere.

277. artikulua

(lehengo 241. artikulua EET)

263. artikuluko seigarren lerrokadan jasotako epea amaituta egon arren, Batasuneko instituzio, organo edo organismo batek onartutako helmen orokorreko egintzaren bat auzitan jartzen duen auziren batean alderdi den edonork jo ahal izango du Europar Batasuneko Justizia Auzitegi-gira, 263. artikuluko bigarren lerrokadan jasotako arrazoiak direla-eta egintza hori aplika ezinezkoa dela alegatuz.

278. artikulua

(lehengo 242. artikulua EET)

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari aurkeztutako errekurtsuok ez dute etete-ondorio-rik edukiko. Hala ere, Auzitegiak, horrela egitea eskatzen duten inguruabarrak daudela irizten badio, aurkaturiko egintza etetea agindu ahal izango du.

279. artikulua

(lehengo 243. artikulua EET)

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak beharrezkoak diren behin-behineko neurriak har ditzake berari aurkeztutako arazoetan.

280. artikulua

(lehengo 244. artikulua EET)

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaiek betearazteko indarra edukiko dute 299. artikulua ezarritako baldintzetan.

281. artikulua

(lehengo 245. artikulua EET)

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren estatutua aparteko protokolo batean finkatuko da.

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak estatutuaren xedapenak aldatu ahal izango dituzte, legegintzako prozedura arruntaren bidez, I. titulua eta 64. artikulua izan ezik. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak erabakiak hartuko dituzte bai Justizia Auzitegiaren eskariz eta Batzordeari aurretiaz kontsulta eginda, bai Batzordearen proposamenez eta Justizia Auzitegiari aurretiaz kontsulta eginda.

SEIGARREN ATALA**EUROPAKO BANKU ZENTRALA****282. artikulua**

1. Europako Banku Zentralak eta estatu kideetako banku zentralek osatuko dute Banku Zentralen Europako Sistema (BZES). Europako Banku Zentralak eta diru gisa euroa darabilten estatu kideetako banku zentralek, horiek osatzen baitute Eurosistema, Batasunaren diru-politika zuzenduko dute.

2. Europako Banku Zentralaren artezkaritza-organoei zuzenduko dute BZES. Prezioen egonkortasunari eustea izango da BZESren helburu nagusia Helburu horri kalterik egin gabe, Batasunaren ekonomia-politika orokorreari ere laguntza emango die, Batasunaren helburuak lortzen laguntzeko.

3. Europako Banku Zentralak nortasun juridikoa edukiko du. Berari dagokio, ez beste inori, euroa jaulkitzeko baimena ematea. Independentziak jokatuko du bere eskumenak baliatzean eta bere finantzak kudeatzean. Batasuneko instituzio, organo zein organismoek, baita estatu kideetako gobernuak ere, errespetatu egin behar dute independentzia hori.

4. Europako Banku Zentralak beharrezko diren neurri guztiak hartuko ditu bere betebeharrak betetzeko, betiere, 127tik 133ra bitarteko artikuluetan eta 138. artikuluan jasotakoarekin bat, eta BZESren eta EBZaren estatutuen arabera. Artikulu horien arabera, diru gisa euroa ez da-

rabilten estatu kideek eta estatu horietako banku zentralek beren eskumenei eutsiko die- te diru-eremuan.

5. Europako Banku Zentralari kontsulta egin- go zaio, bere eskurantzeari dagozkien eremuetan, Batasunaren egintza-proiektu guztiei buruz, bai- ta estatu-eremuko araudi-proiektu guztiei buruz ere; Bankuak irizpenak eman ahal izango ditu.

283. artikulua

(lehengo 112. artikulua EET)

1. Europako Banku Zentraleko Gobernu Kontseilua Europako Banku Zentraleko Batzorde Betearazleko kideek eta diru gisa euroa darabilten estatu kideetako banku zentraletako go- bernadoreek osatuko dute.

2. Batzorde Betearazlea lehendakariak, lehen- dakariordeak eta beste lau kidek osatuko dute.

Lehendakaria, lehendakariordea eta Batzor- de Betearazleko gainerako kideak Kontseilu Europarrak izendatuko ditu, gehiengo kualifi- katuz, diru-gaietan edo bankuko gaietan ospe handia eta lanbide-esperientzia zabala lortu du- ten pertsonen artean, Kontseiluaren gomendioz eta Europako Parlamentuari eta Europako Ban- ku Zentraleko Gobernu Kontseiluari aurretiaz kontsulta eginda.

Kideon agintaldia zortzi urtekoa izango da, eta ezin izango da berritu.

Estatu kideetako herritarrek baino ezin dira izan Batzorde Betearazleko kide.

284. artikulua

(lehengo 113. artikulua EET)

1. Kontseiluko lehendakariak eta Batzorde- ko kide batek Europako Banku Zentraleko Go- bernu Kontseiluaren bileretan parte hartu ahal izango dute, baina boto-eskubiderik gabe.

Kontseiluko lehendakariak mozioa aurkez- tu ahal izango dio Europako Banku Zentraleko Gobernu Kontseiluari, eztabaida dezan.

2. BZESren helburuei eta eginkizunei buruzko gaiak eztabaidatzeko diren Kontseiluko bilere- tan parte hartzeko gonbitea egingo zaio Euro- pako Banku Zentraleko lehendakariari.

3. Europako Banku Zentralak urtero txostena bidaliko die Europako Parlamentuari, Kontseiluari eta Batzordeari, baita Kontseilu Europarrari ere, BZESren jarduerak eta aurreko urteko eta urte be- reko diru-politikak direla-eta. Europako Banku Zentraleko lehendakariak aurkeztuko die txos- ten hori Kontseiluari eta Europako Parlamentuari, eta eztabaida orokorra sortarazi dezake Parla- mentuak oinarri horren gainean.

Europako Parlamentuan eskumenak dauzkatzen batzordeek Europako Banku Zentraleko lehendakariari eta Batzorde Betearazleko kideei entzun ahal izango diete, Europako Parlamentuak eskatuta edo beren ekimenez.

ZAZPIGARREN ATALA

KONTUEN AUZITEGIA

285. artikulua

(lehenengo 246. artikulua EET)

Fiskalizazioa, edo Batasunaren kontuen kontrola, Kontuen Auzitegiak egingo du.

Estatu kide bakoitzeko herritar banak osatutako dute Kontu Auzitegia. Kontu Auzitegiko kideek independentzia osoz beteko dituzte beren eginkizunak, Batasunaren interes orokorraren alde.

286. artikulua

(lehenengo 247. artikulua EET)

1. Estatu bakoitzean kanpo-kontrolako instituzioetan parte hartzen ari diren edo aritu izan diren, zein eginkizun horretarako berariaz prestatutako pertsonen artean hautatuko dira Kontu Auzitegiko kideak. Independentzia-berme osoa agertu behar dute pertsona horiek.

2. Sei urterako izendatuko dira Kontu Auzitegiko kideak. Kontseiluak Europako Parlamentuari kontsulta egin ondoren onartuko du estatu kide bakoitzak aurkeztutako proposamenen arabera ezarritako kide-zerrenda. Kontu Auzitegiko kideen agintaldia berritu egin ahal izango da, amaitutakoan.

Kideek hautatuko dute Kontu Auzitegiko lehendakaria, beren artean, hiru urterako. Agintaldia berritu egin daiteke.

3. Kontu Auzitegiko kideek, beren eginkizunak betetzean, ezin dute eskatu ez onartu inongo gobernuren ez inongo organismoen jarraibiderik. Beren eginkizunekin bateragarri ez den egintza oro albo batera utziko dute.

4. Kontu Auzitegiko kideek, beren agintaldian, ezin izango dute beste inolako lanbide-jarduerarik burutu, ez ordaindutakorik, ez ordaindu gabetik. Epaileek, beren eginkizunei ekiten dietenean, zinez aginduko dute beren kargutik sortutako betebeharrak errespetatuko dituztela, bereziki beren agintaldia amaitu eta gero zenbait eginkizun edo onura onartzeko orduan erakutsi beharreko zintzotasun- eta diskrezio-eginbeharrak, bai beren agintaldiak dirauen artean eta bai hori amaitu eta gero ere.

5. Aldikako berrikuntza-kasuak eta heriotza-

kasuak albo batera utzita, Kontuen Auzitegiko kideen agintaldia banan-banan amaituko da, bakoitzak bere borondatez kargua uzten duenean edo 6. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz Justizia Auzitegiak kargua uztera behartzen duenean.

Agintaldia amaitzeko falta zaion denborarako ordezkatu da interesduna.

Kargua uzten den kasuetan izan ezik, Kontu Auzitegiko kideek karguetan jarraituko dute harik eta ordezkatuak izan arte.

6. Kontuen Auzitegiko kideak beren eginkizunetatik kentzeko edota pentsioa edo ordezko beste edozein onura jasotzeko eskubiderik gabe uzteko, kide horiek beharrezko baldintzak betetze-ari utzi diotela edo beren karguen ondoriozko betebeharrak ez dituztela bete adierazi beharko du Justizia Auzitegiak, Kontuen Auzitegiaren eskariz.

7. Kontseiluak finkatuko ditu Kontu Auzitegiko lehendakariaren eta kideen soldatak, sariak eta pentsioak. Lansari gisako beste edozein ordainketa ere finkatuko du.

8. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko epaileei aplikatu dakizkiekeen Europako Batasunaren pribilegio eta immunitateei buruzko protokoloa xedapenak aplikatuko zaizkie Kontuen Auzitegiko kideei ere.

287. artikulua

(lehenengo 248. artikulua EET)

1. Kontu Auzitegiak aztertuko ditu Batasunaren sarrera eta gastu guztien kontuak. Batasunak sortutako edozein organo edo organismoen sarrera eta gastu guztien kontuak ere aztertuko ditu, baldin eta organo edo organismo hori eratzeak egintzan azterketa-modu hori baztertzeko ez bada.

Kontu Auzitegiak adierazpena aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari kontuen fidagarritasunari buruz eta dagozkien eragiketen legezketasunari eta zuzentasunari buruz; adierazpen hori *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratuko da. Batasunaren jardunaren eremu nagusi bakoitzari buruzko ohar zehatzekin osa daiteke arestian aipatutako adierazpena.

2. Kontu Auzitegiak sarreraren eta gastuen legezketasuna eta zuzentasuna aztertuko ditu, baita finantzen kudeaketa ona bermatu ere. Hori egitean, bereziki, irregulartasun kasu guztien berri emango du.

Likidazioak eta Batasunari emandako kopuruak oinarri direla egingo da sarreraren kontrola.

Bereganatutako konpromisoak eta egindako ordainketak oinarri direla egingo da gastuen kontrola.

Kontrol-mota biak dena delako aurrekontu-ekitaldiko kontuak itxi aurretik egin daitezke.

3. Kontabilitateko agirietan oinarrituta egingo da kontrola, eta, beharrezkoa bada, Batasuneko beste instituzioen bulegoetan, Batasunaren ize-nean sarrerak edo gastuak kudeatzen dituen edozein organo edo organismoren bulegoetan eta estatu kideetan, aurrekontuko funtsak jasotzen dituen edozein pertsona fisiko zein juridikoren bulegoak barnean hartuta. Kontrola, estatu kideetan, estatuko kontrol-instituzioekin lankidetzan arituz egingo da, edo, instituzio horiek beharrezko eskumenik ez badaukate, estatuan eskumenak dauzkaten zerbitzuekin lankidetzan arituz. Kontu Auzitegia eta estatu kideetako kontrol-instituzioak lankidetzan arituko dira, elkarrenganako konfiantzaz, eta independentziari eutsiz. Instituzio edo zerbitzu horiek, baldin eta aipatutako kontrola egiten parte hartzeko asmorik badaukate, Kontu Auzitegiari jakinarazi behar diote.

Kontu Auzitegiak eskatuta, bere eginbeharrak betetzeko beharrezko dituen agiri edo informazio guztiak emango dizkiote auzitegi horri Batasuneko beste instituzioek, Batasunaren ize-nean sarrerak eta gastuak kudeatzen dituzten organo edo organismo guztiak, aurrekontuko funtsak jasotzen dituzten pertsona fisiko zein juridiko guztiek, eta estatuko kontrol-instituzioek, edo, instituzio horiek beharrezko eskumenik ez badaukate, estatuan eskumenak dauzkaten zerbitzuek.

Batasunaren sarrerak eta gastuak kudeatzean Europako Inbertsio Bankuak duen jardunari dagokionez, Bankuaren informazioetara iristeko Auzitegiak daukan eskubidea Auzitegiaren, Bankuaren eta Batzordearen artean lotutako akordioan arautuko da. Akordio hori lortu ez arren, Bankuak kudeatutako Batasunaren sarrerak eta gastuak kontrolatzeko beharrezko informazioetara iritsi ahal izango da Auzitegia.

4. Kontu Auzitegiak, ekitaldi bakoitza itxi eta gero, urteko txostena egingo du. Txosten hori Batasuneko instituzioetara bidaliko da eta *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratuko da, Kontu Auzitegiak egindako oharrei instituzio horiek emandako erantzunekin batera.

Kontu Auzitegiak, halaber, noiznahi aurkez ditzake bere oharpenak, arazo partikularrei buruzko txosten bereziak eginez, eta irizpenak ere eman ditzake, Batasuneko gainerako instituzioetakoren batek eskatuta.

Kontu Auzitegiak bere urteko txostenak, txosten bereziak edo irizpenak onartzeko, auzitegia osatzen duten kideen gehiengoa behar du. Hala ere, salak sor ditzake bere baitan,

zenbait txosten- edo irizpen-kategoria onartzeko, Auzitegiaren barne-erregelamenduan aurreikusitako baldintzetan.

Kontu Auzitegiak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari lagunduko die aurrekontua nola bete den kontrolatzeko lanetan.

Kontu Auzitegiak landuko du bere barne-erregelamendua. Erregelamendua Kontseiluak onartu beharko du.

2. KAPITULUA

BATASUNAREN EGINTZA JURIDIKOAK, ONARTZEKO PROZEDURAK ETA BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENENGO ATALA

BATASUNAREN EGINTZA JURIDIKOAK

288. artikulua

(lehenengo 249. artikulua EET)

Batasunaren eskumenak baliatzeko, instituzioek erregelamenduak, zuzentarauak, erabakiak, gomendioak eta irizpenak onartuko dituzte.

Erregelamenduak helmen orokorra edukiko du. Lege hori osagai guztiei dagokienez bete beharrekoa eta estatu kide bakoitzean zuzenean aplikatzekoa izango da.

Zuzentaraua jasotzen duen estatu kideari zuzentarauarekin ezartzen zaion betebeharra emaitza jakin bat lortzea da, baina estatuko agintarien aukeran uzten dira modua eta baliabideak.

Erabakia betebeharrekoa da puntu guztietan. Erabakia betetzeko hartzaile jakin bat izendatzen denean, horrentzat bakarrik izango da bete beharrekoa.

Gomendioak eta irizpenak ez dira lotesleak.

289. artikulua

1. Legegintzako prozedura arrunta honetan datza: Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, Batzordeak proposatuta, erregelamendu bat, zuzentarau bat edo erabaki bat hartzean. 294. artikuluan zehazten da prozedura hori.

2. Tratatuak zehaztutako berariazko kasuetan, Europako Parlamentuak Kontseiluaren partaidetzaz onartuko ditu erregelamenduak, zuzentarauak edo erabakiak, edo, bestela, Kontseiluak onartuko ditu Europako Parlamentuaren partaidetzaz; horri legegintzako prozedura berezia deritzo.

3. Legegintzako prozeduraren bitartez har-

tzen diren egintza juridikoak lege-egintzak izango dira.

4. Tratatuak zehaztutako berariazko kasuetan, lege-egintzak estatu kideen talde baten edo Europako Parlamentuaren ekimenez onartu ahal izango dira, edota Europako Banku Zentralaren gomendioz, edo Justizia Auzitegiaren edo Europako Inbertsio Bankuaren eskariz.

290. artikulua

1. Lege-egintza batek Batzordearengan eskuordetu ahal izango ditu helmen orokorra duen lege-egintzaren funtsezkoak ez diren osagai jakin batzuk osatzen edo aldarazten dituen legez besteko egintzak hartzeko ahalak.

Lege-egintzek berariaz mugatuko dituzte eskuordetzan emandako ahalen xedeak, edukiak, helmena eta iraupena. Lege-egintza/lege-egintza batek arautu behar ditu beti eremu bateko funtsezko elementuak, eta, horrenbestez, zeregin hori betetzeko ahalak ezin izango dira eskuordetzan eman.

2. Lege-egintzek berariaz finkatuko dute zein baldintzatan eman ahal izango den eskuordetza; hona hemen baldintzok:

a) Europako Parlamentuak edo Kontseiluak eskuordetza ezestea erabaki ahal izango dute;

b) eskuordetzan emandako egintza ezin izango da indarrean sartu, baldin eta Europako Parlamentuak edo Kontseiluak kontrako arrazoiak eman badituzte lege-egintzak ezarritako epean.

Europako Parlamentuak bere kideen gehiengoz erabakiko du, eta Kontseiluak, berriz, gehiengo kualifikatuz, a) eta b) idatz-zatiei dagokienez.

3. Eskuordetutako egintzen tituluan «eskuordetua» azalduko da.

291. artikulua

1. Estatu kideek barne-zuzenbideko beharrezko diren neurri guztiak hartuko dituzte, Batasunarentzat zuzenbidearen arabera lotura-indarra duten egintzak betearazteko.

2. Batasunarentzat zuzenbidearen arabera lotura-indarra duten egintzak betearazteko baldintza uniformeak behar direnean, estatu kideek betearazpen-eskumenak emango dizkiote Batzordeari edo, behar bezala justifikatutako egoera berezietan eta Europar Batasunaren Tratatuaren 24. eta 26. artikuluetan ezarritakoetan, Kontseiluari.

3. Horren aurretik, 2. paragrafoaren ondorioetarako, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak legeegintzako prozedura arrunta erabilia

onartutako erregelamenduen bidez arau eta printzipio orokorrak ezarriko dira estatu kideen kontrol-moduei dagokienez, Batzordeak betearazpen-eskumenak nola baliatzen dituen kontrolatzeko.

4. Betearazpen-egintzen tituluan «bete-arazpenekoa» adierazpidea azalduko da.

292. artikulua

Kontseiluak gomendioak onartuko ditu. Batzordeak proposatuta egingo du hori, baldin eta Tratatuaren xedatzen bada Kontseiluak Batzordearen proposamenez onartu behar dituela egintzak. Aho batez hartuko ditu erabakiak Batasunaren egintza bat onartzeko guztien adostasuna beharrezko den eremuetan. Batzordeak, baita Europako Banku Zentralak ere, Tratatuak jasotako berariazko egoeretan, gomendioak onartuko dituzte.

BIGARREN ATALA

EGINTZAK ONARTZEKO PROZEDURAK ETA BESTELAKO XEDAPENAK

293. artikulua

(lehenengo 250. artikulua EET)

1. Tratatuari jarraiki, Kontseiluak, Batzordeak proposatuta, erabakirik hartzen badu, proposamen hori soilik aho batez aldatu ahal izango du, salbu eta 294. artikuluko 10. eta 13. paragrafoetan, 310., 312. eta 314. artikuluetan eta 315. artikuluko bigarren lerrokadan jasotako kasuetan.

2. Kontseiluak erabakirik hartzen ez duen bitartean, Batzordeak aldatu egin dezake bere proposamena, Batasuneko egintza bat onartzeko bideratutako prozedurek dirauten artean.

294. artikulua

(lehenengo 251. artikulua EET)

1. Egintzaren bat onartzeko, tratatuaren legegintzako prozedura arrunta aipatzen denean, ondorengo prozedura hau aplikatuko da.

2. Batzordeak proposamena aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari.

Lehenengo irakurraldia

3. Europako Parlamentuak lehenengo irakurraldian onartuko du bere jarrera eta Kontseiluari jakinaraziko dio.

4. Kontseiluak Europako Parlamentuaren jarrera onartuz gero, kasuan kasuko egintza onartuko da, Europako Parlamentuaren jarrerari dagokion formulazioan.

5. Kontseiluak ez badu Europako Parlamentuaren jarrera onartzen, lehenengo irakurraldian finkatuko du bere jarrera eta Europako Parlamentuari jakinaraziko dio.

6. Kontseiluak bere jarrera lehenengo irakurraldian hartzeko izan dituen arrazoi guztien berri emango dio osoki Europako Parlamentuari. Batzordeak bere jarreraren berri emango dio osoki Europako Parlamentuari.

Bigarren irakurraldia

7. Helarazpen hori gertatu denetik hiru hilabeteko epean, Europako Parlamentuak:

a) lehenengo irakurraldian onartzen badu Kontseiluaren jarrera edo ez badu inolako erabakirik hartzen, kasuan kasuko egintza onartutzat joko da Kontseiluaren jarrerari dagokion formulazioan;

b) kideen gehiengo, atzera botatzen badu Kontseiluak lehenengo irakurraldian finkatutako jarrera, proposatutako egintza onartugabetzat joko da;

c) kideen gehiengo, zuzenketak proposatzen baditu lehenengo irakurraldian Kontseiluak finkatutako jarrerarentzat, horrela aldarazitako testua Kontseiluari eta Batzordeari helaraziko die, eta azken horrek emango du zuzenketei buruzko irizpena.

8. Europako Parlamentuaren zuzenketak jaso direnetik hiru hilabeteko epean, Kontseiluak, gehiengo kualifikatuz:

a) zuzenketa horiek guztiak onartzen badi-tu, kasuan kasuko egintza onartutzat joko da;

b) zuzenketa horiek guztiak onartzen ez baditu, Kontseiluko lehendakariak, Europako Parlamentuko lehendakariarekin bat etorritik, Adiskidetzeko Komitearen bilerarako deia egingo du sei asteko epean.

9. Kontseiluak aho batez hartuko du Batzordearen irizpen negatiboa jaso duten zuzenketei buruzko erabakia.

Adiskidetzeko

10. Adiskidetzeko Komitea Kontseiluko kideek edo horien ordezkariak eta Europako Parlamentuaren beste horrenbeste ordezkariak osatuko dute, eta bere xedea izango da Europako Parlamentuaren jarreraren eta Kontseiluak bigarren irakurraldian finkatutako jarreraren oinarritutako testu bateratu bati buruzko akordioa lortzea, Komitea deitu zenetik sei asteko epean, eta Kontseiluko kideen edo horien ordezkarien gehiengo kualifikatuz eta Europako Parlamentua ordezkatzaren duteen kideen gehiengo.

11. Batzordeak Adiskidetzeko Komitearen lanetan hartuko du parte, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren jarrerak hurbil-

tzen laguntzeko beharrezko ekimen guztiak onartuko ditu.

12. Baldin eta, Komitea deitu zenetik sei asteko epean, Adiskidetzeko Komiteak testu bateratua onartzen ez badu, proposatutako egintza hori onartugabetzat joko da.

Hirugarren irakurraldia

13. Baldin eta, epe horretan, Adiskidetzeko Komiteak testu bateratua onartzen badu, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, biek ala biek, sei asteko epea izango dute onarpena gertatu denetik kasuan kasuko egintza testu horrekin bat etorritik onartzeko; Europako Parlamentuak emandako botoen gehiengo hartuko du bere erabakia, eta Kontseiluak, berriz, gehiengo kualifikatuz. Horrelakorik onartu ezean, proposatutako egintza onartugabetzat joko da.

14. Artikulu honetan ezartzen diren hiru hilabeteko eta sei asteko aldiak luzatu egin ahal izango dira, gehienez ere hilabetez eta bi astez hurrenez hurren, Europako Parlamentuaren edo Kontseiluaren eskariz.

Xedapen bereziak

15. Baldin eta, Tratatuak jasotzen dituen kasuetan, lege-egintza bat legeegintzako prozedura arruntaren pean jartzen bada zenbait estatu kideren ekimenez, Europako Banku Zentralak gomendatuta edo Justizia Auzitegiaren eskariz, ez dira aplikatuko ez 2. paragrafoa, ez 6. paragrafoa bigarren esaldia, ez 9. paragrafoa.

Kasu horietan, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak Batzordeari helaraziko diote egintzaren proiektua, lehenengo eta bigarren irakurraldietan dituzten jarrerekin batera. Europako Parlamentuak edo Kontseiluak prozedura osoan zehar eska diezaiokete irizpena Batzordeari, eta Batzordeak bere ekimenez ere eman dezake. Batzordeak, halaber, eta beharrezkotzat jotzen badu, Adiskidetzeko Komitean parte har dezake, 11. paragrafoarekin bat etorritik.

295. artikulua

Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak kontsultak egingo dizkiote elkarri, eta denen artean adostuko dute beren arteko lankidetzak nolakoa izango den. Horretarako, eta Tratatuak zor zaien errespetuaren barruan, instituzioen arteko akordioak egin ahal izango dituzte, eta horiek lotura-indarra izan ahal izango dute.

296. artikulua

(lehenengo 253. artikulua EET)

Tratatuak zein egintza-mota onartu behar den ezartzen ez dutenean, instituzioek erabaki

behar dute, kasuan-kasuan aplikatu beharrekoak diren prozeduren arabera eta heinekotasun-printzipioari jarraituz.

Egintza juridikoek arrazoietan oinarrituta egon behar dute, eta Tratatueta jasotako proposamenak, ekimenak, gomendioak, eskaerak edo irizpenak hartuko dituzte abiaburu.

Lege-egintzaren proiektua aurkezten zaie-nean, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak ez dute parte hartuko kasuan kasuko eremuan aplikatu beharreko legeegintzako prozeduran jasota ez dagoen ezein egintzaren onarpenean.

297. artikulua

(lehengo 254. artikulua EET)

1. Legeegintzako prozedura arrunta erabiliz onartzen diren lege-egintzak Europako Parlamentuko lehendakariak eta Kontseiluko lehendakariak sinatu behar dituzte.

Legeegintzako prozedura berezi baten arabera onartutako lege-egintzak, horiek onartu dituen instituzioko lehendakariak sinatuko ditu.

Lege-egintzak *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* emango dira argitaratuta. Bertan finkatutako egunean jarriko dira indarrean, eta, egunik jarri ezik, argitaratzen direnetik hogeitau egunera.

2. Erregelamendu, zuzentarau eta, hartzailek adierazten ez dutenean, erabaki moduan onartutako legez besteko egintzak, onartu dituen instituzioko lehendakariak sinatuko ditu.

Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratuko dira erregelamenduak, Estatu kide guztientzat diren zuzentaruak eta hartzaile jakinik adierazten ez duten erabakiak. Bertan finkatutako egunean jarriko dira indarrean, eta, egunik jarri ezik, argitaratzen direnetik hogeitau egunera.

Gainerako zuzentaruak eta hartzailea adierazten duten erabakiak, hartzaileei jakinaraziko zaizkie, eta jakinarazpen hori egindakoa hartuko dute indarra.

298. artikulua

1. Beren eginkizunak betetzean, Batasuneko instituzio, organo eta organismoek Europar administrazio ireki, eragingarri eta independentearen sostengua izango dute.

2. Estatutua eta 336. artikulua erekin bat onartutako erregimena errespetatuta, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak xede horretarako beharrezkoak diren xedapenak ezarriko dituzte, legeegintzako prozedura arruntaz onartutako erregelamendu bidez.

299. artikulua

(lehengo 256. artikulua EET)

Estatuez beste pertsonen diruzko betebeharra ezartzen dieten Kontseiluaren, Batzordearen edo Europako Banku Zentralaren egintzak betearazpen-tituluak izango dira.

Nahitaezko betearazpena zein lurraldetan gauzatzen den kontuan dela, lurralde hori hartzen duen estatuan indarrean dagoen prozedura zibileko arauak izango dira betearazpena arautuko dutenak. Estatu kide bakoitzeko gobernuak izendatu behar ditu betearazteko agindua gauzatzeko estatu barruko agintariak, eta horiek betearaziko dute agindua, titulua benetakoa dela egiaztatze hutsarekin; eta Batzordeari eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari jakinarazi behar diete gobernuak agintarion izena.

Interesdunak, bere eskariz formalismo horiek bete ondoren, barne Zuzenbidearen arabera bideratu lezake nahitaezko betearazpena, esku-menak dauzkan organora zuzenean jota.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren erabaki baten indarrez baino ezin da eten nahitaezko betearazpena. Hala ere, estatu bakoitzeko jurisdikzioen eskumenekoa izango da betearazpen-neurriak Zuzenbidearekin bat datozen kontrolatzea.

3. KAPITULUA

BATASUNeko ORGANO AHOLKU-EMAILEAK

300. artikulua

1. Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak laguntzaile izango dituzte Ekonomia eta Gizarte Komitea eta Eskualdeetako Komitea, aholkularitza-eginkizunetan jardungo baitute.

2. Ekonomia eta Gizarte Komitea osatzeko, enpresaburuen eta langileen erakundeetatik eta gizarte zibilaren ordezkaritza duten beste sektore batzuetatik hartuko dira ordezkariak, batez ere, eremu sozio-ekonomikotik zein herri-tar-, lanbide- eta kultura-eremuetatik.

3. Eskualdeetako Komitea eskualdeetako eta tokian tokiko erakundeetako ordezkariak osatuta egongo da, eskualdeetako edo tokian tokiko erakunderen batean hauteskunde-manuren baten titular badira, edo hautatutako biltzarren batean erantzukizun politikoa baldin badute.

4. Ekonomia eta Gizarte Komiteko eta Eskualdeetako Komiteko kideak ez dira inolako aginduzko manuri lotuta egongo. Indepen-

dentzia osoz beteko dituzte beren eginkizunak, Batasunaren interes orokorraren alde.

5. Komiteen osaerari buruz 2. eta 3. paragrafoetan jasotako arauak, aldian-aldian berrikusiko ditu Kontseiluak, Batasunaren bilakaera ekonomikoa, soziala eta demografikoa aintzakotzat hartu ahal izateko. Kontseiluak, Batzordeak proposatuta, erabakiak hartuko ditu honetaz.

LEHENENGO ATALA

EKONOMIA ETA GIZARTE KOMITEA

301. artikulua

(lehengo 258. artikulua EET)

Ekonomia eta Gizarte Komiteko kide-kopurua ez da hirurehun eta berrogeita hamarretik gorakoa izango:

Kontseiluak, aho batez, eta Batzordeak proposatuta, Komitearen osaera ezarriko duen erabakia hartuko du.

Kontseiluak ezarriko ditu Ekonomia eta Gizarte Komiteko kideen bidaia-sariak.

302. artikulua

(lehengo 259. artikulua EET)

1. Komiteko kideak bost urterako izendatuko dira. Kideen zerrenda estatu kide bakoitzak proposatutakoekin bat etorritik egingo da, eta Kontseiluak onartuko du. Komiteko kideen agintaldia berritu egin daiteke.

2. Batzordeari aurretiaz kontsulta eginda erabakiko du Kontseiluak. Batasunaren jardueretan zerikusia duten ekonomia- eta gizarte-arloen eta gizarte zibilaren ordezkariak betetzen duten Europako erakundeen iritzia ere eskatu ahal izango du.

303. artikulua

(lehengo 260. artikulua EET)

Komiteak berak izendatuko ditu bertako kideen artean lehendakaria eta mahaia, bi urte eta erdirako.

Barne-erregelamendua egingo du.

Komiteko lehendakariak egingo du komitearen bileretarako deia, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren edo Batzordearen eskariz. Komitea bere ekimenez ere bil daiteke.

304. artikulua

(lehengo 262. artikulua EET)

Europako Parlamentuak, Kontseiluak edo Ba-

tzordeak kontsulta egingo diote Komiteari, Tratatueta jasotako kasuetan. Institutzio horiek bi-dezko iritzitako gainerako kasu guztietan ere egin ahal izango diote kontsulta Komiteari. Irizpen bat eman dezake, halaber, egoki irizten dionean.

Europako Parlamentuak, Kontseiluak edo Batzordeak, beharrezko irizten badiote, epe bat jarriko diote Komiteari bere irizpena aurkez dezan; epea ez da hilabetetik beherakoa izango, lehendakariari horretarako jakinarazpena egin ten zaionetik zenbatzen hasita. Irizpena jaso gabe amaitzen bada finkatutako epea, albo batera utzi ahal izango da irizpena.

Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena Europako Parlamentuari, Kontseiluari eta Batzordeari bidaliko zaie, eztabaiden aktarekin batera.

BIGARREN ATALA

ESKUALDEETAKO KOMITEA

305. artikulua

(lehengo 263. artikulua, bigarren, hirugarren eta laugarren letrakadak, EET)

Eskualdeetako Komitearen kide-kopurua ez da hirurehun eta berrogeita hamarretik gorakoa izango.

Kontseiluak, aho batez, eta Batzordeak proposatuta, Komitearen osaera ezarriko duen erabakia hartuko du.

Eskualdeetako Komiteko kideak, eta beste horrenbeste ordezkari, bost urterako izendatuko dira. Agintaldia berritu egin daiteke. Kontseiluak onartuko du kideen eta ordezkarien zerrenda, hain zuzen ere, estatu kide bakoitzak aurkeztutako proposamenekin bat etorritik egingo dena. 300. artikuluko 3. paragrafoan aipatutako agintaldia, kideok proposatzeko beharrezko oinarria izan zena, amaitzen denean, Komiteko kideen agintaldia berehala eta besterik gabe amaituko da, eta, prozedura berberari jarraituz, agintaldi horretan gelditzen den gainerako denborarako ordeztuko dituzte. Eskualdeetako Komiteko kide bat ere ezin da izan aldi berean Europako Parlamentuko kide.

306. artikulua

(lehengo 264. artikulua EET)

Eskualdeetako Komiteak bertako kideen artean izendatuko ditu lehendakaria eta Mahaia, bi urte eta erdirako.

Barne-erregelamendua egingo du.

Komiteko lehendakariak egingo du komite-

aren bileretarako deia, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren edo Batzordearen eskariz. Komitea bere ekimenez ere bil daiteke.

307. artikulua

(lehengo 265. artikulua EET)

Europako Parlamentuak, Kontseiluak edo Batzordeak kontsulta egingo diote Eskualdeetako Komiteari, Tratatuetaurreikusitako kasuetan, baita instituzio bi horietako batek bidezko iritzi diezaion beste edozein kasutan ere, batez ere mugaz haraindiko lankidetzari dagozkionetan.

Europako Parlamentuak, Kontseiluak edo Batzordeak, beharrezko irizten badiote, epe bat jarriko diote Komiteari bere irizpena aurkeztu dezan; epea ez da hilabetetik beherakoa izango, lehendakariari horretarako jakinarazpena egin zaionetik zenbatzen hasita. Irizpena jaso gabe amaitzen bada finkatutako epea, albo batera utzi ahal izango da irizpena.

Ekonomia eta Gizarte Komiteari 304. artikulua aplikatuta aholkua eskatzen zaionean, Europako Parlamentuak, Kontseiluak edo Batzordeak Eskualdeetako Komiteari jakinaraziko diote irizpena eskatu dela. Eskualdeetako Komiteak irizpena egin dezake gai horri buruz, baldin eta eskualdeetako berariazko interesak jokoan daudela irizten badi.

Eskualdeetako Komiteak, bidezko iritzidieziaionean, irizpena eman dezake bere ekimenez.

Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena Europako Parlamentuari, Kontseiluari eta Batzordeari bidaliko zaie, eztabaiden aktarekin batera.

4. KAPITULUA

EUROPAKO INBERTSIO BANKUA

308. artikulua

(lehengo 266. artikulua EET)

Europako Inbertsio Bankuak nortasun juridikoa edukiko du.

Estatu kideak izango dira Europako Inbertsio Bankuko kide.

Europako Inbertsio Bankuaren estatutuak tratatuei erantsita doan protokolo batean jasotzen dira. Kontseiluak, aho batez, legegintzako prozedura berezi baten arabera, Bankuaren estatutuak aldatu ahal izango ditu, bai Europako Inbertsio Bankuak eskatuta eta Europako Parlamentuari eta Batzordeari aurretiaz kontsulta eginda, bai Batzordeak proposatuta eta Euro-

pako Parlamentuari eta Europako Inbertsio Bankuari aurretiaz kontsulta eginda.

309. artikulua

(lehengo 267. artikulua EET)

Europako Inbertsio Bankuaren eginbeharra hauxe da: Batasunaren interesen alde, kapital-merkatuez eta bere baliabide berekiez baliatuz, barne-merkatuaren garapen orekatu eta egonkorra lortzen laguntzea. Bankuak, helburu horrekin, maileguak eta bermeak emanez, eta irabazteko xederik gabe, proiektu hauek finantzatzaren lagunduko du, ekonomiaren arlo guztietan:

a) eskualde atzeratuenen garapenerako proiektuak;

b) enpresak berritzeko edo birmoldatzeko proiektuak, edo barne-merkatua ezartzeko edo horren ezarpenak edo funtzionamenduak eragindako jarduera berriak sortzeko proiektuak, baldin eta, handiak direlako edo beren izaeragatik, estatu kide bakoitzean dauden finantzabideekin oso-osorik finantzatu ezin badira;

c) Estatu kide baten baino gehiagoren interes bateratuko proiektuak, baldin eta, handiak direlako edo beren izaeragatik, Estatu kide bakoitzean dauden finantza-bideekin oso-osorik finantzatu ezin badira.

Bankuak, bere eginbeharrak betetzera, inbertsio-programak finantzatzeko erraztasunak emango ditu, Batasuneko egitura-funtsetako ekintzekin eta beste finantza-tresna batzuekin batera.

II. TITULUA

FINANTZA-XEDAPENAK

310. artikulua

(lehengo 268. artikulua EET)

1. Batasunaren sarrera eta gastu guztiak aurrekontu-ekitaldi bakoitzari dagozkion aurreikuspenetan jaso eta aurrekontuan zehaztuta utzi behar dira.

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak ezarriko dute Batasunaren urteko aurrekontua, 314. artikulua arabera.

Sarrerak eta gastuak orekatu egin behar dira aurrekontuan.

2. Aurrekontuan zehaztutako gastuak urteko aurrekontu-ekitaldi osorako onartuko dira,

322. artikuluan adierazitako erregelamenduen arabera.

3. Aurrekontuan zehaztutako gastuak egin ahal izateko, aurretiaz Batasunaren egintza bat onartu beharko da, zuzenbidearen arabera lotura-indarra izango duena, egintza horrek emango baitie oinarri juridikoa bere ekintzari eta dagokion gastua gauzatzeari, betiere, 322. artikuluan adierazitako erregelamenduaren arabera eta erregelamendu horrek ezarritako salbuespenak salbuespen direla.

4. Aurrekontuei buruzko diziplina bermatzeko, Batasunak ez du egintzarik onartuko, baldin eta egintza horrek aurrekontuan nabarmen eragin badezake, eta, Batasunaren baliabide propioen mugaren baitan eta 312. artikuluan aipatutako urte anitzeko finantza-esparruaren barruan, egintza horretatik etorriko diren gastuak finantzatu ahal izango direla bermatzen ez badu.

5. Aurrekontua gauzatuko da finantzen kudeaketa ona printzipio arautzaile duela. Estatu kideak eta Batasuna elkarrekin lankidetzan arituko dira, aurrekontuan jarritako kredituak printzipio horren arabera erabil daitezen.

6. Batasunak eta estatu kideek, 325. artikuluari jarraituz, iruzurra eragotziko dute, baita Batasunaren finantza-interesen kaltean izan daitekeen legearen aurkako beste edozein jarduera ere.

1. KAPITULUA

BATASUNAREN BALIABIDE PROPIOAK

311. artikulua

(lehengo 269. artikulua EET)

Batasunak bere helburuak lortzeko eta bere politikak burutzeko behar dituen baliabideak bereganatuko ditu.

Beste sarrera batzuk edukitzea baztertu gabe, Batasunaren baliabide propioen pentzutan finantzatuko da oso-osorik aurrekontua.

Kontseiluak, legegintzako prozedura berezi baten bidez, aho batez, eta aldez aurretik Europako Parlamentuari kontsulta eginda, Batasunaren baliabide propioen sistemari buruzko xedapenak ezartzen dituen erabakia hartuko du. Ildo horretatik, baliabide propioetan beste kategoriatzat ere ezarri ahal izango dira, edo, daudenetatik, kategoriaren bat kendu. Estatu kideek onartzen dutenean sartuko da indarrean erabaki hori, eta estatu bakoitzak bere konstituzio-arauetan ezarritakoari jarraituz onartu beharko du.

Kontseiluak ezarriko ditu, legegintzako pro-

zedura berezi baten arabera, Batasunaren baliabide propioen sistema betearazteko neurriak, hirugarren errokadaren arabera hartutako erabakiak hala xedatzen duenean. Europako Parlamentuak aurretiaz onespena emanda erabakiko du Kontseiluak.

2. KAPITULUA

URTE ANITZEKO FINANTZA-ESPARRUA

312. artikulua

1. Urte anitzeko finantza-esparruak Batasunaren gastuen bilakaera ordenatua bermatzea izango du helburu, betiere, bere baliabide propioen muga barruan.

Bost urteko gutxienezko epea ezarriko da.

Batasunaren urteko aurrekontuak urte anitzeko finantza-esparrua errespetatuko du.

2. Kontseiluak legegintzako prozedura berezi baten arabera onartuko du urte anitzeko finantza-esparrua ezartzen duen erregelamendua. Kontseiluak aho batez erabakiko du, betiere, Europako Parlamentuak, bere kideen gehiengoaren erabakiz, aurretiaz onespena emanda.

Kontseilu Europarrak erabaki bat hartu ahal izango du aho batez, Kontseiluak gehiengo kualifikatuz erabakitze modua izan dezan lehengo errokadan jasotzen den erregelamendua onartu behar duenean.

3. Finantza-esparruak zehaztuko du zenbatekoak izango diren konpromisoak betetzeko kredituen urteko gehienezko mugak, gastu-kategorien arabera, baita ordainketetarako kredituen urteko gehienezko muga ere. Gastu-kategorien kopurua mugatua izan behar da, eta kategoria horiek bat etorriko dira Batasunaren jardunaren sektore handienekin.

Finantza-esparruak ezarriko ditu urteko aurrekontu-prozedura ondo garatzeko egokiak diren beste xedapen guztiak.

4. Baldin eta aurreko finantza-esparrua amaitutakoan ez bada artean Kontseiluaren erregelamendu bat onartu finantza-esparru berri bat ezartzeko, aurreko finantza-esparru horren azken urteko gehienezko mugak eta gainerako xedapenak ezartzen jarraituko da, harik eta egintza hori onartzen den arte.

5. Finantza-esparrua onartzeko prozeduraren barruan, onarpen hori errazte aldera beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dituzte Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak.

3. KAPITULUA

BATASUNAREN URTEKO AURREKONTUA

313. artikulua

(lehenengo 272. artikulua, 1. paragrafoa, EET)

Aurrekontu-ekitaldia urtarilaren 1ean hasiko da, eta abenduaren 31n amaituko.

314. artikulua

(lehenengo 272. artikulua, 2.etik 10.era bitarteko paragrafoak, EET)

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak ezarriko dute Batasunaren urteko aurrekontua, legegintzako prozedura berezi baten arabera, honako xedapen hauek kontuan hartuta.

1. Institutuzio bakoitzak, Europako Banku Zentrala izan ezik, uztailearen 1a baino lehen, hurrengo aurrekontu-ekitaldirako dituen gastuen aurreikuspena egingo du. Batzordeak aurreikuspen horiek guztiak batu eta aurrekonturako proiektua egingo du; elkarrengandik aldentzen diren aurreikuspenak jaso daitezke bertan.

Proiektuan sarreraren aurreikuspena eta gastuen aurreikuspena jaso behar dira.

2. Batzordeak aurrekonturako proiektua jasotzen duen proposamena aurkeztu behar die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, beranduen jota aurrekontua bete aurreko urteko irailaren 1ean.

Batzordeak, prozeduran zehar, aldatu egin ahal izango du aurrekonturako proiektua, 5. paragrafoan adierazten den Adiskidetzeko Komitearen bilera deitu bitartean.

3. Kontseiluak aurrekonturako proiektuari buruzko erabakia hartu eta Europako Parlamentuari helaraziko dio, beranduen jota aurrekontua bete aurreko urteko urriaren 1ean. Kontseiluak bere jarrera hartzeko izan dituen arrazoi guztien berri emango dio osoki Europako Parlamentuari.

4. Helarazpen hori gertatu denetik berrogeita bi eguneko epean, Europako Parlamentuak:

a) Kontseiluaren jarrera onartzen badu, aurrekontua onartu egingo da;

b) ez badu erabakirik hartzen, aurrekontua onartutzat joko da;

c) bertako kideen gehiengoz zuzenketak onartzen baditu, zuzenketak jaso dituen proiektua Kontseiluari eta Batzordeari helaraziko zaie. Europako Parlamentuko lehendakariak, Kontseiluko lehendakariarekin bat, luzamendurik gabe deituko du Adiskidetzeko Komitea. Alabaina, proiektua helarazi zaionetik hamar egu-

neko epean Kontseiluak jakinarazten badio Europako Parlamentuari horrek egin dituen zuzenketa guztiak onartzen dituela, Adiskidetzeko Komitea ez da bilduko.

5. Adiskidetzeko Komitea Kontseiluko kideek edo horien ordezkariak eta Europako Parlamentuaren beste horrenbeste ordezkariak osatuko dute, eta bere xedea izango da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren jarreretan oinarritutako testu bati buruzko akordioa lortzea, Komitea deitu zenetik hogeita bat eguneko epean, eta Kontseiluko kideen edo horien ordezkarien gehiengo kualifikatuz eta Europako Parlamentua ordezkatzan duten kideen gehiengoz.

Batzordeak Adiskidetzeko Komitearen lanetan hartuko du parte, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren jarrerak hurbiltzen laguntzeko beharrezko ekimen guztiak onartuko ditu.

6. Baldin eta 5. paragrafoan aipatzen den hogeita bat eguneko epean, Adiskidetzeko Komiteak testu bateratu bati buruzko akordioa lortzen badu, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, biek ala biek, hamalau eguneko epea izango dute akordioaren egunetik aurrera testu bateratua onartzeko.

7. Baldin eta 6. paragrafoan aipatzen den hamalau eguneko epean:

a) Europako Parlamentuak eta Kontseiluak testu bateratua onartzen badute edo ez badute inolako erabakirik hartzen, edo instituzio horietako batek testu bateratua onartzen badu eta besteak, aldiz, ez badu inolako erabakirik hartzen, Aurrekontua behin betiko onartutzat joko da testu bateratuaren arabera, edo

b) Europako Parlamentuak, kideen gehiengoz, eta Kontseiluak atzera botatzen badute testu bateratua, edo instituzio horietako batek atzera botatzen badu testu bateratua eta besteak, aldiz, ez badu inolako erabakirik hartzen, Batzordeak aurrekonturako beste proiektu bat aurkeztuko du, edo

c) Europako Parlamentuak, kideen gehiengoz, atzera botatzen badu testu bateratua eta Kontseiluak, aldiz, onartu egiten badu, Batzordeak aurrekonturako beste proiektu bat aurkeztuko du, edo

d) Europako Parlamentuak testu bateratua onartzen badu baina Kontseiluak atzera botatzen badu, Europako Parlamentuak, Kontseiluak atzera bota duen egunetik zenbatzen hasita hamalau eguneko epean, osatzen duten kideen gehiengoz eta emandako botoen hiru bostenaz erabaki dezake erabat edo zati batean berresten dituela 4. paragrafoko c) idatz-zatian aipatzen diren zuzenketak. Europako Parlamentuaren zuzenketa bat berresten ez bada, zuzenketa egin zaion aurrekontuko partidari buruz Adiskidetzeko Komitean hartutako jarrerari eutsiko zaio.

Aurrekontua oinarri horren gain behin betiko hartutzat joko da.

8. Baldin eta 5. paragrafoan aipatzen den hogeita bat eguneko epean Adiskidetzeko Komiteak ez badu testu bateratuaren gaineko akordioarik lortzen, Batzordeak aurrekonturako beste proiektu bat aurkeztuko du.

9. Artikulu honetan ezarritako prozedura amaitu ondoren, aurrekontua behin betiko onartu dela aldarrikatuko du Europako Parlamentuko lehendakariak.

10. Instituzio bakoitzak artikulu honek esleitzen dizkion eskumenak erabiliko ditu, Tratatuak eta horiei jarraiki onartutako egintzak errespetatuz, Batasunaren baliabide propioei eta sarrearen eta gastuen arteko orekari dagokienez, bereziki.

315. artikulua

(lehengo 273. artikulua EET)

Aurrekontu-ekitaldia hastean oraindik ez badago behin betiko onartuta aurrekontua, gastuak hileroko burutu ahal izango dira, kapitulua, 322. artikuluan jasotako europar legearekin bat, aurreko ekitaldiko aurrekontuan zehaztutako kredituen hamabirena muga dela, eta ezin izango da aurrekonturako proiektuko kapitulu berean jasotako kredituen hamabirena gainditu.

Kontseiluak, Batzordearen proposamenez, hamabirenetik gorako gastuak egiteko baimena eman dezake, lehenengo lerrokadan ezarritako gainerako baldintzak errespetatzen badira, 322. artikulua indarrez onartutako erregelamenduaren arabera. Europako Parlamentuari emango dio bere erabakiaren berri berehala.

Bigarren lerrokadan aipatutako erabakian aurreikusita utzi behar dira artikulu hau aplikatu ahal izateko baliabideei buruz beharrezkoak diren neurriak, 311. artikuluan adierazten diren egintzak errespetatuz.

Onartzen denetik hogeita hamar egunera sartuko da indarrean erabaki hori, baldin eta Europako Parlamentuak, osatzen duten kideen gehiengoz, ez badu, epe horren barruan, gastuak murriztea erabakitzen.

316. artikulua

(lehengo 271. artikulua EET)

Aurrekontu-ekitaldia amaitzen denean, langileen gastuetarako ez diren kredituak erabili gabe gelditzen badira, hurrengo ekitaldirako luzatu ahal izango dira, eta ekitaldi horretarako bakarrik, 322. artikulua aplikatzerakoan zehaztuko diren baldintzak betez.

Kredituak kapitulua zehaztuko dira, eta beren izaera edo zertarakoaren arabera pilatuko dira gastuak kapituluotan; eta azpitaldeak egingo dira, 322. artikulua indarrez onartutako erregelamenduaren arabera.

Europako Parlamentuaren, Kontseilu Europarraren eta Kontseiluaren, Batzordearen eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren gastuak aurrekontuko aparteko kontuetan agertuko dira, nahiz eta sistema berezia eduki zenbait gastu bateraturako.

4. KAPITULUA

AURREKONTUA BETEARAZTEA ETA KUDEAKETA ONARTZEA

317. artikulua

(lehengo 274. artikulua EET)

Batzordeak, bere erantzukizunaren pean eta baimendutako kredituen muga barruan, Aurrekontua gauzatuko du estatu kideekin lankidetzan, 322. artikulua indarrez onartutako erregelamenduetako xedapenen arabera eta finantzen kudeaketa onaren printzipioarekin bat. Estatu kideek lankidetzak eskainiko diote Batzordeari, baimendutako kredituak finantza-kudeaketa onaren printzipioaren arabera erabiliko direla bermatzeko.

Erregelamenduak zehaztuko du zein diren Aurrekontua gauzatzean estatu kideek dituzten kontrol eta ikuskaritzako betebeharrak, baita horretatik ondorioztatzen diren erantzukizunak ere. Halaber zehaztuko ditu instituzio bakoitzak bere gastu propioak gauzatzean dituen erantzukizunak eta horretan parte hartzeko edukiko dituen berariazko moduak.

Aurrekontuaren barruan, Batzordeak kapitulutik kapitulura edo azpiataletik azpiatalera eskualdatu ahal izango ditu kredituak, 322. artikulua indarrez onartutako erregelamenduak ezarritako mugekin eta baldintzetan.

318. artikulua

(lehengo 275. artikulua EET)

Batzordeak urtero aurkeztuko dizkie amaitutako ekitaldiko aurrekontuko eragiketen kontuak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari. Gainera, Batasunaren aktiboaren eta pasiboaren finantza-balantzea ere bidaliko die.

Batzordeak, halaber, Batasunaren finantzak aztertzen dituen txostena aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, lortutako emaitzetan oinarrituta, bereziki 319.

artikuluari jarraiki Europako Parlamentuak eta Kontseiluak emandako jarraibideei dagokienez.

319. artikulua

(lehengo 276. artikulua EET)

1. Europako Parlamentuak, Kontseiluaren gomendioz, aurrekontua gauzatzean Batzordeak izan duen kudeaketa onartuko du. Horretarako, Europako Parlamentuak, Kontseiluak gauza bera egin ondoren, ondoko agiriak aztertuko ditu: 318. artikuluan aipatutako kontuak, finantza-balantzea eta azterketa-txostena, Kontu Auzitegiaren urteko txostena —ikuskaritzapeko instituzioek Kontu Auzitegiaren oharrei emandako erantzunekin batera—, 287. artikuluko 1. paragrafoko bigarren lerrokadan aipatutako fidagarritasun-adierazpena, eta Kontu Auzitegiaren txosten bereziak.

2. Batzordearen kudeaketa onartu baino lehen, edo Batzordeak aurrekontua gauzatzeko dauzkan eskurantz ez baliatzearekin zerikusia daukan beste edozein helburutarako, Europako Parlamentuak Batzordeari azalpenak eskatu ahal izango dizkio; agerraldia gastuak gauzatzeari edo finantzak ikuskatzeko sistemen funtzionatzeko moduari buruzkoa izango da. Batzordeak beharrezko informazio guztia emango dio Europako Parlamentuari, Europako Parlamentuak hala eskatzen diotenean.

3. Batzordeak behar den guztia egingo du, bai kudeaketa onartzeko erabakiekin batera doazen oharpenak betetzeko, bai gastuak egiteko modua dela-eta Europako Parlamentuak egindako gainerako oharpenak betetzeko eta Kontseiluak egindako onarpen-gomendioekin batera doazen iruzkinak betetzeko.

Europako Parlamentuaren edo Kontseiluaren eskariz, aipatutako ohar eta iruzkinen ondorioz hartutako neurriei buruz txostenak egingo ditu Batzordeak, eta, bereziki, aurrekontua gauzatzeko ardura daukaten zerbitzuei emandako jarraibideei buruz. Txosten horiek Kontu Auzitegiari ere bidaliko zaizkio.

5. KAPITULUA

XEDAPEN ERKIDEAK

320. artikulua

(lehengo 277. artikulua EET)

Urte anitzeko finantza-esparrua eta urteko aurrekontua eurotan ezarriko dira.

321. artikulua

(lehengo 278. artikulua EET)

Batzordeak estatu kideren bateko dirura eskualdatu ditzake beste estatu kide bateko dirutan dauzkan aktiboak, Tratatuak ezarritako helburuetarako erabiliak izateko beharrezkoak diren heinean, baina, betiere, kasuan kasuko estatu kide interesdunetan eskudun diren agintariei eman behar die horren berri. Batzordeak, ahal den neurrian, saihestu egingo ditu halako eskualdaketak, berak behar dituen diruetan aktibo erabilgarriak edo bihurtgarriak badauzka.

Estatu kide bakoitzarekin izango ditu harremanak Batzordeak, estatuok izendatutako agintarien bidez. Finantza-eragiketak egiteko, estatu kide interesduneko jaulkipen-bankura edo horrek baimendutako beste finantza-instituzio batera joko du Batzordeak.

322. artikulua

(lehengo 279. artikulua EET)

1. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak legegintzako prozedura arrunta erabilia erregelamenduen bidez ezarriko dituzte, Kontu Auzitegiari kontsulta egin ondoren:

a) aurrekontua ezarri eta gauzatzeko moduak zehaztuko dituzten finantza-arauak eta kontuak eman eta aztertzeko moduak ezarri behar dituzten finantza-arauak;

b) finantza-agenteen erantzukizunaren kontrola arautuko duten arauak, eta bereziki, ordainketa-agintzaileena eta kontulariena.

2. Kontseiluak, Batzordearen proposamenaren gainean, Europako Parlamentuari eta Kontu Auzitegiari kontsulta egin ondoren, Batasuneko baliabide berekien araubidean aurreikusitako aurrekontu-sarrerak Batzordearen eskura jartzeko moduak eta prozedura finkatuko ditu, eta, premia dagoenerako, altxortegi-beharrizanei aurre egiteko aplikatu beharreko neurriak zehaztuko ditu.

323. artikulua

Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak zainduko dute Batasunak beharrezko finantza-bitartekoak izan ditzala, hiru garrenen aurrean izan ditzakeen betebeharrak juri-dikoak bete ahal izateko.

324. artikulua

Batzordearen ekimenez, aldian-aldian Europako Parlamentuko, Kontseiluko eta Batzordeko lehendakariak batzarrak deituko dira, titulu ho-

netan adierazitako aurrekontuko prozeduren baitan. Lehendakariak beharrezko diren neurri guztiak hartuko dituzte eurak buru diren instituzioen jarrerak bateratzen eta hurbiltzen laguntzeko, titulu hau aplikatu dadin lortze aldera.

6. KAPITULUA

IRUZURRAREN KONTRAKO BORROKA

325. artikulua

(lehengo 280. artikulua EET)

1. Batasunak eta estatu kideek Batasunaren finantza-interesak kaltetuko dituzten iruzurren eta legearen aurkako jarduera guztien aurka borrokatuko dute, artikulua honetan xedatutakoaren indarrez onartuko diren neurrien bidez. Neurriok di-suasioko eragina izan behar dute eta babes eraginkorra eskaini behar dute estatu kideetan eta Batasuneko instituzio, organo eta organismoetan.

2. Batasuneko estatuek, Batasunaren finantza-interesei eragiten dien iruzurraren kontra borrokatzeko, beren finantza-interes berekiei eragiten dien iruzurraren kontra borrokatzeko har ditzaten neurri berberak hartuko dituzte.

3. Tratatueta beste xedapen batzuei kalterik egin gabe, Batasunaren finantza-interesak iruzurretik babesteko bideratutako ekintzak koordinatuko dituzte estatu kideek. Horretarako, Batzordearekin batera, lankidetzara arautu eta estatua antolatuko dute agintari eskudunen artean.

4. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera, eta Kontu Auzitegiari kontsulta egin ondoren, ezarriko dituzte Batasunaren finantza-interesak kaltetzen dituen iruzurrari aurre hartzeko eta iruzur horren kontra borrokatzeko beharrezkoak diren neurriak, estatu kideetan eta Batasuneko instituzio, organo eta organismoetan babes eraginkorra eta baliokidea eskaintzeko xedearekin.

5. Batzordeak, estatu kideekin lankidetzan ari-tuz, txostena aurkeztuko die urtero Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, artikulua hau aplikatzeko hartutako neurriei buruz.

III. TITULUA

LANKIDETZA INDARTUAK

326. artikulua

(lehengo 27 A-tik 27 E-ra, 40.etik 40 B-ra eta 43.etik 45.era bitarteko artikulua EBT eta lehengo 11 eta 11 A artikulua EET)

Lankidetzara indartuek Batasuneko Tratatuak eta Zuzenbidea errespetatuko dituzte.

Lankidetzara indartuek ez diete kalterik egingo ez barne-merkatuari ez ekonomiaren, gizartearen eta lurraldearen kohesioari. Estatu kideen arteko trukeetan ez dute ez oztoporik ez bereizkeriarik eragingo, eta estatu kideen arteko lehia ere ez dute itxuraldatuko.

327. artikulua

(lehengo 27 A-tik 27 E-ra, 40.etik 40 B-ra eta 43.etik 45.era bitarteko artikulua EBT eta lehengo 11 eta 11 A artikulua EET)

Lankidetzara indartuek errespetatu egingo dituzte lankidetzara horretan parte hartzen ez duten estatu kideen eskumenak, eskubideak eta betebeharrak. Estatuok ez dute eragotziko lankidetzara indartuetan parte hartzen duten estatuek lankidetzak aplikatzea.

328. artikulua

(lehengo 27 A-tik 27 E-ra, 40.etik 40 B-ra eta 43.etik 45.era bitarteko artikulua EBT eta lehengo 11 eta 11 A artikulua EET)

1. Lankidetzara indartuak, ezartzen diren unetik bertatik zabalik egongo dira estatu kide guztientzat, baina, betiere, baimena emateko erabakian ezartzen diren balizko parte hartzeko baldintzak errespetatzen badira. Beste edozein unetan ere zabalik egongo dira, betiere, aipatutako baldintzez gain, esparru honetan dagoeneko onartutako egintzak errespetatzen badira.

Batzordeak eta lankidetzara indartu batean parte hartzen ari diren estatu kideek ahaleginak egingo dituzte estatu kide gehienek parte har dezaten lankidetzara horretan.

2. Batzordeak eta, hala badagokio, Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkariek aldi-aldi emango diote Europako Parlamentuari eta Kontseiluari lankidetzara indartuen bilakaeraren berri.

329. artikulua

(lehengo 27 A-tik 27 E-ra, 40.etik 40 B-ra eta 43.etik 45.era bitarteko artikulua EBT eta lehengo 11 eta 11 A artikulua EET)

1. Tratatueta jasotzen diren eremuetako edozeinetan —eskumen eskusiboko eremuetan eta atzerri- eta segurtasun-politika erkidean izan ezik— elkarren artean lankidetzara indartua eratu nahi duten estatu kideek eskaera egin behar diote Batzordeari, eta bertan zehaztuko dute bai aplikazio-eremua, bai aurreikusitako lankidetzara indartuak dituen helburuak. Batzordeak horri buruzko proposamena aurkeztu diezaiokio Kon-

tseiluari. Baina inolako proposamenik aurkeztu ez badu, Batzordeak horrela jokatzeko izandako arrazoiak jakinarazi beharko dizkie estatu kide interesdunei.

Kontseiluak emango du lehenengo lerrokan dan lankidetzat indartua aurrera eramateko jasotako baimena, Batzordeak proposatuta eta Europako Parlamentuak aurretik onespena eman ondoren.

2. Atzerri- eta segurtasun-politika erkidearen esparruan lankidetzat indartua eratu nahi duten estatu kideen eskaria Kontseiluari zuzendu behar zaio. Eskari hori, batetik, Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkaritari helaraziko zaio, aurreikusitako lankidetzat indartuaren eta Batasunaren atzerri- eta segurtasun-politika erkidearen arteko koherentziaren inguruko irizpena eman dezan, eta, bestetik, Batzordeari, horrek, bereziki, aurreikusitako lankidetzat indartuaren eta Batasunaren gainerako politiken arteko koherentziaren inguruko irizpena eman dezan. Europako Parlamentuari ere helaraziko zaio, jakinaren gainean egon dadin.

Lankidetzat indartua aurrera eramateko baimena erabaki baten bidez emango du Kontseiluak, eta hori aho batez eman behar du.

330. artikulua

(lehengo 27 A-tik 27 E-ra, 40.etik 40 B-ra eta 43.etik 45.era bitarteko artikulua EBT eta lehengo 11 eta 11 A artikulua EET)

Kontseiluko kide guztiek parte hartu ahal izango dute eztabaidan; bozketan, ordea, lankidetzat indartu batean partaide diren estatu kideek Kontseiluan dituzten ordezkariek, horiekin bakarrik hartu ahal izango dute parte.

Partaide diren estatu kideetako ordezkarien botoekin, horiekin bakarrik lortu ahal izango da ahobatezotasuna.

238. artikuluko 3. paragrafoan ezarritakoaren arabera zehaztuko da gehiengo kualifikatua.

331. artikulua

(lehengo 27 A-tik 27 E-ra, 40.etik 40 B-ra eta 43.etik 45.era bitarteko artikulua EBT eta lehengo 11 eta 11 A artikulua EET)

1. Aurreko 329. artikuluko 1. paragrafoan jasotako eremuetakoren batean lehenagotik sortuta dagoen lankidetzat indartu batean parte hartu nahi duten estatu kideek Kontseiluari eta Batzordeari jakinarazi behar diote.

Batzordeak lau hilabeteko epean berretsiko du dagokion estatu kidearen parte-hartzea, ja-

kinarazpena jasotzen denetik zenbatzen hasita. Hala badagokio, jasota utziko du parte hartzeko baldintzak betetzen direla, eta lankidetzat indartuaren baitan dagoeneko onartutako egintzak aplikatzeko beharrezko neurri iragankorrak onartuko ditu.

Nolanahi ere, Batzordeak iritziz gero ez direla parte hartzeko baldintzak betetzen, horretarako beharrezkoak diren xedapenak adierazi eta eskaria berriz aztertzeko epea ezarriko du. Epea amaitutakoan, berriz aztertuko du eskaria, bigarren lerrokan dan ezarritako prozeduraren arabera. Batzordeak iritziz gero oraindik ere ez direla parte hartzeko baldintzak betetzen, dagokion estatu kideak Kontseiluari aurkeztu diezaiotke auzi hori, eta horrek hartu beharko du eskariari buruzko erabakia. 330. artikuluaaren arabera erabakiko du Kontseiluak. Orobat, Batzordearen proposamenez, bigarren lerrokan aipatzen diren neurri iragankorrak hartu ahal izango ditu.

2. Atzerri- eta segurtasun-politika erkidearen esparruan jadanik martxan dagoen lankidetzat indartu batean parte hartu nahi duten estatu kideek Kontseiluari, Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkaritari eta Batzordeari jakinarazi behar diete.

Kontseiluak berretsiko du dagokion estatu kidearen parte-hartzea; Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkaritari aurretiaz kontsulta egingo dio, eta egiaztatuko du, hala badagokio, estatu horrek parte hartzeko baldintza guztiak betetzen dituela. Kontseiluak, Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkaritaren proposamenez, halaber, lankidetzat indartuaren baitan dagoeneko onartu diren egintzak aplikatzeko beharrezko neurri iragankorrak ere onartu ahal izango ditu. Nolanahi ere, Kontseiluak baiesten badu ez direla parte hartzeko baldintzak betetzen, horretarako beharrezkoak diren xedapenak zehaztu, eta parte hartzeko eskaria berriz aztertzeko epea ezarriko du.

Paragrafo honen ondorioetarako, Kontseiluak aho batez erabakiko du eta 330. artikuluaarekin bat.

332. artikulua

(lehengo 27 A-tik 27 E-ra, 40.etik 40 B-ra eta 43.etik 45.era bitarteko artikulua EBT eta lehengo 11 eta 11 A artikulua EET)

Lankidetzat indartua aplikatetik sortutako gastuak, baldin eta instituzioei eragindako administrazio-gastuak ez badira, lankidetzat parte hartzen duten estatu kideek ordainduko dituzte, Kontseiluak, bere kide guztiek aho batez

eta Europako Parlamentuari kontsulta eginda, besterik erabaki ezik.

333. artikulua

(lehenengo 27 A-tik 27 E-ra, 40.etik 40 B-ra eta 43.etik 45.era bitarteko artikulua EBT eta lehenengo 11 eta 11 A artikulua EET)

1. Lankidetza indartu baten esparruan aplikagarri den Tratatuetoako xedapen batek ezartzen badu Kontseiluak gehiengoz hartu behar duela erabakia, Kontseiluak gehiengoz onar dezake, 330. artikuluan xedatutakoarekin bat, erabaki bat, non ezarriko duen erabakia gehiengo kualifikatuz hartuko duela.

2. Lankidetza indartu baten esparruan aplikagarri den Tratatuetoako xedapen batek ezartzen badu Kontseiluak legegintzako prozedura berezi baten arabera onartu behar dituela dagozkion egintzak, Kontseiluak aho batez onar dezake, 330. artikuluan xedatutakoarekin bat, erabaki bat, non ezarriko duen erabakia legegintzako prozedura arruntaren arabera hartuko duela. Europako Parlamentuari aurretiaz kontsulta eginda erabakiko du Kontseiluak.

3. Goiko 1. eta 2. paragrafoak ez zaizkie aplikatuko eremu militarrean edo defentsako eremuan ondorioak dituzten erabakiei.

334. artikulua

(lehenengo 27 A-tik 27 E-ra, 40.etik 40 B-ra eta 43.etik 45.era bitarteko artikulua EBT eta lehenengo 11 eta 11 A artikulua EET)

Kontseiluak eta Batzordeak lankidetza indartu baten esparruan hasitako ekintzen koherentzia zaindu behar dute, baita ekintza horiek Batasunaren politikekin koherenteak izan daitezen ere, eta, horretarako, lankidetzan aritu behar dute.

ZAZPIGARREN ZATIA

XEDAPEN OROKORRAK, ETA AZKEN XEDAPENAK

335. artikulua

(lehenengo 282. artikulua EET)

Batasunak estatu kide bakoitzean bertako legeriak pertsona juridikoei aitortzen dien gaitasun juridikorik zabalena izango du; bereziki ondasun higigarriak eta higiezinak erosi edo besterendu ahal izango ditu, eta epaitegietan ager-

tu ahal izango da. Horretarako, Batzordeak ordezkaturako du Batasuna. Dena dela, Batasuna instituzio bakoitzak ordezkaturako du, bakoitzaren administrazio-autonomiari jarraiki, instituzio funtzionamenduari zerikusia duten gaietarako.

336. artikulua

(lehenengo 283. artikulua EET)

Europar Batasuneko funtzionarioen estatutua eta Batasuneko beste agente batzuei aplikatu beharreko araubidea Europako Parlamentuak eta Kontseiluak ezarriko dute legegintzako prozedura arruntaren arabera onartutako erregelamenduen bidez eta gainerako instituzio interesdunei kontsulta egin ondoren.

337. artikulua

(lehenengo 284. artikulua EET)

Batzordeak, berari agindutako eginbeharrak betetzeko, era guztietako informazioak eskatu eta beharrezko egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu, Tratatuetoako xedapenekin bat etorritik Kontseiluak gehiengo soiluz finkatutako mugekin eta baldintzetan.

338. artikulua

(lehenengo 285. artikulua EET)

1. Banku Zentralen Europako Sistemaren eta Europako Banku Zentralaren estatutuei buruzko protokolo 5. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera, estatistikak egiteko neurriak hartuko dituzte, Batasunaren jarduerak burutzeko beharrezkoak direnean.

2. Batasuneko estatistikak egiteko, inpartzialtasuna, fidagarritasuna, objektibotasuna, independentzia zientifikoa, errentagarritasuna eta estatistikari buruzko isilekotasuna bete behar dira, eta ez zaie larregiko zamarik sortu behar eragile ekonomikoei.

339. artikulua

(lehenengo 287. artikulua EET)

Batasuneko instituzioetako kideak, komiteetako kideak, eta Batasuneko funtzionarioak eta langileak, guztiok egongo dira behartuta, baita beren karguak utzi eta gero ere, informazioen izazera dela-eta lanbide-isilpekotasunez babestutako informaziorik ez zabaltzera; batez ere, enpresen

datuak, eta beren merkataritzako harremanei edo beren kostuen osagaiei buruzkoak direnean.

340. artikulua

(lehengo 288. artikulua EET)

Kasuan kasuko kontratuari aplikatu behar zaion legeak arautuko du Batasunaren kontratu-erantzukizuna.

Kontratuz kanpoko erantzukizunari dagokionez, Batasunak bere instituzioek edo bere agenteek beren eginkizunak betetzean sortutako kalteak konpondu beharko ditu, estatu kideetako zuzenbideetan komunak diren printzipio orokorrekin bat etorritz.

Bigarren lerrokadan xedatutakoa gorabehera, Europako Banku Zentralak berak edo bere agenteek beren eginkizunak betetzean sortutako kalteak konpondu beharko dituzte, estatu kideetako zuzenbideetan komunak diren printzipio orokorrekin bat etorritz.

Langileek Batasunarekiko daukaten erantzukizun pertsonala beren estatutuko edo aplikagarri zaien araubideko xedapenen arabera arautuko da.

341. artikulua

(lehengo 289. artikulua EET)

Batasuneko instituzioen egoitza estatu kideetako gobernuen adostasunez finkatuko da.

342. artikulua

(lehengo 290. artikulua EET)

Kontseiluak erregelamenduen bitartez finkatuko du Batasuneko instituzioen hizkuntza-sistema, aho batez, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren estatutuan aurreikusitako xedapenei kalterik egin gabe.

343. artikulua

(lehengo 291. artikulua EET)

Estatu kideen lurraldean bere xedeak betetzeko beharrezko pribilegio eta immunitateak eduki-ko ditu Batasunak, Europar Batasunaren pribilegio eta immunitatei buruzko 1965ko apirilaren 8ko protokoloan ezarritako baldintzetan. Gauza bera aplikatuko zaie Europako Banku Zentralari eta Europako Inbertsio Bankuari ere.

344. artikulua

(lehengo 292. artikulua EET)

Tratatuak interpretatu edo aplikatzeko ez-

tabaidak Tratatuetan aurreikusitakoez bestelako irtenbide-prozeduraren menpe ez jartzeko konpromisoa hartzen dute estatu kideek.

345. artikulua

(lehengo 295. artikulua EET)

Tratatuek inola ere ez dute zalantzan jartzen estatu kideen jabetza-araubidea.

346. artikulua

(lehengo 296. artikulua EET)

1. Tratatuetao xedapenak ez dira arau hauen kontrako oztopo izango:

a) estatu kideren baten ustez informazioen bat zabaltzea bere segurtasunerako funtsezko interesen kontra badoa, ezin izango da informazio hori ematera behartu;

b) estatu kide guztiek har ditzakete beren segurtasunerako funtsezko interesak babesteko beharrezkotzat jo, eta armak, munizioak eta gerrako materialak ekoitzi edo merkaturatzeko diren neurriak; neurri horiek ezin izango dituzte aldatu barne-merkatuko lehia-baldintzak, berariaz helburu militarretarako ez diren produktuei dagokienez.

2. Kontseiluak, aho batez, eta Batzordearen proposamenez, aldagetak sar ditzake 1. paragrafoko b) idatz-zatiko xedapenen menpe dauden produktuekin 1958ko apirilaren 15ean egin zuen zerrendan.

347. artikulua

(lehengo 297. artikulua EET)

Estatu kideek kontsulta egingo diote elkarri, hartu beharreko neurriak guztien adostasunez hartzeko, estatu kideren batek, bai bertako ordena publikoa asaldatzea ekar dezaketen barruko istilu larriek eraginda, zein gerra dela-eta edo nazioartean gerra-mehatxua sorrarazten duen tentsio-egoera larriak eraginda, nahiz bakea eta nazioarteko segurtasuna zaintzeko bereganatutako betebeharrei aurre egiteko, nahitaez hartu behar dituen neurriek barne-merkatuaren funtzionamenduari kalterik sor ez diezaioten.

348. artikulua

(lehengo 298. artikulua EET)

Tratatuetao 346. eta 347. artikuluetan aurreikusitako kasuetan hartutako neurriren batzuek barne-merkatuko lehia-baldintzak aldatzen badituzte, aipatutako neurriok tratatu honetan ezarritako arauetara egokitu ahal izate-

ko baldintzak aztertuko ditu Batzordeak horretan interesa daukan estatuarekin batera.

Tratatu honetako 258. eta 259. artikuluetan aurreikusitako prozeduraren kontra jarri gabe, Batzordeak edo Erkidegoko edozein estatuk zuzenean jo dezake Justizia Auzitegira, baldin eta bere ustez Erkidegoko beste estaturen batek gehiegikeriaz erabiltzen baditu 346. eta 347. artikuluetan aurreikusitako ahalmenak. Justizia Auzitegiak ateak itxita erabakiko du.

349. artikulua

(lehenengo 299. artikulua, 2. paragrafoa, bigarren, hirugarren eta laugarren lerrokadak, EET)

Guadalupeko, Guyana Frantseseko, Martini-kako, Reunioneko, San Bartolomeko, San Martineko, Azore uharteetako, Madeirako eta Kanariar uharteetako ekonomiaren eta gizartearen egituraren egoera kontuan hartuta, hau da, oso urruti daudela, uharteak, azalera txikikoak, eta erliebe eta egurats gogorrekoak direla, produktukopuru txiki baten menpe daukatela beren ekonomia, eta, alderdi horiek iraunkorrak eta denak batera agertzen direlako, kalte larria eragiten diotela beren garapenari, horiek guztiok kontuan hartuta, bada, Kontseiluak, Batzordearen proposamenez eta Europako Parlamentuari kontsulta egin ondoren, tratatuak eskualde horietan aplikatzeko baldintzak finkatzeko bereziki bideratutako berriarazko neurriak hartuko ditu, politika erkideak barne direla. Kontseiluak ere, legeegintzako prozedura berezi baten bidez berriarazko hainbat neurri hartzen dituenean, aho batez hartuko du erabakia, Batzordeak proposatuta eta aurretik Europako Parlamentuari kontsulta eginda.

Lehenengo lerrokadan jasotako neurriek eremu hauek barnean hartuko dituzte, bereziki: aduana- eta merkataritza-politikak, zerga-politika, alderdi zerga-gabeak, nekazaritza- eta arrantzapolitikak, lehengaiak eta oinarrizko kontsumo-ondasunak hornitzeko baldintzak, laguntza publikoak, eta egitura-funtsetara eta Batasunaren programa horizontaletara iristeko baldintzak.

Kontseiluak, lehenengo lerrokadan jasotako neurriak hartzerakoan, eskualde ultraperiferikoek ezaugarri eta eskakizun bereziak izango ditu kontuan, baina Batasunaren zuzenbideko antolamenduaren osotasuna eta koherentzia arriskuan jarri gabe, eta barne-merkatua eta politika bateratuak tartean direla.

350. artikulua

(lehenengo 306. artikulua EET)

Tratatuetao xedapenek ez dute eragotziko

Belgikaren eta Luxenburgoren artean, eta Belgikaren, Luxenburgoren eta Herbehereen artean dauden eskualde-batasunak mantentzea eta hobetzea, eskualde-batasun horien helburuak Tratatuak aplikatuta lortzen ez diren heinean.

351. artikulua

(lehenengo 307. artikulua EET)

Tratatuetao xedapenek ez diete eraginik sortuko estatu kide batek edo gehiagok eta hirugarren herrialde batek edo gehiagok beren artean lotutako hitzarmenetatik sortzen diren eskubide eta betebeharrei, baldin eta hitzarmen horiek 1958ko urtarrilaren 1a baino lehenago lotutakoak badira, edo, geroago atxikitako estatuak direnean, atxikitze-eguna baino lehenago lotutakoak badira.

Hitzarmen horiek Tratatuarekin bateraezinez diren heinean, dena delako estatu kide horrek edo horiek nabaritu dituen edo dituzten bateraezintasunak kentzeko egokiak diren bitarteko guztietara joko du edo dute. Beharrezkoa izanez gero, estatu kideek elkarri lagunduko diote helburu hori lortzeko, eta, hala badagokio, jarraera bateratua hartuko dute.

Lehenengo lerrokadan aipatzen diren hitzarmenak aplikatzerakoan, estatu kideek kontuan izan behar dute estatu kide bakoitzak Tratatuetao emandako abantailak Batasunaren eraketaren parte direla eta, horregatik, banatu ezineko moduan daudela lotuta instituzio erkideak sortzearekin, horiei eskumenak esleitzearekin eta gainerako estatu kideek abantaila berdinak ematearekin.

352. artikulua

(lehenengo 308. artikulua EET)

1. Tratatuetao ezarritako helburuetakoren bat lortze aldera, Tratatuetao zehaztutako politiken eremuari dagokionez, Batasunak ekin-tzaren bat egin behar duela beharrezkotzat jotzen denean, eta horretarako beharrezko diren jarduteko ahalak jaso ez badira, Kontseiluak, Batzordearen proposamenaren gainean eta Europako Parlamentuak neurrioi aurretiaz onespena emanda, egoki diren neurriak hartuko ditu aho batez. Kontseiluak legeegintzako prozedura berezi baten arabera xedapen horiek onartzen dituenean, aho batez hartuko du erabakia, Batzordeak proposatuta eta Europako Parlamentuak onartu ondoren.

2. Batzordeak, Europar Batasunaren Tratatuaren 5. artikuluaen 3. paragrafoan aipatutako subsidiarioratasun-printzipioa kontrolatzeko

prozeduraren esparruan, estatu kideetako parlamentuei jakinaraziko dizkie artikuluko honetan oinarritutako proposamenak.

3. Artikulu honetan oinarritutako neurriek ezin izango dute estatu kideetako legezko eta erregelamenduzko xedapenen inolako harmonizaziorik ekarri, baldin eta Tratatuak harmonizazio hori baztertzen badute.

4. Artikulu honek ez du balioko atzerri- eta segurtasun-politika erkidearen eremuaren helburuak lortzeko oinarritzat, eta artikuluko honen arabera onartzen den edozein egintzak Europar Batasunaren Tratatuaren 40. artikuluko bigarren lerro-kadan ezarritako mugak errespetatu behar ditu.

353. artikulua

Europar Batasunaren Tratatuaren 48. artikuluko 7. paragrafoa ez zaie aplikatuko honako xedapen hauei:

- 311. artikuluko hirugarren eta laugarren lerrokaidei,
- 312. artikuluko 2. paragrafoko lehenengo lerrokaideri,
- 352. artikuluari eta
- 354. artikuluari.

354. artikulua

(lehenengo 309. artikulua EET)

Batasuneko kide izateak dakartzan eskubide jakin batzuk etenda uzteari buruzko Europar Batasunaren Tratatuaren 7. artikulua on-doreetarako, Kontseilu Europarrean edo Kontseiluan kasuan kasuko estatu kideak duen ordezkariak ez du bozketa horretan parte hartuko, eta, era berean, kasuan kasuko estatu hori ez da kontuan hartuko artikuluko horretako 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako kalkuluak egitean, hots, estatu kideen herena edo lau bostenak zehazteko orduan. Bertaratu diren kideak edo ordezkariak daudenak abstenituta ere, hori ez da eragozpen izango aipaturako artikuluko 2. paragrafoan adierazitako erabakiak hartzeko.

Europar Batasunaren Tratatuaren 7. artikuluko 3. eta 4. paragrafoetan jasotako erabakiak hartzeko, 238. artikuluko 3. paragrafoaren b) idatz-zatiaren arabera zehaztuko da gehiengo kualifikatua.

Kontseiluak, Europar Batasunaren Tratatuaren 7. artikuluko 3. paragrafoaren arabera, boto-eskubidea etenda uzteko erabakia hartu dela-eta, Tratatuak xedapenetako bati jarraituz gehiengo kualifikatuz erabaki behar duenean, gehiengo kualifikatu hori tratatu honetako 238. artikuluko 3. paragrafoko b) idatz-

zatiaren arabera zehaztuko da, edo Kontseiluak Batzordearen edo Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkararen proposamenez diharduenean, 238. artikuluko 3. paragrafoko a) idatz-zatiaren arabera.

Europar Batasunaren Tratatuak 7. artikulua on-doreetarako, Europako Parlamentuak, erabaki ahal izateko, bertan emandako botoen bi hereneko gehiengo behar du, betiere, boto-kopuru hori Europako Parlamentua osatzen duten kideen gehiengo izanda.

355. artikulua

(lehenengo 299. artikuluko 2. paragrafoko lehenengo lerrokaide eta 3 a eta 6 paragrafoak, EET)

Tratatuak lurralde-eremuari buruzko Europar Batasunaren Tratatuak 52. artikuluko xedapenez gain, honako xedapen hauek aplikatuko dira

1. Tratatuak xedapenak Guadaluperi, Guayana Frantsesari, Martinikari, Reunioni, San Bartolomeri, San Martini, Azore Uhartei, Madeirari eta Kanariar Uhartei aplikatuko zaizkie, 349. artikuluan xedatutakoarekin bat.

2. II. eranskinean zerrendatuta dauden itsasoz haraindiko herrialde eta lurraldeak IV. zatian definitzen den elkartzeko araubide bereziaren menpe egongo dira.

Tratatuak ez zaizkie aplikatuko lehen esandako zerrendan aipatu ez diren, eta Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuarekin harreman bereziak dauzkaten itsasoz haraindiko herrialde eta lurraldeei.

3. Batasuneko estatu kide batek Europako lurralderen baten kanpo-harremanak bereganatuta badauzka, tratatuak xedapenak aplikatuko zaizkio lurralde horri ere.

4. Áland uhartei ere tratatuak xedapenak aplikatuko zaizkie, Austriako Errepublikaren, Finlandiako Errepublikaren eta Suediako Erresumaren atxikipen baldintzei buruzko Aktako 2. zenbakiko protokoloa xedapenekin bat etorritz.

5. Europar Batasunaren Tratatuak 52. artikuluan eta artikuluko honetako 1. tik 4. era bitarteko paragrafoetan xedatutakoa gorabehera:

a) tratatuak ez zaizkie aplikatuko Faroe uhartei;

b) Tratatuak ez zaizkie aplikatuko Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuak bere subiranotasunpean Zipren dituen Akrotiri eta Dhekelia eremuei, salbu eta Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuak bere subiranotasunpean Zipren dituen eremuei buruzko protokoloan ezarritako xedapenak aplikatuko direla bermatzeko beharrezkoa

bada eta, betiere, protokolo horretan xedatu-takoaren arabera. Protokolo hori Txekiar Errepublikak, Estoniako Errepublika, Zipreko Errepublikak, Letoniako Errepublika, Lituaniako Errepublika, Hungariako Errepublika, Maltako Errepublika, Poloniako Errepublika, Esloveniako Errepublika eta Eslovakiako Errepublika Europar Batasunari atxikitzeko baldintzei buruzko aktari erantsita dago.

c) Kanaleko uharteei eta Man uharteari tratatuetako xedapenak aplikatuko bazaizkie ere, Europako Ekonomia Erkidegora eta Energia Atomikoaren Europako Erkidegora estatu berriak atxikitzeko 1972ko urtarrilaren 22an izenpetutako Tratatuan uharte horietarako aurreikusitako araubidea aplikatuko zaiela bermatzeko beharrezkoa den heinean egingo da.

6. Kontseilu Europarrak, dagokion estatu kidearen ekimenez, erabaki bat hartu ahal izango du 1. eta 2. paragrafoetan aipatzen diren Danimarkako, Frantziako eta Herbehereetako herrialde edo lurraldeek Batasunarekiko duten estatutua aldatzeko. Kontseilu Europarrak, Batzordeari aurretiaz kontsulta eginda, aho batez erabakiko du.

356. artikulua

(lehenengo 312. artikulua EET)

Tratatu hau epe-muga jakinik gabe egiten da.

357. artikulua

(lehenengo 313. artikulua EET)

Tratatu hau tratatugile gorenak berretsiko dute, bakoitzak bere konstituzio-arauen arabera. Berrespen-agiriak Italiako Errepublikako Gobernuak gordeko ditu.

Berrespen-agiria gordailuan azkeneko uzten duen estatu sinatzaileak formalismo hori bete, eta hurrengo hileko lehenengo egunean sartuko da indarrean tratatu hau. Baina, hurrengo hila hasteko hamabost egun baino gutxiago falta direla egiten bada gordailua, gordailua egiten denetik hurrengo bigarren hileko lehenengo egunera arte atzeratuko da tratatu hau indarrean sartzeko eguna.

358. artikulua

Europar Batasunaren Tratatuaren 55. artikuluko xedapenak tratatu honi aplikatzekoak dira.

HORREN FEDE EMANEZ, beheko sinatzaile ahal osokoek izenpetzen dute tratatu hau. Erro-

man egina, mila bederatziehun eta berrogeita hamazazpiko martxoaren hogeita bostean.

(ez da izenpetzaileen zerrenda jaso)

3. PROTOKOLOAK

PROTOKOLOA (1.a)

ESTATUETAKO PARLAMENTUEK EUROPAR BATASUNEAN DUTEN EGITEKOARI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,

GOGOAN IZANDA estatu kide bakoitzaren konstituzio-antolaketa eta -praktikari dago kiola zehaztea nola kontrolatu behar duen parlamentuak Batasunaren jarduerari buruz gobernuak daukan jardueran;

ASMOA IZANIK estatuetaiko parlamentuek parte-hartze handiagoa izan dezaten Europar Batasunaren jardueretan, eta, orobat, Batasunaren lege-egintza proiektuei buruz eta interes bereziko beste kontu batzuei buruz iritzia emateko gaitasun handiagoa izan dezaten.

BAT ETORRI DIRA honako xedapen hauetan, eta Europar Batasunaren Tratatuari, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuari eta Energia Atomikoaren Europako Erkidegoa eratzekeo Tratatuari gaineratuko zaizkio eranskin gisa.

I. TITULUA

ESTATUETAKO PARLAMENTUENTZAKO INFORMAZIOA

1. artikulua

Europako Batzordeak zuzen-zuzenean igorriko dizkie Europako Batzordearen kontsulta-agiriak (liburu berdeak, liburu zuriak eta komunikazioak) estatuetaiko parlamentuei, argitaratu bezain laster. Era berean, Europako Batzordeak urteko lege-gintza-programa igorriko die estatu kideetako parlamentuei, bai eta lege-gintza-programazioko edo politika-estrategiako beste edozein tresna ere; Europako Parlamentuari eta Kontseiluari igortzen dien une berean igorriko dizkie.

2. artikulua

Europako Parlamentuari eta Kontseiluari igortzen zaizkien lege-egintza proiektuak estatuetaiko parlamentuei igorriko zaizkie.

Protokolo honen helburuetarako, honako hauek joko dira "lege-egintza proiektutzat": Europako Batzordearen proposamenak, estatu kideen multzo baten ekimenak, Europako Parlamentuaren ekimenak, Justizia Auzitegiaren eskaerak, Europako Banku Zentralaren gomendioak eta Europako Inbertsio Bankuaren es-

kaerak, lege-gintzako egintza bat onartzea xede dutenak.

Europako Batzordeak zuzen-zuzenean igorriko dizkie estatuetaiko parlamentuei bere baitan abiarazitako lege-egintza proiektuak, Europako Parlamentuari eta Kontseiluari igortzen zaizkien une berean.

Europako Parlamentuak zuzen-zuzenean igorriko dizkie estatuetaiko parlamentuei bere baitan abiarazitako lege-egintza proiektuak.

Kontseiluak estatuetaiko parlamentuei igorriko dizkie estatu kideen talde batetik, Justizia Auzitegitik, Europako Banku Zentraletik edo Europako Inbertsio Bankutik sortutako lege-egintza proiektuak.

3. artikulua

Estatuetaiko parlamentuek, lege-egintza proiektu bat subsidiarioratasun-printzipioarekin bat ote datorren adierazteko, irizpen arrazoitu bat igorri ahal diete Europako Parlamentuko presidenteari, Kontseiluko presidenteari eta Europako Batzordeko presidenteari; subsidiarioratasun-printzipioaren eta heinekotasun-printzipioaren aplikazioari buruzko Protokoloak ezarritako prozeduraren arabera egingo du hori.

Baldin eta lege-egintza proiektua estatu kideen talde batek abiarazia bada, Kontseiluko presidentek estatu kide horietako gobernuari igorriko dizkie irizpen arrazoituak.

Baldin eta lege-egintza proiektua Justizia Auzitegiak, Europako Banku Zentralak edo Europako Inbertsio Bankuak abiarazia bada, Kontseiluko presidentek dagokion instituzio edo organoari igorriko dizkie irizpen arrazoituak.

4. artikulua

Lege-egintza proiektua Batasuneko hizkuntza ofizialetan idatzirik estatuetaiko parlamentuen esku uzten den unetik, proiektu hori Kontseiluaren behin-behineko gai-zerrendan sartzen den arte —onartua izan dadin edo lege-gintza-prozedura batean horri buruzko jarrera bat har dadin—, zortzi asteko tarte bat utzi behar da. Presako kasuetan, salbuespenak egin ahal izango dira, eta Kontseiluaren egintzan edo jarreran aipatuko dira salbuespen horien arrazoiak. Behar bezala arrazoitutako presako kasuetan izan ezik, ezin izango da inolako akordiorik egin lege-egintza proiektu baten gainean. Lege-egintza proiektu bat Kontseiluaren behin-behineko gai-zerrendan sartu eta proiektu horri buruzko jarrera bat hartu arte, hamar

eguneko tarte igaro beharko da, behar bezala arrazoitutako presako kasuetan izan ezik.

5. artikulua

Kontseiluaren bileretako gai-zerrendak eta bilera horietako emaitzak, lege-egintza proiektuez eztabaida egiteko Kontseiluak egiten dituen bileretako aktak barne, estatueta-ko parlamentuei igorriko zaizkie zuzen-zuzenean, estatu kideetako gobernu-
ei igortzen zaien une berean.

6. artikulua

Kontseilu Europarrak Europar Batasunaren Tratatuko 48. artikuluan 7. paragrafoaren lehenbiziko edo bigarren lerroak ez baliatzea aurreikusten duenean, estatueta-ko parlamentuei emango zaie Kontseilu Europarraren ekimenaren berri, erabaki bat hartu baino sei hilabete lehenago, gutxienez.

7. artikulua

Kontu Auzitegiak urteroko txostena igorriko die estatueta-ko parlamentuei, informazioa emate aldera, Europako Parlamentuari eta Kontseilu-
ari igortzen dien une berean.

8. artikulua

Estatu kide baten parlamentu-sistema ez bada ganbera bakarrekoa, sistema hori eratzen duten ganber-
ei aplikatuko zaizkie 1. artikulutik 7.era artekoak.

II. TITULUA

PARLAMENTUEN ARTEKO LANKIDETZA

9. artikulua

Europako Parlamentuak eta estatueta-ko parlamentuek elkarrekin zehaztuko dute nola sustatu eta antolatu Batasunaren barruan burutu beharreko parlamentu arteko lankidetz-
a eraginkor eta erregularra.

10. artikulua

Batasunaren Gaietan Espezializatutako Parla-
mentuetako Organoen Biltzarrak egokit-
zen duen edozein ekarpen aurkeztu ahal izan-
go die Europako Parlamentuari, Kontseilu-
ari eta Batzordeari. Biltzar horrek, gainera, estatueta-
ko parlamentuen eta Europako Parlamentuaren

(haren batzorde berezituak barne) artean in-
formazioaren eta jardunbide egokien berri tr-
ukatzea sustatuko du. Orobat, biltzar horrek
parlamentu arteko biltzarrak antola ditzake
gai berezien gainean aritzeko, bereziki atzerri-
eta segurtasun-politika erkideari buruzko gai-
eztabaidatzeko, segurtasun- eta defentsa-poli-
tika erkidea tarteko. Biltzarraren ekarpenek ez
dituzte behartuko estatueta-ko parlamentuak, eta
ekarpenak direla-eta ez da haien jarrera alde-
z aurretik juzgatuko.

PROTOKOLOA (2.a)

SUBSIDIARIOTASUN- ETA HEINEKOTASUN-PRINTZIOEN APLIKAZIOARI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,
ASMOA IZANIK erabakiak Batasuneko he-
rritarrengandik ahalik eta hurbilen har daitezen
ahaleginak egin;

DELIBERATUTA Europar Batasunaren Tra-
tatuko 5. artikuluan adierazitako subsidiario-
tasun- eta heinekotasun-printzipioak aplikatzeko
baldintzak ezartzera eta printzipio horien apli-
kazioa kontrolatzeko sistema bat ezartzera,

BAT ETORRI DIRA honako xedapen hauetan,
eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar
Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tra-
tatuari erantsiko zaizkio:

1. artikulua

Instituzio bakoitzak etengabe zaindu be-
harko du Europar Batasunaren Tratatuko 5. ar-
tikuluan zehaztutako subsidiariotasun- eta hei-
nekotasun-printzipioak errespetatzen direla.

2. artikulua

Legegintzako egintza bat proposatu aurretik,
Batzordeak kontsulta ugari eta zabalak egingo
ditu. Kontsulta horiek kontuan hartu beharko di-
tuzte, hala dagokionean, aurreikusitako ekin-
tzek eskualdeei eta tokian tokikoei dagokienez
izango dituzten eraginak. Presa berezia duten
kasuetan, Batzordeak ez du horrelako kontsul-
tarik egingo. Batzordeak bere proposamenean
emango ditu hartutako erabakiaren arrazoiak.

3. artikulua

Protokolo honen helburuetarako, honako
hauek joko dira «lege-egintza proiektutza»: Eu-

ropako Batzordearen proposamenak, estatu kideen multzo baten ekimenak, Europako Parlamentuaren ekimenak, Justizia Auzitegiaren eskaerak, Europako Banku Zentralaren gomendioak eta Europako Inbertsio Bankuaren eskaerak, legegintzako egintza bat onartzea xede dutenak.

4. artikulua

Europako Batzordeak, estatuetao parlamentuei igorriko dizkie bere lege-egintza proiektuak, bai eta proiektu aldatuak ere; Europar Batasuneko legegileari bidaltzen dizkien une be-rean bidaliko dizkie.

Europako Parlamentuak bere lege-egintza proiektuak igorriko dizkie estatuetao parlamentuei, bai eta proiektu aldatuak ere.

Kontseiluak estatuetao parlamentuei igorriko dizkie estatu kideen talde batek, Justizia Auzitegiak, Europako Banku Zentralak edo Europako Inbertsio Bankuak abiarazitako lege-egintza proiektuak, bai eta proiektu aldatuak ere.

Onartu ahala, Europako Parlamentuaren legegintzako ebazpenak eta Kontseiluaren jarre-rak estatuetao parlamentuei helaraziko dizkiete haiek.

5. artikulua

Lege-egintza proiektuak justifikatu egingo dira subsidiariotasun- eta heinekotasun-printzipioei dagokienez. Lege-egintza proiektu orok fitxa bat eduki behar du, subsidiariotasun-printzipioa eta heinekotasun-printzipioa nola be-tetzen diren ebaluatzeko behar diren xeheta-sunekin. Fitxa horretan finantza-eragina eba-luatzeko behar diren osagaiak aipatu behar dira, eta, zuzentaraua baldin bada, estatu kide-ek garatu behar duten araudian izango dituen ondorioak, eta, hala badagokio, eskualde-mai-lako legerian izango dituenak ere bai. Europar Batasunaren helburu bat Batasunaren mailan hobeki irits daitekeelako ondorioa arrazoitu egin beharko da, adierazle kuantitatiboen eta kuali-tatiboen bitartez. Lege-egintza proiektuek kon-tuan hartu beharko dute zer karga berri, dela fi-nantzen arlokoa nahiz administrazioakoa, eka-rriko dieten Batasunari, estatuetao gober-nuei, eskualdeetao gobernuai, tokian tokiko agintaritzei, eragile ekonomikoai eta hiritarrei; hain zuzen ere, karga hori minimizatu eta iritsi beharreko helburuaren heinekoa izan dadin egin beharko dute hori.

6. artikulua

Estatuetao parlamentu orok eta parla-mentu horietako ganbera orok, legegintzako egintza baten proiektua igortzen denetik kon-tatzen hasita zortzi eguneko epean, txosten arrazoitu bat igorri ahaliko die Europako Par-lamentuko lehendakariari, Kontseiluko lehen-dakariari eta Batzordeko lehendakariari, Eu-ropar Batasuneko hizkuntza ofizialetan idatzi-ta; bertan, proiektua subsidiariotasun-printzi-pioari zergatik ez zaion egokitzen azaldu be-harko du. Estatuako parlamentu bakoitzaren edo estatuako parlamentuetao ganbera ba-koitzaren egitekoa da, hala dagokionean, lege-gintzako eskumenak dituzten eskualdeetao par-lamentuei kontsultatzea.

Baldin eta lege-egintza proiektua estatu ki-deen talde batek abiarazia bada, Kontseiluko le-hendakariak estatu kide horietako gobernuai igorriko dizkie irizpen arrazoituak.

Baldin eta lege-egintza proiektua Justizia Au-zitegiak, Europako Banku Zentralak edo Euro-pako Inbertsio Bankuak abiarazia bada, Kontsei-luko presidenteak dagokion instituzio edo or-ganoari igorriko dio irizpena.

7. artikulua

1. Estatuetao parlamentuek edo estatuoko parlamentu bateko ganberetako edozeinek igorritako irizpen arrazoituak hartu beharko dituzte kontuan Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak, bai eta, hala dagokionean, estatu kideen taldeak, Justizia Auzitegiak, Europako Banku Zentralak edo Europako Inbertsio Ban-kuak, baldin eta lege-egintza proiektua berek abiarazia bada.

Estatuoko parlamentu bakoitzak bina boto izango ditu, estatu horretako parlamentu-sis-temaren arabera banatuak. Bi ganberetako par-lamentu-sistemetan, ganbera bakoitzak boto bana izango du.

2. Europar lege-egintza proiektu bat berriro aztertu beharko da baldin eta proiektu horrek subsidiariotasun-printzipioa errespetatzen ez duelako egin diren irizpen arrazoituek esta-tuetao parlamentuei esleitutako boto-kopuru osoaren heren bat ordezkatzen badute (lehen-biziko lerrokadaren bigarren paragrafoaren arabera esleitutako boto-kopuru osoa, alegia). Atalase hori laurden batera jaitziko da baldin eta lege-egintza proiektua Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 76. ar-tikuluari (justizia, segurtasun eta askatasun-ere-muari buruzkoa) oinarriturik badago.

Atzera berriz aztertuta, Batzordeak edo, hala badagokie, estatu kideen taldeak, Europako Parlamentuak, Justizia Auzitegiak, Europako Banku Zentralak edo Europako Inbertsio Bankuak –baldin eta horiek badira lege-egintza proiektuaren eragile– hiru aukera izango ditu: proiektuari bere horretan eustea, aldatzea edo erretiratzea. Erabaki hori arrazoitu egin beharko da.

3. Gainera, baldin eta, legegintza-prozedura arruntaren barnean, irizpen arrazoituek adierazten badute lege-egintza proiektu batek ez duela errespetatzen subsidiariotasun-printzipioa, eta irizpen arrazoitu horiek estatuetakoa parlamentuei esleitutako boto-kopuru osoaren gehiengo soilak ordezkatzen badute (lehenbiziko idatz-zatiaren bigarren paragrafoaren arabera esleitutako boto-kopuru osoa, alegia), proposamena berriro aztertu beharko da. Azterketa horren ondoren, Batzordeak erabaki dezake proposamenari eutsi, aldatu edo kentzea.

Proposamenari eustea erabakitzen badu, Batzordeak justifikatu egin beharko du zergatik uste duen dena delako proposamen horrek subsidiariotasun-printzipioa errespetatzen duela; irizpen arrazoituaren bitartez egin beharko du hori. Batzordearen irizpen arrazoitu hori, hala nola estatuetakoa parlamentuek egiten dituztenak, Europar Batasuneko legegileari igorri beharko zaizkio, aintzat har ditzan legegintza-prozeduran.

a) Legegileak (Europar Batasuneko parlamentuak eta Kontseiluak), lehenbiziko irakurraldia amaitu baino lehen, aztertuko du ea legegintzako proposamena bat datorren subsidiariotasun-printzipioarekin; aurkeztutako arrazoiaren artean, estatuetakoa parlamentu gehienek beren egiten dituztenak hartuko ditu aintzat, bai eta Batzordearen irizpen arrazoitua ere.

b) Baldin eta legegileak uste badu, Kontseiluko kideen % 55eko gehiengoa edo Europako Parlamentuan emandako botoen gehiengoa medio, legegintza-proposamena ez datorrela bat subsidiariotasun-printzipioarekin, baztertu egingo da.

8. artikulua

Baldin eta estatu kide batek, legegintzako egintza batek subsidiariotasun-printzipioa hautsi izanagatik errekurtsioa aurkeztzen badu, berdin delarik Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 263. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera aurkeztu duen edo bere antolamendu juridikoaren arabera helarazten duen bere parlamentuaren edo haren ganberetako baten izenean, orduan,

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak esku-mena izango du errekurtsio hori ebazteko.

Artikulu horretan ezartzen diren prozedurekin bat etorritik, Eskualdeetako Komiteak ere errekurtsioak jarri ahal izango ditu legegintzako egintzen aurka, baldin eta, horiek onartzeko, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak komiteari kontsultatzea eskatzen badu.

9. artikulua

Batzordeak, urtero, Europar Batasunaren Tratatuaren 5. artikuluan aplikazioari buruzko txostena aurkeztuko die Kontseilu Europarri, Europako Parlamentuari eta estatuetakoa parlamentuei. Urteko txosten hori Eskualdeen Komiteari eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari ere helarazi beharko zaie.

PROTOKOLOA (3.a)

EUROPAR BATASUNEKO JUSTIZIA AUZITEGIAREN ESTATUTUARI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,

ASMOA IZANIK Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 281. artikuluan jasotako Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren estatutua ezarri,

BAT ETORRI DIRA ondoko xedapenetan, Europar Batasunaren Tratatuari, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuari eta Energia Atomikoaren Europako Erki-degoa eratzeko Tratatuari eranskin gisa gehituko zaizkienak:

1. artikulua

Europar Batasuneko Justizia Auzitegia Tratatuaren, Energia Atomikoaren Europako Erki-degoa eratzeko Tratatuaren (EAEE Tratatu) eta estatutu honetan xedatutakoarekin bat etorritik eratuko da, eta hala beteko ditu bere egitekoak.

I. TITULUA

EPAILEEN ETA ABOKATU NAGUSIEN ESTATUTUA

2. artikulua

Bere eginkizunei ekin aurretik, epaile orok, Justizia Auzitegiaren aurrean, jendaurreko bil-

kura batean, zin egin beharko du bere eginkizunak inpartzialtasun osoz eta kontzientziaz beteko dituela eta eztabaiden isilekotasuna ez duela inola ere hautsiko.

3. artikulua

Epaileek jurisdikzio-immunitatea izango dute. Epaileek, beren eginkizunak utzi eta gero ere, immunitatea izango dute berek ofizialki egindako egintzei buruz, hitzez eta idatziz egindako adierazpenak barne.

Justizia Auzitegiak, Osoko Bilkuran bilduta, kendu egin dezake immunitatea. Erabakia Auzitegi Orokorreko edo auzitegi espezializatu bateko kide bati buruzkoa denean, dagokion auzitegiari aurretiaz kontsulta eginda erabakiko du Justizia Auzitegiak.

Baldin eta, immunitatea kendu eta gero, epaileren baten aurka akzio penalen bat baliatzen bada, estatu kide bakoitzean estatuko jurisdikzio-organo goreneko magistratuak epaitzeko eskumena duten agintariek baino ezingo dute epaitu epaile hori.

Europar Batasunaren pribilegio eta immunitateen gaineko protokolo 11. artikulutik 14.era artekoak eta 17. artikulua aplikatu ahal izango zaizkie Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko epaileei, abokatu nagusiei, idazkariari eta txostengile-ondokoei, aurreko lerrokadetan epaileen jurisdikzio-immunitateari buruz jasotako xedapenei kalterik egin gabe.

4. artikulua

Epaileek ezin izango dute bete inolako eginkizun politikorik nahiz administratiborik.

Ezin izango dute ordaindutako edo ordaindu gabeko inolako lanbide-jarduerarik bete, Kontseiluak, gehiengo soilez eta salbuespenez, baimena eman ezik.

Epaileek, beren eginkizunei ekiten dietenean, zinez aginduko dute beren kargutik sortutako betebeharrak errespetatuko dituztela, bereziki beren agintaldia amaitu eta gero zenbait eginkizun edo onura onartzeko orduan erakutsi beharreko zintzotasun- eta diskrezio-eginbeharrak, bai beren agintaldiak dirauen artean eta bai hori amaitu eta gero ere.

Zalantza kasuetan, Justizia Auzitegiak erabakiko du. Erabakia Auzitegi Orokorreko edo auzitegi espezializatu bateko kide bati buruzkoa denean, dagokion auzitegiari aurretiaz kontsulta eginda erabakiko du Justizia Auzitegiak.

5. artikulua

Aldikako berrikuntza-kasuak eta heriotza-kasuak alde batera, epaileen agintaldia dimisioz eta banaka amaituko da.

Epaileren batek dimisioa ematen badu, Justizia Auzitegiko lehendakariari zuzendu behar dio dimisio-gutuna, eta horrek Kontseiluko lehendakariari igorriko dio. Azken jakinarazpen horrekin kargua hutsik geldituko da.

Salbu eta 6. artikulua aplikatu behar den kasuetan, epaileek beren karguetan jarraituko dute, harik eta beren ondorengoa eginkizunak betetzen hasi arte.

6. artikulua

Epaileak beren eginkizunetatik kentzeko nahiz epaileei pentsioa edo ordezeko beste edozein onura jasotzeko eskubidea kentzeko, Justizia Auzitegiko epaileek eta abokatu nagusiek aho batez adierazi behar dute kargurako eskatutako ezaugarriak galdu dituztela edota ez dituztela betetzen beren karguei dagozkien betebeharrak. Interesdunak ez du eztabaida horietan parte hartuko. Interesduna Auzitegi Orokorreko edo auzitegi espezializatu bateko kide denean, dagokion auzitegiari aurretiaz kontsulta eginda erabakiko du Justizia Auzitegiak.

Idazkariak Justizia Auzitegiaren erabakiaren berri emango die Europako Parlamentuko eta Batzordeko lehendakariei, eta berak jakinaraziko dio Kontseiluko lehendakariari ere.

Erabaki horrek epaileren bat bere eginkizunetatik kendu eta ordezea badakar, azken jakinarazpen horrekin kargua hutsik geldituko da.

7. artikulua

Agintaldia amaitu aurretik beren eginkizunak uzten dituzten epaileen ordeze jarritakoak agintaldia amaitzeko gelditzen den tarterako izendatuko dira.

8. artikulua

Aurreko 2.etik 7.era bitarteko artikuluetako xedapenak abokatu nagusiei ere aplikatuko zaizkie.

II. TITULUA

JUSTIZIA AUZITEGIAREN ANTOLAKETA

9. artikulua

Epaileak hiru urtetik behin berrituko dira, zatika, txanda batean hamalau epaile aldatuko dira, eta bestean hamahiru.

Abokatu nagusiak hiru urtetik behin berri-tuko dira, zatika; aldi bakoitzean lau abokatu na-gusi aldatuko dira.

10. artikulua

Idazkariak Justizia Auzitegiaren aurrean zin egingo du bere egitekoak inpartzialtasun osoz eta kontzientziaz beteko dituela eta eztabaide-tako isilekotasuna ez duela inola ere hautsiko.

11. artikulua

Justizia Auzitegiak idazkariaren ordeztu bat jarri ahal izango du, hark ezintasunen bat iza-nez gero.

12. artikulua

Funtzionarioak eta beste agente batzuk atxi-kiko zaizkio Justizia Auzitegiari, auzitegiaren funtzionamendua bermatzeko. Idazkariaren mende egongo dira denak, lehendakariaren agintaritzapean.

13. artikulua

Justizia Auzitegiaren eskariz, Europako Parla-mentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedu-ra arruntaren arabera, txostengile-ondokoak izen-datzea aurreikus dezakete, eta horien estatutua eza-rri. Justizia Auzitegiari aurkeztutako gaien izapideak egiten parte hartzeko eta txostengilea den epaile-arekin lankidetzan aritzeko dei egin ahal izango zaie txostengile-ondokoei, Prozedura Erregelamen-duan zehaztutako baldintzetan.

Txostengile-ondokoak independentzia-berme guztiak eskaintzen dituzten pertsonen artean au-keratuko dira, eta behar besteko gaitasun juridikoa izan behar dute; Kontseiluak izendatuko ditu ge-hiengo soilez. Justizia Auzitegiaren aurrean zin egin-go dute beren eginkizunak inpartzialtasun osoz eta kontzientziaz beteko dituela eta eztabaiden isile-kotasuna ez duela inola ere hautsiko.

14. artikulua

Epaileek, abokatu nagusiek eta idazkariak Justizia Auzitegiak egoitza duen herrian bertan izan behar dute bizilekua.

15. artikulua

Justizia Auzitegiak etenik gabe jardungo du. Epai-leen oporraldien iraupena Justizia Auzitegiak fin-katuko du, zerbitzuaren premiak kontuan hartuta.

16. artikulua

Justizia Auzitegiak hiru eta bost epailez osa-tutako salak eratuko ditu. Epaileek beren arte-tik hautatuko dituzte saletako lehendakariak. Bost epaileko saletako lehendakariak hiru ur-terako hautatuko dira. Behin berritu ahal izan-go da beren agintaldia.

Sala Nagusia hamahiru epailek osatuko dute. Justizia Auzitegiko lehendakaria izango da ber-tako lehendakari ere. Sala Nagusiko kide izan-go dira, halaber, bost epaileko saletako lehen-dakariak eta Prozedura Erregelamenduan ze-hazten diren baldintzetan izendatutako beste epaile batzuk ere.

Estatu kide batek eskatzen duenean jar-dungo du Justizia Auzitegiak Sala Nagusi mo-duan, bai eta prozesuan alderdi den Batasune-ko instituzioren batek eskatuta ere.

Justizia Auzitegiak Osoko Bilkuran jardungo du, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 228. artikuluko 2. paragra-foa, 245. artikuluko 2. paragrafoa, 247. artiku-lua edo 286. artikuluko 6. paragrafoa aplikatuz gai bat aurkezten zaionean.

Justizia Auzitegiak, era berean, ardurapean duen gairen batek berebiziko garrantzia duela uste duenean, gai hori Osoko Bilkuraren es-kuetan uzteko erabakia hartu ahal izango du, abokatu nagusiari entzun ondoren.

17. artikulua

Justizia Auzitegiak baliozko erabakiak hartu ahal izateko, epaileen kopurua bakoitia izan be-har da beti.

Hiru zein bost epailez osatutako salen era-bakiak baliozkoak izateko, hiru epailek hartu be-har dute parte beti.

Sala Nagusiaren erabakiak baliozkoak iza-teko, bederatzi epailek hartu behar dute parte beti.

Justizia Auzitegiaren Osoko Bilkurako era-bakiak baliozkoak izateko, hamabost epailek har-tu behar dute parte beti.

Sala bat osatzen duten epaileetako batek ber-taratzeko ezintasunen bat badu, beste sala ba-teko epaile bat hara joateko eskatu ahal izango da, betiere, Prozedura Erregelamenduan ze-haztutako baldintzetan.

18. artikulua

Epaileek eta abokatu nagusiek ezingo dute gairen bat ebazten parte hartu, baldin eta, au-rretik, gai horretan agente, aholkulari edo al-

derdiren baten abokatu gisa parte hartu badute edota gai horren inguruan epaimahaiko kide gisa, ikerketa-batzorderen bateko kide gisa edo beste edozein erataraz erabakiak hartzeko deitu badituzte.

Baldin eta epaile edo abokatu nagusiren batek, arrazoi bereziren bat tarteko, gai zehatzen baten epaiketan edo azterketan ezin duela parte hartu irizten badio, lehendakariari eman behar dio horren berri. Lehendakariaren iritziz, epaile edo abokatu nagusiren batek, arrazoi bereziren bat tarteko, gai zehatzen batean parte hartu behar ez badu edo ondorioz aurkeztu behar ez badu, hala jakinarazi behar dio interesdunari.

Artikulu hau aplikatzeko orduan zailtasunik agertzen bada, Justizia Auzitegiak erabakiko du.

Parte batek ezingo du epaile baten nazionalitate arrazoitzat aipatu Justizia Auzitegiaren edo bertako salaren baten osaera aldatzeko eskatzeko, ez eta Justizia Auzitegian edo bertako salaren batean bere nazionalitateko epaile bat falta denik ere.

III. TITULUA

JUSTIZIA AUZITEGIAREN AURREKO PROZEDURA

19. artikulua

Estatu kideek, baita Batasuneko instituzioek ere, ordezkartza izango dute Justizia Auzitegian gai bakoitzerako aukeratutako agentearen bidez; agenteak aholkulari edo abokatu baten laguntza jaso ahal izango du.

Estatu kide izan gabe Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioan alderdi diren estatuek eta akordio horretan jasotako EFTAko Zaintzako Organoak ordezkartza berbera izango dute.

Beste alderdiak abokatu batek ordezkatzeko deitu.

Estatu kide baten edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioan parte den beste estatuko baten jurisdikzio-organoren baten aurrean jarduteko gaituta dauden abokatuak baino ezin dute alderdi bat ordezkatu edo alderdi horri lagundu Justizia Auzitegian.

Justizia Auzitegian ager daitezen agente, aholkulari eta abokatuak beren eginkizunak independentziaz gauzatzeko beharrezko eskubideak eta bermeak izango dituzte, Prozedura Erregelamenduak zehaztutako baldintzetan.

Justizia Auzitegiak, bestalde, bertan agertutako aholkulariei eta abokatuak dagokienez,

epaitegiei eta auzitegiei gai horretan eskuarki aitortutako ahalak izango ditu, Erregelamendu horretan bertan zehaztutako baldintzetan.

Estatu kideren bateko herritar diren unibertsitate-irakasleek, beren estatuko legediak auzitan jarduteko eskubidea aitortzen badie, artikulu honetan abokatuak onartutako eskubideak izango dituzte Justizia Auzitegian.

20. artikulua

Justizia Auzitegiaren aurreko prozedurak bi aldi izango ditu: idatzia bata, eta ahozkoa bestea.

Idatzizko aldian, alderdiei eta aurkatutako egintzak eman dituzten Batasuneko instituzioei demandak, alegazioak, erantzunak eta oharak jakinaraziko zaizkie, eta, hala egokituz gero, baita kontra-erantzunak edota beste edozein pieza edo dokumentu lagungarri nahiz horien kopia ziurtatuak ere.

Idazkariaren erantzukizunpean egingo dira jakinarazpenak, Prozedura Erregelamenduan zehaztutako hurrenkeran eta epeetan.

Ahozko aldian, bestalde, hauek sartzen dira: epaile txostengileak aurkeztutako txostena irakurtzea, Justizia Auzitegiak agenteei, aholkulariei eta abokatuak entzutea, eta abokatu nagusiak aurkeztutako ondorioak entzutea, bai eta lekukoei eta adituei ere, egoki bada.

Baldin eta, Justizia Auzitegiaren iritziz, gaiak ez badakar zuzenbidearen aldetik inolako arazo berririk, Justizia Auzitegiak, abokatu nagusiari entzunda, gaia abokatu nagusiaren ondorioz gabe epaitzea erabaki ahal izango du.

21. artikulua

Justizia Auzitegian prozedura hasteko, demanda bat zuzenduko zaio idazkariari. Demandan, demandatzailearen izena eta helbidea jaso behar dira, eta sinatzailearen zerizana, demandatutako alderdiaren edo alderdien izena, auziaren mamia, uziak, eta alegatutako arrazoiak azalpen laburra.

Demandarekin batera, hala badagokio, deuseztatzea nahi den egintza aurkeztu behar da, edo, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 265. artikuluan aipatutako hipotesiaren kasuan, artikulu horretan jasotako errekerimenduaren eguna ziurtatu dezan agiri bat. Aipatutako agiriok demandari erantzen ez bazaizkio, idazkariak interesdunari deitu egingo dio, zentzuzko epe baten barruan agiriok aurkezteko; horrelakoetan, ordea, ezin izango da preklusiorik alegatu, baldin eta pro-

zesuaren egoera errekurtsua jartzeko epea iragan ondoren erregularizatzeko bada.

22. artikulua

Energia Atomikoaren Europako Erkidegoa (EAEE) eratzeko Tratatuko 18. artikuluan aipatutako kasuetan, Justizia Auzitegiari errekurtsua jartzekotan, idazkariari zuzendutako idazkiaren bidez egingo da. Idazkian demandatzailearen izena eta helbidea jaso beharko dira eta sinatzailearen zerizana, bai eta zein erabakiren aurka jartzeko den errekurtsua, auzilarien izena, auziaren mamia, uziak, eta alegatutako arrazoien azalpen laburra ere bai.

Idazkiarekin batera, aurkatu den Arbitrajeko Komitearen erabakiaren kopia egiaztatu bat aurkeztu behar da.

Justizia Auzitegiak errekurtsua ezesten badu, Arbitrajeko Komitearen erabakia behin betikoa izango da.

Baldin eta Justizia Auzitegiak, prozesuko alderdiren baten ekimenez eta bidezkoa bada, Arbitrajeko Komitearen erabakia deuseztatzen badu, berriz ekin ahal izango zaio prozedurari Arbitrajeko Komitearen aurrean. Justizia Auzitegiak erabakitako zuzenbide-arazoei lotu behar zaie Arbitrajeko Komitea.

23. artikulua

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuko 267. artikuluan aipatzen diren kasuetan, prozedura eteten duen eta gaia Justizia Auzitegiari aurkeztu dion estatuko jurisdikzio-organoaren erabakia jurisdikzio-organo horrek berak jakinaraziko dio Justizia Auzitegiari. Ondoren, Justizia Auzitegiko idazkariak auzian diren alderdiei, estatu kideei eta Batzordeari jakinaraziko die erabaki hori, bai eta baliozkotasun edo interpretazio arazoengatik zalantzan jarri den egintza onartu duen Batasuneko instituzio, organo edo organismoari ere.

Azken jakinarazpen hori jasotzen denetik bi hilabeteko epean, alderdiek, estatu kideek, Batzordeak eta, hala dagokionean, baliozkotasun edo interpretazio arazoengatik zalantzan jarri den egintza onartu duen Batasuneko instituzio, organo edo organismoak eskubidea izango dute Justizia Auzitegiari alegazio edo ohar idatziak aurkezteko.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuko 267. artikuluan aipatzen

diren kasuetan, Justizia Auzitegiko idazkariak dagokion jurisdikzio-organo nazionalaren erabakia jakinaraziko die estatu kide izan gabe Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioan alderdi diren estatuei eta akordio horretan jasotako EFTako Zaintzako Organoari; jakinarazpena egiten denetik bi hilabeteko epean, eta akordio horren aplikazio-eremuetakoren bat ukituta gelditzen bada, alegazio edo ohar idatziak aurkeztu ahal izango dizkiote Justizia Auzitegiari.

Kontseiluak eta hirugarren estatu batek edo batzuek eremu jakin bati buruz egindako akordioaren bidez estatu horiei alegazio edo ohar idatziak aurkezteko ahalmena ematen zaienean, baldin eta estatu kide bateko jurisdikzio-organo batek akordio horren aplikazio-eremuari eragiten dion epaitu aurreko arazo bat aurkeztu badio Justizia Auzitegiari, arazo hori aurkeztu duen jurisdikzio-organo nazionalak hirugarren estatu horiei ere jakinaraziko die erabakia. Herrialde horiek, orduan, alegazio edo ohar idatziak aurkeztu ahal izango dizkiote Justizia Auzitegiari, jakinarazpena egiten denetik bi hilabeteko epean.

23 bis artikulua ⁽¹⁾

Prozedura-erregelamenduak prozedura bizkortua ezarri ahal izango du, eta askatasun-, segurtasun- eta justizia-esparruari buruzko epaiaketa aurreko erabaki-eskaeretakarako, presazko prozedura.

Prozedura horietan, 23. artikuluan finkatutakoa baino epe laburragoa ezar daiteke idatzizko oharra edo alegazioak aurkezteko eta, 20. artikuluko laugarren lerrokadan xedatutakoa gorabehera, baita abokatu nagusiaren ondorioz ere.

Presazko prozeduran, alderdiak eta beste interesdun batzuk —23. artikuluan arabera idatzizko oharra edo alegazioak aurkezteko baimena dutenak— mugatu ahal izango dira eta, premia berealdikoa bada, prozeduraren idatzizko aldia kentzea ere bai.

24. artikulua

Justizia Auzitegiak berak egoki iritzitako agiri guztiak aurkezteko eta informazio guztiak emateko eskatu ahal izango die alderdiei. Erantzuna ezezkia bada, aktan jasota utziko du.

Justizia Auzitegiak estatu kideei eta auzian al-

⁽¹⁾ 2008/79/CE, Euratom Erabakiaren bitartez sartutako artikulua (2008.1.29ko EO L, 29.zka, 42. or.).

derdi ez diren instituzio, organo eta organismoen ere prozesurako berak beharrezko iritzitako informazio guztiak eskatu ahal izango dizkie.

25. artikulua

Justizia Auzitegiak edonoiz agindu ahal izango dio peritu-irizpen bat egiteko berak aukeraturutako edozein pertsona, korporazio, bulego tekniko, batzorde edo organori.

26. artikulua

Lekukoei entzun ahal izango zaie, Prozedura Erregelamenduak zehaztutako baldintzetan.

27. artikulua

Justizia Auzitegiak, bertaraten ez diren lekukoei dagokienez, gai horretan epaitegiei eta auzitegiei orokorrean aitortutako ahalak izango ditu, eta diru-zehapenak ezarri ahal izango ditu, Prozedura Erregelamenduak zehaztutako baldintzetan.

28. artikulua

Lekukoek eta perituek zinpean egin dezakete deklarazioa, bai Prozedura Erregelamenduan ezarritako formularen arabera, bai lekuko edo aditu bakoitzaren estatuko legedian jasotako moduan.

29. artikulua

Lekukoek eta perituek egoitza duten tokiko agintari judizialen aurrean deklaratzeko agindua eman ahal izango du Justizia Auzitegiak.

Auto hori bete ahal izateko, Prozedura Erregelamenduak zehaztutako baldintzetan jakinaraziko zaio eskumenak dituen agintaritza judizialari. Erreguzko gutuna betetzearen ondorioz sortutako agiriak Justizia Auzitegiari igorri behar zaizkio modu berean.

Justizia Auzitegiak ordainduko ditu gastuak, hala dagokienean, gero alderdiei ordainarazteko aukeraren kalterik egin gabe.

30. artikulua

Lekukoek eta perituek zina hausten badute, arlo zibilean jurisdikzioa duen auzitegi nazional batean egindako delitutzat hartuko dute estatu kideek egintza hori. Justizia Auzitegiak salaketa egin ondoren, kasuan kasuko esta-

tuak jazarri egingo ditu delitu horren egileak horretan eskumenak dituen bertako jurisdikzio-organismoaren aurrean.

31. artikulua

Ikustaldia jendaurrekoa izango da, Justizia Auzitegiak, arrazoi larriak tarteko, kontrakorik adierazi ezik, ofizioz edo alderdiak eskatuta.

32. artikulua

Ikustaldian, Justizia Auzitegiak galdeketa egin ahal izango die perituei eta lekukoei, bai eta alderdiei ere. Hala ere, alderdiek beren ordezkarien bidez baino ezingo dute jardun epaiketan.

33. artikulua

Ikustaldi bakoitzeko, akta bat jaso behar da; akta hori lehendakariak eta idazkariak sinatu behar dute.

34. artikulua

Lehendakariak zehaztuko ditu ikustaldi-txandak.

35. artikulua

Justizia Auzitegiaren eztabaidak sekretupean egin eta hala gordeko dira.

36. artikulua

Epaia arrazoitu egingo dira. Eztabaidetan parte hartu duten epaileen izenak aipatuko dira bertan.

37. artikulua

Epaia, lehendakariak eta idazkariak sinatuko dituzte. Jendaurreko saio batean irakurriko dira.

38. artikulua

Justizia Auzitegiak erabakiko du kostuen gainean.

39. artikulua

Justizia Auzitegiak lehendakariak prozedura laburtu baten bidez erabakiko du Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuen 278. artikuluan eta EAEE Tratatuko

157. artikuluan jasotako etendura lortu nahi duten uziei buruz, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 279. artikularekin bat etorritz behin-behineko neurriak emateari buruz, edo Europar Batasunaren Funtzionamendu Tratatuaren 299. artikulua erabiltzeko betearazpena eteteari buruz. Prozedura laburtu horri, beharrezkoa den heinean, ez zaizkio estatutu honetan jasotako zenbait arau aplikatuko, eta Prozedura Erregelamenduan arautuko da prozedura hori.

Lehendakaria ezintasun-egoeraren batean badago, beste epaile batek egingo du haren ordezkia, Prozedura Erregelamendua zehaztutako baldintzetan.

Lehendakariaren ebazpena, edo haren ordezkioarena, behin-behinekoa baino ez da izango, eta inola ere ez du baldintzapean jarriko Justizia Auzitegiaren erabakia gai nagusiari dagokionez.

40. artikulua

Estatu kideek eta Batasuneko instituzioek laguntzailekide moduan har dezakete parte Justizia Auzitegiaren esku jarritako auzietan.

Eskubide bera izango dute Batasuneko organoek eta organismoek eta beste edozein pertsonak ere, baldin eta Justizia Auzitegiari aurkeztutako auzi baten ebazpenean interesen bat erakutsi badezakete. Pertsona fisikoek eta juridikoek ez dute esku hartu ahal izango estatutu kideen arteko, Batasuneko instituzioen arteko, edo eskatu kideen eta batasuneko instituzioen arteko auzietan.

Bigarren lerrokadan xedatutakoari kalterik egin gabe, estatutu kide izan gabe Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioan parte diren estatuek eta akordio horretan aurreikusitako EFTAko Zaintzako Organoak laguntzailekide gisa esku har dezakete Justizia Auzitegiari aurkeztutako auzietan, auziok aipatutako akordio horren aplikazio-eremuren bati buruzkoak direnean.

Esku hartzeko demandaren uziek helburu bakarra izango dute, alderdietako baten uziak bultzatzea, besterik ez.

41. artikulua

Alderdi demandatuak, behar bezala epatuta egonda, demandari idatziz erantzuten ez badio, auzi-iheseko epaia emango da horretaz. Epaia-ri aurkapena jarri ahal izango zaio, jakinaraz-

penetik hilabeteko epean. Justizia Auzitegiak kontrako erabakirik hartu ezik, aurkapen horrek ez du auzi-iheseko epaia betearaztea etengo.

42. artikulua

Estatu kideek, Batasuneko instituzio, organo edo organismoek zein beste edozein pertsona fisikok edo juridikok, Prozedura Erregelamendua zehaztutako kasuetan eta baldintzetan, hirugarrengotza jar dezake emandako epaia aurka, nahiz eta agertzeko deirik jaso ez, baldin eta epaia horiek beren eskubideei kalte egiten badiete.

43. artikulua

Epaien baten esanahiaz eta helmenaz zailantzarik izanez gero, Justizia Auzitegiari dagokio epaia hori interpretatzea, alderdiak eskatuta edo horretan interesa duela frogatzen dezan Batasuneko instituzioak eskatuta.

44. artikulua

Justizia Auzitegiari epaia berrikustea eskatu ahal izateko, nahitaezkoa izango da eragin erabakigarria izan dezakeen egintzaren bat aurkitu izana; hain zuzen, epaia eman aurretik ez Justizia Auzitegiak ez berrikustea eskatu duen alderdiak ezagutzen ez zutena.

Justizia Auzitegiaren epaia bat behar da berrikuste-prozedurarako; gertakari berri bat dagoela jaso behar da berariaz epaia horretan, eta, dituen ezaugarriak kontuan hartuta, bide ematen duela berrikustea onartzeko; beraz, demanda hori prozeduran onartzeko modukoa dela deklaratu du.

Ezingo da inolako berrikuste-demandarik aurkeztu epaia-egunetik hamar urte igaro eta gero.

45. artikulua

Prozedura Erregelamenduan distantziaren arabera epeak finkatuko dira.

Epeak amaitu direla-eta ezingo da preklusioak aurkeztu, baldin eta interesdunak uste-kabeko edo ezinbesteko kasuren bat gertatu dela egiaztatzen badu.

46. artikulua

Kontratuz kanpoko erantzukizuna dela-eta Batasunaren aurka baliatutako akzioek bost urtera preskribituko dute, akzioek eragin zituen

gertakaria gertatu zenetik zenbatuta. Preskripzioa geldiarazi egingo da, bai Justizia Auzitegiari demanda aurkeztuta, bai aurre-erreklamazioa eginez; kaltetuak hori Batasunean eskumenak dituen instituzioan aurkeztu ahal izango du. Azken kasu horretan, demanda bi hilabeteko epean aurkeztu beharko da, horrela baitago xedatuta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko 263. artikuluan; hala dagokionean, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko 265. artikulua bigarren lerrokadan jasotako xedapenak izango dira aplikagarri.

Artikulu hau Europako Banku Zentralaren kontratuz kanpoko erantzukizunen arloko akzioei ere aplikatuko zaie.

IV. TITULUA

AUZITEGI OROKORRA

47. artikulua

Auzitegi Orokorrari eta bertako kideei ere 9. artikuluko lehenengo lerrokada, 14. eta 15. artikulua, 17. artikuluko lehenengo, bigarren, laugarren eta bosgarren lerrokadak eta 18. artikulua aplikatuko zaizkie.

Auzitegi Orokorreko idazkariari ere aplikatuko zaizkio, mutatis mutandis, 3. artikuluko laugarren lerrokada eta 10., 11. eta 14. artikulua.

48. artikulua

Auzitegi Orokorra hogeita zazpi epailek osatuta egongo da.

49. artikulua

Auzitegi Orokorreko kideei abokatu nagusiaren eginkizunak betetzeko dei egin ahal izango zaie.

Abokatu nagusi horren eginkizuna izango da Auzitegi Orokorraren esku jarritako zenbait gairi buruz ondorio arrazoituak aurkeztea —auzitegi horri bere xedeak betetzen laguntzeko— jendaurrean eta inpartzialtasun eta independentzia osoz

Auzitegi Orokorraren Prozedura Erregulamenduan finkatuko dira gai horiek hautatzeko irizpideak eta abokatu nagusiak izendatzeko moduak.

Auzitegi Orokorreko kide bat gai baten gainean abokatu nagusi izateko izendatzen denean, kide horrek ezingo du parte hartu gai hori ebazten.

50. artikulua

Auzitegi Orokorrak hiru eta bost epailez osatutako salak eratuko ditu. Epaileek beren artetik hautatuko dituzte saletako lehendakariak. Bost epaileko saletako lehendakariak hiru urterako hautatuko dira. Behin berritu ahal izango da beren agintaldia.

Prozedura Erregulamenduan arautuko da salen osaketa eta sala bakoitzari dagozkion gaiak esleitzeko modua. Prozedura Erregulamenduan jasotako zenbait kasutan, Auzitegi Orokorrak Osoko Bilkuran edo kide bakarreko organo moduan jardun dezake.

Prozedura Erregulamenduan, halaber, Auzitegi Orokorra Sala Nagusi moduan eratzea xedatu ahal izango da zehaztutako kasuetarako eta zehaztutako baldintzetan.

51. artikulua

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 256. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen den arauan xedatutakoa gorabehera, Justizia Auzitegiaren eskumenekoak izango dira —auzitegi horren eskumenekoak baino ez— Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 263. eta 265. artikuluetan jasotzen diren errekurtsoak, estatu kide batek jartzen baditu:

a) Europako Parlamentuak edo Kontseiluak, edo, batera dihardutela, bi instituzio horiek, onartutako egintzen aurka edo erabakitzeari huts egin izanaren aurka, honako hauek salbuespen izanik:

— Kontseiluak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 108. artikuluko 2. paragrafoko hirugarren lerrokadaren arabera hartutako erabakiak.

— merkataritza babesteko neurriei buruz Kontseiluak onartutako erregulamendu batekin bat etorritik, Kontseiluak berak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 207. artikulua arabera onartutako egintzak;

— Kontseiluak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 291. artikuluko 2. paragrafoaren arabera be-tearazpen-eskumenak baliatzeko gauzatzen dituen egintzak.

b) Batzordeak onartutako egintza baten aurka edo erabakitzeari huts egin izanaren aurka, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 331. artikuluko 1. paragrafoaren arabera.

Justizia Auzitegiaren eskumenekoak izango dira –auzitegi horren eskumenekoak baino ez–, era berean, artikuluko horietan beretan jasotzen diren errekurtsuak, baldin eta errekurtsu horiek Batasuneko instituzio batek jarri baditu Europako Parlamentuak, Kontseiluak, aldi berean bat-tak eta besteak, edo Batzordeak egintza bat onar-tu duela-eta, edo erabakitzeari huts egin diola-eta, edo baldin eta errekurtsu horiek instituzio batek jarri baditu Europako Banku Zentralak egintza bat onartu duela-eta, edo erabakitzea-ri huts egin diola-eta.

52. artikulua

Justizia Auzitegiko lehendakariak eta Auzi-tegi Orokorreko lehendakariak elkarren arteko adostasunez finkatuko dute Justizia Auzitegia-ri atxikitako funtzionarioek eta gainerako agen-teek Auzitegi Orokorrean zerbitzuak betetzeko zein baldintza bete behar dituzten, Auzitegi Oro-korraren funtzionamendua bermatuta egon dadin. Zenbait funtzionario edo agente Auzite-gi Orokorreko idazkariaren mende egongo dira bertako lehendakariaren agintaritzapean.

53. artikulua

Auzitegi Orokorrean jarduteko prozedura III. tituluan arautu da.

Beharrezkoa den heinean, bertako Prozedura Erregelamenduak zehaztu eta osatuko du Auzi-tegi Orokorrean jarduteko prozedura. Proze-dura Erregelamenduak salbuespenak jarri ahal izango dizkie 40. artikuluko laugarren lerroka-dari eta 41. artikuluari, jabetza intelektualaren eremuan sortutako auzien ezaugarri bereziak kontuan izateko.

Aurreko 20. artikuluko laugarren lerrokadan xedatutakoa gorabehera, abokatu nagusiak idatziz aurkez ditzake bere ondorioak arrazoi-tuta.

54. artikulua

Auzitegi Orokorrari zuzendutako errekur-tsoren bat edo prozesuko beste egintzaren bat noizbait hutsegitez Justizia Auzitegiko Idazka-ritzan aurkezten bada, idazkaritza horrek be-rehala bidali beharko dio Auzitegi Orokorreko Idazkaritzari; era berean, Justizia Auzitegiari zu-zendutako errekurtsoren bat edo prozesuko bes-te egintzaren bat noizbait hutsegitez Auzitegi Orokorreko idazkaritzan aurkezten bada, idaz-karitza horrek berehala helarazi beharko dio Jus-tizia Auzitegiko Idazkaritzari.

Auzitegi Orokorrak errekurtsu bat ebazteko ardura izateko eskumenik ez duela uste badu, Justizia Auzitegiaren eskumenekoa delako, Jus-tizia Auzitegiari igorriko dio. Era berean, Justi-zia Auzitegiak errekurtsua ebazteko ardura izateko eskumenik ez duela uste badu, Auzite-gi Orokorren eskumenekoa delako, Auzitegi Orokorrari igorriko dio, eta halakoetan hark ezin utziko dio bere eskumena baliatzeari.

Justizia Auzitegiari eta Auzitegi Orokorrari biei xede berbera duten gaiak aurkezten ba-zaizkie, edo interpretazio-arazo berbera ma-haigaineratzen dutenak, edo egintza berberaren baliozkotasuna zalantzan jartzen dutenak, Au-zitegi Orokorrak, alderdiei entzun ondoren, eten egin ahal izango du bere jarduna, harik eta Justizia Auzitegiak epaia eman arte edo, Euro-par Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 263. artikuluan arabera jarritako errekurtsuak badira, Auzitegi Orokorrak utzi egin ahal izango dio bere eskumena baliatzea-ri, Justizia Auzitegiak errekurtsu horiek ebatzi ahal izan ditzan. Baldintza berberetan, Justizia Auzitegiak ere bere ardurapeko prozedura ete-tea erabaki dezake; horrelakoetan, prozedura-ri Auzitegi Orokorrean emango zaio jarraipena.

Estatu kide batek eta Batasuneko instituzio batek egintza berberari jartzen badiote aurka-pena, Auzitegi Orokorrak bere eskumenak ba-liatzeari utziko dio, Justizia Auzitegiak errekurtsu horiek ebatzi ahal izan ditzan.

55. artikulua

Auzitegi Orokorreko idazkariak alderdi guz-tiei jakinaraziko dizkie, baita estatu kide guztiei nahiz Batasuneko instituzioei ere, auzian Auzi-tegi Orokorrean parte hartu ez arren, bai Auzi-tegi Orokorrak prozesua amaitzeko emandako ebazpenak, bai edukizko arazoa zati batean ebatzita utz dezatenak, bai eskumenik ezaren edo onartezintasunaren salbuespenen bati bu-ruzko prozesuko intzidenteak amaitzen dituz-tenak.

56. artikulua

Kasazio-errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Justizia Auzitegiari bi hilabeteko epean, aur-kapena jaso duen ebazpena jakinarazten denetik hasita, bai Auzitegi Orokorrak prozesua ama-itzeko emandako ebazpenen aurka, bai edukiz-ko arazoa zati batean ebatzita utz dezatenen aur-ka, baita eskumenik ezaren edo onartezintasu-naren salbuespenen bati buruzko prozesuko in-tzidenteak amaitzen dituztenen aurka ere.

Kasazio-errekurtsua edozein alderdik aurkeztu ahal izango du, baldin eta bere uziak erabat edo zati batean ezetsi badira. Hala ere, estatutu kide edo Batasuneko instituzio ez diren laguntzailekideek kasazio-errekurtsua jarri ahal izateko, Auzitegi Orokorraren ebazpenak nahitaez eragin behar die zuzenean, bestela ezin izango dute horrelako errekurtsorik jarri.

Batasunaren eta bere agenteen auziak salbuespen direla, Auzitegi Orokorrean auzian esku hartu ez duten estatutu kideek eta Batasuneko instituzioek ere jar dezakete kasazio-errekurtsua. Aipatu berri diren estatutu kideak eta instituzioak lehen auzialdian esku hartu duten estatutu kideen zein instituzioen egoera berebetean egongo dira.

57. artikulua

Pertsonaren batek parte hartzeko egindako eskaria ezetsi bada, pertsona horrek kasazio-errekurtsua jarri ahal izango dio Justizia Auzitegiari, parte hartzeko bere eskaria ezetsi duen Auzitegi Orokorraren ebazpenaren aurka, ezesteko ebazpenaren jakinarazpena jaso eta bi asteko epean.

Prozedurako alderdiek kasazio-errekurtsua jarri ahal izango dute Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 278. eta 279. artikuluen edo 299. artikuluko laugarren lerrokadaren ondorioz edo EAEE Tratatu 157. artikuluan edo 164. artikuluko hirugarren lerrokadaren ondorioz Auzitegi Orokorrak hartutako edozein ebazpenen aurka, ebazpenaren jakinarazpenetik bi hilabeteko epean.

Artikulu honetako lehenengo eta bigarren lerrokadetan aipatutako kasazio-errekurtsua 39. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera ebatziko da.

58. artikulua

Justizia Auzitegian aurkeztutako kasazio-errekurtsua zuzenbide-arazoetara mugatuko da. Errekurtsuak arrazoi hauek izan beharko ditu oinarri: Auzitegi Orokorraren eskumenik eza, auzitegiko prozedurako irregulartasunak, errekurtsu-jartzailearen interesak kaltetzen dituzten heinean, eta Auzitegi Orokorrak Batasuneko Zuzenbidea haustea.

Kostuak ezartzea eta kostuen zenbatekoa ez dira, berez, kasazio-errekurtsua jartzeko arrazoi.

59. artikulua

Auzitegi Orokorraren ebazpen baten aurkako kasazio-errekurtsuaren prozedurak bialdi

izango ditu Justizia Auzitegian: idatzia bata, eta ahozkoa bestea. Justizia Auzitegiak, abokatu nagusiari eta alderdiei entzun ondoren, ahozko aldirik egin gabe eman dezake ebazpena, Prozedura Erregelamenduak zehazten dituen baldintzetan.

60. artikulua

Kasazio-errekurtsua jartzeak ez du etete-ondoriorik izango, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 278. eta 279. artikuluetan edo EAEE Tratatu 157. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 280. artikuluan xedatutakoa gorabehera, erregelamendu bat deuseztatzen duten Auzitegi Orokorraren ebazpenek eragina izateko, nahitaez, estatutu honetako 56. artikuluko lehenengo lerrokadan aipatutako epea iraungi behar da, edo bestela, aipatutako epean kasazio-errekurtsoren bat jarri baldin bada, aurretik errekurtsua ezetsi behar da; hala ere, alderdi bakoitzak eskubidea izango du Justizia Auzitegian demanda bat jartzeko, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 278. eta 279. artikuluen edo EAEE Tratatu 157. artikuluan indarrez deuseztatutako europar erregelamenduaren eraginak etetea lortzeko nahiz beste edozein behin-behineko neurri hartzeko.

61. artikulua

Kasazio-errekurtsua baiesten bada, Justizia Auzitegiak deuseztatu egingo du Auzitegi Orokorraren ebazpena. Kasu horretan, Justizia Auzitegiak bi aukera izango ditu, auzia berak ebatzi behin betiko, auziaren egoerak hala egingen uzten badu, edo gaia Auzitegi Orokorrari bihurtu, horrek ebatzi dezan.

Auzia Auzitegi Orokorrari bihurtuz gero, Justizia Auzitegiaren ebazpenean erabakitako zuzenbide-arazoak lotura-indarrekoak izango dira Auzitegi Orokorrarentzako.

Auzia dela eta, Auzitegi Orokorrean esku hartu ez duen estatutu kideren batek edo Batasuneko instituzioren batek jarritako kasazio-errekurtsua baiesten denean, Justizia Auzitegiak, beharrezkoa baderitza, berak adieraz dezake zein diren Auzitegi Orokorrak deuseztatutako ebazpenaren ondorioen artean behin betikotzat hartu beharrekoak, auzian alderdi diren entzat.

62. artikulua

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 256. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan adierazitako kasuetan, lehen abokatu nagusiak Auzitegi Orokorraren ebazpena berraztertze proposatu ahal izango dio Justizia Auzitegiari, Batasuneko Zuzenbidearen batasuna edo koherentzia hausteko arrisku larria dagoela uste duenean.

Auzitegi Orokorrak ebazpena eman ondoko hilabeteko epean aurkeztu beharko da proposamena. Justizia Auzitegiak, lehen abokatu nagusiak proposamena aurkezten dionetik hilabeteko epean, ebazpena berraztertzea bidezkoa den ala ez erabakiko du.

62 bis artikulua

Berriz aztertu beharreko gaiei buruzko erabakia emateko, Justizia Auzitegiak presazko prozedura erabiliko du, Auzitegi Orokorrak igorritako autoetan oinarrituta.

Estatutu honetako 23. artikuluan aipatzen diren interesdunek eta Europar Batasunaren Funtzionamendu Tratatuaren 256. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen diren kasuetan, Auzitegi Orokorrean bideratutako prozedurako alderdiek eskubidea izango dute Justizia Auzitegian alegazio edo ohar idatziak aurkezteko, berariaz ezarritako epean, berriz aztertu beharreko gaien inguruan.

Justizia Auzitegiak ahozko aldia irekitzeari buruz erabaki dezake ebazpena eman baino lehen.

62 ter artikulua

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuako 256. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako kasuetan, berraztertze proposamenak eta berraztertze prozedura hasteko erabakiak ez dute etendura eragingo, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuako 278. eta 279. artikuluetan xedatutakoari kalterik egin gabe. Justizia Auzitegiak adierazten badu Auzitegi Orokorraren ebazpenak Batasuneko Zuzenbidearen batasuna edo koherentzia hausten duela, Justizia Auzitegiak gaia Auzitegi Orokorrari igorriko dio berriz, eta Justizia Auzitegiaren ebazpenean erabakitako zuzenbide-arazoak lotura-indarrekoak izango dira Auzitegi Orokorrarentzat; Justizia Auzitegiak berak adieraz dezake zein diren Auzitegi Orokorrak deuseztatutako ebazpenaren ondorioen artean behin betikotzat hartu beharrekoak, auzian alderdi direnzentzat. Dena dela,

berrazterketaren emaitza kontuan hartuta, auziaren ebazpena Auzitegi Orokorraren erabakiaren oinarri diren egitatezko apreziazioen ondorio bada, Justizia Auzitegiak behin betiko ebatziko du auzia.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuako 256. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kasuetan, berraztertze proposamenik edo berraztertze-aldia irekitzeko erabakirik ez badago, aurkeztutako galderei Auzitegiak emandako erantzunak 62. artikuluko bigarren lerrokan berariaz ezarritako epea bukatzean izango du eragina. Berraztertze-aldia irekitzen bada, berrazterketari dagokion erantzunak aldi hori amaitzean izango du eragina, Justizia Auzitegiak besterik erabaki ezik. Justizia Auzitegiak adierazten badu Auzitegi Orokorraren ebazpenak Batasuneko Zuzenbidearen batasuna edo koherentzia hausten duela, berraztertu beharreko gaiei Justizia Auzitegiak emandako erantzunak Auzitegi Orokorrak emandakoa ordezkaturiko du.

IV bis TITULUA

JURISDIKZIO SALAK

62. quater artikulua

Auzitegi espezializatuen eskumenei, osaketari, antolaketari eta prozedurari buruzko xedapenak, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 257. artikulua-
ren ondorioz ezarriak, estatutu honetako eranskinean daude jasota.

V. TITULUA

AZKEN XEDAPENAK

63. artikulua

Justizia Auzitegiaren eta Auzitegi Orokorraren Prozedura Erregelamenduek estatutu hau aplikatzeko beharrezko xedapen guztiak jasoko dituzte, bai eta, beharrezkoa den heinean, estatutu hau osatzekoak ere.

64. artikulua

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari aplikatu beharreko hizkuntza-araubideari buruzko

arauak Kontseiluaren erregelamendu baten bidez ezarriko dira; Kontseiluak aho batez erabakiko du. Erregelamendu hori onetsiko da, dela Justizia Auzitegiak eskatuta eta Batzordeari eta Europako Batzordeari aurretiaz kontsulta eginda, dela Batzordeak proposatuta eta Justizia Auzitegiari eta Europako Parlamentuari aurretiaz kontsulta eginda.

Arau horiek onartzen diren arte, Justizia Auzitegiaren Prozedura Erregelamenduan eta Auzitegi Orokorraren Prozedura Erregelamenduan hizkuntza-araubideari buruz ezarritako xedapenak izango dira aplikagarri. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 253. eta 254. artikuluetan xedatutakoa gorabehera, xedapen horiek aldatzeko edo indargabetzeko, Kontseiluaren aho bateko onespena beharko da.

I. ERANSKINA

EUROPAR BATASUNEN FUNTZIO PUBLIKOKO AUZITEGIA

1. artikulua

Batasunaren eta bere eragileen arteko auziak ebazteko eskumena Europar Batasuneko Funtzio Publikoko Auzitegiak —aurrerantzean «Funtzio Publikoko Auzitegia»— izango du lehen auzialdian; Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 270. artikuluen ondorioz; bere eskumen izango dira, halaber, edozein organo edo organismoren eta horien langileen arteko auziak baldin eta horien gaineko eskumena Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak esleituta badu.

2. artikulua

Funtzio Publikoko Auzitegia zazpi epailek osatuko dute. Justizia Auzitegiak hala eskatzen badu, Kontseiluak, gehiengo kualifikatuz, epaileen kopurua handitu ahal izango du.

Epaileak sei urteko aldi baterako izendatuko dira. Irteten diren epaileak berriz izendatu ahal izango dira.

Hutsik gelditzen diren kargu guztiak beste epaile bat sei urterako izendatuz beteko dira.

3. artikulua

1. Epaileak Kontseiluak izendatuko ditu, Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko

Tratatu 257. artikuluen laugarren lerrokadaren arabera; aldez aurretik, ordea, artikuluhonetan aipatzen den komiteari kontsulta egin beharko dio. Epaileak izendatzeko orduan, Funtzio Publikoko Auzitegiaren eraketa oreketa izan dadila zainduko du Kontseiluak; ildo horretatik, geografia-irizpideen aldetik, ahalik eta aukera zabalena egingo du estatu kideetako herritarrei eta ordezkutatuko sistema juridiko nazionaleri dagokienez.

2. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 257. artikuluko laugarren lerrokadan adierazitako eskakizunak betetzen dituzten herritar guztiak aurkeztu ahal izango dute hautagaitza baldin eta Batasuneko herritartasuna badute. Hautagaitza horiek aurkezteko eta tramitatze baldintzak eta erak Kontseiluak ezarriko ditu Justizia Auzitegiaren gomendioa entzunda.

3. Batzorde bat osatuko da, Europako Justizia Auzitegiko eta Auzitegi Orokorreko kide ohien artean eta jurista aditu ezagunen artean aukeratutako zazpi pertsonen osatua. Kontseiluak erabakiko ditu batzordeko kideen izendapena eta funtzionamendu-arauak Justizia Auzitegiko lehendakariaren gomendioa entzunda.

4. Batzordeak hautagaiak Funtzio Publikoko Auzitegiko epaileari dagozkion zereginak betetzeko gai diren adieraziko du irizpen batean. Irizpenarekin batera, batzordeak maila gorena eta egokiena duten hautagaien zerrenda ere aurkeztuko du. Zerrenda horretan proposatutako hautagaien kopura Kontseiluak izendatu beharreko epaileen kopurua halako bi izango da guxtienez.

4. artikulua

1. Epaileek beren artean aukeratuko dute Batasuneko Funtzio Publikoko Auzitegiko lehendakaria hiru urterako. Agintaldia berritu egin daiteke.

2. Funtzio Publikoko Auzitegiak hiru epailez osatutako salak eratuko ditu. Prozedura-erregelamenduan aurreikusitako kasuetan, osoko bilkuran, bost epaileko salan edo epaile bakoitzeko salan hartu ahal izango ditu erabakiak.

3. Funtzio Publikoko Auzitegiko lehendakaria osoko bilkurako eta bost epaileko salako buru izango da. Hiru epaileko salen lehendakariak 1. paragrafoan adierazitako baldintzetan izendatuko dira. Funtzio Publikoko lehendakariari hiru epaileko sala bat esleitzen bazaio, bera izango da buru.

4. Prozedura Erregelamenduak arautuko ditu osoko bilkuraren eskumenak eta quoruma,

baita salen osaketa eta gaiak horiei nola esleitu ere.

5. artikulua

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren Estatutuko 2.etik 6.era bitarteko artikulua, 14. eta 15. artikulua, 17. artikuluko lehenengo, bigarren eta bosgarren paragrafoak eta 18. artikulua Funtzio Publikoko Auzitegiari eta horko kideei ere aplikatuko zaizkie.

Estatutuko 2. artikuluan aurreikusitako zingitea Justizia Auzitegiaren aurrean egingo da, eta auzitegi horrek berak hartuko ditu 3., 4. eta 6. artikuluetan aipatzen diren erabakiak, betiere, Funtzio Publikoko Auzitegiari kontsultatu ondoren.

6. artikulua

1. Funtzio Publikoko Auzitegia Justizia Auzitegiaren eta Auzitegi Orokorraren zerbitzuez baliatuko da. Justizia Auzitegiko lehendakariak edo, hala dagokionean, Auzitegi Orokorreko lehendakariak finkatuko du, Funtzio Publikoko Auzitegiko lehendakariarekin adostuta, zein baldintzatan emango dituzten zerbitzuak Funtzio Publikoko Auzitegian Justia Auzitegira edo Auzitegi Orokorra atxikitako funtzionarioek eta gainerako eragileek, Funtzio Publikoko Auzitegiak funtziona dezan. Zenbait funtzionario edo gainerako eragile Funtzio Publikoko Auzitegiko idazkariaren menpe egongo dira, auzitegi horretako lehendakariaren agintaritzapean.

2. Funtzio Publikoko Auzitegiak izendatuko du bertako idazkaria, eta berak ezarriko du idazkariaren estatutua. Auzitegi honetako idazkariari Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren Estatutuko 3. artikuluko laugarren lerrokada eta 10., 11. eta 14. artikulua aplikatuko zaizkio.

7. artikulua

1. Funtzio Publikoko Auzitegian jarduteko prozedura Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren Estatutuko III. tituluaren dago araututa, 22. eta 23. artikuluetan izan ezik. Beharrezko denean, prozedura hori Funtzio Publikoko Auzitegiaren prozedura-erregelamenduaren bitartez zehaztu eta osatuko da.

2. Auzitegi Orokorreko hizkuntza-araubideari buruzko xedapenak Funtzio Publikoko Auzitegiari ere aplikatuko zaizkio.

3. Prozeduraren idatzizko aldiak demandaren eta erantzuteko idazkiaren aurkezpena

hartuko ditu barne, salbu eta Funtzio Publikoko Auzitegiak prozesuko idazkien bigarren truke bat behar dela erabakitzen badu. Idazkien bigarren trukea egiten denean, Funtzio Publikoko Auzitegiak ahozko aldirik egin gabe hartu ahal izango du erabakia alderdiak ados badaude.

4. Prozeduraren edozein alditan, baita demanda jarri ondoren ere, Funtzio Publikoko Auzitegiak auzia modu adiskidetsuan konpontzeko aukerak aztertuko ditu, eta horrelako irtenbide bat errazten saiatuko da.

5. Funtzio Publikoko Auzitegiak erabakiko du kostuen gainean. Prozedura Erregelamenduko berariazko xedapenak errespetatuz, prozesua galtzen duen alderdia kostuak ordaintzera kondenatuko da, hala erabakitzen bada.

8. artikulua

1. Funtzio Publikoko Auzitegiari zuzendutako errekurtsoren bat edo prozesuko beste egintza-zen bat noizbait hutsegitez Justizia Auzitegiko edo Auzitegi Orokorreko Idazkaritzan aurkeztu bada, idazkaritza horrek berehala bidali beharko dio Funtzio Publikoko Auzitegiko Idazkaritzari. Era berean, Justizia Auzitegiari edo Auzitegi Orokorri zuzendutako errekurtsoren bat edo prozesuko beste egintza-zen bat noizbait hutsegitez Funtzio Publikoko Auzitegiko idazkaritzan aurkeztu bada, idazkaritza horrek berehala helarazi beharko dio Justizia Auzitegiko edo Auzitegi Orokorreko Idazkaritzari.

2. Funtzio Publikoko Auzitegiak errekurtsor bat ebazteko eskumenik ez duela uste badu, Justizia Auzitegiaren edo Auzitegi Orokorren eskumenekoa delako, Auzitegi Orokorri igorriko dio. Era berean, Justizia Auzitegiak edo Auzitegi Orokorrak errekurtsor bat Funtzio Publikoko Auzitegiaren eskumena dela uste badu, errekurtsor jaso duen jurisdikzio-organoak Funtzio Publikoko Auzitegiari igorriko dio; eta horrek ezin izango dio uko egin bere eskumenari.

3. Auzitegi Orokorrean eta Funtzio Publikoko Auzitegian interpretazio-auzi berbera azaltzen duten edo egintza berberaren baliozkotasuna zalantzan jartzen duten arazoak aurkeztu direnean, Funtzio Publikoko Auzitegiak, alderdiei entzun ondoren, prozedura eten ahal izango du, Auzitegi Orokorrak bere epaia eman arte.

Auzitegi Orokorrean eta Funtzio Publikoko Auzitegian gai berberari buruzko errekurtsoak aurkeztu direnean, Funtzio Publikoko Auzitegiak uko egingo dio bere eskumenari, Auzitegi Orokorrak errekurtsor horiei buruzko erabakia eman dezan.

9. artikulua

Kasazio-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Auzitegi Orokorrari bi hilabeteko epean, aurkatua izan den ebazpena jakinarazten denetik hasita, bai Funtzio Publikoko Auzitegiak prozesua amaitzeko emandako ebazpenen aurka, bai edukizko arazoa zati batean ebatzita utz dezatenen aurka, baita eskumenik ezaren edo onartezintasunaren salbuespenen bati buruzko prozesuko intzidenteak amaitzen dituztenen aurka ere.

Kasazio-errekurtsoa edozein alderdik aurkeztu ahal izango du, baldin eta bere uziak erabat edo zati batean ezetsi badira. Hala ere, estatutu kideetako edo Batasuneko instituzio ez diren laguntzailekideek kasazio-errekurtsoa jarri ahal izateko, Funtzio Publikoko Auzitegiaren ebazpenak nahitaez eragin behar die zuzenean, bestela ezin izango dute horrelako errekurtso-rik jarri.

10. artikulua

1. Pertsonaren batek parte hartzeko egindako eskaria ezetsi bada, pertsona horrek kasazio-errekurtsoa jarri ahal izango dio Auzitegi Orokorrari, parte hartzeko bere eskaria ezetsi duen Funtzio Publikoko Auzitegiaren ebazpenaren aurka, ezesteko ebazpenaren jakinarazpena jaso eta bi aste epean.

2. Prozedurako alderdiek kasazio-errekurtsoa jarri ahal izango dute Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 278. eta 279. artikuluen edo 299. artikuluko laugarren letrorikadaren ondorioz edo EAEE Tratatu 157. artikuluen edo 164. artikuluko hirugarren letrorikadaren ondorioz Funtzio Publikoko Auzitegiak hartutako edozein ebazpenen aurka, ebazpenaren jakinarazpenetik bi hilabeteko epean.

3. Auzitegi Orokorrak prozedura laburtu baten bitartez erabaki ahal izango ditu 1. eta 2. paragrafoetan aipatzen diren kasazio-errekurtsoak; prozedura laburtu horri, beharrezkoa den heinean, ez zaizkio estatutu honetan jasotako zenbait arau aplikatuko, eta Auzitegi Orokorreko Prozedura Erregelamenduan arautuko da prozedura hori.

11. artikulua

1. Auzitegi Orokorrean aurkeztutako kasazio-errekurtsoa zuzenbide-arazoetara mugatuko da. Errekurtsoak arrazoi hauek izan behar dituzte oinarri: Funtzio Publikoko Auzitegiaren eskumenik eza; auzitegiko prozedurako irregulartasunak, dagokion alderdiaren inte-

resak kaltetzen dituzten heinean, eta Funtzio Publikoko Auzitegiak Batasuneko Zuzenbidea urratzea.

2. Kostuak ezartzea eta kostuen zenbatekoa ez dira, berez, kasazio-errekurtsoa jartzeko arrazoi.

12. artikulua

1. Auzitegi Orokorrean kasazio-errekurtsoa jartzeak ez du etete-ondoriorik izango, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 278. eta 279. artikuluetan edo EAEE Tratatu 157. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

2. Funtzio Publikoko Auzitegiaren ebazpen baten aurkako kasazio-errekurtsoaren prozedurak bi aldi izango ditu Auzitegi Orokorrean: idatzia eta ahozkoa. Auzitegi Orokorrak, alderdiei entzun ondoren, ahozko aldirik egin gabe eman dezake ebazpena, Prozedura Erregelamenduak zehazten dituen baldintzetan.

13. artikulua

1. Kasazio-errekurtsoa baiesten bada, Auzitegi Orokorrak Funtzio Publikoko Auzitegiaren ebazpena deuseztatuko du eta berak ebatziko du auzia. Auziaren egoerak horretarako aukerarik ematen ez badu, Funtzio Publikoko Auzitegiari itzuliko dio gaia, horrek ebatz dezan.

2. Auzia Funtzio Publikoko Auzitegiari bihurtuz gero, Auzitegi Orokorraren ebazpenean erabakitako zuzenbide-arazoak lotura-indarrekoak izango dira Funtzio Publikoko Auzitegiarentzat.

PROTOKOLOA (4.a)

BANKU ZENTRALEN EUROPAKO SISTEMAREN ETA EUROPAKO BANKU ZENTRALAREN ESTATUTUEI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,
ASMOA IZANIK Banku Zentralen Europako Sistemaren eta Europako Banku Zentralaren estatutuak ezartzea —Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 129. artikuluko 2. paragrafoan daude aurreikusita—,

BAT ETORRI DIRA honako xedapen hauetan, eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuari erantsiko zaizkio:

1. KAPITULUA

BANKU ZENTRALEN EUROPAKO SISTEMA

1. artikuluq

Banku Zentralen Europako Sistema

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 282. artikuluan 1. paragrafoari jarraituz, Europako Banku Zentralak (EBZ) eta estatuetako banku zentralek Banku Zentralen Europako Sistema (BZES) osatuko dute. EBZak eta diru gisa euroa darabilten estatu kideetako banku zentrolek Eurosistema osatuko dute.

BZESk eta EBZak Tratatueta eta estatutu honetan xedatutakoaren arabera beteko dituzte beren eginkizunak.

II. KAPITULUA

BZES-REN HELBURUAK ETA EGINKIZUNAK

2. artikulua

Helburuak

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 127. artikulua 1. paragrafoaren eta 282. artikulua 2. paragrafoaren arabera, BZESren lehen eginkizuna izango da prezioen egonkortasunari eustea. Helburu horri kalterik egin gabe, eta Batasunaren helburuak betetzen laguntzeko, BZESk babesa emango die Batasunaren ekonomia-politika orokorre, horrela xedatzen baita Europar Batasunaren Tratatuak 3. artikuluan. BZESk lehia askeko merkatu-ekonomia irekiaren printzipioaren arabera jardungo du, baliabide-esleipen eragingarria bultzatuz eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 119. artikulua ezartzen dituen printzipioak betez.

3. artikuluoa

Funtzioak

3.1. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuako 127. artikuluko 2. paragrafoari jarraituz, BZESk oinarrizko eginkizun hauek izango ditu:

- Batasunak daukan diru-politika zehaztu eta gauzatzea,
- Tratatu 219. artikuluko xedapenekin bat datozen dibisa-trukeak egitea;
- estatu kideen dibisen erreserba ofizialak gorde eta kudeatzea;
- ordainketa-sistemaren funtzionamendu ona sustatzea.

3.2. Tratatu horretako 127. artikuluaen 3. paragrafoaren arabera, 3.1 artikuluaen hirugarren marra estatu kideetako gobernuek maniobrako dibisa-funts ofizialak eduki eta kudeatzeko moduari kalterik egin gabe ulertu behar da.

3.3. Tratatu horretako 127. artikuluaen 5. paragrafoari jarraituz, BZES lagungarri izango da kreditu-erakundeen zuhurtziazko gainbegirtzeari eta finantz-sistemaren egonkortasunari dagokienez agintari eskudunek burutzen dituzten politikak ondo kudeatzeko.

4. artikuluua

Kontsulta-eginkizunak

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 127. artikulua 4. paragrafoari jarraituz:

- a) Kontsulta egingo zaio EBZari:
— bere eskumenen eremuan sartzen diren Batasunaren egintza-proposamenei buruz;
— Estatuetako agintariek bere eskumenen eremuan sartzen diren lege-xedapenen proiektuei buruz, betiere, 41. artikuluan aurreikusitako prozeduraren arabera Kontseiluak ezarritako mugak eta baldintzak errespetatuta;
- b) EBZak zuzenean aurkeztu ahal izango diren irizpenak Batasuneko kasuan kasuko instituzio, organo edo organismoen edo estatueta-ko agintariei, bere eskumenen eremuan sartzen diren gaien buruz.

5. artikuluia

Estatistika-informazioa biltzea

5.1. BZE Sren eginkizunak bete ahal izateko, EBZak beharrezkoa den estatistika-informazioa bilduko du estatu etako banku zentralen laguntzarekin. Informazio hori estatu etako agintari eskudunengandik edo zuzenean ekonomia-eragileengandik jaso ahal izango du. Horretarako, lankidetzan jardungo du Batasuneko instituzio, organo edo organismoekin, estatu kide etako eta hirugarren herrialde etako agintari eskudunekin eta nazio arteko erakundeeekin.

5.2. Estatuetakoko banku zentralak, ahal den neurrian, 5.1. paragrafoan aipatutako eginkizunak beteko dituzte.

5.3. Behar denean, EBZak laguntza emango du bere eskumenen eremuko sektoreetan estatistikak nola bildu, egin eta banatu behar diren erregulatuko duten arauak eta jokaerak harmonizatzeko.

5.4. Kontseiluak zehaztuko du, 41. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz, zein pertsona fisiko eta juridikok bete behar dituzten informazio-eskakizunak, isilekotasun-araubidea, eta betearazteko eta zehatzeko xedapenak.

6. artikulua **Nazioarteko lankidetzaz**

6.1. Nazioarteko lankidetzaren esparruan, BZESri esleitutako eginkizunei dagokienez, EBZak erabakiko du nola egongo den ordezkatura BZES.

6.2. EBZak eta, hark onartzen duenean, estatuetako banku zentralak nazioarteko diru-instituzioetan parte hartu ahal izango dute.

6.3. Aurreko 6.1 eta 6.2 artikuluetako xedapenak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 138. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe ulertu behar dira.

III. KAPITULUA

BZES-REN ANTOLAKETA

7. artikulua **Independentzia**

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 130. artikuluan azaltzen denez, Tratatuak eta estatutuak hauek ematen dizkieten ahalmenak erabiltzen dituztenean eta dagokien eginkizunak eta eginbeharrak betetzen ari direnean, EBZak, estatuetako banku zentralak edo horien artezkaritza-organismoetako kideak ez dute onartuko Batasuneko instituzio, organo eta organismoek, estatu kideetako gobernuak edo beste edozein organismok emandako jarraibiderik, ez eta horrelakorik eskatuko ere. Batasuneko instituzio, organo edo organismoek eta estatu kideetako gobernuak konpromisoa hartzen dute printzipio hori betetzeko eta EBZeko edo estatuetako banku zentralak artezkaritza-organismoetan eragiten ez saiatzeko, horiek beren eginkizunak betetzen ari direnean.

8. artikulua **Printzipio orokorra**

BZES EBZeko artezkaritza-organismoek arteztuko dute.

9. artikulua **Europako Banku Zentrak**

9.1. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 282. artikuluan 3. pa-

ragrafoan xedatutakoari jarraituz, EBZak nor-tasun juridiko propioa izango du. Gainera, estatu kide bakoitzean, estatu-mailako legeriak pertsona juridikoei ematen dien gaitasun juridikorik handiena izango du eta, zehazki, ondasun higigarri eta higiezinak eskuratu eta saldu ahal izango ditu, eta jardun judizialean alderdi izan ahal izango da.

9.2. Tratatu horretako 127. artikuluan 2., 3. eta 5. paragrafoetan BZESri esleitzen zaizkion eginkizunak betetzen direla bermatzea izango da EBZaren eginkizuna, eta, hori, berezko jardueren bitartez egin ahal izango du, estatutu hauen arabera, edo, bestela, estatuetako banku zentralen bitartez, 12. artikuluko 1. paragrafoan eta 14. artikuluan xedatutakoaren arabera.

9.3. Tratatu horretako 129. artikuluan 1. paragrafoan xedatutakoarekin bat, EBZaren artezkaritza-organismoak Gobernu Kontseilua eta Batzorde Betearazlea izango dira.

10. artikulua **Gobernu Kontseilua**

10.1. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 283. artikuluan 1. paragrafoan xedatutakoaren arabera, Gobernu Kontseilua honako hauek osatuko dute: Batzorde Betearazleko kideak eta diru gisa euroa duten estatu kideetako banku zentralak gobernadoreak.

10.2. Gobernu Kontseiluko kide bakoitzak boto bat izango du. Gobernu Kontseiluko kideak hogeita bat baino gehiago badira, Batzorde Betearazleko kideak boto bana izango dute eta boto-eskubidea duten gobernadoreen kopurua hamabost izango da. Gobernadoreen boto-eskubidea arau hauen arabera esleitu eta txandakatuko da:

— Gobernadoreak hamabost baino gehiago eta hogeita bi baino gutxiago badira, bi taldetan banatuko dira, kasuan kasuko estatu kideak bere banku zentralaren bitartez diru gisa euroa darabilten estatu kideetako guztirako barne-produktu gordinen –merkatuko prezioan– eta diru-instituzio finantzarioen batutako guztirako balantzean duen partaidetzaren tamainaren arabera. Estatuak merkatuko prezioko guztirako barne-produktu gordinen eta diru-instituzio finantzarioen batutako guztirako balantzean dituzten partaidetzei 5/6 eta 1/6eko pisuak esleitu zaizkie hurrenez hurren. Lehenengo taldean bost gobernadore egongo dira eta bigarrenean gainerakoak. Lehenengo taldeko

- governadoreen boto-eskubidearen maiztasuna ez da izango bigarren taldekoena baino txikiagoa, nahiz eta lehenengo taldeak lau boto izango dituen eta bigarrenak hamaika,
- kopurua hogeita bira iristen denean, gobernadoreak hiru taldetan banatuko dira, aipatutako irizpideetan oinarritutako sailkapenaren arabera. Lehenengo taldea bost gobernadorek osatuko dute eta lau boto izango ditu. Bigarren taldea gobernadoreen kopuru osoaren erdiak osatuko du, zatikiak hurrengo zenbaki osoa hartuz biribilduko dira, eta zortzi boto izango ditu talde horrek. Hirugarren taldea gainerako gobernadoreek osatuko dute eta hiru boto izango ditu,
- talde bakoitzean, gobernadoreek epe berbererako izango dute boto-eskubidea,
- merkatuko prezioko guztirako barne-produktu gordinen bakoitzak duen partaidetza kalkulatzeko, 29. artikuluko 2. paragrafoa aplikatuko da. Diru-instituzio finantzarioen batutako guztirako balantzea kalkulatzeko, berriz, kalkulua egiteko unean Batasunean indarrean dagoen estatistika-sistema erabiliko da,
- merkatuko prezioko guztirako barne-produktu gordina estatutuetako 29. artikuluko 3. paragrafoaren arabera doitzen denean edo gobernadoreen kopurua handitzen denean, taldeen tamaina edo osakera berrikusiko da azal dutako printzipioei jarraituz,
- kide guztien bi herenak eskatuta –berdin da boto-eskubidea duten ala ez–, Gobernu Kontseiluak beharrezko neurri guztiak hartuko ditu adierazitako printzipioak aplikatzeko, eta txandaketa-sistemaren ezarpena atzeratzea erabaki ahal izango du gobernadoreen kopurua 18tik gorakoa izan arte.

Boto-eskubidea norbera bertaratuz gauzatu da. Hala ere, 12. artikuluko 3. paragrafoan aipatzen den barne-erregelamenduak aukera eman ahal izango du Gobernu Kontseiluko kideek botoa telekonferentziaz eman dezaten. Hala ere, barne-erregelamenduak xedatuko du Gobernu Kontseiluaren bileretara luzaroan joan ezin diren Gobernu Kontseiluko kideek ordezkokoak izendatu ahal izango dituztela Gobernu Kontseiluan beren ordezkari jardun dezaten.

Aurreko paragrafoetako xedapenak ez dute eraginik izango 10.3, 40.2 eta 40.3 artikuluen arabera Gobernu Kontseiluko kide guztiei –ber-

din da boto-eskubidea duten ala ez– dagokien boto-eskubidean.

Estatutu hauetan kontraktorik adierazi ezean, Gobernu Kontseiluak boto-eskubidea duten kideen gehiengo soilaz hartuko ditu erabakiak. Berdinketa gertatuz gero, lehendakariaren botoa izango da erabakigarria.

Gobernu Kontseiluaren bozketetan, boto-eskubidea duten kideen bi hereneko quoruma beharko da. Quorumik ez badago, lehendakariak bilera berezi baterako deialdia egin dezake eta, bilera horretan, erabakiak hartu ahal izango dira aipatutako quoruma bete ez arren.

10.3. Gobernu Kontseiluko kideen botoak haztatu egingo dira estatutetako banku zentralak EBZaren kapital harpidetuan duten partaidetzaren arabera, 28., 29., 30., 32. eta 33. artikuluei jarraituz hartzen diren erabaki guztietan. Batzorde Betearazleko kideen botoen haztapea zero izango da. Gehiengo kualifikatuz hartzen diren erabakiak onartzeko, nahitaezkoa izango da aldeko botoek, gutxienez, EBZaren kapital harpidetuaren bi herenak, eta, gutxienez, akziodunen erdiak ordezkatzeko. Gobernadore bat ezin bada bozketa-lekuan egon, ordezkari bat izenda dezake bere boto haztatua eman dezan.

10.4. Bilerak isilpekoak izango dira. Gobernu Kontseiluak bere gogoeten emaitzak jenduraren jartzea erabaki dezake.

10.5. Gobernu Kontseilua urtean hamar aldiz bilduko da gutxienez.

11. artikulua Batzorde Betearazlea

11.1. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuko 283. artikuluan 2. paragrafoko lehenengo lerrokan xedatutakoari jarraituz, Batzorde Betearazlea lehendakariak, lehendakariordeak eta beste lau kidek osatuko dute.

Kideek arduraldi eksklusiboz beteko dituzte beren eginkizunak. Kideetako inork ezin izango du beste lanbide ordaindu edo ordaindu gabe batean jardun, Gobernu Kontseiluaren salbuespenezko baimena eduki ezik.

11.2. Tratatuko 283. artikuluan 2. paragrafoko bigarren lerroarekin bat etorriz, Batzorde Betearazleko lehendakaria, lehendakariordea eta gainerako kideak Kontseilu Europarrak izendatuko ditu, erabakia gehiengo kualifikatuz hartuta, diru- edo banku-gaietan ospe handia eta lanbide-esperientzia zabala duten pertsonen artean, Kontseiluaren gomendioz eta Europako Parlamentuari eta Gobernu Kontseiluari aurretiaz kontsulta eginda.

Kideon agintaldia zortzi urtekoa izango da, eta ezin izango da berritu.

Estatu kideetako herritarrak baino ezin izango dira Batzorde Beteazleko kide izan.

11.3. Batzorde Beteazleko kideen enplegu-baldintzak eta, zehazki, soldatak, pentsioak eta gizarte-segurantzako gainerako onurak Europako Banku Zentralarekin sinatutako kontratuetan adierazitakoak izango dira, eta Gobernu Kontseiluak ezarriko ditu Gobernu Kontseiluak izendatutako hiru kidez eta Kontseiluak izendatutako beste hiru kidez osatutako komite baten proposamenez. Batzorde Beteazleko kideek ez dute boto-eskubiderik izango lerro-kada honetan aipatzen diren gaietan.

11.4. Baldin eta Batzorde Beteazleko kideren batek ez baditu dagoeneko betetzen bere eginkizunak betetzeko eskatzen diren baldintzak, edo bere jokabidean falta larriren bat egin badu, Justizia Auzitegiak bere kargutik kendu ahal izango du, Gobernu Kontseiluaren edo Batzorde Beteazlearen eskariz.

11.5. Bilkuretara bertaratu diren Batzorde Beteazleko kide guztiek izango dute boto-eskubidea.

Bakoitzak boto bat eman ahal izango du. Beterik xedatu ezean, emandako botoen gehiengo soilez hartuko ditu erabakiak Batzorde Beteazleak. Berdinketa gertatuz gero, lehendakariaren botoa izango da erabakigarria. Botoa emateko moduak 12. artikuluko 3. paragrafoan aipatutako barne-erregelamenduan zehaztutakoak izango dira.

11.6. Batzorde Beteazlea arduratuko da EB-Zaren ohiko kudeaketaz.

11.7. Batzorde Beteazlean posturen bat hutsik gelditzen bada, beste kide bat izendatuko da hura betetzeko, 11.2. paragrafoan adierazitakoa aplikatuz.

12. artikulua

Artezkartza-organoen erantzukizunak

12.1. Gobernu Kontseiluak beharrezko jarraibide eta erabakiak hartuko ditu BZESri esleitutako eginkizunak Tratatuaren eta estatutu hauen arabera betetzen direla bermatzeko. Gobernu Kontseiluak zehaztuko du Batasunak izango duen diru-politika, barne hartuta, hala badagokio, erdibideko diru-helburuei buruzko erabakiak, oinarritzko interes-tasak eta BZESko erreserba-hornidura; berak ezarriko ditu, halaber, politika hori betetzeko jarraibideak.

Batzorde Beteazleak Gobernu Kontseiluaren jarraibide eta erabakiak beteko ditu diru-politika gauzatzean. Horretarako, beharrezko aginduak emango dizkie estatueta-

ko banku zentralari. Batzorde Beteazleak zenbait ahal jaso ditzake eskuordetzan Gobernu Kontseiluak hala xedatzen duenean.

Posible eta egoki irizten zaionean eta, betiere, artikulua honetan xedatutakoari kalterik egin gabe, Europako Banku Zentralak estatueta banku zentrala jo ahal izango du BZESren eginkizunei dagozkien eragiketak gauzatzeko.

12.2. Batzorde Beteazlea arduratuko da Gobernu Kontseiluaren bilerak prestatzeaz.

12.3. Gobernu Kontseiluak onartuko du EB-Zaren eta horko artezkaritza-organoen barne-antolaketa finkatuko duen barne-erregelamendua.

12.4. Gobernu Kontseiluak 4. artikuluan aipatutako kontsulta-eginkizunak beteko ditu.

12.5. Gobernu Kontseiluak 6. artikuluan aipatutako erabakiak hartuko ditu.

13. artikulua

Lehendakaria

13.1. Lehendakaria edo, bera ez badago, lehendakariordea izango da EBZeko Gobernu Kontseiluko eta Batzorde Beteazleko buru.

13.2. Lehendakariak edo berak izendatutako pertsonak ordezkatzeko du EBZa kanpoan, betiere, 38. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

14. artikulua

Estatuetako banku zentralak

14.1. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 131. artikuluan xedatutakoari jarraituz, estatu kide bakoitzak bermatuko du ea bere barneko legeria, estatu banku zentralaren estatutuak ere barnean direla, bateragarria denez Tratatuarekin eta estatutu hauekin.

14.2. Estatueta banku zentrala estatueta banku zentrala gobernadorearen agintaldia bost urtekoa izango dela gutxienez.

Gobernadorea kargutik kentzeko arrazoi bakarra izango da dagoeneko ez betetzea karguari dagozkion eginkizunak betetzeko eskatzen diren baldintzak edo arau-hauste larria egitea. Eragindako gobernadoreak edo Gobernu Kontseiluak Justizia Auzitegiaren jarri ahal izango dituzte horrelako erabakien aurkako errekurtsioak, baldin eta Tratatuak edo horien aplikazioari buruzko edozein arau juridiko hausten badituzte. Bi hilabeteko epean emango zaie hasiera ekitza horiei, erabakia argitaratzen de-

netik edo demandatzaileari jakinarazpena egiten zaionetik kontatzen hasita edo, jakinarazpenik ezean, demandatzaileak erabakiaren berri jakin duenetik.

14.3. Estatuetakoko banku zentralak BZESren barruan egongo dira, eta beren jarduera bat etorriko da Europako Banku Zentralaren jarraibide eta aginduekin. Gobernu Kontseiluak behar diren neurriak hartuko ditu EBZaren jarraibide eta aginduak betetzen direla bermatzeko, eta dagokion informazio guztia bidaltzeko eskatuko du.

14.4. Estatuetakoko banku zentralek estatutu hauetan zehaztutakoez besteko eginkizunak ere bete ahal izango dituzte, salbu eta Gobernu Kontseiluak, emandako botoen bi hereneko gehiengoz, eginkizun horiek BZESren helburu eta zereginak eragotzen dituztela erabakitzen badu. Eginkizun horiek estatuetakoko banku zentralen erantzukizunpean burutuko dira eta ez dira hartuko BZESren funtzioztat.

15. artikulua

Informazio-betebeharrak

15.1. EBZak BZESren jarduerari buruzko txostenak egin eta argitaratuko ditu, gutxienez hiru hilez behin.

15.2. Astero, BZESren finantza-egoera bateratua argitaratuko da.

15.3. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 284. artikuluan 3. paragrafoan xedatutakoari jarraituz, EBZak aurreko urteko eta uneko urteko diru-politikari buruzko eta BZESren jarduerari buruzko txostena aurkeztuko die urtero Europako Parlamentuari, Kontseiluari eta Batzordeari.

15.4. Artikulu honetan aipatutako txosten eta egoera-orriak interesdunen esku jarriko dira doan.

16. artikulua

Banku-billeteak

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 128. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritik, Gobernu Kontseiluak izango du Batasunean euroaren billeteak jaulkitzeko eskubide eskusiboa. EBZak eta estatuetakoko Banku Zentralek jaulki ahal izango dituzte billete horiek. EBZak eta estatuetakoko banku zentralek jaulkitako billeteak izango dira Batasunean erabilera legaleko billete bakarrak.

EBZak errespetatu egingo ditu, ahal den neurrian, banku-billeteak jaulki eta diseinatzeko ohiturak.

IV. KAPITULUA

BZES-REN DIRU-EGINKIZUNAK ETA ERAGIKETAK

17. artikulua

EBZarekin eta estatuetakoko banku zentralek irekitako kontuak

Beren eragiketak burutzeko, EBZak eta estatuetakoko banku zentralek kontuak ireki ahal izango dizkiete kreditu-erakundeei, erakunde publikoei eta merkatuan parte hartzen duten beste batzuei eta, berme gisa, aktiboak onartu ahal izango dituzte, kontuko idazpenen bidez adierazitako balio-tituluak barne.

18. artikulua

Merkatu irekiko eragiketak eta kreditu-eragiketak

18.1. BZESren helburuak eta eginkizunak betetzeko, EBZak eta estatuetakoko banku zentralek honako hauek egin ahal izango dituzte:

- finantza-merkatuetan eragiketak egin ahal izango dituzte zuzenean salduz eta erosiz (eskura eta epera), edo berreros-teko eragiketen arabera, balio-tituluak eta bestelako bitarteko negoziagarriak maileguan utzi edo hartuz, bai eurotan edo bestelako dirutan, bai metal preziatuetan,
- kreditu-eragiketak egin ahal izango dituzte kreditu-erakundeekin eta merkatuko gainerako partaideekin, maileguak berme egokietan oinarrituz.

18.2. EBZak edo estatuetakoko banku zentralek egiten dituzten merkatu irekiko eragiketen eta kreditu-eragiketen printzipio orokorrak Europako Banku Zentralak berak ezarriko ditu, estatuetakoko banku zentralak eragiketok egiteko prest daudela aitortzeko baldintzen iragarpena barne.

19. artikulua

Gutxieneko erreserbak

19.1. Diru-politikaren helburuak betetzeko, EBZak estatu kideetan finkatuta dauden kreditu-erakundeei galdatu ahal izango die gutxieneko erreserba bat izan dezaten EBZeko eta estatuetakoko banku zentraletako kontuetan, betiere, 2. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe. Gobernu Kontseiluak ezarri ahal izango ditu galdatutako kopurua kalkulatu eta zehazteko moduak. Ez-betetzerekin bat gertatuz gero, EBZak penalizazio-interesak ezarri ahal izango ditu, bai

eta antzeko eragina duten bestelako zigorrak ere.

19.2. Artikulu hau aplikatzeko, gutxieneko erreserbei dagokien oinarria eta erreserben eta horien oinarrien artean onar daitezkeen gehienezko koefizienteak zehaztuko ditu Kontseiluak; bai eta ez-betetze kasuetan jarri beharreko zehapenak ere, betiere, 41. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera.

20. artikulua

Diru-kontrolleko beste tresna batzuk

Gobernu Kontseiluak egoki iritzitako diru-kontrolleko beste metodo operatibo batzuk erabiltzea erabaki dezake, emandako botoen bi hereneko gehiengoz, 2. artikuluko xedapenak errespetatzen badira.

Kontseiluak, 41. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz, metodo horien norainokoa zehaztuko du, hirugarrenei betebeharrak ezartzen dizkietenean.

21. artikulua

Erakunde publikoekiko eragiketak

21.1. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 123. artikuluan xedatutakoari jarraituz, debeku da EBZak eta estatu kideetako banku zentralak zorpekoak onartzea edo beste edozein kreditu-mota ematea Batasuneko instituzio, organo eta organismoiei, gobernu zentraleri, eskualdeko edo tokian tokiko agintariei edo beste agintari publiko batzuei, eta estatu kideetako zuzenbide publikoko erakunde zein enpresa publikoei; debeku da, halaber, EBZak edo estatueta banku zentralak aurreko guztiei zor-tresnak zuzenean erostea ere.

21.2. Europako Banku Zentralak eta estatueta banku zentralak 21.1. artikuluan aipatzen diren erakunde agenten fiskal gisa jardun ahal izango dute.

21.3. Artikulu honetako xedapenak ez zaizkie aplikatuko kreditu-erakunde publikoei; izan ere, kreditu-erakunde horiek, banku zentralak likideziaz hornitzen dituztenean, estatueta banku zentralak eta EBZak kreditu-erakunde pribatuei ematen dieten tratu berbera izango dute.

22. artikulua

Konpentsazio- eta ordainketa-sistemak

EBZak eta estatueta banku zentralak birtarteak eskaini ahal izango dituzte, eta Europako Banku Zentralak erregelamenduak eman, honako xede honekin: konpentsazio-

eta likidazio-sistema eraginkor eta kaudimendunak bermatzea hala Batasunaren barruan nola hirugarren herrialdeekiko harremanean.

23. artikulua

Kanpo-eragiketak

EBZak eta estatueta banku zentralak honako hauek egin ahal izango dituzte:

- hirugarren herrialdeetako banku zentralak eta finantza-instituzioekin eta, hala dagokionean, nazioarteko erakundeekin harremanak finkatu,
- metal preziatuko eta atzerri-diruko aktiboak, era guztietakoak, eskuratu eta saldu eskura edo epera, «Atzerri-diruko aktiboak» esamoldearen barruan sartzen dira edozein herrialdeetako dirutan edo kontu-unitatetan ematen diren balio-titulak eta gainerako aktiboak, horiek edukitzeko era dena dela,
- artikulu honetan aipatzen diren aktiboak eduki eta horiek kudeatu,
- era guztietako banku-transakzioak egin hirugarren herrialdeei eta nazioarteko erakunde dagokienez, maileguak emateko eta hartzeko eragiketak barne.

24. artikulua

Bestelako eragiketak

Beren eginkizunen ondorio diren eragiketez gain, EBZak eta estatueta banku zentralak beste eragiketa batzuk egin ditzakete administrazio-zereginetarako edo langileentzako.

V. KAPITULUA

ZUHURTZIAZKO GAINBEGIRATZEA

25. artikulua

Zuhurtziazko gainbegiratzea

25.1. Kreditu-erakunde zuhurtziazko gainbegiratzea eta finantza-sistemaren egonkortasuna direla eta, Batasunak zuzenbidearen arabera lotura-indarra duten egintzak planteatzen dituztenean, EBZak aholku eman ahal izango die Kontseiluari, Batzordeari eta estatu kideetako agintari eskudunei, eta horiek ere aholkua eskatu ahal izango diote hari egintza horien helmenaz eta aplikazioaz.

25.2. Kontseiluak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 127. artikuluan onduz onartutako edozein europar lege dela eta, EBZak berariazko eginki-

zunak bete ahal izango ditu kreditu-erakundeen eta bestelako finantza-erakundeen zuhurtziazko gainbegiratzeari lotutako politikei dagokienez, baina aseguru-etxeak salbuespen izango dira.

VI. KAPITULUA

BZES-REN XEDAPENAK

26. artikulua **Finantza-kontuak**

26.1. EBZaren eta estatuetako banku zentralen ekonomia-ekitaldia urtarriaren lehenengo egunean hasi eta abenduaren azken egunean bukatuko da.

26.2. EBZaren urteko kontuak Batzorde Betearazleak eramango ditu, Gobernu Kontseiluak ezarritako printzipioen arabera. Kontuak Gobernu Kontseiluak onartuko ditu eta, ondoren, argitaratu egingo dira.

26.3. Analisi eta kudeaketa beharrei begira, Batzorde Betearazleak BZESren balantze bateratua egingo du. Bertan, BZESko estatuetako banku zentralen aktiboak eta pasiboak sartuko dira.

26.4. Artikulu hau aplikatze aldera, estatuetako banku zentralak hasitako eragiketei dagozkien kontabilitate-prozedurak eta informazio-prozedurak estandarizatzeko behar diren arauak ezarriko ditu Gobernu Kontseiluak.

27. artikulua **Auditoretza**

27.1. EBZaren eta estatuetako banku zentralen kontuak Gobernu Kontseiluak gomendatu eta Kontseiluak onartutako kanpoko kontu-ikuskari independente batek kontrolatuko ditu. Kontu-ikuskariak ahal osoak izango dituzte EBZaren eta estatuetako banku zentralen liburu eta kontu guztiak aztertzeko, eta horien transakzioei buruz osoki jakinaren gainean egoteko.

27.2. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuko 287. artikulua xedapenak honetarako baizik ez dira aplikatuko: EBZaren kudeaketaren eraginkortasuna aztertzeko.

28. artikulua **EBZaren kapitala**

28.1. EBZaren kapitala 5.000 milioi eurokoa izango da. Kapitala handitu egin ahal izango da,

Gobernu Kontseiluak erabaki baten bitartez ebatzitako zenbatekoan. Gobernu Kontseiluaren erabakia 10. artikuluko 3. paragrafoan ezarritako gehiengo kualifikatuz hartuko da, 41. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz, Kontseiluak ezarritako muga eta baldintzen barruan.

28.2. Estatuetako banku zentralak izango dira EBZaren harpidedun eta akziodun bakarrak. Kapitalaren harpidetza 29. artikuluan xedatutakoaren arabera ezarritako klabearen arabera egingo da.

28.3. Gobernu Kontseiluak erabakiko du, 10.3. artikuluan ezarritako gehiengo kualifikatuz, zenbateraino eta nola jarriko den kapitala.

28.4. Protokolo honetako 28.5 artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, Estatuetako banku zentralak EBZaren kapitalean harpidetuta dituzten akzioak ezin izango dira transferitu, pignoratu edo enbargatu.

28.5. Baldin eta 29. artikuluan aipatzen den klabea doitzen bada, estatuetako banku zentralak beren artean transferituko dituzte kapitala ordezkatzan duten akzioak, haien banaketa doitutako klabeari dagokiola bermatzeko behar den zenbatekoa dela muga. Gobernu Kontseiluak finkatuko ditu transferentzia horien zehaztapen eta baldintzak.

29. artikulua **Kapitala harpidetzeko klabea**

29.1. EBZaren kapitala harpidetzeko klabea 1998an finkatu zen lehenengo aldiz, BZES sortu zenean. Klabe hori zehazteko, estatu bakoitzeko banku zentralari haztapen bat esleitu zaien klabe horretan, honako hauek batuz:

- BZES eratu aurreko azken aurreko urtean kasuan kasuko estatu kideko biztanleriak Batasuneko biztanlerian zuen partaidetza % 50
- Kasuan kasuko estatu kideko barne-produktu gordinak Batasuneko merkatu-prezioko barne-produktu gordinean zuen partaidetza % 50, BZES eratu aurreko azken aurreko urtea baino lehenagoko bost urteetan erregistratutakoaren arabera.

Portzentajeak gora ala behera biribilduko dira 0,0001 puntu portzentualen multiplikorik hurbilenara iritsi arte.

29.2. Batzordeak artikulu hau aplikatzeko erabili behar diren estatistika-datuak emango ditu, 41. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera Kontseiluak hartutako neurriei jarraituz.

29.3. Estatuetako banku zentralak esleitutako haztapenak bost urtean behin doituko dira

BZESren eraketaren ondoren, 29.1. paragrafoarekiko analogiaz. Doitutako klabea aplikatzean, hurrengo urteko lehenengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

29.4. Gobernu Kontseiluak beharrezko neurriak hartuko ditu artikulua hau aplikatu ahal izateko.

30. artikulua

Erreserbako kanpo-aktiboak EBZera transferitzea

30.1. Estatuetakoko banku zentralak, 28. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, estatu kideetako diruak, euroak, Nazioarteko Diru Funttsaren igorpen-eskubide bereziak eta erreserba-posizioak ez diren erreserbako kanpo-aktiboak emango dizkiote Europako Banku Zentralari, 50.000 milioi euroren zenbateko balio-kidea osatu arte. Eratu ondoren EBZak estatutu hau aplikatuz zein proportzio jaso behar duen erabakiko du Gobernu Kontseiluak, bai eta ondoren egin beharko zaizkion ekarpenen zenbatekoa ere. EBZak eskubide osoa izango du transferitzen zaizkion kanpo-erreserbak edukitzeko eta kudeatzeko, bai eta estatutu haue-tan ezarritako helburuetarako erabiltzeko ere.

30.2. Estatu bakoitzeko banku zentralaren ekarpena EBZaren kapital harpidetuan duen partaidetzaren arabera finkatuko da.

30.3. EBZak ekarpenaren baliokide den aktiboa abonatu dio estatu bakoitzeko banku zentralari. Gobernu Kontseiluak zehaztuko du aktibo horien izena eta ordainketa.

30.4. EBZak erreserbako kanpo-aktibo gehiago eskatu ahal izango ditu, eta 30.1. artikuluan ezarritako muga gainditu 30.2 artikuluko xedapenak betez, beti ere Kontseiluak 41. artikuluko prozedurari jarraituz ezarritako baldintzak eta mugak errespetatuta.

30.5. EBZak Nazioarteko Diru Funttsaren igorpen-eskubide bereziak eta erreserba-posizioak eduki eta kudeatu ahal izango ditu, bai eta aktibo horien batera-jartzea xedatu ere.

30.6. Gobernu Kontseiluak beharrezko neurriak erabakiko ditu artikulua hau aplikatu ahal izateko.

31. artikulua

Estatuetako banku zentralak dauzkaten erreserbako kanpo-aktiboak

31.1. Nazioarteko erakundeekiko betebeharrak betetzeko, estatuetakoko banku zentralak transakzioak egin ahal izango dituzte 23. artikulua-aren arabera.

31.2. Gainerako eragiketak, hau da, 30. artikuluko transferentziak egin ondoren estatuetakoko banku zentralen esku dauden erreserbako kanpo-aktiboekin egiten diren gainerako eragiketak eta estatu kideek atzerriko dirutako maniobrako funts ofizialekin egiten dituzten transakzioak, 31.3. artikulua-aren arabera finkatuko diren mugak gainditzen badira, EBZak onartu beharko ditu, Batasunaren diru-politikan eta kanbio-tasaren politikan koherentzia bermatze-ko.

31.3. Gobernu Kontseiluak ezarriko ditu eragiketa horiek egiteko gida-lerroak.

32. artikulua

Diru-sarrerak esleitzea estatuetakoko banku zentrali

32.1. BZESren diru-politikaren eginkizuna betetzeagatik estatuetakoko banku zentralak esku-ratzen dituzten sarrerak —hemendik aurrera «diru-sarrerak» deituko baitzaie— ekitaldi bakoitzaren amaieran esleitu-ko dira artikulua honetako xedapenen arabera.

32.2. Estatu bakoitzeko banku zentralaren diru-sarren zenbatekoa eta zirkulazioko billeteetan dituzten aktiboetatik eta kreditu-erakunde- gordailuetatik datozen urteroko diru-sarrerena berdinak izango dira. Estatuetakoko banku zentralak Gobernu Kontseiluak ezarri-ko dituen gida-lerroen arabera identifikatu-ko dituzte aktibo horiek.

32.3. Baldin eta euroa sartu ostean, Gobernu Kontseiluaren iritzia bada estatuetakoko banku zentralen balantzearen egiturek ez dutela 32.2. paragrafoa aplikatzeko aukerarik ematen, Gobernu Kontseiluak, 32.2. paragrafoan xedatutakoa gorabehera, erabaki ahal izango du, gehiengo kualifikatuz, diru-sarrerak bestelako metodo baten bitartez neur daitezela, betiere bost urte baino luzeago joko ez duen aldi bate-rako.

32.4. Estatu bakoitzeko banku zentralaren diru-sarren zenbatekoa murriztu egingo da banku zentral horrek kreditu-erakundeei ordaindutako interesen zenbatekoaren arabera (gordailu irekien gainean ordaindutako interes-zenbatekoaren arabera, alegia), 19. artiku-luari jarraituz.

Gobernu Kontseiluak erabaki ahal izango du estatuetakoko banku zentrali kalteak ordain da-kizkiela banku-billeteak jaulkitzeari lotuta izan-dako gastuengatik edo, salbuespenezko egoe-retan, BZESrako egindako diru-politikako era-giketen ondorioz izandako galera espezifiko-engatik. Kalte-ordaina Gobernu Kontseiluak

egoki iritzitako eran egingo da. Zenbateko horiek estatuetako banku zentralen diru-sarrerekin konpentsatu ahal izango dira.

32.5. Estatuetako banku zentralen diru-sarrerren batuketa, banku zentral horietako bakoitzak dauzkan EBZeko akzio ordainduen proportzioan esleituak zaizkie estatuetako banku zentraleri, Gobernu Kontseiluak 33. artikuluko 2. paragrafoaren arabera hartuko dituen erabakiei kalterik egin gabe.

32.6. Diru-sarrerren esleipenetik datozen balantzeen konpentsazioa eta likidazioa Gobernu Kontseiluak emandako gida-lerroei jarraituz egingo ditu EBZak.

32.7. Gobernu Kontseiluak beharrezko neurriak hartuko ditu artikuluko hau aplikatzeko.

33. artikulua

EBZaren mozkin eta galera garbiak esleitzea

33.1. EBZaren mozkin garbiak ordena honetan transferituko dira:

a) Gobernu Kontseiluak zehaztutako zenbatekoa, mozkin garbien % 20 gaingitu ezingo duena, erreserba-funts orokorrera transferituko da, kapitalaren % 100aren baliokide den mugarekin;

b) Gainerako mozkin garbiak EBZeko akzionunen artean banatuko dira, bakoitzak ordainduta dituen akzioen arabera.

33.2. EBZak galerak dituenean, defizita EBZaren erreserba-funts orokorraren bitartez konpentsatu ahal izango da edo, beharrezko denean eta Gobernu Kontseiluak hala erabakita, kasuan kasuko ekonomia-ekitaldiko diru-sarrerren bitartez, betiere, 32. artikuluko 5. paragrafoan ezarritakoaren arabera estatuetako banku zentraleri esleitutako proportzioan edo zenbateko horietaraino.

VII. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

34. artikulua

Egintza juridikoak

34.1. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 132. artikuluari jarraituz:

— Erregelamenduak egingo ditu, BZESren estatutuetako 3.1 artikuluko lehenengo marra eta 19.1, 22 edo 25.2 artikuluetan zehaztutako eginkizunak betetzeko beharrezkoa denean, eta 41. artikuluan aipa-

tu eta Kontseiluak egindako egintzetan ezarritako kasuetan,

— Tratatueta eta BZESren estatutuetan BZESri agindutako eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu,

— gomendioak egin eta irizpenak emango ditu.

34.2. EBZak berak erabaki dezake ea bere erabakiak, gomendioak eta irizpenak jendaurrera aterako dituen.

34.3. Estatutuetako 41. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera Kontseiluak ezarritako mugen barruan eta baldintzetan, EBZak baimena du erregelamenduei eta erabakiei dagozkien betebeharrak betetzen ez dituzten enpresei isunak eta aldizkako hertsatze-isunak ezartzeko.

35. artikulua

Kontrol judiziala eta lotutako gaiak

35.1. EBZaren ekintzak eta ez-egiteak Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ikuskatu eta interpretatuko ditu, Tratatueta finkatutako kasuetan eta ezarritako baldintzen arabera. EBZak akzioak has ditzake Tratatueta ezarritako kasuetan, horietan ezarritako baldintzen arabera.

35.2. EBZaren eta bere hartzekodun, zordun edo hirugarrenen artean sortzen diren auziak kasuan kasuko estatuko auzitegi eskudunek ebartziko dituzte, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari emandako eskumenei kalterik egin gabe.

35.3. EBZak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 340. artikuluan ezarritako betebeharren araubidea bete behar du. Estatuetako banku zentralak erantzule izango dira beren barne-zuzenbidearen arabera.

35.4. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak jurisdikzioa izango du EBZak berak edo beste norbaitek haren izenean egiten dituen kontratuetako arbitraia-klausulei buruz epaiak emateko, diren klausulok zuzenbide publikoaren nahiz pribatuaren pekoak.

35.5. EBZak Europar Batasuneko Justizia Auzitegian akzioak hasteko erabakia Gobernu Kontseiluak hartuko du.

35.6. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak jurisdikzioa izango du estatuetako banku zentralak Tratatueta estatutu hauen ondorio diren betebeharrak betetzeari buruz sortzen diren auzietan. Baldin eta EBZak uste badu estatu bateko banku zentralak ez

duela bete estatutu hauek ezarritako bete-beharren bat, irizpen arrazoitu bat emango du horri buruz, betiere estatuko banku zentralari alegazioak aurkezteko aukera eman ondoren. Dagokion estatuko banku zentralak EBZak ezarritako epean irizpenari men egiten ez badio, Europako Banku Zentralak Europar Batasuneko Justizia Auzitegira jo ahal izango du.

36. artikulua **Langileak**

36.1. EBZeko langileen kontratazio-baldintzak Gobernu Kontseiluak finkatuko ditu Batzorde Beteazleak proposaturik.

36.2. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak jurisdikzioa izango du EBZaren eta bere langileen arteko auzietan, betiere, enplegu-baldintzetan ezarritako mugak eta baldintzak errespetatuta.

37. artikulua (lehengo 38. artikulua) **Lanbideko sekretua**

37.1. EBZeko eta estatuetako banku zentralako artezkaritza-organoetako kideek eta langileek ezingo dute informaziorik zabaltu, ezta beren postuak utzi ondoren ere, baldin eta, bere izaeragatik, lanbideko sekretuaren menpe badago informazio hori.

37.2. Europar Batasunaren legeek sekretu-betebeharrarekin babesten dituzten datuetara irispidea duten pertsonak lege horien pean egongo dira.

38. artikulua (lehengo 39. artikulua) **Sinatzaileak**

EBZak hirugarrenen aurrean legezko konpromisoa hartuko du lehendakariaren edo Batzorde Beteazleko bi kideren sinaduraren bitartez edo erakunde horren izenean sinatzeko lehendakariaren behar bezalako baimena duten EBZeko bi langileren sinaduraren bitartez.

39. artikulua (lehengo 40. artikulua) **Pribilegioak eta immunitateak**

EBZak bere eginkizunak betetzeko behar dituen pribilegioak eta immunitateak izango ditu estatu kideen lurraldean, betiere, Euro-

par Batasuneko pribilegioen eta immunitateen gaineko protokoloan zehaztutako baldintzetan.

VIII. KAPITULUA

ESTATUTUEN ALDAKETA ETA LEGEDIA **OSAGARRIA**

40. artikulua (lehengo 41. artikulua) **Estatutuak aldatzeko prozedura** **sinplifikatua**

40.1. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 129. artikulua 3. paragrafoaren arabera, BZESren estatutu 5.1, 5.2, 5.3, 17, 18, 19.1, 22, 23, 24, 26, 32.2, 32.3, 32.4, 32.6, 33.1 a) eta 36. artikulua alda ditzakete Kontseiluak eta Europako Parlamentuak, legegintza-prozedura arruntaren arabera, dela EBZaren gomendio bati jarraituz eta Batzordeari kontsulta egin ondoren, dela Batzordearen proposamen bati jarraituz eta EBZari kontsulta egin ondoren.

40.2. Kontseilu Europarrak aho batez onartutako erabaki baten bitartez aldatu ahal izango da 10.2 artikulua, bai Europako Banku Zentralaren gomendioz, Europako Parlamentuari eta Batzordeari aurretiaz kontsulta egin da, bai Batzordearen gomendioz, Europako Parlamentuari eta Europako Banku Zentralari aurretiaz kontsulta egin da. Aldaketa horiek indarrean sartzeko, estatu kideek onartu egin behar dituzte, nork bere konstituzio-arauen arabera.

40.3. EBZak artikulua honen arabera egiten dituen gomendioak Gobernu Kontseiluak aho batez onartu beharko ditu.

41. artikulua (lehengo 42. artikulua) **Legeria osagarria**

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 129. artikulua 4. paragrafoaren arabera, Kontseiluak, bai Batzordearen proposamenaren gainean eta aldeztu aurretik Europako Parlamentuari eta EBZari aholkua eskatuta, bai EBZaren gomendioren baten gainean eta aldeztu aurretik Europako Parlamentuari eta Batzordeari aholkua eskatuta, estatutu honetako 4, 5.4, 19.2, 20, 28.1, 29.2, 30.4 eta 34.3. artikuluetan aipatutako xedapenak onartuko ditu.

IX. KAPITULUA

XEDAPEN IRAGANKORRAK ETA BESTELAKO XEDAPENAK BZES-RAKO

42. artikulua

(lehengo 43. artikulua)

Xedapen orokorrak

42.1. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 139. artikuluan aipatzen diren salbuespenek esan nahi dute estatutu hauetako artikuluetatik ondoren aipatzen direnek ez diotela eskubiderik emango edo betebeharririk ezarriko kasuan kasuko estatu kideari: 3, 6, 9.2, 12.1, 14.3, 16, 18, 19, 20, 22, 23, 26.2, 27, 30, 31, 32, 33, 34 eta 49.

42.2. Tratatu horretako 139. artikulua araberako salbuespen bati helduta dauden estatuetako banku zentralak gorde egingo dituzte dirupolitikaren arloan dituzten eskumenak, barne-zuzenbidearen arabera.

42.3. Tratatu horretako 139. artikulua araberako, «estatu kideak» aipamenak «diru gisa euroa darabilten estatu kideak» esan nahiko du estatutu hauetako artikulua hauetan: 3, 11.2 eta 19.

42.4. «Estatuetako banku zentralak» esapideak «diru gisa euroa darabilten estatuetako banku zentralak» esan nahiko du estatutu honetako artikulua hauetan: 9.2, 10.2, 10.3, 12.1, 16, 17, 18, 22, 23, 27, 30, 31, 32, 33.2 eta 49.

42.5. «Akziodunak» aipamenak «diru gisa euroa darabilten estatuetako banku zentralak» esan nahiko du 10.3 eta 33.1 artikuluetan.

42.6. «BZESren kapital harpidetua» esapideak «diru gisa euroa darabilten estatu kideetako banku zentralak harpidetutako EBZaren kapitala» esan nahiko du 10.3 eta 30.2 artikuluetan.

43. artikulua

(lehengo 44. artikulua)

EBZaren eginkizun iragankorrak

EBZaren ardurakoak izango dira Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 141. artikulua 2. paragrafoan jasotako Europako Diru Institutuaren (EDI) lehengo eginkizunak, hau da, estatu kide baten edo gehiagoren salbuespenak direla eta, euroa indarren sartu ondoren ere burutu behar direnak.

Europako Banku Zentralak Tratatu horretako 140. artikuluan zehazten diren salbuespenen ezabaketa prestatzeko txostenak eman- go ditu.

44. artikulua

(lehengo 45. artikulua)

EBZeko Kontseilu Nagusia

44.1. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 129. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, Kontseilu Nagusia EBZaren hirugarren artez- karitza-organoa izango da.

44.2. Hauek izango dira Kontseilu Nagusiko kideak: EBZaren lehendakaria eta lehendakariordea, eta estatuetako banku zentraletako go- bernadoreak. Batzorde Betearazleko gainerako kideek boto-eskubiderik gabe parte hartu ahal izango dute Kontseilu Nagusiaren bileretan.

44.3. Kontseilu Nagusiaren ardura guztiak estatutu honetako 46. artikuluan ageri dira zehaztuta.

45. artikulua

(lehengo 46. artikulua)

Kontseilu Nagusiaren Barne Erregelamendua

45.1. Lehendakaria edo, bera ez badago, lehendakariordea izango da EBZeko Gobernu Kontseiluko eta Batzorde Betearazleko buru.

45.2. Kontseiluko lehendakariak eta Batzordeko kide batek Kontseilu Nagusiko bileretan parte hartu ahal izango dute, boto-eskubiderik gabe.

45.3. Kontseilu Nagusiko bilerak lehendakariak prestatuko ditu.

45.4. Hamabigarren artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoa gorabehera, Kontseilu Nagusiak bere barne-erregelamendua onartuko du.

45.5. EBZa arduratuko da Kontseilu Nagusiaren Idazkaritzaz.

46. artikulua

(lehengo 47. artikulua)

Kontseilu Nagusiaren ardurak

46.1. Kontseilu Nagusiak:

- 43. artikuluan aipatzen diren zereginak burutuko ditu;
- laguntza emango du 4. artikuluan eta 25.1 artikuluan aipatzen diren aholkularitza-eginkizunetan.

46.2. Kontseilu Nagusiak:

- laguntza emango du 5. artikuluan aipatzen den estatistika-informazioa biltzen,
- laguntza emango du EBZaren jardueri buruz 15. artikuluan aipatzen diren txostenak egiten,
- laguntza emango du, 26. artikulua aplikatu

ahal izateko, 26.4 artikuluan jasotzen diren arauak ezartzen,

- laguntza emango du, 29. artikulua bera aplikatu ahal izateko, 29.4 artikuluan jasotzen diren gainerako neurriak ezartzen,
- laguntza emango du, EBZeko langileak kontratatzeko, 36. artikuluan aipatzen diren baldintzak finkatzen.

46.3. Kontseilu Nagusiak laguntza emango du euroaren inguruko salbuespenen bati helduta dauden estatu kideetako moneten kanbio-tasa ezin aldatuzko eran finkatzeko, betiere, Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Tratatuak 140. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera.

46.4. EBZaren lehendakariak Gobernu Kontseiluaren erabakien berri emango dio Kontseilu Nagusiari.

47. artikulua

(lehengo 48. artikulua)

EBZaren kapitalari buruzko xedapen iragankorrak

Estatu bakoitzeko banku zentralari haztapan bat esleituko zaio, 29.1 artikuluaaren arabera, EBZaren kapitala harpidetzeko klabearen. Salbuespen bati helduta dauden estatu kideetako banku zentralak, 28. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoa gorabehera, ez dute harpidetutako kapitala ordainduko, non eta Kontseilu Nagusiak EBZaren funtzionamendu-kostuetan laguntzeko gutxienezko portzentaje bat ordaindu behar dela erabakitzen ez duen. Erabaki hori hartzeko, gutxienez, Europako Banku Zentralaren kapital harpidetuaren bi heren, eta, gutxienez, akziodunen erdia ordezkatzan duen gehiengo beharko da.

48. artikulua

(lehengo 49. artikulua)

EBZaren kapital, erreserba eta horniduren ordainketa geroratua

48.1. Salbuespena ezabatu zaion estatu kide bateko banku zentralak EBZaren kapital harpidetuaren dagokion zatia ordainduko du, diru gisa euroa darabilten estatu kideetako gainerako banku zentralen neurri berean, eta kanbio-erreserbako aktiboak transferitutako dizkio EBZari, 30.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Transferitu beharreko zenbatekoa finkatzeko, batetik, EBZera une horretara arte transferituta dauden erreserbako aktiboek, gorago aipatutakoek, eurotan duten balioa hartu behar da, une horretako kanbio-tasaren arabera eta 30.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta, bes-

tetik, kasuan kasuko estatuko banku zentralak harpidetutako akzioen kopurua zati gainerako estatueta banku zentralak dagoeneko ordaindu dituzten akzioen kopurua; batetik sortzen den kopurua eta bestetik ateratako koefizientea biderkatu behar dira azkenik.

48.2. Berrogeita zortzigarren artikuluko lehenengo paragrafoaren arabera egin behar den ordainketaz gain, kasuan kasuko banku zentralak bere ekarpena egingo du EBZaren erreserbetan, erreserben baliokide diren horniduretan eta salbuespena ezabatu aurreko urteko abenduaren 31ko galera eta irabazien kontuaren saldoari dagozkion erreserba eta hornidurei esleitu behar zaizen zenbatekoan. Ekarpenera hori zenbatekoa den finkatzeko, batetik, erreserben zenbatekoa hartuko da (lehenago zehaztua eta Europako Banku Zentralaren balantze onartuan kontsignatua), eta, bestetik, kasuan kasuko banku zentralak harpidetutako akzioen kopurua zati gainerako banku zentralak dagoeneko ordaindu dituzten akzioen kopurua; batetik sortzen den kopurua eta bestetik ateratako koefizientea biderkatu behar dira azkenik.

48.3. Estatu bat edo batzuk Batasuneko kide bihurtzen direnean, eta beren banku zentralak BZESn parte hartzen hasten direnean, automatikoki handituko da, batetik, EBZak harpidetuta duen kapitala, eta, bestetik, EBZera transferitu ahal izango den kanbio-erreserbako aktiboaren kopururako muga ere bai. Gehikuntza hori zenbatekoa izango den zehazteko, hala kontzeptu batean nola bestean une horretan diren kopuruak koefiziente honekin (betiere kapital-harpidetzarako doitutako banaketa-klabearen barruan) biderkatu behar dira: sartzen diren estatueta banku zentral berrien haztatzearen eta dagoeneko BZESko kide diren estatueta banku zentralen haztatzearen arteko koefizientearekin. Estatu bakoitzeko banku zentralak banaketa-klabearen barruan izango duen haztapena 29. artikuluko 1. paragrafoarekiko analogiaz kalkulatu da, 29. artikuluko 2. paragrafoaren arabera. Estatistika-datuetaarako erabiliko diren erreferentzia-aldiak haztaperen bost urtez behingo azken doikuntzarako erabilitako berberak izango dira (29. artikuluaaren 3. paragrafoaren arabera egin beharreko haztaperenatarako, alegia).

49. artikulua

(lehengo 52. artikulua)

Estatu kideetako diruaren izendapena duten banku-billeteen trukea

Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Tratatuak 140. artikuluaaren 3. pa-

ragrafoaren arabera, kanbio-tasa aldatu ezi-nezkoak finkatu ondoren, Gobernu Kontseiluak hartu beharreko neurri guztiak hartuko ditu, ondo bermatuta gera dadin estatu kideetako diruaren izendapena duten banku-billeteak, kanbio-tasa finko aldatu ezinezkoa dutenak, dagokien parekotasun-balioan trukatzen dituztela estatueta banku zentralek.

50. artikulua

(lehengo 53. artikulua)

Xedapen iragankorren aplikagarritasuna

Salbuespenen bati heldu dioten estatu kideak dauden artean, 42.etik 47.era arteko artikulua aplikatuko dira.

PROTOKOLOA (5.a)

EUROPAKO INBERTSIO BANKUAREN ESTATUTUEI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,

ASMOA IZANIK Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 308. artikuluan aurreikusten diren Europako Inbertsio Bankuaren estatutuak ezartzea,

BAT ETORRI DIRA honako xedapen hauetan, eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuari erantsiko zaizkio:

1. artikulua

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 308. artikulua bitartez sortutako Europako Inbertsio Bankua, aurrerantzean «Bankua», tratatuen eta estatutu hauen arabera eratuko da, eta horietan ezarritakoari jarraituz beteko ditu egitekoak eta jarduna.

2. artikulua

Bankuaren xedea Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 309. artikuluan zehaztutakoa da.

3. artikulua

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 308. artikuluari jarraituz, estatu kideak izango dira Bankuko kideak.

4. artikulua

1. Bankuak 232.392.989.000 euroko kapitala izango du. Kapital horren harpidetza honela banatuko da estatu kideen artean:

Alemania	37 578 019 000
Frantzia	37 578 019 000
Italia	37 578 019 000
Erresuma Batua	37 578 019 000
Espainia	22 546 811 500
Belgika	10 416 365 500
Herbehereak	10 416 365 500
Suedia	6 910 226 000
Danimarka	5 274 105 000
Austria	5 170 732 500
Polonia	4 810 160 500
Finlandia	2 970 783 000
Grezia	2 825 416 500
Portugal	1 820 820 000
Txekiar Errepublika	1 774 990 500
Hungaria	1 679 222 000
Irlanda	1 318 525 000
Errumania	1 217 626 000
Eslovakia	604 206 500
Eslovenia	560 951 500
Bulgaria	410 217 500
Lituania	351 981 000
Luxenburgo	263 707 000
Txipre	258 583 500
Letonia	214 805 000
Estonia	165 882 000
Malta	98 429 500

Estatu kideen erantzukizuna, harpideturik eta ordaindu gabe duten kapital-kuotarinakoa izango da soilik.

2. Kide berri bat sartuz gero, harpidetuta da-goien kapitala handitu egingo da, kide berri horren ekarpenaren neurrian.

3. Gobernadore Kontseiluak harpidetuta da-goien kapitala handitzea erabaki ahal izango du, aho batez.

4. Harpidetutako kapitalaren kuota ezin izango da laga edo pignoratu, eta enbargaezina izango da.

5. artikulua

1. Harpidetutako kapitala estatu kideek ordainduko dute estatutuen 4. artikuluko 1. paragrafoan ezarritako zenbatekoetan bakoitzari dagokion kopurutik % 5na aldiko, batez beste.

2. Harpidetutako kapitala handituz gero, gobernadore-kontseiluak aho batez erabakiko du ehuneko zenbat ordaindu behar den, eta ordainketa hori nola egingo den. Dirutan ordaintzekotan, euroak soilik onartuko dira.

3. Harpidetutako kapitalaren saldoa ordaintzeko galdatu ahal izango du Administrazio Kontseiluak, baldin eta Bankuaren betebeharre aurre egiteko beharrezkoa bada.

Halakoetan ere, estatu kide bakoitzak harpideturik duen kapital-kuotaren arabera ordainduko du.

6. artikulua (lehengo 8. artikulua)

Bankua Gobernadore Kontseiluak, Administrazio Kontseiluak eta Zuzendaritza Batzordeak administratu eta zuzenduko dute.

7. artikulua (lehengo 9. artikulua)

1. Gobernadore-kontseilua estatu kideek hautatutako ministroek osatuko dute.

2. Gobernadore Kontseiluak Bankuaren kreditu-politikaren gida-lerro orokorrak ezarriko ditu, betiere, Batasunaren helburuekin bat.

Gobernadore-kontseiluak gida-lerro horiek bete daitezke zainduko du.

3. Gainera gobernadore-kontseiluak beste eginbehar hauek izango ditu:

a) harpidetutako kapitala handitzeari buruzko erabakia hartuko du, 4. artikuluko 3. paragrafoarekin eta 5. artikuluko 2. paragrafoarekin bat etorritik;

b) 9. artikuluko 1. paragrafoaren aplikazioari dagokionez, finantziario-eragiketei aplikagarri zaizkien printzipioak zehaztuko ditu Bankuaren misioaren esparruan;

c) Administrazio Kontseiluko eta Zuzendaritza Batzordeko kideak izendatu eta kargutik kentzeko 11. eta 13. artikuluetan jasotako eskumenak baliatuko ditu, bai eta 11. artikuluko 1. paragrafoko bigarren lerrokadan jasotakoak ere;

d) Osorik edo partzialki estatu kideen lurraldetik kanpo egin behar diren inbertsio-eragiketetarako finantziarioa eman behar den erabakiko du 16. artikuluan 1. paragrafoarekin bat etorritik;

e) Administrazio Kontseiluak egindako urteko txostena onartuko du;

f) Urteko balantzea eta galera-irabazien kontua onartuko ditu;

g) Estatutu hauek ematen dioten gainerako eskumen eta ahalmenak gauzatuco ditu;

h) Bankuaren barne-erregelamendua onartuko du.

4. Tratatuak eta estatutu hauek osatzen duten esparruaren barruan, Bankuaren jarduna

eteteari eta, behar izanez gero, likidatzeari buruzko edozein erabaki aho batez hartzeko eskumena izango du Gobernadore Kontseiluak.

8. artikulua (lehengo 10. artikulua)

Estatutu hauetan bestelakorik xedatu ezean, gobernadore-kontseiluak kontseilua osatzen duten kideen gehiengo beharko du erabakiak hartzeko. Gehiengo horrek, gainera, harpidetutako kapitalaren % 50 izan beharko du gutxienez.

Gehiengo kualifikaturako, hemezortzi boto eta harpidetutako kapitalaren % 68 beharko da.

Bileran bertan nahiz ordezkaturik dauden kideen abstentzioak ez du oztopatuko aho batez hartu beharreko erabakiak hartzea.

9. artikulua (lehengo 11. artikulua)

1. Administrazio-kontseiluak finantzaketa-baimenei buruzko erabakiak hartuko ditu, batez ere kreditu eta berme gisa eman beharreko finantzaketari buruzkoak eta jesapenak itxeari buruzkoak; maileguen interes-tasak finkatuco ditu, baita komisio eta kargak zenbatekoak izango diren ere. Gehiengo kualifikatuak hala erabakitzen badu, bere eskurantzaz batzuk zuzendaritza-batzordeari eskuordetzan eman ahal izango dizkio. Eskuordetza hori zein baldintza eta modutan egin behar den ere erabakiko du, eta nola gauzatzen den ikuskatuko.

Administrazio-kontseiluak Bankua behar bezala administratu dadin zainduko du; Bankuaren kudeaketa, Tratatuetakoz xedapenekin eta Estatutuekin eta Gobernadore Kontseiluak ezarritako gida-lerro orokorrekin bat datorrela bermatuko du.

Ekitaldia amaitutakoan, Administrazio Kontseiluak txosten bat aurkeztu beharko dio Gobernadore Kontseiluari, eta horrek onartutakoan, argitara eman behar du.

2. Administrazio-kontseilua hogeita zortzi administrazioailek eta ordezkoko hamazortzi administrazioailek osatuko dute.

Administrazioaileak Gobernadore Kontseiluak izendatuko ditu, bost urterako. Estatu kideek administrazioaile bana izango dute, eta Batzordeak ere bat izango du.

Ordezko administrazioaileak ere Gobernadore Kontseiluak izendatuko ditu, bost urterako, eta aukeraketa honela egingo da:

— Alemaniako Errepublikaren Federalak bi ordezkoko aukeratuko ditu,

- Frantziako Errepublikak bi ordezeko aukeratuko ditu,
 - Italiako Errepublikak bi ordezeko aukeratuko ditu,
 - Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuak bi ordezeko aukeratuko ditu,
 - Espainiako Erresumak eta Portugalgo Errepublikak, ados jarrita, ordezeko bat aukeratuko dute,
 - Belgikako Erresumak, Luxemburgoko Dukerri Handiak eta Herbehereetako Erresumak, ados jarrita, ordezeko bat aukeratuko dute,
 - Danimarkako Erresumak, Irlandak, Heleniar Errepublikak eta Errumaniak, ados jarrita, bi ordezeko aukeratuko dituzte,
 - Estoniako Errepublikak, Letoniako Errepublikak, Lituaniako Errepublikak, Austriako Errepublikak, Finlandiako Errepublikak eta Suediako Erresumak, ados jarrita, bi ordezeko aukeratuko dituzte,
 - Bulgariako Errepublikak, Txekiar Errepublikak, Zipreko Errepublikak, Hungariako Errepublikak, Maltako Errepublikak, Poloniako Errepublikak, Esloveniako Errepublikak eta Eslovakiako Errepublikak, ados jarrita, hiru ordezeko aukeratuko dituzte,
 - eta Batzordeak, ordezeko bat aukeratuko du.
- Administrazio-kontseiluak kontseiluan boto-eskubiderik gabe parte hartzeko gonbita egingo die sei adituri: hiru kide izango dira, eta beste hiru, ordezeko.

Administratzaileen eta ordezekoen agintaldia berritu egin ahal izango da, amaitutakoan.

Barne-erregelamenduan Administrazio Kontseiluaren bileretan parte hartzeko moduak eta ordezeko administratzaileei eta hautatutako adituei aplikatu beharreko xedapenak ezarriko dira.

Zuzendaritza Batzordeko lehendakaria edo, hura falta denean, lehendakariordeetako bat izango da buru Administrazio Kontseiluaren bilkuretan, baina ez du bozketan parte hartuko.

Administrazio Kontseiluko kideak erabateko independentzia eta gaitasuna dutela bermatzen duten pertsonen artetik aukeratuko dira; Bankuaren aurrean baino ez dute erantzungo.

3. Administratzaile batek bere egitekoak burutzeko behar diren ezaugarriak betetzeari uzten badio soilik kendu ahal izango du hura kargutik Gobernadore Kontseiluak; erabakia hartzeko gehiengo kualifikatua beharko da.

Urteko txostena onartzen ez bada, Administrazio Kontseiluak dimititu egin beharko du.

4. Karguduna hilda, kargutik kenduta, edo

bere borondatez nahiz taldean dimisioa emanda, kargua hutsik geratuz gero, ordezekoa izendatuko da, 2. paragrafoan xedatutakoari jarraiki. Kontseilu osoa berritzekoa ez bada behintzat, izendapen horiek agintaldia amaitu artekoak izango dira.

5. Administrazio Kontseiluko kideen lantsariak Gobernadore Kontseiluak finkatuko ditu. Administratzaileek eta ordezekoek izan ditzaketan bateraezintasunak ere hark zehaztuko ditu.

10. artikulua

(lehenengo 12. artikulua)

1. Administratzaileek boto bana izango dute administrazio-kontseiluan. Nolanahi ere, botoa eskuordetan eman ahal izango dute, Bankuaren barne-erregelamenduak ezar ditzan baldintzetan.

2. Estatutu hauetan kontrakorik xedatu ezik, erabakiak hartu ahal izateko, Administrazio Kontseiluan boto-eskubidea duten kideen heren baten aldeko botoa behar da eta, betiere, harpidetutako kapitalaren ehuneko berrogeita hamar ordezkatzan badute. Gehiengo kualifikaturako, aldeko hamazortzi boto eta harpidetutako kapitalaren ehuneko hirurogeita zortzi beharko da. Bankuaren barne-erregelamenduak ezarriko du zenbateko quoruma beharko den Administrazio Kontseiluaren akordioak baliozkoak izan daitezen.

11. artikulua

(lehenengo 13. artikulua)

1. Zuzendaritza-batzordea, administrazio-kontseiluak proposatu eta gobernadore-kontseiluak sei urterako izendatutako lehendakari batek eta zortzi lehendakariordek osatuko dute. Agintaldia berritu egin daiteke.

Gobernadore-kontseiluak zuzendaritza-batzordeko kideen kopurua aldatu ahal izango du, aho batez.

2. Administrazio-kontseiluak gehiengo kualifikatuarekin proposatzen badu, gobernadore-kontseiluak zuzendaritza-batzordeko kideak beren kargutik kendu ahal izango ditu, gehiengo kualifikatua alde badago.

3. Zuzendaritza Batzordea Bankuaren ohiko administrazio-gaien kudeaketaz arduratuko da, lehendakariaren agintaritzapean eta Administrazio Kontseiluak kontrolatuta.

Batzorde horrek Administrazio Kontseiluak hartu beharreko erabakiak prestatuko ditu, bereziki jesapenak ixteari eta finantzaketa —ba-

tez ere kreditu nahiz berme gisakoa— emateari buruzkoak. Gainera, erabaki hori betearazteaz arduratuko da.

4. Zuzendaritza Batzordeak gehiengo kualifikatua beharko du jesapenak ixteko eta finantzaketa —batez ere kreditu eta berme gisakoa— emateko proiektuei buruzko irizpenak onartzeko.

5. Gobernadore Kontseiluak Zuzendaritza Batzordeko kideen lanskariak finkatu, eta beren egitekoekiko bateraezintasunak zein diren ezarriko du.

6. Lehendakaria edo, horrek ezin duenean, lehendakariordeak bat izango da Bankuaren ordezkari, judizio nahiz judizioz kanpoko kontuetan.

7. Bankuko langileek lehendakariaren agintaritzapean jardungo dute. Lehendakariaren ardura izango da haiek kontratatzea eta kaleratzea. Langileak aukeratzean, gaitasun pertsonalak eta lanbide-prestakuntza ez ezik, estatu kideetako herritarren artean oreka bat mantentzeko modua ere izango da kontuan. Barne-erregelamenduak ezarriko du zein organok izango duen langileei aplikatu beharreko xedapenak onartzeko eskumena.

8. Zuzendaritza Batzordeak eta Bankuko langileek Bankuaren aurrean baino ez dute erantzungo, eta beren egitekoak independentzia osoz burutuko dituzte.

12. artikulua

(lehengo 14. artikulua)

1. Sei kidek osatutako komite batek, gobernadore-kontseiluak gaitasuna kontuan izanda izendatuko baititu, Bankuaren jarduna bankuetako jardunbide egokienei lotzen zaien begiratuko du, eta Bankuaren kontuak egiaztatuko.

2. Lehen paragrafoan aipatutako komite horrek Bankuaren eragiketak eta liburuak zuzenak diren aztertuko du urtero. Ildo horretatik, Bankuaren eragiketak estatutu hauetan eta barne-erregelamenduan ezarritako izapide eta prozedurei jarraituz egin diren egiaztatuko du.

3. Lehen paragrafoan aipatutako komiteak behar bezala egiaztatuko du Bankuaren finantzen egoera-orriak eta Administrazio Kontseiluak ezarritako urteko kontuetan finantzei buruz jasotzen diren informazioak zintzo islatzen dituztela Bankuaren finantzen egoera —aktiboa zein pasiboa— eta kasuan kasuko urtealdiko eragiketen emaitzak eta diruzaintzako fluxuak.

4. Barne-erregelamenduan zehaztuko da 1. paragrafoan aipatutako komiteko kideek zer-nolako kualifikazioa izan behar duten, eta komitearen funtzionamendurako baldintzak eta moduak ere han ezarriko dira.

13. artikulua

(lehengo 15. artikulua)

Bankuak estatu kide bakoitzak izendatutako agintariaren bidez izango ditu harremanak estatu kide horrekin. Finantza-eragiketak egiteko, kasuan kasuko estatu kideko banku zentralera edo horrek baimendutako beste finantza-instituzioetara jo ahal izango du.

14. artikulua

(lehengo 16. artikulua)

1. Bankuak bere lan-eremuaren antzekoetan lan egiten duten nazioarteko erakunde guztiekin lankidetzan jardungo du.

2. Bankuak ahalegina egingo du bere eragiketen jasotzaile diren herrialdeetako bankuekin eta bestelako finantza-instituzioekin lankidetzan aritu ahal izateko baliagarri diren harreman-mota guztiak ezartzeko.

15. artikulua

(lehengo 17. artikulua)

Estatu kide batek edo Batzordeak eskatuta edo bere kabuz, Gobernadore Kontseiluak estatutu hauetako 7. artikuluari jarraituta ezarritako gida-lerroak interpretatuko eta osatuko ditu, betiere, ezarri zireneko baldintza berak errespetatuz.

16. artikulua

(lehengo 18. artikulua)

1. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 309. artikuluan zehaztutako manuairen barruan, Bankuak, estatu kideen Europako lurraldeetan burutu beharreko inbertsioetarako finantzabideak emango dizkie estatu kideei nahiz enpresa pribatu eta publikoei, batez ere kreditu eta berme gisako finantzabideak, eta betiere, bestelako baliabiderik lortzen ez bada arrazoizko baldintzetan.

Nolanahi ere, Administrazio Kontseiluak proposatu eta Gobernadore Kontseiluaren gehiengo kualifikatua lortuz gero, Bankuak erabat nahiz zati batean estatu kideen lurraldetik kanpo gauzatzeak diren inbertsioak ere finantza ditzake.

2. Ahal den neurrian, beste finantzabide batzuk ere erabiltzen direnean soilik emango dira maileguak.

3. Mailegua estatu kide ez den enpresa edo kolektibitate bati ematen zaionean, mailegua eman aurretik, Bankuak baldintza gisa jarriko du, nahiz inbertsioa jaso behar duen lurraldea koka-

tuta dagoen estatu kideak berme bat ematea, nahiz behar besteko bestelako bermeak lortzea, nahiz zordunak finantza-sendotasuna erakustea.

Gainera, Gobernadore Kontseiluak 7. artikuluko 3. paragrafoko b) idatz-zatiari jarraituz ezarritako printzipioek eratzen duten esparruaren barruan, eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuako 309. artikuluan aurreikusitako eragiketak egiteko beharrezkoa bada, Administrazio Kontseiluak arrisku-profil jakin bat erakusten duen eta, beraz, jarduera berezizat jotzen den finantzaketa oro zein baldintza eta modutan burutu erabakiko du, gehiengo kualifikatuarekin.

4. Bankuak bermeak eman ahal izango ditu enpresa publiko nahiz pribatuak edo bestelako kolektibitateek Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuako 309. artikuluan aurreikusitako eragiketak burutzeko kontratatutako jesapenatarako.

5. Bankuak mailegu eta bermeen bidez agindutako zenbatekoa ezin izango da izan, guztira, harpideturik duen kapitalaren, erreserben, esleitu gabeko horniduren eta galdu-irabazien kontuaren gaindikinen % 250 baino gehiago. Kasuan kasuko kontu-sailetan pilatutako kopurua kalkulatzeko, Bankuak partaidetza-mota orotan, ordainduta nahiz ordaindu gabe, harpideturik duen kopurua kendu beharko zaio lehenengo.

Bankuak partaidetza gisa ordainduta duen kopurua ezingo da izan, inolaz ere, kapitalean liberaturik, erreserbetan, esleitu gabeko horniduretan eta galdu-irabazien kontuaren gaindikinetan guztira duen zatia baino handiagoa.

Salbuespen gisa, Bankuaren jarduera berezietarako —gobernadore-kontseiluak eta administrazio-kontseiluak 3. paragrafoari jarraituz erabakitakoetarako adibidez—, berariazko zuzkidura bat gordeko da erreserbetan.

Paragrafo honetan ezarritakoa Bankuaren kontu bateratuei ere aplikatuko zaie.

6. Kanbioak dituen arriskuetatik babesteko, Bankuak egoki iruditzen zaizkion klausulak sartuko ditu maileguen eta bermeen kontratuetan.

17. artikulua

(lehenengo 19. artikulua)

1. Bankuak ematen dituen maileguen interes-tasak, bai eta komisio eta bestelako kargak ere, kapital-merkatuan gailentzen diren baldintzetara egokitu beharko dira, eta horietatik etorriko diren sarrerak Bankuari bere betebeharrei aurre egiteko, gastuak eta arriskuak or-

daintzeko, eta, 22. artikuluari jarraituz, erreserba-funtsa eratzeko aukera emateko moduan kalkulatzeko dira.

2. Bankuak ez du inolako murrizketarik egingo interes-tasetan. Baldin eta, finantzatu beharreko inbertsioaren izaera berezia dela-eta, interes-tasa murriztea komeni bada, estatu kide interesdunak edo beste agintaritza batek interes horietarako hobariak eman ahal izango ditu, hobari horiek ematea Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuako 107. artikuluan aurreikusitako arauekin bateragarri den heinean.

18. artikulua

(lehenengo 20. artikulua)

Finantzaketa-eragiketetan Bankuak honako printzipio hauek bete behar ditu:

1. Bankuaren funtsak ahalik eta erarik arrazoizkoenean erabil daitezen jagongo du.

Bankuak soilik emango ditu maileguak edo bermatuko ditu jesapenak baldin eta:

a) Ziur bada interesak ordaindu eta kapitala amortizatuko dizkiotela, produkzio-sektoreko enpresek egin beharreko inbertsioen kasuan, ustiapenaren mozkinekin eta, bestelako inbertsioak direnean, inbertsioa hartu behar duen lurraldeko Estatuak sinatutako konpromiso baten bidez edo beste eraren batean,

b) inbertsio hori gauzatuta, oro har, produktibitate ekonomikoa hazten laguntzen bada eta barne-merkatuaren ezarpenerako eta funtzionamendurako balio badu.

2. Ez du enpresetako partaidetzarik eskuratuko, ez eta horien kudeaketan inolako erantzukizunik hartuko bere gain, baldin eta bere eskubideen babesala hala eskatzen ez badu bere kredituak berreskuratuko dituela ziurtatzeko.

Nolanahi ere, Gobernadore Kontseiluak 7. artikuluko 3. paragrafoko b) idatz-zatiari jarraituz ezarritako printzipioek eratzen duten esparruaren barruan, eta Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Tratatuako 309. artikuluan aurreikusitako eragiketak egiteko beharrezko bada, Administrazio Kontseiluak, gehiengo kualifikatuarekin, merkataritza-enpresa baten kapitalean zein baldintza eta modutan parte hartu erabakiko du; oro har, mailegu edo berme baten osagarri gisa, eta, betiere, inbertsio edo programa bat finantzatzeko beharrezko bada.

3. Kredituak kapital-merkatuan laga ahal izango ditu, eta, horrelakoetan, obligazioak edo beste titulu batzuk jaulkitzeko eskatu ahal izango die mailegu-hartzaileei.

4. Ez berak, ez eta estatu kideek ezin izango

dute inor behartu mailegatutako diru-kopurua estatu kide jakin batean erabiltzera.

5. Maileguak emateko, baldintza modura ezarri ahal izango du nazioarteko lizitazioak antolatzea.

6. Ez du inbertsiorik finantzatzeko, ez osorik, ez zati batean, baldin eta inbertsioa egin behar den lurraldeko estatu kidea kontra badago.

7. Kredituen inguruko jardunaren osagarri gisa, Bankuak laguntza teknikoko zerbitzuak bermatu ahal izango ditu. Baldintzak eta moduak, estatutu hauei jarraituz, gobernadore-kontseiluak zehaztuko ditu, erabakiak gehiengo kualifikatuz hartuta.

19. artikulua

(lehengo 21. artikulua)

1. Enpresa edo erakunde publiko nahiz pribatu orok zuzenean aurkeztu ahal izango dio finantzaketa-eskaera Bankuari. Batzordearen edo inbertsioa egin behar den estatu kidearen bidez ere aurkeztu ahal izango da eskabidea.

2. Eskaerak Batzordearen bidez bideratzen badira, inbertsioa egin behar deneko estatu kideari aurkeztuko zaio irizpena eman dezan. Estatu kidearen bidez bideratuz gero, Batzordeari aurkeztuko zaio irizpena eman dezan. Enpresak zuzenean aurkeztutakoan, estatu kide interesdunari eta Batzordeari, biei aurkeztuko zaie, irizpena eman dezaten.

Estatu kide interesdunek eta Batzordeak gehienez bi hilabeteko epean eman beharko dute irizpena. Epe horretan erantzunik ez bada, proiektuak eragozpenik eragiten ez duela iritzi ahal izango dio Bankuak.

3. Administrazio-kontseiluak zuzendaritza-batzordeak aurkezten dizkion finantza-eragiketei buruzko erabakiak hartuko ditu.

4. Zuzendaritza Batzordeak aurkezten zaizkion finantza-eragiketak estatutu hauetan eta, batez ere, 16. eta 18. artikuluetan, xedatutakoari lotzen zaizkion aztertuko du. Zuzendaritza Batzordea finantzaketaren alde agertzen bada, administrazio-kontseiluari aurkeztuko dio proposamena, berrets dezan; egoki iritzitako baldintzak jarri ahal izango ditu aldeko irizpena emateko. Zuzendaritza Batzordea finantzaketa ematearen kontra agertzen bada, irizpenarekin batera beharrezkoak diren agiriak aurkeztu beharko dizkio Administrazio Kontseiluari.

5. Zuzendaritza Batzordearen irizpena kontrakoa bada, Administrazio Kontseiluak aho batez baino ezin izango du eman aipatu finantziarioa.

6. Batzordearen irizpena kontrakoa bada, Ad-

ministrazio Kontseiluak aho batez soilik eman ahal izango du aipatutako finantziarioa, baina Batzordeak hautatuta izendatutako administrazioaileak ez du botorik izango.

7. Zuzendaritza Batzordearen eta Batzordearen irizpenak, biak badira finantzaketaren kontrakoak, Administrazio Kontseiluak ezin izango du aipatutako finantziarioa eman.

8. Bankuaren eskubideak eta interesak babesteko onartu diren inbertsioei buruzko finantziario-eragiketa bat berregituratzeko nahikoa arrazoi denean, Zuzendaritza Batzordeak berehala hartuko ditu beharrezkotzat jotzen dituen premiazko neurriak, baina berehala eman beharko dio horren berri Administrazio Kontseiluari.

20. artikulua

(lehengo 22. artikulua)

1. Bankuak bere xedea betetzeko beharrezko dituen baliabideak maileguan hartuko ditu kapitalen merkatuan.

2. Bankuak estatu kideetako kapital-merkatuan lortu ahal izango du dirua maileguan, merkatu horiei aplikatu beharreko lege-xedapenen esparruan.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratutuko 139. artikuluko 1. paragrafoan ezarritakoaren ildotik doan salbuespen bati heldutako estatu kideren bateko agintari eskudunak arrazoi bakar batengatik agertu ahal izango dira kontra: estatu horretako kapitalen merkatuan gorabehera larriak sor daitezkeela pentsatzeko arrazoiak egotea.

21. artikulua

(lehengo 23. artikulua)

1. Bankuak eskura dituen eta bere betebeharre aurre egiteko berehala behar ez dituen baliabideak honela erabili ahal izango ditu:

a) kapitalak diru-merkatuetan inbertitu ahal izango ditu;

b) tituluak erosi eta saldu ahal izango ditu, 18. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoa salbu;

c) bere helburuekin erlazionatutako beste edozein finantza-eragiketa burutu ahal izango du.

2. Bankuak, 23. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, inbertsio horien kudeaketan, ez du bere maileguak egiteko edo jaulkitako jepsapen edo emandako bermeak direla-eta hartutako konpromisoak betetzeko ezinbestekoa ez den inolako dibisa-arbitrajari egingo.

3. Artikulu honen aplikazio-eremuan, Bankuak estatu kideetako agintari eskudunekin edo

banku zentral nazionalekin bat etorri jar-
dungo du.

22. artikulua

(lehengo 24. artikulua)

1. Harpidetutako kapitalaren % 10aren pa-
reko erreserba-funtsa eratuko da, gehienez,
arian-arian. Bankuaren konpromisoen egoe-
rak horretarako bide ematen badu, adminis-
trazio-kontseiluak erreserba gehigarriak
eraikitzea erabaki ahal izango du. Erreserba-
funts hori guztiz osatu gabe dagoen bitarte-
an, honako hauek baliatu ahal izango dira eli-
katzeko:

a) Estatu kideek 5. artikuluari jarraituz eka-
rri beharreko diru-kopuruekin Bankuak eman
dituen maileguek sortutako interesak;

b) a) idatz-zatian aipatutako maileguak itzul-
tzeak jasotako diru-kopuruekin Bankuak eman-
dako maileguek sortutako interesak,

baldin eta sarrera horiek Bankuaren bete-
beharrei aurre egiteko eta gastuak ordaintzeko
beharrezkoak ez badira.

2. Erreserba-funtseko baliabideak funtsaren
helburuei edonoiz aurre egin ahal izateko mo-
duan erabili beharko dira.

23. artikulua

(lehengo 25. artikulua)

1. Bankuak beti izango du baimena Europar Ba-
tasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu-
ko 309. artikuluan zehaztutako helburuarekin bat
datozen finantza-eragiketak egiteko dauzkan ak-
tiboak dirutzat euroa ez duten estatu kideetako
monetara transferitzeko, betiere, estatutu haue-
tako 21. artikuluan xedatutakoa kontuan izanda.
Bankua, ahal duen neurrian, horrelako aldaketarik
ez egiten saiatuko da, behar duen dirutan behar
beste aktibo baditu erabilgarri edo bihurtgarri.

2. Bankuak, diru gisa euroa ez duen estatu
kide baten dirutan dauzkan aktiboak hirugarren
herrialde baten dibisa bihurtu ahal izateko,
estatu kide horren adostasun beharko du.

3. Bankuak nahieran xedatu ahal izango
ditu ordaindua duen kapital-zatia eta hirugarren
herrialdeetako merkatuetan maileguan hartu-
tako dibisak.

4. Estatu kideek konpromisoa hartzen dute
Bankuaren zordunen esku behar beste dibisa
jartzeko Bankuak beren lurraldean egin beha-
rreko inbertsioetarako eman edo bermatutako
maileguen kapitala itzultzeko eta interesak or-
daintzeko.

24. artikulua

(lehengo 26. artikulua)

Estatu kide batek estatutu hauen ondorioz
dagozkion betebeharrak betetzen ez baditu,
batez ere, dagokion kuota ordaintzeari edo
bere jesapenen zerbitzua ziurtatzeari buruzko
betebeharra, gobernadore-kontseiluak, ge-
hiengo kualifikatuz, estatu kide horri edo esta-
tu horretako herritarrei maileguak edo bermeak
ematea etenda uztea erabaki dezake.

Erabaki horrek ez ditu, ez estatua, ez eta es-
tatu horretako herritarrek, Bankuarekiko di-
tuzten betebeharrak betetzetik salbuetsiko.

25. artikulua

(lehengo 27. artikulua)

1. Gobernadore-kontseiluak Bankuaren jar-
duna etetea erabakitzen badu, jarduera guztiak
geldiaraziko dira luzamendurik gabe, Bankua-
ren ondasuna erabili, babestu eta zaintzeko eta
bere konpromisoak kitatzeko behar-beharrez-
koak diren eragiketak izan ezik.

2. Likidatzekotan, Gobernadore Kontsei-
luak likidatzailak izendatuko ditu, eta likida-
zio hori burutzeko aginduak emango dizkie.
Langileen eskubideak babes daitezen zaindu-
ko du.

26. artikulua

(lehengo 28. artikulua)

1. Bankuak estatu kide bakoitzean bertako le-
geriak pertsona juridikoei aitortzen dien gai-
tasun juridikorik zabalena izango du; bereziki
ondasun higigarriak eta higiezinak erosi eta bes-
terendu ahal izango ditu, eta epaitegietan ager-
tu ahal izango da.

2. Bankuaren ondasunak ezin izango dira ino-
la errekisatu edo desjabetu.

27. artikulua

(lehengo 29. artikulua)

Alde batetik Bankua, eta, bestetik, mailegu-
emaileak, mailegu-hartzaileak eta hirugarrenak
direla-eta sortzen diren auziak, kasuan kasuko
estatuko jurisdikzio-organo eskudunek ebatzi-
ko dituzte, betiere, Europar Batasuneko Justizia
Auzitegiari emandako eskumenei kalterik egin
gabe. Nolanahi ere, Bankuak arbitraje-prozedura
bat aurreikusi ahal izango du kontratu batean.

Bankuak egoitza izan behar du Estatu kide
guztietan. Hala ere, egoitza berezi bat zehaztu
ahal izango du kontratu batean.

Bankuaren ondasun eta aktiboak ezin izango dira enbargatu, ez eta nahitaez betearazteko prozedurapean jarri, erabaki judizial batez izan ezik.

28. artikulua

(lehengo 30. artikulua)

1. Gobernadore-kontseiluak, aho batez, nortasun juridikoa eta finantza-autonomia izango dituzten filialak edo beste erakunde batzuk sortzea erabaki ahal izango du.

2. Gobernadore Kontseiluak aho batez onartuko ditu 1. paragrafoan jasotako erakundeen estatutuak. Estatutu horietan honako hauek zehaztuko dira bereziki: erakundearen helburuak, egitura, kapitala, kideak, egoitza, finantza-baliabideak, jarduteko tresnak eta kontu-ikuskaritzako prozedurak, eta Bankuaren artezkarrizta-organoekiko harremana.

3. Bankuak erakunde horien kudeaketan parte hartzeko ahalmena izango du, eta harpidetutako kapitalean ere lagundu ahal izango du, Gobernadore Kontseiluak aho batez ezarritako zenbatekora iritsi arte.

4. Europar Batasunaren pribilegioen eta immunitateen gaineko protokoloa Bankuari aplikatzen zaizkion baldintza beretan aplikatuko zaie 1. paragrafoan jasotako erakundeei, —Europar Batasuneko Zuzenbidea aplikatzen zaien heinean—; beren organoetako kideei —beren lanean— eta langileei.

Nolanahi ere den, Europar Batasunaz eta Bankuaz bestelako kideek erakunde horietatik eskubidez jaso ditzaketan dibidenduei, gainbalioei eta bestelako errenta-motei, aplikagarri zaien legeriako zerga-xedapenak aplikatuko zaizkie.

5. Ondoren zehaztuko diren mugen barruan, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak eskumena izango du Europar Batasuneko Zuzenbidea aplikagarri zaien organismoetako organoek hartutako neurriekin zerikusia duten auziez arduratzeko. Organismo horretako edozein kidek —organismo kide den heinean— eta estatu kideek neurri horien aurkako errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 263. artikuluan ezarritako baldintzetan.

6. Gobernadore Kontseiluak, aho batez, erabaki ahal izango du Batasuneko Zuzenbidepeko erakundeetako langileak Bankuarekin erkitze diren araubideetan sartzea, bakoitzak bere barne-prozedurari jarraituz.

PROTOKOLOA (6.a)

EUROPAR BATASUNEKO INSTITUZIOEN ETA ZENBAIT ORGANO, ORGANISMO ETA ZERBITZUREN EGOITZAK EZARTZEARI BURUZKOA

ESTATU KIDEETAKO GOBERNUETAKO ORDEZKARIEK

IKUSIRIK Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 341. artikulua eta Energia Atomikoaren Europako Erkidegoa eratzeko Tratatu 189. artikulua,

GOGORATUZ ETA SENDETSIZ 1965eko apirilaren 8ko Erabakia, eta, etorkizuneko instituzio, organo, organismo eta zerbitzuen egoitzei buruzko erabakiei kalterik egin gabe,

BAT ETORRI DIRA honako xedapen hauetan, eta Europar Batasunaren Tratatuari, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuari eta Energia Atomikoaren Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuari gaineratuko zaizkio eranskin gisa:

Artikulu bakarra

a) Europako Parlamentuaren egoitza Strasburgon egongo da, eta bertan egingo dira hileko osoko bilkuren 12 aldi partzialak, aurrekontuen bilkura barne. Osoko bilkura gehigarrien aldi partzialak Bruselan egingo dira. Europako Parlamentuaren batzordeak Bruselan bilduko dira. Europako Parlamentuko Idazkaritza Nagusiak eta bere zerbitzuek Luxenburgon jarraituko dute.

b) Kontseiluaren egoitza Bruselan egongo da. Apirilean, ekainean eta urrian, Luxenburgon egingo ditu batzarrak Kontseiluak.

c) Batzordearen egoitza Bruselan egongo da. Luxenburgon kokatuko dira 1965eko apirilaren 8ko Erbakiko 7., 8. eta 9. artikuluetan zerrendatutako zerbitzuak.

d) Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren egoitza Luxenburgon egongo da.

e) Kontu Auzitegiaren egoitza Luxenburgon egongo da.

f) Ekonomia eta Gizarte Komitearen egoitza Bruselan egongo da.

g) Eskualdeetako Komitearen egoitza Bruselan egongo da.

h) Europako Inbertsio Bankuaren egoitza Luxenburgon egongo da.

i) Europako Banku Zentralaren egoitza Frankfurtan egongo da.

j) Poliziaren Europako Bulegoaren (Europol) egoitza Hagan egongo da.

PROTOKOLOA (7.a)

EUROPAR BATASUNAREN PRIBILEGIO ETA IMMUNITATEEI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,

AINTZATETSIZ Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 343. artikulua eta Energia Atomikoaren Europako Erkidegoa (EAEE) eratzekeo Tratatuaren 191. artikulua arabera, Europar Batasunak eta EAEEK beren xedea betetzeko beharrezko diren pribilegioez eta immunitateez gozatzeko dutela estatu kideen lurraldean.

BAT ETORRI DIRA honako xedapen hauetan, eta Europar Batasunaren Tratatuari, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuari eta Energia Atomikoaren Europako Erkidegoa eratzekeo Tratatuari gaineratuko zaizkio eranskin gisa:

1. KAPITULUA

EUROPAR BATASUNAREN ONDASUNAK, FUNTSAK, AKTIBOAK ETA ERAGIKETAK

1. artikulua

Batasunaren lokalak eta eraikinak bortxaezinez dira. Halaber, erregistro, erreklasa, konfiskazio edo desjabetze orotik salbuetsirik egongo dira. Batasunaren ondasunei eta aktiboei ezin izango zaie premiamendu administratiborik edo judizialik dakarren ezein neurririk ezarri Justizia Auzitegiaren baimenik gabe.

2. artikulua

Batasunaren artxiboak bortxaezinez dira.

3. artikulua

Batasuna, bere aktiboak, bere sarrerak eta gainerako ondasunak salbuetsita egongo dira zuzeneko zerga guztietatik.

Estatu kideetako gobernuak, ahal den guztietan, neurri egokiak hartuko dituzte ondasun higigarrien eta higiezen prezioan sartutako zeharkako zergen edo salmenta-zergen kopurua igortzeko edo itzultzeko, Batasunak, bere erabilera ofizialerako, mota horretako zergak eta sariak hartzen dituen erosketa garantzitsuak egiten dituenean. Xedapen horiek aplikatzeak, dena dela, ez du ondorioztat izan beharko Batasunaren barruko lehia faltsutzea.

Onura publikoko zerbitzuen ordainketa baino ez diren zerga, tasa eta eskubideei dagokienez, ez da inolako salbuespenik emango.

4. artikulua

Batasuna salbuetsita egongo da inportazio-esportazioen gaineko aduana-zerga, debeku eta murrizketa guztietatik, bere erabilera ofizialera bideratutako salgaiak dagokienez; era horretan inportatutako salgaiak ezingo dira laga, ordain bidez edo dohainik, inportatuak izan diren estatuaren lurraldean, non eta lagapen hori ez den egiten estatu horretako gobernuak onartutako baldintzetan.

Batasuna, era berean, salbuetsita egongo da inportazio-esportazioen gaineko aduana-zerga, debeku eta murrizketa guztietatik, bere argitalpenei dagokienez.

II. KAPITULUA

KOMUNIKAZIOAK ETA IGARO BAIMENAK

5. artikulua

(lehengo 6. artikulua)

Beren komunikazio ofizialeterako eta beren dokumentu guztiak helarazteko, Batasuneko instituzioek, estatu kide bakoitzaren lurraldean, estatu horrek ordezkartza diplomatikoei ematen dien tratua bera jasoko dute.

Batasuneko instituzioen korrespondentzia ofiziala eta gainerako komunikazio ofizialak ezin izango dira zentsuraren menpe egon.

6. artikulua

(lehengo 7. artikulua)

Batasuneko instituzioetako lehendakariak igarobaimenak eman ahal izango dizkiete instituzio horietako kideei eta agenteei Kontseiluak gehiengo soilez onar dezan eran; igarobaimen horiek bidaia-dokumentu baliozkotzat aintzatetsiko dituzte estatu kideetako agintariek. Funtzionarioentzako eta agenteentzako igarobaimenak Funtzionarioen Estatutuan eta Batasuneko beste agenteei aplikatu beharreko araubidean ezartzen diren baldintzetan emango dira.

Batzordeak akordioak egin ahal izango ditu igarobaimen horiei buruz, hirugarren estatuen lurraldean ere bidaia-dokumentu baliozkotzat aintzatetsiak izateko.

III. KAPITULUA

EUROPAKO PARLAMENTUKO KIDEAK

7. artikulua (lehengo 8. artikulua)

Ez zaio jarriko administrazio-mailako edo bestelako murrizketarik Europako Parlamentuko kideek zirkulatzeko duten askatasunari, Europako Parlamentuaren bilera-lekura doazenean edo handik itzultzen direnean.

Aduanei eta truke-kontrolari dagokienez, Europako Parlamentuko kideek jasoko dituzte:

a) beren gobernutik, aldi baterako eginkizun ofizialetan atzerrira bidaiatzen duten goi-funtzionarioei ematen zaizkien erraztasun berak.

b) Gainerako estatu kideen gobernutik, aldi baterako eginkizun ofizialetan dauden atzerriko gobernuen ordezkariak ematen zaizkien erraztasun berak.

8. artikulua (lehengo 9. artikulua)

Europako Parlamentuko kideak ezin izango dituzte bilatu, atxilotu edo auzibidean jarri beren betebeharrak burutzean adierazitako iriztiak edo emandako botoak direla eta.

9. artikulua (lehengo 10. artikulua)

Europako Parlamentuaren bilkura-aldian, parlamentuko kideek immunitatea izango dute:

a) Beren estatuaren lurraldean, bertako parlamentuko kideei aintzatesten zaizkien immunitate berberak izango dituzte;

b) Beste edozein estatu kideren lurraldean, atxiloketen eta epaitegien ekintzen aurkako immunitatea.

Immunitatea aplikatuko zaie kideei, orobat, Europako Parlamentuaren bilera-lekura bidaiatzen ari direnean edo handik itzultzen ari direnean.

Immunitatea ezin izango da alegatu Europako Parlamentuko kide bat delitu gori-gorian atzematen dutenean eta immunitatea ez da eragozpen izango Europako Parlamentuak bere kideetako bati pribilegio hori eteteko eskubidea baliatzeko orduan.

IV. KAPITULUA

EUROPAR BATASUNAREN INSTITUZIOEN LANEAN PARTE HARTZEN DUTEN ESTATU KIDEEN ORDEZKARIAK

10. artikulua (lehengo 11. artikulua)

Batasuneko instituzioen lanean parte hartzen duten estatu kideen ordezkariak, beren aholkulariak eta aditu teknikoak, beren eginkizunak betetzean eta bilera-lekuetara egiten dituzten joan-etorrietan, ohiturazko pribilegioez, immunitateez eta erraztasunez gozatuko dute.

Artikulu hau Batasuneko organo aholkuemaileetako kideei ere aplikatuko zaie.

V. KAPITULUA

EUROPAR BATASUNEKO FUNTZIONARIOAK ETA ENPLEGATUAK

11. artikulua (lehengo 12. artikulua)

Estatu kide bakoitzaren lurraldean eta beren nazionalitatea edozein dela ere, Batasuneko funtzionarioak eta beste agente batzuek:

a) Jurisdikzio-immunitatea izango dute, ahozko zein idatzizko adierazpenak barne, modu ofizialean egiten dituzten egintzei dagokienez, betiere, behar bezala errespetatuz Tratuetako xedapenak eta, zehazki, funtzionarioak eta agenteak Batasunaren aurrean duten erantzukizunari buruzko arauak dagozkienak eta Batasunaren eta bere funtzionarioen eta beste agente batzuen arteko auzietan Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak duen eskumenari dagozkionak; Immunitate horretaz gozatzen jarraituko dute, beren egiteko ofizialak laga ondoren ere.

b) immigrazio-murrizketei edo atzerritarren erregistroaren formaltasunei lotuta ez dira egongo, ez eurak, ez beren ezkontideak, ezta euren mende dauden familiakoak ere.

c) diru- edo truke-arauei dagokienez, ohituraz nazioarteko erakundeetako funtzionarioei aintzatesten zaizkien erraztasun berak aintzatesiko zaizkie.

d) Dagokien estatuan beren postua lehen aldiz betetzen hasitakoan, beren altzariak eta beren gauzak frankizian inportatzeko eskubidea izango dute, bai eta, estatu horretan duten postua lagatzean, beren altzariak eta beren gauzak frankizian berresportatzeko eskubidea

ere, kasu batean zein bestean, eskubide hori baliatzen deneko estatuko gobernuak beharrezkotzat jotzen dituen baldintzei atxikita;

e) Beren erabilera pertsonalerako automobila frankizian inportatzeko eskubidea izango dute, beren azken bizilekuko estatuan edo herritarrek diren estatuan hango barne-merkatuko baldintzetan eskuratua, bai eta frankizian berresportatzeko eskubidea ere, kasu batean zein bestean, eskubide hori baliatzen deneko estatuko gobernuak beharrezkotzat jotzen dituen baldintzei atxikita.

12. artikulua

(lehengo 13. artikulua)

Batasuneko funtzionarioek eta beste agente batzuek Batasunak ordaintzen dizkieten soldaten, alokairuen eta ordainsarien gaineko zerga bat ordaindu beharko dute Batasunaren mesedetan, betiere, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak legegintzako prozedura arrunta erabiliz onartutako erregelamenduen bidez eta instituzio interesdunei kontsultatu ondoren ezarritako prozedurari jarraituz.

Batasuneko funtzionarioak eta beste enplegatu batzuk salbuetsita egongo dira Batasunak ordaindutako soldaten, alokairuen eta ordainsarien gaineko estatu-mailako zergetatik.

13. artikulua

(lehengo 14. artikulua)

Errentaren eta ondarearen gaineko zergak eta oinordetzen gaineko zerga aplikatze aldera, bai eta Batasuneko estatu kideen artean zergapetze bikoitza ekiditeko sinatutako hitzarmenak aplikatze aldera ere, Batasuneko funtzionarioak eta beste agente batzuk, baldin eta, Batasunaren zerbitzuko eginkizunak betetze hutsagatik, Batasunaren zerbitzuan sartzeko unean zuten egoitza fiskalari dago-kion estatuaz besteko estatu kide baten lurraldean (estatu hori ez den beste estatu batean, hain zuzen) bizilekua hartzen badute, egoitza azken estatu horretan gorde izan balute bezala aintzatsiko dira, bai beren bizilekuko estatuan, bai egoitza fiskalari dago-kionean, estatu hori Batasuneko kide bada. Xedapen hau ezkontideari ere aplikatuko zaio, bere kabuz irabazizko jarduera bati atxikita ez dagoen heinean, bai eta artikulua honetan aipatutako pertsonen ardurapeko eta zaintzapeko seme-alabei ere.

Aurreko lerrokadan aipatzen diren pertsonen dagozkien ondasun higigarriak, bizilekuko es-

tatuaren lurraldean kokatuta badaude, oinordetzen gaineko zergatik salbuetsita egongo dira estatu horretan. Horrelako ondasunak, zerga hori aplikatu ahal izateko, egoitza fiskalaren estatuan egongo balira bezala aintzatsiko dira, hirugarren estatuen eskubideen eta zergapetze bikoitzari buruzko nazioarteko hitzarmenetako xedapenen balizko aplikazioari kalterik egin gabe.

Nazioarteko beste erakunde batzuen zerbitzuan eginkizunak betetzeagatik soilik eskuratutako edozein egoitza, aldiz, ez da aintzat hartuko, artikulua honetako xedapenak aplikatzerakoan.

14. artikulua

(lehengo 15. artikulua)

Batasuneko funtzionarioei eta beste agente batzuei aplikatu beharreko gizarte-prestazioen araubidea Europako Parlamentuak eta Kontseiluak finkatuko dute legegintzako prozedura arruntaren arabera onartutako erregelamenduen bidez eta instituzio interesdunei kontsultatu ondoren.

15. artikulua

(lehengo 16. artikulua)

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak zehaztuko dute, legegintzako prozedura arruntaren arabera onartutako erregelamenduen bidez eta gainerako instituzio interesdunei kontsultatu ondoren, Batasuneko funtzionarioen eta beste enplegatu batzuen zein kategoriari aplikatuko zaizkien, osorik edo zati batean, 11. artikuluko, 12. artikuluen bigarren lerrokadako eta 13. artikuluko xedapenak.

Kategoria horietan sartuta dauden funtzionarioen eta beste enplegatu batzuen izenak, mailak eta helbideak aldian-aldian jakinaraziko zaizkie estatu kideetako gobernuari.

VI. KAPITULUA

BATASUNEAN BAIMENDUTAKO HIRUGARREN ESTATUEN ORDEZKARITZEN PRIBILEGIOAK ETA IMMUNITATEAK

16. artikulua

(lehengo 17. artikulua)

Batasunaren egoitza dagoen estatu kideak ohiko pribilegioak eta immunitateak emango dizkie Batasunean baimendutako hirugarren estatuetako ordezkariak.

VII. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

17. artikulua

(lehengo 18. artikulua)

Pribilegioak, immunitateak eta erraztasunak Batasunaren interesetan soilik emango zaizkie funtzionarioei eta beste enplegatu batzuei.

Batasuneko instituzio guztiak behartuta egongo dira funtzionario bati edo beste agente bati emandako immunitatea etetera, baldin eta beren ustez immunitate hori etetea ez bada Batasunaren interesen aurkakoa.

18. artikulua

(lehengo 19. artikulua)

Batasuneko instituzioek, protokolo hau aplikatzeko orduan, dagokien estatu kideetako agintari arduradunekin lankidetzan jardungo dute.

19. artikulua

(lehengo 20. artikulua)

Kontseilu Europarreko lehendakariari ere aplikatuko zaizkio 11. artikulutik 14.era bitartekoak (biak barne) eta 17. artikulua. Batzordeko kideei ere aplikatuko zaizkie.

20. artikulua

(lehengo 21. artikulua)

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko epailei, abokatu nagusiei, idazkariari eta txostengile-ondokoei ere aplikatuko zaizkie 11. artikulutik 14.a bitartekoak (biak barne) eta 17. artikulua, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren estatutuari buruzko protokolo 3. artikuluan epaileen eta abokatu nagusien jurisdikzio-immunitateari buruz jasotako xedapenei kalterik egin gabe.

21. artikulua

(lehengo 22. artikulua)

Protokolo hau Europako Inbertsio Bankuari, bere organoetako kideei, bere langileei eta beraren jardueretan parte hartzen duten estatu kideetako ordezkariari ere aplikatuko zaie, Bankuaren estatutuen gaineko protokolo 3. xedapenei kalterik egin gabe.

Europako Inbertsio Bankua, bestalde, salbuetsita egongo da antzeko izaerako edozein zergapetze fiskal edo parafiskaletatik bere ka-

pitaletan edozein gehitze gertatzen denean, bai eta bankuak bere egoitza duen estatuan horrekin lotuta egon daitezkeen askotariko formaltasunetatik. Bankuaren desegitea eta likidazioa ez dira inola ere zergapean egongo. Bankuaren eta bere organoen jarduera, azkenik, beren estatutuetan ezarritako baldintzetan gauzatzen denean, ez da negozio-bolumenaren gaineko zergaren menpe egongo.

22. artikulua

(lehengo 23. artikulua)

Protokolo hau Europako Banku Zentralari, bere organoetako kideei eta bere langileei ere aplikatuko zaie, Banku Zentralen Europako Sistemaren eta Europako Banku Zentralaren estatutuen gaineko protokoloan xedatutakoari kalterik egin gabe.

Europako Banku Zentrala salbuetsita egongo da, halaber, antzeko izaerako edozein zergapetze edo kargatatik bere kapitalean edozein gehitze gertatzen denean; gauza bera gertatzen da bankuak bere egoitza duen estatuan horrekin lotuta egon daitezkeen askotariko tramitekin ere. Bankuaren eta bere organoen jarduera, Banku Zentralen Europako Sistemaren eta Europako Banku Zentralaren estatutuetan ezarritakoaren arabera, ez da negozio-bolumenaren gaineko inolako zergaren menpe egongo.

PROTOKOLOA (8.a)

BATASUNA GIZA ESKUBIDEAK ETA OINARRIZKO ASKATASUNAK BABESTEKO EUROPAKO HITZARMENARI ATXIKITZEKO AKORDIOA DELA-ETA, EUROPAR BATASUNAREN TRATATUKO 6. ARTIKULUAREN 2. PARAGRAFOAK EZARRITAKOARI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,

BAT ETORRI DIRA honako xedapen hauetan, eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuari erantsiko zaizkio:

1. artikulua

Batasuna Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenari atxikitzeak akordioa (aurrerantz, «Europako Hitzarmena»), Europar Batasunaren Tratatu 6. artikuluko 2. paragrafoan dago aurreikusia; Batasunaren berariazko ezaugarriak gorde daitezke x-

datuko du, baita Batasunaren Zuzenbidearen berriazko ezaugarriak ere, bereziki honako hauei dagokienez:

a) Batasunak Europako Hitzarmenaren kontrol-erakundeetan izan dezakeen parte-hartzeari buruzko berriazko moduei;

b) Hirugarren estatuek jarritako errekursoak eta banakako errekursoak estatu kideei edo, egoki denean, Batasunari zuzentzen zaizkiola ziurtatzeko beharrezko mekanismoak.

2. artikulua

Lehen artikuluan aipatzen den akordioak ziurtatuko du atxikitze horrek ez diela erasango Batasunaren eskumenei edo haren instituzioen eskurantzeari. Era berean, akordioak ziurtatuko du bere xedapenetatik batek ere ez dela eragingo, ez estatu kideek Europako Hitzarmenari, eta, bereziki, hari buruzko protokoloak dagokienez duten egoerari, ez estatu kideek Europako Hitzarmenaren 15. artikulua erekin bat etorritik hitzarmen horretatik salbuetsiz hartzen dituzten neurriak, ez eta estatu kideek Europako Hitzarmenaren 57. artikulua erekin bat etorritik hitzarmen horri egindako erreserbei ere.

3. artikulua

Lehen artikuluan aipatutako akordioak ezin xedapenek ez dio eragingo Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 344. artikuluari.

PROTOKOLOA (9.a)

EUROPAR BATASUNAREN TRATATUAREN 16. ARTIKULUKO 4. PARAGRAFOA ETA EUROPAR BATASUNAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO TRATATUAREN 238. ARTIKULUKO 2. PARAGRAFOA, 2014KO AZAROAREN 1ETIK 2017KO MARTXOAREN 31RA ARTE, BATETIK, ETA 2017KO APIRILAREN 1ETIK AURRERA, BESTETIK, NOLA APLIKATU BEHAR DIREN ZEHAZTEN DUEN KONTSEILUAREN ERABAKIARI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,
KONTUAN HARTUZ Lisboako Tratatuaren onartzean, funts-funtsezkoa zela Kontseiluaren erabaki bat, Europar Batasunaren Tratatu 16. artikuluko 4. paragrafoa eta Europar Batasunaren

Funtzionamenduari buruzko Tratatu 238. artikuluko 2. paragrafoa, 2014ko azaroaren 1etik 2017ko martxoaren 31ra arte, batetik, eta 2017ko apirilaren 1etik aurrera, bestetik, nola aplikatu behar diren zehazteko (aurretik «Erabakia» deituko baitoigu).

BAT ETORRI DIRA honako xedapen hauetan, eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuari erantsiko zaizkio:

Artikulu bakarra

Erabakia edo horko edozein xedapen aldatu edo indargabetzeko edota horren aplikazio-eremua edo zentzua Batasunaren beste egintza juridiko baten bitartez zeharka aldatzeko proiekturik badago, Kontseilu Europarrak proiektu horri buruzko hausnarketa egingo du Kontseiluak aztertu baino lehen, eta adostasunez hartuko du erabakia, Europar Batasunaren Tratatu 15. artikuluko 4. paragrafoaren arabera.

PROTOKOLOA (10.a)

EUROPAR BATASUNAREN TRATATUKO 42. ARTIKULUA EZARRITAKO LANKIDETZA EGITURATU IRAUNKORRARI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,
IKUSIRIK Europar Batasunaren Tratatu 42. artikuluko 6. paragrafoa eta 42. artikulua

GOGOAN IZANDA Batasuna estatu kideen ekintzaren elkarganatzeko gero eta handiago bat lortzean oinarritutako atzerri- eta segurtasun-politika erkidea gauzatzen ari dela;

GOGOAN IZANDA segurtasun- eta defentsapolitika erkidea atzerri- eta segurtasun-politika erkidearen zati bat dela; bitarteko zibil eta militarretan oinarritutako ahalbide operatiboa bermatzen diola Batasunari; bitarteko horiek Batasunetik kanpo erabil ditzakeela Batasunak Europar Batasunaren Tratatu 43. artikuluan aipatutako misioetarako (bake-gordetzea, gatazkei aurrea hartzea eta nazioarteko segurtasuna indartzea), Nazio Batuen Gutunaren printzipioekin bat etorritik; zeregin horiek betetzea bere gain hartzen dutela estatu kideek «indar-multzoko bakarraren» printzipioarekin bat etorritik eskaintako ahalbide militarrek erabiliz.

GOGOAN IZANDA Batasunaren segurtasun- eta defentsapolitika erkidea ez diola erasango zenbait estatu kideren segurtasun- eta defentsapolitika berriazkoari.

GOGOAN IZANDA Batasunaren segurtasun- eta defentsa-politika erkideak Ipar Atlantikoko Tratatuen arabera betebeharrak, hau da, beren defentsa erkidea Ipar Atlantikoko Tratatuko Erakundean gauzatu ikusten duten estatu kideen betebeharrak errespetatzen dituela –erakunde horrek bere kideen defentsa kolektiboren oinarria izaten jarraituko du–, eta bateragarria dela esparru horretan ezarritako segurtasun- eta defentsa-politika erkidearekin.

SINETSITA segurtasun- eta defentsa-politika erkidearen arloan Batasunak paper tinkoagoa izateak Aliantza Atlantikoa berri baten bizitasunari lagunduko diola, "Berlin Plus" direlako akordioekin bat etorritz;

DELIBERATUTA ziurtatzera Batasuna gai dela nazioarteko erkidegoan dituen erantzukizunak bete-betean bere gain hartzeko;

AITORTUZ Nazio Batuen Erakundeak Batasunaren laguntza eska dezakeela Nazio Batuen Gutunaren VI. eta VII. kapituluaren arabera bere gain hartutako misioak premiaz abian jartzeko;

AITORTUZ segurtasun- eta defentsa-politika indartzeak ahalginak eskatuko dizkiela estatu kideei ahalbideen eremuan;

JABETUTA segurtasunari eta defentsari buruzko europar politikako urrats berri bati ekiteak dagokien estatu kideen ahalgin deliberratu bat dakarrela;

GOGOAN IZANDA zein garrantzitsua den Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkaria erabat lot dakien lankidetzaren egituratu iraunkorreko lanei;

BAT ETORRI DIRA honako xedapen hauetan, eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuari erantsiko zaizkio:

1. artikulua

Lankidetzaren egituratu iraunkorra, Europar Batasunaren Tratatuko 42. artikuluen 6. paragrafoak aipatzen duena, estatu kide guztientzat egongo da irekita, Lisboako Tratatua indarrean sartzen den egunetik, baldin eta honako konpromiso hauek hartzen badituzte:

a) beren defentsa-ahalbideen garapenari modu trinkoago batean ekitea, beren estatu-mailako ekarpenak garatuz eta, egoki denean, arlo hauetan parte hartuz: indar multinazionaletan, Europako defentsako ekipamendu-programa nagusietan, eta defentsa-ahalbideen garapen, ikerketa, eskurapen eta armamentuko Agentziaren jardueran («aurrerantzean, Europako Defentsa Agentzia»), eta

b) Ahalmena izatea, beranduenez ere 2007an,

bai estatu-mailan, bai indar-talde multinazional bateko taldekide gisa, aurreikusitako misioetarako berariazko borroka-taldeak hornitzeko, maila taktikoan gudu-talde gisa egituratuak, sostengu-elementuekin (besteak beste, garraioa eta logistika), Europar Batasunaren Tratatuko 43. artikuluan aipatzen diren misioei ekiteko gai izango direnak 5 eta 30 eguneko epe batean, bereziki Nazio Batuen Erakundearen eskaerei erantzunez, eta 30 eguneko hasierako aldi batean iraun dezaketenak eta gutxienez 120 egun arte luza daitezkeenak.

2. artikulua

Lehen artikuluan ezarritako helburuak lortzeko, lankidetzaren egituratu iraunkorrean parte hartzen duten estatu kideek konpromiso hauek hartuko dituzte beren gain:

a) Lisboako Tratatua indarrean sartzen denetik, lankidetzaren aritzea, defentsa-ekipamenduen arloko inbertsio-gastuen mailari dagozkion helburu onartuak lortzeki begira, eta helburu horiek aldi berean behin berrikustea, segurtasun-inbentzioaren eta Batasunaren nazioarteko erantzukizunaren arabera;

b) ahal den neurrian, beren defentsa-tresnak elkarri hurbilduko zaizkio, eta, bereziki, beharrezan militarrek zenbatekoak diren harmonizatuko da, beren defentsa-bitartekoak nahiz -ahalbideak batera jarri eta, hala behar izanez gero, espezializatu egingo dira, prestakuntzaren eta logistikaren arloetan lankidetzaren sustatuta;

c) neurri konkretuak hartuko dira, beren indarren erabilgarritasuna, elkarreragingarritasuna, malgutasuna eta hedatze-ahalmena areagotzeko, eta, horretarako, bereziki, indar-proiektuak dagozkion helburu erkideak identifikatu dira, estatu-mailan erabakiak hartzeko prozedurak berrikusteko aukera ere barne hartuta.

d) elkarrekin lan egitea, besteak beste ikuspegi multinazionalen bidez, eta beharrezko neurriak hartzen dituztela ziurtatzeko, eta honi dagokionez Ipar Atlantikoko Tratatuen Erakundearen barruan bere gain hartuak dituzten konpromisoei kalterik egin gabe, ahalbideen garapen-mekanismoaren esparruan antzematen diren gabeziak estaltzeko.

e) parte hartzea, egoki denean, ekipamendu-programa erkideak edo europarrak garatzen, Europako Defentsa Agentziaren esparruan.

3. artikulua

Europako Defentsa Agentziak ahalbideen iguruko ekarpenak ebaluatzen lagunduko du

(parte hartzen duten estatu kideen aldizkako ebaluazioa egingo du), bereziki 2. artikuluan oinarrituz ezarriko diren irizpideekin (besteak beste) bat etorritz egindako ekarpenak, eta horri buruzko txostenak aurkeztuko ditu gutxienez urtean behin. Ebaluazioa oinarri gisa erabili ahal izango da Kontseiluak hartutako Europako gomendioetarako eta erabakietarako, alegia, hark Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 46. artikulua-ekin bat etorritz hartutako gomendio eta erabakietarako.

PROTOKOLOA (11.a)

EUROPAR BATASUNAREN TRATATUKO 42. ARTIKULUARI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,

KONTUAN HARTUZ Europar Batasunaren Tratatuak 42. artikuluko 2. paragrafoan jasotzen diren xedapenak osoki aplikatzeko beharrezana,

KONTUAN HARTUZ Batasunak 42. artikulua-aren arabera gauzatuko duen politikak ez diola eragingo Batasuneko zenbait estatu kideen segurtasun- eta defentsa-politikaren izaera bereziari; errespetatu egingo dituela Ipar Atlantikoko Tratatuak zenbait estaturen-tzat —defentsa bateratua Ipar Atlantikoko Tratatuaren Erakundearen barruan (NATO) egin behar dutela uste duten estatuentzat— ezarritako betebeharrak, bateragarria izan behar duela esparru horretan ezarritako segurtasun- eta defentsa-politika erkidearekin.

BAT ETORRI DIRA honako xedapen honetan, eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuari erantsiko zaio:

Europar Batasunak, Mendebaldeko Europar Batasunarekin batera, beren artean lankidetzaz sendoagoa izateko akordioak prestatuko ditu.

PROTOKOLOA (12.a)

DEFIZITA GEHIEGIZKOA BADA APLIKATU BEHARREKO PROZEDURARI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,

ASMOA IZANIK Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 126. artikulua- aipatzen dituen gehiegizko defizitaren prozedura motak ezartzea,

BAT ETORRI DIRA honako xedapen hauetan, eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar

Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuari erantsiko zaizkio:

1. artikulua

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 126. artikulua-aren 2. paragrafoan aipatzen diren erreferentzia-balioak honako hauek izango dira:

- aurreikusitako edo benetako defizit publikoaren eta merkatu-prezioen arabera barne produktu gordinaren arteko proportzioari dagokionez, % 3,
- zor publikoa eta merkatu-prezioen arabera barne produktu gordinaren arteko proportzioari dagokionez, % 60.

2. artikulua

Tratatu horretako 126. artikulua-aren eta protokolo honen ondorioetarako, honela ulertu behar dira honako hauek:

- "publikoa" izango da herri administrazioei dagokiena, hau da Administrazio Zentralari, Eskualde edo Toki Administrazioari eta Gizarte Segurantzaren funtsei dagokiena, merkataritza-eragiketak salbuetsita, Kontu Ekonomiko Integratuen Europako Sistemak zehazten duenaren arabera;
- "defizita", zorpetze garbiaren bolumena izango da, Kontu Ekonomiko Integratuen Europako Sistemak zehazten duenaren arabera;
- "inbertsioa", kapital finkoa eratze gordina izango da, Kontu Ekonomiko Integratuen Europako Sistemak zehazten duenaren arabera,
- "zorra", urte bukaeran bizirik dirauen zor gordin guztia izango da, haren balio nominala hartuta, gobernu orokorreko sektoreen barruan kontsolidatua lehenbiziko marran ezarritako definizioaren arabera.

3. artikulua

Defizita gehiegizkoa denetan aplikatu beharreko prozedura eraginkorra izango dela bermatzeko, estatu kideetako gobernuak, prozedura horri jarraituz, gobernu orokorraren defiziten ardura izango dute, 2. artikuluko lehenengo marran zehaztutakoarekin bat etorritz. Estatu kideek bermatu beharko dute estatuak aurrekontu gaitan dituzten prozedurek aukera emango dietela arlo horretan dituzten betebeharrak aurre egiteko, betebeharrak horiek Tratatuetatik eratorritakoak direlarik. Estatu kideek Batzordeari al-

dian-aldian eta luzamendurik gabe, aurreikusitako nahiz benetako defiziten berri emango diote, baita beren zorren mailaren berri ere.

4. artikulua

Batzordeak emango ditu protokolo hau ezartzeko erabili beharreko datu estatistikoak.

PROTOKOLOA (13.a)

ELKARGANATZE-IRIZPIDEEI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,

ASMOA IZANIK Batasunaren gidari izango diren elkarganatze-irizpideak ezartzea, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 140. artikulua jasotako salbuespenetako bati helduta dauden estatu kideen salbuespenak indargabetzeko erabakia hartu ahal izateko,

BAT ETORRI DIRA honako xedapen hauetan, eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuari erantsiko zaizkio:

1. artikulua

Prezioen egonkortasunari buruzko irizpidea, Tratatu 140. artikuluko 1. paragrafoaren lehenengo marran jasotzen dena, honela ulertuko da: kasuan kasuko estatu kideak prezioetan egonkortasun-maila iraunkorra eduki behar du, eta estatu kide horren batez besteko inflazio-tasa, azterketa egin aurretik urtebetez begiratuta, ezin da prezioetan egonkortasun maila onena izan duten hiru estatu kideena baino % 1,5 handiagoa izan. Inflazioa neurtzeko, oinarri konparagarri baten gainean Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) erabiliko da, hori estatu bakoitzak nola zehazten duen kontuan harturik.

2. artikulua

Aurrekontu publikoaren egoerari buruzko irizpidea, Tratatu horretako 140. artikuluko 1. paragrafoaren bigarren marran jasotzen dena, honela ulertuko da: azterketa egiteko garaian, kasuan kasuko estatu kidea ez da Kontseiluaren erabaki baten hartzailerik izango, baldin eta horretan adierazten bada Tratatu horretako 126. artikuluko 6. paragrafoaren arabera estatu kide horretan gehiegizko defizita dagoela.

3. artikulua

Europako diru-sistemaren truke-tasen mekanismoan parte hartzeari buruzko irizpidea, Tratatu 140. artikuluko 1. paragrafoko hirugarren marran jasotakoa, honela ulertu behar da: kasuan kasuko estatu kideak Europako diru-sistemaren truke-tasen mekanismoak ezarritako ohiko fluktuazio-marjinak errespetatu behar ditu, tentsio larriarik gabe, eta, gutxienez, azterketa egin aurreko bi urteetan. Zehazki, kasuan kasuko estatu kideak ez du, adierazitako aldi horretan, bere ekimenez, bere diruaren tasa zentral bilateralak deialuatuko euroarekiko.

4. artikulua

Interes-tasak elkarganatzeari buruzko irizpidea, Tratatu 140. artikuluko 1. paragrafoaren laugarren marran jasotakoa, honela ulertuko da: azterketa egin aurretik urtebetez kasuan kasuko estatu kideak gorde duen epe luzeko interes nominala batez beste ez dela prezioetan egonkortasun maila onena izan duten hiru estatu kideena baino % 2 handiagoa izango. Interes-tasak neurtzeko, estatuak epe luzean dituen bonoekiko edo parekagarri suertatzen diren beste balio-titulu batzuekiko egingo da, herrialde bakoitzak zehaztu edo erabaki duena kontuan harturik.

5. artikulua

Batzordeak emango ditu protokolo hau ezartzeko erabili beharreko datu estatistikoak.

6. artikulua

Batzordeak proposaturik eta Europako Parlamentuari, EBZari eta Ekonomia eta Finantza Komiteari aurretiaz kontsulta eginda, Kontseiluak aho batez xedapen egokiak hartuko ditu Tratatuaren 140. artikulua aipatzen dituen elkarganatze irizpideen gaineko xehetasunak zehazteko helburuz, eta horiek orduan protokolo hau ordeztuko dute.

PROTOKOLOA (14.a)

EUROTALDEARI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,

ASMOA IZANIK Europar Batasunean ekonomia-aren hazkunde-areagotzeko baldintzak bi-

deratzea, eta, horretarako, euro-eremuko politika ekonomikoen arteko koordinazio geroz eta estuagoa ezartzea;

JABETUTA beharrezkoa dela diru gisa euroa darabilten estatu kideen artean elkarrizketa sendotuari eusteko balio duten xedapen bereziak ezartzea, euroa Europar Batasuneko estatu kide guztien diru bakarra noiz bihurtuko zain,

BAT ETORRI DIRA honako xedapen hauetan, eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuari erantsiko zaizkio:

1. artikulua

Diru gisa euroa darabilten estatu kideetako ministroek bilera informalak edukiko dituzte. Biler horiek behar diren guztietan egingo dira, diru bakarrari dagokionez estatu kideek elkarren artean dituzten berariazko erantzukizunei loturiko gaiak aztertzeko. Batzordeak parte hartuko du bileretan. Europako Banku Zentrari ere egingo zaio gonbita, eta bilera horiek prestatzeaz diru gisa euroa darabilten estatu kideetako finantza-arloko ministroen ordezkariak eta Batzordeko ordezkariak arduratuko dira.

2. artikulua

Diru gisa euroa darabilten estatu kideetako ministroek lehendakari bat hautatuko dute estatu kide horien arteko gehiengoz, bi urte eta erdiko aldi baterako.

PROTOKOLOA (15.a)

BRITAINIA HANDIKO ETA IPAR IRLANDAKO ERRESUMA BATUAREN GAINEKO ZENBAIT XEDAPENI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,

AITORTUZ Erresuma Batua ez dagoela behartuta eta ez duela euroa onartzeko konpromisorik hartu, harik eta bere gobernuak eta parlamentuak, nor bere aldetik, hori egiteko erabaki bat hartu arte,

AINTZATETSIZ 1996ko urriaren 16an eta 1997ko urriaren 30ean Erresuma Batuko Gobernuak Kontseiluari jakinarazi ziola ez zuela ekonomia- eta diru-batasunaren hirugarren fasean parte hartzeko asmorik,

BEGIRATUZ Erresuma Batuko Gobernuaren

ren jokaerari, hau da, dituen zorpetze-beharrak zorra sektore pribatuari salduz finantzatzeko jokaerari,

BAT ETORRI DIRA honako xedapen hauetan, eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuari erantsiko zaizkio:

1. Erresuma Batua ez da euroa onartzera behartuta egongo, non eta Kontseiluari jakinarazten ez dion horretarako asmoa duela.

2. Erresuma Batuko Gobernuak 1996ko urriaren 16an eta 1997ko urriaren 30an Kontseiluari egindako jakinarazpenak kontuan izanda, 3.etik 8.era bitarteko puntuak eta 10. puntua aplikatuko zaizkio Erresuma Batuari.

3. Erresuma Batuk bere eskumenak gordeko ditu diru-politikaren arloan, bere barne-legeriaren arabera.

4. Honako hauek ez zaizkio Erresuma Batuari aplikatuko: Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 119. artikuluko bigarren lerrokada, 126. artikuluko 1., 9. eta 11. paragrafoak, 127. artikuluko 1.tik 5.era bitarteko paragrafoak, 128. artikulua, 130., 131., 132., 133. eta 138. artikulua, 140. artikuluko 3. paragrafoa, 219. artikulua, 282. artikuluko 2. paragrafoa, lehenengo eta azken esaldiak salbu; 282 artikuluko 5. paragrafoa eta 283. artikulua. Tratatu horretako 121. artikuluko 2. paragrafoa ere ez zaio aplikatuko, euro-eremuari oro har dagozkion ekonomia-politikaren orientabide orokorren zatiak onartzeaz den bezainbatean. Xedapen horietan Batasunari edo estatu kideei buruz egiten diren aipamenek ez diote eragingo Erresuma Batuari; estatuetako banku zentralei buruzkoek, berriz, ez diote eragingo Ingalaterrako Bankuari.

5. Erresuma Batua gehiegizko defizit publiko saihesten ahaleginduko da.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 143. eta 144. artikulua aurrerantzean ere aplikatuko zaizkio Erresuma Batuari. 134. artikuluko 4. paragrafoa eta 142. artikulua salbuespen bati helduta balego bezala aplikatuko zaizkio Erresuma Batuari.

6. Erresuma Batuen boto-eskubidea eten egingo da 4. puntuan aipatzen diren artikuluetan zehazten diren Kontseiluaren egintzei dagokionez eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 139. artikuluko 4. paragrafoko lehenengo lerrokadan aipatzen diren kasuetan. Xede horretarako, Tratatu horren 139. artikuluko 4. paragrafoko bigarren lerrokada aplikatuko da.

Halaber, Erresuma Batuk ez du inolako eskubiderik izango EBZeko Batzorde Betearazle-

ko lehendakaria, lehendakariordea eta gainerako kideak izendatzen parte hartzeko, Tratatu horretako 283. artikuluko 2. paragrafoko bigarren lerrokadan xedatutakoaren arabera.

7. Banku Zentralen Europako Sistemaren eta Europako Banku Zentralaren estatutuen («Estatutuak») gaineko protokolo artikulua hauek ez zaizkio Erresuma Batuari aplikatuko: 3, 4, 6, 7, 9.2, 10.1, 10.3, 11.2, 12.1, 14, 16, 18, 19, 20, 22, 23, 26, 27, 30, 31, 32, 33, 34 eta 49.

Artikulu horietan Batasunari edo estatu kideei buruz egiten diren aipamenek ez diote eragingo Erresuma Batuari; estatuetako banku zentraleri buruzkoek, berriz, ez diote eragingo Ingalaterrako Bankuari.

Estatutuetako 10.3 eta 30.2 artikuluetan "Europako Banku Zentralaren kapital harpidetu"ari egiten zaizkion aipamenek ez dute barne hartuko Ingalaterrako Bankuak harpidetutako kapitala.

8. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 141. artikuluko 1. paragrafoak eta Estatutuen 43tik 47ra bitarteko artikuluek eragina izango dute, salbuespen bati helduta dagoen estatu kideren bat egon zein ez egon, aldaketa hauek dituztela:

a) EBZaren eta EDIren funtzioei 43. artikuluan egiten zaizkien erreferentziek barne hartuko dituzte euroa indarrean sartu ondoren Erresuma Batuk euroa ez onartzea erabaki izanagatik oraindik burutu behar diren funtzioak.

b) 46. artikuluan aipatzen diren funtzioez gain, EBZak aholkua eta laguntza emango du Kontseiluak Erresuma Batuari buruz hartu beharreko edozein erabakiren prestaketan ere, baldin eta erabaki hori protokolo honetako 9. puntuko a) eta c) idatz-zatietan xedatutakoaren arabera hartzten bada.

c) Ingalaterrako Bankuak EBZaren kapitalaren bere harpidetza ordainduko du, haren funtzionamendu-gastuetarako ekarpen gisa, salbuespen bati helduta dauden estatu kideetako banku zentralen baldintza beretan.

9. Erresuma Batuk edozein unetan jakinarazi diezaioke Kontseiluari euroa onartzeko asmoa duela. Kasu horretan:

a) Beharrezko baldintzak betetzen baditu baino ez du izango eskubidea euroa onartzeko Erresuma Batuk. Kontseiluak, Erresuma Batuen eskariz eta baldintzen arabera eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 140. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan ezarritako prozedurarekin bat etorritik, beharrezko baldintzak betetzen ote dituen erabakiko du.

b) Ingalaterrako Bankuak bere kapital harpidetua ordainduko du, atzerri-erreserbako

aktiboak EBZera insuldatuko ditu, eta salbuespena kendu zaion estatu kide baten baldintza beretan lagunduko die haren erreserbei.

c) Kontseiluak, Tratatu 140. artikuluen 3. paragrafoan ezarritako baldintzen eta prozeduraren arabera, Erresuma Batuk euroa onartzea ahalbidetzeko beharrezko beste neurri guztiak hartuko ditu.

Baldin eta Erresuma Batuk euroa artikuluan honetan xedatutakoaren arabera onartzen badu, protokolo honetako 3tik 8ra bitarteko puntuek eragina galduko dute.

10. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 123. artikuluan eta 21.1 artikuluan eta estatutuetako 21.1 artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, Erresuma Batuko Gobernuak Ingalaterrako Bankuarekin daukan kreditu-lerroari («Ways and Means facility») eutsi ahal izango dio Erresuma Batuk euroa onartzen ez badu eta onartzen duen arte.

PROTOKOLOA (16.a)

DANIMARKARI BURUZKO ZENBAIT XEDAPENENI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,

KONTUAN HARTUZ Danimarkako Konstituzioak bere salbuespenari uko egin aurretik erreferenduma egitea ekar dezaketzen zenbait xedapen dauzkala,

AINTZATETSIZ 1993ko azaroaren 3an Danimarkako Gobernuak Kontseiluari jakinarazi ziola ez zuela ekonomia- eta diru-batasunaren hirugarren fasean parte hartzeko asmorik;

BAT ETORRI DIRA honako xedapen hauetan, eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuari erantsiko zaizkio:

1. Danimarkako Gobernuak 1993ko azaroaren 3an Kontseiluari egindako jakinarazpena kontuan izanda, Danimarkak salbuespen bat izango du. Salbuespen horren ondorioz, Tratatu eta BZESren estatutuetan salbuespenei buruz diharduten artikulua eta xedapen guztiak aplikatu beharko zaizkio Danimarkari.

2. Salbuespenaren indargabetzeari dagokionez, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko 140. artikuluan ezarritako prozedura Danimarkaren eskariz baino ez da hasiko.

3. Salbuespen-egoera indargabetzen bada, protokolo honetako xedapenek aplikatu beharrekoak izateari utziko diote.

PROTOKOLOA (17.a)

DANIMARKARI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,

ASMOA IZANIK bereziki Danimarkari dagozkion arazo batzuk konpontzea,

BAT ETORRI DIRA honako xedapen hauetan, eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuari erantsiko zaizkio:

Banku Zentralen Europako Sistemaren eta Europako Banku Zentralaren estatutuen gaineko protokolo 14. artikuluko xedapenek ez diote eragingo Danimarkako Banku Nazionalak Danimarkako Erresuman Batasunaren baitakoak ez diren aldeei dagokienez duen eskubideari, alde horiei dagozkien eginkizunak betetzeko duen eskubideari, alegia.

PROTOKOLOA (18.a)

FRANTZIARI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,

ASMOA IZANIK Frantziari buruzko bera-riazko puntu bat aintzat hartzea,

BAT ETORRI DIRA honako xedapen hauetan, eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuari erantsiko zaizkio:

Frantziak Kaledonia Berrian, Polinesia Frantsean, eta Wallis eta Futunan dirua jaulkitzeko pribilegioa gordeko du bere estatu-legeek ezarritako baldintzen arabera, eta soilik berak izango du eskubidea Ozeano Bareko Finantza Erkidegoko frankoaren parekotasuna finkatzeko.

PROTOKOLOA (19.a)

EUROPAR BATASUNAREN ESPARRUAN SARTUTAKO SCHENGENGO ALT XORRARI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,

OHARTUTA Schengengo altxorraren xedapenak, hau da, muga erkideetako kontrolen eza- batze mailakatuari buruzko akordioak -1985eko ekainaren 14an eta 1990eko ekainaren 19an Europar Batasuneko zenbait estatu kidek Schengen sinatu zituzten akordioak, hain zu- zen-, bai eta haiekin lotutako zenbait akordio eta haietan oinarrituz hartutako zenbait arau ere, Europar Batasunean txertatu direla 1997ko

urriaren 2ko Amsterdamgo Tratatuaren bitar- tez,

ASMOA IZANIK Schengengo altxorra gor- detzea, Amsterdamgo Tratatu indarrean sar- tu zenez geroztik garatu den bezala, eta altxor hori garatzea, Batasuneko herritarrei barneko mugarik gabeko askatasun-, segurtasun- eta jus- tizia-esparru bat eskaintzeko helburua lor- tzen laguntzeko,

KONTUAN HARTUZ Danimarkaren jarrera berezia;

KONTUAN HARTUZ Irlandak eta Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuak ez dutela parte hartzen Schengengo altxorraren xe- dapen guztietan; eta, nolanahi ere, aurreikuspen bat egin beharko litzatekeela, estatu kide horiei altxor honetako beste xedapen batzuk osorik edo zati batean onartzea ahalbidetzeko;

AITORTUZ, ondorioz, beharrezko dela Tra- tatuetan zenbait estatu kideren arteko lankidetz- a indartuari buruz xedatutakoaz baliatzea,

KONTUAN HARTUZ Islandiako Errepublik- a- rekin eta Norvegiako Erresumarekin harreman berezi bat edukitzeko beharra, bi estatu horiek Europako Iparraldeko Pasaporte Batasunaren xe- dapenek behartzen baitituzte, Europar Batasu- neko kide diren estatu nordikoekin batera,

BAT ETORRI DIRA honako xedapen hauetan, eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tra- tatuari erantsiko zaizkio:

1. artikulua

Ondoren aipatzen diren herrialde hauek guztiek baimena dute beren artean lankidetz- a indartua ezartzeko Kontseiluak zehaztutako xedapenei dagozkien arloetan, «Schengengo altxorra» eratzten dutenetan, alegia: Belgikako Erresumak, Bulgariako Errepublikak, Txekiar Errepublikak, Danimarkako Erresumak, Ale- mania-ko Errepublika Federalak, Estoniako Erre- publikak, Heleniar Errepublikak, Espainiako Erresumak, Frantziako Errepublikak, Italiako Errepublikak, Zipreko Errepublikak, Letoniako Errepublikak, Lituaniako Errepublikak, Luxen- burgoko Dukerri Handiak, Hungariako Errepu- blikak, Maltako Errepublikak, Herbehereetako Erresumak, Austriako Errepublikak, Poloniako Errepublikak, Portugalgo Errepublikak, Erru- maniak, Esloveniako Errepublikak, Eslovakiako Errepublikak, Finlandiako Errepublikak eta Suediako Erresumak. Lankidetz- a hori Batasu- neko instituzioen eta zuzenbidearen esparruan gauzatuko da eta Konstituzioaren xedapen ego- kiak aintzat hartuz.

2. artikulua

Schengengo altxorra 1. artikuluan aipatutako estatu kideei aplikatuko zaie, betiere, atxikitze-tratatuari eta -aktari buruzko protokolo-ko 3. artikuluari kalterik egin gabe. Kontseiluak berak ordeztuko du Schengengo akordioen bidez eratutako Batzorde Betearazlea.

3. artikulua

Schengengo altxorraren garapen bat dakarten neurriak hartzean Danimarkak izango duen parte hartzea, bai eta neurri horiek abian jartzea eta Danimarkan aplikatzea ere, Danimarkaren jarreraren gaineko protokolo-ko xedapen egokiek arautuko dute.

4. artikulua

Irlandak eta Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuak, noiznahi eskatu ahal izango dute Schengengo altxorraren xedapen batzuetan edo guztietan parte hartzea.

Kontseiluak eskaera horri buruzko erabaki bat hartuko du. Lehen artikuluan aipatzen diren kideak eta dagokion estatu kidearen gobernu-ko ordezkaria aho batez ados jarrita hartuko du erabakia.

5. artikulua

1. Schengengo altxorra garatzeko proposamenak eta ekimenak Tratatuetan dagozkien xedapenen menpe egongo dira.

Testuinguru honetan, baldin eta Irlandak edo Erresuma Batuak, edo biek, Kontseiluko lehendakariari idatziz eta arazoizko epe batean, parte hartu nahi dutela jakinarazten ez badiote, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuko 329. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen den baimena 1. artikuluan aipatzen diren estatu kideei eta Irlandari edo Erresuma Batuari eman zaiela joko da, eurretako edozeinek kasuan kasuko lankidetzar-arloetan parte hartu nahi duenean.

2. Baldin eta, 4. artikulua-aren arabera hartutako erabaki bat dela-eta, ondorioa ateratzen bada Irlandak edo Erresuma Batuak jakinarazpen hori egin dutela, hala eta ere, Kontseiluari jakinarazi ahal izango diote, idatziz, ez duela parte hartu nahi dena delako proposamen edo ekimen horretan; hiru hilabeteko epea izango dute horretarako. Hala eginez gero, Irlandak edo Erresuma Batuak ez dute erabaki horretan parte hartuko. Azken jakinarazpen horren ondoren,

Schengengo altxorra garatzeko neurri hori onartzeko prozedura bertan behera utziko da 3. edo 4. paragrafoetan ezarritako prozedura amaitu artean edo prozeduraren edozein unetan jakinarazpen horri atzera eragiten zaion artean.

3. Bigarren paragrafoan aipatzen den jakinarazpena egin duen estatu kideari ez zaio aplikatzen jarraituko Kontseiluak 4. artikulua-aren arabera hartutako ezein erabaki. Eta, aplikatzeari utzi, Kontseiluak erabakitako heinean utziko zaio, erabaki horretan proposatutako neurria indarrean sartzeko aurreikusten den egunetik bertatik, eta, betiere, Kontseiluak geroago, Batzordeak proposaturik eta gehiengo kualifikatuz hartuko duen erabaki batean zehaztuko diren baldintzen arabera. Erabaki hori honako irizpide hauen arabera hartuko da: Kontseilua saiaturiko da dena delako Estatu horren parte hartzea ahalik eta zabalena izan dadin, eta, orobat, Schengengo altxorraren alderdi batzuen eta besteen eraginkortasunari eragozpen larriarik ez ezartzen eta aldi berean haien arteko koherentzia zaintzen. Batzordeak ahal bezain laster aurreikutsiko ditu proposamenak, 2. paragrafoan aipatzen den jakinarazpena gertatuz geroztik. Batzordeak proposamena aurkeztu eta lau hilabeteko epearen barruan emango du bere iritzia Kontseiluak, hala behar izanez gero elkarren segidako bi bileretarako deia egin ostean.

4. Behin lau hilabeteko epe hori igarotakoa Kontseiluak ez badu erabakirik hartu, estatu kide batek berehala eskatu ahal izango du auzia Kontseilu Europarrari igor dakiola. Hala gertatzen bada, Kontseilu Europarrak, Batzordeak proposaturik, erabaki bat hartu beharko du hurrengo bileran, gehiengo kualifikatuz, betiere 3. paragrafoan aurreikusitako irizpideekin bat etorriz.

5. Baldin eta, 3. eta 4. paragrafoetan aurreikusitako prozeduraren amaieran, Kontseiluak edo, hala badagokio, Kontseilu Europarrak, ez badu erabakirik hartu, amaitutzat emango da Schengengo altxorra garatzeko neurria onartzeko prozeduraren etendura. Baldin eta neurri hori geroago hartzen bada, Kontseiluak 4. artikulua-aren arabera onartutako erabaki oro indarrean sartzekoa den egunetik bertatik utziko zaio estatu kideari aplikatzeari, eta, utzi ere, Batzordeak erabakitako heinean eta baldintzen arabera utziko zaio aplikatzeari. Hala egingo da non eta, neurria onartu aurretik, dena delako estatu kide horrek ez duen kentzen 2. paragrafoan aurreikusitako jakinarazpen hori. Batzordeak, beranduenez ere, neurria onartzeko egunean emango du bere iritzia. Erabakia onartzerakoan, Batzordeak 3. paragrafoan au-

rreikusitako irizpideak errespetatu beharko ditu.

6. artikulua

Islandiako Errepublika eta Norvegiako Erresuma Schengengo altxorra abian jartzearekin eta altxor horren areagoko garapenarekin elkartuko dira. Bidezko prozedurak adostuko dira horretarako, Kontseiluak estatu horiekin hitzartuko duen akordio baten bidez, 1. artikuluan aipatutako Kontseiluko kideen aho bateko erabakiz. Akordio horrek, besteak beste, protokolo hau aplikatzeak sortutako edozein finantza-ondoriotan Islandiak eta Norvegiak duten parte-hartzeari buruzko xedapenak jasoko ditu.

Kontseiluak, aho batez, akordio independente bat hitzartuko du Islandiarekin eta Norvegiarekin, alde batetik, Irlandaren eta Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuen eta, bestetik, Islandiaren eta Norvegiaren arteko eskubideak eta betebeharrak zehazteko, estatu horiei aplikatuko zaizkien Schengengo altxorreko eremuetan.

7. artikulua

Europar Batasunean estatu kide berriak onartzeko negoziazioetan, Batasuneko kide bihurtu nahi duen estatu orok oso-osorik onartu behar ditu Schengengo altxorra eta instituzioek altxor horren eremuan hartutako beste neurri batzuk.

PROTOKOLOA (20.a)

EUROPAR BATASUNAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO TRATATUKO 26. ARTIKULUAREN ZENBAIT ALDERDI ERRESUMA BATUAN ETA IRLANDAN APLIKATZEARI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,

ASMOA IZANIK Erresuma Batuari eta Irlandari buruzko zenbait arazo konpontzea,

IKUSIRIK urte askoan bidaia-akordio bereziak izan direla Erresuma Batuen eta Irlandaren artean,

BAT ETORRI DIRA honako xedapen hauetan, eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuari erantsiko zaizkio:

1. artikulua

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuko 26. eta 77. artikuluetan xedatutakoa gorabehera, tratatu horren ondorioz onartutako edozein neurritan, Europar Batasunaren Tratatuan edo Batasunak edo bere estatu kideek hirugarren estatu batekin edo batzuekin hitzartutako nazioarteko edozein akordiotan xedatutakoa gorabehera, Erresuma Batuk eskubidea izango du bere lurraldean sartu nahi duten pertsonen beharrezko iritzitako kontrolak egiteko beste estatu kide batzuekin dituen mugaldeen, xede hauetarako:

a) Erresuma Batuen lurraldean sartzeko duten eskubidea egiaztatzeko, bai estatu kideetako herritarrena, bai Batasunaren Zuzenbideak emandako eskubideez baliatzen diren haien ardurapeko pertsonena, baita, Erresuma Batua rentzat lotura-indarrekoa den akordio batek horrelako eskubideak ematen dizkienean, beste estatu batzuetako herritarrena ere; eta

b) beste pertsona batzuei Erresuma Batuan sartzeko baimena ematen dien ala ez erabakitzeko.

Ez Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuko 26. eta 77. artikuluek, ez Tratatu horren ez Europar Batasunaren Tratatuko beste edozein xedapenek ez dio inolako kalterik egingo Erresuma Batuk horrelako kontrolak onartzeko edo egiteko duen eskubideari. Artikulu honetan Erresuma Batuk egiten diren aipamenek Erresuma Batuen mendeko beste lurralde batzuk ere hartuko dituzte, haien kanpo-harremanak bere gain hartuak baditu.

2. artikulua

Erresuma Batuk eta Irlandak beren artean akordioak egiten jarrai dezakete pertsonen beren lurraldeen artean (Bidaia Eremu Erki-dea edo "the Common Travel Area") zirkulatzeari buruz, protokolo honetako 1. artikuluko lehenengo lerrokadako a) Idatz-zatian aipatutako pertsonen eskubideak erabat errespetatuta. Ondorioz, akordio horiei eusten dieten bitartean, protokolo honetako 1. artikuluan xedatutakoa Erresuma Batuari aplikatzen zaion modu eta baldintza berberetan aplikatuko zaio Irlandari ere. Ez Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuko 26. eta 77. artikuluek, ez Tratatu horretako edo Europar Batasunaren Tratatuko beste edozein xedapenek, ez horien ondorioz

onartutako edozein neurrik, ez die eragingo akordio horiei.

3. artikulua

Beste estatu kideek eskubidea izango dute, protokolo honetako 1. artikuluan ezarritako xede horietako beretarako, Erresuma Batutik edo kanpo-harremanak Erresuma Batuen menpe dituen beste edozein lurraldetatik edo Irlandatik —protokolo honetako 1. artikuluko xedapenak Irlandari aplikatzen zaizkion heinean— beren lurraldean sartu nahi duten pertsonen gain horrelako kontrolak ezartzeko beren mugalderetan edo beren lurralderako edozein sarrera-gunetan.

Ez Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 26. eta 77. artikuluek, ez Tratatu horren ez Europar Batasunaren Tratatuak beste edozein xedapenek ez dio inolako kalterik egingo Erresuma Batuak horrelako kontrolak onartzeko edo egiteko duen eskubideari.

PROTOKOLOA (21.a)

ERRESUMA BATUAK ETA IRLANDAK ASKATASUN-, SEGURTASUN- ETA JUSTIZIA-ESPARRUARI BURUZ DUTEN JARRERARI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,

ASMOA IZANIK Erresuma Batuari eta Irlandari buruzko zenbait arazo konpontzea,

IKUSIRIK Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 26. artikuluen zenbait alderdi Erresuma Batuari eta Irlandari aplikatzeari buruzko protokoloa,

BAT ETORRI DIRA honako xedapen hauetan, eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuari erantsiko zaizkio:

1. artikulua

Hirugarren artikuluan xedatutakoari men egingo, Erresuma Batuak eta Irlandak ez dute parte hartuko Kontseiluak hartzen dituen neurri hauetan: Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak hirugarren zatia V. tituluaren ondorioz proposatutakoetan. Kontseiluan aho batez onartu behar diren era-

bakietan, Kontseiluko kide guztien adostasuna behar izango da, Erresuma Batuko eta Irlandako gobernuen ordezkariak salbuetsita daudela.

Artikulu honen ondorioetarako, gehiengo kualifikatua Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 238. artikuluko 3. paragrafoaren arabera zehaztuko da.

2. artikulua

Lehen artikuluen ondorioz, eta 3., 4. eta 6. artikuluei kalterik egin gabe, Erresuma Batuan eta Irlandan ez da lotura-indarrekoa edo aplikatu beharrekoa izango Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak hirugarren zatiko V. tituluko ezein xedapen, ez eta kapitulu horren indarrez hartutako ezein neurri, Europar Batasunak kapitulu horren ondorioz egindako nazioarteko akordioek ezein xedapen, eta xedapen edo neurri horietako edozein interpretatzeko Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak emandako ezein ebazpen ere. Xedapen, neurri edo erabaki horietako ezeinek ez du eraginik izango bi estatu horien eskumen, eskubide eta betebeharretan, ezta Europar Batasunaren eta Erkidegoaren altxorren ere; eta ez da Europar Batasunaren Zuzenbidearen parte izango, horiek Erresuma Batuan eta Irlandan aplikatzen zaizkion eran.

3. artikulua

1. Baldin eta Kontseiluari proposamen edo ekimen bat aurkezten bazaio Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak hirugarren zatiko V. tituluaren indarrez, Erresuma Batuak edo Irlandak, aurkeztu zaionetik hiru hilabeteko epean, Kontseiluko lehendakariari jakinarazi ahal izango diote, idatziz, proposatzen den neurri hori hartzen eta aplikatzen parte hartu nahi dutela; horren ondoren, neurri hori finkatzeko eta aplikatzeko eskubidea izango du batak edo besteak.

Kontseiluan aho batez onartu behar diren egintzetan, Kontseiluko kide guztien adostasuna behar da, jakinarazpen hori egin ez duen edo duten kideena izan ezik. Paragrafo honen arabera hartutako neurriak lotura-indarrekoak izango dira neurri horiek hartzean parte hartu duten kide guztientzat.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 70. artikulua aplikatuz onartutako neurrietan, Erresuma Batuak eta Irlandak Tratatu horren hirugarren zatia V. tituluak arautzen dituen arloei buruzko ebaluazioetan nola parte hartuko duten zehaztuko da, alegia, zein baldintzen arabera parte hartuko duten.

Artikulu honen ondorioetarako, gehiengo kualifikatua Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 238. artikuluko 3. paragrafoaren arabera zehaztuko da.

2. Baldin eta, arrazoizko denbora-aldi baten ondoren, ezin bada onartu 1. paragrafoan aipatutako neurrietakoren bat Erresuma Batuak edo Irlandak parte hartuz, Kontseiluak, 1. artikulua-rekin bat etorri, Erresuma Batuaren eta Irlandaren parte-hartzerik gabe hartuko du neurri hori. Kasu horretan 2. artikulua aplikatuko da.

4. artikulua

Kontseiluak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu hirugarren zatia V. tituluaren ondorioz neurri bat onartu ondoren, Erresuma Batuak edo Irlandak, edozein unetan, Kontseiluari eta Batzordeari jakinarazi ahal izango diete neurri hori onartzeko beren asmoa eta nahia. Hala gertatuz gero, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 331 artikuluen 1. paragrafoan aurreikusten den prozedura *mutatis mutandis* aplikatuko da.

4 bis artikulua

1. Protokolo honetako xedapenak Erresuma Batuari eta Irlandari aplikatuko zaizkio, are Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu hirugarren zatia V. tituluaren ondorioz proposatutako edo onartutako neurriei dagokionez ere, baldin eta lehendik zegoen neurri bat, Estatu horiek behartzen dituen, aldatzen badute.

2. Hala ere, baldin eta Kontseiluak, Batzordearen proposamenez, erabakitzen badu Erresuma Batuak edo Irlandak lehendik dagoen neurri baten bertsio aldatuan parte hartu ezean neurri hori bideraezin bihurtzen dela gainerako estatu kideentzat edo Batasunarentzat, orduan, estatu horiei eskatu ahal izango die jakinarazpen bat aurkezteko 3. edo 4. artikuluen arabera. Horrelakoetan, 3. artikuluen aplikazioari dagokionez, beste epe bat hasiko da, bi hilabetekoa, Kontseiluak erabakia hartu duenetik kontatzen hasita.

Kontseiluaren erabakiaren ondoren bi hilabeteko epea igaro bada eta Erresuma Batuak edo Irlandak ez badute 3. artikuluen edo 4. artikuluen arabera jakinarazpenik egin, lehendik dagoen neurria ez da aurrerantzean loteslea izango estatu horientzat, eta ez zaie aplikatuko, salbu eta kasuan kasuko estatu kideak 4. artikuluen arabera jakinarazpena egin

badu aldatzeko neurria indarrean sartu aurretik. Goian xedatutakoak, aldatzeko neurria indarrean sartzen den egunetik aurrera izango du eragina, edo bi hilabeteko epea amaitzen denetik, data hori geroagokoa bada.

Paragrafo honen aplikazioaren ondorioetarako, Kontseiluak, gaia zehatz eztabaidatu ondoren, aldatzeko neurria hartzeko orduan parte hartzen ari diren edo hartu duten estatu kideen ordezkarien gehiengo kualifikatuz hartuko du erabakia. Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 238. artikuluko 3. paragrafoaren a) idatz-zatiaren arabera zehaztuko da Kontseiluaren gehiengo kualifikatua.

3. Kontseiluak, gehiengo kualifikatuz eta Batzordearen proposamenez, erabaki dezake Erresuma Batuak edo Irlandak jasan ditzatela lehendik dagoen neurri batean parte hartzeak ezinbestean eta halaberharrez eragingo dituen finantza-ondorio zuzenekoak.

4. Artikulu honek ez dio 4. artikuluari kalterik egingo.

5. artikulua

Baldin eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu hirugarren zatiko V. tituluaren ondorioz onartutako neurri batek ez badu lotzeko indarrik estatu kide jakin batzuentzat, estatu kide horiek ez dute jasango neurri horren inolako finantza-eraginik, instituzioei eragindako administrazio-gastuez beste, baldin eta Kontseiluko kide guztiek ez badute bestelakorik erabakitzen, Europako Parlamentuari aurretiaz kontsulta eginda eta aho batez.

6. artikulua

Protokolo honetan adierazten diren kasuetan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu hirugarren zatiko V. tituluaren indarrez Kontseiluak hartu duen neurri batek lotura-indarra duenean Erresuma Batuentzat edo Irlandarentzat, Tratatuaren neurri horrekin zerikusia duten xedapenak aplikatu ahal izango zaizkio Estatu horri.

6 bis artikulua

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu hamaseigarren artikuluan oinarrituz ezarritako arauak, Tratatu horretako hirugarren zatiko V. tituluko 4. edo 5. kapituluaren aplikazio-eremuetan sartzen diren jardueretan dihardutenean estatu kideek datu pertsonalei eman beharreko tratamenduari buruzkoak, hein

jakin batean baizik ez dute lotura-indarrrik izan-
go Erresuma Batuaarentzat edo Irlandarentzat:
hain zuzen ere, Europar Batasuneko arauetan
epaileen arteko zigor-zuzenbidearen eta polizia-
lankidetzaren arloetako lankidetzaz-motak arau-
tzen dituztenek lotzeko indarra duten hein be-
rean, izan ere, lankidetzaz horren eremuan erres-
petatu behar baitira hamaseigarren artikuluan
oinarriturik ezarritako xedapenak.

7. artikulua

Europar Batasunaren esparruan txertatuta-
ko Schengengo altxorraren gaineko protokolo-
ari kalterik egin gabe hartu behar dira 3. eta 4.
eta 4 bis artikulua.

8. artikulua

Irlandak idatziz jakinarazi ahal izango dio
Kontseiluari ez duela jarraitu nahi protokolo ho-
netako xedapenei atxikita. Kasu horretan, Tra-
tatuko xedapen arruntak aplikatuko zaizkio
Irlandari.

9. artikulua

Irlandari dagokionez, Protokolo hau ez zaio
aplikatuko Europar Batasunaren Funtziona-
menduari buruzko Tratatu 75. artikuluari.

PROTOKOLOA (22.a)

DANIMARKAREN JARRERARI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,
GOGOAN IZANDA, Kontseilu Europarraren
baitan 1992ko abenduaren 12an Edinburgon bil-
duta, Europar Batasunaren Tratatuari dago-
kionez Danimarkak mahaigaineratutako arazo
batzuei buruz estatuburuek eta gobernuburuek hartu zuten erabakia,

OHARTUTA herritartasunari, ekonomia- eta
diru-batasunari, defentsa-politikari, eta justizia-
eta barne-gaiei dagokienez Danimarkak duen ja-
rreraz, Edinburgoko Erabakian ezartzen den mo-
duan,

JABETUTA Edinburgoko Erabakiak sortuta-
ko araubide juridikoa Tratatuaren babesean man-
tentzeak arras mugatuko duela Danimarkak Eu-
ropar Batasunaren lankidetzaz-esparru ga-
rrantzitsuetan parte hartzea, eta jakinik kome-
nigarria izango dela Europar Batasunerako al-

txorraren osotasuna bermatzea askatasuna-
ren, segurtasunaren eta justiziaren eremuan;

ASMOA IZANIK, hortaz, proposatutako neu-
rriak hartzeko garaian Danimarkari parte har-
tzeko aukera emango dion esparru juridikoa
ezartzea —Europar Batasunaren Funtziona-
menduari buruzko Tratatu hiruugarren zatia-
ren V. tituluan oinarrituta— eta Danimarkak,
bere konstituzio-arauei jarraituz ahal duenean,
aukera horri atxikitze duen asmoa txalotuz,

OHARTUTA Danimarkak ez duela eragotzi-
ko gainerako estatu kideek beren lankidetzaz ga-
ratzen jarraitzea, baldin eta Danimarka lotuko
ez duten neurriak badira,

GOGOAN IZANDA Europar Batasunaren es-
parruak barne hartzen duen Schengengo altxo-
rren gaineko protokoloaren 3. artikulua,

BAT ETORRI DIRA honako xedapen hauetan,
eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar
Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tra-
tatuari erantsiko zaizkio:

I. ZATIA

1. artikulua

Danimarkak ez du parte hartuko Europar Ba-
tasunaren Funtzionamenduari buruzko Trata-
tuko hiruugarren zatia V. tituluaren indarrez
proposatutako neurriak hartzen dituenen
Kontseiluak. Kontseiluan aho batez onartu be-
har diren erabakietan, Kontseiluko kide guztiek
egon behar dute ados, Danimarkako ordezkaria
salbuetsita dagoela.

Artikulu honen ondorioetarako, gehiengo
kualifikatua Europar Batasunaren Funtziona-
menduari buruzko Tratatu 238. artikuluko 3.
paragrafoaren arabera zehaztuko da.

2. artikulua

Danimarkan ez da lotura-indarrekoa edo apli-
katu beharrekoa izango Europar Batasunaren
Funtzionamenduari buruzko Tratatu hiruugarren
zatiko V. tituluko ezein xedapen, Batasunak titulu
horren indarrez egindako nazioarteko akor-
dioetako ezein xedapen, xedapen edo neurri ho-
rietako edozein interpretatzeko Europar Bata-
suneke Justizia Auzitegiak emandako ezein era-
baki edo titulu horren ondorioz aldatutako edo
alda daitekeen edozein neurri. Xedapen, neurri edo
erabaki horietako ezeinek ez du eraginik izango
Danimarkaren eskumen, eskubide eta betebe-
harretan, ezta Batasunaren edo erkidegoaren
altxorrean ere; eta ez da Batasunaren Zuzenbi-
dearen parte izango, horiek Danimarkari apli-

katzen zaizkion moduan. Zehazki, polizia-arloko lankidetzaren eta zigor-arloko lankidetzaren judizialaren esparruan Batasunak Lisboako Tratatua indarrean jarri aurretik emandako egintzak, aldatzen badira ere, aldaketarik gabe aplikatuko zaizkio Danimarkari, eta lotesleak izango dira.

2 bis artikulua

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuko hirugarren zatiko V. titularen 4. edo 5. kapituluaren aplikazio-eremuan sartzen diren jarduerak gauzatzearren Estatu kideek tratatu horretako 16 bis artikulua indarrez ezarritako arauetara, datu pertsonalen tratamenduari buruzkoak badira, protokolo honetako 2 artikulua aplikatuko zaie.

3. artikulua

Danimarkak ez du 1. artikuluan aipatzen diren neurrien finantza-ondorioak jasango, instituzioei eragindako administrazio-gastuak izan ezik.

4. artikulua

1. Zati honek hartzen dituen esparruetan Schengengo altxorra garatzeko proposamen edo ekimen bati buruz Kontseiluak neurriren bat hartuz gero, Danimarkak sei hilabeteko epean ebatziko du, erabakia hartu denetik aurrera, neurri hori bere legerian sartuko duen ala ez. Hala eginez gero, neurri horrek Danimarkaren eta neurri horrek lotzen dituen gainerako estatu kideen artean Nazioarteko Zuzenbideko betebeharra sortuko du.

2. Danimarkak neurri bat ez aplikatzea erabakitzen badu, 1. paragrafoaren zentzuan, hartu beharreko neurri egokiak aztertuko dituzte Danimarkak eta neurri horrek lotzen dituen estatu kideak.

II. ZATIA

5. artikulua

Europar Batasunaren Tratatuko 26. artikuluko 1. paragrafoaren, 42. artikulua eta 43tik 46ra bitarteko artikuluen aplikazio-eremuaren barruan kontseiluak hartzen dituen neurriei dagokienez, Danimarkak ez du parte hartuko defentsaren esparruan eragina duten Europar Batasuneko erabakiak eta ekintzak egiteko eta aplikatzeko jardunean. Horrenbestez, Danimarkak ez du horiek onartzeko jardunean parte hartuko. Haatik, Danimarkak ez du eragotziko Europar Batasuneko gainerako estatu

kideek arlo horretan lankidetzan jarraitzea. Danimarkak ez du neurri horien ondoriozko gastu operatiboak finantzatzen laguntzeko betebeharririk izango, ezta ahalbide militarrek Europar Batasunaren esku jartzeko betebeharririk ere.

Kontseiluan aho batez onartu behar diren egintzetan, Kontseiluko kide guztiek egon behar dute ados, Danimarkako ordezkaria salbuetsita dagoela.

Artikulu honen ondorioetarako, gehiengo kualifikatua Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuko 238. artikuluko 3. paragrafoaren arabera zehaztuko da.

III. ZATIA

6. artikulua

Aurreko 1., 2. eta 3. artikulua ez dira aplikatuko hirugarren herrialdeek zehazten dituzten neurrietan, baldin eta herrialde horietako herriarrek estatu kideetako kanpoko mugak zeharkatzeko bida behar badute, eta ez dira aplikatuko bida-eredu bateratu bati dagozkion neurrietan ere.

IV. ZATIA

7. artikulua

Noiznahi, Danimarkak, bere konstituzio-arauei jarraituz, Europar Batasuneko gainerako estatu kideei jakinarazi ahal izango die ez duela protokolo hau, osorik zein zati batean, baliatu nahi. Kasu horretan, Danimarkak Europar Batasunaren esparruan garai horretan indarrekoak diren bidezko neurri guztiak aplikatuko ditu.

8. artikulua

1. Danimarkak, 7. artikuluari kalterik egin gabe, bere konstituzio-arauei arabera, jakinarazi ahal izango die Europar Batasuneko gainerako estatu kideei eranskinean azaltzen diren xedapenak osatuko dutela I. zatia, jakinarazpena egin eta hurrengo hileko lehen egunetik aurrera. Kasu horretan, 5.etik 8.era bitarteko artikulua berriro zenbakituko dira.

2. Schengengo altxor osoa eta altxor hori garatzeko hartu diren neurriak, baldin eta orain arte Danimarkarentzat nazioarteko Zuzenbideko betebeharrak gisa lotura-indarra izan badute dute, Europar Batasunaren Zuzenbide gisa izango dira

lotura-indarrekoak Danimarkarentzat, lehen paragrafoan adierazitako jakinarazpena indarrean jarri eta sei hilera.

ERANSKINA

1. artikulua

3. artikuluan xedatutakoari eutsita, Danimarkak ez du parte hartuko Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu hiruugarren zatia V. tituluaren indarrez proposatutako neurriak hartzen dituen Kontseiluak. Kontseiluan aho batez onartu behar diren egintzetan, Kontseiluko kide guztiek egon behar dute ados, Danimarkako ordezkaria salbuetsita dagoela.

Artikulu honen ondorioetarako, gehiengo kualifikatua Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 238. artikuluko 3. paragrafoaren arabera zehaztuko da.

2. artikulua

Lehenengo artikulua indarrez eta 3., 4. eta 8. artikuluen erreserban, Danimarkan ez da lotura-indarrekoa edo aplikatu beharrekoa izango Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu hiruugarren zatiko V. tituluko ezein xedapen, Batasunak titulu horren indarrez egindako nazioarteko akordioetako ezein xedapen eta xedapen edo neurri horietako edozein interpretatzeko Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak emandako ezein erabaki. Xedapen, neurri edo erabaki horietako ezeinek ez du eraginik izango Danimarkaren eskumen, eskubide eta betebeharretan, ezta Batasunaren edo erkidegoaren altxorrean ere; eta ez da Batasunaren Zuzenbidearen parte izango, horiek Danimarkari aplikatzen zaizkion moduan.

3. artikulua

1. Kontseiluari Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu hiruugarren zatiko V. tituluaren indarrez proposamen edo ekimen bat aurkezte bazea, aurkeztu zaionetik hiru hilabeteko epean, Danimarkak Kontseiluko lehendakariari jakinarazi ahal izango dio, idatziz, proposatzen den neurri hori hartzen eta aplikatzen parte hartu nahi duela; horren ondoren, neurri hori hartzeko eta aplikatzeko eskubidea izango du Danimarkak.

2. Arrazoizko epea igaro ondoren, 1. paragrafoan aipatutako neurrietako bat ezin bada Danimarkaren parte-hartzearekin hartu, Kon-

seiluak, 1. artikuluari jarraituz, Danimarkaren parte-hartzerik gabe hartu ahal izango du 1. paragrafoan aurreikusten den neurria. Kasu horretan 2. artikulua aplikatuko da.

4. artikulua

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu hiruugarren zatiko V. Tituluaren arabera neurri bat hartu ondoren, Danimarkak neurri hori onartzeko asmoa jakinarazi ahal izango die Kontseiluari eta Batzordeari edozein momentutan. Hala gertatuz gero, Tratatu horren 331. artikuluan 1. paragrafoan aurreikusten den prozedura *mutatis mutandis* aplikatuko da.

5. artikulua

1. Protokolo honetako xedapenak Danimarkari aplikatuko zaizkio, are Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu hiruugarren zatia V. tituluaren ondorioz proposatutako edo onartutako neurriei dagokienez ere, baldin eta lehendik zegoen neurri bat, Estatutari hori behartzen duena, aldatzen badute.

2. Hala ere, Kontseiluak, Batzordearen proposamenez, erabakitzen badu Danimarkak lehendik dagoen neurri baten bertsio aldatuan parte ez hartzeak neurri hori bideraezin bihurtzen duela gainerako estatu kideentzat edo Batasunarentzat, estatu horri eskatu ahal izango dio jakinarazpen bat aurkezteko 3. edo 4. artikuluen arabera. Horrela, 3. artikulua aplikazioari dagokionez, bi hilabeteko beste epe bat hasiko da, Kontseiluak erabakia hartu duenetik kontatzen hasita.

Kontseiluaren erabakiaren ondoren bi hilabeteko epea igaro bada eta Danimarkak ez badu 3. edo 4. artikulua arabera jakinarazpenik egin, lehendik dagoen neurria ez da aurrerantzean loteslea izango estatu horrentzat, eta ez zaio aplikatuko, salbu eta aldatzeko neurria indarrean sartu aurretik 4. artikulua arabera jakinarazpena egin badu. Goian xedatutakoak, aldatzeko neurria indarrean sartzen den egunetik aurrera izango du eragina, edo bi hilabeteko epea amaitzen denetik, data hori geroagokoa bada.

Paragrafo honen aplikazioaren ondorioetarako, Kontseiluak, gaia zehatz eztabaidatu ondoren, aldatzeko neurria hartzeko orduan parte hartzen ari diren edo hartu duten estatu kideen ordezkarien gehiengo kualifikatuz hartuko du erabakia. Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 238. artikuluko 3. paragrafoaren a) idatz-zatiaren arabera zehaztuko da Kontseiluaren gehiengo kualifikatua.

3. Kontseiluak, gehiengo kualifikatuz eta Batzordearen proposamenez, lehendik dagoen neurrian parte hartzeari uzteak ezinbestean eta halaberbarrez eragin ditzan zuzeneko finantza-ondorioak Danimarkak bere gain har ditzala erabaki dezake.

4. Artikulu honek ez dio 4. artikuluari kalterik egingo.

6. artikulua

1. Schengengo altxorra garatzen duen neurri bat behin betiko hartu, eta gehienez sei hilabetetara aurkeztu beharko da 4. paragrafoan adierazten den jakinarazpena.

Danimarkak ez badu Schengengo altxorra garatzeko neurri bati buruzko jakinarazpena 3. edo 4. artikuluen arabera aurkeztzen, neurri egokiak hartzea aztertuko dute Danimarkak eta neurri horrek lotzen dituen estatu kideek.

2. Schengengo altxorra garatzen duen neurri bati buruz 3. artikulua aplikatzearen egingdako jakinarazpen oro, ezinbestean, 3. artikuluen arabera jakinarazpena izango da neurri hori garatzeko gerora jorratzen den proposamen edo ekimen orori dagokionez, betiere, proposamen edo ekimen horrek Schengengo altxorra garatzen badu.

7. artikulua

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 16. artikuluan oinarrituz ezarritako arauak, Tratatu horretako hirugarren zatiko V. tituluko 4. edo 5. kapituluaren aplikazio-eremuetan sartzen diren jardueretan dihardutela estatu kideek datu pertsonalak tratatzen dituztenekoari dagozkionak, hein jakin batean baizik ez dute lotura-indarririk izango Danimarkarentzat: hain zuzen ere, Europar Batasuneko arauetan epaileen arteko zigor-zuzenbidearen eta polizia-lankidetzaren arloetako lankidetzamotak arautzen dituztenek lotzeko indarra duten hein berean, izan ere, lankidetzaren horren eremuan errespetatu behar baitira 16. artikuluan oinarriturik ezarritako xedapenak.

8. artikulua

Honako zati honetan adierazten diren kasuetan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu hirugarren zatiko V. tituluaren indarrez Kontseiluak hartu duen neurri bat Danimarkarentzat lotura-indarrekoa denean, neurri horrekin lotzen diren Trata-

tuetako xedapenak aplikatu ahal izango zaizkio Danimarkari.

9. artikulua

Kontseiluak, kide guztien adostasunez eta Europako Parlamentuari kontsulta egin ondoren besterik erabaki ezik, Kontseiluak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu hirugarren zatiko V. tituluaren indarrez neurri bat onartzen badu eta neurri hori Danimarkarentzat loteslea ez bada, Danimarkak ez du neurri horren inolako finantza-ondoriorik jasango, instituzioei eragindako administrazio-gastuak izan ezik.

PROTOKOLOA (23.a)

KANPOKO MUGAK IGAROTZEA DELA-ETA, ESTATU KIDEEK DITUZTEN KANPO-HARREMANEI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,

KONTUAN HARTUZ estatu kideek beren kanpoko mugetan kontrol eraginkorrak bermatzeko beharra dutela, egoki denean, hirugarren herrialdeekin lankidetzan arituz,

BAT ETORRI DIRA honako xedapen hauetan, eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuari erantsiko zaizkio:

Kanpoko mugak igarotzea dela-eta jasotako neurriei buruzko xedapenak —Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 77. artikuluko 2. paragrafoko b) idatz-zatian daude sartuta— ez diote kalterik egingo estatu kideek hirugarren herrialdeekin akordioak negoziatzeko edo hitzartzeko duten eskumenari, betiere Batasunaren Zuzenbidea eta dagozkien nazioarteko gainerako akordioak errespetatzen badituzte.

PROTOKOLOA (24.a)

EUROPAR BATASUNEN HERRITARREI ASILOA EMATEARI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,

AINTZATETSIZ Europar Batasunaren Tratatu 6. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritik, Batasunak Oinarritzko Eskubideen Gutunean ezarritako eskubideak, akatasunak eta printzipioak aitortzen dituela,

AINTZATETSIZ Europar Batasunaren Tratatu

6. artikuluko 3. paragrafoarekin bat etorritz, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babes-
teko Europako Hitzarmenak bermatzen dituen oi-
narrizko eskubideak Batasunaren Zuzenbidearen
parte direla printzipio nagusi gisa,

AINTZATETSIZ Justizia Auzitegiak eskume-
na duela Batasunak Europar Batasunaren Tra-
tatuko 6 artikuluko 1. eta 3. paragrafoen inter-
pretazioan eta aplikazioan Zuzenbidea erres-
petatzen duela bermatzeko,

AINTZATETSIZ Europar Batasunaren Tra-
tatuko 49. artikuluekin bat etorritz, Europako
edozein estatuk, Batasuneko kide bihurtzeko es-
kaera egiten duenean, Europar Batasunaren Tra-
tatuko 2. artikuluan ezarritako balioak erres-
petatu behar dituela,

GOGOAN IZANDA Europar Batasunaren Tra-
tatuko 7. artikulua mekanismo bat ezartzen
duela estatu kide batek balio horien urratze la-
rri eta iraunkor bat egiten duenean zenbait es-
kubide eteteko,

GOGOAN IZANDA estatu kide bateko herritar
orok, Batasuneko herritar denez, estatutu eta ba-
bes berezia duela eta estatu kideek estatutu eta
babes berezi hori Europar Batasunaren Funtzio-
namenduari buruzko Tratatuko bigarren zatiko
xedapenekin bat etorritz bermatu behar dutela,

GOGOAN IZANDA Tratatuek barneko muga-
rik gabeko esparru bat ezartzen dutela eta Ba-
tasuneko herritar orori estatu kideen lurralde-
an askatasunez zirkulatzeko eta bizilekua har-
tzeko eskubidea ematen diotela,

ASMOA IZANIK asilo-prozedurara jotzeko au-
kera eragozte aurreikusita dauden xedeetara-
ko ez beste batzuetarako baliatzen bada,

AINTZATETSIZ protokolo honek lheslarien
Estatutuari buruzko 1951ko uztailaren 28ko Ge-
nevako Hitzarmeneko xedea eta helburuak
errespetatzen dituela,

BAT ETORRI DIRA honako xedapen hauetan,
eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar
Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tra-
tatuari erantsiko zaizkio:

Artikulu bakarra

Kontuan hartuta Europar Batasuneko estatu
kideek oinarrizko eskubideei eta askatasunei
ematen dieten babes-maila, estatu kideak elka-
rrentzat jatorri-herrialde segurua direla aintzat
hartuko da, asilo-gaien inguruko ondorio juridi-
ko eta praktikoa guztietarako. Ondorioz, estatu kide
bateko herritar batek egindako asilo-eskaera, bes-
te estatu kide batek ondorengo kasuetan baino
ezingo du aintzat hartu edo, aztertze modu-
kotzat jota, onargarri dela aitortu:

a) Baldin eta, asilo-eskatzailaren estatu ki-
deak –herritarra deneko estatuak–, Amster-
damgo Tratatua indarrean sartuz geroztik, Giza
Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Ba-
besteko Europako Hitzarmeneko 15. artiku-
lo xedapenez baliatuta, bere lurraldean hitzar-
men horren arabera dituen betebeharretatik as-
katzeko neurriak hartzei ekiten badio;

b) Baldin eta Europar Batasunaren Tratu-
tuko 7. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako pro-
zedura hasia bada eta harik eta Kontseiluak edo,
egoki denean, Kontseilu Europarrak asilo-es-
katzailaren estatu kidearen inguruko –herri-
tarra deneko estatu kidearen inguruko, – erabaki
bat hartu arte;

c) Baldin eta Kontseiluak, Europar Batasu-
naren Tratatuko 7. artikuluko 1. paragrafoare-
kin bat etorritz, asilo-eskatzailaren estatu ki-
dearen inguruko –herritarra deneko estatu ki-
dearen inguruko – erabaki bat hartu bada, edo,
Kontseilu Europarrak, Europar Batasunaren
Tratatuko 7. artikuluko 2. paragrafoan oinarri-
tuz, asilo-eskatzailaren estatu kidearen ingu-
ruko erabaki bat hartu bada;

d) Baldin eta estatu kide batek bere kabuz
hala erabakiko balu, beste estatu kide bateko he-
rritar baten eskaeraren inguruan; kasu horre-
tan, Kontseiluari berehala emango zaio horren
berri. Nabarmen funtsik gabekoa delako uste-
an oinarrituta egingo zaio aurre asilo-eskaera-
ri, eta inola ere ez dio erasango, kasuak zerna-
hi izan daitezkeela ere, estatu kideak erabakiak
hartzeko duen ahalmenari.

PROTOKOLOA (25.a)

ESKUMEN PARTEKATUEN ERABILERARI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,

BAT ETORRI DIRA honako xedapen hauetan,
eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar
Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tra-
tatuari erantsiko zaizkio:

Artikulu bakarra

Europar Batasunaren Funtzionamenduari
buruzko Tratatuen 2. paragrafoko 2. artikulua
—partekatutako eskumenei buruzkoa— dela
eta, Batasunak esparru jakin batean neurriak
hartu baditu, eskumena gauzatzeko orduan,
Batasunaren egintzaren bitartez eraendutako
elementuak baino ez dira sartuko, beraz, ez da
gaiaren esparru osoa sartuko.

PROTOKOLOA (26.a)

INTERES OROKORREKO ZERBITZUEI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,
ASMOA IZANIK interes orokorreko zerbitzuen garrantzia nabarmentzea,

BAT ETORRI DIRA honako xedapen hauetan, eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuari erantsiko zaizkio:

1. artikulua

Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 14. artikuluari jarraituz, Batasunaren balio erkideek, ekonomia-interes orokorreko zerbitzuei dagokienez, zehazki honako printzipio hauek hartzen dituzte barne:

- nazio, eskualde eta toki agintariak funtsezko zeregina eta diskrezio-ahalmen handia dute erabiltzaileen beharretatik ahalik eta hurbilen egon behar duten ekonomia-intereseko zerbitzuak emateko, enkargatzeko eta antolatzeko orduan;
- ekonomia-interes orokorreko zerbitzuak askotarikoak dira, eta geografia, gizarte eta kultura egoera desberdinen ondorioz erabiltzaileek izan ditzaketen beharrak eta lehentasunak ere oso desberdinak dira;
- zerbitzuok kalitate eta segurtasun handikoak izan behar dute eta, ekonomiaren ikuspuntutik eskuragarriak; tratu-berdintasuna bermatu behar dute eta irisgarritasun unibertsala eta erabiltzaileen eskubideak sustatu behar dituzte.

2. artikulua

Tratatuetak xedapenek ez dute inolako eraginik izango estatu kideek ekonomikoak ez diren interes orokorreko zerbitzuak emateko, enkargatzeko eta antolatzeo duten eskumenean.

PROTOKOLOA (27.a)

BARNE-MERKATUA ETA LEHIARI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,
AINTZATETSIZ barne-merkatuak, Europar Batasunaren 3. artikuluan zehazten den eran sistema bat duela lehia ez faltsutzea bermatzen duena,

HAUXE adostu dute:

Ondorio horietarako, Batasunak, beharrezkoa denean, tratatuetak xedapenen esparruan neurriak hartuko ditu; zehazki, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 352. artikuluekin bat datozen neurriak.

Protokolo hau Europar Batasunaren Tratatuak eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak eranskin gisa agertuko da.

PROTOKOLOA (28.a)

EKONOMIA-, GIZARTE- ETA LURRALDE-KOHEGIOARI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,

GOGOAN IZANDA Europar Batasunaren Tratatuak 3. artikulua, beste helburu batzuen artean, estatu kideen arteko ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohegioa eta elkartasuna sustatzea aipatzen duela eta aipatutako kohegioa Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 4. artikuluko 2. paragrafoa c) idatzatian zerrendatutako eskumen partekatutako eremuen artean agertzen dela.

GOGOAN IZANDA hirugarren zatiko XVIII. tituluan ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohegioari buruz ezarritako xedapenek, oro har, oinarri juridikoa eskaintzen dutela Batasunak arlo honetan bideratutako duen ekintza sendotzeko eta areago garatzeko, funts berri bat eratzeo aukera barne hartuta;

GOGOAN IZANDA Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 177. artikuluko xedapenek Kohegio Funtza eratzea aurreikusten dutela,

EGIAZTATUZ Europako Inbertsio Bankua dirukopuru handiak, gero eta handiagoak, mailegatzten ari dela eskualde ahulenen mesedetan,

EGIAZTATUZ egitura-funtsetatik datozen baliabideak esleitzeko moduetan malgutasun handiagoa izateko nahia dagoela,

EGIAZTATUZ herrialde batzuetako programetan eta proiektuetan Batasunak duen parte-hartze maila modulatzeko nahia dagoela,

EGIAZTATUZ, baliabide propioen sisteman, estatu kideen oparotasun erlatiboa kontuan-a-go hartzeko proposamena dagoela,

BERRESTEN dute ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohegioaren sustapena funtsezkoa dela Batasunaren garapen osorako eta arrakasta iraunkorrerako,

BERRESTEN dute, Batasunak kohegioaren arloan dituen helburuak lortzeko egitura-funtsek

zeregin aipagarria izaten jarraitu behar dutelako uste sendoa,

BERRESTEN DUTE, Europako Inbertsio Bankuak bere baliabideetatik gehienak ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioaren sustapenari eskaintzen jarraitu behar duelako uste sendoa, eta beren gogo ona adierazten dute Europako Inbertsio Bankuaren kapital-beharrak berrikusteko, xede horretarako beharrezko den heinean,

ADOSTU dute Kohesio Funtzak Batasunaren finantza-ekarpenak ekar ditzala, ingurumenaren eta Europa barruko sareen arloetako proiektuetarako, Batasunaren barruan bi baldintza hauek betetzen dituzten estatu kideetan: Europar Batasuneko batez bestekoaren % 90etik beherako per capita NPG edukitzea eta ekonomia elkarganatzeko baldintzak betetzera bideratutako programa bat edukitzea, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 126. artikuluan xedatutakoaren arabera.

ADIERAZTEN DUTE egitura-funtsetatik datozen finantza-bitartekoak esleitzean malgutasun handiagoa ahalbidetzeko duten asmoa, egitura-funtzen oraingo erregulazioaren arabera estali gabe dauden berariazko beharretarako.

ADIERAZTEN DUTE prest daudela egitura-funtsei dagozkien programen eta proiektuen esparruan Batasunak dituen parte-hartze mailak modulatzeko, oparotasun txikiena duten estatu kideen aurrekontu-gastuetan gehiegizko igoerak gerta ez daitezen,

AITORTZEN dute ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa lortzeko bidean egindako aurrerapena aldiaren behin zaintzeko beharra, eta horri buruzko beharrezko neurri guztiak aztertzeko gogo ona azaltzen dute,

ADIERAZTEN dute asmoa dutela baliabide propioen sisteman estatu kide bakoitzak duen ekarpen-ahalmena kontuan hartzeko, bai eta, oparotasun txikiaren estatu kideentzat, baliabide propioen oraingo sisteman dauden elementu atzerakorrak zuzentzeko bitartekoak aztertzeko ere,

BAT DATOZ protokolo hau Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuari eranskin gisa eransteko.

PROTOKOLOA (29.a)

ESTATU KIDEETAKO IRRATI-ZABALKUNDE PUBLIKOAREN SISTEMARI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,
AINTZATETSIZ estatu kideetako irratiza-

balkunde publikoaren sistema zuzenean lotzen dela gizarte bakoitzak demokrazia, gizarte eta kulturako gaietan dituen beharrekina eta komunikabideen pluraltasuna zaindu beharrenekin,

BAT ETORRI DIRA honako xedapen hauetan, eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuari erantsiko zaizkio:

Tratatuetako xedapenak estatu kideek irratizabalkundearen zerbitzu publikoa finantzatzeko duten ahalmenari kalterik egin gabe izango dira, betiere, finantzaketa hori irratizabalkundeko erakundeei ematen bazaie estatu kide bakoitzak zerbitzu publiko horren eginkizunak izendatu, zehaztu eta antolatuta dauzkan moduan bete ditzan, eta, bestetik, finantzaketa horrek Batasuneko merkataritza-baldintzei eta lehiakortasunari interes komunaren kontrako litzatekeen neurri batean erasaten ez badie, betiere, zerbitzu publiko horren eginkizuna gauzatzen dela kontuan hartuta.

PROTOKOLOA (30.a)

OINARRIZKO ESKUBIDEEN GUTUNA POLONIARI ETA ERRESUMA BATUARI APLIKATZEARI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,

AINTZATETSIZ Batasunak Oinarrizko Eskubideen Gutunean jasotako eskubide, askatasun eta printzipioak aitortzen dituela Europar Batasunaren Tratatu 6. artikuluan;

AINTZATETSIZ Gutuna aplikatzeko orduan zorrotz bete behar direla Gutunaren beraren 6. artikuluan eta VII. tituluaren jasotako xedapenak;

AINTZATETSIZ 6. artikuluko horrek berak ezartzen duela Gutuna Poloniako eta Erresuma Batuko auzitegiek aplikatu eta interpretatutako dutela, artikuluko horretan bertan ematen diren azalpenak zorrotz betetz;

AINTZATETSIZ Gutunak eskubideak eta printzipioak jasotzen dituela;

AINTZATETSIZ Gutunak xedapen zibil eta politikoak ez ezik, xedapen ekonomiko eta sozialak ere jasotzen dituela;

AINTZATETSIZ Gutunak Batasunean onartutako eskubide, askatasun eta printzipioak berresten dituela eta eskubideak agerikoago egiten dituela, baina ez duela eskubide edo printzipio berririk sortzen;

GOGOAN IZANDA Poloniak eta Erresuma Batuak, Europar Batasunaren Tratatuaren, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren eta, oro har, Batasuneko Zuzenbidearen ondorioz dituzten betebeharrak;

OHARTUTA Poloniak eta Erresuma Batuak Gutunaren aplikazioaren zenbait alderdi zehatz daitezela nahi dutela;

ASMOA IZANIK, beraz, Gutuna nola aplikatu zehaztea, Poloniaren eta Erresuma Batuaren legeria eta administrazio-jarduera eta Poloniako eta Erresuma Batuko auzitegien aurrean Gutunari heltzeko aukera kontuan hartuta.

BERRETSIZ protokolo honetan Gutunaren berariazko xedapenen funtzionamenduari egiten zaizkion erreferentziek ez diotela eragiten Gutuneko gainerako xedapenen funtzionamenduari;

BERRETSIZ protokolo honek ez diola gutunaren aplikazioari eragiten gainerako estatu kideetan;

BERRETSIZ protokolo honek ez diela eragiten Poloniak eta Erresuma Batuak Europar Batasunaren Tratatuaren, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren eta, oro har, Batasuneko Zuzenbidearen ondorioz dituzten gainerako betebeharre;

BAT ETORRI DIRA honako xedapen hauetan, eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuari erantsiko zaizkio:

1. artikulua

1. Gutunak ez dio Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari edota Polonia edo Erresuma Batuko beste edozein auzitegiari eskumen gehigarririk ematen Poloniako edo Erresuma Batuko legezko edo erregelamenduzko xedapenak edo administrazio-xedapen, -jarduera edo -egintzak Gutuneko oinarritzko eskubide, askatasun eta printzipioekin bateragarriak ez direla ebazteko.

2. Zehazki, eta zalantzarik ez uzteko, Gutunaren IV. tituluaren xedatutakoak ez du, Poloniari edo Erresuma Batuari dagokienez, justiziaren aurrean defenda daitekeen eskubiderik sortzen, salbu eta Poloniak edo Erresuma Batuak eskubide horiek beren legeria nazionalen sartu badituzte.

2. artikulua

Gutuneko xedapenen bat praktika eta legeria nazionalei buruzkoa bada, ez da Polonian edo Erresuma Batuan aplikatuko baldin eta xedapen horretan jasotzen diren eskubideak edo printzipioak Poloniako edo Erresuma Batuko legerian edo praktikan onartuta ez badaude.

PROTOKOLOA (31.a)

HOLANDARREN ANTILLETAN FINDUTAKO PETROLIO-PRODUKTUAK EUROPAR BATASUNERA INPORTATZEARI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,

ASMOA IZANIK xehetasun batzuk ematea Holandarren Antilletan findutako petrolio-produktuak Europako Ekonomia Erkidegora inportatzean aplikatu beharrekoa den elkartruke-sistemari buruz,

BAT ETORRI DIRA honako xedapen hauetan, eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuari erantsiko zaizkio:

1. artikulua

Protokolo hau aplikatu beharko zaie Bruselako Nomenklaturako 27.10, 27.11, 27.12, ex 27.13 (parafina, petrolio- edo arbel-argizaria eta parafina-hondarrak) eta 27.14 sailetako petrolio-produktuei, estatu kideetan kontsumitze-ko inportatuak badira.

2. artikulua

Holandarren Antilletan findutako petrolio-produktuei estatu kideak Batasunarekin elkartzean sortzen diren tarifa-onura berberak emateko konpromisoa hartzen dute bere gain estatu kideek, protokolo honetan ezarritako baldintzetan. Xedapen horiek baliodunak izango dira, zernahi direla ere estatu kideek aplikatutako jatorrizko arauak.

3. artikulua

1. Baldin eta Batzordeak, estatu kide baten eskariz edo bere ekimenez, egiaztatzen badu Holandarren Antilletan findutako petrolio-produktuek, 2. supra artikuluan adierazitako sistemaren arabera Batasunera inportatuta, benetako arazoak eragiten dituztela estatu kide baten edo batzuen merkatuan, erabaki bat hartuko du. Erabaki horrek ezarriko du kasuan kasuko estatu kideek inportazio horien gaineko aduana-zer-gak sartuko, gehituko edo birsartuko dituztela egoera horri aurre egiteko beharrezko den neurrian eta beharrezko den aldirako. Horrela sartzen, gehitzen edo birsartzen diren aduana-zer-gen tasek ezingo dituzte gaintitu hirugarren herrialdeei produktu horietarako beretarako aplikatzen zaizkien aduana-zer-gak.

2. Aurreko paragrafoko xedapenak edozein kasutan aplikatu ahal izango dira, Holandarren Antilletan findu eta Batasunera inportatutako petrolio-produktuak urtean 2 milioi tonara iristen direnean.

3. Batzordeak aurreko paragrafoetan oinarrituz hartutako erabakiak Kontseiluari jakinaraziko zaizkio, estatu kide baten eskaria ukatzera bideratuak barne direla. Kontseiluak, edozein estatu kideren eskariz, horien ardura hartu ahal izango du bere gain eta, edozein unetan, aldatu edo baliogabetu.

4. artikulua

1. Baldin eta estatu kide batek uste badu Holandarren Antilletan findutako petrolio-produktuek, berak zuzenean edo beste estatu kideren batek 2 *supra* artikuluan adierazten den sistemaren arabera inportatuta, benetako arazoak eragiten dituztela bere merkatuan, eta beharrezkoa dela berehalako ekintza bat arazoei aurre egiteko, bere kabuz erabaki ahal izango du inportazio horiei aduana-zergak aplikatzea. Zerga horien tasak ezingo ditu gainditu hirugarren herrialdeei produktuk horietarako beretarako aplikatzen zaizkien aduana-zergak. Erabakia Batzordeari jakinaraziko dio, eta horrek erabaki bat hartuko du hilabeteko epean. Erabaki horrek ezarriko du estatuak hartutako erabakiak mantentzeko edo aldatu edo ezabatu behar diren. Hirugarren artikuluko 3. paragrafoa aplikatu behar zaio Batzordearen erabaki horri.

2. Baldin eta Holandarren Antilletan findutako petrolio-produktuek, zuzenean edo beste estatu kideren baten bidez, 2 *supra* artikuluan adierazitako sistemaren arabera EEKko estatu batera edo batzuetara inportatuta, urte natural batean protokolo honen eranskinean adierazitako tona-kopurua gainditzen badute, estatu kide horrek edo horiek 1. paragrafoan oinarrituz uneko urterako hartutako neurriak zilegitzat joko dira. Batzordeak, ezarritako tona-kopurua iritsi dela bere buroari ziurtatu ondoren, hartu diren neurriak aintzakotzat izango ditu. Kasu horretan, beste estatu kideek ez dute gaia Kontseiluaren aurrera eramango.

5. artikulua

Baldin eta Batasunak petrolio-produktuei murrizketa kuantitatiboak aplikatzea erabakitzen badu, zernahi etorkikoak direla ere, murrizketa horiek Holandarren Antilletatik datozen horrelako produktuen inportazioei ere aplikatu ahal izango zaizkie. Kasu horretan, le-

hentasunezko tratua emango zaie Holandarren Antillei, hirugarren herrialdeen aldean.

6. artikulua

1. Kontseiluak 2tik 5era bitarteko artikuluetako xedapenak berrikusiko ditu, aho batezko erabaki baten bidez, Europako Parlamentuari eta Batzordeari aurretiaz kontsulta eginda, hirugarren herrialdeetatik eta herrialde elkartuetatik datozen petrolio-produktuei buruzko jatorriaren definizio erkidea hartzen denean, edo erabakiak kasuan kasuko produktuei buruzko merkataritza-politika erkide baten esparruan hartzen direnean, edo energia-politika erkide bat ezartzen denean.

2. Berrikuspen hori egiten denean, dena dela, abantaila baliokideak mantendu beharko dira edozein kasutan Holandarren Antillen mesedetan, modu egoki batean eta petrolio-produktuen 2 milioi eta erdiko gutxieneko kopuru baterako.

3. Artikulu honetako 2. paragrafoan aipatzen diren abantaila baliokideei dagozkien Batasunaren konpromisoak, beharrezko bada, estatuka banatu ahal izango dira, protokolo honen eranskinean adierazitako tona-kopuruak kontuan izanda.

7. artikulua

Protokolo hau abian jartzeko, Batzordeak begiratuko du Holandarren Antilletan findutako petrolio-produktuak estatu kideetara nola inportatzen diren. Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko diote -eta hura zabaltzen saiatuko da-xede horri buruzko informazio erabilgarri guztia, hark gomendatutako administrazio-balidintzekin bat etorritz.

PROTOKOLOAREN ERANSKINA

Holandarren Antilletan findutako petrolio-produktuak Europar Batasunera inportatzeari buruzko protokolo 4. artikuluko 2. paragrafoa aplikatzeko, tratatugile gorenak erabaki dute Antilletatik datozen petrolio-produktuen bi milioi tonako kopurua honela esleitu dela ondorengo estatu kideen artean:

Alemania	625.000 tona
Belgika-Luxenburgoko	
Ekonomia Batasuna	200.000 tona
Frantzia	75.000 tona
Italia	100.000 tona
Herbehereak	1.000.000 tona

PROTOKOLOA (32.a)

DANIMARKAN ONDASUN HIGIEZINAK ESKURATZEARI BURUZKO ZENBAIT XEDAPENI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,
ASMOA IZANIK Danimarkari dagozkion zen-
bait berariazko arazo konpontzea,

BAT ETORRI DIRA honako xedapen honetan,
eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar
Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tra-
tatuari erantsiko zaio:

Tratatuetan xedatutakoa gorabehera, ohiko
bizilekutarako etxebizitza ez diren ondasun hi-
giezinak eskuratzeari buruz indarrean dagoen
legeria mantendu ahal izango du Danimarkak.

PROTOKOLOA (33.a)

EUROPAR BATASUNAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO TRATATUKO 157. ARTIKULUARI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,
BAT ETORRI DIRA honako xedapen honetan,
eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar
Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tra-
tatuari erantsiko zaio:

Europar Batasunaren Funtzionamenduari
buruzko Tratatuako 157. artikulua aplikatzeko,
gizarte-segurantzako lanbide-araubide baten
araberako prestazioak ez dira lansaritzat joko,
1990eko maiatzaren 17aren aurreko enplegu-
aldiei egotzi ahal bazaizkie; salbuespen izango
da langileek edo beren eskubidedunek, data hori
baino lehenago, auzitegietan akzioaren bat hasia
badute, edo, aplikatu beharreko Zuzenbide na-
zionalaren arabera, erreklamazio baliokideren
bat aurkeztua badute.

PROTOKOLOA (34.a)

GROENLANDIARI APLIKATU BEHARREKO ARAUBIDE BEREZIARI BURUZKOA

Artikulu bakarra

1. Groenlandiatik datozen arrantza-produk-
tuen merkatu-antolakunde erkideari atxikitako

produktuak, Batasunera inportatutakoak, be-
tiere, merkatu-antolakunde erkidearen meka-
nismoak errespetatuta daudela, salbuetsita
egongo dira aduana-zergetatik eta ondorio ba-
liokidea duten ordainarazpenetatik, bai eta ko-
puru-murrizketetatik edo ondorio baliokidea du-
ten neurrietatik ere, baldin eta Batasunaren eta
Groenlandiarako agintaritza eskudunaren arteko
akordio batean oinarrituz, Groenlandiako arran-
tza-tokietara sartzeko aukerak gogokoak badi-
ra Batasunarentzat.

2. Produktu horien inportazio-araubideari
buruzko neurriak, neurri horiek hartzeari bu-
ruzko bestelako neurriak barne, Europar Bata-
sunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu-
ko 43. artikuluan jasotako prozeduraren arabera
hartuko dira.

PROTOKOLOA (35.a)

IRLANDAKO KONSTITUZIOAREN 40.3.3 ARTIKULUARI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,
BAT ETORRI DIRA honako xedapen honetan,
eta Europar Batasunaren Tratatuari, Europar Ba-
tasunaren Funtzionamenduari buruzko Trata-
tuari eta Energia Atomikoaren Europako Erki-
degoa eratzeko Tratatuari gaineratuko zaie
eranskin gisa:

Tratatuetak, Energia Atomikoaren Euro-
pako Erkidegoa eratzen duen Tratatu edo Tra-
tatu horiek aldatzeko edo osatzeko Tratatuetak
ezein xedapenek, ez eta Tratatu horiek aldatzen
edo osatzen dituzten tratatu eta egintzetako
ezein xedapenek ez dio eragingo Irlandako
Konstituzioaren 40.3.3 artikuluan aplika-
zioari, artikulua horrek Irlandan behar duen
aplikazioari, alegia.

PROTOKOLOA (36.a)

XEDAPEN IRAGANKORREI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,
AINTZATETSIZ xedapen iragankorrak ezar-
tzea nahitaezkoa dela Lisboako Tratatu indarrean
jarri aurretik aplikagarri ziren tratatuetak
xedapen instituzionaletatik Tratatuaren beraren xed-
apenetara igarotzeko modua antolatzeko,

BAT ETORRI DIRA honako xedapen hauetan,
eta Europar Batasunaren Tratatuari, Europar Ba-
tasunaren Funtzionamenduari buruzko Trata-
tuari eta Energia Atomikoaren Europako Erki-

degoa eratzeko Tratatuari gaineratuko zaizkio eranskin gisa.

1. artikulua

Protokolo honetan, «Tratatuak» hitzarekin honako hauek adierazi nahi dira: Europar Batasunaren Trataturik, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Trataturik eta Energia Atomikoaren Europako Erkidegoa eratzeko Trataturik.

II. TITULUA

EUROPAKO PARLAMENTUARI DAGOZKION XEDAPENAK

2. artikulua

Europar Batasunaren Trataturik 14. artikuluko 2. paragrafoko bigarren lerroarekin bat etorriz, Europako Parlamentuaren osaketa zehazten duen erabaki bat onartuko du Kontseilu Europarrak, Europako Parlamenturik 2009ko hauteskundeak baino nahikoa lehenago.

Legegintzaldia (2004-2009) amaitu artean, Europako Parlamenturik kideen osaketa eta kopurua Lisboako Trataturik indarrean sartu zenean zen berbera izango da.

II. TITULUA

GEHIENGO KUALIFIKATUARI BURUZKO XEDAPENAK

3. artikulua

1. Europar Batasunaren Trataturik 16. artikuluko 4. paragrafoak dioenez, paragrafo horretan eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Trataturik 238. artikuluko 2. paragrafoan agertzen diren xedapenak, Kontseilu Europarreko eta Kontseilurik gehiengo kualifikatuaren zehaztapenari buruzkoek, 2014ko azaroaren 1etik aurrera izango dute eragina.

2. 2004ko azaroaren 1etik 2017ko martxoaren 31ra, erabaki bat gehiengo kualifikatuz hartu behar denean, Kontseilurik edozein kide eskatu ahal izango du erabakia 3. paragrafoan zehazten den gehiengo kualifikatuaren bitartez hartzeko. Kasu horretan, 3. eta 4. paragrafoak aplikatuko dira.

3. 2014ko urriaren 31ra arte, ondoko xedapenak egongo dira indarrean, betiere, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Trataturik 235. artikuluko 1. paragrafoko bigarren lerrokan xedatutakoa errespetatuz.

Kontseilu Europarrak edo Kontseiluak akordioaren bat gehiengo kualifikatuz hartu behar dutenean, honela haztatuko dira kideen botoak:

Belgika	12	Luxenburgo	4
Bulgaria	10	Hungaria	12
Txekiar Errepublikak	12	Malta	3
Danimarka	7	Herbehereak	13
Alemania	29	Austria	10
Estonia	4	Polonia	27
Irlanda	7	Portugal	12
Grezia	12	Errumania	14
Espania	27	Eslovenia	4
Frantzia	29	Eslovakia	7
Italia	29	Finlandia	7
Txipre	4	Suedia	10
Letonia	4	Erresuma Batua	29
Lituania	7		

Tratatuen arabera erabakiak Batzordearen proposamenez hartu behar direnean, gutxienez, berrehun eta berrogeita hamabost boto beharko dira alde, betiere, kopuru horretan kideen gehiengo ordezkatura dagoela. Beste kasuetan, kideen bi herenak ordezkatzeko dituzten gutxienez 255 aldeko boto badaude hartuko dira akordioak.

Kontseilu Europarrak edo Kontseiluak egin-tza bat gehiengo kualifikatuz onartzen dutenean, Kontseilu Europarreko edo Kontseilurik edozein kide eskatu dezake egiaztatu dadila gehiengo kualifikatua osatzen duten estatu kideek gutxienez Batasunerik biztanleriaren % 62 ordezkatzeko dutela. Baldintza hori betetzen ez dela agerian geratzen bada, egin-tza ez da onartuko.

4. Trataturik xedatutakoaren aplikazioz Kontseilurik kide guztiek bozketan parte hartzen ez dutenean, hau da, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Trataturik 238. artikuluko 3. paragrafoaren arabera zehaztatutako gehiengo kualifikatua aplikatu behar denean, 2014ko urriaren 31ra arte, gehiengo kualifikatua honela definituko da: 3. paragrafoan ezarritako boto haztatuen proportzio berdina eta Kontseilurik kideen kopuruaren proportzio berdina eta, egoki denean, dagokien estatu kideen biztanleriaren ehuneko berdina.

III. TITULUA

KONTSEILUAREN OSAEREI BURUZKO XEDAPENAK

4. artikulua

Europar Batasunaren Trataturik 16 C artikuluko 6. paragrafoko lehen lerrokan aipatzen den erabakia indarrean sartzen den arte, Kontseilurik paragrafo horretako bigarren eta hi-

rugarren lerrokadetan ezarritako osaeretan bil daiteke, bai eta Gai Orokorren Kontseiluak gehiengo soilez hartutako erabaki baten bidez ezar dezan zerrendan jasotako beste osaeretan ere.

IV. TITULUA

BATZORDEARI BURUZKO XEDAPENAK, BATASUNAREN ATZERRI ETA SEGURTASUN POLITIKA ERKIDDEKO GOI-ORDEZKARIA BARNE

5. artikulua

Lisboako Tratatua indarrean sartzeko egunean jardunean dauden Batzordeko kideek eginkizunak betetzen jarraituko dute, beren agintaldia amaitzen den arte. Hala ere, Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkaria izendatzen den egunean, amaitu egingo da goi-ordezkararen nazionalitate bera duen kidearen agintaldia.

V. TITULUA

KONTSEILUKO IDAZKARI NAGUSIAREN GAINEN XEDAPENAK, ATZERRI- ETA SEGURTASUN-POLITIKA ERKIDDEKO GOI-ORDEZKARI BAITA, ETA KONTSEILUKO IDAZKARIORDE NAGUSIAREN GAINEN XEDAPENAK

6. artikulua

Kontseiluko idazkari nagusiaren agintaldia, atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkarai baita, eta Kontseiluko idazkariorde nagusiaren agintaldia amaitu egingo dira Lisboako Tratatua indarrean sartzeko egunean. Kontseiluak idazkari nagusi bat izendatuko du, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuko 240. artikuluko 2. paragrafoarekin bat etorritik.

VI. TITULUA

ORGANO AHOLKU-EMAIEN GAINEN XEDAPENAK

7. artikulua

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratuaren 301. artikuluan aipatzen den erabakia indarrean sartzen den arte, Ekonomia eta Gizarte Komiteko kideen banaketa ondorengo izango da:

Belgika	12	Espainia	21
Bulgaria	12	Frantzia	24
Txekiar Errepublika	12	Italia	24
Danimarka	9	Txipre	6
Alemania	24	Letonia	7
Estonia	7	Lituania	9
Irlanda	9	Luxenburgo	6
Grezia	12	Hungaria	12
Malta	5	Eslovenia	7
Herbehereak	12	Eslovakia	9
Austria	12	Finlandia	9
Polonia	21	Suedia	12
Portugal	12	Erresuma Batua	24
Errumania	15		

8. artikulua

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratuaren 305. artikuluan aipatzen den erabakia indarrean sartzen den arte, Eskualdeetako Komiteko kideen banaketa ondorengo izango da:

Belgika	12	Hungaria	12
Bulgaria	12	Malta	5
Txekiar Errepublika	12	Herbehereak	12
Danimarka	9	Austria	12
Alemania	24	Polonia	21
Estonia	7	Portugal	12
Irlanda	9	Errumania	15
Grezia	12	Eslovenia	7
Espainia	21	Eslovakia	9
Frantzia	24	Finlandia	9
Italia	24	Suedia	12
Txipre	6	Erresuma Batua	24
Letonia	7	Lituania	9
Luxenburgo	6		

VII. TITULUA

LISBOAKO TRATATUA INDARREAN SARTU AURRETIK EUROPAR BATASUNAREN TRATATUKO V. ETA VI. TITULUEN ONDORIOZ ONARTUTAKO EGINTZEI BURUZKO XEDAPEN IRAGANKORRAK

9. artikulua

Lisboako Tratatua indarrean sartu aurretik Batasuneko instituzio, organo eta organismoek Europar Batasunaren Tratatuko V. eta VI. tituluaren indarrez onartutako egintzen ondorio juridikoak beren horretan jarraituko dute tratatuen aplikazioaren ondorioz indargabetu, deuseztatu edo aldatzen ez badira. Gauza bera gertatuko da esta-

tu kideek Europar Batasunaren Tratatuan oinarrituta beren artean egindako hitzarmenekin.

10. artikulua

1. Lisboako Tratatua indarrean sartu aurretik polizien arteko lankidetzaren eta gai penaletako lankidetzaren judizialaren esparruan Batasunak onartutako egintzei dagokienez, Tratatua indarrean jartzen denean, instituzioen eskurantzak hauek izango dira, behin-behinean: Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuko 258. artikulua arabera Batzordeak dituen eskurantzak ez dira aplikagarri izango; Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak Europar Batasunaren Tratatuko VI. tituluaren arabera (Lisboako Tratatua indarrean jarri aurreko bertsioan) dituen eskumenak, berriz, indarrean egongo dira gero ere, baita Europar Batasunaren Tratatuko 35. artikulua 2. paragrafoaren arabera onartu badira ere.

2. Lehenengo paragrafoan aipatutako egintzaren bat aldatzen bada, paragrafo horretan aipatzen diren instituzioei tratatuetan esleitutako eskurantzak aplikatuko dira, aldatutako egintzari dagokionez eta egintza hori aplikatuko den estatu kideei dagokienez.

3. Nolanahi ere, 1. paragrafoan aipatzen den xedapen iragankorraz ez du eraginik izango bost urtean, Lisboako Tratatua indarrean sartu ostean.

4. Hirugarren paragrafoan ezarritako epea amaitu baino sei hilabete lehenago, berandueze, Erresuma Batuak Kontseiluari jakinarazi ahalko dio ez dituela onartzen, 1. paragrafoan aipatutako egintzei dagokienez, paragrafo horretan aipatzen diren instituzioei tratatuetan esleitzen zaizkien eskurantzak. Erresuma Batuak jakinarazpen hori egin badu, 1. paragrafoan aipatutako egintza guztiak ez dira aplikatuko 3. paragrafoan ezarritako epea amaitzen denetik. Erresuma Batuari 2. paragrafoaren arabera aplikagarri zaizkien egintza aldatuei, berriz, ez zaie lerrokada hau aplikatuko.

Kontseiluak egoki diren neurriak ezarriko ditu, iragankorrak nahiz aurretik esandakoari darizkionak. Gehiengo kualifikatuz eta Batzordearen proposamenez ezarriko ditu. Erresuma Batuak ez du parte hartuko erabaki hori hartzeko orduan. Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuko 238. artikuluko 3. paragrafoaren a) idatz-zatiaren arabera zehaztuko da Kontseiluaren gehiengo kualifikatua.

Kontseiluak, Batzordearen proposamenez eta gehiengo kualifikatuz, erabaki bat eman ahal

izango du zera ezartzeko, Erresuma Batuak bere gain hartuko dituela egintza horietan parte hartzeari uzteak halaberrez eta ezinbestean ekarriko lituzkeen zuzeneko ondorio finantzarioak.

5. Gerora, edozein momentutan, Erresuma Batuak Kontseiluari jakinarazi ahal izango dio 4. paragrafoaren lehenengo lerrokadaren arabera dagoeneko aplikatzen ez zaizkion egintzetan parte hartu nahi duela. Horrelakoetan, Europar Batasunaren esparruan integratuta dagoen Schengengo altxorari buruzko Protokoloaren edo Erresuma Batuak eta Irlandak askatasun-, segurtasun- eta justizia-esparruarekiko duten jarrerari buruzko Protokoloaren dagozkion xedapenak aplikatuko dira, kasuan kasu. Instituzioek tratatuetan ezarritako eskurantzak izango dituzte egintza horiei dagokienez. Kasuan kasuko protokoloak aplikatzeko orduan, Batasuneko eta Erresuma Batuko instituzioek ahaleginak egingo dituzte Erresuma Batuak ahalik eta partaidetza-mailarik handiena berreskura dezan Batasunak askatasun-, segurtasun- eta justizia-espazioaren esparruan duen altxorrean; betiere, horrek, praktikan, osagai desberdinen funtzionamenduan eragin larririk izan ez dezan ziurtatuz eta osagai horien arteko koherentzia errespetatuz.

PROTOKOLOA (37.a)

IKATZAREN ETA ALTZAIUAREN EUROPAKO ERKIDEGOAREN TRATATUAREN ETA IKATZAREN ETA ALTZAIUAREN IKERKETA FUNTSAREN AMAIERAREN FINANTZA- ONDORIOEI BURUZKOA

TRATATUGILE GORENEK,

GOGOAN IZANDA Ikatzaren eta Altzairuaren Europako Erkidegoaren ondare aktibo eta pasiboaren elementu guztiak 2002ko uztailaren 23an zeuden moduan Europako Erkidegoari eskualdatu zitzaizkiola 2002ko uztailaren 24az geroztik,

KONTUAN IZANDA komenigarria dela funts horiek ikatzaren eta altzairuaren industriarekin lotzen diren sektoreetako ikerketarako erabiltzea, eta, ondorio horretarako, arau zehatz batzuk ezarri beharko direla,

BAT ETORRI DIRA honako xedapen hauetan, eta Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuari erantsiko zaizkio:

1. artikulua

1. Likidazio-eragiketen ondorioz sor daitezkeen gehikuntzen edo murrizketei kalterik egin gabe, Ikatzairen eta Altzairuaren Europako Erkidegoaren ondare aktiboaren eta pasiboaren elementuen balio garbia –Ikatzairen eta Altzairuaren Europako Erkidegoaren 2002ko uztailaren 23ko balantzean adierazten dena– Europar Batasunaren ondaretzat joko da –ikatzaren eta altzairuaren industriarekin lotzen diren sektoreetako ikerketari zuzentzen zaion ondaretzat, hain zuzen ere–. «Likidatzen den Ikatzairen eta Altzairuaren Europako Erkidegoa» izendatuko zaio. Likidazioaren itxieraren ondoren, ondare horri «Ikatzairen eta Altzairuaren Ikerketa Funtsaren Aktibo» deituko zaio.

2. Ondare horrek sortzen dituen sarrerak, hots, "Ikatzairen eta Altzairuaren Ikerketa Funtsa" ikatzaren eta altzairuaren industriarekin lotzen diren sektoreetako ikerketarako soilik erabiliko da –ikerketako esparru-programaz kanpo–, betiere, protokolo honetan eta honen indarrez onartzen diren egintzetan xedatutakoaren arabera.

2. artikulua

Kontseiluak, Europako Parlamentuak onartu ondoren eta legegintzako prozedura berezi baten bitartez, protokolo hau aplikatzeko beharrezko diren xedapen guztiak ezarriko ditu, funtsezko printzipioak barne.

Kontseiluak onartuko ditu, Batzordeak proposatu eta Europako Parlamentuari kontsulta egin ondoren, Ikatzairen eta Altzairuaren Ikerketa Funtsaren ondarea kudeatzeko finantza-jarraibideak; jarraibide horiek hainbat urterako izango dira. Orobat onartuko ditu funts hori ikertzeko programarako jarraibide teknikoak.

3. artikulua

Protokolo honen eta beraren ondorioz onartutako egintzen kontrako xedapenik ezean, Tratatuetan ezarritako xedapenak aplikatuko dira.

4. ERANSKINAK

I. ERANSKINA

EUROPAR BATASUNAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO TRATATUKO 38.
ARTIKULUAN AURREIKUSITAKO ZERRENDA

(1) Bruselako nomenklaturako partidak	(2) Produktuen izendapena
1. kapitulua	Animalia biziak
2. kapitulua	Okelak eta barrukiak
3. kapitulua	Arrainak, oskoldunak eta soinberak
4. kapitulua	Esnea eta esnekiak; hegazti arrautzak; ezti naturala
5. kapitulua	
05.04	Animalien erraiak, maskuriak eta urdailak (arrainez bestekoak), osorik edo puskatan
05.15	Beste partida batzuetan ez adierazitako ez hartutako animalia etorkiko beste elikagaiak; 1. kapituluko edo 3. kapituluko animalia hilak, giza kontsumorako desegokiak
6. kapitulua	Landare biziak eta lorazaintzako ekoizkinak
7. kapitulua	Elikadurarako lekadunak, landareak, sustraiak eta tuberkuluak
8. kapitulua	Fruitu jateko onak; garrazkien edo meloien azalak
9. kapitulua	Kafea, tea eta ongailuak, mate belarra (09.03 partida) izan ezik.
10. kapitulua	Laboreak
11. kapitulua	Errotaritzako ekoizkinak; malta; almidoiak eta fekulak; glutenak; inulina
12. kapitulua	Hazi eta fruitu oliotarakoak; bestelako aleak, haziak eta fruituak; industriako eta medikuntzako landareak; lastoa eta bazkak
13. kapitulua	
ex 13.03	Pektina
15. kapitulua	
15.01	Gantza, beste txerri-koipe batzuk eta hegazti-koipeak, bihurrituak edo urtuak
15.02	Bilgorrak (behi-, ardi- eta ahuntz-aziendenak), gordinik edo urtuak, «lehen zuku» direlako bilgorrak barne direla
15.03	Bilgor-estearina; oleoestearina; txerri-gantzezko olioak eta oleomargarina ez-emultsionatua, inolako nahasketa edo prestaketarik gabek

(1) Bruselako nomenklaturako partidak	(2) Produktuen izendapena
15.04	Koipeak eta olioak, arrainenak eta itsas ugaztunenak, finduak barne direla
15.07	Landare-olio finkoak, jariakorrak edo sendoak, gordinak, garbituak edo finduak
15.12	Animalia- edo landare-koipeak eta olioak, hidrogenatuak, finduak edo ez, baina ez ondoren prestatuak
15.13	Margarina, txerri gantzaren ordezkioak eta beste elikadura-koipe prestatu batzuk
15.17	Gai koipetsuetatik edo animalia- edo landare-argizarietatik datozen hondarrak.
16. kapitulua	Okelazko, arrainezko, eskoldunezko eta soinberazko prestakinak
17. kapitulua	
17.01	Beterraba-azukreak eta kanabera-azukreak, sendoak
17.02	Beste azukre batzuk; ziropak, eztiaren ordezkioak, are ezti naturalarekin nahasiak; azukre eta melaza karamelutuak
17.03	Melazak, koloregabetuak edo ez
17.05 (*)	Azukre, ziropa edo melaza usaingozatuak edo koloreztatuak (bainilla-azukrea edo bainillina barne direla), baina edozein proportziotan azukre gehitua duten fruitu-zukuak salbuetsita.
18. kapitulua	
18.01	Kakao aleak, osoak edo zatituak, gordinak edo xigortuak
18.02	Kakao-oskolak, -azalak, -mintzak eta -hondarrak
20. kapitulua	Lekadunezko edo barazkizko prestakinak, fruituzkoak eta beste landare edo landare zati batzuenak
22. kapitulua	
22.04	Mahats-muhtioa, hartzidurakoa edo alkohol-gehiketaz bestela geldiarazitako hartzidurakoa
22.05	Mahats-ardoa; alkohol-gehieketa geldiarazitako hartzidurako mahats-muhtioa (mistelak barne direla)
22.07	Sagardoa, udare-ardoa, ezti-ura eta beste edari hartzitu batzuk
ex 22.08 (*)	Etil-alkohola, desnaturalizatua edo desnaturalizatu gabea, edozein gradua-

(1) Bruselako nomenklaturako partidak	(2) Produktuen izendapena
ex 22.09 (*)	ziokoa, I. eranskinean zerrendatutako nekazaritza-produktuetatik lortua, pattarrak, likoreak eta gainerako edari biziak salbuetsita; edariak fabrikatzeko alkohol-prestakin konposatuak («aterakin kontzentratu» direlakoak).
22.10 (*)	Ozpina eta horren ordezeko jangarriak
23. kapitulua	Elikagai-industrietako hondarrak eta hondakinak; animalientzako janari pres-tatuak
24. kapitulua	
24.01	Tabako-zotzak edo tabako landugabea; tabako-hondakinak
45. kapitulua	
45.01	Artelazki naturala, landugabea; artelazki-hondakinak; artelazki birrindua, pikortatua edo hautseztatua
54. kapitulua	
54.01	Liho landugabea (liho-laborea), ikuzia, ezpatatua, txarrantxatua (orraztua) edo bestela zehatua, baina irun gabea; lihozko iltupak eta hondakinak (litsak barne direla)
57. kapitulua	
57.01	Kalamu landugabea (Cannabis sativa), ikuzia, ezpatatua, txarrantxatua (orraztua) edo bestela zehatua, baina irun gabea; kalamuzko iltupak eta hondakinak (litsak barne direla).

^(*) Europako Ekonomia Erkidegoko Kontseiluaren 1959ko abenduaren 18ko 7 bis zk.ko Erregelamenduko 1. artikulua erantsitako partida (7 zk.ko EO, 1961.01.30ekoa, 71. or.).

II. ERANSKINA

EUOPAR BATASUNAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO TRATATUAREN LAUGARREN ZATIKO XEDAPENAK APLIKATUKO ZAIZKIEN ITSASOZ HARAINDIKO HERRIALDE ETA LURRALDEAK

- Groenlandia,
- Kaledonia Berria eta haren mendekoak,
- Polinesia Frantsesa,
- Lurralde austral eta antartiko frantsesak,
- Wallis eta Futuna uharteak,
- Mayotte,
- Saint-Pierre eta Mikelune,
- Aruba,
- Holandarren Antillak:
 - Bonaire,
 - Curaçao,
 - Saba,
 - San Eustakio,
 - San Martin,
- Anguilla,
- Kaiman uharteak,
- Falkland uharteak (Malvinak),
- Hegoaldeko Georgia eta Hegoaldeko Sandwich uharteak,
- Montserrat,
- Pitcairn,
- Santa Helena eta haren mendekoak,
- Lurralde antartiko britainiarra,
- Indiako Ozeanoko lurralde britainiarrak,
- Tuks eta Caicos uharteak,
- Birjina uharte britainiarrak,
- Bermudak.

5. ADIERAZPENAK
LISBOAKO TRATATUA ONETSI DUEN
GOBERNUEN ARTEKO BILTZARRAREN
AZKEN AKTARI ERANTSIAK

2007ko abenduaren 13an sinatua

A. TRATATUETAKO XEDAPENEI BURUZKO ADIERAZPENAK

1. Adierazpena, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunari buruzkoa

Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak, zuzenbidez behartzeko indarra baitu, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenak bermatzen dituen oinarrizko eskubideak berresten ditu, estatuko kideek konstituzio-tradizio erkideetan ageri diren gisan.

Gutun honek ez du hedatzen Europar Batasuneko zuzenbidearen aplikazioa Batasunaren beraren eskumenez harago; halaber, ez du sortzen eskumen edo misio berririk Batasunarentzat, ez eta Tratatuaren definituta dauden eskumenak eta eginkizunak aldatzen ere.

2. Adierazpena, Europar Batasunaren Tratatuaren 6. artikulua 2. paragrafoari buruzkoa

Biltzarra bat dator honetan: Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenari atxikitzeko orduan Europar Batasunak bere ordenamendu juridikoaren berezitasunak gorde ahal izan beharko litzuke. Biltzarrak aintzakotzat hartu du elkarriketak izaten ari direla Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren artean; elkarriketa hori areago indartuko da Europar Batasuna Hitzarmen horri atxikitzen zaionean.

3. Adierazpena, Europar Batasunaren Tratatuaren 8. artikulua buruzkoa

Europar Batasunak kontuan hartuko du hurbil izateagatik berarekin harreman bereziak dituzten herrialde txikien egoera berezia.

4. Adierazpena, Europako Parlamentuaren osaerari buruzkoa

Europako Parlamentuko eserleku gehigarria Italiari esleituko zaio.

5. Adierazpena, Kontseilu Europarrak Europako Parlamentuaren osaerari buruzko erabaki-egitasmoaren gainean hartutako erabaki politikoari buruzkoa

Kontseilu europarrak onesten politikoa emango dio Europako Parlamentuaren 2009-

2014 legeintzaldirako osaerari buruzko erabakiaren egitasmo berrikusiari, Europako Parlamentuaren proposamenaren oinarriturik.

6. Adierazpena, Europar Batasunaren Tratatu 15. artikuluko 5. eta 6. paragrafoei, 17. artikuluko 6. eta 7. paragrafoei eta 18. artikulua buruzkoa

Kontseilu Europarreko lehendakariaren kargua, Batzordeko lehendakariaren kargua eta Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordetzariaren karguak beteko dituzten pertsonak hautatzeko orduan, behar bezala hartuko da kontuan Batasunaren eta estatu kideen dibertsitate geografikoa eta demografikoa errespetatzeko beharrazana.

7. Adierazpena, Europar Batasunaren Tratatuaren 16. artikulua 4. paragrafoari eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 238. artikulua 2. paragrafoari buruzkoa

Biltzarrak honako hau adierazten du: Europar Batasunaren Tratatuaren 16. artikulua 4. paragrafoaren eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 238. artikulua 2. paragrafoaren aplikazioari buruzko Erabakia Lisboako Tratatu sinatzen den egunean hartuko du Kontseiluak, eta tratatu indarrean sartzen den egun berean sartuko indarrean. Erabaki-proiektua honako hau da:

Kontseilu Europarraren erabaki-proiektua, Europar Batasunaren Tratatuaren 16. artikulua 4. paragrafoaren eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 238. artikulua 2. paragrafoaren aplikazioari buruzkoa, hots, erabakitzen du xedapen horiek nola aplikatu behar diren, batetik, 2014ko azaroaren 1a eta 2017ko martxoaren 31 artean, eta, bestetik, 2017ko apirilaren 1etik aurrera.

EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK Honako hauek hartu ditu kontuan:

- (1) Xedapenak onartu beharko liratekeela igaroaldi leun bat egiteko modua izan dadin Kontseiluan erabakiak gehiengo kualifikatuz hartzeko oraingo sistematik —xedapen iragankorreari buruzko protokoloaren 3. artikuluko 3. paragrafoan dago zehazturik sistema hori, eta 2014ko urria arte iraungo du horren aplikazioak— Europar Batasunaren Tratatuaren 16. artikuluko 4. paragrafoan eta Eu-

ropar Batasunaren Fun-tzionamenduari buruzko Tratatuaren 238. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako bozketa-sistemara, zeinak 2014ko azaroaren 1az geroztik aplikatuko baita, 2017ko martxoaren 31 arteko igaroaldi batean aplikatuko diren protokolo horretako 3 artikuluko 2. paragrafoan ezarritako berriarazko xedapen batzuk barne.

- (2) Gogorarazi behar da Kontseiluaren ohi-tura dela ahalegin guztiak egitea, gehiengo kualifikatuz onartutako egintza ororen legitimitate demokratikoa indartzeko.

ERABAKI DU:

1. ATALA

2014ko azaroaren 1a eta 2017ko martxoaren 31 bitartean aplikatu beharreko xedapenak.

1. artikulua

2014ko azaroaren 1a eta 2017ko martxoaren 31 bitartean, baldin eta Kontseiluko kide kopuru bat Kontseiluak egintza bat gehiengo kualifikatuz onartzearen aurka agertzen bada, Kontseiluak eztabaida egingo du auziaren inguruan. Nolanahi ere, horretarako, Kontseiluko kide kopuru horrek honako hau ordezkatu behar du:

- a) gutxienez biztanleriaren hiru laurden, edo
- b) gutxienez estatu kideen kopuruaren hiru laurden,

hori behar baita blokeo gutxiengoa eratzeko, Europar Batasunaren Tratatuaren 16. artikuluen 4. paragrafoaren lehenbiziko lerrokadaren arabera edo Europar Batasunaren Fun-tzionamenduari buruzko Tratatuaren 238. artikuluen 2. paragrafoaren arabera.

2. artikulua

Kontseiluak, eztabaida horretan, eginahal guztiak egingo ditu 1. artikuluko kontseilu-kide horiek adierazitako kezkei konponbide gogobeteko bat emateko, betiere arrazoizko epe baten barruan eta Europar Batasuneko zuzenbideak ezarritako nahitaezko epeak huts egin gabe.

3. artikulua

Horretarako, Kontseiluko lehendakariak, Batzordeak lagunduta eta Kontseiluaren barne-

erregelamendua begiratuz, Kontseiluan adostasun-oinarri zabalagoa lortzeko beharrezko diren neurri guztiak onartuko ditu. Kontseiluko ki-deek laguntza emango diote.

2. ATALA

2007ko apirilaren 1etik aurrera aplikatzeko xedapenak

4. artikulua

2007ko apirilaren 1etik aurrera, baldin eta Kontseiluko kide kopuru bat Kontseiluak egin-tza bat gehiengo kualifikatuz onartzearen aurka agertzen bada, Kontseiluak eztabaida egingo du auziaren inguruan. Nolanahi ere, horretarako, Kontseiluko kide kopuru horrek honako hau ordezkatu behar du:

- a) gutxienez biztanleriaren % 55, edo
- b) gutxienez estatu kideen kopuruaren % 55, hori behar baita blokeo gutxiengoa eratzeko, Europar Batasunaren Tratatuaren 16. artikuluen 4. paragrafoaren lehenbiziko lerrokadaren arabera edo Europar Batasunaren Fun-tzionamenduari buruzko Tratatuaren 238. artikuluen 2. paragrafoaren arabera.

5. artikulua

Kontseiluak, eztabaida horretan, eginahal guztiak egingo ditu 4. artikuluko kontseilukide horiek adierazitako kezkei konponbide gogobeteko bat emateko, betiere arrazoizko epe baten barruan eta Europar Batasuneko zuzenbideak ezarritako nahitaezko epeak huts egin gabe.

6. artikulua

Horretarako, Kontseiluko lehendakariak, Batzordeak lagunduta eta Kontseiluaren barne-erregelamendua begiratuz, Kontseiluan adostasun-oinarri zabalagoa lortzeko beharrezko diren neurri guztiak onartuko ditu. Kontseiluko ki-deek laguntza emango diote.

3. ATALA

Indarrean jartzea

7. artikulua

Lisboako Tratatua indarrean sartzen den egunean sartuko da indarrean Erabaki hau

8. Adierazpena, Lisboako Trataturaren indarrean sartzen denean Kontseilu Europarraren Lehendakariaren eta Atzerri Arazoetako Kontseiluaren buruz onartu beharreko neurri praktikoei buruzkoa

Baldin eta Lisboako Trataturaren 2009ko urtariraren 1a baino geroago sartzen bada indarrean, Biltzarrak eskatuko die une horretan Kontseiluaren sei hileko lehendakariaren duen estatu kideko agintari eskudunei, alde batetik, eta Kontseilu Europarreko lehendakari hautatuko den pertsonari eta Batasunaren atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkariei izendatuko den pertsonari, bestetik, onar ditzatela, hurrengo sei hileko lehendakariarekin kontsultatuz, Kontseilu Europarraren eta Atzerri Arazoetako Kontseiluaren Lehendakariaren gai materialak eta antolaketa-kontuak behar bezala eskualdatzeko behar diren neurri berezi guztiak.

9. Adierazpena, Europar Batasunaren Trataturaren 16. artikuluen 9. paragrafoari buruzkoa (Kontseilu Europarrak Kontseiluko Lehendakariaren buruz emandako erabakiari buruzkoa)

Biltzarrak honako hau adierazten du: Kontseiluak, Lisboako Trataturaren sinatu bezain laster, Kontseiluaren lehendakari kargua betetzeari buruzko erabakia aplikatzeko prozedurak ezarriko dituen erabakia prestatzen hasi beharko luke, eta politikoki onartu beharko luke sei hileko epean. Ondoren, Kontseilu Europarraren erabaki-proiektu bat jaso du; Tratatu hori indarrean sartzen den egunean onartuko da erabakia.

Kontseilu Europarraren erabaki-proiektua, Kontseiluaren lehendakari kargua betetzeari buruzkoa.

1. artikulua

1. Kontseiluko lehendakari kargua, atzerri arazoetako osakerari dagokionean izan ezik, hiru estatu kideetako talde aldez aurretik ezarritakoek beteko dute hemezortzi hilabetez. Taldeok estatu kideen arteko txandakatze berdinen arabera eratuko dira, estatu kideen dibertsitatea eta Europar Batasunaren barruko geografia-orekak kontuan hartuz.

2. Taldeko kide bakoitzak txandaka beteko du, sei hilabetez, Kontseiluaren osaketa guztien lehendakari kargua, atzerri arazoetako izan ezik. Taldeko gainerako kideek lagundu egingo

diote lehendakariari bere eginkizun guztietan, programa erkide bati jarraituz. Taldeko kideek beste akordio batzuk adostu ahal izango dituzte elkarren artean.

2. artikulua

Estatu kideetako gobernuen Ordezkariei Iraunkorren Komiteko lehendakari-kargua honako honek beteko du: Gai Orokorren Kontseiluko lehendakari-kargua bere gain duen estatu kidearen ordezkariei batek.

Politika eta Segurtasun Komitearen lehendakari kargua Europar Batasunaren atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkariei beteko du.

Kontseiluko era bateko eta besteko osakeren prestakuntza-organoetako lehendakari-kargua, Atzerri Arazoetako osakeraren izan ezik, dagokion osakeren lehendakari-kargua bere gain duen taldeko kideari egokituko zaio, non eta ez den kontrakoa erabakitzen 4. artikuluen arabera.

3. artikulua

Gai Orokorren Kontseiluak, Batzordearekiko lankidetzaz, Kontseiluaren osaketa batzuen eta besteen lanek koherentzia eta jarraitutasuna izan ditzaten zainduko du, betiere urte anitzeko programazioaren esparruan. Lehendakari kargua betetzen duten estatu kideek Kontseiluaren lana antolatzeko eta ongi gauzatzeko behar diren xedapen guztiak onartuko dituzte, Kontseiluaren Idazkaritza Orokorren laguntzarekin.

4. artikulua

Kontseiluak erabaki bat onartuko du, erabaki hau aplikatzeko neurriak ezartzeko.

10. Adierazpena, Europar Batasunaren Trataturaren 17. artikuluari buruzkoa

Biltzarrak uste du Batzordeak, estatu kide guztietako ordezkaririk izango ez duenean, arreta berezia jarri beharko liokeela estatu kide guztiekiko harremanetan gardentasuna ziurtatzeko beharizanari. Hori dela-eta, Batzordeak harreman estua eduki beharko luke estatu kide guztiekin, haiek Batzordeko kide gisa ordezkariei izan edo ez, eta, egoera horretan, arreta berezia ezarri informazioa estatu kide guztiekin partekatze eta estatu kide guztiei galdetzeko beharizanari.

Gainera, Biltzarrak uste du Batzordeak beharrezko diren neurri guztiak hartu beharko litzatekeela estatu kide guzti-guztien politika-, gizarte- eta ekonomia-errealitateak kontuan hartzeko, erabat kontuan hartu ere, are Batzordeko kideen artean herritarrik ez duten estatu kideenak ere. Neurri horien artean, estatu kide horien egoerari antolamendu-xedapen egokien bidez erantzuten zaiolako bermea izan beharko litzateke.

11. Adierazpena, Europar Batasunaren Tratatuaren 17. artikulua 6. eta 7. paragrafoei buruzkoa

Biltzarrak uste du ezen, Tratatuaren xedapenen arabera, Europako Parlamentuak eta Kontseilu Europarrak biek batera dutela erantzukizuna Europako Batzordeko lehendakaria hautatzeko prozesua ondo bidera dadin. Kontseilu Europarrak erabakia hartu baino lehen, Europako Parlamentuko ordezkarien eta Kontseilu Europarreko ordezkarien artean beharrezkoak diren kontsultak egingo dira, egokien irizten zaion esparruan. Kontsulta horiek Batzordeko lehendakariak hautagaien ezaguerari buruz izango dira, eta Europako Parlamenturako hauteskundeak hartuko dira kontuan horretarako, 17. artikulua 7. paragrafoarekin bat etorriz. Kontsulta horiei buruzko baldintzak Europako Parlamentuaren eta Kontseilu Europarraren arteko adostasunez ezarriko dira, dagokion unean.

12. Aiderazpena, Europar Batasunaren Tratatuaren 18. artikuluari buruzkoa

1. Biltzarrak honako hau adierazten du: Europar Batasuneko atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkaria izendatu aurretik egin beharreko prestatze-lanak egin bitartean, egoki diren harremanak edukiko dira Europako Parlamentuarekin; izendapen hori Lisboako Tratatu indarrean sartzen den egunean egingo da, Europar Batasunaren 18. artikulua eta xedapen iragankorreki buruzko Protokoloaren 5. artikulua xedatutako eran. Goi-ordezkariaren agintaldiak izendapena egin denetik hasi eta egun horretan bertan jardunean den Batzordearen agintaldia amaitu arte iraungo du.

2. Halaber, Europar Batasunaren atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkariari dagokionez —2009ko azaroan hasiko da haren agintaldia, hurrengo Batzordearen agintaldiarekin batera eta haren iraupen berarekin—, Bil-

tzarrak gogorarazten du Europar Batasunaren Tratatuaren 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoaren arabera izango dela izendatua.

13. Adierazpena, atzerri- eta segurtasun-politika erkideari buruzkoa

Biltzarrak honako hau nabarmentzen du: Europar Batasunaren Tratatuaren atzerri- eta segurtasun-politika erkideari buruz ezarritako xedapenek, hala nola atzerri- eta segurtasun-politika goi ordezkariaren kargua sortzeak eta atzerri-ekin-tzarako zerbitzu europarra sortzeak, ez diote kalterik egingo estatu kideek beren kanpo-politikari dagokion guztia zehaztu eta zuzentzeko egun duten erantzukizunari edota hirugarren herrialdeetan eta nazioarteko erakundeetan izan dezaten ordezkariari.

Biltzarrak gogorarazten du, orobat, segurtasun- eta defentsa-politika erkidea arautzen duten xedapenek ez diotela ezertan eragiten estatu kideen segurtasun- eta defentsa-politikaren berezotasunari.

Nabarmentzen du, orobat, Europar Batasunak eta bere estatu kideek Nazio Batuen Gutunaren xedapenen pean jarraituko dutela, eta, bereziki, Segurtasun Kontseiluak eta hura osatzen duten kideek nazioarteko bakea eta segurtasuna zaintzeko duten erantzukizun nagusiaren pean.

14. Adierazpena, atzerri- eta segurtasun-politika erkideari buruzkoa

Europar Batasunaren Tratatuaren 24. artikulua 1. paragrafoan aipatzen diren berariazko arau eta prozedura horiez gain, Biltzarrak honako hau ere nabarmentzen du: atzerri- eta segurtasun-politika erkideari buruzko xedapenek, atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkariari buruzkoak eta atzerri-ekin-tzarako zerbitzu europarrari buruzkoak barne, ez diete eragingo Estatu kide bakoitzak bere atzerri-politika, bere diplomazia-zerbitzua, hirugarren herrialdeekiko harremanak eta nazioarteko erakundeetan duen partaidetza (Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluko kide izatea barne, baldin eta hala bada) zehaztu eta zuzentzeko dituen erantzukizunei eta ahalei, ez eta horiei guztiei buruzko oinarri juridikoari ere.

Biltzarra ohartzen da, orobat, atzerri- eta segurtasun-politika erkideari buruzko xedapenek ez diotela ematen Batzordeari erabakiak hartzeko ekimena baliatzeko ahal berririk, eta ez dutela, halaber, Europako Parlamentuaren eginkizuna indartzen.

Biltzarrak gogorarazten du, orobat, segurtasun- eta defentsa-politika erkidea arautzen duten xedapenek ez diotela ezertan eragiten estatu kideen segurtasun- eta defentsa-politikaren berezkotasunari.

15. Adierazpena, Europar Batasunaren Tratatuaren 27. artikuluari buruzkoa

Biltzarrak hau adierazten du: Lisboako Tratua sinatu bezain laster, Kontseiluko idazkari nagusiak, atzerri- eta segurtasun-politika erkideko goi-ordezkariek, Batzordeak eta estatu kideek atzerri-ekintzarako zerbitzu europarra prestatzeko lanei ekin beharko lieketela.

16. Adierazpena, Europar Batasunaren Tratatuaren 55. artikulua 2. paragrafoari buruzkoa

Biltzarrak hau uste du: Tratatuak 55. artikulua 2. paragrafoan aipatzen diren hizkuntzetara itzultzeko aukera emanez, Batasuneko kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren aberastasuna errespetatzeko xedea betetzen laguntzen dela, alegia, 3. artikuluko 3. paragrafoko laugarren lerrokadan adierazitako xedea. Hala, Biltzarrak berretsi egiten du Europar Batasunak Europaren kultura-aniztasunaren alde eta aipatutako hizkuntza horiei eta beste batzuei arreta berezia jartzen jarraitzearen alde hartzen duen engaiamendua.

Biltzarrak gomendio hau egiten du: 55. artikuluko 2. paragrafoan aitortzen den aukera erabili nahi duten estatu kideek, Lisboako Tratua sinatutako egunean hasitako sei hilabeteke epearen barruan, jakinarazi diezaiotela Kontseiluari Tratatuak zein hizkuntzataratu itzuliko diren.

17. Adierazpena, lehentasunari buruzkoa

Biltzarrak gogorarazten du ezen, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak behin eta berriz ezarritako jurisprudentziaren arabera, Europar Batasunak onartzen dituen tratatuak eta tratatu horietan oinarriturik onartzen duen zuzenbidea lehentasuna izango dutela estatu kideen zuzenbidearen gainetik, betiere jurisprudentzia horrek ezarritako baldintzen arabera.

Halaber, Biltzarrak erabaki du Azken Akta honi eranstea Kontseiluaren Zerbitzu Juridikoak 11197/07 (JUR 260) agiriaren bitartez lehentasunari buruz emandako irizpena:

«Kontseiluaren Zerbitzu Juridikoaren irizpena, 2007ko ekainaren 22koa

Justizia Auzitegiak ezarritako jurisprudentziatik ondorio hau ateratzen da: Erkidegoko zuzenbidearen lehentasuna Europako Erkidegoko zuzenbidearen oinarritzko printzipio bat da. Justizia Auzitegiaren arabera, printzipio hori Europako Erkidegoaren beraren izaera bereziari datxekio. Jurisprudentzia horren lehenbiziko epaia eman zenean (Costa/ENEL, 1964ko uztailearen 15a, 6/64 kasua (1)), Tratatuan ez zen aipatzen lehentasunik, eta halaxe gertatzen da gaur ere. Lehentasunaren printzipio hori etorkizuneko tratatuan sartu ez arren, printzipioa hor izango da, eta Justizia Auzitegiak horren inguruan ezarritako jurisprudentzia ere hor izango da.»

18. Adierazpena, eskumenen zedarritzeari buruzkoa

Biltzarrak honako hau nabarmendu nahi du: eskumenak Batasunaren eta estatu kideen artean banatzeko Europar Batasunaren Tratatuan eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuan ezarritako sistemaren arabera, Batasunari esleitu ez zaizkion eskumenek estatu kideen esku jarraituko dute.

Tratatuak arlo jakin batean estatu kideekin partekatzea den eskumen bat esleitzen diotenean Batasunari, hark erabili ez duen heinean edo ez erabiltzea erabaki duen heinean erabiliko dute estatu kideek beren eskumena. Batasunak erabaki hori hartzea, alegia, bere eskumena erabiltzen ez jarraitzekoa, kasu honetan gertatzen da: Europar Batasunaren instituzio eskudunek legegintzako egintza bat indargabetzea erabakitzen dutenean, subsidiaritate- eta heinekotasun-printzipioen errespetu etengabea hobeki ziurtatzeko bereziki. Kontseiluak, bere kideetako batek edo hainbatek (estatu kideen ordezkariak) proposaturik, eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 241. artikuluari jarraituz, legegintzako

⁽¹⁾ "(...) Estatuen barneko lege-xedapenek, edozein dela ere horien eitea, ezin dituzte bazterreria eta indarririk gabe utzi Tratatuaren ondorioz ematen diren legeak (Tratatu bera zuzenbide-iturri beregain izanik), beren izaera berezko eta bereziaren kariaz. Izan ere, hartara, galdutako erakunde Erkidegoko zuzenbidearen izaera, eta erkidegoaren beraren legeko oinarria bera ere auzitan jarriko litzateke".

egintza bat indargabetzeko proposamenak aurkez ditzala eska diezaioke Batzordeari. Biltzarrek poza adierazten du Batzordeak eskabide horiei arreta berezia jarriko diela-eta egindako adierazpenarengatik.

Era berean, estatu kideetako gobernuetako ordezkariak, Gobernu arteko Biltzar batean bildurik, erabaki dezakete Tratatuak aldatzea Europar Batasunaren Tratatuaren 48. artikuluko 2. paragrafotik 5.era artekoetan ezarritako berrikuspenezko prozedura arruntari jarraituz, eta, aldaketa horren barruan, are Tratatuak Batasunari esleitzen dizkieten eskumenak gehitzea edo gutxitzea ere.

19. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 8. artikuluari buruzkoa

Biltzarra bat dator honetan: emakumeen eta gizonezkoen arteko ezberdintasunak ezabatze-ko bere lehian, Batasunak ahalegina egingo du, bere politiketan, etxe barruko era guztietako indarkeriaren aurka egiten. Estatu kideek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte delituzko egintza horiei guztiei aurrea hartzeko eta egintza horiek zigortzeko, bai eta biktimei laguntza eta babesa emateko ere.

20. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 16. artikuluari buruzkoa

Biltzarrek honako hau adierazten du: baldin eta 16. artikuluan oinarriturik datu pertsonalen babesari buruz hartu beharreko arauak estatu kideen estatu-segurtasunari eragin ahal badiote zuzen-zuzenean, dena delako auzi horren ezaugarri bereziak hartu beharko dira kontuan. Gogorarazten du, orobat, egun aplikatzen den legediak (ikus, bereziki, 95/46/EE Zuzentaraua) badituela berariazko salbuespen batzuk gai honi dagokionez.

21. Adierazpena, zigor-arloko lankidetzaren judizialaren eta polizia-arloko lankidetzaren arloetan datu pertsonalak babesteari buruzkoa

Biltzarrek aitortzen du beharrezkoa izan litekeela datu pertsonalei eta datu horien zirkulazio libreaki buruzko arau bereziak ezartzea zigor-arloko lankidetzaren judizialaren eta polizia-arloko lankidetzaren eremuetan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 16. artikuluan oinarrituta, eremu horien izaera berezia dela-eta.

22. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 48. eta 79. artikuluei buruzkoa

Biltzarren iritzia da hau: baldin eta 79. artikuluan 2. paragrafoan oinarritutako lege-egintzako egintza baten proiektuak kalte egiten badie estatu kide baten gizarte-segurtasuneko sistemaren alderdi oinarritzoei, hala nola haren aplikazio-eremuari, kostu- edo finantza-egiturari, edota sistema horren finantza-orekari eragiten badiot, 48. artikuluan 2. lerroakadan zehaztuta dagoen eran, orduan aintzat hartuko dira, behar bezala, estatu kide horren interesak.

23. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 48. artikuluko bigarren lerroakadari buruzkoa

Biltzarrek gogorarazten du ezen, kasu honetan, Europar Batasunaren Tratatuaren 15. artikuluko 4. paragrafoan ezarritakoaren arabera, Kontseilu Europarrak adostasunez hartuko dituela erabakiak.

24. Adierazpena, Europar Batasunaren nortasun juridikoari buruzkoa

Biltzarrek honako hau berresten du: Europar Batasunak, nortasun juridikoa izan arren, ez du horregatik, inolaz ere, estatu kideek Tratatu-etan esleitu dizkieten eskumenez harago jarduteko edo eskumen horiez haragoko legeak emateko baimenik.

25. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 75. eta 215. artikuluei buruzkoa

Biltzarrek hau gogorarazi nahi du: oinarritzko eskubideei eta askatasunei zor zaien begiramenak esan nahi du babestu eta errespetatu egin behar dela direnak direlako pertsona fisikoek edo erakundeek legean jasotako bermeez baliatzeko duten eskubidea. Horretarako, eta pertsona fisiko edo pertsona juridiko bati neurri murrizgarriak ezartzen dizkieten erabakiek epaileen kontrola igaroko dutela bermatzearen, erabaki horiek irizpide garbi eta zehatzetan oinarriturik egon behar dute. Irizpide horiek neurri murrizgarri bakoitzaren berezitasunaren arabera izan beharko lirateke.

26. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren hirugarren zatiko V. tituluan oinarritutako neurri batean estatu kide batek parte ez hartzeari buruzkoa

Biltzarrak honako hau adierazten du: estatu kide batek hautatzen duenean parte ez hartzea Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren hirugarren zatia V. tituluan oinarritutako neurri batean, Kontseiluak eztabaida zabala egingo du estatu kide horrek neurri horretan parte ez hartzeak izan ditzakeen ondorioez eta eraginez.

Gainera, edozein estatu kideek eska diezaiotke Batzordeari azter dezala egoera, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 116. artikuluan oinarrituz.

Estatu kideek auzia Kontseilu Europarrari aurkezteko duten eskubideari kalterik egin gabe ulertu behar dira aurreko lerrokada horiek.

27. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 85. artikuluko 1. paragrafoaren bigarren lerrokadari buruzkoa

Biltzarrak uste du ezen Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko 85. artikuluan 1. paragrafoaren bigarren lerrokadan aipatzen diren erregelamenduek kontuan hartu beharko lituzketela estatu kideek delituei buruzko ikerketak abiarazteari buruz dituzten arauak eta ohi-turak.

28. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 98. artikuluari buruzkoa

Biltzarrak baieztatzen du ezen 98. artikuluan aipatzen diren xedapenak egungo ohituraren arabera aplikatuko direla. «...Alemaniaren banaketak Errepublikak Federaleko zenbait eskualdetako ekonomiari sortutako desabantaila ekonomikoak orekatzeko behar diren neurriak» dioen esaldia Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak emandako jurisprudentziaren arabera interpretatu behar da.

29. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikuluan 2. paragrafoaren c) idatz-zatiari buruzkoa

Biltzarra baieztatzen du 107. artikuluko 2. paragrafoa c) idatz-zatia Europar Batasuneko Jus-

tizia Auzitegiak ezarritako jurisprudentziaren arabera interpretatu behar dela, alegia, Alemaniako Errepublikak Federaleko (Alemania zatiturik zegoenean) zenbait eskualderi laguntzak emateko xedapenen aplikagarritasunari buruz auzitegi horrek ezarritako jurisprudentziaren arabera.

30. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 126. artikuluari buruzkoa

126. artikuluari dagokionez, Biltzarrak baieztatzen du hazkunderako ahalmena areagotzea eta aurrekontu-egoera sendoak ziurtatzea direla Batasunaren eta estatu kideen politika ekonomiko eta fiskalaren bi zutabeak. Egonkortasunerako eta Hazkunderako Ituna tresna garrantzitsua da bi helburu horiek iristeko.

Biltzarrak berretsi egiten du Egonkortasunerako eta Hazkunderako Itunari buruzko xedapenekiko atxikimendua, xedapen horiek direlakoan estatu kideen aurrekontu-politikak koordinatzeko esparrua.

Biltzarrak berresten du arauetan oinarritutako sistema bat dela bermerik onena konpromisoak bete daitezen eta estatu kide guztiak berdintasunez tratatuak izan daitezen.

Esparru horretan bertan, Biltzarrak berretsi egiten du, orobat, bat egiten duela Lisboako estrategia deritzon horretan ezarritako helburuekin: enplegua sortzea, egiturazko erreformak gauzatzea eta gizarte-kohesioa.

Batasunaren helburua da ekonomiaren hazkunde orekatua eta prezioen egonkortasuna lortzea. Horrenbestez, ekonomia- eta aurrekontu-politikan, ahalik eta lehentasun egokienak ezarri behar dira gai hauei buruz: ekonomiaren erreformak, berrikuntza, lehiakortasuna eta, ekonomiaren hazkunde makala denerako, inbertsio pribatuaren eta kontsumoaren indartzea. Estatu kideetan eta Europar Batasunean aurrekontuen arloan hartzen diren erabakietan ikusi beharko lirateke horren ondorioak, batez ere gastu eta diru-sarrera publikoen berregituratzearen bidez, betiere aurrekontu-diziplina errespetatuz Tratatuaren eta Egonkortasunerako eta Hazkunderako Itunean xedatutakoaren arabera.

Aurrekontuei eta ekonomiari buruz estatu kideek dauzkaten erronkek agerian uzten dute zein garrantzitsua den ekonomia-ziklo osoan zehar aurrekontu-politika egoki bat gauzatzea.

Biltzarra bat dator iritziz honetan: finantza publikoen egoera ona finkatzeko eta aurrekontuen egoera hobetzeko ekonomiaren indartze-ga-

raiek eskaintzen dieten aukeraz baliatu behar-ko lirateke estatu kideak. Helburua da ekonomia-aren egoera ona den garaietan aurrekontuetan apurka-apurka superabita lortzea, eta, hartara, atzeraldietan jardun ahal izateko beharrezkoa izaten den babes hori osatzea eta finantza publikoen egoera epe luzera bideragarri izan dadin laguntzea.

Estatu kideak zain daude noiz egingo Bartzordeak proposamenak eta noiz egingo estatu kideek ekarpen berriak Egonkortasunerako eta Hazkunderako Itunaren gauzatzea indartzeko eta argitzeko. Estatu kideek beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dituzte beren ekonomien hazkunde-gaitasuna handitze aldera. Ekonomia-politikaren koordinazioa hobetuz gero, aiseago lortu ahal izango litzateke helburu hori. Adierazpen honen bidez ez da baldintzapean jartzen Egonkortasunerako eta Hazkunderako Itunaren gainean egitekoa den eztabaida.

31. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 156. artikuluari buruzkoa

Biltzarrak berresten du 156. artikuluan azaldutako politikak estatu kideen eskumene-koak direla funtsean. Artikulu horretan xedatutakoari jarraituz Batasun osorako hartu beharreko sustapen- eta koordinazio-neurriak osagarriak dira. Estatu kideen arteko lankidetzaren indartzea dute helburu, eta ez estatuen sistemak harmonizatzea. Lan-munduko ordezkarien erantzukizunari buruz estatu kide bakoitzean indarrean dauden bermeek eta ohiturek ez dute eraginik jasango.

Adierazpen honek ez die ezertan eragiten Tratatuaren Batasunari eskumenak esleitzen dizkioten xedapenei, ezta arlo sozialean eskumenak esleitzen dizkiotenei ere.

32. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 168. artikulua 4. paragrafoaren c) idatz-zatiari buruzkoa

Biltzarrak hau adierazten du: 168. artikuluko 4. paragrafoa c) idatz-zatia aplikatuz hartzen diren neurriek segurtasunari dagozkion alderdi erkideak begiratu behar dituzte, eta goimailako kalitate- eta segurtasun-arauak ezartzea izan behar dute xede; barne-merkatuari eragiten dioten estatu-arauak giza osasunaren babes-maila goratu bat erdiesteko traba izanez gero, batez ere.

33. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 174. artikuluari buruzkoa

Biltzarrak uste du 174. artikuluan aipatzen den «irla-eskualdeak» adierazpenak osoki irla diren Estatuak ere izenda ditzakeela, betiere beharrezko diren baldintzak betetzen badituzte.

34. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 179. artikuluari buruzkoa

Biltzarra bat dator honetan: Europar Batasunak ikerketaren eta garapen teknologikoaren arloan gauzatuko duen ekintzan, kontuan hartu behar dira estatu kideen ikerketa-politikan aintzat hartutako norabide eta aukera funtsezkoak.

35. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 194. artikuluari buruzkoa

Biltzarraren iritzia da 194. artikulua ez diola eragiten estatu kideek beren energia-hornidura bermatzeko -betiere, 347. artikuluan ezarritako baldintzak betez- beharrezkoak diren xedapen guztiak onartzeko duten eskubideari.

36. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 218. artikuluari buruzkoa (estatu kideek askatasun-, segurtasun- eta justizia-esparruari buruz nazioarteko hitzarmenak negoziatu eta egiteari buruzkoa)

Biltzarrak berresten du estatu kideek hitzarmenak egin ditzaketela hirugarren herrialdeekin eta nazioarteko erakundeekin hirugarren zatiko V. tituluko 3., 4. eta 5. kapituluek aipatzen dituzten eremuetan, betiere hitzarmen horiek Batasunaren zuzenbidearekin bat badatoz.

37. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 222. artikuluari buruzkoa

Europar Batasunak, eraso terrorista bat edo hondamendi naturala nahiz gizakiak eragindakoa jasan duen estatu kide baten aldera duen elkartasun-betebeharra betetzearren, neurriak hartuko ditu; nolanahi ere, estatu kide bakoitzak, bere aldetik, egokien deritzen bitarte-

koak hauta ditzake estatu kide horrenganako elkartasun-betebeharra betetzeko, eta 222. artikuluko xedapenek ez diote eragingo estatu kide bakoitzaren eskubide horri.

38. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 252. artikuluari buruzkoa (Justizia Auzitegiaren abokatu nagusien kopuruari buruzkoa)

Biltzarrak hau adierazten du: baldin eta, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 252. artikulua lehenbiziko paragrafoa oinarri harturik, Justizia Auzitegiak eskatzen badu hiru abokatu nagusi gehiago edukitzea (zortzi izan beharrean hamaika), Kontseiluak aho batez onartuko du abokatu nagusien kopuruaren gehitze hori.

Hala bada, kasu horretan, Biltzarrak erabaki du Poloniak abokatu nagusi iraunkor bat izango duela eta ez duela txanda-sisteman parte hartuko, Alemaniak, Frantziak, Italiak, Espainiak eta Erresuma Batuak bezala. Bestalde, egungo txanda-sistemak bost abokatu nagusiri eragingo die, ez hiruri.

39. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 290. artikuluari buruzkoa

Biltzarrak baieztatzen du Batzordeak asmoa duela finantza-zerbitzuen arloan eskuordetzearen bidez eman beharreko egintzen proiektuak egiteko orduan estatu kideek izendatutako adituei kontsulta egiten jarraitzeko, ohi duen bezala.

40. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 329. artikuluari buruzkoa

Biltzarrak hau adierazten du: lankidetzaren inartua eskatzean, estatu kideek adierazi ahal izango dute, 333. artikulua aplikatzea nahi duten, gehiengo kualifikatuaren bidezko bozketa hedatzea xedatzen baitu, edo legegintzako prozedura arrunta erabili nahi duten.

41. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 352. artikuluari buruzkoa

Biltzarrak adierazten du ezen Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 352. artikuluko 1. paragrafoak Europar

Batasunaren helburuei buruz egiten duen aipamenak honako hauei buruzkoak direla: Europar Batasunaren Tratatuaren 3. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan ezarritako helburuei buruzkoak eta 3. artikulua 5. paragrafoak atzerri-ekintzari buruz ezartzen dituen helburuei buruzkoak, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren bosgarren zatian arautzen direnei buruzkoak, alegia. Ondorioz, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 352. artikuluan oinarritutako ekintza baten helburuak ezin dira izan Europar Batasunaren Tratatuaren 3. artikulua 1. paragrafoan aipatutakoak soilik. Hori dela-eta, Biltzarrak ohartarazten du ezen, Europar Batasunaren Tratatuaren 31. artikulua 1. paragrafoarekin bat etorriz, ezin dela legegintzako egintzarik onartu atzerri- eta segurtasun-politika erkidearen arloan.

42. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 352. artikuluari buruzkoa

Biltzarrak nabarmentzen du ezen, Europar Batasunaren Justizia Auzitegiak ezarritako jurisprudentziaren arabera, ezin dela erabili Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 352. artikulua —eskumen esleituen printzipioan oinarritutako instituzio-antolamendu baten osagarri izaki— Europar Batasunaren ahalen esparrua hedatzeko oinarri gisa; alegia, ezin dela erabili esparru hori Tratatuaren xedapenek (Tratatuaren osotasunean harturik) eta, batez ere Batasunaren eginkizunak eta jarduerak zehazten dituzten xedapenek ezarritako esparru orokorrak harago hedatzeko oinarri gisa. Artikulu hau ezin da erabili, inoiz ere, funtsean Tratatuak aldatzea —Tratatuak aldatzeko prozedura jarraitu gabe aldatzea, alegia— eragingo luketen xedapenak onartzeko oinarri gisa.

43. Adierazpena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 355. artikuluko 6. paragrafoari buruzkoa

Tratatugile Gorenak bat datoz honetan: Kontseilu Europarrak, 355. artikuluko 6. paragrafoaren aplikazioaren ondorioz, Mayottek Europar Batasunarekiko duen estatutua aldatzeko erabaki bat hartuko du, lurralde hori eskualde ultraperiferiko bihurtze aldera, 355. artikulua 1. paragrafoak eta 349. artikulua termino horri ematen dioten adieraren arabera; erabaki hori hartuko du uhartearen barne-es-

tatutuan gertatzen ari den bilakaerak horretarako aukera ematen duenean eta Frantziako agintariek Kontseilu Europarrari eta Batzordeari hala jakinarazten dietenean.

B. TRATATUEI ERANTSITAKO PROTOKOLOEI BURUZKO ADIERAZPENAK

44. Adierazpena, Europar Batasunaren esparruan sartutako Schengengo altxorrari buruzko Protokoloaren 5. artikuluari buruzkoa

Biltzarrak baieztatzen du ezen, baldin eta estatu kide batek jakinarazten badu, Europar Batasunaren esparruan sartutako Schengengo altxorrari buruzko Protokoloaren 5. artikularen 2. paragrafoaren arabera, ez duela proposamen edo ekimen jakin batean parte hartu nahi, edozein unetan utz dezakeela baliarik gabe jakinarazpen hori, betiere Schengengo altxorra garatzeko neurri hori onartua izan baino lehen.

45. Adierazpena, Europar Batasunaren esparruan sartutako Schengengo altxorrari buruzko Protokoloaren 5. artikuluaren 2. paragrafoari buruzkoa

Biltzarrak honako hau adierazten du: baldin eta Erresuma Batuak edo Irlandak adierazten badiotte Kontseiluari ez dutela parte hartu nahi Schengengo ondarearen zati bat garatzeko neurri batean —berek neurri horretan parte hartzen ari direlarik— orduan, Kontseiluak eztabaida zabala egingo du estatu kide horrek neurri horretan ez parte hartzeak izan ditzakeen ondorioei buruz. Kontseiluaren eztabaida hori Batzordeak proposamenaren eta Schengengo altxorren arteko harremanari buruz emandako jarraibideen arabera egin beharko da.

46. Adierazpena, Europar Batasunaren esparruan sartutako Schengengo altxorrari buruzko Protokoloaren 5. artikuluaren 3. paragrafoari buruzkoa

Biltzarrak honako hau gogorarazi nahi du: baldin eta Kontseiluak, auziaren funtsari buruz lehenbiziko eztabaida sakona egin ostean, ez badu erabaki bat hartzen, Batzordeak proposamen zuzendu bat aurkeztu ahal izango du, Kontseiluak, lau hilabeteko epearen barruan, auziaren mamia berriro ere azter dezan.

47. Adierazpena, Europar Batasunaren esparruan sartutako Schengengo altxorrari buruzko Protokoloaren 5. artikuluaren 3., 4. eta 5. paragrafoei buruzkoa

Biltzarrak baieztatzen du gerta litekeela Europar Batasunaren esparruan sartutako Schengengo Protokoloaren 5. artikularen 3. 4. edo 5. paragrafoetan aipatutako erabakian zehaztu beharreko baldintzetan honako hau ezartzea: baldin eta dena delako estatu kide horrek erabakitzen badu Kontseiluak Protokolo horretako 4. artikularen arabera onartutako edozein erabakitan aipatutako altxorrean parte hartzeari uztea —dela altxor osoan edo haren zati batean—, bere gain hartu beharko ditu erabaki horrek ezinbestean eta halaberharrez eragingo dituen finantza-ondorio zuzenekoak (baldin eta eragiten baditu).

48. Adierazpena, Danimarkaren jarreraren gaineko protokoloari buruzkoa

Biltzarrak baieztatzen duenez, Kontseiluak bere kabuz edo Europako Parlamentuarekin batera onartutako egintza juridikoei dagokienez, Danimarkari aplikatu beharreko xedapenak eta, horiekin batera, Danimarkaren jarrerari buruzko protokoloaren I. zatia aplikatu behar zaion oinarri juridikoa izateagatik, Danimarkari aplikatzekoak ez diren xedapenak badituzte, Danimarkak adierazi du ez duela boto-eskubiderik erabiliko aplikagarri ez zaizkion xedapenen onarpena eragozteko.

Gainera, Biltzarrak honako hau baieztatzen du: Danimarkak adierazten du, Biltzarrak 222. artikuluari buruz egindako adierazpenean oinarriturik, 222. artikularen arabera onartutako jardun edo egintza juridikoetan izango duen parte-hartzea Danimarkaren jarrerari buruzko Protokoloaren I. Zatiaren eta II. Zatiaren arabera izango dela.

49. Adierazpena, Italiari buruzkoa

Biltzarrak aintzakotzat hartu du Europako Ekonomia Erkidegoa eratzeako 1957ko Tratatuari erantsitako Italiari buruzko protokoloak —gero aldatu ginen Europar Batasunaren Tratatu onartzeako— honako hau dioela:

«TRATATUGILE GORENEK,

Italiari eragiten dioten zenbait arazo ebatzi NAHIRIK,

Honako xedapen hauek HITZARTU DITUZTE, eta tratatuari eranskin gisa erantsi:

ERKIDEGOA ERATZEN DUTEN ESTATU KIDEEK JAKINAREN GAINEAN daude Italiako gobernuak ekonomiaren hazkunderako hamar urteko programa bat gauzatzeari ekin diola, eta programa horren helburua Italiako ekonomiaren egiturazko desorekak konpontzea dela: hegoaldean eta uharteetan gutxien garatuta dauden eremuetan ekonomia-ekipamenduak ezartzen hasi da, eta langabeziaren aurka egiteko lanpostu berriak sortzen,

GOGORARAZTEN DUTE eurak partaide direneko nazioarteko lankidetzako zenbait erakundek aintzat hartu eta onartu dituztela Italiako gobernuaren programa honen printzipioak eta helburuak,

ONARTZEN DUTE guztien interesekoa dela Italiako gobernuaren xede horiek erdiesteak;

BAT DATOZ, Italiako gobernuari eginkizun hori burutzen laguntzeko, Erkidegoko instituzioei honako hau gomendatzeko: aplika ditzatela Tratatuan jasotako mekanismo eta prozedura guztiak, eta, batez ere, ekin diezaioleta Europako Inbertsio Bankuaren eta Europako Gizarte Funtzaren baliabideak era egokian erabiltzeko.

BEREN IRITZIA DA Erkidegoko instituzioek kontuan hartu behar dutela, Tratata aplikatzean, Italiako ekonomiak zer-nolako ahalegina egin beharko duen datoen urteetan, eta, orobat, tentsio arriskutsuak eragozteak komeni dela, batez ere ordainketa-balantzari edo enpleguaren mailari eragin diezaioketenak, kokolan jar baitezakete Tratata Italian aplikatzea.

AITORTZEN dute, 109. H eta 109. I artikulua aplikatzekotan, ahalegina egin beharko dela Italiako gobernuari eskatutako neurri horiek honako helburu hauek berma ditzaten: ekonomia-hazkunderako programa hori betetzea eta herriarren bizitza-maila handitzea.»

50. Adierazpena, xedapen iragankorrei buruzko protokolo 10. artikuluari buruzkoa

Biltzarrak gonbitea egiten die Europako Parlamentuari, Kontseiluari eta Batzordeari, saia daitezen, beren eskurantzien eremuaren barruan, xedapen iragankorrei buruzko protokolo 10. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen diren egintzak ordeztzeko edo aldatzeko lege-egintzak onartzen, hala dagokionean, eta, ahal delarik, xedapen iragankorrei buruzko protokolo 10. artikuluko 3. paragrafoan aipatzen den bost urteko epearen barruan.

C. ESTATU KIDEEEN ADIERAZPENAK

51. Adierazpena, Belgikako Erresumarena, estatuetako parlamentuei buruzkoa

Belgikak argi utzi nahi du ezen, bere konstituzio-zuzenbidearen arabera, parlamentu federalesko ordezkarien ganberak eta senatuak ez ezik, erkidegoetako eta eskualdeetako lege-biltzarrek ere jokatzeko dutela parlamentu-sistema nazionalaren osagai gisa edo parlamentu nazionalako ganbera gisa, Batasunak erabiltzen dituen eskumenen arabera.

52. Adierazpena, Belgikako Erresuma, Bulgariako Errepublika, Alemaniako Errepublika Federala, Heleniar Errepublika, Espainiako Erresuma, Italiako Errepublika, Zipreko Errepublika, Lituaniako Errepublika, Luxenburgoko Dukerri Handia, Hungariako Errepublika, Maltako Errepublika, Austriako Errepublika, Portugalgo Errepublika, Errumania, Esloveniako Errepublika eta Eslovakiako Errepublikarena, Europar Batasunaren ikurrei buruzkoa

Belgika, Bulgaria, Alemania, Grezia, Espainia, Italia, Zipre, Lituania, Luxenburgoko, Hungaria, Malta, Austria, Portugal, Errumania, Eslovenia eta Eslovakiak adierazten dute ondorengoak izango direla, aurrerantzean ere, bertako herritarrek Europar Batasuneko partaide direla eta Batasunarekin duten harremana adierazten duten ikurrak: hondo urdinaren gainean urre koloreko hamabi izar dituen bandera; Ludwig Van Beethoven-en Bederatzigarren Sinfoniako «Alaitasunaren Ereserkitik» hartutako ereserkia; «Aniztasunean bat eginik» ikurritza; euroa, Europar Batasuneko dirua den aldetik; eta Europaren Eguna, maiatzaren 9an ospatzen dena.

53. Adierazpena, Txekiar Errepublikarena, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunari buruzkoa

1. Txekiar Errepublikak gogoratzen du Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuneko xedapenak Batasuneko instituzio eta organoek zuzentzen zaizkiela, subsidiariotasun-printzipioa eta Batasunaren eta estatu kideen arteko eskumen-banaketa errespetatuz, horixe berretsita baita eskumenen zedarritzeari buruzko Adierazpenean (18.a). Txekiar Errepublikak

azpimarratzen du Gutuneko xedapenak estatu kideei zuzenduta daudela, baina bakar-bakarrik Batasuneko Zuzenbidea aplikatzen dutenean, eta ez Batasuneko Zuzenbidearekiko independente den estatuko Zuzenbidea onartzen eta aplikatzen dutenean.

2. Txekiar Errepublikak, halaber, azpimarratzen du Gutunak ez duela hedatzen Batasuneko Zuzenbidearen aplikazio-eremua eta ez duela sortzen eskumen berririk Batasunarentzat. Gutunak ez du estatuko Zuzenbidearen aplikazio-eremua murrizten, eta ez ditu mugatzen estatuko agintariek esparru honetan dituzten eskumenak.

3. Txekiar Errepublikak nabarmentzen du Gutunak estatu kideen konstituzio-tradizio erkitetik sortu diren oinarritzko eskubide eta printzipioak aitortzen dituen heinean, eskubide eta printzipio horien interpretazioa aipatutako tradizio horiekin harmonizatuta egingo dela.

4. Txekiar Errepublikak azpimarratzen du, gainera, Gutuneko xedapen bat ere ezin dela interpretatu giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen murrizgarri edo kaltegarri izateko, eta halaxe da, eskubide eta askatasun horiek aitortuta baitaude, bakoitzari dagokion aplikazio-eremuan, Batasuneko Zuzenbidean eta Batasunaren edo estatu kide guztien parte hartzeaz lotutako nazioarteko hitzarmenetan, eta, batez ere, Giza Eskubideak eta Oinarritzko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenean eta estatu kideetako konstituzioetan.

54. Adierazpena, Alemaniako Errepublika Federala, Irlanda, Hungariako Errepublika, Austriako Errepublika eta Suediako Erresumarena

Alemaniak, Irlandak, Hungariak eta Austriak adierazi dute Energia Atomikoaren Europako Erkidegoa eratzekeo Tratatu ez dela funtsean aldatu indarrean sartu zenez geroztik, eta eguneratu beharra dagoela. Hortaz, estatu kideetako Gobernuen Ordezkarien Biltzar bat egitearen alde agertu dira, eta Biltzar horretarako deialdia lehenbailehen egitearen alde.

55. Adierazpena, Espainiako Erresuma eta Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuarena

Kanpo-harremanak estatu kide baten gain utzirik dituen europar lurralde bati bezala aplikatuko zaizkio Gibraltarrak Tratatuak. Horrek ez dio eragingo inolako aldaketarik estatu kide horietako bakoitzaren jarrerari.

56. Adierazpena, Irlandarena, Irlandak eta Erresuma Batuak askatasun-, segurtasun- eta justizia-esparruari buruz duten jarrerari buruzko protokoloaren 3. artikuluari buruzkoa

Irlandak berretsi egiten du Batasunarekin duen konpromisoa, Batasuna oinarritzko eskubideak eta estatu kideen sistema eta usadio juridikoak errespetatzen dituen askatasun-, segurtasun-, eta justizia-esparrua den aldetik eta esparru horretan herritarrei segurtasun-maila handia eskaintzen zaien aldetik.

Hori dela-eta, Irlandak adierazten du asmo irmoa duela Erresuma Batuak eta Irlandak askatasun-, segurtasun- eta justizia-esparruari buruz duten jarrerari buruzko Protokoloaren 3. artikulua araberago dagoen eskubidea baliatzeke eta ahal den guztietan parte hartzeke Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren hirugarren zatiko V. titulua esparruan sartzen diren neurriak onartzen.

Bereziki, Irlandak ahal duen guztietan parte hartuko du polizia-lankidetzaren arloko neurrietan.

Gainera, Irlandak gogorarazten du ezen, Protokolo 8. artikuluari jarraituz, Protokoloaren xedapenen pean jarraitu nahi ezean, idatziz jakinarazi ahal izango diola Kontseiluari nahi hori. Irlandak asmoa du Lisboako Tratatu indarrean sartu eta hiru urteko epea igarotakoan xedapen hauen funtzionamendua berrikusteko.

57. Adierazpena, Italiako Errepublikarena, Europako Parlamentuaren osaketari buruzkoa

Italiak adierazten du, Europar Batasunaren Tratatuaren 10. eta 14. artikuluekin bat etorritik, Batasuneko herritarren ordezkariek osatzen dutela Europako Parlamentua eta herritarren ordezkaritza beheranzko proportziozkoa dela.

Italiak adierazten du, halaber, Europar Batasunaren Tratatu 9. artikulua eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 20. artikulua araberago, estatu kideetako nazionalitatea duten pertsona guztiak direla Batasuneko herritar.

Hortaz, Kontseilu Europarrak, Europako Parlamentuaren ekimenez eta Parlamentuak berak onartu ondoren, erabakiren bat hartzen badu Europako Parlamentuaren osaketa finkatzeko, Italiak adierazten du erabaki horrek Europar Batasuneko Tratatu 14. artikuluko 2. paragrafoaren lehenengo lerro kadako printzipioak bete behar dituela, betiere, 2009-2014 lege gintzaldiari buruzko erabakiari kalterik egin gabe.

58. Adierazpena, Letoniako Errepublika, Hungariako Errepublika eta Maltako Errepublikarena, Tratatueta diru bakarra izendatzeko erabiltzen den izenaren ortografiari buruzkoa

Europar Batasunaren diru bakarraren izenaren ortografia bateratuari kalterik egin gabe —tratatueta aipatzen da izen hori, billeteetan eta txanponetan erakusten den gisara—, Letoniak, Hungariak eta Maltak adierazten dute ezen diru bakarraren izenaren ortografiak —izen horretatik eratorriek barne—, Tratatueta letoniarazko, hungarierazko eta malterazko testuetan ageri den eran, ez duela eraginik letoniarako, hungarierako eta malterako egungo arauetan.

59. Adierazpena, Herbeheretako Erresumarena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 312. artikuluari buruzkoa

Herbeheretako Erresumak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 312. artikuluko 2. paragrafoaren bigarren lerrokadan aipatutako erabakia onartuko du, behin Herbeheretako Erresumari, Tratatu horretako 311. artikulua hiru garren lerrokadan aipatutako europar araudiaren berrikuspenaren bidez, konponbide gogobeteko bat eman zaionean Batasunaren aurrekontuarekiko duen ordainketa-egoera negatibo gehiegizkoaren arazorako.

60. Adierazpena, Herbeheretako Erresumarena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 355. artikuluari buruzkoa

Herbeheretako Erresumak honako hau adierazten du: 355. artikulua 6. paragrafoan aurreikusten dena bezalako erabaki bat hartzeko ekimena, Holandarren Antillek edo Arubak Batasunean duten estatutua aldatzeko xedea duena, Herbehereetako Erresumaren Estatutuaren arabera onartutako erabaki baten oinarriaren gainean onartu beharko da nahitaez.

61. Adierazpena, Poloniako Errepublikarena, Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunari buruzkoa

Gutunak ez dio inola ere eragiten estatu ki-deek arlo hauetan legeak emateko duten eskubideari: moraltasun publikoa, familia-zuzenbi-

dea eta giza duintasunaren babesa eta gizakien osotasun fisikoa eta morala.

62. Adierazpena, Poloniako Errepublikarena, Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Gutuna Poloniari eta Erresuma Batuari aplikatzearen gaineko Protokoloari buruzkoa

Poloniak, kontuan hartuz “Elkartasuna” izeneko gizarte-mugimenduaren tradizioa eta mugimendu horrek gizarte- eta lan-arloetako eskubideen aldeko borrokan egindako ekarpen handia, honako hau adierazten du: osoki errespetatzen dituela eskubide horiek, Europar Batasunaren zuzenbideak ezarritako dituen bezala, eta, bereziki, Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Gutunaren IV. tituluaren berretsitakoak.

63. Adierazpena, Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuarena, «herritarrak» terminoaren definizioari buruzkoa

Erresuma Batuak, Tratatueta eta Energia Atomikoaren Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuari dagokienez, bai eta Tratatu horietatik eratorritako edozein egintzari edo Tratatu horiek indarrean iraunarazten duen edozein egintzari dagokionez, berretsi egiten du 1982ko abenduaren 31n «herritar» terminoaren definizioari buruz egin zuen adierazpena, salbuespen bakar honekin: «Britainia Handiaren menpeko lurraldeetako herritarrak» aipamena «Britainia Handiaren itsasoz haraindiko lurraldeetako herritarrak» esanahiarekin ulertu behar dela.

64. Adierazpena, Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuarena, Europako Parlamenturako hauteskundeetan boto-eskubidea edukitzeari buruzkoa

Erresuma Batuak honako hau nabarmentzen du: ez Europar Batasunaren Tratatuaren 14. artikulua ez Tratatueta beste ezein xedapenek ez du Europako Parlamenturako hauteskundeetako boto-eskubidearen oinarria aldatzeko xederik.

65. Adierazpena, Britainia Handiaren eta Ipar Irlandaren Erresuma Batuarena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 75. artikuluari buruzkoa

Erresuma Batuak babes osoa ematen dio te-

rrorismoa eta harekin zerikusia duten jardurak eragozteko jardun kementsuari, bai eta haien kontra borrokatzeko finantza-arloko zigorrak onartzeari ere. Hori dela-eta, Erresuma Batua eta Irlandak askatasun-, segurtasun- eta justizia-esparruari buruz duten jarrerari buruzko Protokoloko 3. artikuluan aipatzen den eskubidea baliatu eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 75. artikuluen arabera egindako proposamen guztiak onartzen parte hartzeko.

KORRESPONDENTZIA TAULAK (*)

Europar Batasunaren Trataturak

Europar Batasuna eratzekeo Itunaren lehengo zenbaki-hurrenkera	Europar Batasuna Tratatuaren zenbaki-hurrenkera berria
I TITULUA — XEDAPEN OROKORRAK	I TITULUA — XEDAPEN ERKIDEAK
1. artikulua	1. artikulua
	2. artikulua
2. artikulua	3. artikulua
3. artikulua (indargabetua) ⁽¹⁾	
	4. artikulua
	5. artikulua ⁽²⁾
4. artikulua (indargabetua) ⁽³⁾	
5. artikulua (indargabetua) ⁽⁴⁾	
6. artikulua	6. artikulua
7. artikulua	7. artikulua
	8. artikulua
II. TITULUA — EUROPAKO ERKIDEGOA ERATZEKO ASMOZ EUROPAKO EKONOMIA ERKIDEGOA ERATZEKO ITUNA ALDATZEN DUTEN XEDAPENAK	II. TITULUA — PRINTZIPIO DEMOKRATIKOEI BURUZKO XEDAPENAK
8. artikulua (indargabetua) ⁽⁵⁾	9. artikulua
	10. artikulua ⁽⁶⁾
	11. artikulua
	12. artikulua
III TITULUA — IKATZAREN ETA ALTZAIRUAREN EUROPAKO ERKIDEGOA ERATZEKO ITUNA ALDATZEN DUTEN XEDAPENAK	III TITULUA — INSTITUZIOEI BURUZKO XEDAPENAK
9. artikulua (indargabetua) ⁽⁷⁾	13. artikulua
	14. artikulua ⁽⁸⁾

(*) Bi taula hauek Lisboako Tratatuaren 5. artikuluan dauden tauletatik datoz. Orain ez da agertzen Lisboako Trataturako tar- teko zenbakiak jasotzen zituen erdiko zutabea.

(1) Funtsean, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (aurrerantzean EBT) 7. artikulua eta Euro- par Batasunaren Tratatuaren (aurrerantzean EBT) 13. artikulua 3. paragrafoa eta 21. artikulua 3. paragrafoa bigarren lerrokada ordeztu dute.

(2) Europako Erkidegoa eratzekeo Itunaren (aurrerantzean EE Ituna) 5. artikulua ordeztu du.

(3) Funtsean, 15. artikulua ordeztu du.

(4) Funtsean, 13. artikulua 2. paragrafoa ordeztu du.

(5) Europar Batasuna eratzekeo Itunaren 8. artikulua Europako Erkidegoa eratzekeo Ituna aldatzen zuen. Aldaketa horiek azken Tratatu honetan sartu dira, eta 8. artikulua indargabetu da. Zenbaki hori xedapen berri bat txertatzeko erabili da.

(6) Funtsean, 4. paragrafoa EE Itunaren 191. artikulua lehen lerrokada ordeztu du.

(7) EB Itunaren 9. artikulua ikatzaren eta Altzairuaren Europako Erkidegoa eratzekeo Ituna aldatzen zuen. Azken Itun horrek 2002ko uztailaren 23ra arte iraun zuen. Horrenbestez, 9. artikulua indargabetu da, eta zenbaki hori beste xedapen bat txertatzeko erabili da.

(8) — Funtsean, 1. eta 2. paragrafoak EE Itunaren 189. artikulua ordeztu dute.
— Funtsean, 1.etik 3.era arteko paragrafoak EE Itunaren 190. artikulua 1.etik 3.era arteko paragrafoa ordeztu dituzte.
— Funtsean, 1. paragrafoa EE Itunaren 192. artikulua lehen lerrokada ordeztu du.
— Funtsean, 4. paragrafoa EE Itunaren 197. artikulua lehen lerrokada ordeztu du.

Europar Batasuna eratzeke Itunaren lehengo zenbaki-hurrenkera	Europar Batasuna Tratatuaren zenbaki-hurrenkera berria
	15. artikulua ⁽⁹⁾
	16. artikulua ⁽¹⁰⁾
	17. artikulua ⁽¹¹⁾
	18. artikulua
IV TITULUA — ATOMO ENERGIAREN EURO-PAKO ERKIDEGOA ERATZEKO ITUNA ALDATZEN DUTEN XEDAPENAK.	IV TITULUA — LANKIDETZA INDARTUEI BURUZKO XEDAPENAK
10. artikulua (indargabetua) ⁽¹³⁾ 27A-tik 27E-ra arteko artikulua (ordeztuak) 40.etik 40 B-ra arteko artikulua (ordeztuak) 43.etik 45.era arteko artikulua (ordeztuak)	19. artikulua ⁽¹²⁾ 20. artikulua ⁽¹⁴⁾
V TITULUA — ATZERRIARI ETA SEGURTASUNARI BURUZKO POLITIKA BATERATUAREN GAINEKO XEDAPENAK	V TITULUA — BATASUNAREN ATZERRI-EKINTZARI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK ETA ATZERRIARI ETA SEGURTASUNARI BURUZKO POLITIKA ERKIDEAREN GAINEKO BERARIAZKO XEDAPENAK
	1. kapituluak — Batasunaren atzerri-ekintzari buruzko xedapen orokorrak
	21. artikulua
	22. artikulua
	2. kapituluak — Atzerriari eta segurtasunari buruzko politika erkidearen gaineko berariazko xedapenak
	1. atala — Xedapen Erkideak
	23. artikulua
11. artikulua	24. artikulua
12. artikulua	25. artikulua
13. artikulua	26. artikulua
	27. artikulua
14. artikulua	28. artikulua
15. artikulua	29. artikulua
22. artikulua (lekuz aldatua)	30. artikulua
23. artikulua (lekuz aldatua)	31. artikulua

⁽⁹⁾ Funtsean, 4. artikulua ordeztu du.

⁽¹⁰⁾ — Funtsean, 1. paragrafoak EE Itunaren 202. artikulua lehenean eta bigarren gidioak ordeztu ditu.

— Funtsean, 2. eta 9. paragrafoak EE Itunaren 203. artikulua ordeztu dute.

— Funtsean, 4. eta 5. paragrafoak EE Itunaren 205. artikulua 2. eta 4. paragrafoak ordeztu dituzte.

⁽¹¹⁾ — Funtsean, 1. paragrafoak EE Itunaren 211. artikulua ordeztu du.

— Funtsean, 3. eta 7. paragrafoak EE Itunaren 214. artikulua ordeztu dute.

— Funtsean, 6. paragrafoak EE Itunaren 217. artikulua 1., 3. eta 4. paragrafoak ordeztu ditu.

⁽¹²⁾ — Funtsean, EE Itunaren 220. artikulua ordeztu du.

— Funtsean, 2. paragrafoa lehenean lerrokadak EE Itunaren 221. artikulua lehenean lerrokada ordeztu du.

⁽¹³⁾ EB Itunaren 10. artikulua Atomo Energiaren Europako Erkidegoa eratzeke Ituna aldatzen zuen. Aldaketa horiek azken Tratatu honetan sartu dira, eta 10. artikulua indargabetu da. Zenbaki hori beste xedapen bat txertatzeko erabili da.

⁽¹⁴⁾ EE Itunaren 11. eta 11 A artikulua ere ordeztu ditu.

Europar Batasuna eratzeke Itunaren lehengo zenbaki-hurrenkera	Europar Batasuna Tratatuen zenbaki-hurrenkera berria
16. artikulua	32. artikulua
17. artikulua (lekuz aldatua)	42. artikulua
18. artikulua	33. artikulua
19. artikulua	34. artikulua
20. artikulua	35. artikulua
21. artikulua	36. artikulua
22. artikulua (lekuz aldatua)	30. artikulua
23. artikulua (lekuz aldatua)	31. artikulua
24. artikulua	37. artikulua
25. artikulua	38. artikulua
	39. artikulua
47. artikulua (lekuz aldatua)	40. artikulua
26. artikulua (indargabetua)	
27. artikulua (indargabetua)	
27 A artikulua (ordeztua) ⁽¹⁵⁾	20. artikulua
27 B artikulua (ordeztua) ⁽¹⁵⁾	20. artikulua
27 C artikulua (ordeztua) ⁽¹⁵⁾	20. artikulua
27 D artikulua (ordeztua) ⁽¹⁵⁾	20. artikulua
27 E artikulua (ordeztua) ⁽¹⁵⁾	20. artikulua
28. artikulua	41. artikulua
	2. atala — Segurtasun- eta defentsa-politika er- kideari buruzko xedapenak
17. artikulua (lekuz aldatua)	42. artikulua
	43. artikulua
	44. artikulua
	45. artikulua
	46. artikulua
VI TITULUA — POLIZIA ETA ZUZENTZA GAIE- TAKO LANKIDETZARI BURUZKO XEDAPENAK, ZIGOR ARLOAN (indargabetua) ⁽¹⁶⁾	
29. artikulua (ordeztua) ⁽¹⁷⁾	
30. artikulua (ordeztua) ⁽¹⁸⁾	
31. artikulua (ordeztua) ⁽¹⁹⁾	
32. artikulua (ordeztua) ⁽²⁰⁾	
33. artikulua (ordeztua) ⁽²¹⁾	

⁽¹⁵⁾ EBFTren 326.etik 334.era arteko artikuluek oraingo EB Itunaren 27 A tik 27 E ra arteko artikulua ere ordeztu dituzte, lankidetzari indartuari buruzkoak, hain zuzen.

⁽¹⁶⁾ EBFTren hirugarren zatiko V. tituluaren 1., 4. eta 5. kapituluko xedapenak oraingo EB Itunaren VI. tituluko xedapenak ordeztu dituzte, polizia eta zuzentza gaietako lankidetzari buruzkoak.

⁽¹⁷⁾ EBFTren 67. artikulua ordeztu du.

⁽¹⁸⁾ EBFTren 87. eta 88. artikuluek ordeztu dute.

⁽¹⁹⁾ EBFTren 82., 83. eta 85. artikuluek ordeztu dute.

⁽²⁰⁾ EBFTren 89. artikulua ordeztu du.

⁽²¹⁾ EBFTren 72. artikulua ordeztu du.

Europar Batasuna eratzekeo Itunaren lehengo zenbaki-hurrenkera	Europar Batasunaren Tratuaren zenbaki-hurrenkera berria
34. artikulua (indargabetua)	
35. artikulua (indargabetua)	
36. artikulua (ordeztua) ⁽²²⁾	
37. artikulua (indargabetua)	
38. artikulua (indargabetua)	
39. artikulua (indargabetua)	
40. artikulua (ordeztua) ⁽²³⁾	20. artikulua
40. A artikulua (ordeztua) ⁽²³⁾	20. artikulua
40 B artikulua (ordeztua) ⁽²³⁾	20. artikulua
41. artikulua (indargabetua)	
42. artikulua (indargabetua)	
VII. TITULUA — LANKIDETZA INDARTUARI BURUZKO XEDAPENAK (ordeztua) ⁽²⁴⁾	IV. TITULUA — LANKIDETZA INDARTUEI BU- RUZKO XEDAPENAK
43. artikulua (ordeztua) ⁽²⁴⁾	20. artikulua
43 A artikulua (ordeztua) ⁽²⁴⁾	20. artikulua
43 B artikulua (ordeztua) ⁽²⁴⁾	20. artikulua
44. artikulua (ordeztua) ⁽²⁴⁾	20. artikulua
44 A artikulua (ordeztua) ⁽²⁴⁾	20. artikulua
45. artikulua (ordeztua) ⁽²⁴⁾	20. artikulua
VIII. TITULUA — AZKEN XEDAPENAK	VI. TITULUA — AZKEN XEDAPENAK
46. artikulua (indargabetua)	
	47. artikulua
47. artikulua (ordeztua)	40. artikulua
48. artikulua	48. artikulua
49. artikulua	49. artikulua
	50. artikulua
	51. artikulua
	52. artikulua
50. artikulua (indargabetua)	
51. artikulua	53. artikulua
52. artikulua	54. artikulua
53. artikulua	55. artikulua

⁽²²⁾ EBF^TTren 71. artikulua ordeztu du.

⁽²³⁾ EBF^TTren 326.etik 334.era arteko artikuluek oraingo EB Itunaren 40.etik 40 B ra arteko artikulua ere ordeztu dituzte, lankidetzaren indartuari buruzkoak, hain zuzen.

⁽²⁴⁾ EBF^TTren 326.etik 334.era arteko artikuluek (hemendik aurrera 326.etik 334.era artekoak izango dira) oraingo EB Itunaren 43.etik 45.era arteko artikulua eta VII. titulua ere ordeztu dituzte, lankidetzaren indartuari buruzkoak, hain zuzen.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Trataturak

Europako Erkidegoa eratzekeo Itunaren lehenengo zenbaki-hurrenkera	Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren zenbaki-hurrenkera berria
LEHENENGO ZATIA — PRINTZIOPIOK	LEHENENGO ZATIA — PRINTZIOPIOK
1. artikulua (indargabetua)	
	1. artikulua
2. artikulua (indargabetua) ⁽²⁵⁾	
	I. titulua — Batasunaren eskumen-kategoriak eta eremuak.
	2. artikulua
	3. artikulua
	4. artikulua
	5. artikulua
	6. artikulua
	II. titulua — Aplikazio orokorreko xedapenak
	7. artikulua
3. artikulua, 1. paragrafoa (indargabetua) ⁽²⁶⁾	
3. artikulua, 2. paragrafoa	8. artikulua
4. artikulua (lekuz aldatua)	119. artikulua
5. artikulua (ordeztua) ⁽²⁷⁾	
	9. artikulua
	10. artikulua
6. artikulua	11. artikulua
153. artikulua, 2. paragrafoa (lekuz aldatua)	12. artikulua
	13. artikulua ⁽²⁸⁾
7. artikulua (indargabetua) ⁽²⁹⁾	
8. artikulua (indargabetua) ⁽³⁰⁾	
9. artikulua (indargabetua)	
10. artikulua (indargabetua) ⁽³¹⁾	
11. artikulua (ordeztua) ⁽³²⁾	326.etik 334.era arteko artikulua
11 A artikulua (ordeztua) ⁽³²⁾	326.etik 334.era arteko artikulua
12. artikulua (lekuz aldatua)	18. artikulua
13. artikulua (lekuz aldatua)	19. artikulua
14. artikulua (lekuz aldatua)	26. artikulua
15. artikulua (lekuz aldatua)	27. artikulua
16. artikulua	14. artikulua
255. artikulua (lekuz aldatua)	15. artikulua
286. artikulua (ordeztua)	16. artikulua

⁽²⁵⁾ Funtsean, EB Tratatuaren 3. artikulua ordeztu du.

⁽²⁶⁾ Funtsean, EBFTren 3.etik 6.era arteko artikuluek ordeztu dute.

⁽²⁷⁾ EB Tratatuaren 5. artikulua ordeztu du.

⁽²⁸⁾ Animalien babesari eta ongizateari buruzko Protokoloaren tresna txertatu da.

⁽²⁹⁾ Funtsean, EB Tratatuaren 13. artikulua ordeztu du.

⁽³⁰⁾ Funtsean, EB Tratatuaren 13. artikulua eta EBFTren 282. artikulua 1. paragrafoa ordeztu dute.

⁽³¹⁾ Funtsean, EB Tratatuaren 4. artikulua 3. paragrafoa ordeztu du.

⁽³²⁾ Hau ere EB Tratatuaren 20. artikulua ordeztu du.

Europako Erkidegoa eratzeo Itunaren lehengo zenbaki-hurrenkera	Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren zenbaki-hurrenkera berria
	17. artikulua
BIGARREN ZATIA — BATASUNEO HERRITARTASUNA	BIGARREN ZATIA — BEREIZKERIARIK EZA ETA BATASUNEO HERRITARTASUNA
12. artikulua (<i>lekuz aldatua</i>)	18. artikulua
13. artikulua (<i>lekuz aldatua</i>)	19. artikulua
17. artikulua	20. artikulua
18. artikulua	21. artikulua
19. artikulua	22. artikulua
20. artikulua	23. artikulua
21. artikulua	24. artikulua
22. artikulua	25. artikulua
HIRUGARREN ZATIA — ERKIDEGOAREN POLITIKAK	HIRUGARREN ZATIA — BATASUNAREN BARNEKO POLITIKAK ETA EGINTZAK
	I. titulua — Barne merkata
14. artikulua (<i>lekuz aldatua</i>)	26. artikulua
15. artikulua (<i>lekuz aldatua</i>)	27. artikulua
I. titulua — Salgaien eraman ekarri askea	II. titulua — Salgaien zirkulazio askea
23. artikulua	28. artikulua
24. artikulua	29. artikulua
1. kapitula — Aduana-batasuna	1. kapitula — Aduana-batasuna
25. artikulua	30. artikulua
26. artikulua	31. artikulua
27. artikulua	32. artikulua
<i>Hirugarren zatia, X. titulua, Aduanetako lankidetza (lekuz aldatua)</i>	2. kapitula — Aduanetako lankidetza
135. artikulua (<i>lekuz aldatua</i>)	33. artikulua
2. kapitula — Kopuruak murrizteko debekua Erkidegoko estatuen artean	3. kapitula — Kopuruak murrizteko debekua Erkidegoko estatuen artean
28. artikulua	34. artikulua
29. artikulua	35. artikulua
30. artikulua	36. artikulua
31. artikulua	37. artikulua
II. titulua — Nekazaritza	III. titulua — Nekazaritza eta Arrantza
32. artikulua	38. artikulua
33. artikulua	39. artikulua
34. artikulua	40. artikulua
35. artikulua	41. artikulua
36. artikulua	42. artikulua
37. artikulua	43. artikulua
38. artikulua	44. artikulua
III. titulua — Pertsona, zerbitzu eta kapitalen joan-etorri askea	IV. titulua — Pertsona, zerbitzu eta kapitalen zirkulazio askea
1. kapitula — Langileak	1. kapitula — Langileak
39. artikulua	45. artikulua

Europako Erkidegoa eratzeo Itunaren lehengo zenbaki-hurrenkera	Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren zenbaki-hurrenkera berria
40. artikulua	46. artikulua
41. artikulua	47. artikulua
42. artikulua	48. artikulua
2. kapitula — Kokatzeko eskubidea	2. kapitula — Kokatzeko eskubidea
43. artikulua	49. artikulua
44. artikulua	50. artikulua
45. artikulua	51. artikulua
46. artikulua	52. artikulua
47. artikulua	53. artikulua
48. artikulua	54. artikulua
294. artikulua (lekuz aldatua)	55. artikulua
3. kapitula — Zerbitzuak	3. kapitula — Zerbitzuak
49. artikulua	56. artikulua
50. artikulua	57. artikulua
51. artikulua	58. artikulua
52. artikulua	59. artikulua
53. artikulua	60. artikulua
54. artikulua	61. artikulua
55. artikulua	62. artikulua
4. kapitula — kapitala eta ordainketak	4. kapitula — kapitala eta ordainketak
56. artikulua	63. artikulua
57. artikulua	64. artikulua
58. artikulua	65. artikulua
59. artikulua	66. artikulua
60. artikulua (lekuz aldatua)	75. artikulua
IV titulua — Bisatuak, asiloa, inmigrazioa, eta pertsonen joan etorri askearekin zerikusia dau- katen beste politika batzuk	V titulua — Askatasun- , segurtasun- eta justi- zia-esparrua
61. artikulua	1. kapitula — Xedapen orokorrak
	67. artikulua ⁽³³⁾
	68. artikulua
	69. artikulua
	70. artikulua
	71. artikulua ⁽³⁴⁾
64. artikulua, 1. paragrafoa (ordeztua)	72. artikulua ⁽³⁵⁾
	73. artikulua
66. artikulua (ordeztua)	74. artikulua
60. artikulua (lekuz aldatua)	75. artikulua
	76. artikulua
	2. kapitula — Mugetako kontrolei, asiloari eta immigrazioari buruzko politikak

⁽³³⁾ Oraingo EB Itunaren 29. artikulua ere ordeztu du.

⁽³⁴⁾ Oraingo EB Itunaren 36. artikulua ordeztu du.

⁽³⁵⁾ Oraingo EB Itunaren 33. artikulua ere ordeztu du.

Europako Erkidegoa eratzeo Itunaren lehenengo zenbaki-hurrenkera	Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren zenbaki-hurrenkera berria
62. artikulua	77. artikulua
63. artikulua 1. eta 2. puntuak eta 64. artikulua 2. paragrafoa ⁽³⁶⁾	78. artikulua
63. artikulua 3. eta 4. puntuak	79. artikulua
	80. artikulua
64. artikulua, 1. paragrafoa (ordeztua)	72. artikulua
	3. kapitula — Arlo zibileko lankidetzak judiziala
65. artikulua	81. artikulua
66. artikulua (ordeztua)	74. artikulua
67. artikulua (indargabetua)	
68. artikulua (indargabetua)	
69. artikulua (indargabetua)	
	4. kapitula — Zigor arloko lankidetzak judiziala
	82. artikulua ⁽³⁷⁾
	83. artikulua ⁽³⁷⁾
	84. artikulua
	85. artikulua ⁽³⁷⁾
	86. artikulua
	5. kapitula — Polizia-lankidetzak
	87. artikulua ⁽³⁸⁾
	88. artikulua ⁽³⁸⁾
	89. artikulua ⁽³⁹⁾
V. titulua — Garraioak	VI. titulua — Garraioak
70. artikulua	90. artikulua
71. artikulua	91. artikulua
72. artikulua	92. artikulua
73. artikulua	93. artikulua
74. artikulua	94. artikulua
75. artikulua	95. artikulua
76. artikulua	96. artikulua
77. artikulua	97. artikulua
78. artikulua	98. artikulua
79. artikulua	99. artikulua
80. artikulua	100. artikulua
VI titulua — Lehiari, zerga arloari, eta legediak hurbiltzeari buruzko arauak	VII titulua — Lehiari, zerga-arloari, eta legediak hurbiltzeari buruzko arauak
1. kapitula — Lehiari buruzko arauak	1. kapitula — Lehiari buruzko arauak
Lehenengo atala — Enpresei aplikatzen diren xedapenak	Lehenengo atala — Enpresei aplikatzen diren xedapenak

⁽³⁶⁾ EBFren 78. artikulua 1. eta 2. paragrafoek EE Itunaren 63. artikulua 1. eta 2. puntuak ordeztu dituzte, eta EBFren 78. artikulua 3. paragrafoak 64. artikulua 2. paragrafoa ordeztu du.

⁽³⁷⁾ Oraingo EB Itunaren 31. artikulua ordeztu du.

⁽³⁸⁾ Oraingo EB Itunaren 30. artikulua ordeztu du.

⁽³⁹⁾ Oraingo EB Itunaren 32. artikulua ordeztu du.

Europako Erkidegoa eratzeko Itunaren lehenengo zenbaki-hurrenkera	Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren zenbaki-hurrenkera berria
81. artikulua	101. artikulua
82. artikulua	102. artikulua
83. artikulua	103. artikulua
84. artikulua	104. artikulua
85. artikulua	105. artikulua
86. artikulua	106. artikulua
Bigarren atala — Estatuek emandako laguntzak	Bigarren atala — Estatuek emandako laguntzak
87. artikulua	107. artikulua
88. artikulua	108. artikulua
89. artikulua	109. artikulua
2. kapitulua — Zerga arloko xedapenak	2. kapitulua — Zerga-arloko xedapenak
90. artikulua	110. artikulua
91. artikulua	111. artikulua
92. artikulua	112. artikulua
93. artikulua	113. artikulua
3. kapitulua — Legediak elkarri hurbiltzea	3. kapitulua — Legediak elkarri hurbiltzea
95. artikulua (lekuz aldatua)	114. artikulua
94. artikulua (lekuz aldatua)	115. artikulua
96. artikulua	116. artikulua
97. artikulua	117. artikulua
	118. artikulua
VII. titulua — Ekonomiari eta diruari buruzko po- litika	VII. titulua — Ekonomiari eta diruari buruzko po- litika
4. artikulua (lekuz aldatua)	119. artikulua
1. kapitulua — Ekonomiari buruzko politika	1. kapitulua — Ekonomiari buruzko politika
98. artikulua	120. artikulua
99. artikulua	121. artikulua
100. artikulua	122. artikulua
101. artikulua	123. artikulua
102. artikulua	124. artikulua
103. artikulua	125. artikulua
104. artikulua	126. artikulua
2. kapitulua — Diruari buruzko politika	2. kapitulua — Diruari buruzko politika
105. artikulua	127. artikulua
106. artikulua	128. artikulua
107. artikulua	129. artikulua
108. artikulua	130. artikulua
109. artikulua	131. artikulua
110. artikulua	132. artikulua
111. artikulua 1.etik 3.era arteko paragra- foak eta 5. paragrafoa (lekuz aldatuak)	219. artikulua
111. artikulua, 4. paragrafoa (lekuz aldatua)	138. artikulua
	133. artikulua
3. kapitulua — Institutuzioei buruzko xedapenak	3. kapitulua — Institutuzioei buruzko xedapenak

Europako Erkidegoa eratzekeo Itunaren lehengo zenbaki-hurrenkera	Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren zenbaki-hurrenkera berria
112. artikulua (lekuz aldatua)	283. artikulua
113. artikulua (lekuz aldatua)	284. artikulua
114. artikulua	134. artikulua
115. artikulua	135. artikulua
	4. kapitulua — Diru gisa euroa darabilten estatu kideentzako berariazko xedapenak
	136. artikulua
	137. artikulua
111. artikulua, 4. paragrafoa (lekuz aldatua)	138. artikulua
4. kapitulua — Xedapen iragankorrak	5. kapitulua — Xedapen iragankorrak
116. artikulua (indargabetua)	
	139. artikulua
117. artikulua, 1. paragrafoa, 2. paragrafoko sei-garren gidoia, eta 3.etik 9.era arteko paragrafoak (indargabetuak)	
117. artikulua, 2. paragrafoa, lehen bost gidoiak (lekuz aldatuak)	141. artikulua, 2. paragrafoa
121. artikulua, 1. paragrafoa (lekuz aldatua)	140. artikulua ⁽⁴⁰⁾
122. artikulua, 2. paragrafoa, bigarren esaldia (lekuz aldatua)	
123. artikulua, 5. paragrafoa (lekuz aldatua)	
118. artikulua (indargabetua)	
123. artikulua, 3. paragrafoa (lekuz aldatua)	
117. artikulua, 2. paragrafoa, lehen bost gidoiak (lekuz aldatua)	141. artikulua ⁽⁴¹⁾
124. artikulua, 1. paragrafoa (lekuz aldatua)	142. artikulua
119. artikulua	143. artikulua
120. artikulua	144. artikulua
121. artikulua, 1. paragrafoa (lekuz aldatua)	140. artikulua, 1. paragrafoa
121. artikulua, 2.etik 4.era arteko paragrafoak (indargabetuak)	
122. artikulua, 1. paragrafoa, 2. paragrafoaren lehen esaldia, 3., 4., 5. eta 6. paragrafoak (indargabetuak)	
122. artikulua, 2. paragrafoa, bigarren esaldia (lekuz aldatua)	140. artikulua 2. paragrafoko lehenengo letrorokada
123. artikulua 1., 2. eta 4. paragrafoak (indargabetuak)	
123. artikulua, 3. paragrafoa (lekuz aldatua)	141. artikulua, 1. paragrafoa

⁽⁴⁰⁾ — 140. artikulua 1. paragrafoa 121. artikulua 1. paragrafoa jasotzen du.

— 140. artikulua 2. paragrafoa 122. artikulua 2. paragrafoko bigarren esaldia jasotzen du.

— 140. artikulua 3. paragrafoa 123. artikulua 5. paragrafoa jasotzen du.

⁽⁴¹⁾ — 141. artikulua 1. paragrafoa 123. artikulua 3. paragrafoa jasotzen du.

— 141. artikulua 2. paragrafoa 117. artikulua 2. paragrafoko lehen bost gidoiak jasotzen ditu.

Europako Erkidegoa eratzeke Itunaren lehengo zenbaki-hurrenkera	Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren zenbaki-hurrenkera berria
123. artikulua, 5. paragrafoa (lekuz aldatua)	140. artikulua, 3. paragrafoa
124. artikulua, 1. paragrafoa (lekuz aldatua)	142. artikulua
124. artikulua, 2. paragrafoa (indargabetua)	
VIII. titulua — Enplegua	IX. titulua — Enplegua
125. artikulua	145. artikulua
126. artikulua	146. artikulua
127. artikulua	147. artikulua
128. artikulua	148. artikulua
129. artikulua	149. artikulua
130. artikulua	150. artikulua
IX. titulua — Merkataritzari buruzko politika bateratua (lekuz aldatua)	<i>Bosgarren zatia, II. titulua, Merkataritza politika erkidea</i>
131. artikulua (lekuz aldatua)	206. artikulua
132. artikulua (indargabetua)	
133. artikulua (lekuz aldatua)	207. artikulua
134. artikulua (indargabetua)	
X. titulua — Aduanetako lankidetzak (lekuz aldatua)	<i>Hirugarren zatia, II. titulua, 2. kapitula, Aduanetako lankidetzak</i>
135. artikulua (lekuz aldatua)	33. artikulua
XI. titulua — Gizarteari, hezkuntzari, lanbide-heziketari eta gaztediari buruzko politika	X. titulua — Gizarte-politika
1. kapitula — Gizarteari buruzko xedapenak (indargabetua)	
136. artikulua	151. artikulua
	152. artikulua
137. artikulua	153. artikulua
138. artikulua	154. artikulua
139. artikulua	155. artikulua
140. artikulua	156. artikulua
141. artikulua	157. artikulua
142. artikulua	158. artikulua
143. artikulua	159. artikulua
144. artikulua	160. artikulua
145. artikulua	161. artikulua
2. kapitula — Europako Gizarte Funtza	XI. titulua — Europako Gizarte Funtza
146. artikulua	162. artikulua
147. artikulua	163. artikulua
148. artikulua	164. artikulua
3. kapitula — Hezkuntza, lanbide-heziketa eta gazteria	XII. titulua — Hezkuntza, lanbide-heziketa, gazteria eta kirola
149. artikulua	165. artikulua
150. artikulua	166. artikulua
XII. titulua — Kultura	XIII. titulua — Kultura
151. artikulua	167. artikulua

Europako Erkidegoa eratzeko Itunaren lehengo zenbaki-hurrenkera	Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren zenbaki-hurrenkera berria
XIII. titulua — Osasun publikoa	XIV. titulua — Osasun publikoa
152. artikulua	168. artikulua
XIV. titulua — Kontsumitzaileen babesa	XV. titulua — Kontsumitzaileen babesa
153. artikulua, 1., 3., 4. eta 5. paragrafoak	169. artikulua
153. artikulua, 2. paragrafoa (lekuz aldatua)	12. artikulua
XV. titulua — Europan batetik besterako sareak	XVI. titulua — Europa barruko sareak
154. artikulua	170. artikulua
155. artikulua	171. artikulua
156. artikulua	172. artikulua
XVI. titulua — Industria	XVII. titulua — Industria
157. artikulua	173. artikulua
XVII. titulua — Ekonomia- eta gizarte-kohesioa	XVIII. titulua — Ekonomia-, gizarte eta lurralde-koehesioa
158. artikulua	174. artikulua
159. artikulua	175. artikulua
160. artikulua	176. artikulua
161. artikulua	177. artikulua
162. artikulua	178. artikulua
XVIII. titulua — Ikerketa eta teknologiaren garapena	XIX. titulua — Ikerketa eta garapen teknologikoa, eta espazioa
163. artikulua	179. artikulua
164. artikulua	180. artikulua
165. artikulua	181. artikulua
166. artikulua	182. artikulua
167. artikulua	183. artikulua
168. artikulua	184. artikulua
169. artikulua	185. artikulua
170. artikulua	186. artikulua
171. artikulua	187. artikulua
172. artikulua	188. artikulua
	189. artikulua
173. artikulua	190. artikulua
XIX. titulua — Ingurumena	XX. titulua — Ingurumena
174. artikulua	191. artikulua
175. artikulua	192. artikulua
176. artikulua	193. artikulua
	XXI. titulua — Energia
	194. artikulua
	XXII. titulua — Turismoa
	195. artikulua
	XXIII. titulua — Babes zibila
	196. artikulua
	XXIV. titulua — Administrazioen arteko lankidetzak

Europako Erkidegoa eratzeke Itunaren lehengo zenbaki-hurrenkera	Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren zenbaki-hurrenkera berria
	197. artikulua
XX. titulua — Garapenerako lankidetza (lekuz aldatua)	<i>Bosgarren zatia, III. titulua, 1. kapitulua, Garapenerako lankidetza</i>
177. artikulua (lekuz aldatua)	208. artikulua
178. artikulua (indargabetua) ⁽⁴²⁾	
179. artikulua (lekuz aldatua)	209. artikulua
180. artikulua (lekuz aldatua)	210. artikulua
181. artikulua (lekuz aldatua)	211. artikulua
XXI. titulua — Beste herrialdeekiko lankidetza; ekonomia, finantza eta teknikako arloetan (lekuz aldatua)	<i>Bosgarren zatia, III. titulua, 2. kapitulua, Hirugarren herrialdeekiko lankidetza ekonomiko, finantzario eta teknikoa</i>
181 A artikulua (lekuz aldatua)	212. artikulua
LAUGARREN ZATIA — ITSASOZ HARAINDIKO HERRIALDE ETA LURRALDEEN ELKARTEA	LAUGARREN ZATIA — ITSASOZ HARAINDIKO HERRIALDE ETA LURRALDEAK BATASUNAREN ELKARTZEA
182. artikulua	198. artikulua
183. artikulua	199. artikulua
184. artikulua	200. artikulua
185. artikulua	201. artikulua
186. artikulua	202. artikulua
187. artikulua	203. artikulua
188. artikulua	204. artikulua
	BOSGARREN ZATIA — BATASUNAREN ATZERRI-EKINTZA
	I. titulua — Batasunaren atzerri-ekintzari buruzko xedapen orokorrak
	205. artikulua
<i>Hirugarren zatia, IX. titulua, Merkataritzari buruzko politika bateratua (lekuz aldatua)</i>	II. titulua — Merkataritza politika erkidea
131. artikulua (lekuz aldatua)	206. artikulua
133. artikulua (lekuz aldatua)	207. artikulua
	III. titulua — Hirugarren herrialdeekiko lankidetza eta laguntza humanitarioa
<i>Hirugarren zatia, XX. titulua, Garapenerako lankidetza (lekuz aldatua)</i>	1. kapitulua — Garapenerako lankidetza
177. artikulua (lekuz aldatua)	208. artikulua ⁽⁴³⁾
179. artikulua (lekuz aldatua)	209. artikulua
180. artikulua (lekuz aldatua)	210. artikulua
181. artikulua (lekuz aldatua)	211. artikulua
<i>Hirugarren zatia, XXI. titulua, Beste herrialdeekiko lankidetza; ekonomia, finantza eta teknikako arloetan (lekuz aldatua)</i>	2. kapitulua — Hirugarren herrialdeekiko lankidetza ekonomiko, finantzario eta teknikoa

⁽⁴²⁾ Funtsean, EBFTren 208. artikulua 1. paragrafoko bigarren lerroakadako bigarren esaldiak ordeztu du.

⁽⁴³⁾ Funtsean, 1. paragrafoko bigarren lerroakadako bigarren esaldiak EE Itunaren 178. artikulua ordeztu du.

Europako Erkidegoa eratzeke Itunaren lehengo zenbaki-hurrenkera	Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren zenbaki-hurrenkera berria
<i>181 A artikulua (lekuz aldatua)</i>	212. artikulua
	213. artikulua
	3. kapitulua — Laguntza humanitarioa
	214. artikulua
	IV. titulua — Neurri mugatzaileak
<i>301. artikulua (ordeztua)</i>	215. artikulua
	V. titulua — Nazioarteko akordioak
	216. artikulua
<i>310. artikulua (lekuz aldatua)</i>	217. artikulua
<i>300. artikulua (ordeztua)</i>	218. artikulua
<i>111. artikulua 1.etik 3.era arteko paragrafoak eta 5. paragrafoa (lekuz aldatuak)</i>	219. artikulua
	VI. titulua — Batasunak nazioarteko erakundee-kin, hirugarren herrialdeekin eta Batasunaren ordezkartzeekin izango dituen harremanak
<i>302.etik 304.era arteko artikulua (ordeztuak)</i>	220. artikulua
	221. artikulua
	VII. titulua — Elkartasun klausula
	222. artikulua
BOSGARREN ZATIA — ERKIDEGOKO INSTITUZIOAK	SEIGARREN ZATIA — INSTITUZIOEI ETA FINANTZEI BURUZKO XEDAPENAK
I. titulua — Instituzioei buruzko xedapenak	I. titulua — Instituzioei buruzko xedapenak
1. kapitulua — Instituzioak	1. kapitulua — Instituzioak
Lehenengo atala — Europako Parlamentua	Lehenengo atala — Europako Parlamentua
189. artikulua (indargabetua) ⁽⁴⁴⁾	
190. artikulua, 1.etik 3.era arteko paragrafoak (indargabetuak) ⁽⁴⁵⁾	
190. artikulua, 4. eta 5. paragrafoak	223. artikulua
191. artikulua, lehen lerrokada (indargabetua) ⁽⁴⁶⁾	
191. artikulua, bigarren lerrokada	224. artikulua
192. artikulua, lehen lerrokada (indargabetua) ⁽⁴⁷⁾	
192. artikulua, bigarren lerrokada	225. artikulua
193. artikulua	226. artikulua
194. artikulua	227. artikulua
195. artikulua	228. artikulua
196. artikulua	229. artikulua
197. artikulua, lehen lerrokada (indargabetua) ⁽⁴⁸⁾	
197. artikulua, bigarren, hirugarren eta laugarren lerrokadak	230. artikulua

⁽⁴⁴⁾ Funtsean, EB Tratatuaren 14. artikulua 1. eta 2. paragrafoek ordeztu dute.

⁽⁴⁵⁾ Funtsean, EB Tratatuaren 14. artikulua 1.etik 3.era arteko paragrafoek ordeztu dute.

⁽⁴⁶⁾ Funtsean, EB Tratatuaren 11. artikulua 4. paragrafoak ordeztu du.

⁽⁴⁷⁾ Funtsean, EB Tratatuaren 14. artikulua 1. paragrafoak ordeztu du.

⁽⁴⁸⁾ Funtsean, EB Tratatuaren 14. artikulua 4. paragrafoak ordeztu du.

Europako Erkidegoa eratzekeo Itunaren lehengo zenbaki-hurrenkera	Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren zenbaki-hurrenkera berria
198. artikulua	231. artikulua
199. artikulua	232. artikulua
200. artikulua	233. artikulua
201. artikulua	234. artikulua
	Bigarren atala — Kontseilu Europarra
	235. artikulua
	236. artikulua
Bigarren atala — Kontseilua	Hirugarren atala — Kontseilua
202. artikulua (indargabetua) ⁽⁴⁹⁾	
203. artikulua (indargabetua) ⁽⁵⁰⁾	
204. artikulua	237. artikulua
205. artikulua 2. eta 4. paragrafoak (indargabetuak) ⁽⁵¹⁾	
205. artikulua, 1. eta 3. paragrafoak	238. artikulua
206. artikulua	239. artikulua
207. artikulua	240. artikulua
208. artikulua	241. artikulua
209. artikulua	242. artikulua
210. artikulua	243. artikulua
Hirugarren atala — Batzordea	Laugarren atala — Batzordea
211. artikulua (indargabetua) ⁽⁵²⁾	
	244. artikulua
212. artikulua (lekuz aldatua)	249. artikulua, 2. paragrafoa
213. artikulua	245. artikulua
214. artikulua (indargabetua) ⁽⁵³⁾	
215. artikulua	246. artikulua
216. artikulua	247. artikulua
217. artikulua 1., 3. eta 4. paragrafoak (indargabetuak) ⁽⁵⁴⁾	
217. artikulua, 2. paragrafoa	248. artikulua
218. artikulua, 1. paragrafoa (indargabetua) ⁽⁵⁵⁾	
218. artikulua, 2. paragrafoa	249. artikulua
219. artikulua	250. artikulua
Laugarren atala — Justizia Auzitegia	Bosgarren atala — Europar Batasuneko Justizia Auzitegia
220. artikulua (indargabetua) ⁽⁵⁶⁾	
221. artikulua, lehen lerrokada (indargabetua) ⁽⁵⁷⁾	

⁽⁴⁹⁾ Funtsean, EB Tratatuaren 16. artikulua 1. paragrafoa eta EBFTren 290 eta 291. artikuluek ordeztu dute.

⁽⁵⁰⁾ Funtsean, EB Tratatuaren 16. artikulua 2. eta 9. paragrafoek ordeztu dute.

⁽⁵¹⁾ Funtsean, EB Tratatuaren 16. artikulua 4. eta 5. paragrafoek ordeztu dute.

⁽⁵²⁾ Funtsean, EB Tratatuaren 17. artikulua 1. paragrafoa ordeztu du.

⁽⁵³⁾ Funtsean, EB Tratatuaren 17. artikulua 3. eta 7. paragrafoek ordeztu dute.

⁽⁵⁴⁾ EB Tratatuaren 17. artikulua 6. paragrafoa ordeztu du, funtsean.

⁽⁵⁵⁾ Funtsean, EBFTren 295. artikulua ordeztu du.

⁽⁵⁶⁾ Funtsean, EB Tratatuaren 19. artikulua ordeztu du.

⁽⁵⁷⁾ Funtsean, EB Tratatuaren 19. artikulua 2. paragrafoa lehen lerrokada ordeztu du.

Europako Erkidegoa eratzeko Itunaren lehengo zenbaki-hurrenkera	Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren zenbaki-hurrenkera berria
221. artikulua, bigarren eta hirugarren lerroak	251. artikulua
222. artikulua	252. artikulua
223. artikulua	253. artikulua
224. artikulua ⁽⁵⁸⁾	254. artikulua
	255. artikulua
225. artikulua	256. artikulua
225 A artikulua	257. artikulua
226. artikulua	258. artikulua
227. artikulua	259. artikulua
228. artikulua	260. artikulua
229. artikulua	261. artikulua
229. A artikulua	262. artikulua
230. artikulua	263. artikulua
231. artikulua	264. artikulua
232. artikulua	265. artikulua
233. artikulua	266. artikulua
234. artikulua	267. artikulua
235. artikulua	268. artikulua
	269. artikulua
236. artikulua	270. artikulua
237. artikulua	271. artikulua
238. artikulua	272. artikulua
239. artikulua	273. artikulua
240. artikulua	274. artikulua
	275. artikulua
	276. artikulua
241. artikulua	277. artikulua
242. artikulua	278. artikulua
243. artikulua	279. artikulua
244. artikulua	280. artikulua
245. artikulua	281. artikulua
	Seigarren atala — Europako Banku Zentrala
	282. artikulua
112. artikulua (lekuz aldatua)	283. artikulua
113. artikulua (lekuz aldatua)	284. artikulua
Bosgarren atala — Kontuen Auzitegia	Zazpigarren atala — Kontuen Auzitegia
246. artikulua	285. artikulua
247. artikulua	286. artikulua
248. artikulua	287. artikulua
2. kapitulua — Instituzio batzuei buruzko xedapen bateratuak	2. kapitulua — Batasunaren egintza juridikoak, onartzeko prozedurak eta bestelako xedapenak

⁽⁵⁸⁾ Funtsean, EB Tratatuaren 19. artikulua 2. paragrafoko lehen lerroak ordeztu du lehen lerroakako lehen esaldia.

Europako Erkidegoa eratzeko Itunaren lehengo zenbaki-hurrenkera	Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren zenbaki-hurrenkera berria
	Lehenengo atala — Batasunaren egintza juridikoak
249. artikulua	288. artikulua
	289. artikulua
	290. artikulua ⁽⁵⁹⁾
	291. artikulua ⁽⁵⁹⁾
	292. artikulua
	Bigarren atala — Egintzak onartzeko prozedurak eta bestelako xedapenak
250. artikulua	293. artikulua
251. artikulua	294. artikulua
252. artikulua (indargabetua)	
	295. artikulua
253. artikulua	296. artikulua
254. artikulua	297. artikulua
	298. artikulua
255. artikulua (lekuz aldatua)	15. artikulua
256. artikulua	299. artikulua
	3. kapitulua — Batasuneko organo aholkue-maileak
	300. artikulua
3. kapitulua — Ekonomia eta Gizarte Lantaldea	Lehenengo atala — Ekonomia eta Gizarte Komitea
257. artikulua (indargabetua) ⁽⁶⁰⁾	
258. artikulua, lehen, bigarren eta laugarren lerroak	301. artikulua
258. artikulua, hirugarren lerroka (indargabetua) ⁽⁶¹⁾	
259. artikulua	302. artikulua
260. artikulua	303. artikulua
261. artikulua (indargabetua)	
262. artikulua	304. artikulua
4. kapitulua — Eskualdeetako Lantaldea	Bigarren atala — Eskualdeetako Komitea
263. artikulua, lehen eta bosgarren lerroak (indargabetuak) ⁽⁶²⁾	
263. artikulua, 2.etik 4.era arteko paragrafoak	305. artikulua
264. artikulua	306. artikulua
265. artikulua	307. artikulua
5. kapitulua — Europako Inbertsio Bankua	4. kapitulua — Europako Inbertsio Bankua
266. artikulua	308. artikulua
267. artikulua	309. artikulua

⁽⁵⁹⁾ Funtsean, EE Itunaren 202. artikulua hiru hiru gidoia ordeztu du.

⁽⁶⁰⁾ Funtsean, EBFTren 300. artikulua 2. paragrafoak ordeztu du.

⁽⁶¹⁾ Funtsean, EBFTren 300. artikulua 4. paragrafoak ordeztu du.

⁽⁶²⁾ Funtsean, EBFTren 300. artikulua 3. eta 4. paragrafoek ordeztu dute.

Europako Erkidegoa eratzekeo Itunaren lehengo zenbaki-hurrenkera	Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren zenbaki-hurrenkera berria
II. titulua — Finantza-xedapenak	II. titulua — Finantza-xedapenak
268. artikulua	310. artikulua
	1. kapitulua — Batasunaren baliabide propioak
269. artikulua	311. artikulua
270. artikulua (indargabetua) ⁽⁶³⁾	
	2. kapitulua — Urte anitzeko finantza-esparrua
	312. artikulua
	3. kapitulua — Batasunaren urteko aurrekontua
272. artikulua, 1. paragrafoa (lekuz aldatua)	313. artikulua
271. artikulua (lekuz aldatua)	316. artikulua
272. artikulua, 1. paragrafoa (lekuz aldatua)	313. artikulua
272. artikulua, 2.etik 10.era arteko paragrafoak	314. artikulua
273. artikulua	315. artikulua
271. artikulua (lekuz aldatua)	316. artikulua
	4. kapitulua — Aurrekontua betearaztea eta kudeaketa onartzea
274. artikulua	317. artikulua
275. artikulua	318. artikulua
276. artikulua	319. artikulua
	5. kapitulua — Xedapen erkideak
277. artikulua	320. artikulua
278. artikulua	321. artikulua
279. artikulua	322. artikulua
	323. artikulua
	324. artikulua
	6. kapitulua — Iruzuraren kontrako borroka
280. artikulua	325. artikulua
	III. titulua — Lankidetzaren indartuak
11. eta 11A artikulua (ordeztuak)	326. artikulua ⁽⁶⁴⁾
11. eta 11A artikulua (ordeztuak)	327. artikulua ⁽⁶⁴⁾
11. eta 11A artikulua (ordeztuak)	328. artikulua ⁽⁶⁴⁾
11. eta 11 A artikulua (ordeztuak)	329. artikulua ⁽⁶⁴⁾
11. eta 11 A artikulua (ordeztuak)	330. artikulua ⁽⁶⁴⁾
11. eta 11 A artikulua (ordeztuak)	331. artikulua ⁽⁶⁴⁾
11. eta 11 A artikulua (ordeztuak)	332. artikulua ⁽⁶⁴⁾
11. eta 11 A artikulua (ordeztuak)	333. artikulua ⁽⁶⁴⁾
11. eta 11 A artikulua (ordeztuak)	334. artikulua ⁽⁶⁴⁾
SEIGARREN ZATIA — XEDAPEN OROKORRAK	ZAZPIGARREN ZATIA — XEDAPEN OROKORRAK, ETA AZKEN XEDAPENAK
ETA AZKEN XEDAPENAK	
281. artikulua (indargabetua) ⁽⁶⁵⁾	
282. artikulua	335. artikulua

⁽⁶³⁾ Funtsean, EBFTren 310. artikulua 4. paragrafoa ordeztu du.

⁽⁶⁴⁾ EB Itunaren 27 A tik 27 E ra arteko artikulua, 40.etik 40 B ra artekoak eta 43.etik 45.era arteko artikulua ere ordeztu ditu.

Europako Erkidegoa eratzeko Itunaren lehengo zenbaki-hurrenkera	Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren zenbaki-hurrenkera berria
283. artikulua	336. artikulua
284. artikulua	337. artikulua
285. artikulua	338. artikulua
286. artikulua (ordeztua)	16. artikulua
287. artikulua	339. artikulua
288. artikulua	340. artikulua
289. artikulua	341. artikulua
290. artikulua	342. artikulua
291. artikulua	343. artikulua
292. artikulua	344. artikulua
293. artikulua (indargabetua)	
294. artikulua (lekuz aldatua)	55. artikulua
295. artikulua	345. artikulua
296. artikulua	346. artikulua
297. artikulua	347. artikulua
298. artikulua	348. artikulua
299. artikulua, 1. paragrafoa (indargabetua) ⁽⁶⁵⁾	
299. artikulua, 2. paragrafoa, bigarren, hirugarren eta laugarren lerroak	349. artikulua
299. artikulua 2. paragrafoko lehen lerroa eta 3.etik 6.era arteko paragrafoak (lekuz aldatuak)	355. artikulua
300. artikulua (ordeztua)	<i>218. artikulua</i>
301. artikulua (ordeztua)	<i>215. artikulua</i>
302. artikulua (ordeztua)	<i>220. artikulua</i>
303. artikulua (ordeztua)	<i>220. artikulua</i>
304. artikulua (ordeztua)	<i>220. artikulua</i>
305. artikulua (indargabetua)	
306. artikulua	350. artikulua
307. artikulua	351. artikulua
308. artikulua	352. artikulua
	353. artikulua
309. artikulua	354. artikulua
310. artikulua (lekuz aldatua)	<i>217. artikulua</i>
311. artikulua (indargabetua) ⁽⁶⁷⁾	
299. artikulua 2. paragrafoko lehen lerroa eta 3.etik 6.era arteko paragrafoak (lekuz aldatuak)	355. artikulua
312. artikulua	356. artikulua
Azken Xedapenak	
313. artikulua	357. artikulua
	358. artikulua
314. artikulua (indargabetua) ⁽⁶⁸⁾	

⁽⁶⁵⁾ Funtsean, EB Tratatuaren 47. artikulua ordeztu du.

⁽⁶⁶⁾ Funtsean, EB Tratatuaren 52. artikulua ordeztu du.

⁽⁶⁷⁾ Funtsean, EB Tratatuaren 51. artikulua ordeztu du.

⁽⁶⁸⁾ Funtsean, EB Tratatuaren 55. artikulua ordeztu du.

II: EUOPAR BATASUNAREN OINARRIZKO ESKUBIDEEN GUTUNA

(EBEO, C 83/02, 2010eko martxoaren 30ekoa)

Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak ohore handiz aldarrikatzen dute ondorengo testua dela Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Gutuna:

EUROPAR BATASUNAREN OINARRIZKO ESKUBIDEEN GUTUNA

Sarrera

Europako herriek, beren artean gero eta batasun estuagoa sortuz, etorkizun baketsua nahi dute izan elkarrekin, balio erkideetan oinarrituta.

Batasunak, bere ondare espiritual eta moralaren jakitun, balio banaezin eta unibertsaletan du sustraia, hots, giza duintasunean, askatasunean, berdintasunean eta elkartasunean; eta demokrazia-aren eta zuzenbideko estatuaren printzipioak ditu oinarri. Batasuneko herritartasuna eratuta, eta askatasun-, segurtasun- eta justizia-esparrua sortuta, Batasunak gizakia du bere jardunaren ardatz.

Batasunak balio erkide horiek zaintzen eta sustatzen laguntzen du, betiere, Europako herrien kultura eta tradizio anitzak errespetatuta; halaxe errespetatzen ditu, halaber, estatu kideetako bakoitzak berez duen nortasuna baita estatuko, herrialdeetako eta tokian tokiko botere publikoen antolaketa ere. Batasuna garapen orekatua eta iraunkorra sustatzen saiatzen da, eta pertsonen, zerbitzuen, salgaien eta kapitalen zirkulazio askea bermatzen du, baita kokatzeko askatasuna ere.

Horretarako, beharrezkoa da oinarritzko eskubideen babesa indartzea, gizartearen bilakaera, garapen soziala eta zientzia-teknologietako aurrerapenak aintzatzat hartuta, eta Gutun batean jasota uztea.

Gutun honek, Batasunaren eskumenak eta xedeak eta subsidiarotasun-printzipioa errespetatuz, indartu egin nahi ditu, batez ere, estatu kideen konstituzio-tradizioetatik eta nazioarteko betebeharrak erkideetatik sortzen diren eskubideak, Giza Eskubideak eta Oinarritzko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenetik sortutako eskubideak, Batasunak eta Europako Kontseiluak onartutako Gutun Sozialetatik sortutakoak, eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzietatik datozen eskubideak. Ildo horretatik, Batasuneko eta estatu kideetako jurisdikzio-organoek interpretatuko dute Gutuna, eta zeregin horretan, Gutuna egin zuen Konbentzioko Praesidiuma buru dela landutako azalpenei eta Europako Konbentzioaren Praesidiumaren agintaritzapean eguneratutakoei behar bezala begiratuko diete.

Eskubide horien gozamenak erantzukizunak eta eginbeharrak ezartzen ditu, bai pertsonekin, bai giza komunitatearekin, bai eta ondorengo belaunaldiarekin ere.

Horrenbestez, Batasunak ondoren adieraziko diren eskubideak, askatasunak eta printzipioak aitortzen ditu.

I. TITULUA

DUINTASUNA

1. artikulua

Giza duintasuna

Giza duintasuna urraezina da. Giza duintasuna errespetatu eta babestu egingo da.

2. artikulua

Bizitzeko eskubidea

1. Pertsona orok du bizitzeko eskubidea.
2. Inor ezin izango da heriotza-zigorrrera kondenatu, ez eta hil ere.

3. artikulua

Pertsonaren osotasunerako eskubidea

1. Pertsona orok du osotasun fisikoa eta psikikoa izateko eskubidea.
2. Medikuntzan eta biologian bereziki errespetatuko dira honako hauek:
 - a) pertsona bakoitzak ondo informatuta dagoela eta askatasunaz emandako onespena errespetatuko da, betiere, legeak ezarritako moduen arabera;
 - b) praktika eugenetikoen gaineko debekua errespetatuko da, batez ere, pertsonen hautespena helburu dutenak;
 - c) giza soina nahiz soinen zatiak, halakotzat hartuta, irabazpide bihurtzeko debekua errespetatuko da;
 - d) gizakiak klonazioz erreproduzitzeko debekua errespetatuko da.

4. artikulua

Debekatu egiten dira tortura eta zigor edo tratu anker edo laidogarriak

Inori ere ezin izango zaio torturarik eta zigorrik edo tratu anker edo laidogarririk ezarri.

*5. artikulua***Debekatu egiten dira esklabotasuna eta bortxazko lana**

1. Inor ere ezin izango da besteen esklabo edo uztarpeko jarri.
2. Inor ere ezin izango da behartu bortxazko edo nahitaezko lanak egitera.
3. Debekatu egiten da gizakiak salerostea.

II. TITULUA**ASKATASUNAK***6. artikulua***Askatasun eta segurtasunerako eskubidea**

Pertsona orok du askatasun eta segurtasunerako eskubidea.

*7. artikulua***Bizitza pribatuaren eta familiako bizitzaren errespetua**

Pertsona orok du bere bizitza pribatua, bere familia-bizitza, bere etxebizitza eta bere komunikazioak errespetatuak izateko eskubidea.

*8. artikulua***Pertsona bakoitzaren datuen babesa**

1. Pertsona orok du berari dagozkion datu pertsonalak babestuta izateko eskubidea.
2. Datu horiek leialtasunez landuko dira, helburu zehatzetarako eta dagokion pertsonaren onespena oinarri dela edo legeak jasotako bidezko beste oinarri baten indarrez. Pertsona orok du berari dagokionez jasota dauden datuetara iritsi eta horiek zuzentzeko eskubidea.
3. Arau horien errespetua agintaritza independente baten kontrolpean egongo da.

*9. artikulua***Ezkontzeko eskubidea eta familia eratzeako eskubidea.**

Bermatu egiten dira ezkontzeko eskubidea eta familia eratzeako eskubidea, estatu bakoitzean bata eta bestea nola baliatu arautzen duten legeen arabera.

*10. artikulua***Pentsamendu-askatasuna, kontzientzia-askatasuna eta erlijio-askatasuna**

1. Pertsona orok du pentsamendu-askatasuna, kontzientzia-askatasuna eta erlijio-askatasuna izateko eskubidea. Eskubide horrek norbere erlijioa edo sinesteak aldatzeko eskubidea dakar, baita bakoitzak, bakarka nahiz taldean, publikoan nahiz pribatuan, kultuaren bidez, irakaskuntzaren bidez, jardueraz eta erritoak betez, bere erlijioa edo sinesteak azaltzeko ere.
2. Kontzientzia-eragozpenerako eskubidea aitortzen da, eskubide hori baliatzeko estatu kide bakoitzean dauden legeen arabera.

*11. artikulua***Adierazpen-askatasuna eta informazio-askatasuna.**

1. Pertsona orok du adierazpen-askatasunerako eskubidea. Eskubide horrek iritzi-askatasuna eta informazioa zein ideiak jaso nahiz ezagutarazteko askatasuna dakartza, herriagintariak esku sartu gabe eta mugarik kontuan hartu gabe.
2. Errespetatu egiten dira bai komunikabideen askatasuna baita beren aniztasuna ere.

*12. artikulua***Biltzeko eta elkartzeko eskubidea**

1. Pertsona orok du askatasunez era baketsuan biltzeko eskubidea eta maila guztietako elkarreketara biltzeko askatasuna, batez ere politikan, sindikatueta eta herritar-taldeetan; pertsona orok du, beraz, bere interesen alde beste batzuekin batera sindikatuak sortzeko eskubidea baita sindikatueta afiliatzekoa ere.
2. Europar Batasun osoko alderdi politikoei Batasuneko herritarren borondate politikoa adierazten laguntzen dute.

*13. artikulua***Arteetako eta zientzietako askatasuna**

Askatasunez jardun daiteke artegintzan eta zientzia-ikerketan. Katedra-askatasuna errespetatzen da.

14. artikulua

Hezkuntzarako eskubidea

1. Pertsona orok du hezkuntzarako eskubidea, eta lanbide-heziketara iritsi eta etengabe-ko prestakuntza jasotzekoa.

2. Eskubide honen baitan sartzen da nahi-taezko hezkuntza doan jaso ahal izatea.

3. Errespetatu egiten dira demokraziako printzipioak errespetatuz ikastetxeak sortzeko askatasuna, eta gurasoek beren erlijioa, filosofiako eta pedagogiako sinesteen arabera beren seme-alaben hezkuntza eta irakaskuntza bermatzeko duten eskubidea, betiere, horiek nola baliatu arautzeko estatu bakoitzak dituen legeekin bat etorritik egiten bada.

15. artikulua

Lanbide-askatasuna eta lan egiteko eskubidea

1. Pertsona orok du lan egiteko eskubidea baita askatasunez aukeratu edo onartutako lanbidean jarduteko eskubidea ere.

2. Batasuneko herritar orok du edozein estatu kidetan lana bilatzeko, lan egiteko, kokatzeko edo zerbitzuak emateko askatasuna.

3. Hirugarren herrialdeetako herritarrek, estatu kideen lurraldean lan egiteko baimena dutenean, eskubidea dute Batasuneko herritarrek dituzten lan-baldintza bertsuez gozatzeko.

16. artikulua

Enpresa-askatasuna

Enpresa-askatasuna aitortzen da, Batasuneko Zuzenbideak eta estatu kide bakoitzeko lege eta jokaerak ezarritako moduan.

17. artikulua

Jabetza-eskubidea

1. Pertsona orok du lege barruan eskuratu dituen ondasunen jabetzaz gozatzeko eskubidea, eta ondasunok erabili, xedatu eta oinordetzan uztekoa. Inori ere ezin zaio bere jabetzarik kendu, onura publikorako denean izan ezik; hala ere, legean jasotako kasuetan eta baldintzetan izango da, eta trukean, arrazoizko epe baten barruan, ondasunak galtzeagatik kalteordain zuzena emanda. Ondasunen erabilera legez arautu ahal

izango da, interes orokorrerako beharrezkoa den heinean.

2. Babestu egiten da jabetza intelektuala.

18. artikulua

Asilo-eskubidea

Bermatu egiten da asilo-eskubidea, 1951ko uztailaren 28ko Genevako Hitzarmeneko arauak eta Iheslarien estatutuari buruzko 1967ko urtarrilaren 31ko protokoloko arauak errespetatuz eta Europar Batasunaren Tratatuarekin eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuarekin bat etorritik (aurrerantzean «Tratatuak» deituko zaie).

19. artikulua

Babesa ematea, pertsonak bihurtu, kanporatu eta estraditatzeko kasuetan

1. Debekatu egiten da pertsonak taldeka kanporatzea.

2. Inor ere ezin izango da beste estatu batera bihurtu, kanporatu edo estraditatu estatu horretan heriotza-zigorra, tortura nahiz zigor edo tratatu anker edo laidogarriak jasateko arrisku larria badu.

III. TITULUA

BERDINTASUNA

20. artikulua

Berdintasuna legearen aurrean

Pertsona guztiak dira berdinak legearen aurrean.

21. artikulua

Bereizkeriarik eza

1. Debeku da bereizkeria oro, eta bereiziki hauek: sexua, arraza, kolorea, herriko zein gizarteko jatorria, ezaugarri genetikoak, hizkuntza, erlijioa zein sinesteak, iritzi politikoak zein beste edozein iritzi, gutxiengo nazional batetako izatea, ondarea, jaiotza, ezgaitasuna, adina nahiz sexu-joera direla-eta egindako bereizkeriak.

2. Debeku da nazionalitatea dela-eta inongo bereizkeriarik egitea Tratatuaren aplikazio-eremuan, bere xedapen bereziei kalterik egin gabe.

*22. artikulua***Kultura-aniztasuna, erlijio-aniztasuna eta hizkuntza-aniztasuna.**

Batasunak kultura-aniztasuna, erlijio-aniztasuna eta hizkuntza-aniztasuna errespetatzen ditu.

*23. artikulua***Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna**

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eremu guztietan bermatu beharko da, baita enpleguari, lanari eta lansariari dagokienez ere.

Berdintasun-printzipioak ez du eragozten, ordezkaritzarik gutxien duen sexukoen alde deanean, abantaila zehatzak dakartzaten neurriak onartzea edo mantentzea.

*24. artikulua***Haurren eskubideak**

1. Haurrek babes-eskubidea eta ongizaterako beharrezko dituzten zainetak jasotzeko eskubidea dute. Askatasunez adierazi ahal izango dute beren iritzia. Beren iritzia kontuan hartuko da dagozkien gaietan, beren adinaren eta heldutasunaren arabera.

2. Herri-agintariek edo instituzio pribatuek haurrei dagokienez egindako jardun guztietan haurren interes gorena izan behar dute kontuan lehentasunez.

3. Haur orok eskubidea du aldiro-aldiro harreman pertsonalak eta zuzeneko harremanak izateko bai aitarekin bai amarekin, harremanok haurraren interesen aurkakoak direnean izan ezik.

*25. artikulua***Adineko pertsonen eskubideak**

Batasunak aitortu eta errespetatu egiten du adineko pertsonak bizitzatzen duina eta independentea izateko, eta gizarte-bizitzan eta kultura-bizitzan parte hartzeko duten eskubidea.

*26. artikulua***Ezgaitasunen bat duten pertsonen integrazioa.**

Batasunak aitortu eta errespetatu egiten du ez-

gaitasunen bat duten pertsonen autonomia izateko, gizartearen eta lanean integratzeko, eta gizartearen bizitzan parte hartzeko duten eskubidea, eta hori bermatzeko hartzen diren neurriez baliatzekoa.

IV. TITULUA**ELKARTASUNA***27. artikulua***Langileek enpresan informazioarako eta kontsulta egiteko duten eskubidea**

Langileei zein beren ordezkariari informazioa eta kontsulta bermatu beharko zaizkie, dagokien mailan, behar bezain aldez aurretik, Batasuneko Zuzenbidean eta estatu bakoitzeko lege eta joaeretan agindutako kasuetan eta baldintzetan.

*28. artikulua***Negoiazio eta ekintza kolektiborako eskubidea**

Langileek eta enpresaburuek, hala nola batzuen eta besteen ordezkaritzek, Batasuneko Zuzenbidearekin eta estatu bakoitzeko lege eta joaerekin bat etorritik, eta dagokien mailan, hitzarmen kolektiboak negoziatu eta egiteko eskubidea dute; eta interesen arteko gatazkak sortzen badira, ekintza kolektiboak egin ahal izango dituzte, greba barne, beren interesak defendatzeko.

*29. artikulua***Enplegu-zerbitzuez baliatzeko eskubidea**

Pertsona orok du doako enplegu-zerbitzuez baliatzeko eskubidea.

*30. artikulua***Bidegabeko kaleratzetik babestuta izateko eskubidea**

Langile orok du bidegabeko kaleratzetik babestuta izateko eskubidea, Batasuneko Zuzenbidearekin eta estatu bakoitzeko lege eta joaerekin bat etorritik.

*31. artikulua***Lan-baldintza zuzen eta bidezkoak**

1. Langile orok du bere osasuna, segurtasu-

na eta duintasuna errespetatzen duten baldintzetan lan egiteko eskubidea.

2. Langile orok du lanaren gehieneko iraupena mugatuta izateko eskubidea, baita egunero eta astero atseden-aldiak hartzeko eta ordaindutako oporrak urtero izateko eskubidea.

32. artikulua

Haurren lanaren gaineko debekua, eta gazteen babesa lanean

Debeku da haurren lana. Lanean onartzeko adinik txikiena ezingo da izan nahitaezko eskolaratze-aldia amaitzeko adina baino txikiagoa, gazteen-tzat hobeak diren xedapenei kalterik egin gabe, eta mugatutako salbuespenak salbuespen.

Lanerako hartzen diren gazteek beren adinera egokitutako lan-baldintzak izan behar dituzte, eta esplotazio ekonomikotik babestuta egon behar dute, baita beren segurtasun, osasun, garapen fisiko, psikiko, moral edo sozialerako kaltegarri izan daitekeen, edo bere heziketa arriskuan jar dezakeen edozein lanetatik ere.

33. artikulua

Familia-bizitza eta lanbide-bizitza

1. Bermatu egiten da familiaren babesa legearen, ekonomiaren eta gizartearen aldetik.

2. Familia-bizitza eta lanbide-bizitza elkartu ahal izateko, pertsona orok du amatasuna dela-eta kaleratua izateko babestuta egoteko eskubidea; era berean, pertsona orok du, haurra jaio edo adopzioan hartu dela-eta, gurasotasun-baimenaldia izateko eskubidea baita ordaindutako amatasun-baimenaldia izateko eskubidea ere.

34. artikulua

Gizarte-segurantza eta gizarte-laguntza

1. Batasunak aitortu eta errespetatu egiten du gizarte-segurantzako prestazioak eta gizarte-zerbitzuak jasotzeko eskubidea, Batasuneko Zuzenbideak eta estatu bakoitzeko lege eta jokaerak ezarritako moduan, bai amatasuna, gaitasuna eta laneko istripuak gertatzen direnerako, mendekotasuna zein zahartzaroa etortzen direnerako, nahiz lana galtzen denerako babesa bermatuta egon dadin.

2. Batasunean legezko bizilekua izan eta bertan batera eta bestera legez dabilen pertsona orok du gizarte-segurantzako prestazioak eta gizarte-zerbitzuak jasotzeko eskubidea, Batasuneko Zuzenbideak eta estatu bakoitzeko lege eta jokaerak ezarritakoaren arabera.

3. Gizarte-zerbitzuak eta pobrezia-erregulazioak aurka borrokatzeko, Batasunak aitortu eta errespetatu egiten du gizarte-laguntzak eta etxebizitza-laguntzak izateko eskubidea, baliabide nahikorik ez duten guztiei bizimodu ona bermatzeko, Batasuneko Zuzenbideak eta estatu bakoitzeko lege eta jokaerak ezarritako moduan.

35. artikulua

Osasunaren babesa

Pertsona orok du osasun-prebentzioa izateko eta osasun-sorospenaren onurak jasotzeko eskubidea, estatu bakoitzeko lege eta jokaerak ezarritako moduan. Batasunaren politika eta ekintza guztiak zehaztu eta betetzean, giza osasunaren babes-maila handia bermatuko da.

36. artikulua

Ekonomia-interes orokorreko zerbitzuez baliatu ahal izatea

Batasunak aitortu eta errespetatu egiten du ekonomia-interes orokorra duten zerbitzuez baliatu ahal izatea, estatu bakoitzeko lege eta jokaerak ezarritako moduan, Tratatuarekin bat etorritik, Batasuneko gizartearen eta lurraldearen kohesioa sustatzeko.

37. artikulua

Ingurumenaren babesa

Batasunaren politiketan, garapen iraunkorraren printzipioari jarraituz, bateratu eta bermatu egin behar dira, bai ingurumenaren babes-maila handia jasotzea, bai horren kalitatea hobetzea.

38. artikulua

Kontsumitzaileen babesa

Batasunaren politiketan babes-maila handia bermatuko da kontsumitzaileentzat.

V. TITULUA

HERRITARTASUNA*39. artikulua***Europako Parlamenturako
hauteskundeetan hautesle zein hautagai
izateko eskubidea**

1. Batasuneko herritar orok Europako Parlamenturako hauteskundeetan hautesle zein hautagai izateko eskubidea du bizilekua duen estatu kidean, estatu horretako herritarrek dituzten baldintza berberetan.

2. Europako Parlamentuko diputatuak zuzeneko sufragio unibertsal aske eta isilpeko hautatuko dira.

*40. artikulua***Udal-hauteskundeetan hautesle zein
hautagai izateko eskubidea**

Batasuneko herritar orok du bizilekua daukan estatuko udal-hauteskundeetan hautesle zein hautagai izateko eskubidea, estatu horretako herritarrek dituzten baldintza berberetan.

*41. artikulua***Administrazio ona izateko eskubidea**

1. Pertsona orok du eskubidea Batasuneko instituzioek, organoek eta organismoek berrari dagozkion kontuak alderdikierarik gabe, ekitatez eta zentzuzko epe baten barruan azter ditzaten.

2. Eskubide honen barruan sartzen dira, zehatza esanda:

a) pertsona orok du eskubidea kalte egin diezaiokeen bakarkako edozein neurri bere kontra hartu aurretik esateko duena entzun dakion;

b) pertsona orok du eskubidea berari dagozkion espedientea eskuratu ahal izateko, betiere, isilpekotasuna eta lanbide eta merkataritzako sekretua gordetzeko interes bidezkoak errespetatuz;

c) administrazioak bere erabakien arrazoiak emateko betebeharra du.

3. Pertsona orok du Batasuneko instituzioek zein ordezkariak beren eginkizunak betetzean berrari eragindako kalteen ordaina Batasunak berak ordaintzeko eskubidea, estatu kideetako zuzenbideen printzipio orokor erkideekin bat etorritik.

4. Pertsona orok jo ahal izango du Batasuneko instituzioetara Tratatuaren hizkuntzetakoren batean, eta erantzuna ere hizkuntza horretan jaso behar du.

*42. artikulua***Agiriak eskuratzeko eskubidea**

Batasuneko herritar orok eta estatu kideetako batean bizilekua edo sozietatearen egoitza daukan pertsona fisiko nahiz juridiko orok Batasuneko instituzio, organo eta organismoetako agiriak eskuratzeko eskubidea du, agiriaren euskarria edozein dela ere.

*43. artikulua***Europako Arartekoa**

Batasuneko herritar orok eta estatu kideetako batean bizilekua edo sozietatearen egoitza daukan pertsona fisiko nahiz juridiko orok du eskubidea Batasuneko instituzio, organo eta organismoen jardunean izandako administrazio okerreko kasuak Europako Arartekoari aurkezteko, Europar Batasuneko Justizia Auzitegia, bere jurisdikzio-eginkizunak betetzen ari dela, alde batera utzita.

*44. artikulua***Eskariak egiteko eskubidea**

Batasuneko herritar orok eta estatu kideetako batean bizilekua edo sozietatearen egoitza daukan pertsona fisiko nahiz juridiko orok du eskubidea Europako Parlamentuari eskariak egiteko.

*45. artikulua***Zirkulatzeko eta bizilekua hartzeko
askatasuna**

1. Batasuneko herritar orok du estatu kideetako lurraldean barrena askatasunez zirkulatzeko eta bertan bizilekua hartzeko eskubidea.

2. Tratatuaren xedatutakoarekin bat etorritik, estatu kideren bateko lurraldean bizilekua lege daukaten hirugarren herrialdeetako herritarrei askatasuna eman ahal izango zaie bertatik zirkulatzeko eta bertan bizilekua hartzeko.

46. artikulua

Babes diplomatiko eta kontsularra

Batasuneko herritar orok, herritar deneko estatu kideak ordezkari tzarik ez badu hirugarren herrialderen batean, beste edozein estatu kide tako agintari diplomatiko eta kontsularren babesa jaso ahal izango du, estatu horretako herri tarrentzako baldintza berberetan.

VI. TITULUA

JUSTIZIA

47. artikulua

Babes judizial eragingarria eta epaile inpartziala izateko eskubidea

Pertsona orok, baldin eta Batasuneko Zuzenbideak bermatzen dizkion eskubideak eta askatasunak urratuta ikusten baditu, babes judizial eragingarria izateko eskubidea du, artikulua honetan ezarritako baldintzak errespetatuz.

Pertsona orok du, legeak aldez aurretik ezarritako, eskubidea, epaile independente eta inpartzial batek zentzuzko epe baten barruan ekitatez eta jendaurrean bere auzia entzun dezan. Pertsona orok eska dezake beretzat aholkua, defentsa eta ordezkapena.

Doako laguntza juridikoa emango zaie baliabide nahikorik ez dutenei, justiziara benetan iristeko berme moduan beharrezkoa denean.

48. artikulua

Errugabetasun-presuntzioa eta defentsaren eskubideak.

1. Akusatu oro errugabetzat joko da harik eta bere erruduntasuna legez deklaratu arte.

2. Akusatu orori bermatzen zaio defentsaren eskubideen errespetua.

49. artikulua

Delituen eta zigorren arteko heinekotasunaren printzipioa eta legezkotasun-printzipioa.

1. Inor ezin izango da kondenatu egite edo ez-egite bategatik, egiterako orduan barne-zuzenbidean zein nazioarteko zuzenbidean kasu hori arau-haustea ez bada. Era berean, ezin izan-

go da ezarri arau-haustea egitean aplikatzekoa zena baino zigor astunagorik. Aldiz, arau-haustea egin eta gero legeak zigor arinagoa ezartzen badu, azken hori aplikatu behar da.

2. Artikulu hau ez da egite edo ez-egite baten errudun dena epaiketarik eta zigorrik gabe gelditzeko arrazoi izango, baldin eta, hark egingakoa egin zuenean edo egin beharrekoa egin gabe utzi zuenean, estatu guztiek aitortutako printzipio orokorren arabera delitu bazen.

3. Zigorren indarra ezingo da izan arau-hausteari dagokion neurritik gorakoa.

50. artikulua

Arau-hauste berberagatik zigorzuzenbidearen arabera bi aldiz epaitua edo kondenatua ez izateko eskubidea

Inor ere ezin izango da arau-hauste bategatik zigorzuzenbidearen arabera epaitu edo kondenatu, baldin eta lehenago, Batasunaren barruko lurraldean, arau-hauste horrengatik berarengatik absolbitua edo kondenatua izan bada legearen arabera emandako zigorepaimo baten bidez.

VII. TITULUA

GUTUNAREN INTERPRETAZIOA ETA APLIKAZIOA ARAUTZEKO XEDAPEN OROKORRAK

51. artikulua

Aplikazio-eremua

1. Gutun honetako xedapenak Batasuneko instituzio, organo eta organismoiei zuzentzen zaizkie, subsidiariorotasun-printzipioa errespetatuz, baita estatu kideei ere, baina Batasunaren zuzenbidea aplikatzen dutenean bakarrik. Horrenbestez, estatuak eskubideak errespetatu, printzipioak bete eta horien aplikazioa sustatuko dute, betiere, bakoitzak dituen eskumenen arabera eta Tratatuak Batasunari esleitzen dizkieten eskumenen muga barruan.

2. Gutun honek ez du Batasunaren eskumenetatik at Batasuneko Zuzenbidearen aplikazio-eremua zabaltzen, ez du Batasunarentzat inolako eskumen nahiz xede berririk sortzen, eta ez ditu aldatzen Tratatuetan zehaztutako eskumenak eta xedeak.

*52. artikulua***Eskubideen eta printzipioen irispea eta interpretazioa**

1. Gutun honetan aitortutako eskubideez eta askatasunez baliatzeko edozein murrizketa jartzen dela ere, lege ezarri beharko da, eta aipatutako eskubide eta askatasunen funtsezko edukia errespetatu egin behar da. Murrizketak ezarriko badira, heinekotasun-printzipioa errespetatuz betiere, beharrezkoak izan beharko dira eta Batasunak aitortutako interes orokorreko helburuekin edo besteen eskubideak eta askatasunak babesteko premiarekin bat etorri behar dute.

2. Honako Gutun honek aitortzen dituen eskubideak, Tratatuaren xedapenak direnean, Tratatuak ezarritako baldintzetan eta finkatutako mugen barruan baliatuko dira.

3. Gutun honetan jasotako eskubideek, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenean bermatutakoak diren heinean, hitzarmen horrek emandako izaera eta irispea izango dituzte. Xedapen hori ez da eragozpen Batasunaren Zuzenbideak babes handiagoa eman ahal izateko.

4. Honako Gutun honek estatu kideen konstituzio-tradizio erkidetik sortutako oinarrizko eskubideak aitortzen dituen heinean, eskubide horien interpretazioa aipatutako tradizio horiekin harmonizatuta egingo da.

5. Gutun honetako xedapenak, printzipioak jasotzen dituztenean, Batasuneko instituzio, organo eta organismoetan onartutako lege-egintzen eta betearazpen-egintzen bidez aplikatu ahal izango dira, baita estatu kideek onartutako egintzen bidez ere, bakoitza bere eskumenak baliatzen ari dela, Batasuneko Zuzenbidea aplikatzen dutenean. Egintza horien legezkotasuna interpretatu eta kontrolatzeko baino ezingo dira alegatu jurisdikzio-organoren baten aurrean.

6. Estatu kide bakoitzeko legeak eta jokaerak aintzakotzat hartuko dira erabat, honako Gutun honetan zehaztutakoaren arabera.

7. Gutun hau interpretatzeko jarraibideak erakuste aldera emandako argibideak behar bezala hartuko dituzte aintzakotzat Batasuneko eta estatu kideetako jurisdikzio-organismoek.

*53. artikulua***Babes-maila**

Gutun honetako xedapen bat ere ezin da interpretatu giza eskubideen eta oinarrizko as-

katasunen murrizgarri edo kaltegarri izateko, eta halaxe da, eskubide eta askatasun horiek aitortuta baitaude, bakoitzari dagokion aplikazio-eremuan, Batasuneko Zuzenbidean, nazioarteko Zuzenbidean, Batasunaren edo estatu kide guztien parte hartzeaz lotutako nazioarteko hitzarmenetan, eta, batez ere, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenean, baita estatu kideetako konstituzioetan ere.

*54. artikulua***Eskubideaz abusatzeke debekua**

Baldin eta jarduera edo egintza batek gutun honetan aitortzen diren eskubideak edo askatasunak suntsitzen baditu, edo eskubide edo askatasun horiei gutun honetan jasotakoak baino murrizketa handiagoak eragiten badizkio, gutun honetako xedapenetarik bat ere ezin izango da interpretatu jarduera horretara dedikatzeke edo egintza hori burutzeko bestelako eskubiderik dakarrelako ustean.

Supra testuak 2000ko abenduaren 7an aldarrikatutako Gutuna jaso eta egokitu egiten du, eta hura ordeztuko du Lisboako Tratatuaren indarrean jartzen den egunetik aurrera.

